Pedro Axular

GERO (DESPUES)

Argitalpena:

Aita LUIS VILLASANTE, O.F.M.

Euskaltzaindiko Lehendakaria

Apaingarriak:

Joxe Mari TELLERIA

JAKIN, ARANTZAZU

OÑATI, 1976

Jakin Bide

1. L. VILLASANTE: Axular-en Hiztegia.
2. NIMEGAKO KAT. INST.: Kristau Bidea.
3. P. AXULAR: Gero (Después).

Itzulpenaren, sarrera, ohar eta presentaerena:

© ED. FRANCISCANA ARANZAZU

Número de Registro: 1.692
Depósito Legal: S. S. 535/76
I S B N N.º 84-7240-060-3

IZARRA IRARKOLA. — POLIGONO 36. — USURBIL (GUIPUZCOA)

Axular: GERO

GERO

Seigarren edizio hau

EUSKALTZAINDIAren

babespean eta

GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXAren

laguntzarekin ematen da argitara

GERO

Esta sexta edición se publica
bajo el patrocinio de la

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
EUSKALTZAINDIA

y gracias al mecenazgo de la
CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

Seigarren edizioari

AITZINSOLASA

I

AXULAR, AXULAR-EN LIBURUA ETA EUSKAL LITERATURA

Hizkuntza landu denetan egon ohi dira obra buruzagi batzuk, hizkuntza hoietan goia jo dutenak, gorengo maila erdietsi dutenak. Ohorez inguratuak egon ohi dira. Eta hizkuntza hoietako semeek liburu hauk hartzen dituzte errepide bezala, bai mintzaira hura bera sustraitik ikasteko eta bai herriaren un eta arnasaz jabetzeko ere.

Guk horrelako obrarik izan baldin badugu, Axular-en Gero *da, segur baino segurago, hoietako bat. Denek aitortu dute hau dela euskaraz egundaino egin den libururik famatuena. Azal eta mamiaren arteko ezkontza eta batasun miragarria nabaitzen zaiona. Euskara jator oparoa borborrean dariona. Jakituriaz eta jakitate zabalaz handiroki jantzia. Gure euskal lurraren fruitu umo, ondu eta heldua. Liburu klasikoa, beraz, gure artean klasikorik baldin bada.*

Halarik ere, gure Euskal Herriaren iragana izan den bezalakoa izan delako edo, beste herriek beren klasikoak ohoretan dauzkaten bitartean, guk geureak aski zokoratuak izan ditugu, eta inoiz madarikatuak ere bai.

Noizbait hoietara begiak itzultzen hasiak gara, ordea. Eta bidezkoa zen bezala, Axular-en Gero *da gure klasikoen artean arrakastarik gehiena daukana. Gaur liburu huni buruz azterketak, tesiak, hiztegi lanak, argitaratze berriak eta abar egiten dira sekula egin ez diren bezala.*

Ez alferrik. Badu liburu hunek gozatasun bat, berezko jario etengabeko bat, behin ere ahitzen eta agortzen ez dena.

Axular-i zor zaion lehentasuna aitortzean —ia beti gertatzen den bezala— herri xeheak aurrea hartu zigun. Etnologi lanetan trebe den Satrustegi jaunak dioenez, bi sorgin mueta ezagun dira gure herriko folklorean: hots, emakumezkoak eta gizonezkoak. Emakumezoak alde batera utziz, besteok, gizonezkook, sail edo barruti guztiz berezia osatzen dute. Eta hau da hemen notatzekoa: gizonezko sorgin hoik gizaki historikoak direla, hezur-haragizko gizakiak izanak direla, alegia. Hor daude batez ere bi, Atarrabio *eta* Axular, *eliz gizonak biak, beren jakitate harrigarriagatik gure ipuinetako izaki bihurtu direnak. Bi izenok elkarrekin nahasturik dabiltza euskal ipuinetan, batari nahiz besteari istorio berberak eransten zaizkiolarik.*

Orain bada, Axular lurgain huntan bizi izandako gizona zela bagenekien, zeren gugandik hurbil xamar baita. Baina eta bestea? Nondik ilkia zen Atarrabio delako hori? Aita Julian Alustiza izan da hemen erbia eraiki duena (1). Eta hortarako okasioa eman dio Aita Pío Sagües-ek ateraberri duen edizio kritiko gotor galantak (2).

XIII. mende hondarrean eta XIV.aren aitzinaldean bizi zen Aita Atarrabia *delakoa. Frantziskotarra, Atarrabian, Iruiñe ondoan, jaioa. Itxuren arabera, estudioak Parisen egina, Eskolastiko handia, Juan Duns Eskotoren eskolakoa. Mirestekoa da nola iraun duen izen hunek gaur artio euskal folklorean, jakitateaz harrigarri izan*

---

(1) AZTIRI «Atarrabi apeza», *Aránzazu* 1975, 70. Lan hau Euskaltzaindiko batzarrean irakurri zen.

(2) *Doctoris Fundati Petri de Atarrabia sive de Navarra, OFM In Primum Sententiarum Scriptum, quod ad fidem codicum manuscriptorum critice edidit Dr. Pius Sagües Azcona;* 2 vol., Consejo Superior de Investigaciones Científicas; Madrid 1974.

direnen eredu eta iduri bezala. Aita Atarrabia nor eta noizkoa den jakinik, hortik atera dezakegu hartzaz mintzo den ipuinaren zahartasuna.

Askoz geroago, ordea, bere jakitateaz harrigarritzat joa izan den beste gizon bat azaltzen da gure artean, Pedro de *Axular, eliz gizona hau ere, eta hau ere ipuinetako gizona bihurtzen du herriak. Eta handik harat Atarrabi eta Axular, anaia bixkiak bezala, bi-biak nahasiak eta elkartuak daude euskal folklorean.*

Herri xehearen ondotik, euskal literatura zaharraz zerbait arduratu diren guztiak ohartu dira haren liburuaren balioaz eta aparteko dohainez. Beste toki batean egina dut bilduma ttipi bat Axular eta Axular-en liburuari buruz eman diren iritzi eta laudorioena (3). Han esandakoa ez noa berriz errepikatzera.

Joanes Etxeberri Sarakoarena aipatuko dut, ordea, zeren hizpidea ematen baitit nahi dudan puntuari lotzeko.

Sarako Etxeberri midiku jaunak, Azkoitian bizi zenak, XVIII. mende hasieran egin zituen bere idazlanak. Euskararekin gutti bezala zaletua, euskarak mendez-mende izan duen zorte eta patu hitsaz kezkatua azaltzen zaigu. Euskarari etorkizunean bide hobeak zabaldu nahi dizkio. Orain bada, sail eta eremu denetan —berak dioenez— aitzindari, gidari eta buruzagi baten beharra izan ohi da. Euskara, berriz, hor dago bere kasa eta bertan behera utzia, inoren haberik eta jabetasunik gabe «zurtz triste jabegabeen egitekoak, eta untzi Pilotu gabe galdu ordean dabiltzanak» ibili ohi diren gisa. «Gure Euskara zurtz jabegabeko, eta hainbertze mendez-mende arrokapean, itsaso, eta uhuinpean galdu ordean bezala dabilan hunentzat, nahi nuke bilatu aitzindari eta buruzagi on bat bakarra» (4). Zer esanik ez Axular dela Etxeberrik euskararentzat nahi zuen aitzindari buruzagia.

Etxeberriren hitzok materialki eta hitzez-hitz hartu gabe ere, bada hemen, nik uste, harrotzea merezi duen puntua.

---

(3) *Axular: Mendea, Gizona, Liburua;* Jakin 1972; 105 orrialdean.

(4) URQUIJO (JULIO DE) *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri* (1712), Paris 1907; 59 orrialdean.

Joan den mendeko linguistek oso goian jartzen zuten hizkera mintzatua, berez bezala gizonaren ezpainetan sortzen eta loratzen dena. Eta hortik —eta besteak beste— etorri da beharbada gure artean ere euskara mintzatua eta bereziki euskaldun ikasigabearen euskara aparteko modu batean eta alde guztiz abonatzea; ikasiena eta idazleena, berriz, pixka bat gutiestea.

Egia da hizkuntzak hitz egiteko eta ezpainetan erabiltzeko eginak direla, eta mintzo ez badira, erabiltzen ez badira, orduan ez direla deus ere. Hilak dira, alegia. Egia da halaber euskaldun huts garbiaren hizkera bizitik asko eta asko ikas dezakegula eta ikasi beharra dugula denok.

Baina hau hauziaren alderdi bat, aurpegi bat baizik ez da.

Damuz, gizonoi gaitz egiten zaigu hauzi baten aitzingibel guztiak batera gogoan edukitzea. Ezkerrera begiratzen denean eskuinean dagoena ezin ikus. Haatik, alderdi guztiak hartu behar dira kontuan.

Egunoroko hizkera mintzatua aberats da, jori da, zenbait eremutako gauzak azaltzeko ongi trebatua egon ohi da. Baina dagoen-dagoenean eta beste gabe harturik, gizarte har-eman zabalagoetarako, kultur tresna bezala erabiltzeko, idatzizko zereginetan mintzabide bezala harteko, ez da gai. Hortarako landu beharra dauka. Disziplina baten pean jarri beharra. Zurginaren alkian egon eta argitu eta findu beharra.

Zurginak ere oianeko egurra hartu, zurgin alkian jarri eta landu ohi du, eta hala egur hari lehen ez zituen balioak eta gaitasunak eransten dizkio. Eta berdin egiten du harginak harrobiko harria landuz, ola gizonak burdinaz, eta abar.

Alde hori bera da landu gabe den hizkuntza eta landua ian denaren artean. Basatien hizkuntzak ahotan erabiliak dira, aberats eta joriak dira, zenbait gauza adierazteko egoki dira; baina basa itxura eta egoera horretan dauden bitartean, beste gabe, gizarte har-eman zabaletarako, idatzizko zereginetarako, eskola tresna eta kultur tresna izateko, ez dira egokiak. Eta egokituak ez daudelako, hortik datorkie ahulezia, zatikaturik egotea, batasunik eza, gainbehera joatea eta hiltzea. Eta amilka

joate hori gertatzen zaie bereziki landuak direnen aldamenean daudenean. Landuak landugabea azpiratzen eta irensten du.

Landutzat jotzen diren hizkuntzen artean hor dugu, adibidez, frantsesa. Gizarte har-emanetarako berebiziko gaitasuna eta egokitasuna erdietsi duen hizkuntza. Baina abantail hoik ez zaizkio berez etorri. Disziplina bat jasan beharra izan du. Zurginaren aulkian luzaz egon beharra.

XVII. mendean lortzen du frantsesak bere itxura landu eta egoki hori. Axular-en garaian edo piska bat geroago, hain zuzen. Orduan dugu adinetara heldua. Horrek ez du esan nahi gero ere, eta etengabe aldatuz, egokitasun berriak hartuz joango ez dela. Baina orduan hartu zuen trenpea, egitura eta sasoia ez du gehiago galduko.

Badakigu, gainera, nola egin zen frantsesaren egokitze hori. Gorteko jende apainak eta gizartean buruz jantzia zenak hartu zuen beregain kargu hau, hots, frantsesa bere ametsen eta premien neurriko tresna bihurtzeko kargua. Jende apain horren areto eta bilkuretan hizkuntz hauziek zuten lehen tokia. Eta aretoetako eztabaida haietarik atera zen frantsesa finkatua eta lege jakin batzuen azpian jarria.

Jaun eta andere apain haien iritzitan adimendu edo arrazoiak izan behar zuen gizonaren gidari. Beraz, printzipio huni obeditu behar dio hizkuntzak ere. Eta erregela hunen arabera hiztegia murriztu zuten, hitz desegoki edo alferrikoak kenduaz eta hizkuntzan argitasuna, zehaztasuna eta ordena dohainik beharrezkoenak bezala jarriaz. Ideal huni beroni jarraikiaz etorriko dira gero idazleak, Akamedia, gramatikalariak etab. Eta ezaguna eta aitortua da frantsesean gaur artio marka hori.

Egia da ondoko mendeetan bere gora-beherak izan dituela frantsesak, XVII. mendeko gizon-emakume apain haien hertsikeria eta ikuste laburra gauza askotan gainditua izan dela, baina oro har, frantsesak orduan hartutako bidea eduki du gerorat ere (5).

Hizkuntza landu guztiek ez dute frantsesaren bide beretik jo, noski. Inglesean edo italianoan idazle handi

---

(5) W. VON WARTBURG *Evolution et Structure de la langue française,* Berne 1950; 180 eta 292 orrialdeak.

baten eragina (Shakespeare, Dante) ageri da indar nagusi bezala. Gaztelaniak ere egokitze hortara heltzeko, bere bide berezia izan du (6). Baina denetan ikusten dugu gauza bera: herri hizkuntza soila ez dela gai idatzizko zereginetan erabilia izateko, eskola bidez zabaldua eta irakatsia izateko, kultur tresna eta mintzabide bezala enplegatua izateko. Hortarako behar du halako plegu berri bat, moldadura eta landura bat hartu.

Nik esango nuke hizkuntza landuetan ezagun direla bi indar, etengabe elkarrekiko har-emanetan eta borrokan bezala ari direnak, eta bion tirabira hortarik datorkie hizkuntzoi oldarra, iraupena, eta bai aurrerapena ere. Bi indar hoik dira, alde batetik, ideal bezala hartu den erregela, lege edo ereduari leial egotea. Hau da indar estatikoa dei genezakeena, literatur tradizioarena. Bestetik, berriz, bada indar dinamiko bat, aldakuntzak onartzen dituena. Ideia berriek, ikuskera berriek, sentikortasun berriek eta aho-hizkuntzaren aldaketek nahi-eta-nahi-ez hizkuntza eta idaztankeraren aldatzea berekin dakarte. Baiña indar hunek besteaz topo egiten du, eta orduan bien tirabiratik dator neurria, hots, alde batetik norberaren identitatea ez galtzea, eta bestetik aitzinatzea, aurrerapen egitea. Beti bat iraun eta haatik berriztatzeari aterik ez hertsi: horra behar dena.

Gure artean euskarari lege bat, disziplina bat emateko egin den saiorik eta ahaleginik handiena joan den mende azkenean eta gurearen aitzinaldean egin da. Denok ditugu gogoan horretan saiatu direnen izenak: Arana, Azkue, Txomin Agirre, Lizardi, Altube, Orixe, eta abar.

Halako aro berri bat sortzen da orduan euskal literaturan. Lanean ari diren langileok badute gogoan ideal bt, jomuga eta xede bat, eta berek amestutako lege horren arabera lantzen dute euskara. Ez dira idazleak bakarrik. Badira gramatikalariak ere, bada Euskaltzaindia, badira irakasleak, etab.

---

(6) LAPESA (RAFAEL) *Historia de la Lengua Española*, 5.ª ed., Madrid, 1962.

Mobimendu hunek bere fruitu umoak eman ditu. Lan hori ez da baztertzekoa eta are gutiago gaitzestekoa. Hau aitortu beharrezkoa da, zeren askotan botatzen baitigute aurpegira eskertxarrekoak garela lan guzti hori burutu zutenekin. Ez da hori horrela. Egin den lanaren balioa aitortuz, urrats bat gehiago egin dadin nahi genuke: hori da guztia. Orduan gure artean —Hego Euskal Herrian, alegia— sortu zen mobimenduan halako muga eta hertsikeria batzuk nabari baitira, eta hoientzat osatze batzuk bilatzen ditugu. Ez da besterik. Horrekin ez dugu jaun hoien lana madarikatzen; aitzitik, haintzat hartzen eta aurrera eraman nahi dugula iruditzen zaigu.

Literatur mobimendu huni ezagun zaizkion mugen iturburua zein den salatu nahi izatez gerotan, izen hunekin egingo nuke: apartekotasunaren konplejoa. *Bai. Apartekotasun konplejo batek hartua ageri zaigu euskalduna azken mendeotan. Berriz ere diot: Hego Euskal Herriaz ari naiz, zeren garai hortan bertan Ipar Euskal Herria ez baitoa bide beretik.*

Garai hortako euskaltzaleek, bada, ondoraino sartua daukate euskara zerbait apartekoa dela, berezia, arras diferentea eta beste hizkuntzak ez bezalakoa. Beraz, aldameneko hizkuntzekin ez du eta ez du izan behar deus ikustekorik.

Eta hortik etorri da lehenagoko euskal literatur tradizioaz —eta bai neurri batean herriko euskaraz ere— etena egitea, lokarriak haustea. Bai herriko euskara eta bai literatura zaharra ere kutsaturik zegoen. Ezin har zitekeen zimendutzat. Dena behar zen berri, dena berezi eta besteen bideetarik aldendua. Baina jokaera hau laster ikusi zen gehiegizkoa zela eta hizkuntza bera inorarik gabe, besoz eta zangoz katigatua, uzten zuela. Batez ere literatura zaharra bazterturik uztea geuron buruon eta hizkuntzaren kaltetan gertatu da.

Gizonak, lehen esan dudan bezala, ezkerrera begiratzean eskuinean dagoena ez du ikusten, eta hauzi baten aitzingibel guztiak presente edukitzea kosta egiten zaio. Hunelako zerbait gertatu zaigu huntan ere. Euskara hizkuntza berezia eta etorkiz aldamenekoekin senidetasunik gabea dela bat ere ukatu gabe, hor da oraino hauzi hunen beste alderdia: Europako hizkuntzak mendez-

-mende elkarrekiko har-emanetan bizi izan direla; ekarri duten bidea eta ezagutu duten eboluzioa guztiz antzekoa izan dela. Beraz, bai hiztegian, bai joskeran, esaldiak muntateko maneran eta abar gauza batzuetan euskara beste hoiekin bat etortzea ez da mirestekoa (7). Eta XX. mende huntan, euskarak mendez-mende ekarri duen bide hori, eginik daukan altxorra, ezin du bertan behera utz. Europako bazter huntan kokaturik gaudela, ezin dugu hemen ez bagina bezalako jokorik egin.

Huntan gure idazle klasikoek bat ere konplejorik gabe, naturaltasun osoz idatzi zuten, eta hargatik, hain zuzen, mesede ederra egin diezagukete. Euskararen errepide zabala zein den erakustera ematen digute. Herri euskeraren bidetik ere oso hurbil daude gainera (zorioneko herribidea, alajaina!).

Guri mesede ederra egiten digutelakoan ari gara geure idazle zaharrak berpiztu nahiz. Ez noski haiei itsu-itsuan eta materialki lotuak gelditzeko.

Idazle zahar klasiko hoien artean toki hautatua zor zaio Axular-i. XVI. mendeko bigarren erdian Urdazubi-n (Nafarroan) jaioa, Espaini aldean egin zituen bere estudioak. Kultur aldetik hemen ditu sustraiak. Gauza jakina denez, gaztelaniak orduantxe, hain zuzen, izan zuen bere Urrezko Mendea eta Lorealdia. Gizon egina eta adinetara heldua zelarik, Axular Ipar Euskal Herrira dihoa. Donibane Lohitzunen bizi da eta euskal predikari bezala ospe handia bereganatzen du. Handik urte guttira Sara-ko erretorgoa eman zioten. Eta bere azken urteetan bere liburua, Gêro, *argitaratu zuen (1643).*

Badakigu Donibane-n Axular-en denboran bazela euskaltzale eta euskal idazleen taldetxo bat eta hoiekin har-emanean zela Axular.

Inoiz esan du Mitxelenak gure literatura zaharrean liburu «burjes»ik edo burjesentzat egina denik baldin bada, Axular-en Gero dela hori.

---

(7) PERUZZI (EMILIO) *Saggi di Linguistica Europea;* Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Salamanca 1958.

«Burjes» *hitz hunek badu gaur halako sunda edo kutsu txarra. Nolanahi den, gizarte erdi mailako jende diruduna eta zerbait eskolatua dena: berez hori esan nahi duela uste dut. Eta horrelako zentrurik orduan Euskal Herrian inon baldin bazen, Donibane eta inguruetan zen. Eta horrelakoentzat eginik dago* Gero-*a.*

Donibanek orduan lorealdi edo jasoaldi polit bat ezagutu zuen. Marinel jende hark dirua naharo irabazten zuen. Hori Aita Gamarrak idatzi zuen Arantzazuko kondairatik ere badakigu. Lapurditik Arantzazura erromes etorri ohi zen jendeagatik, hara zer dioen: «Vienen... trayendo muchas limosnas a esta santa casa, de plata y oro..., con que viene este convento a tener gran socorro de la nación francesa» (8).

Garai hartan edonork ez zekien irakurtzen. Eta irakurtzen ez dakitenentzat liburuek jai daukate, bistan da. Gero *bezalako liburua erosteko —luze-laburrez handi edo behintzat dexente xamarra den liburua— sosa ere behar zen, eta hori ere ez zeukan nornahik. Bai ekonomiaz eta bai eskolaz ere zerbait jantzirik zebilen euskal jendea eskaten du, bada, liburu hunek. Eta horrelakoa, beste inon baino gehiago, Lapurdiko itsas hegian zegoen orduan.*

Gero *liburua, erlijio liburu bat da. Azaltzen duen gaia kristau fedearen ikuspegitik hartua da: hots, salbamendua, gizonaren salbamendua. Ez seaskatik hilobira bitarteko epe labur horretan kokaturik legokoen salbamendua, baizik eta akabatzerik izango ez duen bizitze horrena. Hori erdiestea du gizonak bere egitekorik nagusiena. Baina gizonak, nahiz eta giristino izan, maiz, bere jaidura eta irritsa gaiztoek bultza eginik, perilean jartzen du bere salbamendu hori eta bekatutan bizi ohi da. Geroko uzten du ontzea, Jainkoagana bihurtzea. Hala bere burua engainatu eta betiko galtzeko zorian jartzen du.*

Beren konbersioa geroko uzten dutenei zuzendurik dago, bada, liburua. Zer-nolako erokeria egiten duten erakutsi nahi die, eta bekatuzko bizitzea uzteko erreme-

(8) GAMARRA (GASPAR DE). *Historia de Aránzazu*, 1648 urtean idatzia; Vitoria 1966. *Scriptorium Victoriense* aldizkarian agertu zen eta liburuska bezala ere bai. Aldizkarian 1965. urtean agertu zen.

dioak eta bideak eskeintzen dizkie. Gero *titulu horrek berorek ederki baino ederkiago liburuaren gaia aditzera ematen digu. Bai, titulutik beretik hasiaz, liburu hau kausitze zoriontsu bat dela esan behar da.*

Liburua bere gai edo sujet hunen gainean trinko eta borobilki taxutua dago. Gai nagusi horren barnean huna hemen xeheki tratatzen dituen puntu konkretuak: Sarbide gisako bi atarikoen ondoan (Bertrand d'Etxauzi eskeintza eta Irakurleari zuzendutako hitzaurrea, alegia), hauk dira puntuok: Alferkeria, eta gerotik gerora luzatzearen kalteak (XVI. kapitulura artio). XVI. kapitulutik aitzina, berriz, hunako puntu konkretuok azaltzen ditu, bata bestearen ondotik: Limosna egitea (XVI-XVII); Justiziazko obrak egin beharra (XVIII); Juramentuak egiteko usantza gaiztoa (XIX); Haserre eta Etsaigoak (XX-XXVII); Etsaiari barkatzea (XXVIII-XXX); Haragizko bekatua (XXXI-XLIV); Kontzientzia duela gizonak bere argi gidaria (XLV-XLVI); Perseberantziaz edo bertutean irauteaz (XLVII). Gero erabakikizun hau jartzen dio irakurleari: Ea zein bide den ibiltzen errazago, zeruko bidea ala ifernukoa? (XLVIII-L). Ondoren kofesioaz ari da (LI-LII). Bekatariak bekatu eginez munduko izaki guztiei bidegabe egiten diela (LII-LV). Eta azkenik, ifernuaz (LVI-LX).

Horra laburkzi adierazirik Axular-ek harrotzen dituen puntuak. Luze eta hedatsuki tratatzen ditu gauza guzti hoik.

Interesgarri da gai bat bukatzean eta besteakin hasi behar duenean loturak eta lokarriak nola egiten dituen ikustea. Gai bat bukatzerakoan dotrina guztia laburpen trinko batean emango dizu eta hurrengo kapituluan hastera doanaren berri emango du, bien artean den erlazioa eta zer-ikusia adieraziaz. Eta inoiz liburugintza guztiari agintzen eta batasuna ematen dion xedea ere gogoratuko dizu. Ikus, adibidez, XX. kapituluaren hasieran nola egiten duen «lehenbizitik hartu dugun» xede horren aipua (Ax 181). Liburu guztia xede horri buruz dago abiatua eta zuzendua.

Arrazoiketa egiteko grina eta eztabaida-zaletasuna nabarmenkiro azaltzen dira liburuan. Axular beti dago prest irakurleari arrazoiak emateko, bekatariak asma-

tzen dituen arrazoibide eta aitzakia faltsoak desegiteko, eta abar. Eskolastiko on gisa, badirudi munduan eta are fedearen barrutian diren ilungune guztiak ere argitu, barnatu eta zulatu nahi dituela. «Lógico-discursivo» deitzen den idaztankera edo jeneroa du, bada, gure idazleak. Estilo huntan eratutako liburu umoa, arras konplitua utzi digu. Bere haria beti zuzen eta artez eramaten daki. Bere estilo horretan prosagintza lana maisuki eta konplituki egiten daki.

Irakurlearen gogoa eta interesa beti erne mantentzeko, erudizio zabal-harrigarri batek eman ditzakeen baliamenduez baliatzen da. Autore zahar eta berri, jentil eta kristauak aipatzen ditu ugaritasun handiz. Antikitateko pasadizoak, piztien eta animalien ohituretarik ateratako etsenpluak, denak datozkio ongi, eta denetara joko du, baina beti bere irakaspuntua argitzeko on diren neurrian, eta ez bestela.

Eskritura Saindutik hartutako pasarteek dute lehen tokia Gero-*ren aipamenetan. Eta hoik azaltzerakoan bere garaiko exegesi modua erabiltzen du, noski. Autore zahar haien exegesia frankotan bitxi eta irrigarri iruditzen zaigu gaur, baina exegesia hala-holakoa izanik ere, fedearen zentzua gidari dutelako eta fedearen zentruari gogotik atxikiak direlako, ez dira errebelatzen, egiazko helburura heltzen dira beti ere —funtsean behintzat, eta axola gutiko ttipikeria batzuk kenduz—. Gure egunotan, aldiz, sarritan beste aldera gertatzen dira gauzak: exegesia aurreratuagoa izanik, helburu makurretara lerratzea. Izan ere, fede zentzuak du hemen exegesi soilak baino munta gehiago.*

Gainerakoan, kristau fedea beti bat eta bera izanik ere, herri bakoitzean eta mende bakoitzean orduko kulturaz elkartzen, txertatzen, haragitzen eta ezkontzen bezala da. Hargatik herri bakoitzeko eta mende bakoitzeko kristau idazleek beren giroko eta sasoiko gozoa eta zaporea hartzen dute. Teologo batek esan duenez, mende bakoitzean kristau fedea zertan berri batera aldatua bezala izaten da (9). Eta hortik heldu da, mende eta eskualdeen arabera, idazle hoik beren alde eta aldiko kutsua

(9) RAHNER (KARL) «El problema de la evolución de los dogmas», *Mysterium Salutis* I, 868.

izatea. Axular-ekin ere hori bera gertatzen dela esan beharrik ez dago.

Bere garaiko haurra da Axular, eta hori ezagun da haren liburuan. Beharbada esan behar da, haatik, pixka bat atzeratua zebilela. Berak bere estudioak egin zitueneko aldia gogoratzen digu; XVI. mendeko kultur giroa gogoarazten digu, alegia, XVII.ekoa baino gehiago. Europako Humanismoa maite du. Antikitateko jakinduriaren iturrietara jotzen du eta hoietarik gogotik edaten du. Axular-en garaiko idazleek, nork bere herriko hizkuntza lantzeko egiten zutena —hau da, Grezia eta Erromako ereduak ispilutzat hartu—, hori bera egingo du berak ere euskara lantzeko. Zoritxarrez beste herrietako semeek beren idazle hoien jokaera eta obrak eskertu eta txalotu dituzten bitartean, guk aldiz txartzat jo eta gaitzetsi egin dugu geure hoiena. Baina garaia heldu da, nik uste, ikuste labur hori gainditzeko, eta haiek gure hizkuntza trebatzen eta oro-mintzo bihurtzen egin zuten lan ederra aitortzeko.

Eta idazle hoien artean Axular dugu lehena. Begi bata Europara itzulia zuen, hots, orduan Europan modan zeuden ereduetara; bestea, berriz, badakigu non duen kokatua: bere herriko gizon euskaldunetan. Haientzat egiten du liburua eta haik ditu gogoan. Diren bezalakoak hartzen ditu. Axular ez da lainoetan galtzen diren hoietako gizakia. Hezur-haragizko gizaki konkretuak ditu begien aitzinean, haientzat ari da lanean. Hoik ezagutzen ditu, maite ditu eta Jainkoagana eraman nahi ditu. Euskal lurrean ernea eta euskaraz pentsatu eta mamitutako liburua da Gero. *Euskal giro hartan arrunt ziren irudi, ikuskizun eta ohituren oiartzun gozoa dakarkigu. Euskal esaera, erran komun eta errefrauak. Iria, oiana eta itsasoa, giza ofizioak, animaliak, piztiak, egaztiak, xomorro-mamutxak, landareak, zuhaitzak. Alferrak, pobreak, mundu ttipi hura bere argi eta ilunguneekin. Eta azkenik, betiereko gizona bere jaidura, grina eta irritsekin: horra zer ageri zaigun liburuan.*

Gure lurraren fruitu jatorra da, beraz, liburu hau, eta era berean kristau fedeak, euskal herrian txertaturik, eman duen fruitua.

Horrek ez du esan nahi beste tokietarik hartu ez duenik. Gizon jakintsua zen Axular. Handik eta hemendik gaiak garraiatzen ditu, hartzen eta beretakotzen ditu, alegia. Zenbait puska Fr. Luis de Granadagandik hartuak dituela frogatu da (10); baina ekarri guzti hoietaz bere xederako on den neurrian eta mailan baliatzen da, eta denari halako euskal aire bat ematen daki.

Behin baino gehiagotan esan da lur arras dabilela beti Axular, ez dela teilatu zale. Kristau bizitzearen saiets edo alderdi negatiboak azaltzen dituela positiboak baino areago. Baina kontuan eduki behar da bi partetan partitua pentsatu zuela hark bere obra. Lehenbizikoa bekataria bekatutik atera arazi eta konbersiora eramateko. Bigarrena konbertitu den gizon hori kristau bizitzean barna aitzinatzeko, gidatzeko eta bultza arazteko. Bi parte hoietarik lehena berez ere aski negatiboa da (edo hala har daiteke, behintzat); bigarrenak, berriz, kristau bizitzearen alderdi arrai eta positiboak agertu beharko lituzke. Zoritxarrez, eta itxuren arabera, Axular-ek lehen partea bakarrik eman zigun. Prometatzen duen bigarren partea egin izan balu, agian beste irudi argiago eta osoago bat geldituko zitzaigun. Baina lehen partean gizonaren bekatuak aipatzen eta hoietarik irteteko bideak erakusten ematen du denborarik gehiena. Aukeratutako planak berak hartaraturik, noski (11).

Nolanahi den, Axular ez da gizon hitsa. Utzi dizkigun kontakizun, irudi eta ateraldietan irrifarre gozo baten aierua somatzen da. Umore txipristinak ere han-hemen liburuan barrena barreiaturik daude, eta hori, segur baino segurago, izpirituzko osasun onaren seinale da.

Hunelako liburu bat, hizkuntzaren dohainak eta mamiaren giharra dohatsuki elkarturik dauzkana, balio trinko eta iraunkor baten jabe da. Etorri gozo etengabekoa eta ezin agortuzkoa du. Berez mara-mara, sekula ahitu gabe, ura darion iturri baten pare da.

Euskara sustraitik ikasteko hunelako liburu baten adiskide izatetik datorkeen mesedea, nik esan nezakeen

(10) Ikus *Axular: Mendea, Gizona, Liburua,* 132 orriald.

(11) Haatik, bi parteok liburuan sartuak eta nahas-mahas emanak daudela uste duenik ere bada; hala Intxauspe, Lafitte, etab.

baino handiagoa da. Zer harrobi joria, bai hitzetan, esaldietan, itzuliketan, bai izen eta aditz jokoetan! Aditz bakoitzaren errejimena eta erabilkera ikasteko, zer maisu paregabea! Idatz zereginetarako behar den prosa, subordinazio sistima osoa eta abar, guztiz egina eta hazia ematen digu. Zoritxarrez, eta geure kaltetan, geure aurreiritzi makur batzuengatik, haren emaitz oparoa ez dugula behar adina estimatzen jakin. Noizbait zentzatuko eta euskararen errepide zabalean sartuko ahal gara!

Axular ez da, inondik ere, estekatuko gaituen katea. Ez du izan behar. Baina bai, bada idatz hizkuntzari hildoa zabaltzeko behar dugun maisuetarik bat. Eta horrek ez digu urrats bat aitzina emateko, den gutiena ere, katigatzen. Gorago aipatu ditudan bi indar hoik —estatikoa eta dinamikoa— elkarrekin tirabiran egotetik eta borrokatzetik heldu da hizkuntzaren osasuna eta aurrerapena.

XVII. mendeko euskal literaturak —eta bereziki Axular-ek— nik esango nuke aparteko balioa eta esanahia izan dezakeela guretat. Toki hertsian dagoenari haize freskoak dakarkion mesedea egin diezagukeela, alegia.

Izan ere, literatura hori, guri sortu eta sartu zaizkigun konplejoak baino lehenagokoa baita.

Larramendirekin (XVIII. mende erdia pasatuz gero) ereiten eta zabaltzen da gure konplejoen hazia: erderatiko hitzak direla, euskal hitz garbiak direla eta ez direla, gero erreakzioz beste maturrera joatea, eta abar. Handik harat geure konplejo hoietarik nola irten ez dakigula gabiltza. Eta hitzen arloan gertatu zaiguna, orobat edo areago gertatu zaigu joskeraren hesparruan.

Orai bada, geurok geure buruari jarri dizkiogun sare-lakioetarik ilkitzeko, lehenagoko idazleetara jotzea bezalakorik ez dago. Hori izango dugu sendabide. Idazle hoik konplejorik ez duenaren naturaltasunaz ari dira. Ez dugu ahantzi behar Ipar Euskal Herrian Hego aldekoan baino bi mendez goizago iratzarri eta euskara lantzen hasi zirela. Guri hain barnera sartu zaizkigun kezka eta katramilak, artean azaldu gabe zeuden.

Krisi hau piztu baino lehenagokoa dugu, bada, Axular. Prosista jator, zabal, paregabekoaren dohainak eta markak ezagun dira, ezin ukatuzko eran, haren liburuan. Etxea beteko idazlea. Guzti horrengatik, hain zuzen, aparteko modu batean on eta osasungarri izan daiteke guretzat. Gure haize mehe-kirastuari berritu bat emateko propio eta berariaz sortua.

Ez ote da horrelako zerbait amonatxo hark usnatu eta bere erara esan zuena? Iparralde-k —Aita Justo Mokoroa-k— kontatzen digu pasadizo hau (12).

Zilegi izan bekit Iparralde-ren hitzok hemen jasotzea:

«Motel —esaten zidan gutxi gora bera— alperrik ari aiz; oraingo liburu berri oik izketan bildurrez ari danen batek egiñak ziruditek, batzuk beintzat: motelak dituk, gaitzik (sic) gabeak, txakilak. Beste batzuk, berriz, geienak, *indarraren indarrez itzak elkarri malluka bezela josita moldatuak. Ire garbizale oien artetik ez didak bakartxo bat aukeratuko* Geroko Gero-*ren parean jartzeko gayik...* Geroko Gero *bezelako libururik egundaño!»*

Ez zuen arrazoi faltarik gure herriko amonatxo hark. Naturaltasuna, berezkotasuna, euskal sena, ugaritasuna, etorria, jario gozoa: eskas zaizkigun dohain hoietan apartekoa dugu Axular.

Nahiko ahal du Urdazubiko semeak gurekin itsu-aurreko ofizioa egin! Galdua dugun errepidea berriz edireiteko lanean lagunduko ahal digu! Halabiz.



(12) Ikus «Begira oni!», *Argia*, 1925, otsailak 15.

II

ORAIKO ARGITALPENAREN XEHETASUNAK

Idazkera.—*Gero-ren edizio hau ez da presiski edizio kritiko bat. Horretarako lehen edizioaren testua dagoen-dagoenean eman beharko litzateke. Eta guk, egungo irakurleari zerbitzu egin nahiz, ortografia aldatu eta gaurkotu dugu neurri handi batean. Zenbait puntutan, ordea, Axular-en bide berezia errespetatu behar genuela iduritu zaigu.*

Ortografi aldatzea egitean, transliterazio sistima jakin bat, beti bera, erabili dugu. 1964ko edizioan eta Axular-en Hiztegia-*n erabilitako hura bera.*

Sistima hori, hitz gutiz, hunela da. (Hemen espresuki aipatzen ez diren gauzak jatorrizko testuan bezala ematen direla aditzen da).

H letra.—*Axular-ek letra hau erabiltzen duen kasuetan, guk «h» hori mantendu egin dugu:* behar, anhitz, hartu, oihan. *Hortaz gainera, Axular-ek kontsonante bikoitz hauk erabiltzen dituenean: «cc», «pp», guk ondoko lapurtar tradizioaren arabera, era hunetara aldatu ditugu: «kh», «ph». Adibidez:* bekhatu, aphur. Thomas, philosopho, theologo *eta horrelako kultismoetan, H-a kendu egin dugu.*

X letra. — *Axular-ek badaki letra hau erabiltzen:* gaixto. *Axular-ek erabili ohi duen guztietan, guk mantendu egin dugu. Hortaz gainera, hark «ch» darabilenean, guk multzo bikoitz hori «X»-ekin azaltzen dugu beti:* xori, xalupa, ixil, *eta abar.*

Tch.—*Multzo hirukoitz hori guk beti «tx» multzo bikoitzaz azaltzen dugu:* etxea.

K letra.—*Axular-ek badaki letra hau noizbehinka erabiltzen:* khen, ukha. *Berak erabiltzen duen guztietan guk atxiki egin dugu. Hortaz gainera, hark «ca», «co», «cu», «que», «qui» jartzen duenean, guk beti era hunetara ematen dugu: «ka», «ko», «ku», «ke», «ki». Eta baita* victoria, victorios, Crisaorio *eta hunelakoak ere, «k»-kin ematen ditugu:* biktoria, biktorios, Krisaorio.

Axular-ek «ce», «ci» jartzen duenean, guk beti «ze», «zi» jartzen dugu: zeru.

Eta Axular-ek «ça», «ço», «çu» jartzen duenean, guk beti «za», «zo», «zu» aldatzen dugu: Zuberoa. *Beraz, «c» letra erabat eta guztiz baztertu dugu, bai izen arrunt eta bai izen propioetan ere.*

V letra.—*Axular-ek noizbehinka erabiltzen du «v» letra:* venturaz, evangelio, virginitate. *Guk «b»-kin ematen ditugu hark «v»-kin idatzitako hitzak. Izen propio batzuetan, ordea, inoiz mantendu egin dugu:* David.

Ge, Gi.—*Axular-ek «ge», «gi» jartzen duenean, guk «je», «ji» ematen dugu:* imajina, ebanjelio, Ejipto.

Gue, Gui *beti* ge, gi. *Adibidez:* gizon, gerla, errege, giristino. *Baina ez* higuin *eta hunelakoetan.*

Y grekoa *kendu eta beti «i» jarri dugu:* etzatekeien.

B *eta* P-*ren aitzinean Axular-ek zenbait aldiz «n» jartzen du, eta beste batzuetan «m». Guk beti «n»:* kontenplazino, konpainia.

Bustidura aditzera emateko kontsonante bikoitzak erabiltzen dituenean, guk erregela hori atxiki egin dugu: gizontto. *Beste kontsonante bikoitz batzuk, bat ere balio fonetikorik ez dutenak, kontsonante bakunaz agertzen dira gure edizioan:* ase, Nafarroa, diferent, Tomas, teologo.

Axular-en ortografiak badu berezitasun bat oso nabaria eta ezaguna: hiru kontsonantedun multzoak maite ditu, ez dakigu segur zergatik; beharbada, hitzen etimologia garbi ager dadin, nahiz eta etimologia hori beti zuzena ez izan: iltki, utzteko, fintkaturik, fintko. *(Ikus zer dioen hunetzaz Mitxelenak* Fonética Histórica Vasca *liburuan, 345 orrialdean). Hunelakoetan, Axular-en bide berezia errespetatu behar genuela uste izan dugu.*

Azentuak ere jarri ohi ditu Axular-ek zenbait aldiz «e» bokalaren gainean, era hunetara: lanèn *(Ax 21). Pentsatu izan da azentu horrekin «e» luzea edo bikoitza aditzera eman nahi ote zuen, baina hori ez dago bat ere garbi. Guk ahal bezanbat azentu hori ere mantendu egin dugu.*

Puntuazio manerak —hots, komak, puntua eta koma, bi puntuak eta abar jartzeko legeak— ez dira bat ere

berdinak orai eta Axular-en garaian. Hori gorabehera, gehienetan behintzat, haren usarioa errespetatu dugu, inoiz edo behin aldatu ttipiren bat egin bada ere.

Testua.—*Testua* Gero-*ren lehenbiziko ediziotik hartzen dugu (1643.ekotik, alegia). Bigarren edizioko aldaera batzuen berri ere ematen zaio irakurleari. Bigarren edizio hau ez dakigu nork, noiz eta non egina den; eta harrigarriago dena, titulua aldatua du era hunetara:* Geroko Gero. *Bigarren ediziotik guk hartzen ditugun aldaera hoik hemen taket artean —[ ]— ageri dira.*

6. aldiz ateratzen da gaur Gero *liburua (Urquijo jaunak* Riev-*en eman zuen argitalpena kontuan sartu gabe). Eta sei edizio hoietarik hiru gure mendean eginak dira. Gaurko ateraldi hunetan, ahal bezanbat, bai liburuaren balio kritikoari eta bai oraiko irakurlearen erraztasunari ere kasu egin nahi izan diogu. Dudazko puntuetan Mitxelena jaunarengana jo dugu, iritzi eske.*

Testuaren zatiketa edo orrialde bazterreko zenbakiak.—*Ediziotik ediziora orrialdeen kontua nola aldatzen baita,* Gero-*tik egiten diren aipamenak erraxkiago bila eta egizta ahal daitezen, Axular-en liburua 400 zati edo puskatan partitu genuen, zati bakoitzari bere zenbakia ezarriaz. Hala egin zen 5. edizioan (1964koan). Zenbaki hoik orriaren bazterrean jarriak daude.* Axular-en Hiztegia-*ko aipamen guztiak zenbaki hoien arabera egin ziren. Edizio hunetan ere beharrezkoa zen partiketa hori bera atxikitzea, eta hala egin dugu. Beraz, Axular-en Hiztegiko aipamen bat aurkitu nahi denean, ez orrialdearen gaineko zenbakiari, baina bazterrekoari egin behar zaio kasu.*

Finean, eta hitz batez esateko, 1964ko edizioan eman zen testu berbera bir-argitaratzen dugu hemen. Han itzuri ziren makurretarik garbitua eta zuzendua.

Erdal itzulpena.—*Funtsean 1964ko edizioan agertu zen berbera da, baina han-hemen ukitu batzuk egin zaizkio, eta zuzenketa batzuk ere bai.*

Oharrak (erdal itzulpena datorren orrian dira). — *Euskal testuan badira noiztenka zenbaki ttipi batzuk. Deiak dira. Oharretarako deiak. Ohar hoik erdal itzulpena datorren orrian aurkituko dituzu. Axular-en Hiztegian itzuri ziren zenbait huts, hemen, oharretan zuzentzen dira. Eskerrak eman nahi dizkiet A. Zatarain, P. Iraizoz, L. Mitxelena eta, hitz batez, Hiztegian diren hutsak jakin arazi dizkidaten guztiei.*

Zuzenketez gainera, bestelako berri eta xehetasun jakingarri batzuk ere ematen dira Gero-ri *buruz oharretan. Baina ez gehiegi, zeren gaur, Axular-i eta haren liburuari buruz, badu irakurleak nora jo.*

Zertaz dira, bada, oharrok? Batzuek Hiztegiaren hutsekin dute zer-ikus. Beste batzuek kondairaz, testuaren egoeraz, aditzaz, deklinazio mugagabeaz, teologiaz, idaztankeraren balio literarioez, eta abar.

Orri-alboetako hitz eta esaldiak. — *Hauta handi xamarra eginik geneukan, orri-albo, orri-azpi eta orri-tarteetan sar arazteko. Baina hainbeste hitz, esaldi, itzulika eta abar testuaren ingurumarian barreiatzea ez da posible izan. Azkenean, Jakin-eko Argitaratzaileek berek, bildurik zegoen bilduma hartatik, hautapen bat egin dute.*

Huna hemen hautapena egiteko erabili dituzten irizpideak:

— *hitz ezezagunak (arkaikoak, guti erabiliak...):* hazkatu, hegigoa, ekidin, frankia, aurkientza, or, ohoin, eldarnio...

— *euskalkien arteko barianteak:* xinhaurri, bozkario, ifernu, aztura, edeki, hasuin, iakinsun, iaundu, no/to...

— *osorik hartzekoak:* anaia, osasuna, etsaigoa, eskasia, gutizia, Espainia, garaitia...

— *erderatiko zenbait hitz gogoan hargarri:* enplegu, malenkonia, golardoa, ponperia, errumes, erresuma, za-

pore, gatibu, garraiatu, dendari, arrazoin, desira, desgobernu, desamorio, errendatu, defendatu, maradizino, fruitu...

Bistan da, hitz hoiei buruz xehetasun gehiago jakin nahi duenak, Axular-*en* Hiztegia-*ra jo behar du.*

Orri-alboetako hitzetan zenbakia dagoenean —esate baterako gai (2) edo (3)—, horrek esan nahi du Axular-en Hiztegia-n zenbakidun hitz horrek dituen artikuluetarik bigarrena, edo hirugarrena edo zenbakiak aditzera ematen duena, behar dela ikusi.

III

AXULAR-EN HIZTEGIA-REN OSAGARRIAK

Orai segitun Axular-en Hiztegian jasorik ez dauden itzuliken, hitz edo esaeren zerrenda bat ematen dugu. Gehienetan hauk ez, baina hauen antzekoak, bai, badira han jasoak. Esate baterako, Abantail eraman *jasorik dago Hiztegian. Orain, berriz,* Abantail izan *jasotzen da; eta abar. Era huntako gehigarriak dira, bada, gehienak. Hitz edo esaeraren aldamenean ageri den zenbakiak, zein lekutan aurkitzen den itzulika hori esan nahi du.*

Inoiz Hiztegian emandako argitasunak hobetzeko kontuan, zuzenketa berri zenbait ere ematen da.

Esaeraren aurrean hitz soil bat jartzen da askotan. Adibidez:

Aisia: *bere aisiara ibili 310.*

Aurreko hitz horrek aditzera ematen du Hiztegiko zein hitzekin duen zer-ikusi itzulika horrek.

Abantail izan 326
Ahala egin 298
Ahalik eta fitetzena 350
Ahalkea benzutu 338
Ahanztea ahanzte delarik 350
Aisia: bere aisiara ibili 310
Aitzingibel beha arazi 384
Akhordaturik (Elkharrekin-) 246
Akhusatu: bere nagitasuna akhusatu 345
Aldanahitu (?) 238
Aldatu: gogoa bertzetara aldatu 377

Aldatu: bertzetara aldatu 386
Alde: bere aldetik 298
Alde: bertze aldetik denaz bezanbatean 396.
Alde: bere aldetik denaz bezanbatean 391
Alde: Bertze aldera 288
Alde: kontrako aldera itzuli 296
Alegeraz nigar egin 323
Alfer izan 375
Alhargundu 253
Altzo 250
Ama Birjina 241
Andre: 232, 235
Anhitz mende du hemen gaudezilla 389
Aphur: denbora aphurrean 390
Arauaz: bere naturalezaren arauaz 374
Arauaz: hobenaren arauaz 373
Ardiaren belhar iate 381
Are gutiago 270
Argitu (eguna zabaldu) 385
Arindu: pena arindu 375
Artean: eskuen artean izan 382
Artean: eskuen artean 342
Arreba 254
Arreba 326
Arrotzkalean: Sarako Etxebeberrik erabiltzen du hitz hau (Euskararen etorkia, *Lan Hautatuak*, 53 orr.) Latinezko testuan Etxeberri berak honela dio: «ob dissentaneum morem». Beraz: ohitura desberdin bat dela kausa.
Asko: eder asko 331
Asko: asko handi 373
Asko etsi 389
Asko izan 375
Asko: argi asko 377
Asko izan 390
Atsegin sari (a título gratuito, como regalo) 330
Azken egun 378
Azkenez goiti 360
Azpi: gure azpian 373
Azpiko: oinen azpiko eginak (pl.) 363
Baithan: bere baithan barrena 339
Bana: bere begietarik bana 231
Balantzan ibeni 336
Barreneko... kanpoko 337
Begia hertsi 398
Begitarte egin 242
Beha arazi 368
Behar bezalako 396
Behar: beharrik beharrena baino beharreanago 380
Behar orduan 370
Behartu: behartzen zarenean 347
Beharrean egon 388
Behere: lekhurik beherenean 373
Behin: urthean behin 342
Bekhatutan egon 344
Bekhatutan erori 388
Bekhatutan hil 388
Bekhatu eragin 262
Bekhatutan erori 361
Bekhatutarik ilki 361
Beldur izan: harentzat naiz beldur 370
Bereztu (Berezi?) 246
Bera: haren hitzak berak (pl.) 374
Berdin eta orobat 373
Bere-bereak (pl.) 377
Bere indarrez eta berthutez 339
Bere faboretan deitu 357
Berretgarri 355
Berri ekharri 366
Berria ekharri 284
Berri on bat 388
Besarka (?) 271
Besta egin 273
Besta izan 378
Bethea eman 303
Bezain: garbitu bezain fite likitsten dira 346
Bezanbatetan 297
Bezenbat 388
Bezenbat 314
Bi bian egon 261-262
Bianda gaixto 378
Bide: konsolatzeko bide 385
Bide: kontrako bidea 332
Bide: bere bidean 392
Bide onean iarri 400
Bide oneratu 355
Bide: bidea hartu 357
Bidegabe errezibitu 362
Bihotz gogor 236
Bihotz gogor 366
Bihotz hartu 357
Bihotza hertsi 357
Bihotza hil 357
Bihurtu: ordaina moneda berean bihurtu 364
Bildu: amoriora bildu 314
Bildua: fruitua bildu 332

Bisitaketan 263
Bortxaz 366
Bortxaz... borondatez 330
Bortzetan 351
Botherea erakutsi 365
Buru: bere burua gor eta sor egin 355
Buru: horreinbertze urtheren buruan 389
Buruan: berrogei egunen buruan 397
Buruan: denboraren buruan 394
Buruan: denboraren buruan 399
Damu: barreneko damu 376
Damu: denbora ioanez gerozko damua 383
Defot 265
Den gutienaz ere 388
Denbora luzea duela 350
Denbora luzean 347
Denbora luzeaz 345
Desideratu 243
Desohore eman 362
Deusagoak eztheusagoa 363
Diferentzia egin 326
Diruz betherik 380
Disziplinatu 249
Dolore bihurtu 379
Dolorezko: lekhu dolorezko ıunetan 383
Eduki: aitzinetik pensatua eduki 331
Eduki: bidea eduki 322
Eduki: Iainkoarekin eduki 337
Eduki: bere plazererako eduki 333
Eduki: miserikordia eduki 396
Eduki: amorio eduki 294
Eduki: etsaigoa eduki 294
Eduki: begia eduki 310
Eduki: partea eduki 325
Eduki: galdutzat eduki 354
Eduki: bere kargukoaz kontu eduki 356
Eduki: amorio eduki 366
Egia garbia 399
Egin: orhoitzapen egin 375
Egite: bere egitez 377
Egitean eta egin ondoan 335
Egiteko: haur da egitekoa 332
Egitekotan iarri 286
Egitekotan sarthu 255
Egon: ordenaturik egon 338
Egon: penetan egon 381
Egon: amorioz egon 313
Egon: kargaturik egon 312
Egon: Aıse egon 310
Egon: iratzarrırık egon 320
Egon: egoıtza batean egon 387
Egon: estante batean egon 386
Egon: kanpoan egon 371
Egon: konpaınıatık kanpoan egon 372
Egon: batetan egon 386
Egoitzaz egon 385
Egon: firme egon 358
Egon: gorputzean egon 357
Egon: hersturatan egon 357
Egon: gakhoaz egon 347
Egon: garazian egon 344
Egon: galdez egon 273
Egian egon 285
Egon: elkharrekin egon 374
Egon: desterraturik egon 369
Egon: bertzeren ona goraturik zaude 365
Egon: etsaigoan egon 365
Egon: prestatua egon 367
Egon: kheinatua egon 367
Egon: lorian egon 356
Egon: apartaturik egon 355
Egon: manuko egon 354
Egotu: gogoetan egotu 307
Egotzi: hoben egotzi 360
Egotzi: bere konpainiatik egotzi 369
Egotzi: hutsik egotzi 370
Egun guztiaz 350
Egundaiñoz gero 366
Egunetik biharrera 400
Egunetik biharrera 295
Ehun gehiago 326
Elhur-ur 375
Elkharrekin izan 375
Ene nekhagarria! 358
Enganaturik utzi 319
Erabili: ahotan gaixtoki erabili 289
Erhaile 234
Erne egon 309
Eror eta iaiki ibili 346
Erraile 257
Erran komun 366
Erraz: iasaiteko erraz 322
Erremedio bilhatu 350
Errendatu: kaltiar errendatu 362
Errendatua ibeni 271
Errezibitu: heriotze errezibitu 392
Erroa athera 381
Erroetarik athera 381

Eskiribuz ezarri 337
Esku: bere eskuei eragin 357
Esku handia izan 345
Esku toki 385
Eskuar 340
Eskuko: gorputza bere eskuko izan 331
Esperantza gabea 383
Esperantzan iarri 319
Esperantza izan 400
Estimatzekoa izan 345
Ethorri: ongi ethorri 299
Etsaiagotu 195
Etsitu: ezin etsituz 397
Etzan: eroririk etzan 346
Ezdeus bihurtu 381
Ezin atheraz ibili 347
Eztarri 314
Falta: bere faltaz 383
Falta: bere faltaz 382
Fama onean egon 291
Fidantzia galdu 346
Fidatu: sekeretua fidatu 346
Fin izan 389
Fin izan 385
Fin gabeko mende 389
Fingabeko 334
Fingabeko: su fingabekoa 387
Fingabeko 365
Finkatua egon 396
Fintkagarri 355
Firme egon 301
Fortuna gaixtoa 284
Fraide 249
Franzisko: San Franzisko 242
Frogantza falsoak (pl) 285
Frogatua izan 325
Gaiñean izan (Haren-) 245
Gainerako guztia 399
Gainerakoan: bertze gainerakoan 396
Gainerakoan: bertze gainerakoan 356
Gainetik utzi 295
Gainez egin: oinhazez gainez egina 379
Gaitzera ethorri 245
Gaitzeratu 245
Gaixtoeneko pontuan 271
Gaizki ioan 271
Galde (sust.) 293
Gara garen bezalako 395
Gau eta egun 383
Gehienik 370
Gelditu: errendatua gelditu 389
Gelditu: benzutua gelditu 389
Gelditu: gogortuak gelditu 388
Gelditu: Iokotik gelditu 393
Gelditu: kanpoan gelditu 371
Gelditu: bekhatu egitetik gelditu 397
Gerla egin 364
Gezurrez... egiaz 288
Gibelat behatu 303
Gisa gaizki 274
Goganbehar arazi 262
Gogo gaitzez egin 314
Gogo onez egin 314
Gogoa hotztu, - hil 294
Gogoa ibeni 369
Gogoak eman 395
Gogoan erabili 365
Gogoetan iarri 389
Gogora ethorri 357
Golde nabarren 304
Guti: denbora gutitan 390
Guti: hain denbora gutitan 391
Guzti: Kofesatzen den guztiaz 345
Guztien gaineko 371
Guztien gaineko 365
Guztien gaineko 370
Guztien gaineko 340
Guztien gainetik 370
Guztietako handiena 371
Guztietakoa 379
Hagin 379
Hainbertzetan 343
Haragiz egina 382
Hari izan: Iokoan hari izan
Hartu: Sukhar batek hartzen zaituenean 350
Hartu: okhasino hartu 375
Hartu: mendeku hartu 364
Harritua egon 396
Hautsi: promesak hautsi 304
Herri: mundu herri 399
Hil arazi 338
Hitz batez erraitera 339
Hitzez... obraz 393
Hondar erdietsi 389
Hondargabekoa 365
Humil 312
Huneinbertze 210
Hurran-hurran 247
Huts eragin 358
Iainkoak... hala ordenaturik 371.
Iariatu 323
Iarraikiz 238
Iarri: Gaitzez iarri 245
Iarri: gabeturik iarri 369
Iasan: fruitu iasan 366

Iasan: nork bereak iasan 362.
Ibili: etsaigoan ibili 331
Ibili: desterratua ibili 337
Ibili: bizirik dabillana 382
Ibili: ontasunean ibili 313
Ibili: artez ibili 311
Ibili: fede gaixtoz ibilli 292
Ibili: gerlan ibili 308
Iduritu: luze iduritu 385
Iduritu: soberania iduritu 352
Iduritu: erraz iduritu 314
Ihar: su-ihar (inhar) 385
Ikharatu (transit.) 376
Ilhunik 389
Indarrean sarthu 261
Infinitu: presuna infinitua 392
Iokoa iokatu 267
Iragan: pena gehiago iragan 374
Iragan: gogoan iragan 368
Iragan: aitzinago iragan 353
Iragan: atzegin - atsekabeak iragan 331
Iragan: hitzetan iragan 397
Iragan: iragana iarri 380
Iragan: bekhatu iraganak (pl.) 351
Iragan: denbora iragan 310
Irriz iokatu 358
Itzuli: bertze aldera itzuli 396
Itzuli: begitarteaz itzuli 369
Itzuli: gibelaz itzuli 369
Ixil pairatu 333
Iustizia falta 395
Kaltea pairatu 398
Kanpoan eta barrenean 385
Kanpoan: erremediotik kanpoan izan 389
Kanpoan: erremediotik kanpoan 388
Kanpotik eta barrenetik 373
Kargutan izan 359
Kolpe eman 397
Konpainiatan izan 284
Konplitu: desira konplitu 310
Konsideratzeko pontua 340
Konsolamendu eman 384
Konsolamendua sarthu 384
Kontu egizu 337
Kontu eman 235
Kontu gehiago egin 372
Kontu guti eman 355
Kontra iaiki 261
Kontrakarra izan 336
Kontuan iarri 351
Kreatu 365
Kruel: Ax 223 tít. de cap. - Ax. 234
Kulpa 394
Kulpant 285
Labur: denbora laburrez 393
Lagun: Giristino lagun 359
Landan 239
Lasterrago abiatu 298
Laudorioz egon 291
Lehenbizi berri hartan 343
Lehenbiziko seme 370
Lehiago izan 238
Lekhu eman 242
Lekhu izan 396
Lothu: egitekoari bere erroetarik lothu 368
Luze: denbora luzeaz 386
Luze: gau luzean 385
Maitaro 238
Mehatxuak egin 398
Mendekatu: Etsaiaz mendekatu 331
Mendez-mende 383
Mihi gaixtoen kontrako 291
Mihia ibeni 309
Mintzatzaille 346
Miratu 228
Molde: behar den moldean 396
Molde onez 246
Molde: zerbait moldez 375
Molde: bere moldean 368
Molde: gure moldera mintzatzera 355
Molde: bertze moldezko 353
Mueta 67
Multzu 380
Nabusi izan 345
Nehork bertzek 284
Neurk neure burua galdu dut 383
Neurrira ethorri 317
Neurriz bizi 267
Nigar-xopin 378
Noizbaiteko esperantza 388
Nor bagara 398
Nori berea bihurtu 382
Nornahiden bertzerik ere 397
Obra onetan ibili 320
Obra miserikordiazko 348
Odol isuri 359
Ohore ekharri 239
Ohorea ukitu 309
Oinhaze eman 286
Okhasinoak pitztu 332
Okhasinotan sarthu, iarri 260
Omen: erraiten omen dute 291
Onak eta gaitzak 334

On egin 267
Ondoko ondore 335
Ondore ona izan 336
Onez-onetara 245
Onez-onetara 366
Ongi ediren 400
Ongi kidatu 368
Ordain (=sustituto) 250
Oren batetako min 389
Ostatu eman 242
Ostoa egin 381
Parte: Iainkoaren partez 397
Parte: gehien partea 320
Parte: Iainkoaren partez 388
Parterik ttipiena 371
Penatan ibeni 256
Penatu: Iende penatuak! 388
Penatu: Heriotze penatua 391
Penitentzia eragin 395
Pensamendu egin 400
Pensu gaixto 389
Pietate 389
Pitztu: egarria pitztu 354
Plazer: ian-edaneko plazera 378
Plazer egin 384
Pontu: desesperatzeko pontura ekharri 357
Pontu: heriotzeko pontuan 342
Pontu: mehatxatzeko pontu hunen gainean
Premia premiazkoan 370
Presentean eta gainean bezala eduki 384
Prestatua egon 347
Presuna: bere presunaz 371
Presunaz: Bere - gerlan ibilli 250
Probetxu ekharri 344
Probetxu gabeko urrikia 383
Probetxu izan: zer probetxu da? 346
Probetxu izan 284
Sabel ederretako izan 267
Salho 232
Sakramentu 339
Segitu: partea segitu 325
Segurean izan 354
Segurean ikhusi 354
Sekeretu: ixil eta sekeretu eduki 346
Sekula fingabe hura 400
Sekula fingabekotzat 358
Sekula fingabekotzat 367
Sekulako gaztigua 392
Sekulakotzat galdu 388
Sendorik eta salborik 358
Sendorik ioan oherat 351
Sendotu 301
Sensuaren pena 372
Sententzia eman 325
Senti izan 335
Sentitu: guti sentiturik 333
Sentimendu erakutsi 390
Sentimendu izan 396
Sentimendu egin 396
Sentontasun 41: Ehun urteko emakumeari Santana, Santan deitzen zaio. Gizona baldin bada berriz, Senton, Sentona (Lafitteri zor diot ohar hau).
Skriba-fariseoak 352
Sobera barrena sarthu 263
Solhasean egon 262
Solhasean iarri 242
Sosegamendu 253
Suz inguratuak 373
Trabaillutsu 332
Trabua ibeni 339
Trabuak khendu 359
Tristatu 288
Tristerik 389
Urthe batez osoki 343
Urrezko 285
Urriki izan 396
Urrun egon 387
Usain gaixto 378
Usain ona izan 378
Usantza hartu 349
Usatu: arrazoinaz usatu 362
Usatu: miserikordiaz usatu 385
Usatu: miserikordiaz usatu 399
Urte: sarthu uste izan 370
Uste: irabazi ustea galdu 285
Uste: kargu ohorezko bat uste badu 335
Uste: alegriantza uste izan 323
Utz zaille 369
Utzi: gibelat utzi 331
Utzi: galtzera utzi 382
Utzi: Iragaitera utzi 382
Zazpitan 301
Zenbait aldiz 342
Zenbait denboratako 395
Zenbana 254
Zenbat denbora du? 387
Zerbitzuan enplegatu 395
Zerbitzuko izan 361
...zerbitzuko ordenatuak (pl.) 363
Zinez eta arrazoinekin 369
Zorthe gaixtoa 378
Zuzen eta arrazoin izan 364
Zuzenez eta ethorkiz 370

IV

BIBLIOGRAFI APURRA AXULAR ETA HAREN LIBURUARI BURUZ

Fontes Linguae Vasconum. Número extraordinario. Homenaje a Axular. Enero-Abril 1974, Pamplona.

VILLASANTE (L.) *Axular: Mendea. Gizona. Liburua;* Jakin, Arantzatzu 1972.

VILLASANTE (L.) *Axular-en Hiztegia;* Jakin, Arantzazu Oinati 1973.

Gero-ren faksimilezko edizioa, Urquijo jaunak egina, *Revista Internacional de los Estudios Vascos* delakoan agertuaz joan zen, IV. tomoan hasi eta aldizkaria hil zen arte (1911. urtetik 1936.era arte). (Ez zen dena agertu, ordea, zeren argitalpena bukatu baino lehen hil baitzen aldizkaria 1936. urtean).

Silvain POUVREAUren euskal hiztegia (XVII. mendekoa), argitaragabea. *Gero*-ren aipuak ditu. Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, Urquijoren liburutegian, hiztegi hunen fotokopiazko ale bat dago.

«Serie Eleizalde» deritzan Sortan Axular-en liburuari buruz gramatikazko zenbait puntu aztertzen dira. Orai arte agertu diren aleak:

— *Hacia la lengua literaria común*
— *La Declinación del vasco literario común*
— *Palabras vascas compuestas y derivadas.*

Aurki agertzekoa:

— *Sintaxis de la Oración Compuesta.*

Bukatzeko, eskerrak eman beharrean naiz Gero-ren argitalpen berri hau egiten lagundu didaten guztiei, Jakin *taldeko anaiei, eta, hauen artean, bereziki, J. Intxausti eta J. A. Aduriz-i.*

Fr. Luis Villasante, OFM

Arantzazun, Maiatzak 12, 1976.

GERO

BI PARTETAN PARTITUA ETA BEREZIA

LEHENBIZIKOAN EMAITEN DA ADITZERA,
zenbat kalte egiten duen, luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko utzteak.

Bigarrenean kidatzen da, eta aitzinatzen, luzamenduak utzirik, bere hala, bere egin bideari lothu nahi zaikana.

Eskritura Saindutik, Elizako doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik, Axular Sarako errotorak bildua.

Ne tardes converti ad Dominum, et
ne differas de die in diem, Eccles 5.

BORDELEN
G. Milanges erregeren inprimazaillea baithan
1643

DESPUES

DISTRIBUIDO Y DIVIDIDO EN DOS PARTES

En la primera se explica cuánto perjuicio causa el andar aplazando, el dejar los quehaceres para después.

En la segunda se guía y encamina al que, dejados los aplazamientos, quiere aplicarse inmediatamente a su deber.

Recopilado de la Sagrada Escritura, Doctores de la Iglesia y libros de devoción, por Axular, párroco de Sara.

Ne tardes converti ad Dominum, et
ne differas de die in diem, Eccles 5.

EN BURDEOS
En casa de G. Milanges, impresor real
1643

CARTA DE RECOMENDACION

1 A mi Señor Bertrand de Echaus, Arzobispo de Tours, primer capellán de Francia, gentilhombre del Orden y afamado consejero real: gloria celestial.

Mi amado Señor: Te me has ido de la tierra, pero no del alma, ni tampoco del corazón. Llegué, por fin, pero no me has aguardado. Mas la falta es mía, mía es la culpa. He andado aplazando indefinidamente, y lo que suele acontecer a quien anda así, me ha ocurrido a mí también.

Pero, con todo, mis grandes deudas de gratitud, los favores recibidos y la benévola voluntad que constantemente me has mostrado, juntamente con los hechos, no dejan que me atreva a sacar al público este librito sin hacer memoria de ti, aunque sea después que has muerto.

Porque me parece que todavía estás vivo, que te tengo delante de los ojos: y por eso, como si te tuviera de esta forma, te quiero hablar.

2 Cuando muere un padre honrado y honorable, el hijo huérfano que deja tras de sí, es en muchos lugares bienvenido y gozosamente recibido, en atención a su padre. Este librito es el huérfano. "Posthumus". Nacido después de morir el padre. Pero el hijo de un tal padre, aun siendo huérfano, no puede pasarlo mal. Porque aun después de tu muerte, tu virtud, honor y renombre le han de aprovechar.

Y acerca de tu virtud, honor y fama antecedente y subsiguiente, ¿quién podrá decir cosa?

¿Quién hay en el país vasco que, de una u otra forma, no te sea deudor y no te esté obligado? ¿que no te haya utilizado y necesitado? ¿Y a quien tú no le hayas protegido? Tu casa, en todos los sitios en que has estado, ha sido constantemente la casa, el lugar de descanso y el albergue de los vascos. Todos acudían presurosos a ti. A ti te con-

1 *Bertrand d'Echauz* (1556-1641), baigorriarra zen. Baionako apezpiku, eta gero Tours-ko arzipizpiku. Henri IV Frantziako erregeren ahaide hurbila. Horregatik bazuen sarrera handia erregeren etxean. Axular-en adiskide eta faboratzailea. Eskutitz bat ere bada Bertrand d'Echauz-ek bere anaia bati euskeraz idatzia. Xehetasun gehiago jaun huni buruz gure liburuan: *Axular. Mendea, Gizona, Liburua*, 52 or.

gomendio

GOMENDIOZKO KARTA

erremusinari

1 Ene iaun BERTRAND DE ECHAUS,[1] Tursko Arzipizpiku, Frantziako lehenbiziko errèmusinari: Ordenako aitonen seme, eta erregeren Konseillari famatuari

loria

ZERUKO LORIA

Neure iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki. Ordea eneak dira faltak, enea da hobena. Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere.

iguriki hoben

Baiña guztiarekin ere, neure obligazino handiek, ontasun errezibituek, eta bethiere, ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ezterautate utzten, ondotik bedere, zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutto hunen, kanporat atheratzeko, ausartziaren hartzera.

Zeren iduritzen zait ezen oraiño bizi zarela, begien aitzinean zaitudala: eta halatan, hala baitzinitut bezala, mintzatu nahi natzaitzu.

aitzinean

emazurtz arraiki

2 Aita prèstu ohorezko bat hiltzen denean, ondotik gelditzen den seme emazurtza, anhitz lekhutan da bere aitaren amoreakgatik, ongi ethorria, eta arraiki errezibitua. Liburutto haur da emazurtza. *Posthumus.* Aita hillez gero sorthua. Baiña zu bezalako aitaren semea, emazurz izanagatik ere, ezin dateke gaizki. Zeren ondotik ere, zure prestutasuna, ohorea eta fama ona, baliatuko baitzaitza.

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko, fama on famatuaz, nork zer erranen du?

Nor da euskal-herrian aldez edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua. Guztiek zuregana laster. Zuri

taban sus quejas, trabajos, cuitas e infortunios. Y tú a todos recibías alegre y gozosamente. Los aconsejabas discretamente, los guiabas, gobernabas y sacabas adelante.

Tú has sido y serás prez y honor de los vascos, su apoyo, amparo, sostén: cántabro excelente, auténtico y verdadero.

3 Tú has sido hijo de la casa de Echaus, de aquel palacio y castillo grande, hermoso, noble, que se encuentra en los montes Pirineos, en las faldas de los Aldudes, como perpetuo centinela y vigía siempre despierto. Los Vizcondes y todos los hijos de esa casa han sido perpetuamente, desde siempre, utilizados y estimados por el Rey, de un valor y lealtad comprobados. Y también han sido defensores, promotores y caudillos de la verdadera fe y ley.

Cuando en aquellas regiones de la Baja Navarra, lo mismo que en muchos otros lugares, pareció que la santa ley católica iba a flaquear, bambolear y perecer, todo el mundo sabe cómo tu señor padre, haciendo poco caso de su hacienda y aun de la vida, se fue a Saint-Palais, donde a la sazón estaba el Parlamento de Navarra. Y allí, con gran osadía, en un gesto de su noble y cristiano corazón, tomando en la mano la espada desenvainada, comenzó a clamar, como un Matatías en su tiempo, diciendo: "Omnis qui habet zelum legis, statuens testamentum, exeat post me" (2 Mach c. 2). Ea, cristianos, los que con el nombre de cristianos tenéis la realidad de tales, dejados todos los demás quehaceres, acercaos a mí, seguidme y ayudadme a mantener y sostener la verdadera ley y fe. Y tanto hizo que preservó a su pueblo y a los del contorno del mal que iba a introducirse en ellos. Y después, por odio y en venganza le quemaron su hermoso palacio. De este temple era tu señor padre y también los demás antepasados tuyos.

4 Pues bien: tampoco tú has desmerecido de tu casta: no te has desviado, apartado ni alejado de tu linaje y prosapia. Porque tú también, cuando eras Obispo de Bayona y estabas girando visita, viendo que ciertas personas que vivían fuera de la Iglesia, querían luego que su cuerpo fuera introducido y sepultado en la iglesia, interrumpiendo tu visita y reuniendo los tres estados de Navarra, fuiste a la Corte: y pasando allí muchos trabajos y padeciendo oposición, trajiste por fin el remedio que hacía falta, el decreto o provisión de que se prohibieran en adelante tales desórdenes. Por consiguiente, tampoco tú has desmerecido del cristianismo de tus mayores.


[2] *Euskaldunen iabea*=euskaldunen laguntza, geriza edo aterpea esan nahi du (gaztelaniaz, 'amparo, protector').

ondiko bere arrenkurak, egitekoak, koaitak, eta ondikoak konta. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezibi. Zuhurki konseilla, kida, goberna eta burutan athera.

Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, kantabres habea, iabéa,[2] sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.

hegal begiraille **3** Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinela, eta begiraille bezala, iratzarririk dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundaiñoz gero, erregez enplegatuak, estimatuak, fin eta leial frogatuak. Eta bai egiazko fe- aitzinatzaille dearen eta legearen defendatzaille, eta aitzinatzaille buruzagiak ere. Nafarroa behereko parte hetan, bertze anhitz lekhutan bezala, lege katolika saindua, iduriz fla- kordokatu katzera, kordokatzera eta erortzera zihoanean, badaki munduak nola zure aita Iauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalaiora, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta. Eta han ausar- giristino tzia handi batekin, bere bihotz giristino noblearekin, biluzi hasi zen, ezpata biluzia eskuan harturik, oihuz, Matatias bat bere denboran bezala, èrraiten zuela: *Omnis qui habet zelum legis, statuens testamentum exeat post me* (2 Mach 2). «Ea giristinoak, giristino izenarekin, izana duzuenak, bertze egiteko guztiak utzirik hurbil zakizkidate, iarraiki zakizkidate eta egiazko legearen eta fedearen mantenatzen eta sostengatzèn, lagun zakizkidate». Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta ingurunekoak ere, hetan sartzera zihoan eritasunetik begiratu baitzituen. Eta gero handik hartako herraz eta mendekuz bere iauregi ederra erre ziotèn. Hunelakoak ziren zure aita Iauna eta bai bertze aitzinekoak ere.

ethorki **4** Bada eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu, etzara Ipizpiku zeure leiñutik eta ethorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu. Zeren zuk ere Baionako Ipizpiku zinenean, eta bisitan zenenbiltzanean ikhusirik ezen, elizatik kanpoan zebiltzan iende batzuek, nahi zituztela, bere azken fi- ehortzi nean, gorputza elizan sarthu eta ehortzi; zeure bisita hautsirik, Nafarroako hirur estatuak bildurik, ioan zi- kontrakarra izan nen Gorthera: eta han anhitz trabaillu iraganik, kontrakarra izanik, ekharri zenduen, gèro ere, behar zen erremedioa, eta handik harat, halako desordenuen debekatzeko ordenantza eta manamendua. Beraz etzara zu ere, gibelatzaille zeurè aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izatu.



Ni has aminorado el honor de ellos. Al contrario, diríase que tú has ensanchado los linderos, has pasado la raya, pues has estado a punto de adornar a la casa de Echaus con el traje rojo del Cardenalato. Porque no hay quien ignore que el Rey te escogió y nombró para ello. Y que si el golpe ha fallado, ello no ha sido por tu falta o por no ser tú apto para dicho cargo, porque, dejados a un lado tus grandes méritos y los servicios que en muchas *ocasiones has prestado a la Iglesia, al Rey y a todo* el pueblo, la misma naturaleza te ha dotado, provisto y colmado de muchas suertes de dones, prerrogativas y cualidades. Te ha dado, en efecto, un claro entendimiento, una gran memoria y una voluntad inclinada, propensa y dedicada al bien, al honor y a la virtud.

5 Pero ¿para qué me meto yo en este mar sin fondo? ¿En este bosque, del que no puedo salir? ¿En la mención de tus glorias? Ellas hablan bien alto por sí mismas; ellas son de por sí suficientemente preclaras y sonoras. Deje, pues, este punto, no sea que yerre. Y pasando adelante, hable sin cometer yerro. Y digo que todo cuanto se escriba en euskara, todo ello, como a caudillo de los vascos, a ti te pertenece, a ti se te debe, y con todo derecho, aun ahora, se te debe presentar a ti. Y sobre todo, este menudo trabajo de este tu pequeño servidor, a saber, los perjuicios y daños que se siguen de aplazar los quehaceres, este tema que tú tan bien sabes, ¿a quién le ha de pertenecer, si no es a ti? ¿Quién lo guiará, quién lo acogerá, si tú no lo hicieres?

Bajo tus auspicios sale, bajo tu égida se atreve a ver la luz pública. Recíbelo, pues, defiéndelo, ayúdale, dispénsale buena acogida. Hállese en este librito a Echaus y el renombre y prestigio de Echaus. Porque de esta suerte, en todos los lugares podrá llevar la cabeza erguida, tendrá autoridad, y sin miedo de nadie, podrá atreverse a sacar su rostro en público.

Mas, sí: te has ido, has cambiado de lugar: has cumplido el tiempo de esta vida.

Así es la verdad. Y en parte lo siento, y en parte me alegro. Lo siento, porque a nadie se le ha seguido de ello tanto daño como a mí.

Me alegro. Porque como no somos de dos épocas distintas, y tú la tuya la has pasado tan bien, con tanto honor y dicha, confío que estés en la gloria celestial y tengas gran crédito cerca de Dios; y que

[3] *Arropa gorriaz*, hau da, Kardenalen arropa. Luis XIII erregek Bertrand d'Echauz Kardenal izateko izendaturik zeukan, baina Richelieu-k beste bat nahiago izan zuen. Ikus *Axular: Mendea, Gizona...* 55 or.

marra

Bada ez eta ohorearen iraungitzaille ere. Aitzitik badirudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula, eta Echausko etxearen arropa gorriaz[3] bestitzeko bidetan izan zarela. Zeren ezta eztakienik, ezen errege hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Eta kolpea huts egin bada ere, eztela zure faltaz edo zu hartako ez gai izanez, huts egin, zeren utzirik alde batetara zure merezimendu handiak: eta elizari, erregeri eta komun guztiari, anhitz okhasinotan egin derauztetzun

endrezu

zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotatu, hornitu eta konplitu baitzaitu. Adimendu eder bat, memorio handi bat, eta borondate onera, ohorera, eta prestutasunera erori bat, isuri bat, eta eman bat eman baiteratzu.

5 Baiña zertako sartzen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Ezin athera naitekeien oihanean? Zure laudorioen aiphamenean? Berak dira bere buruz asko gora mintzo:

ozen

berak dira bere baithan asko klar eta ozen. Utz ditzadan beraz nik hek, hutsik eztagidan. Eta iragaiten naizela aitzina, derradan hutsik egin gabe. Zer ere eskiribatuko baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, eta arrazoiñez orai ere zuri presentatu behar zaitzula. Eta guztiz ere zure zerbitzari ttipi hunen trabaillu aphur haur, gerotik gerora egitekoen luzatzeak, zenbat kalte dakharkeien, zuk hain ongi dakizun pontu haur, nori egonen

ostatu, ostatatu

zaika zuri ezpadagotzu? Nork kidatuko, nork ostatuko du, zuk ezpadezazu?

Zure gerizan doha: zure itzalaren azpian benturatzen da, errezibi ezazu bada, defenda ezazu, alde zakitza, egiozu begitarte. Ediren bedi liburutto hunetan, Echaus eta Echausen omena eta izena. Zeren halatan eta harekin batean, ibiliko den lekhu guztietan, burua

burupe

gora ekharriko du, burupe izanen du eta nehoren guti

ausartki

beldurrik, iendartera, bere begitartea, ausartki atherako du.

Bai ordea ioan zara: lekhuz aldatu zara: hemengo aldia egin duzu.


aldez, aldez

Egia da, hala da. Eta aldez damu dut, eta aldez atsegin. Damu, zeren ezpaitzaika nehori ere handik, niri bezanbat kalte ethorri.

Atsegin. Zeren nola ezpaikara bi mendetako eta zuk

ohorezki

zeurea, hain ongi, hain ohorezki eta dohatsuki iragan baituzu, esperantza baitut zeruko lorian, Iainkoaren



de ahí te llegarás a mí y me alargarás tu mano; y así como el águila, desde los aires, dirige la mirada a sus polluelos, también tú me mirarás propicio. Y después (pues también yo estoy próximo a terminar mi vida), con la gracia de Dios y tu intercesión, lograré tu buena dicha: y entonces te tributaré gracias por todo. Así lo quiera Dios.

El menor y más obligado de tus servidores.

P. DE AXULAR

konpaiñian, kredit handiarekin zaudela: eta hortik helduko zatzaizkidala, eskua emanen derautazula: eta arranoak, airean dohanean, bere umetara bezala, zuk ere enegana bègia edukiko duzula. Eta gero nik ere (hemengo aldia egin hurran baitut), Iainkoaren garaziarekin eta zure arartekotasunarekin batean, zure zorthe ona erdietsiko dudala: eta orduan guztiez eskerrak errendatuko derauzkitzudala. Iainkoak hala nahi duela.

artekotasun

Zure zerbitzari ttipiena, eta obligatuena.

P. DE AXULAR

APPROBATIONES

Visis per nos Vicarium Generalem Illustrissimi ac Reverendissimi D. D. Francisci Fouquet Episcopi Bayonensis, attestationibus de mandato eiusdem Domini factis et supra insertis, dictum de non procrastinanda poenitentia librum imprimi permisimus. Datum Bayonae anno Domini 1642, die secunda Decembris.

PERRIQUET
Vicar. General.

Hunc librum de non procrastinanda poenitentia authore Domino Petro de Axular, viro magni nominis in nostra Cantabria, ac celebri nuper rectore de Sara, mandato Illustrissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis accurate evolvi, et in eo nihil adversum fidei pietatique, sed recta omnia ornata, et ad bonos mores multum conducentia, iudicasse ego infra scriptus testor. Datum apud Sanctum Ioannem de Lus die quarto decembris anno Domini millesimo sexcentesimo quadragesimo secundo.

SALVATUS DE DISSANECHE

Ego infra scriptus iussu Illustrissimi ac Reverendissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis attente legi librum de poenitentia non differenda cantabrico idiomate a Domino Petro de Axular meritissimo olim rectore de Sara compositum, in quo omnia orthodoxae fidei et bonis moribus consona reperi, atque uberem authoris facundiam magna cum erudictione ac singulari pietate conjunctam non semel admiratus sum. Ideo in lucem perutiliter prodire posse censeo ac iudico. Datum apud Sanctum Ioannem de Luz die 25 Decembris millesimo sexcentesimo quadragesimo secundo.

PETRUS DURTHUBIE
Doctor Theologus

AL LECTOR

6 Un día, que me hallaba en una tertulia, en un lugar donde no había más que vascos, recayó la conversación sobre este asunto, a saber, que ninguna cosa hacía tanto mal al alma, y aun al mismo cuerpo, como el diferir de un día para otro y de mañana para pasado mañana, los deberes. Y que sería conveniente que se hiciera acerca de este punto un libro en euskara, particularmente para los que no saben más que esta lengua; y que en dicho libro se hiciera ver que el que dice "Después", viene a decir "Jamás". En la misma tertulia se pasó en seguida a preguntar a ver a quién se le daría el encargo de hacer tal libro. Y de entre todos empezaron a señalarme a mí, primero con guiños y señas, y por fin clara y explícitamente, indicándome que debía poner las manos en esta obra. Yo, como no me fiaba de mí, me excusé todo lo que pude. Pero en vano, pues tan de veras y tan unánimemente me abordaron, que me cerraron todos los pasos para una negativa. Y así me resolví a hacer, a modo de descargo, un librito, dividido en dos partes acerca del referido "Después".

Y hubiera deseado publicar ambas partes juntas y a la vez. Pero viendo cuán poca cosa se halla escrita en vascuence, he recelado y temido que los caminos no sean lo bastante seguros y expeditos, o que haya en el trayecto algunos obstáculos o tropiezos. Y por eso he tomado la resolución de aventurar primeramente la primera parte, y echarla por delante como en plan de exploración. A fin de que esta primera parte me traiga información sobre lo que ocurre, sobre la acogida que se le dispensa y sobre las críticas y pareceres. Para en conformidad con dichos informes, tomar providencias para el futuro, o sea, sacar la segunda parte al público, o bien ocultarme y reducirme al silencio.

7 Ya sé que muchos se extrañarán y admirarán de que me ocupe en este trabajo. Porque muchos ha habido hasta ahora, y hay también en la actualidad, no semejantes a mí, sino más capaces y hábiles para este menester, y con todo hasta el presente no se han atrevido ni han tenido semejante osadía. Parece que debería bastar esta razón para hacerme recular y detenerme. Pero esta razón, que parece ir contra mí, ella misma es la que me da a mí ánimo, ella es la que me infunde valor, la encuen-

4 *Konpaiñia on batean.* 1611. urtean Bertrand d'Echauz Baionako apezpikuak frantziskotarren etxe-komentu bat sor arazten du Donibane eta Ziburu artean. Fundatzaille bezala etorri zen Etienne Materre, frantses hutsa. Saran ikasi zuen euskaraz. Axular-en adiskide izan zen eta euskal liburu bat agertu zuen. Berak eman zion hasiera Donibaneko idazle-eskolari. Haranburu idazlea ere frantziskotarra eta Sara-ko semea zen. Itxuren arabera, Materreren ondoren agertu ziren euskal liburuen egileek (Axular barne delarik) Donibaneko komentuan biltzen ziren, eta handik sortu zen Lapurdiko euskal literaturaren abiadura (XVI. mendean Leizarragaren obrak ilki zirela ahantzi gabe).

5 *Bi parteak.* *Gero*-ren bi parteei buruz iritzi bat bai-

solhas perpaus

gero, bego

aieru

igorri

arauaz

arrotz


anzatsu ausartzia

aitzinatu

6 Egun batez, konpaiñia on batean,[4] euskaldunik baizen etzen lekhuan nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea: eta hartan, gero dioenak bego dioela erakustea. Konpaiñia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko kargua. Eta bertze guztien artetik, hasi zeizkidan niri neroni aditzera emaiten, lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkenean, klarki eta agerriz, nik behar nituela, egiteko hartan eskuak sarthu Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida, desenkusatu nintzen ahal bezanbat. Baiña alferrik, zeren hain zinez eta batetan lothu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak hertsi baitzerauzkidaten. Eta hala deliberatu nuen, buru-eragotzkarri bezala, liburutto baten, bi partetan partiturik, gero hunen gaiñean egitera.

Eta nahi nituzkeien bi parteak[5] elkharrekin, eta batetan athera. Baiña ikhusirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskiribaturik, gogan behartu naiz eta beldurtu, etziren bidèak asko segur eta garbi, baden bitartean zenbait trabu edo behaztopa-harri. Eta halatan hartu dut gogo, lehenbiziko parte hunen, lehenik benturatzeko, eta berri iakitera bezala aitzinerat igortzeko. Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Gero abisu haren arauaz ethorkizunerat gobernatzeko: eta bigarren partearen kanporat atheratzeko, edo barrenean gelditzeko eta estaltzeko.

7 Badakit anhitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz eta estraiñio, ni lan huni lotzea. Zeren anhitz izan baita orainokoan, eta baita orai ere, ni ez bezalakorik, ni baiño hunetako gaiagorik, eta anzatsuagorik, ezpaitute guztiarekin ere, orainokoan, hunelako materiatan, hunela ausartziarik eta eskudantziarik hartu. Baitirudi ezen asko behar lizatekeiela arrazoin haur ene gibelatzeko eta geldi arazitzeko ere. Baiña ene kontra dela dirudien arrazoin hunek beronek, ni esportzatzen eta aitzinatzen nau, hunek bihotz emaiten deraut, haur edireiten dut nik



tro a mi favor, porque las primeras obras y tentativas que se hacen a modo de ensayo, aunque tengan algunas faltas y defectos, parece que, por ser las primeras, son perdonables, y todos las disimulan y excusan.

8 Sé asimismo que no puedo extenderme a todas las variedades del euskara hablado. Porque de muchas y diferentes maneras se habla el euskara en el país vasco: en la Alta Navarra, en la Baja Navarra, en Zuberoa, en Lapurdi, en Vizcaya, en Guipúzcoa, en Alava y en otros muchos lugares. El uno dice "behatzea", y el otro "so egitea". El uno "haserretzea", y el otro "samurtzea". El uno "ilkitzea", el otro "ialgitea". El uno "athea", el otro "bortha". El uno "erraitea", el otro "esatea" El uno "irakurtzea", el otro "leitzea". El uno "liskartzea", el otro "ahakartzea". El uno "hauzoa" el otro "barridea". El uno "aitonen semea", el otro "zalduna". En fin, cada cual a su modo y manera. Todos los vascos no tienen las mismas leyes y costumbres, *ni tampoco idéntica manera de hablar el* euskara, por razón de que políticamente forman estados diferentes.

9 Pues por lo que respecta al escribir, tampoco me encuentro sin problemas. Porque también en esto hay diferencias. El uno escribe "chehero", el otro "gehero". El uno "chedea", el otro "gedea". El uno "ichilic", el otro igilic". El uno "quecho", el otro "quejo". El uno chuchen", y el otro "jugen". Y así hay también algunas otras palabras, que unos y otros escriben diversamente, según la usanza del propio país o reino.

Pero como no son más que unas diez palabras, o pocas más, las que se escriben diversamente y de dos maneras; así yo también algunas veces las escribiré de una manera en el texto del libro y de otra *en el margen, "in margine": con el fin de contentar* a todos.

Finalmente, respecto a este asunto de la grafía, digo que, así como el latín une dos "i" y dos "v", tomándolas por una: "Adjicio, Conjicio, Vultus, Vulnus". Y también el español une dos "l", haciendo de ellas una: "llamo, lloro"; así también el euskara une dos "t", haciendo de ellos una: "ttipia, ttipittoa, gizonttoa, haurttoa". Porque el escribir "txipia, txipitxoa, gizontxoa, haurtxoa", no está bien recibido entre los que hablan bien el euskara.

no gehiago dago. Batzuek (adibidez Lafittek eta Intxauspek) uste izan dute Axular-en obran bi parteak daudela, nahiz eta nahasian egon eta hitzaurre hunetan besterik esan. Beste batzuk hitzaurrean esaten denari dagozkio, baina orduan bigarren parte horrekin zer gertatu da? Idatzirik ote zen? eta idatzirik bazegoen, non da? Ikus *Axular: Mendea, Gizona...* 121 or.

[6] Idazkera kontuan (ortografi kontuan, alegia) Donibaneko idazle-eskola horretan guztiak ez zetoztela bat esaten digu hemen Axularek. Materre izandu zen eskola huni hasiera eman zion eta bide berezi batekin ibili zena. Haren idazkerak dira *igilic, jugen, lajoa.* Ondoren etorri zirenak soinu hoiek era hunetara idatziko dituzte: *ichilic, chuchen, lachoa.*

[7] *In margine,* liburuaren bazterrean. Eta zinez hala

enseiukarrean

neure alde eta fabore, zeren enseiukarrean bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere, badirudi ezen, zeren lehenak diren, barkhakizun direla, eta bat bederak disimulatzeko, ez

desenkusatu

ikhusi iduri egiteko, eta are desenkusatzeko dituela.

hedatu molde

8 Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzatzen baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa beherean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhutan. Batak erraiten du *behatzea*, eta bertzeak *so egitea*. Batak *haserretzea* eta bertzeak *samurtzea*. Batak *ilkitzea*, bertzeak *ialgitea*. Batak *athea*, bertzeak *bortha*. Batak *erraitea*, bertzeak *esatea*. Batak *irakurtzea*, bertzeak *leitzea*. Batak *liskartzea*, bertzeak *ahakartzea*. Batak *hauzoa*, bertzeak *barridea*. Batak *aitonen semea*, bertzeak *zalduna*. Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta az-

erresuma

turak bat, eta ez euskarazko minzatzea ere, zeren erresumak baitituzte diferent.

9 Bada eskiribatzeaz denaz bezan batean ere ez naiz egiteko gabe. Zeren bada hunetan ere diferentzia. Batak eskiribatzen du *chehero*, bertzeak *gehero*. Batak *chedea*, bertzeak *gedea*. Batak *ichilik*, bertzeak *igilik*. Batak *lachoa*, bertzeak *lajoa*. Batak *choil*, bertzeak *joil*. Batak *kecho*, bertzeak *kejo*. Batak *chuchen*, bertzeak *jugen*.

zenbait


Eta hunela bada bertzerik ere zenbait hitz, batak eta bertzeak, nork bere herriko edo erresumako arauaz diferentki eskiribatzen baitituzte.[6]

Ordea zeren ezpaitira hamar bat hitz edo baizen, hunela diferentki, eta bi aldetara eskiribatzen direnak: halatan nik ere zenbait aldiz eskiribatukoitut alde batera liburuan barrena, eta bertze aldera liburuaren bazterrean, *in margine*:[7] bat bederak zerbait kontentamendu

amoreakgatik

duen amoreakgatik.

Finean eskiribatze hunen gaiñean, diot ezen, nola latinak bi *i* eta bi *v* egiten baititu bat eta hartzen batentzat: *adjicio, conjicio, vultus, vulnus*. Eta espaiñolak ere bi *l* egiten baititu bat, *llamo, lloro*: hala euskarak ere bi *t* egiten dituela bat, *ttipia, ttipittoa, gizonttoa, haurttoa*. Zeren eskiribatzera *txipia, txipitxoa, gizontxoa, haurtxoa* ezta ongi heldu, euskaraz ongi minzatzen direnen artean.



10 Pero como ordinariamente, tanto en cuanto a escribir como en cuanto a hablar, a cada cual se le antoja que su modo propio es el mejor, y supuesto que este modo mío no es como el tuyo; te ruego que no por ello lo rechaces ni hables mal. Si éste no te satisface, hazlo tú a tu manera y como en tu país se acostumbra. Yo no me molestaré por ello, ni me enfadaré. Bien por el contrario, ésta es una de las cosas que yo quisiera, a saber: que este mi humilde ensayo te infundiera el deseo y las ganas de hacer otro mejor, y aun de corregir las faltas de él. Porque así no fuera el euskara tan corto, pobre ni tan estrecho, como el mundo cree que es y lo tiene por tal.

Actualmente parece que el euskara está como avergonzado, que es extraño, que ni osa presentarse en público, que no es capaz, grande ni hábil. Porque aun entre sus naturales, algunos no saben cómo escribir ni cómo leer.

Si se hubieran hecho en euskara tantos libros como se han hecho en latín, francés o en otras lenguas extranjeras, también el euskara sería tan rico y perfecto como ellas, y si esto no es así, los mismos vascos son los que tienen la culpa de ello, y no el euskara.

11 No hago este librito para personas muy cultas. Ni tampoco para los que no saben absolutamente nada.

Ni tampoco traduzco siempre la Sagrada Escritura y las máximas de los doctores literalmente al vasco. Porque el euskara y las otras lenguas son diferentes. Mas no se sigue de ahí que el euskara sea de peor calidad. Al contrario, parece que las otras lenguas comunes se hallan mezcladas las unas con las otras, y que en cambio el euskara se encuentra en su primer principio y pureza.

Pero dejando a un lado los modos y diversidades de hablar y escribir el euskara (porque esas cosas son como la corteza y la flor), aprópiate del fruto del librito, de la sustancia interior: sea ésta la que gustes, la que traigas entre manos, leyendo no a prisa, no superficialmente ni tampoco con ánimo de rechazarla. Sino con una buena intención, como si el libro fuera tuyo, hecho por ti. Y si de ese modo le encuentras algún dulzor y sabor, como todo ello de Dios solamente puede provenir, y de mí las faltas únicamente, tribútale a El las gracias. y te suplico, por favor, que te acuerdes también de orar por mí. "Vale".

ikusten dira Materreren idazmoldeko idazkera hoiek Geroren l e h e n edizioan, baina bazterrean jarriak.

[8] *Badirudi euskarak ahalke dela...* Euskara hizkuntza bera pertsona bat balitz bezala azaltzen zaigu hemen jend'artean agertzeko lotsati eta beldurti.

10 Baiña zeren komunzki, hala eskiribatzea, nola minzatzea, nori berea iduritzen baitzaika hoberenik eta ederrenik: eta ene haur ezpaita zurea bezala, ez, othoi, hargatik arbuia eta ez gaitz erran. Hunetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure moldera, eta zure herrian usatzen eta segitzen den bẽzala. Zeren ez naiz ni hargatik bekhaiztuko, eta ez mutturturik gaitzez iarriko. Aitzitik haur da nik nahi nukeien gauzetarik bat, ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, enseiu hobeago baten egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera. Zeren halatan, ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsi, nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela.

othoi

bekhaiztu

ahalke

Orai badirudi euskarak ahalke dela,[8] arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur.

are ere

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franzeses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berèk dute falta eta ez euskarak.

11 Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil, deus eztakitenentzat ere.

xoil


Ez eta, eztitut bethiere, eskritura saindua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gaixtoago dela euskara. Aitzitik badirudi ezen bertze hitzkuntza eta lengoaia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baiña euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela.

bihurtu

Baiña euskara eta euskararen minzatzeko eta eskiribatzeko moldeak eta diferentziak utzirik: zeren hek azala eta lorea bezala baitira: har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia: haur dasta ezazu, haur eskuzta ezazu, irakurtzen duzula, ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuiatzeko kontuan ere. Baiña intenzione on batekin, zeurea, zeurk egina baitzendu bezala, eta baldin halatan eta orduan, bat ere gozorik edo zaphorerik edireiten badiozu, zeren hura guztia Iainkoaganik heldu baitateke, eta ez eneganik faltarik baizen, hari eskerrak errenda iatzotzu, eta nitzaz ere othoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitezi.

dastatu eskuztatu

VALE



DESPUES

COMIENZA LA PRIMERA PARTE DEL LIBRO QUE TRATA ACERCA DEL QUE ANDA APLAZANDO LAS COSAS INDEFINIDAMENTE

QUE, APARTE DE OTRAS RAZONES, AUN POR HUIR DE LA OCIOSIDAD, ES PRECISO TRABAJAR

PRIMER CAPITULO

12 Cuando nuestro Dios, después de haber hecho a todos los otros seres del mundo, creó particularmente al hombre a su imagen y semejanza, sin pecado alguno y sin la más mínima sombra o rastro de pecado, adornado de muchos dones y prerrogativas, lo colocó inmediatamente en aquella parte o región mejor que tenía la tierra, en el Paraíso terrenal, en un lugar lleno de delicias. Y le ordenó que lo cultivara, que lo trabajara y que cuidara bien aquel Paraíso. "Posuit eum in paradiso voluptatis, ut operaretur et custodiret illum" (Gen. 2).

Mas como el trabajar la tierra, el tener que cultivarla y el verse en la necesidad de cuidarla, es consecuencia, fruto y secuela que proviene del pecado; y como entonces todavía no existía pecado ni se conocía rastro ni mención de él; parece igualmente que no debía haber necesidad de cultivar y cuidar aquel paraíso. ¿Por qué entonces dio Dios al hombre aquel mandamiento? Responde Santo Tomás diciendo: **Nec tamen illa operatio esset laboriosa**, "sicut post peccatum, sed fuisset iucunda, propter experientiam virtutis naturae. Custodia etiam illa non fuisset contra invasorem, sed esset ad hoc, quod homo sibi paradisum custodiret, ne ipsum amitteret peccando" (S. Thom. 1 p. q. 102, art. 3). Aquel trabajar de entonces no hubiera sido penoso, como lo es ahora después del pecado. Sino que hubiera sido a modo de placer, un adiestramiento de la fuerza y habilidad, con toda comodidad y desahogo. Y el cuidarlo tampoco sería por los enemigos, sino por sí mismo, para que por el pecado no lo perdiera para sí. Así dice Santo Tomás.

GERO

HASTEN DA GEROTIK GERORA DABILLANAZ, EGITEN DEN LIBURUAREN LEHEN PARTEA

NOLA BERTZEAK BERTZE DIRELA, ALFERKERIATIK IHES EGITEAGATIK ERE BEHAR DEN TRABAILLATU

LEHENBIZIKO KAPITULUA

beregainki

12 Gure Iaungoikoak, munduko bertze gauza guztien ondoan, gizona bera, bere gainki, bere imajinara eta idurira, bat ere bekhaturik eta bekhaturen kutsurik ere gabe, anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotaturik, egin zuenean, ibeni zuen berehala, lurrak zuen parterik, eta aurkientzarik hoberenean, lurreko parabisuan, lekhu plazerez bethean. Eta manatu zuen lant zezala, labora zezala, eta begira ongi parabisu hura. *Posuit eum in paradiso voluptatis, ut operaretur, et custodiret illum* (Gen. 2).


aurkientza

laboratu

Ordea nola lur-lantzea, aphaintzea, laboratzea, eta begiratzeko beharrean eta premian ere iartzea, bekhatutik sortzen eta heldu diren xertoak, landareak, fruituak, eta ondoreak baitira, eta oraino orduan ezpaitzen bekhaturik, eta ez bekhaturen aierurik, omenik eta ez aiphamenik ere, badirudi ezen etzela halaber, oraiño orduan, parabisu haren lantzeko, eta begiratzeko premiarik. Zertako, beraz, eman zioen orduan, Iainkoak gizonari, manamendu hura? Ihardesten du San Tomasek, erraiten duela: *Nec tamen, illa operatio esset laboriosa sicut post peccatum, sed fuisset jucunda, propter experimentum virtutis naturae. Custodia etiam illa non fuisset contra invasorem, sed esset ad hoc, quod homo sibi paradisum custodiret ne ipsum amitteret peccando* (S. Thom. 1. p. qu 102 art. 3). Etzen ez orduko trabaillatze hura, pênagarri izanen, orai bekhatu eginez gero bezala. Baiña hura izanen zen atsegin hartze bat, eta bere plazerera, eta aisiara zegoela, bere indarraren eta anzearen frogatze bat. Eta begiratzea ere, ez etsaietarik, baiña bereganik, eta beretzat bekhatuz galtzetik begiratzea, izanen zen. Hunela dio San Tomasek.

omen

anze (antze)



13 Pero San Crisóstomo da otra razón, que se acerca más al tema que yo trato, diciendo: "Propterea praecepit Deus ut operaretur illum, si enim laboris omnis fuisset expers, ex nimio otio, in ignaviam fuisset prolapsus" (Chrys. hom. 14 in cap. 2. Gen. t. 3). Es verdad, no había todavía entonces qué hacer en aquel Paraíso terrenal, no había necesidad de trabajar. Pero así y todo no quiso Dios que el que allí moraba, estuviera ocioso: para que por no trabajar, no viniese a hacerse vago y perezoso, y por darnos a entender qué cosa tan mala era y es la holgazanería.

Cuenta Casiano (Casian. lib. 18, cap. 14) que Paulo, aquel abad antiguo, tomando unas ramas de palmera, se ocupaba en hacer con ellas cestos y canastas; y que después de haberlos hecho, al cabo de la semana, los quemaba y deshacía todos. Porque por una parte, como vivía lejos de los pueblos, más montaba el gasto del transporte que el valor de la obra; y por otra parte, porque todo aquel trabajo, que se tomaba después de haberse cansado en oraciones, lo hacía por huir de la ociosidad, y no por la ganancia que de él se siguiese.

Nuestro Dios dio en la ley antigua seiscientos y más mandamientos y clases de ceremonias, y junto con ellos tantas prescripciones, que dice San Pedro, que ni él ni sus antepasados pudieron cumplir ni soportar una carga tan grande. "Quod neque patres nostri neque nos portare potuimus" (Act. 15). Y si queréis saber por qué los cargó Dios con tantos mandamientos, responde un doctor: "Ut per operationes variorum sacrificiorum otiositas tolleretur, quae multis malis initium tribuit et fomentum" (Abulen. in praefat. in Levit.). Los cargó con tantos mandamientos, sacrificios y clases de ceremonias, para que con todo ello se evitase la ociosidad, que es principio e incentivo de tantos perjuicios y daños.

14 Así como nuestro Dios vistió a los animales terrestres, a las aves del cielo, a los peces del mar y a los árboles de la selva con su vestimenta peculiar; a los animales de piel y pelos; a las aves, de plumas; a los peces, con escamas; y a los árboles, de corteza. Y así como los árboles, sin menearse del lugar donde se encuentran, y sin trabajar, se mantienen, alimentan y crecen, chupando y aspi-

9 *Haritzen zela.* Ohitura edo maiztasuna adierazi nahi denean, beti *-tzen* horrekin. Gainerakoan *hari da, hari zen.* Ikus MITX. FLV (1974), 114.


13 Baiña San Krisostomok emaiten du bertze arrazoin bat, ni narraikan pontuari hobeki hurbiltzen zaikana, erraiten duela: *Propterea praecepit Deus ut operaretur illun, si enim laboris omnis fuisset expers, ex nimio otio, in ignaviam fuisset prolapsus* (Chrys. hom. 14 in cap. 2 Gen. tom. 3). Egia da, etzen oraiño orduan, lur-parabisu hartan egitekorik, etzen trabaillatzeko
halarik premiarik. Ordea halarik ere, etzuen nahi Iainkoak, han zegoena, zegoen geldirik: ez trabaillatzetik alfertzera, eta nagitzera ethor etzedin, eta zein gauza gaixtoa zen, eta den alferkeria, aditzera emaiteagatik.

Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura,
zare palma adar batzuk harturik, hetzaz, zare, saski eta
otharre otharre egiten haritzen zela[9] eta gero azkenean, egin
erra ondoan, astearen buruan, guztiak erratzen eta desegiten zituela (Casian. lib. 18 cap. 14). Zeren bataz, nola herrietarik urrun baitzegoen, gehiago baitzekarkeien
garraio garraioaren gastuak, obraren balioak baiño: eta berriz bertzea, zeren trabaillu hura guztia orazinotan eta othoitzetan unhatu ondoan, alferkeriatik ihes egiteagatik, hartzen baitzuen, eta ez ondoko irabaziagatik.

Gure Iaungoikoak eman zituen lege zaharrean seietan ehun eta gehiago manamendu eta zirimonia suerte, eta hekin batean hanbat egiteko, non erraiten
Iondone baitu Iondone Petrik, ez berak, eta ez haren aitzinekoek ere, ezin bururik ēgin zutela, eta ez iasan hain karga handia. *Quod neque patres nostri, neque nos portare potuimus.* (Act. 15). Eta nahi baduzue iakin, ea zergatik kargatu zituen Iainkoak hanbat manamenduz, ihardesten du doktor batek: *Ut per operationes variorum sacrificiorum otiositas tolleretur, quae multis malis initium tribuit et fomentum* (Abulen. in praefat. in Levit). Kargatu zituen hanbat manamenduz, sakrifizioz eta zirimonia suertez, hekin batean khen zedin, hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den alfertasuna.

14 Nola gure Iaungoikoak beztitu baitzituen lurreko
hegaztina animaliak, aireko hegaztinak, itsasoko arraiñak, eta oihaneko zuhaitzak ere, bere beztimenda suerte batzuez. Animaliak larruz eta illez: hegaztinak lumaz:
ezkata arraiñak ezkataz: eta zuhaitzak azalez.

Eta nola zuhaitzak bere dauden lekhuetarik higitu gabe, eta trabaillatu ere gabe, bere azpiko lurraren
gozo (sust.) gozoa eta gizentasuna, beregana, bere erroez thiratuz



rando hacia sí con sus raíces el jugo y la grosura de la tierra que está debajo de ellos: y los animales, asimismo, comen sus alimentos inmediatamente, sin molerlos, asarlos ni cocerlos; y en cuanto a casa y cama, en cualquier lugar en que les anochece y oscurece, allí se la procuran; y la mayor parte de ellos luego al punto saben ir en pos de sus madres: todas las cuales son grandes ventajas. Así también, si Dios hubiera querido, podía haberle dado al hombre todas estas ventajas, y aun mayores. Podía haberle vestido, haberle dado casa, y haberle hecho poseedor de cuanto necesita sin costarle nada. ¿Y por qué no lo hizo? A fin de que no estuviera ocioso. Y, como dice San Ambrosio, a fin de que ejercite el entendimiento que ha recibido. "Soli autem homini, ut rationale quod accepit exerceat, vitae cursus in labore praescribitur" (Ambros. in praefat. in Levit.). Porque si ahora, que conseguimos las cosas con tanta dificultad y costándonos tanto, somos tan perezosos y vagos, ¿qué sería si tuviéramos entre las manos todo cuanto queremos? ¿si nada nos faltara? Podríamos decir como aquel rico del Evangelio: "Anima, habes multa bona posita in annos plurimos, requiesce, comede, bibe, epulare" (Lc 12). Comamos y bebamos, descansemos y gocemos, porque al fin y al cabo no nos falta nada ni hay miedo de tener que ir a pordiosear.

§ 1.

15 Dice Aristóteles (Arist. lib. 5 Politic. c. 11) que es bueno, para desterrar y suprimir del Estado la holgazanería, y para preservar a los pueblos de levantarse contra su rey o contra otros, el emprender algunas obras grandiosas, el construir ciertas torres o castillos y ocupar en ello a la gente. Como se ve en las Pirámides de Egipto, las cuales hizo construir el rey Faraón, con el fin de que el pueblo no estuviera ocioso. Pareciéndole a aquel rey que si a los hijos de Israel, que tenía bajo su poder en calidad de cautivos (pasaban de seiscientas mil personas), los dejaba vivir a su gusto y capricho; podrían venir a creerse algo y aspirar a prevalecer, y que de ahí se originaría lo que no conviene; tomó el designio, la idea y el propósito de hacer unas Pirámides. Y hablando de estas Pirámides, dice San Isidoro: "Pyramides est genus sepulchrorum quadratum fastigiatum ultra omnem celsitudinem, ut a lato incipiant, et in angusto finiantur" (Isidor. lib. 5 Ethimol. c. 11). Pirámide o Pirámides eran una es-

edoski eho etzauntza arratstu

eta edoskiz, hazten, handitzen eta mantenatzen baitira: animaliek ere bere bazkak eta iatekoak, berehala, eho gabe, erre eta egosi gabe, iaten baitituzte: eta bai bere etxeak eta etzauntzak ere, non nahi den, arratsten eta ilhuntzen zaien lekhuan hartzen: eta gehienak, berehala bere ameen ondotik baitoazi; zein baitira abantail handiak. Hala Iainkoak nahi izan balu, eman zerauzkaion gizonari ere abantail suerte hauk guztiok, eta gehiago ere. Beztitu zukeiėn, etxedun egin zukeien. Ordea etzuen hala ibeni nahi izatu. Eta zergatik ez? Alfer etzegoen amoreakgatik. Eta San Anbrosiok dioen bezala, errėzibitu duen adimendua enplega dezangatik. *Soli autem homini, ut rationale quod accepit exerceat, vitae cursus in labore praescribitur* (Ambros. in praefat. in Levit). Zeren baldin orai, gauza guztiak hain nekez eta hanbat gostarik, erdiesten ditugularik, hain nagi eta alfer bagara; zer geneidike, nahi dugun guztia, nahi bezala eskuen artean bagendu? Deus falta ezpalitzaiku? Erran genezake Ebanjėlioko aberats hark bezala: *Anima, habes multa bona, posita in annos plurimos, requiesce, comede, bibe, epulare* (Lc. 12). Dezagun ian eta edan; dezagun pausa eta atsegin har; zeren berdin eztugu deusen eskasik, eztugu egun hautan eskean ibiltzeko perilik.

pausatu

peril

§ 1

15 Erraiten du Aristotelek, on dela, alferkeriaren herritik khentzeko, eta desterratzeko: eta herrien ere bere erregeren edo bertzeren kontra iaikitzetik begiratzeko, zenbait obra handiren hastea, zenbait dorreren edo gazteluren egitea, eta hetan iendearen enplegatzea (Arist. lib. 5 Politic. cap. 11). Nola ageri baita Eiiptoko Piramidetan, zein eragin baitzituen errege Faraonek, iendeak alfer etzeudezin amoreakgatik. Iduriturik errege hari, ezen baldin Israeleko seme gathibu bezala bere azpian zedutzan hek (iragaiten baitziren seietan ehun milla prėsunatan) utzten bazituen bere plazerera eta aisiara bizitzera, urguillutzeko eta nabusitzeko bidean iarriko zirela, eta handik behar etzena sorthuko zela, egin zuen Piramide batzuen egiteko gogoeta, asmua eta pensua. Eta Piramide hetzaz mintzo dela, erraiten du San Isidorok: *Pyramides est genus sepulchrorum quadratum fastigiatum ultra omnem celsitudinem, ut a lato incipiant et in angusto finiantur* (Isidor. lib. 5 Ethimol. cap. 11). Piramidea edo Piramideak zi-

piramide

gathibu

presuna

aisia



pecie de sepultura, pilares, columnas de cuatro lados, muy elevadas, lo más altas que se pudieran hacer, en la base anchas y en el vértice estrechas. Y en éstas hacia trabajar Faraón a estos sus súbditos, señalando a cada uno el trabajo y porción de obra de cada día. Y aunque ya era bastante el simple trabajo, con todo, los instrumentos, aperos y todos los materiales para hacer la obra, debían buscarlos y suministrarlos ellos mismos. Y a pesar de esto, no podían quejarse; de tal forma, que apenas se les deslizó de la boca la primera palabra de queja, el Faraón inmediatamente les dijo: "Vacatis otio" (Exod. 5). Estáis ociosos, vuestra comodidad, confort y melindre es la que os da fuego, ella es la que así os incita y hace hablar. Y para lo sucesivo los cargó aún más, les dobló el trabajo. Todo esto lo hacía por temor de que si tenían ocio o estaban sin quehacer, de ello se le originara algún daño.

16 Pisístrato, aquel malvado tirano de Atenas, cuando vio toda la plaza llena de gente vaga, y que de ellos podían originarse muchas maquinaciones y obras malas, llamó a todos a sí. Y para que en adelante no tuvieran excusa para estar ociosos, les dio mulos, bestias de carga, bueyes, semillas, dinero, en fin, cuanto habían menester para poder trabajar. Y luego los mandó al trabajo; imaginándose que así no harían daño, ni maquinarían perversos designios, ni revolverían la nación (Aelianus, lib. 5 variis histor.).

Los que conocen el mundo, han dicho y dicen que es bueno para los pueblos y reinos el mantener en el exterior ciertas guerras y empresas. Porque así como uno con la paz se adormece, se despreocupa y se da a los placeres del cuerpo, así también con las guerras, con los enemigos y contrariedades se espabila, se despierta y vuelve solícito.

También el perezoso en frío invierno, cuando una hoja de puerta golpea contra la otra, se mueve en la cama, se vuelve al otro lado, se pone con la cabeza levantada. Pero en fin de cuentas, después de todas estas vueltas, se vuelve a dormir en su cama caliente. Pues esto mismo es lo que se realiza espiritualmente en el pecador perezoso. El pecador al cabo de permanecer en ese estado, conoce que lleva mal camino, que va desviado. Y toma cierta resolución, toma un deseo de volver al buen camino, de emprender una nueva vida; y de abandonar todas las malas costumbres de hasta entonces.

Pero a la postre, al cabo de todos estos vuelcos y meneos, se queda en la cesta y yacija de sus pecados, a la manera como la puerta se queda en sus goznes y el perezoso en su cama.

Beraz guk ere, *gero* huni eduki behar diogu begia. Hunen geureganik khentzera, urruntzera eta etxetik atheratzera, behar dugu geure indar guztiaz eta antzeaz enseiatu, permatu, deliberatu, eta egun egin behar dugun gauzarik, eta ahal daidikegunik, ez biharko luzatu.

permatu



NOLA NAHIKUNDE HUTSETAN, ETA DESIRKUNDE XOILLETAN IRAGAITEN ZAIKUN DENBORA

KAP. III

29 Erraiten du Salomonek, edo Salomonen ahotik Spiritu Sainduak: *Sicut ostium vertitur in cardine suo, sic piger in lectulo suo* (Prov. 26). Athea bere erroetan bezala, itzultzen da nagia ère bere ohean edo kamastran. Athea bere erroetan eta uhaletan ongi iarria eta pausatua dagoenean erraxki hertsten da eta idekitzen da, aise alde batèra eta bertzera erabiltzen da. Ordea erabiltze hek guztiakgatik ere, erabili ondoan bere lekhuan eta tokian gelditzen da. Nagia ere negu hotzean, atheak atheari darauntsanean, ohean higitzen da, bertze aldera itzultzen da, burua goititurik iartzen da. Ordea hargatik itzul inguru heken buruan, lotara bere ohe berora bihurtzen da. Bada haur beror spiritualki, bekhatore nagia baithan ere gerthatzen da. Bekhatoreak egonaren buruan, ezagutzen du bide makhurra daramala, errebelatua dohala. Eta hartzen du zerbait gogo, hartzen du nahikunde bat, bide onera bihurtzeko, bizitze berri bati lotzeko, eta anarteraiñoko aztura gaixto guztien utzteko.


erro

uhal

erauntsi higitu

Ordea gero ere, iraultze eta ibiltze heken guztien finèan, athea bere erroetan, eta nagia bere ohean bezala, bere bekhatuen xisteran eta etzauntzan baratzen da.

xistera baratu



30 Cuando tienes en la mano el azor, se mueve, se agita fuertemente, se pone y se lanza a volar. Pero después de estos ímpetus, se vuelve a la mano donde estaba. Pues bien, de esta misma manera el *pecador perezoso después de todos sus buenos pensamientos*, se vuelve a sus primeros pasos y malos procederes.

Intenta, pero débilmente; se acerca, pero no lo suficiente. Refiriéndose a los tales dice el profeta Isaías: "Venerunt usque ad partum et virtus non est pariendi" (Is. 37). Llegaron hasta el momento de parir, pero no parieron, no había fuerza suficiente para ello. Tomamos una resolución, tomamos un propósito de hacer buenas obras: y llegamos a la hora en que hay que hacerlas, pero ahí reculamos y nos *volvemos atrás, nos acobardamos y desfallecemos*, venimos a fallar cuando más falta hacía. Y es que la resolución y voluntad que tomamos no es auténtica, no es seria y tomada con plena decisión: es una veleidad y no un querer. "Voluntas nova quae mihi esse caeperat, non erat idonea ad superandam priorem, vetustate roboratam", dice San Agustín (August. lib. 8. confess. cap. 5). Mi voluntad nueva no tenía fuerza suficiente para vencer a la voluntad vieja. El que está dormido, cuando llega a medio despertarse, hace ciertos movimientos, un como amago de levantarse, pero como no se esfuerza de veras, torna de nuevo a dormir, el sueño le vence. Así dice San Agustín que le sucedía también a él mismo en un tiempo: "Cogitationes quibus meditabar in te, similes erant conatibus expergisci volentium, qui tamen superati soporis altitudine remerguntur" (August. ubi supra). Los placeres y contentos del mundo me tenían dominado, a manera de un sueño sabroso, y de cuando en cuando me solían venir *ciertos deseos de salir de dichos placeres y de pensar en* Dios. Pero todo esto era como unas tentativas y empeños débiles del que quería despertar, inútiles para vencer el sueño, sin fuerza suficiente para sacar de las vanidades del mundo. Y así al cabo de todos mis buenos deseos, me quedaba en mis antiguos hábitos y pecados.

31 "Vult et non vult piger", dice Salomón (Prov. 13). El perezoso quiere y no quiere. No tiene un querer entero y cumplido. "Pigri vocabulo denotatur, quod vult regnare cum Deo, et non laborare pro Deo: *delectant praemia cum pollicentur, deterrent certamina cum iubentur*" (Beda, lib. 2 super Prov.). El

[18] *Aldia batez* (sic). Haladator, bai Gero-ren lehen edizioan eta bai bigarrenean ere.

aztore iharrosi oldartu

30 Aztorea eskuan dadukazunean, higitzen da, iharrosten da, hegaldatzera aphoderatzen eta oldartzen da. Ordēa oldartze hek egin eta, lehen zegoen eskura bihurtzen da. Hala bihurtzen da bada bekhatore nagia ere, bere gogoeta on guztien buruan, bere leheneko tornuetara eta maiña gaixtoetara. Enseiatzen da, baiña flakoki, hurbiltzen da, baiña ez aski. Halakoakgatik errai-

erdi

ten du Isaias profetak: *Venerunt usque ad partum et virtus non est pariendi* (Is. 37). Ethorri ziren erditzeko pontura, ordea etzirèn erdi, etzen hartarakotzat indarrik aski. Hartzen dugu gogo, hartzen dugu borondate, obra onak egin behar ditugula: eta ethortzen gara egin

ixtitu anu egin

behar ditugun orenera, ordea han ixtitzen eta gibelatzen gara, han anu eta ukho egiten dugu, beharrenean faltatzen dugu. Zeren hartzen dugun gogo eta borondate hura, ezpaita fina, ezpaita zinezkoa eta ez deliberatuki deliberatua; nahikundea baita eta ez nahia. *Voluntas nova quae mihi esse coeperat, non erat idonea, ad superandam priorem, vetustate roboratam,* dio San Agustinek (August. lib. 8 Confess. cap. 5). Ene borondate berriak etzuen indarrik asko borondate zaharraren garaitzeko. Lo datzanak, erdi iratzartzen denean, egiten du zenzait mugida, iaiki nahi iduri bat, baiña nola ezpaita asko zinez permatzen, berriz lotara bihurtzen da, loa nabusi gelditzen da. Hala dio San Agustinek, gerthatzen zeikala aldia batez[18], berari ere: *Cogitationes quibus meditabar in te, similes erant conatibus expergisci volentium, qui tamen superati soporis altitudine remerguntur* (August. ubi supra). Munduko atseginek eta plazerek, lo gozo batek bezala, azpian nendukatèn, eta noizik behin ethortzen zeizkidan plazer hetarik ilkitzeko eta Iainkoa baithan phensatzeko desirkunde batzuk. Baiña hek guztiak lotarik iratzarri nahi

aldia

permadura

zuenaren enseiu eta permadura flako batzuk bezala ziren, probetxu gabekoak, loaren garaitzeko, munduko egitekoetarik atheratzeko, indarrik asko etzutenak. Eta halatan neure desirkunde on guztien buruan ere, neu-


usantza

re leheneko usantzetan eta bekhatuetan gelditzen nintzen.

31 *Vult et non vult piger,* dio Salomonek (Prov. 13).

konplitu (adj.)

Nahi du eta eztu nahi nagiak. Eztu nahi osoa eta ez konplitua. *Pigri vocabulo denotatur, quod vult regnare cum Deo, et non laborare pro Deo: delectant proemia cum pollicentur, deterrent certamina cum iubentur* (Beda



perezoso quiere tener parte en el reino de Dios, pero no quiere tenerla en los trabajos que se deben pasar para alcanzar dicho reino. La recompensa le alegra, el trabajo le entristece y asusta. El premio que se sigue de obrar el bien, quisiera disfrutarlo sin obrar el bien. Quiere ir al paraíso, pero sin cansarse. Ni quiere dejar el placer ni quiere tomarse molestia alguna. Rehúsa ponerse en camino. "Piger, quasi aeger pedibus" (Isidor. lib. 2. Ethym.). Está cojo, tiene los pies enfermos, la voluntad débil y sin energía. Tiene y tenemos una veleidad, pero nos falta el querer y el obrar, esto lo dejamos para luego. Sin obrar nada, sin hacer ninguna otra cosa fuera de lo que nuestro capricho y voluntad nos dice, por la fuerza de los meros deseos y por la misma voluntad, quisiéramos salvarnos y entrar en la gloria del cielo. Y en estos deseos, con el pensamiento y la voluntad puestos en el futuro, se nos pasa todo el tiempo.

32 Es un dicho común que el infierno está lleno de buenos deseos. Porque los que allí están, aunque no obraron, por lo menos tuvieron algunos buenos deseos. Ninguno es tan malvado, que algunas veces no le venga el pensamiento de dejar sus maldades y que no tenga incluso ciertos buenos deseos. Pero estos buenos deseos por sí solos no bastan. Porque ellos son como la flor. Y así como no se saca provecho de la flor que no arraiga, de la que no prende, de la que se pierde en el brote o en el capullo; así tampoco hay utilidades ni fruto alguno en el mero querer, en el solo deseo, que pudiendo no obra.

Al vago se le debe decir que obre, y al perezoso que se mueva: y tanto el uno como el otro, ambos son parecidos, los dos son mero querer: no son sino veleidad, deseo, pensamiento e inclinación. Y estos deseos ya de suyo hacen sufrir bastante. "Desideria occidunt pigrum", se suele decir (Prov. 2). "Ignavis semper sunt feriae" (Adagium). Para los perezosos y vagos todos los días son fiesta. Pero mejor podría decirse que para los tales aun las fiestas son días de labor. Porque el ocioso en su ociosidad muchas veces encuentra más trabajo que el trabajador en su labor. Esto se ve en el rey David. Las guerras y los trabajos derivados de éstas nunca le dieron a dicho rey tantos quebraderos de cabeza y disgustos como le dieron la ociosidad y los pecados que hizo estando ocioso "Non sunt otiosi quorum voluptates multum negotium habent", dice Séneca (Senec.

19 *Dioskun*=esaten digun. Bizkaierazko formaz antz handia du *(diñoskun)*: Aditz hunen formak dituzu, baita ere, toki hauetan: 169, 199 (bi), 212.

lib. 2 super Prov.). Nahi du nagiak Iainkoaren erresuman parte, ez ordea erresuma haren erdiesteko, iragan behar diren trabailluetan. Pagamenduak alegeratzen du, trabailluak tristetzen du eta izitzen. Ongi egitetik heldu den irabazia, ongirik egin gabe nahi luke gozatu. Nahi du ioan parabisura, ordea nekhatu gabe. Ez atseginik nahi du utzi, eta ez penarik hartu. Herabe du bideari lotzera. *Piger, quasi aeger pedibus* (Isidor. lib. 2 Ethym.). Maingu da, oiñak ditu eri, gogoa erbal eta flako. Nahikundea badu eta badugu, nahia eta obratzea zaiku falta, hura geroko egotzten dugu. Deus ere obratu gabe, deus ere geure gogoak eta borondateak dioskun[19] gauzarik baizen egin gabe, desira hutsen botherez, borondateaz bêraz nahi genduke salbatu eta zeruko lorian sarthu. Eta desira hautan, geroko gogoan eta borondatean, denbora guztia iragaiten zaiku.

pagamendu izitu herabe erbal


32 Erran komuna da infernua desira onez bethea dagoela. Zeren han direnek obratu ezpazuten ere zenbait desira on bedere izan zuten. Ezta nehor ere hain gaixtorik, zenbait aldiz, bere gaixtakerien utzteko gogoa ethortzen etzaikanik, eta zenbait desirkunde on ere izaiten eztuenik. Ordea desirkunde on hek berak eztira asko. Zeren hek lorea bezala dira. Eta nola hartzen eztuen loreaz, itxatxetkitzen eztenaz, botean edo ninikoan galtzen denaz, ezpaita probetxurik, hala borondateaz beraz, desira hutsaz, xoillaz eta bakharraz, obra ahal ditekeiela, obratu gabe gelditzen denaz, ezin dateke probetxurik eta ez fruiturik.

itxatxeki bote niniko

Alferrari erran behar zaika, dagiela, eta nagiari, higi dadilla: eta hala bata, nola bertzea, biak orobatsu baitira, biak dira borondate huts: eztira nahikunderik, desirkunderik, gogorik eta gutiziarik baizen. Eta gutizia hek berak dira penagarririk asko. *Desideria occidunt pigrum*, erraiten oi da (Prov. 2). *Ignavis semper sunt feriae*, nagientzat eta alferrentzat egun guztiak dira besta (Adagium). Baiña hobeki erran liteke, halakoentzat, bestak ere astelegun direla. Zeren trabaillariak bere trabailluan baiño, anhitzetan ere alferrak, bere alferkerian trabaillu gehiago edireiten baitu. Ageri da errege David baithan. Errege hari etzeraukaten egundaiño gerlèk, eta gerlètako trabailluek hanbat egiteko eta atsekabe eman, nola alferkeriak, eta alfer zegoela egin zituen bekhatuek. *Non sunt otiosi quorum voluptates multum negotium habent*, dio Senekak (Se-

orobatsu

astelegun



de brevitate vitae). No están ociosos, no, quienes andan entre placeres. Porque en estos placeres hay desplacer y aflicción, trabajos y cuidado. "Dum otio vacant in rem negotiosissimam incidunt" (Laert. lib. 2). Con estar ociosos, caen en un quehacer grande. "Sicut enim cum quis non comedit, dentibus nocet: ita qui comedit non accomoda stupescere facit" (Chrys. hom. 36, tom. 3). Así como el no comer pierde los dientes: así también el comer de lo que no se debe, produce en ellos dentera.

§ 1

33 Cosa cierta y enseñada por la verdadera fe es que para salvarse, para entrar en la gloria del cielo, no bastan los buenos deseos, sino que es preciso cumplir los santos mandamientos de Dios tanto de deseo como de obra. Esta es la verdad, y esta verdad la creemos todos cuantos somos cristianos. Pero con todo, nuestra malicia y mala voluntad encuentra ciertos subterfugios, excusas y escapatorias para dejar el obrar y pasarse el tiempo en deseos, para ir siempre aplazando la obra. "Propter frigus piger arare noluit" (Prov. 20). El que no quiso trabajar, alegó el pretexto del frío: el que no tenía ganas de ayunar, dijo que le dolía la cabeza. "Dicit piger, leo est in via" (Prov. 19). El perezoso, el que no quiere moverse de su sitio, encuentra grandes obstáculos, incluso dice que en el camino está el león. "Occasiones quaerit qui vult recedere ab amico" (Prov. 8). El que quiere deshacerse del amigo, el que quiere romper la amistad, busca las ocasiones, halla muchos pretextos y excusas: de la misma manera nosotros también hallamos coyunturas, excusas, pretextos y escapatorias para permanecer en los pecados, para pasar el tiempo en deseos y veleidades.


Cuando alguien te apremia para el bien, y tú estás remiso, sueles contestar al que así te apremia: por favor, me tienes que dispensar, pero aún yo no puedo hacer lo que tú dices. Porque se me ha metido en la cabeza un capricho, y debo ejecutar dicho capricho: se me ha ocurrido un deseo, y tengo que realizar dicho deseo: tengo que hartarme un poco, tengo que hastiarme, tengo que hacer la digestión: y entonces, cuando me haya hartado, hastiado, cuando haya digerido y me haya cansado, cuando la comida haya comenzado a asquearme, entonces lo dejaré todo: entonces decidiré resueltamente el ponerme en el buen camino y fijarme en él. Pero mien-

nec. de brevitate vitae). Eztaude ez alferrik, plazeretan dabiltzanak. Zeren plazer hetan bada desplazer eta atsekabe, trabaillu eta egiteko. *Dum otio vacant in rem negotiosissimam incidunt* (Laert. 2). Alfer egoiteaz, erortzen dira egiteko handitan. *Sicut enim cum quis non comedit, dentibus nocet; ita qui comedit non accomoda stupescere facit* (Chrys. hom. 36 tom. 3). Nola ez iateak galtzen baititu hortz-haginak, hala behar ez-
hortzkitu tenetik iateak ere, hortzkitzeintu.

§1

33 Gauza sègura da eta egiazko fedeak erakusten duena, salbatzeko, zeruko lorian sartzeko, eztirela desira onak berak asko. Baiña behar direla Iainkoaren manamendu sainduak, desiraz bezala obraz ere konplitu. Haur da egia, eta haur giristino garen guztiok sinhesten dugu. Ordea guztiarekin ere edireiten du gu-
itzurpide re maliziak eta borondate gaixtoak, zenbait itzurpide, zenbait desenkusa, eta eskapatzeko bide, obratzea utzirik, desiratan denboraren iragaiteko, luzamendutan ibiltzeko. *Propter frigus piger arare noluit* (Prov. 20).
atxakia Trabaillatu nahi etzuenak, hotzaren atxakia egin zuen:
baru(r)tu barutzera herabe zuenak, buruan min zuela erran zuen. *Dicit piger, leo est in via* (Prov. 19). Nagiak, bere lekhutik higitu nahi eztuenak, trabu handiak edireiteintu, bidean ere lehoiña dagoela erraiten du. *Occasiones quaerit qui vult recedere ab amico* (Prov. 8). Adiskideaz desegin nahi denak, adiskidetasuna hautsi nahi duenak,
estakuru okhasinoak bilhatzeintu, anhitz desenkusa eta estakuru edireiten du: hala edireiten ditugu bada guk ere okhasinoak, desenkusak, estakuruak, atxakiak eta itzurpideak, bekhatutan egoiteko, desirkundetan eta nahikundetan denboraren iragaiteko.

Nehork ontasunera hersten zaituenean, eta gibela zaudenean, ihardesten diozu hala hersten zaituenari. Othoi orai presenteon barkhatu behar derautazu, ezin daidiket oraiño zuk diozuna. Zeren buruan sarthu baitzait fantasia bat, konplitu behar dut fantasia hura; gogora baitzait gutizia bat, iragan behar dut gutizia hura; aphur bat ase behar dut, aspertu behar dut, ixiritu behar dut; eta gero orduan ase, asper, ixiri eta nekha
bianda higuindu nadinean, bianda higuintzen hasi dakidanean; orduan guztiak utzikoitut, orduan bide on batean iartzera eta
anarteraiño finkatzera deliberatuko dut. Baiña bitartean, anarte-



tras tanto, hasta entonces, ni hablar. Porque todo lo más que yo puedo ahora se reduce a un buen deseo e intención para después, a nada más. No es mal camino éste, quiero decir el proceder así, para luego al fin acabar mal.

§ 2

34 San Agustín, como quien lo había experimentado, dice muchas cosas sobre esta materia de los aplazamientos. Cuenta cómo, cuando llegó al trance de dejar la mala vida, anduvo no pudiendo romper, no pudiendo separarse y no pudiendo resolverse consigo mismo. Cuenta asimismo cuántos obstáculos encontraba, cuánta guerra le hacían sus amigos, las ocasiones y los malos hábitos. Por una parte deseaba colocarse en el buen camino: a ello le impulsaban las lágrimas de su santa madre, los remordimientos de la conciencia y los mandamientos de Dios. Y por otro lado, le impedían y retraían los hábitos inveterados, y sobre todo los halagos, lisonjas y placeres de las mujeres. "Tenaciter colligabar a foemina" (Lib. 8 Confess. cap. 1). Las mujeres le tenían fuertemente atado. "Dixeram da mihi castitatem et continentiam, sed noli modo. Timebam enim, ne me cito exaudires et sanares a morbo concupiscentiae, quam extingui" (8 confes. cap. 7). El apartarse de las mujeres se le hacía tan difícil y penoso que aun sus mismas súplicas las hacía para luego, para el futuro. Porque temía que el Señor las escuchara inmediatamente y le retirara sus placeres, que él revolvía en la mente, con un gran deseo de gozarlos. Cuando se hallaba con este problema, le decía a Dios, "modo, ecce modo, sine paululum" (8 confes. cap. 6). Ah Señor, deja un poco, espera un poco, no te apresures, no te enfades, no te parezca tarde, pronto estoy contigo. Así decía, así daba largas. Y en estas dilaciones se le fue mucho tiempo. Pero al cabo, él se convirtió bastante pronto, no permaneció hasta última hora. Al contrario, después de haber calculado bien por un lado y por otro, dijo con una gran determinación, a un amigo suyo: "Ego iam me abrupi ab illa nostra spe, et ideo servire statui, ex hac hora, in loco hoc aggredior" (8 Confess. cap. 6). Por lo que a mí respecta, yo estoy ya fuera de todos los negocios, vanidades y deseos mundanos: yo he roto con el mundo: he concluido con lo que al

20 *Ibili zen ezin ethenduz.* Axular-entzat *ethendu* da aditz hunen partizipioa, eta *ethen* radikala soilik. Ikus MITX. FLV (1974), 110.

raiño, ezta zer mintzaturik. Zeren nik orai ahal dukedan guztia da, desira ona, geroko gogoa eta intenzionea, eta ez bertzerik. Ezta bide gaixtoa haur, eta hunela orai egitea, gero fin gaitz egiteko.

§ 2


frogatu **34** San Agustinek, frogatuak bezala, anhitz gauza erraiten du luzamendutan ibiltzeko pontu hunen gaiñean. Kontatzen du nola bere bizitze gaixtoaren utzteko ingurunera zenean, ibili zen ezin ethenduz,[20] ezin partituz, eta bere baithan ezin deliberatuz. Kontatzen du halaber, zenbat trabu edireiten zuen, zenbat gerla egitèn zioten bere lagunek, okhasionek eta aztura gaixtoek. Alde batetik desiratzen zuen bide onean iartzea, hartara bulkhatzen zuten bere ama sainduaren nigarrek, konzientziaren autsikiek, eta Iainkoaren manamenduek. Eta bertzetik trabatzen eta gibelatzen zuten leheneko usantzek, eta guztiz ere emaztèn balakuek, hitz ederrek eta plazerek. *Tenaciter colligabar a foemina* (Lib. 8 Confess. cap. 1). Emaztèk zedukaten bortitzki lothua. *Dixeram da mihi castitatem et continentiam, sed noli modo. Timeban enim, ne me cito exaudires eta sanares a morbo concupiscentiae, quam extingui* (8 Confess. cap. 7). Emaztètarik apartatzea, hain zeikan gaitz eta gaitzi, ezen bere othoitzak ere, hetzaz geroko, ethorkizuneko egiten baitzituen. Zeren beldur zen, enzun zezan berehala Iainkoak, eta bere plazerak, gozatu nahizko desira handi batekin, bere gogoan zerabiltzanak, gibela ziatzon. Egiteko hunetan zebillanean, erraiten zioen Iainkoari: *Modo, ecce modo, sine paululum* (8 Confess. cap. 6). Ha, Iauna, utztazu aphur bat, igurikazu bertze aphur bat, ez lehia, ez khexa, ez berantets, sarri naiz zurekin. Hunela erraiten zuen, hunela luzatzen zuèn. Eta luzamendu hautan zebillala, denbora handia iragan zeikan. Ordea gero ere hura asko goiz bihurtu zen, etzen azken ponturaiño egotu. Aitzitik, alde batetik eta bertzetik bere kontuak egiñik, erran zioen, deliberamendu handi batekin, bere adiskide bati: *Ego iam me abrupi, ab illa nostra spe et ideo servire statui, ex hac hora, in loco hoc aggredior* (8 Confess. cap. 6). Nitzaz denaz bezan batean, ni kanpoan naiz munduko egitekoetarik, banalorietarik eta esperantza guztietarik, nik hautsi dut munduarekin, egin dut harekikoaz, eta deliberatu dut Iainkoaren zerbitza-

autsiki

balaku

berantetsi sarri

egotu



mundo se refiere y he resuelto servir a Dios. Y ahora mismo, en este mismo instante, empiezo: se acabaron las dilaciones, el dar largas y el andar con nuevos plazos. Y tal como lo dijo, lo hizo. Tuvo muchas dilaciones, pero a la postre, y bastante a tiempo, las dejó todas. En cambio, nosotros no obramos así, diferimos de un día para otro, siempre proponiendo; pero jamás rompemos, jamás nos decidimos ni cumplimos: siempre deseosos, siempre perezosos, en puras veleidades y deseos malgastamos todo el tiempo, y hallándonos en esta situación, la muerte nos atrapa, nos coge y se apodera de nosotros.

35 Verás en las casas de algunos grandes personajes aquel célebre y fuerte Hércules pintado, sosteniendo en su mano una porra o un gran mazo. Hace la impresión de que con dicho mazo va a romper las cabezas a todos los que entran en la casa. Pero como el tal Hércules está hecho de piedra, madera o cobre, o bien no es más que pintura, se está quieto. Amenaza, pero no hace más. Así son también los que aplazan indefinidamente: amenazan y no lanzan: apuntan y no disparan. Dicen: haré, y jamás hacen. En este estado se les pasa todo el tiempo y ellos también pasan, finan y perecen.

DE COMO NO TENEMOS SEGURIDAD NINGUNA RESPECTO DEL FUTURO

CAPITULO IV

36 Sabemos ya que la vida que actualmente llevamos es una vida mala: y que para que nos vaya bien, debemos dejar tal vida. Pero la cuestión es a ver cuándo la dejaremos. Y tú dices: "Después". Pero yo digo que no después, sino ahora. Veamos a ver quién dice mejor, quién tiene razón. Y para que se vea que yo la tengo, y que tú vas errado, apartado y descaminado del camino real y ancho, dime

tzera. Eta orai bereon, presenteon hasten naiz: ezta ia gehiago, geroko gerorik, luzamendurik, eta ez ephetan ibiltzerik. Eta hala, erran bezala, egin ere zuen. Anhitz luzamendu erabili zuen, baiña azkenean guztiak, eta asko goiz, utzi zituèn. Baiña guk eztugu hala egiten, egunetik egunera gabiltza, bethi prometa, bethi gogo har; eta behin ere ez ethen, behin ere ez delibera, eta ez konpli, bethi nahi, bethi nagi, nahikunde hutsetan, desirkundetan, denbora guztia gal, eta hala gaudezilla, heriotzeak atrapa, atzeman eta har.

prometatu

atrapatu atzeman

35 Ikhusiko duzu iende handi batzuen etxètan, Herkules sendo famatu hura pintatua, makilla borra bat, edo maillu handi bat, eskuan duela, baitirudi ezen hartzaz, etxean sartzen diren guztiei buruak hautsi behar derauztela. Ordea nola Herkules hura, harriz, zurez edo kobrez egina baita, edo pintura bat baizen ezpaita, geldi dago, kheinatzea egiten du eta ez bertzerik. Hala dira bada, gerotik gerora dabiltzanak ere, kheinatzen dira, eta eztute aurthikitzen: destatzen dira, eta eztute desarratzen. Erraiten dute: eginen dut; eta eztute behin ere ègiten. Hala daudela denbora guztia iragaiten zaie, eta berak ere iragaiten, finatzen eta akhatzen dira.

borra

kheinatu


aurthiki

desarratu

NOLA EZTUGUN GEROKO SEGURANTZARIK
KAP. IV

36 Badakigu, orain darabillagun bizitzea, bizitze gaixtoa dela, eta gutzaz ongi izaitekotz, bizitze gaixto haur utzi behar dugula. Ordea pontua da, ea noiz utziko dugun. Eta zuk diozu, gero. Baiña nik diot ezen ez gero, baiña orai. Dakusagun ea zeiñek dioen hobeki, zeiñek duen arrazoiña. Eta erakusteko ezen nik dudala, eta zu zoazilla huts egina eta bide errealetik eta zabaletik aldaratua eta errebelatua: Erradazu behin, egiteko hu-

aldaratu



primero, antes que abordemos este problema. Tú dices que después te convertirás, que después harás los necesarios descargos y obligaciones. ¿Dónde tienes certeza de ese después? ¿No sabes que, como dice el adagio, no hay cosa tan cierta como la muerte ni cosa tan incierta como la hora en que ella ocurrirá?

Esta nuestra vida tiene un cimiento tan débil y frágil que, hablando bien, no podemos decir: mañana haremos tal o tal cosa. Sino que hemos de decir, como dice Santiago: "Si Dominus voluerit, et si vixerimus, faciemus hoc aut illud" (Jacob. in sua epist. cap. 4). Si Dios quiere, si es que vivimos, haremos esto o lo otro. Por ello dice San Mateo Evangelista: "Vigilate itaque, quia nescitis diem neque horam" (Mt. 25): Estad preparados y despiertos. Porque no sabéis el día ni la hora; y dice también el Espíritu Santo que muchos se han perdido por haberse prometido a sí mismos demasiado respecto del porvenir. "Repromissio nequissima multos perdidit" (Eccli. 29).

Por causa del pecado del primer padre, por tal motivo, todos estamos presos, nos hallamos en esta cárcel de este mundo, condenados a muerte.


37 Pero siquiera sea de paso, voy a tratar este punto de nuestra condenación a muerte. Parece que por el pecado de nuestro primer padre, ni él mismo ni tampoco nosotros deberíamos morir. Porque lo que hizo fue comer una manzana u otra fruta semejante. Pues bien, el que por comer una manzana se condene a muerte a un hombre con todos sus descendientes, parece un nuevo género de justicia, una exageración y algo contra razón. Es verdad, así parece. Pero no es así; tal es el parecido, pero otra es la realidad. Al contrario, por comer una manzana, por lo mismo que quebrantó el mandato en una cosa tan pequeña y fácil, en parte por esto mismo mereció mayor castigo. Algunos por su negligencia, porque no son cristianos fervientes, quebrantan el día de ayuno sin causa: charlando con uno y con otro se quedan sin oír misa en día de fiesta: a cada palabra allí donde basta el no y el sí, juran y perjuran, y después dicen: ¿Es posible que por una cosa tan pequeña, que he hecho tan fácilmente, me vaya al infierno? Pues bien, he de decirte que precisamente por eso, porque en una cosa tan fácil, insignificante y pequeña has mostrado tu negligencia y el poco caso que haces del mandamiento de

ondu netan sarthu baiño lehen. Zuk baitiozu ezen, gero onduko zarela, gero behar diren deskarguak eta eginbideak eginen ditutzula. Non duzu gero horren segurantza? Eztakizu, erran komuna dên bezala, eztela heriotzea bezain gauza segurik, eta orena noiz izanen den bezain guti gerthurik?

eri (adj.) Gure bizitze hunek hain du zimendu flakoa eta eria, ezen ongi minzatzera, êzin baiterrakegu: bihar eginen dugu hunelako edo halako gauza. Baiña erran behar
Iakue dugu, Iondone Iakuek dioen bezala: *Si Dominus voluerit et si vixerimus, faciemus hoc aut illud* (Jacob. in sua epist. cap. 4). Baldin Iainkoak nahi badu, baldin bizi bagara, eginen dugu haur edo hura. Hargatik erraiten du San Mateo ebanjelistak: *Vigilate itaque, quia nescitis diem neque horam* (Mt. 25). Zaudete prestik eta iratzarririk, zeren eztakizue eguna eta ez orena; eta badio Spiritu Sainduak ere, anhitz galdu dela, bere buruari ethorkizunaz sobera prometatuz. *Repromissio nequissima multos perdidit.* (Eccli 29).

Gure lehenbiziko aitaren bekhatua dela kausa, ha-
kari (a?) rengatik, haren kariaz, guztiok gaude preso, guztiok
garzele gaude mundu hunetako garzele hunetan, heriotzera kondenatuak.

iragaitzaz **37** Baiña iragaitzaz bezala, gure heriotzera kondenaturik egoiteko pontu haur ukhi dezadan. Badirudi ezen gure lehenbiziko aitaren bekhatuagatik, ez hark berak, eta ez guk ere, ezkendukêiela hil behar. Zeren sagar bat edo halako bertze fruitu bat ian zuen. Bada sagar baten iateagatik, gizon baten, are bere ondoko guztiekin, heriotzera kondenatzea, badirudi iustizia berriarena, soberania eta arrazoiñaren kontra dela. Egia da, hala dirudi. Ordea ezta hala, iduria du, eta ez izana. Aitzitik sagar baten iateagatik, zeren hain gauza ttipian eta
manu erraxean manua hautsi zuen, aldez hargatik zuen gaz-
lazotasun tigu gehiago merezi. Batzuek bere lazotasunez, zeren
mengoa ezpaitira giristino finak, barur eguna, mengoa gabe hautsten dute: batarekin eta bertzearekin solhasean daudezilla, meza enzun gabe, besta egunean utzten du-
arnegu te: hitz guztiaz, ez eta bai asko den lekhuan, arnegu eta iuramentu egitên dute, eta gero erraiten dute: baldinba, ez ahal naiz hunengatik, hunein gauza aphurragatik, eta hunein erraxki egin dudanagatik ifernurako? Bada erran nahi deratzut ezen zeren horrein gauza erraxêan, aphurrean eta ttipian zeure laxotasuna eta



Dios, en parte al menos por eso mismo irás al infierno.

Si Dios te hubiera mandado que estuvieras en ayunas durante todo el día; que te acostases sobre una madera o piedra, sin meterte en la cama. Que llevaras sobre la piel un cilicio o cinturón de cerda: o en fin, si te hubiera dado algún otro mandamiento difícil, parece que no debería ser sorprendente el no cumplirlo; y que aun no cumpliéndolo, podías tener alguna excusa y pretexto. Pero en una cosa pequeña y fácil, en la prohibición de una manzana, ¿qué excusa, qué pretexto puedes tener?

38 Adán recibió de Dios muchos dones y prerrogativas, y luego a la postre Dios le señaló un árbol diciéndole que comiera de todos los demás, excepto del fruto de aquel árbol. Mandamiento fácil, prohibición pequeña la que le puso; y con todo no la observó, no la cumplió, la quebrantó, comió; por tanto, con razón, incluso por causa de la misma facilidad, le condenó a muerte con todos sus descendientes; puesto que también los descendientes tomaron su naturaleza. La cosa, la prohibición, es pequeña, *pero grande la desobediencia. Y así justamente* está dada la sentencia contra nosotros: justamente estamos condenados a muerte: y no sabemos para cuándo. Por lo tanto, si queremos dar de nosotros buena cuenta, debemos permanecer y proceder como uno que está condenado.

El que está en la cárcel, cuando llega a saber que está condenado a perder la vida, ¿quién podrá expresar cómo se entristece? ¿cuán pensativo se vuelve? Comienza a emitir suspiros, a volverse a una y otra parte, y viendo que no tiene remedio, que no tiene modo de escapar, concibe otro género de pensamientos distintos de los de antes. Renuncia al mundo y a las cosas de él, no hace caso de ellas. Su conciencia, su alma es la que le da quehacer. Piensa en sus pecados, los confiesa lo mejor posible; pide perdón a uno y otro. Finalmente, habiendo descargado y limpiado su conciencia lo mejor posible, aguarda a la muerte.

Pues a manera de ese que está condenado en la cárcel, debemos nosotros también permanecer, vivir y caminar, preparados como él, teniendo sus mismos pensamientos, puesto que, como aquél ha sido condenado para mañana, también nosotros lo hemos

[21] *Eskatzen zaie.* Laguntzaile iragangaitzaz jokatzen du Axular-ek *eskatu* aditza. Ikus beste toki batzuk ere: 46, 50, 109, 112, 151, 172, 299.

[22] *Benturaz gaurko*=agian gau huntarako. *Gaur*, Axular-entzat, *egungo gaua* da. Ikus beherago, 50 zatian, nola latinezko «hac nocte» euskarara *gaur* itzultzen duen.

Iainkoaren manuaz kontu guti egitea erakutsi duzun, aldez are horigatik ifernurako zarela.

Baldin Iainkoak manatu bazinitu, egun guztiaz barur zindezilla, zur baten edo harri baten gaiñean, ohetan sarthu gabe etzin zindezilla; zilizio bat, zerdazko gerriko bat, larru arras bethi ere erabil zenezala; edo finean, hunelako bertze manamendu gaitz bat eman baleratzu, badirudi etzatekeiela miretsteko, ez konplitzea, eta ez konplituagatik ere izan zendukeiela zerbait desenkusa eta estakuru. Baiña gauza ttipian eta erraxean, sagar baten dèbekuan, zer desenkusa, zer estakuru ahal dukezu?

etzin
arras
debeku

38 Adanek anhitz fabore eta abantail errezibitu zuen Iainkoaganik, eta gero heken guztien buruan, zuhaitz bat seiñalatu baitzioen, bertze guztietarik bai, baiña harèn fruitutik etzezala ian. Manamendu erraza, debeku ttipia ibeni zeraukan; eta guztiarekin ere, etzuen begiratu, etzuen konplitu, hautsi zuen, ian zuen, arrazoiñez beraz, erraztasun huragatik beragatik ere, kondenatu zuen bere ondoko guztiekin heriotzera: zeren ondokoek ere, haren naturaleza hartu baitzuten. Gauza, debekua, ttipia da, baiña desobedienzia handia. Eta hala iustuki dago, gure kontra sentenzia emana, iustuki gaude heriotzera kondenatuak, èta eztakigu noizko. Beraz baldin geure buruoz kontu onik eman nahi badugu, kondenaturik dagoen batek bezala, behar dugu egon, bizi eta gobernatu.

ondoko

Garzelean dagoenak, iakiten duenean kondenatu dela biziaren galtzera, nork erranen du nola tristetzen den? Zein gogoetatsu iartzen den? Hasten da hats beherapen ègiten, alde batera eta bertzera itzultzen. Eta ikhusirik eztuela erremediorik, eztuela eskapatzerik, hartzeintu lehenez bertze gogoeta molde batzuk. Munduaz èta mundukoez etsitzen du, eztu hetzaz konturik egiten. Bere konzienziak, bere arimak derauka egiteko. Bere bekhatuak pensatzeintu, ahalik eta hobekiena kofesatzeintu, batari eta bertzeari barkhamendu eskatzen zaie.[21] Finean, ahal bezanbat bere konzienzia deskargaturik, eta garbiturik, heriotzeari igurikitzen dio.

gogoetatsu
bezanbat

Bada garzelean kondenaturik dagoen hark bezala, hala prestaturik, hark dituen gogoetekin, behar dugu guk ere egon, bizi eta ibili, hura biharamuneko bezala, gu ere, èz iakin noizko, benturaz gaurko,[22] Iainkoaz be-



sido por sentencia del mismo Dios, y no sabemos para cuándo, quizás para esta noche.

Si la justicia metiera diez hombres en la cárcel, condenándolos a la horca; y si sacara de allí para ser ejecutado hoy uno, y mañana u otro día otro, o dos: ¿habría ninguno, entre éstos, que tuviera esperanza de vida larga? O bien, que porque no le *sacan el primero, ¿estuviera seguro de que ha de* ser el último? No lo creo. Pues este mundo no es otra cosa que una cárcel en que nosotros estamos condenados a muerte. Y de esta cárcel nos saca la justicia de Dios, hoy a uno, mañana a otro: a uno antes, a otro después, nadie sabe cuándo, no hay seguridad alguna. Por lo tanto, estemos en vela, estemos preparados, puesto que no hay seguridad.

§ 1

39 Es un adagio que anda en boca de todos: No tenemos certeza del porvenir, siempre estamos en peligro. Y así es la verdad. Porque cuando menos lo pensamos, cuando nos hallamos más satisfechos y cuando proyectamos hacer muchas cosas para el futuro, nos coge la muerte.

"Nescit homo finem suum, sed sicut pisces capiuntur hamo, et aves laqueo comprehenduntur; sic capiuntur homines tempore malo" (Eccl. 9). No conoce el hombre su fin, pero así como el anzuelo coge a los peces, y a las aves el lazo; así también coge a los hombres la muerte. Cuando el pez come, cuando está adherido al cebo, y cuando a su parecer se halla mejor, es cuando lo atrapa el pescador; y lo mismo hace el cazador con el ave. De la misma manera atrapa al pecador la muerte cuando más a su gusto se halla apegado a sus pecados, cuando más sabrosamente se ceba en ellos, y cuando menos piensa.

Es sentencia de los médicos que una persona cuando más fuerte está, es cuando tiene más peligro de enfermar. Y así, cuando crees que la muerte está más lejos de ti, entonces, por lo común, es cuando está más cerca. Cuando has pagado las deudas; cuando has hecho casa nueva, cuando has casado a los hijos. Finalmente, cuando has dado cima a tus negocios y te dispones a quedarte en paz y darte a ti mismo un poco de sosiego y de placer, allí está en seguida la muerte.

40 No somos nada, somos semejantes al vidrio, y aún más delicados y frágiles que el vidrio. No te-

raz, Iainkoak sentenzia emanik kondenatuak gaudenaz geroztik.

urkhabe Sar balitza iustiziak hamar gizon garzelean barrena urkhabera kondenaturik, eta handik athera balitza galtzera egun bat, eta bihar edo bertze egun batez bertze bia bat, edo bia. Othe lizateke nehor ere, heken artean, bizitze luzearen esperantza luenik? Edo zeren eztuten lehena atheratzen, azkena izanen dela segur lizenik? Eztut uste. Bada mundu haur ezta bertze gauzarik, gure heriotzera kondenaturik gaudenon garzele bat baizen. Eta garzele hunetarik atheratzen gaitu Iainkoaren iustiziak, egun bat, bihar bertze bat, bata lehen, bertzea gero, eztaki nehork noiz, ezta segurantzarik. prestik Beraz gauden erne, gauden prestik, segurantzarik eztenaz geroztik.

§ 1

solhas **39** Komunzki ahotan dabillan solhasa da: eztugu geroko segurantzarik, bethi gara periletan. Eta hala da gogara egia. Zeren gutien uste dugunean, geure gogarenik gaudenean eta aitzinerat ere anhitz gauzaren egiteko gogo hartzen dugunean, atrapatzen baikaitu heriotzeak.

Nescit homo finem suum, sed sicut pisces capiuntur hamo, et aves laqueo comprehenduntur, sic capiuntur homines tempore malo (Eccl. 9). Eztaki gizonak bere finaren berririk, baiña nola amuak atzemaiten baititu segada arrainak eta hegaztinak segadak, hala gizonak ere atzemaiteintu bere heriotzeak. Arraiña alha denean, etxeki bazkari datxekanean, eta bere ustez hobekienik dagoenean atrapatzen du arrantzaleak, eta bai hegaztina ere ihiztariak. Hala atrapatzen du bada bekhatorea ere heriotzeak bere bekhatuei bere gogarenik datxetenean, alha gozokienik alha zaienean, eta gutien uste duenean.

Midikuen errana da, presuna batek, sendoen de- noiz eta... nean, duela eritzeko perilik gehiena. Eta hala noiz eta ...orduan uste baituzu, heriotzea zureganik dagoela urrunenik, orduan ohi dago komunzki hurbilenik. Zorrak pagatu dituzunean, etxe berria egin duzunean, umeak ezkondu dituzunean. Finean, zeure egitekoei garaiturik, bake on batean iartzera, eta zerbait sosegu eta plazer zeure buruari emaitera prestatzen zarenean, han da berehala heriotzea.

beiraki **40** Ezkara deus ere, beirakiaren pare gara eta are beirakia baiño perilos eta hautskorrago. Eztugu beira-

nemos la resistencia y el aguante que el vidrio. "Quid fragilius vase vitreo? et tamen servatur et durat per saecula. Et si casus vitreo vasi timentur, senectus ei et febris non timetur", dice San Agustín (August. serm. 1 de verbis Dom. tom. 10). ¿Qué cosa hay más delicada y quebradiza que el vaso de vidrio? Y con todo, cuando se guarda y conserva, dura de siglo en siglo. Porque si bien tiene el riesgo de caerse, no tiene el riesgo de la fiebre o el de la vejez. Por lo tanto, somos más delicados y más inútiles que el vidrio. Porque aunque no nos sucedan tropiezos, caídas ni enfermedades, y aunque cuidemos y tratemos a nuestras personas lo mejor posible, la misma edad da cuenta de nosotros.

Siempre caminamos, no nos detenemos nunca. "Quasi aqua dilabimur" (2 Reg. 1). Somos como el agua: como el agua nos deslizamos. "Corpora nostra rapiuntur, fluminum more" (Senec. epist. 58). Nuestros cuerpos se van como corriente de agua. "In idem flumen bis non descendimus: manet idem fluminis nomen, aqua transmissa est" (Senec. ibid.). Nunca nos metemos dos veces en la misma agua (dice Séneca), el nombre del agua siempre es el mismo, pero no el agua. Pues como siempre va, y siempre cambia, nunca es la de antes. Ni nosotros tampoco; como siempre vamos, y siempre cambiamos, y mudamos, nunca somos los de antes. Y si no, mira cómo una persona se cambia y aun se desfigura completamente en el aspecto desde la juventud a la vejez, y a veces hasta de un año a otro, cómo se pone tal que no parece la de antes, cuán diferente se vuelve.

"Vita nostra naviganti similis est, is namque qui navigat, stat, jacet, vadit, quia impulsu navis ducitur" (Greg. epist. 26. tom. 2). Nuestra vida es como el que va por mar (dice San Gregorio). El que va por mar, ya sea que coma, beba, duerma o que incluso esté sentado, siempre sigue caminando, ni aun entonces se detiene. Porque el barco, aunque él no quiera, le lleva consigo. De la misma manera nos lleva también a nosotros consigo nuestra edad y tiempo: no hay descanso, no hay parada ni detención.

41 Cuando te preguntan cuántos años tienes, y cuando contestas que tienes veinte o treinta, porque son los que tienes según tu cuenta, no parece que contestas bien. Porque, como dice San Agustín: "Anni nostri veniunt, ut eant, non enim veniunt ut stent nobiscum" (August. in psalm. 65). Nuestros años vienen para irse, y no para permanecer con noso-

kiak bezanbat indar eta sophortu ere. *Quid fragilius vase vitreo? Et tamen servatur et durat per saecula. Etsi casus vitreo vasi timentur, senectus ei et febris non timetur,* dio San Agustinek (August. serm. 1 de verbis Dom. tom. 10). Zer da beirazko untzia baiño gauza samurragorik eta hautskorragorik? Eta alabaiña ailtxatzen eta bẽgiratzen denean, irauten du mendez mende.

sukhar

Zeren erortzearen peril badu ere, ez ordea eztu sukharraren edo zahartzearen perilik. Beraz beirakia baiño

ezteus (adj.)

perilosago gara eta ezteusago. Zeren behaztoparik, ororirik, edo eritasunik ez gerthatuagatik ere, eta geure

errekaitatu

buruak ahalik eta hobekiena errekaitatu eta begiratuagatik ere, adinak berak eramaiten baikaitu.

baratu

Bethi goazi, ezkara bẽhin ere baratzen. *Quasi aqua*

linburtu

dilabimur (2 Reg. 1). Uraren pare gara: ura bezala linburtzen gara. *Corpora nostra rapiuntur, fluminum more*

ur-laster

(Senec. epist. 58). Gure gorputzak ur-lasterra bezala dohazi. *In idem flumen bis non descendimus: manet idem fluminis nomen, aqua transmissa est* (Senec. ibid.). Ezkara behin ere ur batetan biatan sartzen (dio Senekak), uraren izena bethi da bat, ez ordea ura. Zeren nola bethi baitoha, eta bethi aldatuaz, ezta behin ere lehena. Ez eta bada gu ere, nola bethiere baikoazi, eta bethi aldatuaz, eta muthatuaz, ezkara behin ere

ezpere

lehenak. Eta ezpere beha ezazu nola presuna bat gaztetik zahartzera, eta are batzutan urthẽtik urthera ere, aldatzen eta ezeztatzen den idurian ere, lehena eztirudiela iartzen den, zein diferent egiten den.

Vita nostra naviganti similis est, namque qui navigat, stat, iacet, vadit, quia impulsu navis ducitur (Greg. epist. 26 tom. 2). Gure bizitzea itsasoz dohana bezala da (dio San Gregoriok), itsasoz dohana iatean, edatean, lo datzanean, eta are iarririk dagoenean ere, badoha, ezta orduan ere baratzen. Zeren untziak, nahi ezpadu ere, berekin baitarama. Hala garamatza bada

pausatu

gu ere geure adinak ẽta denborak berekin: ezta pausa-

trikatu

tzerik, ezta gelditzerik, eta ez trikatzerik.

41 Galdegiten deratzutenean, zenbat urthe ditutzun,

hogoi

eta ihardesten duzunean, hogoi edo hogoi eta hamar ditutzula, zeren zeure kontuan hala baititutzu, badirudi eztuzula ongi ihardesten. Zeren San Agustinek dioen bezala, *anni nostri veniunt, ut eant, non enim veniunt ut stent nobiscum* (August. in psalm. 65). Gure urtheak

iragan

ethortzen dira ioaiteko, eta ez gurekin egoiteko; iragan



tros: han pasado; por tanto no podemos decir que los tenemos. Y así, si al cabo de esos años, nos ponemos a considerar qué se ha hecho de ellos, no hallaremos nada. Antes bien veremos que, sin sentir, se nos han ido, y que, sin saber cómo, nos hehemos hecho viejos. "Tempora labuntur, tacitisque senescimus annis" (Ovid. lib. 6 Fasto). Los tiempos se van, y nos envejecemos con unos años silenciosos, sin hacer ruido ni estrépito.

Se suele decir: fulano vivió durante sesenta años, pero mejor dicho estaría que murió durante sesenta años (Vide August. in psal. 127. tom. 8). Porque cuando nacemos, comenzamos a morir, entonces empezamos y no nos paramos jamás. Primeramente muere la infancia: después de la infancia muere la adolescencia: tras de la adolescencia muere la juventud: después de la juventud, muere la vejez: tras de la vejez fenece la decrepitud. Todas las edades se siguen la una a la otra: el pasar y el morir es todo uno: se van la una detrás de la otra, de tal modo que para cuando viene la última edad, han expirado todas las primeras. Porque como dice San Gregorio: "Ipse enim quotidianus deffectus, quid aliud est quam quaedam prolixitas mortis?" (Greg. tom. 27 super Evang.). Ese consumirse y languidecer de día en día, ¿qué es sino un morir prolongado? La antorcha cuando está encendida, vive, pero entonces también muere, porque entonces se consume. quemándose vive y quemándose muere. Así también nosotros viviendo morimos, y muriendo vivimos. Porque cuando vivimos vamos muriendo. Y cuanto más vivimos, tanto más nos acercamos al puerto de la muerte. Así lo dice Séneca: "Quotidie morimur, quotidie enim demitur aliqua pars vitae" (Senec. epist. 24). Cada día morimos, porque cada día se le disminuye y quita a la vida alguna porción y parte. Y aun cuando crecemos y nos hacemos grandes, nuestra vida disminuye y se acorta. Siempre avanza, y una vez dado el paso, no hay vuelta atrás posible de lo andado, ni certeza del porvenir.

§ 2

42 Solemos decir: tal vez moriremos hoy, tal vez mañana, no tenemos certeza de una hora: por lo tanto cuanto antes debemos ponernos en el buen camino, para que no resultemos engañados. Así lo

[23] *Hurbiltzenago. -ago*, konparaziozko atzizkia, aditzizenkiari iratxekia. Maiz egiten du Axular-ek iratxetura hau.

dira, beraz ezin derrakegu baitugula. Eta hala, baldin urthe heken buruan, iar bagaitezi hetzaz zer egin diren gogoetan, eztugu deus edirenen. Aitzitik ikhusiko dugu, sentitu gabe, ioan zaizkigula, eta nola eztakigula zahartu garela. *Tempora labuntur, tacitisque senescimus annis* (Ovid. l.ib. 6 Fasto). Denborak badohazi, eta urthe batzuez, hotsik eta habarrotsik egin gabe zahartzen gara.

habarrots

Erraiten da, hunelako bizi izatu zen hirur-hogoi urthez, baiña hobeki erran liteke, hil zela hirur hogoi urthez. (Vide August, in psal. 127, tom. 8). Zeren sortzen garenean, hasten gara hiltzen, orduan abiatzen gara, eta ezkara behin ere baratzen. Lehenik hiltzen da haurtasuna; haurtasunaren ondoan hiltzen da morrointasuna; morrointasunaren ondoan hiltzen da gaztetasuna; gaztetasunaren ondoan hiltzen da zahartasuna; zahartasunarēn ondoan hiltzen da sentontasuna. Adin guztiak elkharri darraitza: iragaitea eta hiltzea guztia da bat, bata bertzearen ondoan dohazi, halako moldez, ezen azken adina dathorreneko, akhabatu baitirate leheneko guztiak. Zeren San Gregoriok dioen bezala, *ipse enim quotidianus deffectus, quid aliud est, quam quaedam prolixitas mortis?* (Greg. tom. 27 super Evang.). Egunetik egunera ahitze eta flakatze hura, zer da, luzaro hiltze bat baizen? Zuzia iratxekirik dagoenean, bizi da, eta orduan hiltzen da, zeren orduan ahitzen baita. Erratzeaz bizitzen da, eta erratzeaz hiltzen da. Hala bada gu ere, bizitzeaz hiltzen gara, eta hiltzeaz bizitzen. Zeren bizitzen garenean hiltzen baikara. Eta zenbatenaz eta gehiago bizitzen baikara, hanbatenaz heriotzeko portura hurbiltzenago[23] gara. Hala erraiten du Senekak: *Quotidie morimur, quotidie enim demitur aliqua pars vitae* (Senec. epist. 24). Egunoro hiltzen gara, zeren egun oro gure bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta edekitzen baitzaika. Eta are hazten eta handitzen garenēan ere, gure bizia ttipitzen eta laburtzen da. Bethi doa, eta behin ioanez gero, ezta ioan denaren bihurtzerik, eta ez ethorkizunaren segurantzarik.

morrointasun


sentontasun

iratxeki

poxin edeki

§ 2

42 Erraiten ohi dugu. Benturaz egun hillen gara, benturaz bihar, eztugu oren baten segurantzarik: beraz lehen baiño lehen, behar dugu bide onean iarri, enganatuak gertha ezkaitezin. Hunela erraiten dugu, eta



decimos, y hacemos bien con decirlo; pero el obrar lo dejamos siempre para después; la muerte la echamos y la situamos para cuando envejezcamos. No podemos persuadirnos de que moriremos antes de que hayan expirado todas las edades. Decimos, sí, cuantas veces quieras: tal vez mañana moriré, tal vez esta noche, tal vez no llegaré a viejo. Pero hacemos todas nuestras cosas como si fuéramos a envejecer. *Nuestra voluntad a una con nuestro deseo nos da* tal seguridad, que nos parece que no moriremos hasta la hora de la vejez extrema.

Cuando les dijo el diablo a nuestros primeros padres: "Nequaquam moriemini" (Gen. 3): No moriréis; le creyeron en seguida, y lo creyeron a la primera, totalmente, sin dudar. Y en aquel tiempo no era tan de admirar que así lo creyeran. Porque como eran los primeros del mundo, aún no tenían noticia de la muerte, no habían visto morir a nadie, y así los engañó fácilmente. Y de la misma manera quisiera engañarnos también a nosotros: de igual modo quisiera hacernos creer que no moriremos. Pero como ahora nosotros, ya por lo que vemos en otros, ya por lo que experimentamos en nosotros mismos al envejecer y enfermar, sabemos con toda seguridad y certeza que tenemos que morir, que no tenemos efugio ni preservativo de ninguna clase; no nos puede engañar a nosotros tan fácilmente como a nuestros primeros padres. Respecto a nosotros, para hacernos creer que no moriremos o hacernos andar como si así lo creyéramos, sigue otro camino, hace otra suerte de juego, se vale de otras trazas y mañas. No nos atrapa enteramente y al primer momento, sino poco a poco y difiriendo de un día para otro. Nos hace creer que no moriremos hoy, que no moriremos mañana, y como no hay un plazo tan largo como mañana, ni quien no tenga esperanza de vivir hasta mañana; de aquí resulta que como no pensamos que moriremos hoy ni mañana, vivimos como si estuviéramos seguros o como si supiéramos que jamás moriremos.

§ 3

eta handi ditezinean? Erran nahi dut, orai bekhatu guti duzunean, eta guti horiek ere berri direnean, ezin delibera dezakezu halarik ere, horietarik ilkitzera, zer izanen da bada gero, bekhatuz beterik eta hetan denbora luzeaz gogorturik zaudenean? Orai hamar bekhaturekin dihardukazu, gero ehunekin iharduki beharko duzu. Orai urthe baten edo biaren usantza gaixtoa duzu, gero hogoiena edo berrogoiena izanen duzu. Bekhatu egiteaz koropilloak doblatzeintuzu, gatheak[30] berretzeintuzu, karga handitzen duzu. Zer erhokeria da bada haur, uste baituzu ezen gero karga handiarekin hobeki manaiatuko zarela, orai ttipiarekin baiño? Uste baituzu ezen gero hamar bekhaturen barkhamendua hobeki erdietsiko duzula, orai bortzena baiño? Uste baituzu gero, ēritasuna handi dadinean, erraxago izanen dela sendatzen eta erremediatzen, ttipi denean baiño? Eztakizu nola erraiten duen Spiritu Sainduak: *Languor prolixior gravat medicum, brevem languorem praecidit medicus?* (Eccli. 10). Eritasun luzeak eta zaharrak nekhatzen du midikua, baiña laburrak eta berriak, egiteko guti emaiten dio, hura laburzki sendatzen du.

iharduki


koropillo

bortz

58 Egia haur eman zeraukan aditzera aingiru batek lehenago mendietan eta ermitetan bizitzen ziren saindu hetarik bati (In vita Arsenii apud Suri tom. 4 pag. 257). Hartu zuen aingiru hark gizon baten iduria eta ioan zen mendietako saindu hetarik batengana, eta eskutik harturik, eraman zuen oihanean barrena, eta han erakutsi zeraukan gizon bat, hari zela egur egiten. Eta zama bat eginik, lothu zuenean, hasi zen enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Baiña hain egin zuen handi, ezen ezin iasanez utzi baitzuen. Utzi zuenean, hasi zen berriz bigarrenean egur egiten, eta bere leheneko zamaren handitzen. Handitu zuenean, hartu zuen, eta hasi zen lehen bēzala enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Baiña are orduan gutiago, zeren lehendanik handituago baitzuen. Ordea guztiarekin ere, hasi zen hirurgarrenean ere lehiatzen, egur egiten eta bere leheneko zamaren, lehen bezala handitzen, ustez ezen halatan arinduko zeikan, eta erraxkiago iasanen eta eramanen zuēn. Sainduonek haur ikhusi zuenean, galdegin zioen aingiruari: Zer erhokeria da haur, uste baitu gizon hunek, berretuz karga arinduko zeikala? Eta handituz, erraxkiago iasanen eta eramanen duela? Orduan ihardetsi zioen aingiruak: horrela duk bada munduko

zama

are



locura del mundo. Piensan los pecadores que con muchos pecados y con la carga pesada se levantarán más fácilmente que con una carga ligera. Pues dicen: ahora tengo pereza. Ahora no puedo dejar los pecados que traigo entre manos, todavía tengo que permanecer un poco de tiempo con ellos; y añadirles aún algunos más. Pero después los dejaré todos, saldré de todos ellos.

Colmo de la ceguera y de la locura, creer que después, al cabo de uno o dos años, cuando tengas más pecados que ahora, cuando estés más metido en el pozo y estés más débil que ahora, vas a salir del pecado más fácil y cómodamente. Sálgate de la cabeza semejante locura, arrójala de tu mente, y cree que cuanto más tarde será más difícil. Y como dice Ovidio (Ovid. lib. 1 de remedio amoris): "Qui non est hodie, cras minus aptus erit": el que hoy no es capaz, mañana lo será menos.

QUE CON ANDAR APLAZANDO PARA MAS TARDE, SE CONTRAE EL MAL HABITO

CAPITULO VII

59 Dice el Espíritu Santo (Prov. 22): "Adolescens iuxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea". Según como se comporta uno de joven, comúnmente lo hace de la misma manera cuando es viejo. El camino, costumbre y hábito que entonces toma, lo retiene también en lo sucesivo: no se mueve de él, no se aparta de él, a él se adhiere. Cuando el agua por largo tiempo ha seguido un camino, no es fácil desviarla y hacerla seguir otro. No es fácil hacerle perder la costumbre, dirección y curso adquirido de seguir aquel camino y pasar por allí. De la misma manera tampoco ha de ser fácil dejar y cambiar el mal hábito adquirido por largo tiempo. A la acémila se la doma mientras es joven. A

31 *Abiadura.* Mitxelenaren iritziz, 'impulso' izango litzateke hitz hunen esanahi zehatza, ez «rapidez, velocidad, orientación» eta holako. Ikus FLV (1974), 117.

herabe

erhokeria ere, uste baitute bekhatorek bekhatu anhitzekin, karga pisuarekin hobeki iaikiko direla arinarekin baiño. Erraiten baitute: orai herabe dut. Orai eskuen artean darabiltzadan bekhatuak, ezin utz ditzaket: oraiño denbora aphur batez hautan egon behar dut, bertzerik ere zenbait iratxekitzen derauedala. Baiña gero guztiak utzikoitut, guztietarik iltkiko naiz. Itsutasunaren itsua, erhokeriaren erhoa, uste baituzu ezen gero, hemendik urthe baten, edo biaren buruan, orai baiño bekhatu gehiago duzunean, hosinean barrenago zaudenean, eta orai baiño flakoago zarenean, aisekiago, eta erraxkiago iltikiko zarela. Iltki bekizu erhokeria hori burutik, egotz ezazu zèure gogotik, eta sinhets ezazu, geroago gaitzago izanen dela. Eta Ovidiok dioen bezala: *Qui non est hodie, cras minus aptus erit* (Ovid. lib. 1 de remedio amoris). Egun gai eztena, bihar gutiago izanen da.

hosin

aiseki



NOLA GEROTIK GERORA IBILTZEAZ KOBERATZEN DEN USANTZA GAIXTOA KAP. VII

saindu

gaztean

59 Erraiten du Spiritu Sainduak: *Adolescens iuxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea* (Prov. 22). Nor nola gobernatzen baita gaztean, hala komunzki egiten ohi da, zahartzean ere. Orduan hartzen duen bidea, plegua, eta usantza, edukitzen du gerorat ere: ezta handik aldaratzen, hari itxetkitzen zaika. Denbora luzeaz bide bat eduki duen urari, ezta erraz, bertzetarat irioitea, eta eragitea. Ezta erraz bide haren eta handik iragaiteaz, hartu duen usantzaren, abiaduraren[31] eta lasterraren gal arazitzea. Ez eta beraz ezta erraz izanen, denbora luzeaz koberatu den usantza gaixtoaren ere utztea eta aldatzea. Zamaria gazte

irion

laster (sust.)



la carne se la sala mientras es reciente. Al árbol se le trasplanta mientras es pequeño. En fin, todas las cosas al principio es cuando toman su inclinación y su forma, y una vez tomada, difícilmente la dejan. Después de endurecerse, es difícil torcer. "Quo semel est imbuta recens, servabit odorem testa diu" (Orat. ep. 1). El puchero por largo tiempo conserva el olor y dejo que toma siendo nuevo, dice Horacio.

Licurgo para enseñar a los lacedemonios qué fuerza tan grande tiene la costumbre, tomó dos perros jóvenes, dos crías de una misma madre y de la misma camada: y a uno de ellos lo acostumbró siempre dentro de casa, entre los pucheros y platos de la cocina: al otro en cambio lo crió fuera, junto con los mastines de caza. (Plutar.). Y luego, cuando hubieron crecido, los llevó a los dos en una traílla a la presencia de dicha gente de Lacedemonia y allí los soltó y dejó, y al mismo tiempo que los dejaba, les echó delante de ellos una liebre y un pedazo de carne. Y el acostumbrado a la caza se lanzó inmediatamente en pos de la liebre, y en cambio el otro, el criado en la cocina, agarró el trozo de carne. Y después les dijo: Ved, señores, qué es lo que hace la costumbre, qué fuerza tan grande tiene la crianza, la primera práctica y hábito: ved cómo de estos perros, el uno, en conformidad con su crianza, ha agarrado a la carne, y el otro, en cambio, ha seguido a la caza. "Filii tibi sunt? Erudi illos, et curva illos a pueritia eorum" (Eccli 7), dice Salomón. Cuando tengas hijos, amaéstralos de niños; sujétalos, tenlos bajo la mano mientras sean pequeños. Porque una vez que hayan crecido, no los manejarás, sujetarás ni doblegarás más fácilmente.

§ 1

60 Aun suponiendo que de permanecer largo tiempo en el pecado no se siguiera otro daño que el de adquirir la inclinación y el mal hábito, ello sólo debería bastar para guardarse de detenerse en él y para ponernos cuanto antes en el buen camino. Porque la costumbre tiene una fuerza tan grande, que dice San Crisóstomo (Chrys. adversus vituperatores vitae monasticae cap. 3. tom. 7): "Cum manna caelesti cibo allerentur judaei cepas et alia requirebant, adeo consuetudo valet, tantumque habet roboris". Siendo así que los judíos tenían abundancia de aquel alimento bueno, dulce, sabroso que se llamaba maná,

[32] *Bilhukatzea.* Errata ote den pentsatzen du Mitxelenak. Ikus FLV (1974), 118. Beraz, *bilhakatu* beharko luke.

[33] *Uzkur.* Itxuren arabera, 'meneratu, hezi' esan nahi du (=doblegar). Ikus MITX FLV (1974), 118.

deiño hezten da. Haragia berri deiño, gazitzen da. Zuhaitza ttipi deiño birlandatzen da: finean, gauza guztiek lehenbizian hartzen dute bere plegua eta ortkhoia, eta behin hartuz gero nekez utzten dute. Gogortuz gero gaitz da bilhukatzea.[32] *Quo semel est imbuta recens, servabit odorem testa diu* (Orat. ep. 1). Eltzeak luzaro edukitzen du, berrian hartzen duen usaiña eta kutsua, dio Oratiok.

ortkhoi

bilhukatu

Likurgok, erakusteko Lazedemoniakoei, zein indar handia zuen usantzak, hartu zituen bi xakur gazte, bi orkume ama batenak, eta sabelaldi batetakoak: eta hetarik bata, usatu zuen bethi ere etxean barrena, kuzinako eta sukhaldeko eltze-plateren artean: eta berriz bertzea hazi zuen kanpoan ihiziko orekin batean. Eta gero handitu zirenean eraman zituen biak treilla batetan Lazedemoniako iende heken aitzinera eta han laxatu eta largatu zituen, eta largatzearekin batean, egotzi zerauzten bere aitzinera, erbi bat eta haragi puska bat. Eta ihizian usatua, abiatu zen berehala erbiaren ondotik, eta berriz bertzea, kuzinan hazia, lothu zeikan haragi puskari. Eta gero erran zerauen: Ikhusazue, iaunak, zer egiten duen usantzak, zein indar handia duen hazkuntzak, lehenbiziko segientzak, eta ohikundeak: nola or hautarik bata, bere hazkuntzaren arauaz, lothu zaikan haragiari, eta berriz bertzea, iarraiki zaikan ihiziari (Plutar.). *Filii tibi sunt? Erudi illis et curva illos a pueritia eorum*, dio Salomonek (Eccli. 7). Semeak ditutzunean, eskola itzatzu haurretik; uzkur[33] itzatzu, eduki ttipi direino azpitik. Zeren behin handituz gero, eztitutzu hobekiago manukortuko, eskuperako, eta ez plegatuko.

orkume sabelaldi

treilla


segientza

uzkurtu

plegatu

§ 1

60 Denbora luzeaz bekhatutan egoiteaz eta usatzeaz, bertze kalterik ethor ezpaledi ere, pleguaren eta aztura gaixtoaren hartzea baizen ere, hura bera behar lizateke asko, bekhatutan pausatzetik begiratzeko, eta lehen baiño lehen bide onean iben arazitzeko. Zeren hain du indar handia usantzak, ezen erraiten baitu San Krisostomok: *Cum manna, coelesti cibo, alerentur iudaei, cepas eta alia requirebant; adeo consuetudo valet, tantumque habet roboris* (Chrys. adversus vituperatores vitae monasticae cap. 3, tom. 7). Juduek mana zeritzan ianhari on, ezti, gozo hartarik franko zutelarik, guztia-



con todo, tan grande fuerza tiene la costumbre, que requeridos por ella, querían volver a las cebollas y ajos de Egipto. Y por eso dice San Agustín (August. in Enchirid. cap. 8, tom 3): "Peccata, quamvis magna et horrenda, cum in consuetudinem venerint, aut parva, aut nulla esse creduntur, usque adeo, ut non solum non occultanda, verum etiam iam praedicanda ac diffamanda videantur". Los pecados, aun siendo grandes y horribles, parecen pequeños e insignificantes al que se ha acostumbrado en ellos: tan insignificantes, que después, a partir de este momento, más que encubrirlos prefiere manifestarlos, publicarlos y divulgarlos.

61 Cuando al rey David le dieron las armas de Saúl (2 Reg. 5), *aunque eran inmejorables y excelentes*, con todo le hacían más daño que provecho, le embarazaban. Pues como hasta entonces había andado siempre de pastor, no estaba acostumbrado a las armas. Y así las dejó, diciendo: "Non possum incedere quia usum non habeo". Con estas armas yo no puedo moverme, pues no estoy acostumbrado. Dadme unas hondas con unas cuantas piedras, y como estoy acostumbrado a ellas, alegraos, pues yo cumpliré con ellas mi misión. Y así lo hizo en efecto. Pues la primera piedra que lanzó, se la clavó a su enemigo en la mitad de la frente, se la plantó en ella, y lo abatió vencido a tierra; mas después, de allí a poco tiempo, de tal manera se acostumbró a las armas, se hizo tan diestro y hábil en ellas, que un día, hallándose sin arma, cuando huía de Saúl, tomó la espada de dicho gigante Goliat, diciendo que para él no había otra mejor en el mundo ni otra que él prefiriese a ésta. ¿Qué quiere decir ésto? Anteriormente las armas de Saúl, con todo y ser pequeñas y ligeras, las dejó por grandes y pesadas, ¿y ahora las de un gran gigante se le antojan pequeñas y ligeras? Sí. Y es porque antes no estaba acostumbrado, no estaba hecho a las armas, pero después se hizo a ellas, se acostumbró, se ensayó, se adiestró, y al ensayarse, acostumbrarse y adiestrarse, se le tornó fácil lo que antes era difícil. Porque al que está avezado, los mismos trabajos no se le hacen tan trabajosos, no los siente tanto; y para no sentirlos, hasta la piel de las manos se le hace gruesa, dura y callosa. Al tal no se le encallecen tan pronto las manos, ni se le hienden, *ni se le resienten las carnes. Porque como dice* San Crisóstomo: "Consuetudinis enim vis, et in bonis, et in malis, magna" (Chrys. Hom. 3 de poenitentia,

errekeritu

rekin ere, usantzak hain du indar handia, ezen hark errekeriturik, Ejiptoko tipula baratzurietara, bihurtu nahi baitzuten. Eta handik erraiten du San Agustinek: *Peccata, quamvis magna et horrenda, cum in consuetudinem venerint, aut parva aut nulla esse creduntur, usque adeo ut non solum non occultanda, verum etiam iam praedicanda ac diffamanda videantur* (August. in Enchirid. cap. 8 tom. 3). Bekhatuak handi eta izigarri izanagatik ere, ttipi eta ezdeus iduritzen zaitza, hetan usatu duenari: hain ez deus ezen gero, handik harat, nahiago baititu estali baiño, agertu, kanpatu, eta famatu.

kanpatu

61 Errege Daviti eman zerautzatenean Saulen harmak, baitziren ezin hobeagoak eta halakoak, guztiarekin ere, probetxu baiño kalte gehiago egiten zioten, trabatzen zuten. Zeren nola anarteraiñokoan bethi arzain ibili baitzen, ezpaitzen oraiño harmetan usatua.

harma

Eta hala utzi zituen, erraiten zuela: *Non possum incedere quia usum non habeo* (2 Rg. 5). Harma haukin ni ezin higi naiteke, zeren ez naiz usatua. Indaitzue habailla batzuk, zenbait harrirekin, eta hetan usatua bainaiz, atsegin har ezazue, ezen nik eginen dut hetzaz neure eginbidea. Eta hala egin ere zuen. Zeren lehenbiziko aurthiki zuen harria finkatu zeraukan bere etsaiari belarraren erdian, landatu zeraukan kopetan, eta egotzi zuen bentzuturik lurrera. Ordea gero handik denbora gutiren barrenean, hain soldadutu zen eta harmetan usatu, trebatu, eta anzatsutu, ezen egun batez harmarik gabe, Saulen ihesi zihoala, hartu baitzuen Goliat handi haren ezpata, èrraiten zuela, ezen etzela munduan harentzat halakorik eta ez hark nahiago zuenik. Zer erran nahi du hunek? Lehen Saulen harmak ttipiak eta arinak baitziren, handiz eta pisuz utzi zituen, eta orai jigant handi batenak iduritzen zaitza ttipi eta arin? Bai. Zeren lehen etzen usatua, etzen harmetara egiña, baiña gero egin zen, usatu zen, enseiatu zen, trebatu zen, eta enseiatzeak, usatzeak, eta trebatzeak, lehen gaitz zena èrraxtu zeraukan. Zeren usatuari trabailluak ere etzaitza hain trabaillu iduritzen, eztitu hain sentitzen: eta ez sentitzeko, eskuetako larrua ere loditzen, gogortzen, èta khaillutzen zaika. Halakoari, eta haiñari, etzaitza hain fite eskuak maskurtzen, ikhorzirinak egiten, eta ez haragiak ethentzen, eta ez minberatzen. Zeren San Krisostomok dioen bezala *Consuetudinis enim vis, et in bonis, et in malis magna* (Chrys.

habailla

aurthiki

anzatsutu

jigant

khaillutu
maskurtu
ikhorzirin

tomus 3). Gran cosa es la costumbre, ya para lo bueno, ya para lo malo. Y dice también San Jerónimo: "Asperam nobis et insuavem virtutum viam, nimia facit consuetudo, quae si in alteram partem transferatur, invenitur semita justitiae levis" (Hieron. ad Celantiam). La costumbre del pecado dificulta el camino de la virtud: mas si la tal costumbre se torna al otro lado, de la maldad al bien, entonces este mismo camino de la virtud resultará fácil, agradable y placentero. Cuando empiezas a escribir, no puedes poner los dedos, están como atados. Es que no están acostumbrados. Pero luego se van acostumbrando y adiestrando más y más; y de tal modo se adiestran, que, al fin, aun estando mirando al otro lado, escribes la mitad de las palabras. Así verás también que en la casa del sastre el oficial trabaja con gran rapidez y hace muchos puntos y velozmente; pero el aprendiz hace pocos, lentamente, y anda como contándolos. Y es porque el aprendiz no está tan acostumbrado, habituado y adiestrado como el oficial.

62 Por eso dice Aristóteles: "Ex actu multoties iterato, fit habitus" (Arist. lib. 2 Ethic.). No por una vez, sino repitiendo con frecuencia y muchas veces es como se adquiere la soltura y la costumbre. Y una vez que se adquiere la soltura y la costumbre, una vez adiestrado, se hacen muchas cosas, sin que la mente tenga que andar pensando ni la voluntad eligiendo. Así dice San Crisóstomo: "Consuetudo est, qua postea, etiam absque electione fit" (Chrys. Hom. 10 tom. 3). Muchas veces te santiguas sin reflexionar mucho en ello. Muchas veces, sin darte cuenta de lo que dices, profieres blasfemias y juramentos. Muchas veces, estando tú mirando hacia otra parte, manejas los dedos para producir música, y todo ello no son sino juegos de la costumbre, hazañas del adiestramiento, y gajes del hábito.

Cuando te meten en la cárcel, de recién entrado tienes bien el olfato, percibes el hedor, se te revuelven las entrañas, eres sensible. Pero una vez que te acostumbras a estar dentro, después que por cierto tiempo has traído las narices llenas de aquel hedor, te haces insensible e indiferente, lo encuentras bueno.

Acostúmbrate a levantarte por la mañana temprano, y a esa hora te despertarás. Acostúmbrate a comer y beber mucho, y siempre querrás hacerlo así. Aun los mismos brutos no quieren pasar por delante de las moradas donde anteriormente han estado sin tener la ración acostumbrada, o cuando menos un resignativo, un algo para conformarse. La

Hom. 3 de poenitentia, tomus 3). Gauza handia da usantza, hala onean nola gaixtoan. Eta badio San Jeronimok ere: *Asperam nobis et insuavem virtutum viam, nimia facit consuetudo, quae si in alteram partem transferatur, invenitur semita iustitiae levis* (Hieron. ad Celantiam). Bekhatuaren usantzak gaitzten du berthutearen bidea: ordea baldin usantza hura itzul badadi bertze aldera, gaixtatasunetik ontasunera, edirenen da berthutearen bide hura bera, errax, atsegin, eta plazent. Eskiribatzen hasten zarenean, ezin higi ditzakezu erhiak, lothuak bezala daude. Zeren ezpaitira usatuak. Baiña gero eta gero usatzen eta trebatzen dira, hain trebatzen, ezen azkenean, bertze alderat bèha zaudela ere, hitzen erdiak eskiribatzen baititutzu. Hala ikhusiko duzu dendari baten etxean ere, ofizialeak abiadura handia daramala, pontuak husu èta laster emaiten tuela; baiña aprendiza bakhan, barath, eta pontuak kontatuz bezala hari dela. Zeren ezpaita aprendiza ofizialea bezala usatua, ohitua eta trebatua.

erhi

husu


62 Halatan erraiten du Aristotelek: *Ex actu multoties iterato fit habitus* (Arist. lib. 2 Ethic.). Ez behingoaz, baiña maiz ēta anhitzetan usatzeaz egiten da trebetasuna, eta aztura. Eta behin aztura hartuz gero, trebatuz gero, anhitz gauza egiten da, gogoa pensatzeketan, eta borondatea ere hautatzeketan ibili gabe. Hala erraiten du San Krisostomok: *Consuetudo est qua postea etiam absque electione fit* (Chrys. Hom. 10 tom. 3). Anhitzetan, hartan guti pensaturik, zeinatzen zara. Anhitzetan, zer mintzo zaren eztakizula, arneguak, eta iuramentuak egiteintuzu. Anhitzetan, bertze alderat beha zaudela, erhiak soiñu egiteko erabiltzeintuzu, eta hauk guztiok dira usantzaren iokoak, trebetasunaren kolpeak, eta azturaren tornuak.

Garzelean sarzen zaituztenean, sarthu berri hartan, usna on duzu, kiratsa aditzen duzu, erraiak nahasten zaizkitzu, sentikor zara. Baiña barren hartan ohituz gero, sudurrak kirats hartzaz zenbait denboraz, betheak erabiliz gero, sortzen zara, ez-ansiatzen zara, ederesten duzu.

ederetsi

Usatzaite goizean goiz iaikitzen, eta oren hartan iratzarriko zara. Usatzaite anhitz iatèn eta edaten, eta bethi hala nahiko duzu. Are abre mutuek ere eztute, bere leheneko usatua, edo etsigarri bat bedere izan gabe, lehen izan diren ostatuetarik, aitzinat iragan nahi. Hain

iratzarri



costumbre tiene una fuerza tan grande, que dice San Agustín (August. 3. Fortun. disput. 2, tom. 6): "Ipsa quoque mutatio consuetudinis, etiam quae adjuvat utilitate, novitate perturbat". Muchas veces, aun sabiendo que fuera mejor dejar y romper la costumbre que traemos, con todo no la dejamos ni rompemos, porque este cambio, esta novedad de romper y dejar, se nos hace enojoso. ¿Qué más quieres? Hay quien dice y es verdad: que el que de niño se acostumbra a comer veneno, al fin puede ser criado y alimentado con veneno (Comment. sup. 3 Phisic.).

§ 2

63 Pues bien, si la costumbre es una cosa tan terrible y fuerte: ¿qué es lo que hará el que constantemente, desde la juventud a la vejez, se ha acostumbrado a vivir en pecado? ¿cómo es posible que deje en la vejez el hábito que ha adquirido de joven? Temo que no lo ha de dejar. Porque, como dice San Crisóstomo: "Annosa passio medicamento momentaneo non curatur" (Chrys. 32. tom. 2). El mal inveterado, la enfermedad vieja, la herida enconada, no se curan por una medicación de un momento, no se remedian con una visita rápida, ni las cosas vuelven tan pronto a su primitivo estado y condición. Porque así como la enfermedad grave, aun después de curada, suele dejar tras de sí ciertas malas consecuencias, ciertas reliquias, achaques y dolencias, así también el haber permanecido por largo tiempo en pecado deja tras de sí ciertos malos efectos. "Si mutare potest Aethiops pellem suam et pardus varietates suas, et vos poteritis benefacere cum didiceritis malum" (Jerem. 13,23), dice el profeta Jeremías. Cuando el moro negro de tierra de moros y el tigre macho hayan cambiado, dejado y mudado el uno su piel negra y el otro sus trazos pintos, sus colores moteados, entonces es cuando la persona viciosa cambiará, dejará y mudará los vicios y pecados a que está habituado.

64 Así verás que el que de joven se ha habituado a un pecado, incluso después de envejecido y cuando ya no puede hacer nada, sigue teniendo la inclinación y se regocija en hablar de aquel pecado. Porque, como dice San Agustín: "Non quiescit turpe desiderium, quamvis frigiditas neget effectum" (August. de vita eremitica ad sororem cap. 28. tom. 10). El viejo vicioso, aunque envejezca, conserva la inclinación, lo que le faltan son las fuerzas. No ha abierto aún la boca o bien tú no la has abierto, y

[34] Tigre arra, hau da, emea ez dena. Pasarte hunen itzulpena gaizki emana dago 1964. urteko edizioan. Arhitzaren esanahia ere *Axular-en Hiztegia*-n ez zen ongi eman.

du indar handia usantzak, ezen erraiten baitu San Augustinek: *Ipsa quoque mutatio consuetudinis etiam quae adiuvat utilitate, novitate perturbat* (August. 3 Fortun. disput. 2 tom. 6). Anhitzetan ere, dakigularik, hobe lizatekeiela darabilagun usantzaren uztea, eta hautstea, eztugu guztiarekin ere utzten, eta ez hautsten, zeren aldatze hura, hautsteko eta utzteko berritasun hura, gaitzi baitzaiku. Zer nahizu gehiago? Bada erraiten duenik, eta egia: haurretik pozoin iaten usatzen dena, azkenean pozoiñëz haz ditekeiela, eta mantena (Comment. sup. 3 Phisic.)

mantenatu

§ 2

63 Bada baldin hunein gauza bortitza, eta indartsua bada usantza, zer eginen du bethiere, gaztetik zahartzeraiño bekhatutan usatu denak? Nola utziko du zahartzean gaztean koberatu duen usantza? Beldur naiz utz eztezan. Zeren San Krososto mok dioen bezala: *Annosa passio, medicamento momentaneo non curatur* (Chrys 32. tom. 2). Arrazadura urthatua, narrio zahartua, zauri gaizkoatua, ezta pontu batetako midikuntzaz sendatzen, ezta behingo bisitaz erremediatzen eta ez hain fite leheneko estantera, estatura eta egoitzara bihurtzen. Zeren nola eritasun handiak, sendatuz gero ere, utzten ohi baitu bere ondotik, zenbait herru gaixto, zenbait kutsu, narrio eta arrazadura, hala utzten du denbora luzeaz bekhatutan egoiteak ere bere ondotik, zenbait ondore gaixto. *Si mutare potest Aethiops pellem suam et pardus varietates suas, et vos poteritis benefacere cum didiceritis malum,* dio Ieremias profetak (Jerem. 13). Mairu herriko mairu beltzak bere larru beltza, eta tigre arrak[3v] bere nabardurak, kolore pikardatuak, alda, utz eta mutha ditzanean, aldatuko, utziko, eta muthatukoitu presuna gaixtoak ere bere usantzazko gaixtakeriak, eta bekhatuak.

usantza bethiere

arrazadura narrio

estante


herru

mairu nabardura pikardatu

64 Halatan ikhusiko duzu, gazte denboran bekhatu batetan usatu duenari zahartzean ere, eta deus ezin daidikeienean ere, gogoa bedere, eta bekhatu hartzaz minzatzeaz, atsegin hartzea bedere, badatxekala. Zeren San Agustinek dioen bezala: *Non quiescit turpe desiderium, quamvis frigiditas neget effectum* (August. de vita eremitica ad sororem cap. 28, tom. 10). Zahar gaixtoak, zahartuagatik, badu gogoa, indarra zaika falta. Ahoa doi idekitzen du eta idekitzen duzu, eta guz-

etxeki

doi



ya empiezas a jurar y maldecir. Apenas puedes con tu cuerpo y con todo hablas de amoríos. En suma, en aquello mismo que has practicado, te sorprendes a ti mismo, ya sea soñando, ya también despierto. Y ¿de dónde procede esto? Del hábito, de la costumbre, de que de joven has procedido así, te has habituado de esa manera, y de que esa costumbre se te ha metido hasta los tuétanos. Y así como al envejecer los huesos siguen contigo, de la misma manera continúan contigo la costumbre, el hábito y todos los movimientos, tendencias y malas inclinaciones que de ellos nacen.

Así lo dice aquel santo hombre Job (Job 10): "Ossa eius implebuntur vitiis adolescentiae eius, et cum eo in pulvere dormient". Los huesos del vicioso se llenarán con los pecados de la juventud, y a una con él se adormecerán en la tierra, no le abandonarán jamás. Porque, como dice San Gregorio (Greg. libr. 15 Moral. cap. 15): "Tenent illum pravae consuetudines, quem semel ceperunt atque quotidie duriores existunt, et cum eo in pulvere dormient quia non nisi cum eius vita finiuntur". Los pecados de hábito siguen a uno hasta la muerte, y hasta que lo meten bajo tierra, hasta entonces no le dejan, y de ordinario ni aun allí.


65 Guárdate Dios de que el mal hábito tome asiento en ti; y de que el tal hábito se convierta en crianza. Porque así como existe una enfermedad que se llama Hética, la cual consiste en una fiebre crónica y que suavemente se introduce en los huesos; y la tal enfermedad no tiene remedio, como no sea por milagro, y aun en caso de tenerlo, rara vez; de la misma especie es el hábito vicioso que por largo tiempo se halla introducido en la mente y corazón. Es como la Hética perniciosa metida adentro, difícil de sacar y de curar. Por este tal dice San Agustín que se encuentra metido y enterrado en la tumba y que la piedra o cubierta de encima, que no le deja levantarse y respirar, es el mal del hábito. "Moles illa imposita sepulchro, ipsa est vis dura consuetudinis, qua premitur anima, nec respirare nec resurgere permittitur" (Aug. Serm. 44 de verbis Domini tom. 10).

Esto mismo quiso dar a entender también nuestro Salvador cuando resucitó a Lázaro, muerto de cuatro días, que ya hedía, haciendo muchos suspiros y sentimientos. A todos los otros los resucitó fácilmente y estando holgado, pero a Lázaro, a lo que parece, con dificultad. Por dar a entender cuán di-

tiarekin ere arnegu eta iuramentu egiten hari zara.
amurusia Gorputza ezin iasan dezakezu, eta alabaiña amurusiaz mintzo zara. Finean lehen zertan segitu baituzu, hartan
eldarnio gero ere, ametsetan, eta eldarnioetan ere edireiten zara. Eta zerk egiten du haur? Usantzak, azturak, gaztean hala, han, eta hetan segitu eta usatu baituzu, eta usantza hura hezurretan barrena sarthu baitzaitzu. Eta nola zahartuagatik, hezurrak gelditu baitzaizkitzu, hala gelditu zaizkitzu usantza, aztura, eta handik sortzen
mugida diren mugidak, abiadurak, eta inklinazino gaixto guztiak ere. Halatan erraiten du Iob gizon saindu hark: *Ossa ejus implebuntur vitiis adolescentiae eius, et cum eo in pulvere dormient* (Job 10). Gaixtoaren hezurrak betheko dira gazte denborako bekhatuez, eta harekin batean lurrean ere lohakartuko dira, eztute behin ere utziko. Zeren San Gregoriok dioen bezala: *Tenent illum pravae consuetudines, quem semel ceperunt, atque quotidie duriores existunt, et cum eo in pulvere dormient quia non nisi cum eius vita finiuntur* (Greg. lib.
iarraiki 15 Moral. cap. 15). Usantzazko bekhatuak iarraikitzen ohi zaitza nehori heriotzeraiño, eta lurrean barrena sar arteiño, eztute hareraiño utzten, eta ez komunzki han ere.

Iainko **65** Iainkoak begira zaitzala, usantza gaixtoak zure baithan ostatu hartzetik, eta usantza hura hazkuntza bi-
hetika hurtzetik. Zeren nola baita hetika daritzan eritasun bat, zein egiten baita, sukharra denbora luzeaz, eta aphur bana hezurretan barrena sartzeaz: eta eritasun hark ezpaitu erremediorik, mirakuilluz edo baizen, eta izai-
xoil tekotz ere xoil luzaro: hala da denbora luzeaz, gogoan, eta bihotzean barrena sarthurik dagoen aztura gaixtoa ere. Hura da hetika gaixto sarthua, atheratzen eta erremediatzen gaitza. Eta halakoagatik erraiten du San
tonba Augustinek thonban barrena sarthua, eta ehortzia dagoela: eta gaiñeko harri-estalkia, iaikitera eta hats hartzera, utzten eztuena, usantza gaixtoa dela. *Moles illa imposita sepulchro, ipsa est vis dura consuetudinis, qua premitur anima, nec respirare, nec resurgere permittitur* (Aug. Serm. 44 de verbis Domini tom. 10).

Haur beror eman zuen aditzera gure Salbatzailleak
hats-beherapen berak, Lazaro laur egunetako hil kiratsua, anhitz hats-beherapen, eta sèntimendu eginik, pitztu zuenean. Bertze guztiak erraxki eta aise zegoela pitztu zituen, baiña Lazaro, iduriz, nekez. Aditzera emaiteagatik, zein gaitz



fícil es curar y sanar al pecador que por largo tiempo se encuentra habituado, podrido e infectado por los pecados. El tal, el que a este punto llega, es como Lázaro hediondo, que no puede ser curado sino por el gran poder de Dios.

Con todas estas razones se echa de ver que con los aplazamientos y demoras se contrae el hábito malo; y que el tal hábito se mete dentro del espíritu y del corazón, como el aceite en el paño. Y cómo es un grandísimo engaño y nuestra perdición el decir: después me convertiré, después entraré por el buen camino. Porque tras ese "después", desearás otro "después" más largo. Y de esta forma sorprendiéndote la muerte en estas dilaciones, demoras y aplazamientos, como ocurre de ordinario, identificado con tu mal hábito, tendrás un fin desgraciado.

QUE EL MAL HABITO ENDURECE Y HACE INSENSIBLE AL PECADOR

CAPITULO VIII

66 Cosa mala y peligrosa es, como se ha dicho hasta aquí, el hábito que se adquiere con permanecer y continuar en el pecado. Pero aún es peor y más peligrosa la consecuencia que se sigue de tal hábito; el grano que nace de dicha semilla, el fruto que ella produce; el cual es el cegarse, endurecerse y despreocuparse del pecado: y perdida la vergüenza, el honor y toda dignidad, jactarse y gloriarse de la maldad y convertirla en hazaña.

"*In circuitu impii ambulant*" (Ps. 11), dice el rey David. Los malos andan dando vueltas o en derredor. Andan sí, pero dando vueltas, inútilmente, porque siempre vuelven al mismo sitio. Todo el provecho que obtiene el que así anda es hollar la tierra,

den, denbora luzèaz, bekhatutan usatua, usteldua, eta kirastua dagoen bekhatorearen sendatzea, eta erremediatzea. Halakoa, hartara heltzen dena, Lazaro kirastua bezala da, Iainkoaren botherè handiaz baizen, ezin erremedia ditekeiena.

usantza

enganamendu

Arrazoin hautzaz guztioz emaiten da aditzera, nola luzamendutan, gerotik gerora ibiltzeaz, hartzen den usantza gaixtoa: eta usantza hura, olioa oihalean bezala, sartzen den gogoan, eta bihotzean barrena. Eta nola den enganamendu handia, eta gure galgarria, erraitea: «gero onduko naiz, gero bide onean iarriko naiz». Zeren gèro haren ondoan, desiratuko duzu bertze gero luzeago bat. Eta halatan gerotik gerora zabiltzala, usantzarekin batean, komunzki gerthatzen dena, heriotzeak atrapaturik, fin gaitz eginen duzu.

NOLA USANTZA GAIXTOAK GOGORTZEN ETA EZANSIATZEN DUEN BEKHATOREA

KAP. VIII


perilos

ahalke

prezatu

66 Gauza gaixtoa, eta perilosa da, orainokoan erran den bezala, bekhatutan egoiteaz eta segitzeaz koberatzen den usantza. Baiña are da gaixtoago eta perilosago, usantza haren ondoko ondorea; eta hartarik sortzen den bihia, hark emaiten duen fruitua; zein baita, bekhatutan itsutzea, gogortzea, ezansiatzea: eta ahalkea, ohorea, eta prestutasun guztia galdurik, doillorkeriaz prezatzea, loriatzea eta sendagailla egitea.

In circuitu impii ambulant, dio errege Davitek (Ps. 11). Inguruka, edo ingurunean dabiltza gaixtoak. Badabiltza, ordea inguruka, probetxu gabe, bethiere lekhu berera bihurtzen direla. Hala dabillanak egiten duen irabazi guztia da lurraren aurizkitzea, zapatzea



prensarla y endurecerla. Y cuanto más anda, tanto más la prensa y la endurece. Así también el pecador andando y habituándose en el pecado, endurece su conciencia al modo que los golpes de martillo endurecen el yunque.

Da a entender la Sagrada Escritura que los malos son como los cabritos, y que en el último día Dios los pondrá a la parte izquierda. "Statues haedos a sinistris" (Mt. 25). El cabrito, la cría de cabra, mientras es joven, es bueno para comer, blando, sabroso, está en su punto: pero la edad lo pierde. A medida que pasa el tiempo, va poniéndose peor, haciéndose correoso y endureciéndose. "Aetas ex haedo asperum facit hircum" (Plaut. lib. 1. Epigram.).

67 El pecador al principio, cuando ha pecado poco, aún parece que vale algo, que aún tiene alguna parte tierna, alguna zona blanda, alguna región buena y rica. Y así entonces todavía, por medio de los predicadores, de los buenos consejos, de la enfermedad, o viendo que se le mueren los amigos, por los truenos, o por otros riesgos semejantes, se asusta, se sobresalta y torna sensible y presa de remordimientos, se pone a reflexionar sobre el futuro. Pero una vez que se ha llenado de pecados, una vez que ha tomado costumbre y ésta se ha vuelto inveterada, se despreocupa, y en parte se hace semejante a los ángeles malos, igual a los diablos.

Como el ángel alcanzó al instante y enteramente todo cuanto podía alcanzar con su entendimiento, y no como nosotros por partes y discurriendo, por eso el camino que tomó en un principio lo conserva y lo conservará siempre (Vide S. Thom. 1 p. q. 4. art. 2). Una vez que se inclina hacia un lado, no puede enderezarse hacia otro ni volverse atrás. Y así nos ocurre también a nosotros cuando morimos. Porque como dice San Damasceno: "Hoc est hominibus mors, quod angelis casus". (Damascen. lib. 2 orthod. fidei et refert. a S. Thom. ubi supra). Lo que hizo en los ángeles el pecado, eso mismo hace en nosotros la muerte. Aquellos, una vez de pecar, no tuvieron remedio y nosotros tampoco, una vez de haber muerto en pecado. Pues bien, también nosotros nos aproximamos al estado de los ángeles malos a fuerza de pecar, cuando venimos a endurecernos con el pecado, a cegarnos y a hacernos insensibles. El ángel malo de una vez se perdió y endureció para siempre, y nosotros nos perdemos y endurecemos, no de una vez, pero sí pecando muchas veces y cometiendo muchos pecados y acostumbrándonos a ellos.

35 *Bitina, a* itsatsiaz. *Bitina bat.*

36 *Samur da, uxter da...* Ahuntz - umearen gozoa aditzera emateko, izen-lagunen hauta eta tokian tokiko jartzea zeinen ongi egiten duen! Ikus beherago, 115. zatian, usakumeen gozoa ere nola pintatzen duen.

37 *Mueta*=mota, klase, Hitz hau *Axular-en Hiztegia*-n jaso-gabe gelditu zen.

eta gogortzea. Eta zenbatenaz eta gehiago baitabilla, hanbatenaz zapatzenago, eta gogortzenago du. Hala bada bekhatoreak ere bekhatutan ibiltzeaz eta usatzeaz gogortzen du bere konzientzia, maillu kolpeek ingudea gogortzen duten bëzala.

ingude

bitina

Emaiten du aditzera Eskritura Sainduak, bitiñak bezala direla gaixtoak, eta azkeneko egunean, ezkerreko aldean, ibeniko dituela Iainkoak. *Statues haedos a sinistris* (Mt. 25). Bitiña,[35] ahuntz-umea, gazte deiño, on da iateko, samur da, uxter da, sasoal da:[36] ordea galtzen du adinak. Gero eta gero doha gaixtatuaz, zailduaz eta gogortuaz. *Aetas ex haedo asperum facit hircum* (Plaut. lib. 1 Epigram.).

uxter sasoal

67 Bekhatoreak lehenbizian, bekhatu guti duenean, badirudi ëzen oraiño, zerbait balio duela, samur duen parterik, uxter duen aurkientzarik, endrezera onik eta gozorik baduela. Eta hala orduan, predikariez, konseillu onez, eritasunez, bere lagunak hiltzen zaitzala ikhusteaz, igortziriëz, eta hunelako bertze peril mueta[37] batzuez, ikharatzen da, minberatzen da, sentikortzen da, eta bere buruari alhaturik, ethorkizunaz gogoetan iartzen da. Baiña bekhatuz bethez gero, plegua hartuz gero, usatuz gëro, eta usantza zahartuz gero, gaixtatzen da, ezansiatzen da, eta aldez aingiru gaixtoen berdin, deabruen paretsu egiten da.

aurkientza


mueta

sentikortu

aingiru

Nola aingiruak bere adimenduaz erdiets ahal zezan guztia, ez guk bezala aphur bana, eta pensatuz, baiña kolpe batez eta osoki erdietsi baitzuen, lehenbizian hartu zuen bidea daduka eta edukiko du sekulakotzat (Vide S. Thom. 1 p. q. 4 art. 2). Behin makhurtuz gero alde batera, ezin xuxen diteke bertzera eta ez gibelat bihur. Eta hala gerthatzen zaiku guri ere hiltzen garenean. Zeren San Damaszenok dioen bezala: *Hoc est hominibus mors, quod angelis casus* (Damascen. lib. 2 orthod. fidei et refer. 1 S. Thoma ubi supra). Aingiruetan bekhatuak egin zuena, egiten du gure baithan ere heriotzeak. Hek bekhatu eginez gero, etzutën erremediorik; ez eta guk ere, bekhatutan hillez gero. Bada aingiru gaixtoen egoitzara hurbiltzen gara gu ere, bekhatu egin hutsez, bekhatutan gogortzera, itsutzera eta ezansiatzera ethortzen garenean. Aingiru gaixtoa behingoaz galdu eta gogortu zen bëthierekotz: hala bada gu ere, ez behingoaz baiña bai anhitz bekhatu eginez eta hetan usatuz, galtzen eta gogortzen gara.

gibelat



68 Y esta clase de pecado —el que sigue al endurecimiento— dícese que es pecado contra el Espíritu Santo (S. Thom. 2-2. lib. 2. qu 28. art. 6). Porque una vez llegado a este punto, es de pura malicia. Y así como el pecado que se comete por fragilidad se dice que es contra el Padre; y el que se comete sin saber y por ignorancia, que es contra el Hijo, así el que se comete con malicia se dice que es contra el Espíritu Santo. El cual es tan peligroso, que Santo Tomás pregunta: "An sit remissibile" (Vide S. Thom. 2-2, q. 4 et sequentibus et q. 14 art. 3). ¿A ver si es perdonable? ¿A ver si puede ser perdonado? Y responde en primer lugar: que por lo que respecta a merecer, no merece perdón, porque es de malicia. En segundo lugar contesta, que por lo mismo que es de malicia, no es de los perdonables por su naturaleza. Porque así como hay ciertas enfermedades, tan graves, que dejan todo el cuerpo debilitado, vencido, e imposibilitado, y que se adueñan de tal modo del enfermo que por su naturaleza y condición no tienen remedio, no son curables; así también el pecado y la enfermedad del obstinado, endurecido, obcecado y despreocupado, es tan grave, que de suyo no es curable ni perdonable. Porque los remedios que se precisan para curar y perdonar, él mismo por su culpa y malicia, a su antojo y a sabiendas, los deja pasar y perderse, sin aprovecharse de ellos. Y por eso, refiriéndose a ese pecado, dice San Mateo: "Non remittetur in hoc saeculo, neque in futuro" (Mt. 12). Que no se perdonará en este mundo ni tampoco en el otro.

Verdad es, sin embargo, que siendo la misericordia de Dios superior a todo, sucede que se perdonen incluso algunos pecados de esta clase. Pero, como dice Santo Tomás, no a menudo, sino pocas veces y como por milagro. "Per misericordiam Dei aliquando tales quasi miraculose sanantur". (S. Thom. ubi supra). Y cuando se dice que no se perdonará este pecado, se entiende que no se perdonará, no porque Dios no pueda perdonarlo o no perdone algunos de éstos: sino porque, por un lado lo perdona pocas veces, y por otro, porque ello es dificultoso; y en fin, porque siendo de malicia y no de fragilidad, de suyo no merece perdón el tal pecado.

[38] *Zeren bataz..., eta bertzeaz* (sic), bai lehen eta bai 2. edizioan ere. Esan molde hau, beste kasu guztietan, bestela erabiltzen du Axular-ek: *Zeren bataz..., eta bertzea;* edo: *zeren bataz..., eta berriz bertzea...* Ikus 101, 359, 375, 376, 378, 395, 137, 172.

68 Eta halako bekhatua —gogortuz gerozkoa— erraiten da Spiritu Sainduaren kontrako bekhatua dela (S. Thom. 2, 2 lib. 2 q. 28 art. 6). Zëren hartaraz gero maliziazkoa baita. Eta nola flakotasunez egiten den bekhatua, erraiten baita, Aitaren kontra dela; eta iakin gabez eta inoranziaz egiten dena Semearen kontra dela: hala maliziaz ëgiten dena ere erraiten da Spiritu Sainduaren kontra dela. Zein baita hain perilosa, non galdegiten baitu San Tomasek: *An sit remissibile?* Ea barkhakizun bakhakizun denz? Barkha ahal ditekeienz? (Vide S. Thom. 2 2ae q. 4 et seq. et q. 14 art. 3). Eta ihardesten bezanbatean du lehenbizikorik: behintzat merezitzeaz denaz bezanbatean, eztuela barkhamendurik merezi, zeren maliziazkoa baita. Bigarrena ihardesten du, maliziazkoa denaz geroz eztela bere egitez barkhatzekoetarik. Zeren nola baitira eritasun batzuk, hain handiak, gorputz guztia ezindu flakatua, benzutua, eta ezindua ibentzen dutenak, eta eriari hain iauntzen zaitzanak, non bere izanez, eta sendakizun egitez ezpaitute erremediorik, ezpaitira sendakizun; hala ostinatuaren, gogortuaren, itsutuaren, eta ezansiatuaren bekhatua, eta eritasuna ere hain da handia, non berenez berenez ezpaita sendakizun, eta ez barkhakizun. Zeren sendatzeko, eta barkhatzeko behar diren erremedioak, bërak bere faltaz eta bere maliziaz, bere plazerera eta iaklara iakiara, utzten baititu probetxatu gabe iragaitera eta galtzera. Eta halatan halako bekhatuagatik, zein baita Spiritu Sainduaren kontrakoa, erraiten du San Mateok: *Non remittetur in hoc saeculo nec in futuro* (Mt. 12). Eztela barkhatuko mundu hunetan eta ez bertzean ere.

Egia da ordea nola Iainkoaren miserikordia baita guztien gaiñekoa, gerthatzen da halako bekhatuetarik ere zenbaiten barkhatzera. Ordea San Tomasek dioen bezala, ez maiz, gutitan, eta mirakuilluz bezala. *Per misericordiam Dei aliquando tales quasi miraculose sanantur* (S. Thom. ubi supra). Eta erraiten denean, eztela halako bekhatua barkhatuko, aditzen da, eztela barkhatuko, ez zeren Iainkoak ezin barkha dezakeien edo eztuen zenbait barkhatzën: baiña zeren bataz gutitan barkhatzen baitu: eta bertzeaz[38] zeren gaitz baita: eta finean, zeren nola maliziazkoa baita eta ez flakotasunezkoa, ezpaitu halakoak bere egitez barkhamendurik merezi.



§ 1

69 Se preguntan los teólogos a ver por qué razón o motivo unos pecadores, a diferencia de otros, son llamados obstinados, endurecidos, obcecados y abandonados por el mismo Dios. Y por lo que respecta a Dios no es fácil saber, no es fácil dar y hallar la razón y diferencia. Porque Dios, tanto a los endurecidos en el pecado como a todos los demás pecadores, da, mientras están en este mundo, tanta gracia, ayuda y favor cuanta basta para salvarse y salir del pecado. Por parte de El ya hay lo preciso, no falta nada por este lado. El hace como el sol, que alumbra a buenos y malos, a todos. "Solem suum oriri facit super bonos et malos" (Mt. 5). Y como dice San Pablo: Dios quiere que todos se salven. "Qui vult omnes homines salvos fieri" (2 Thim. 2). Y asimismo está a las puertas de todos, en todas llama, deseando que le abran. "Ego sto ad ostium et pulso" (Apoc. 3).

No obstante, como en muchos lugares dice la Sagrada Escritura que algunos pecadores, a diferencia de otros, son endurecidos, obcecados y dejados de la mano de Dios, y hasta incluso dice que el mismo Dios los ciega y endurece (*Ego indurabo cor Pharaonis* Ex 4. *Quem vult indurat* Rom 9. *Exceca cor populi hujus* Is 6.): parece que aún por parte de Dios hay que buscar y dar alguna causa, razón y diferencia. Y para hallarla, es preciso que sepáis que cuado ve Dios cómo nos hallamos metidos en el pecado, hace muchas tentativas y esfuerzos para sacarnos de los dichos pecados. Que se sirve de muchas trazas y recursos para llevarnos al buen camino. Como tenemos nuestra voluntad a nuestra disposición, y somos libres para decir sí o no, según queramos; respetando esta voluntad libre, y sin forzarnos para nada, Dios nos llama y atrae hacia Sí. Y comúnmente la primera vez no nos llama de una manera ruidosa y fuerte, como llamó a San Pablo. Sino que nos llama suave y débilmente, con delicadeza, remordiendo la conciencia, dando enfermedades, por medio de las advertencias de sus predicadores y de muchas otras maneras. Y si cuando a la primera nos llama y atrae de esta suerte, le respondemos y nos acercamos a él, después, a la segunda vez nos llama y atrae de una manera más viva y

39 Salamancako Unibersidadean XVI. mendearen azkenaldera eztabaida zaratatsuak izan ziren teologoen artean; *Controversiae de auxiliis divinae gratiae* deitzen diren eztabaidak. Jainkoaren grazia eta gizonaren libertadea nola elkarrekin konpondu eta uztartu, nola Jainkoak giza egiteetan parte har lezakeen libertadea salborik eta osorik utziaz, halere: hori da eztabaida haietan argitu nahi zen puntua. Axular-ek Salamancan eztabaida hoiek hurbildik segitzeko aukera izan zuen, eta hain zuzen, hemen eta bai geroago ere (76. zatian) eztabaida haien oiartzuna utzi digu.

§ 1

69 Galdegiten dute teologoek ea zer arrazoiñez, edo zergatik deitzen diren bekhatore batzuk, bertzeren artetik ostinatuak, gogortuak, itsutuak eta Iainkoak berak ere utziak? Eta Iainkoaren aldetik denaz bezan batean, ezta erraz iakiten, ezta èrraz arrazoinaren eta diferenziaren emaiten eta edireiten. Zeren Iainkoak hala bekhatutan gogortuei, nola gaiñerako bèrtze bekhatore guztiei emaiten deraue, mundu hunetan direiño, salbatzeko, eta bekhatuetarik ilkitzeko, asko duten bezain bertze garazia, laguntza eta fabore. Haren aldetik bada behar dena, ezta handik deusen faltarik, eta ez eskasik. Hark iguzkiak bezala egiten du, onei eta gaixtoei guztiei argitzen deraue. *Solem suum oriri facit super bonos et malos.* (Mt. 5). Eta Iondone Paulok dioen bezala, Iainkoak nahi du guztiak salba ditezin. *Qui vult omnes homines salvos fieri* (2 Thim. 2). Eta halaber guztien athei dagote, guztietan deitzen du, ideki baliazote nahiz. *Ego sto ad ostium et pulso* (Apoc. 3).[39]

ediren

garazia

Iondone


halaber

Ordea guztiarekin ere nola anhitz lekhutan, erraiten baitu Skritura Sainduak, bekhatore batzuk, bertzeen artetik dirèla gogortuak, itsutuak, eta Iainkoak ere utziak, eta are Iainkoak berak itsutzen, eta gogortzen dituela: badirudi behar lizatekeiela Iainkoaren aldetik erè bilhatu, eta eman zenbait kausa, arrazoin, eta diferentzia (Ego indurabo cor Pharaonis: Ex. 4. Quem vult indurat: Rom. 9. Exceca cor populi huius: Is. 6). Eta edireiteko, iakin behar duzue ezen, ikhusten duenean gure Iainkoak, nola gauden bekhatutan sarthuak, anhitz enseiu, eta pensu egiten duela, gure bekhatu hetarik atheratzeko. Anhitz maiñaz, eta trazaz usatzen duela, gure bide onean ibentzeko. Nola geure borondatea geure eskuko baitugu, nola nahi badugu baietz, eta nahi ezpadugu èzetz erraiteko libre baikara: gure borundate libre hunen araubaz, deusetan ere bortxatu gabe, deitzen, eta thiratzen gaitu Iainkoak beregana. Eta komunzki lehenbiziko aldian, ezkaitu ozentki, eta bortitzki deitzen Iondone Paulo bat deitu zuen bezala. Baiña deitzen gaitu aphur bana, emeki, eztiki, maiñaz, konzientzia alhatuz, eritasunak emanez, bere predikarien erranez, eta anhitz bertze moldez. Eta hunela lehenbiziko deitzen eta thiratzen gaituenean ihardesten badiogu, hurbiltzen bagatzaitza, gero bigarrenean, bizikiago, eta sendokiago deitzen eta thiratzen gaitu: eta

pensu

thiratu

alhatu



fuerte: y así sucesivamente a la tercera y siguientes. De tal forma, que al final, llamándonos de una manera perfecta y cumplida, por dentro y por fuera, y ayudándonos él, nos coloca en su gracia y amistad, perdonándonos todos los pecados. Mas cuando no hacemos caso de estas primeras llamadas, requerimientos y gracias suaves y ordinarias, cuando no nos aprovechamos de ellas ni las acogemos, aún cuando otra vez vuelva a las mismas gracias comunes de antes, y aunque todavía nos llame en grado suficiente; y aunque para lo sucesivo esté dispuesto igualmente a llamarnos y favorecernos como antes: mas en tal caso de ordinario no pasa adelante. Quiero decir, que nos llama y favorece como antes, y no más fuerte y poderosamente que antes. Y esto por nuestra culpa. Así dice un maestro mío: "Obstinati excaecati ob suam sulpam vix aut numquam utuntur bene prioribus auxiliis, atque ita non accipiunt posteriora illa auxilia, quae reliquis peccatoribus saepe donantur" (Zumel). No nos da las gracias extraordinarias, privilegiadas y de superávit, porque no acogemos las comunes y ordinarias. Nos quita las segundas, porque usamos mal de las primeras. Porque si es justo que el que es fiel en lo pequeño y menudo sea ocupado también en lo grande "—Quia in pauca fuisti fidelis supra multa te constituam" (Mt. 25)— parece, a la inversa, que al que no es fiel hay que quitarle aún lo que se le daría. Bien está y es justo que al que no hace aprecio de las primeras gracias pequeñas, no se le den las grandes. Nuestra es la culpa.

70 Porque como dice San Agustín: "Numquam prius Deus deserit hominem, nisi prius ab homine deseratur" (Aug. sermo 80 de tempore tomo 10). Nunca Dios abandona al hombre, si el hombre primero no abandona a Dios. Las gracias comunes, ordinarias y suficientes da Dios aun a los endurecidos y obstinados, pero no les da las extraordinarias y de predilección, las eficaces.

81 Mas aquí se debe considerar una cosa. Al mandarle que construyera la nave, le dijo Dios que aguardaría ciento veinte años. Pero si sacamos bien la cuenta hallaremos que no esperó más que cien años. Porque consta que cuando mandó que se hiciera la nave o barca Noé tenía quinientos años, y que el diluvio vino cuando tenía seiscientos años. ¿Qué significa esto? *Promete que aguardará ciento veinte* años y no espera más que cien. ¿Dónde están los restantes? ¿Qué desmoche es éste? ¿Por qué no cumple plenamente su promesa? Contesta San Crisóstomo: "Antequam implerentur anni promissi, universale introduxit excidium, et hoc fuit sacrae misericordiae maximum indicium. Nam quoniam vidit incurabiliter illos peccare, et non solum nihil ex indicibili longanimitate sua proficere, sed et incrudescere ulcera, propterea succidit tempus, ut ne maiori scilicet poenae se obnoxios facerent" (Chrys. Hom. 25 in cap. 7 Gen. tom. 1). Es verdad, Dios envió el diluvio sin esperar a que se cumplieran los años que había prometido. Y esta fue una gran señal de la sagrada misericordia. Porque como vio que todos los días se ocupaban en pecar y que también en lo sucesivo continuarían lo mismo, y que con aguardar, con darles más tiempo, se les hacía más daño que provecho, pues las llagas de los pecados se enfurecían y envenenaban cada vez más, y ellos se hacían cada vez más culpables, compadecido, a fin de que les cupiera menos castigo, les abrevió el tiempo y les cortó en veinte años el *plazo y promesa que les había dado. Así contesta San* Crisóstomo. Buena razón es esta. Pero no para probar lo que yo persigo. Para esto se encuentra otra razón en San Jerónimo, y a mi juicio no es mala. Hela aquí. Les prometió que les esperaría ciento veinte años, pero no les esperó más que cien años.

asti

asti, ephe, termino eta èspatio bizitzeko, eta penitentzia egiteko, ehun eta hogoi urthe. Eta bitarte hunetan zuk, erraiten dio Noeri, bertzeen abisatzeko, eta zeure etxekoen salbatzeko, eta halaber animalia suerte guztietarik haziaren eta arrazaren gelditzeko, eginen duzu untzi bat, barkha handi bat, erran den gauzako asko handi datekeien bezalakoa. Eta hala egin ere zuen. Eta hartan sarthu zirenak, bizirik salbatu, eta eskapatu ziren, eta ez bertzerik.

untzi ...barkha

81 Orai hemen behar da konsideratu pontu bat. Untziaren eragiterakoan, erran zerauen Iainkoak igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez. Baiña baldin kontua ongi atheratzèn badugu, edirenen dugu, etzerauela iguriki ehunez baizen. Zeren ageri da ezen, untziaren edo barkharen manua izan zuenean, bortzetan ehun urthe zituela Noèk, eta gero seietan ehunetara heldu zenean, ethorri zela uholdea. Zer erran nahi du bada hunek? Prometa igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez, eta ez iguriki ehunez baizen? Non dira gaiñerakoak? Zer murritzte da haur? Zergatik eztu bere promesa osoki konplitzen? Ihardesten du San Krisostomok: *Antequam implerentur anni promissi, universale introduxit excidium, et hoc fuit sacrae misericordiae maximum indicium. Nam, quoniam vidit incurabiliter illos peccare, et non solum nihil ex indicibili longanimitate sua proficere, sed et incrudescere ulcera, propterea succidit tempus ut ne maiori scilicet poenae se obnoxios facerent* (Chrys. Hom. 25 in cap. 7 Gen. tom. 1). Egia da, prometatu zituen urtheak konplitu gabe, igorri zuen Iainkoak uholdea. Eta haur izatu zen miserikordia sakratuaren seiñale handi bat. Zeren nola ikhusi baitzuen, egunoro bekhatu egiten hari zirela, eta aitzinerat ere hala hariko zirela, eta igurikitzeaz, denbora gehiago emaiteaz, probetxu baiño kalte gehiago heldu zeiela, bekhatuen zauriak gordintzenago, eta gaizkoatzenago zirela, hobenduriago egiten zirela, urrikaldurik, pena gutiago ethor zekien amoreakgatik, gutitu zerauen denbora, eta laburtu hogoi urthèz, eman zerauen ephea eta promesa. Hunela ihardesten du San Krisostomok. Eta arrazoin ona da haur. Baiña ez ni narraion gauzaren frogatzeko. Hartarakotzat edireiten da bertze bat San Jeronimo baithan, eta ene ustez èz gaixtoa. Eta da arrazoiña: prometatu zerauen, igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez, ez ordea iguriki ehunez baizen. Ze-

ediren

murrizte

igorri

gaizkoatu

hobenduri



Y la razón de ello fue porque los pecados que tenían que hacer en ciento veinte años —o mejor, los que no tenían que hacer—, los hicieron en cien años, con cien completaron la medida (Vid. Hieron. de quaest, hebraicis super hunc locum). Y como una vez llenada la medida, ya no había más que esperar: así, y puesto que ellos se habían dado prisa para pecar y llenar la medida, Dios por su parte resolvió también abreviarles la vida y disminuirles y recortarles el tiempo en veinte años.

82 De aquí podemos deducir que aunque no sea más que por vivir más, deberíamos retraernos de pecar y excusarnos de llenar la medida. Así dice el profeta Jeremías a los judíos: "Quare facitis malum grande hoc contra animas vestras, ut intereat ex vobis vir et mulier?" Enemigos de vosotros mismos, ya que no lo hagáis por Dios, ¿por qué no renunciáis a pecar cuando menos por vuestro mismo provecho y por vivir más? ¿No véis que pecando y llenando el cómputo de los pecados acortáis la vida? ¿Y que de este modo morís más pronto de lo que moriríais en la otra hipótesis? Porque una vez completado el número, ya no hay más vida.

Nuestro Dios había prometido a Abraham y a sus descendientes que les daría aquel país excelente de Judea. Pero no se lo dio inmediatamente después de prometido. Y ¿por qué no? "Necdum enim completae sunt iniquitates Amorrhaeorum" (Gen. 15). No les doy inmediatamente, porque todavía no se han llenado y cumplido los pecados de los amorreos, que son los que poseen aquel país. Cuando éstos llenen la medida y completen el número, entonces se lo quitaré a éstos y lo daré a Abraham y a sus descendientes.

No parece que obró así con los de Sodoma y Gomorra: con éstos actuó inmediatamente. Sin aguardar más, envió un fuego del cielo y los quemó. Porque ya para entonces habían llenado la medida. Y acerca de esto dice San Agustín: "Quo exemplo manifeste instruimur, singulos secundum peccatorum suorum plenitudinem consummari, et tamdiu ut convertantur sustinere quamdiu cumulum suorum, non habuerint, delictorum, consummatum" (Vide Aug. de vita christiana tomo 9). Con este ejemplo se nos da a entender y se muestra claramente a cada uno que

ren ehun eta hogoi urthez egin behar zituzten bekhatuak, edo egin behar etzituztenak, ehunez egin baitzituzten, ehunez neurria bethe baitzuten. Eta nola neurria bethez gero, ẽzpaitzen zer gehiago igurikirik: halatan, nola berak lehiatu baitziren bekhatu egitera, eta neurriaren bethatzera, deliberatu zuen Iainkoak ere hẽi biziaren laburtzera, eta hogoi urtheren denboraren gutitzera eta ephaitera (Vid. Hieron. de quaest. hebraicis super hunc locum).

lehiatu

82 Hunetarik athera ahal dezakegu, behar gandukeiela, gehiago bizitzeagatik bedẽre, bekhatu egitetik gibelatu, eta hartan neurria bethatzetik eskusatu. Halatan erraiten deraue Ieremias profetak iuduei: *Quare facitis malum grande hoc contra animas vestras, ut intereat ex vobis vir et mulier?* Zeuen buruon etsaiak, Iainkoagatik egin nahi ezpaduzue ere, zergatik zeuen probetxuagatik eta gehiago bizitzeagatik bedere, etzarete bekhatu egitetik begiratzen? Eztakusazue, bekhatu egiteaz, eta heken kontuaren konplitzeaz, bizia laburtzen duzuẽla? Eta halatan bertzela hillen zineten baiño lehen, hiltzen zaretela? Zeren kontua konplituz gero, ezpaita gehiago bizitzerik.


bedere gibelatu

Prometatu zerauen gure Iaungoikoak Abrahani eta haren ondokoei, emanen zerauela Iudeako erresuma on hura. Ordea etzerauen, prometatu eta berehala eman. Eta zergatik ez? Ihardesten du Iainkoak berak: *Necdum enim completae sunt iniquitates amorrhaeorum* (Gen. 15). Ezterauet emaiten berehala, zeren ezpaitira oraiño bethe eta konplitu Amorreoen bekhatuak, zẽinek baitadukate herri hura. Hek neurria betha dezatenean, eta kontua konpli, orduan edekiko derauet hei, eta emanen Abrahani eta haren ondokoei.

erresuma

Etzuen iduriz hala egin Sodomakoekin eta Gomorrakoekin: hẽk erran eta berehala, gehiago iguriki gabe, zerutik su bat igorririk erre zituen. Zeren ia ordukotzat neurria bethe baitzuten. Eta hunen gaiñean erraiten du San Agustinek: *Quo exemplo manifeste instruimur, singulos secundum peccatorum suorum plenitudinem consummari, et tamdiu ut convertantur sustinere, quamdiu cumulum suorum, non habuerint, delictorum, consummatum* (Vid. August. de vita christiana tom. 9). Exenplo hunetzaz emaitẽn zaiku aditzera, eta erakusten klarki, bat bederari, bere bekhatuak bethe

ordukotzat



cuando ha completado sus pecados, se le completan también sus días: que se le espera hasta dicho tiempo y no más.

83 Y si todas estas cosas que hemos dicho hasta aquí son verdades, como lo son: si Dios tiene decretado aguardar hasta que se cumpla la medida, y no más: ¿Qué es lo que piensas tú, que hasta aquí has cometido más pecados que pelos tienes en la cabeza? ¿Qué sabes si con el próximo pecado que vas a hacer llenarás la medida y completarás el número? ¿Quién sabe si Dios está aguardando al primer pecado que vas a hacer para acabar tus días y sacarte del mundo? Cosa es esta digna de consideración y de tenerla siempre presente. Pero tú, haciendo poco caso de esta razón y de otras semejantes, te refugias en tu "después" y afirmas siempre que después te convertirás y que tu medida no se llenará todavía.

Mas ¿que sucederá, si en vez de llegar ese "después" que tú sueñas, llegare a completarse el número de tus pecados? ¿Y si tu vida se acabare?

Esta sola consideración, sin más, debería bastar para no andar con más prórrogas indefinidas: o por lo menos, cuando vas a cometer un pecado, para hacerte recular y retraerte de cometerlo. Porque deberías pensar que aquel pecado que vas a cometer es por ventura, tu último pecado, y que con él llenas tu medida, ya que no estás seguro.

Muchos pecados has cometido hasta el presente, y con todo Dios te deja aún, te espera. Por tanto puedes tener la esperanza de que todavía no has llenado la medida. Empero, puede ser que la llenes con el primero que vas a cometer; por lo mismo debes guardarte de cometerlo.

Y así, sean los que fueren los pasados, remediémoslos lo mejor posible, y guardémonos a poder ser de cometer nuevos en lo sucesivo. Trayendo siempre presente este pensamiento, este riesgo de cumplir la medida. Y viviendo no a base de pecados y maldades, sino más bien llenando la medida con virtudes y obras buenas, de manera que al fin podamos alcanzar la gloria del cielo.

[49] *Bira*=izan bitez. Ikus Euskaltzaindiak onartutako Aditz Laguntzaile Batua, I Iragangaitza, Ohar C.

dituenean, bethatzen zaitzala bere egunak ere: denbora hartaraiño igurikitzen zaikala, eta ez gehiago.

83 Eta baldin orainokoan erran ditugun gauza hauk guztiok egiak badira, nola baitira egiak: baldin Iainkoak deliberatua badaduka igurikitzeko neurria betha artèiño eta ez gehiago. Zertan pensatzen othe duzu zuk, orainokoan ere, buruan ille duzun baiño bekhatu gehiago egin duzunorrek? Zer dakizu hurran lehenbiziko eginen duzunaz, zuk zeure neurria bethatzen duzunz? Kontua konplitzen duzunz? Zer dakizu lehenbiziko eginen duzun bekhatuaren begira dagoenz Iainkoa, zure egunen akhabatzeko, eta mundutik atheratzeko? Konsideratzekoa, eta bethi erè gogoan edukitzeko pontua da haur. Baina zuk pontu hunez eta bertze hunelakoez ere kontu guti eginik, zeure gero hartara laster egiten duzu, eta bethiere gero onduko zarela, eta zure neurria eztela oraiño bètheko erraiten duzu.

hurran

Ordea zer izanen da, zure gero hura heldu gabe, zure bekhatuen kontua bere kontura hel badadi? Eta zure bizia ere akhaba badadi?


Konsiderazino haur bèror, bertzerik gabe, asko behar lizateke, ez gehiago gerotik gerora ibiltzeko: edo bai behintzat bekhatu baten egitera zohazinean, haren egitetik ixtitzeko eta gibelatzeko. Zeren pensatu behar zenduke ezen, egitera zohazin bekhatu hura, dela benturaz, zure azken bekhatua, eta hartzaz zuk zeure neurria bethatzèn duzula, zeren etzara segur.

ixtitu

Anhitz bekhatu egin duzu oraiñokoan, eta guztiarekin ere utzten zaitu oraiño Iainkoak, igurikitzen deratzu. Beraz esperantza ahal dukezu, eztuzula oraiño neurria bethe. Ordea betha dèzakezu, lehenbiziko eginen duzunaz, beraz haren egitetik behar duzu begiratu.

Eta hala bira[49] iraganak iragan, hek ahalik eta hobekiena erremedia ditzagun, èta aitzinerat gehiago egitetik ahalez begira gaitezin. Bethiere pontu haur, neurriaren bethatzeko peril haur, gogoan edukitzen dugula. Eta bizitzèn garela, ez bekhatuz eta gaixtakeriaz, baiña ontasunez eta obra onez, neurria betherik, azkenean zeruko loria erdiets dezakegun bezala.





QUE LA MISERICORDIA DE DIOS VALE MUCHO, Y COMO SE DEBE CONFIAR EN ELLA

CAPITULO X

84 Dice Santo Tomás: "Fiducia est spes roborata, ex aliqua firma opinione" (S. Thom. 1 p. q. 129. art. 6 in corp. et ad 3). La confianza es una esperanza robustecida, fortificada, y al parecer bien cimentada y asegurada. Cuando tienes un amigo rico, poderoso, y que en todas tus necesidades siempre se ha mostrado fiel y leal: la palabra de este tal la consideras como si fuera dinero, el ofrecer equivale al dar: tienes plena confianza en sus promesas, y hasta en sus gestos y guiños. Por lo tanto, con razón hemos de tener también nosotros una gran confianza y esperanza cálida en nuestro Dios y en su misericordia. Porque en El hemos de encontrar, e incluso ventajosamente, todas la seguridades que pueden darse para confiar y tener esperanza.

Primeramente, El es nuestro amigo, y tan amigo, que, bajando del cielo a la tierra, en la tierra dio su vida generosa y voluntariamente por nosotros, que aún éramos sus enemigos. Así lo dice San Pablo (Rom. 5): "Commendat Deus charitatem suam in nobis, quoniam cum adhuc peccatores essemus, Christus pro nobis mortuus est".

Asimismo El es rico y poderoso. Porque el cielo y la tierra con todas las cosas de ellos, suyos son, hechos por El, y están a su disposición: "Domini est terra et plenitudo eius" (Ps. 23). Con decir "sean hechos" se hicieron, y con decir "sean deshechos" puede deshacerlos. "Ipse dixit et facta sunt" (Ps. 32). Sin su querer y voluntad no se puede andar ni moverse, ni subsistir ni respirar. "In ipso enim vivimus, movemur et sumus" (Act. 17).

85 Y por lo que se refiere a su fidelidad, a su lealtad en guardar la palabra, nada hay que decir: "Respicite filii nationes hominum, et scitote, quia nullus speravit in Domino, et confusus est. Quis enim permansit in mandatis eius et derelictus est? Aut quis invocabit eum, et despexit illum?" (Eccli. 2). Mirad a todas las generaciones de la tierra, y hallaréis que jamás se ha perdido nadie que haya confiado en Dios, ni ninguno que en su necesidad le haya solicitado como se debe, se ha quedado sin lo que necesita. Así lo dice el rey David: "Iacta super

[50] Kasu *beñar* eta *behartu* hitzekin egiten duen joko polit lirainari.

ANHITZ BALIO DUELA IAINKOAREN MISERIKORDIAK, ETA NOLA BEHAR DEN HARTAN FIDATU
KAP. X

84 Erraiten du San Tomasek: *Fiducia est spes roborata, ex aliqua firma opinione* (S. Thom. 1 p. q. 129 art. 6 in corp. et ad 3). Fidanzia da esperantza bat bortiztua, indarztatua, eta ustez ongi finkatua eta seguratua. Duzunean adiskide bat aberatsa, botheretsua, eta zeure egiteko guztietan bêthiere fin eta leial frogatua: halakoaren hitza dirutzat hartzen duzu, eskentzea, emaitea bezanbat zaitzu: haren promesetan, kheinuetan eta are aieruetan ere, fidantzia handia dadukazu. Beraz hunelatan arrazoiñekin edukiko dugu guk ere fidantzia handia, eta esperantza beroa, geure Iainkoa baithan eta haren miserikordian. Zeren han edirenen ditugu, are abantaillatuki, fidatzeko eta esperantza izaiteko, ahal diratekeien segurantza guztiak.

fidanzia bortiztu
Indarztatu
frogatu
eskentze
aieru

Lehenbizikorik, hura da gure adiskide, eta hain adiskide, non zerutik lurrera iautsirik, lurrean guregatik, are bere etsai ginituelarik, bere bizia liberalki eta bolondreski eman baitzuèn. Hala erraiten du Iondone Paulok: *Commendat Deus Charitatem suam in nobis, quoniam, cum adhuc peccatores essemus, Christus pro nobis mortuus est* (Rom. 5).


bolondreski

Halaber hura da aberats eta botheretsu. Zeren zerua eta lurra, zeruko eta lurreko gauza guztiekin bereak, berak eginak, eta bere êskuko baititu. *Domini est terra et plenitudo eius* (Ps. 23). Egin bitezi, erraiteaz, egin zituen, eta desegin bitezi erraiteaz, desegin ditzake. *Ipse dixit et facta sunt* (Ps. 32). Ezta ibiltzerik eta ez higitzerik, ezta irauterik eta ez hats hartzerik, haren nahia eta borondatea gabe. *In ipso enim vivimus, movemur et sumus* (Act. 17).

hats hartu

85 Bada fintasunaz, bere hitzaren leial, eta iabe izaiteaz, ezta zer erranik. *Respicite filii nationes hominum, et scitote, quia nullus speravit in Domino, et confusus est. Quis enim permansit in mandatis eius, et derelictus est? Aut quis invocavit eum et despexit illum?* (Eccli. 2). Beha ezazue munduko ienderazino guztietara, eta edirenen duzue eztela egundaiño, Iauna baithan fidatu denik galdu, eta ez bere beharrean, behar den bidean, hura behartu duenik, bere behar duena gabe, gelditu.[50] Halatan erraiten du errêge Davitek: *Iacta su-*

erran
ienderazino



Dominum curam tuam, et ipse te enutriet" (Ps. 54). Si quieres que te vaya bien y te suceda bien, pon tu esperanza, confianza y todos los cuidados en Dios, arrójalos sobre él. Porque aun en los negocios que a juicio del mundo no tienen remedio, El se lo encontrará y les dará cima. Parece que por darnos a entender esto muchas veces nos deja nuestro Dios. Nos deja caer en aprietos y trabajos y deja que vengamos a tal extremo que no haya remedio, como no sea del cielo: con el fin de que nos apresuremos a recurrir al cielo con toda confianza, después de haber perdido toda esperanza terrena y de haber desesperado de todos los apoyos, patronos y protecciones de este mundo. Así dice San Crisóstomo: "Quando res in maximam inciderit inopiam, tunc tu maxime spera; tunc enim Deus maximam suam ostendit potentiam: non a primordio, sed quando res fuerit plane desperata" (Chrys. hom. 17 tom. 1). Cuando el negocio se halla en lo peor, cuando se encuentra a punto de quebrar, precisamente entonces es cuando debes de tener más confianza que nunca. Porque entonces mostrará Dios su gran poder: no en el principio de la tribulación, sino en su período más álgido, y cuando parece que por ningún lado se ve solución. Porque entonces es la ocasión y coyuntura para el favor y protección de Dios. Por lo tanto entonces es cuando debes confiar y esperar en Dios y en su misericordia.

Y al tiempo que tú así lo haces, Dios por cierto no te ha de faltar. Al contrario, a fin de mostrar su bondad, misericordia y poder, entonces es cuando se apresura, entonces se llega a ti, entonces es cuando te envía remedio por una vía que tú ni habías pensado. A fin de que sepas que cuando se han agotado todos los otros remedios, allí empiezan los suyos. A fin de que sepas que cuando todos los demás te han dejado impotente, El es aún poderoso y que entonces precisamente te socorre.

86 Así socorrió al profeta Jonás cuando la ballena lo trajo vivo en el vientre por tres días y noches. Así socorrió y preservó también a los hijos de Israel en la orilla del mar, cuando el rey Faraón los tenía cercados por todas partes, de modo que no podían huir, y a su parecer los tenía cogidos.

Así socorrió a Susana, mujer honorable del Antiguo Testamento, cuando la llevaban para apedrearla, acusada falsamente de haber estado con otro dis-

51 *Habe.* 'Columna' eta ez 'viga', *Axular-en Hiztegia*-n jarri zen bezala. Ikus MITX FLV (1974), 117.

per Dominum curam tuam, et ipse te enutriet (Ps. 54). Nahi baduzu zutzaz ongi dohan, eta ongi iltki dadin, ibeintzatzu zeure esparantza, fidantza, eta ardura guztiak Iainkoa baithan, haren gaiñera egotz itzatzu. Zeren munduko iduriz erremediorik eztuten egitekoei ere hark edirenen deraue êta emanen buru. Badirudi ezen hunen aditzera emaiteagatik anhitzetan ere utzten gaituela geurê Iaungoikoak hersturatan iartzera, egitekotan sartzera, eta zerutik baizen erremediorik ezin dukegun bezalako pontura, ethortzera: lurraz, eta lurreko habe,[51] iabe, eta fabore guztiez etsiturik, zerura eta zerukoetara, fidantzia handirekin laster dagigun amoreakgatik. Hala erraiten du San Krisostomok: *Quando res in maximam inciderit inopiam, tunc tu maxime spera; tunc enim Deus maximam suam ostendit potentiam; non a primordio, sed quando res fuerit maxime desperata* (Chrys. hom. 17 tom. 1). Egitekoak egitekotan direnean, galdugordean dabiltzanean, orduan edukazu zuk egundaiño baiño esperantza gehiago. Zerên orduan, erakutsiko du Iainkoak bere bothere handia: ez egitekoaren hastean, baiña bai premiarik handienean, eta nehondik erremediorik eztela dirudienean. Zerên orduan da Iainkoaren faborearen eta laguntzaren sasoiña eta puntada. Beraz orduan behar duzu zuk Iainkoa baithan, eta haren miserikordian, fidatu eta esperantzatu.

iltki
fidantza
herstura
galdugordean
puntada


Eta hala egiten duzun denboran, eztu ez Iainkoak faltatzen. Aitzitik bere ontasunaren, miserikordiaren eta botherearen erakusteagatik, orduan laster egiten du, orduan heltzen zaitzu, orduan zuk pensatu ere etzendukeien bidetik, erremedio igortzen deratzu. Iakin dezazun, bertze erremedio guztiak ahitu direnean, harenak hasten direla. Iakin dezazun bertze guztiek deus ezin eginez utzi zaituztenean, hark badaidikeiela, eta orduan faboratzen zaituela.

ahitu
faboratu

86 Hala faboratu zuen Ionas profeta hirur egunez eta gauez baleak sabelean bizirik erabilli zuenean. Hala faboratu eta begiratu zituen Israeleko semeak ere itsasbazterrean, errege Faraonek alde guztietarik inguratuak, eta ezin ihesik zeidiketen bêzala, ustez hartuak eta atrapatuak zedutzanean.

balea

Hala faboratu zuen Susana, Lege zaharreko emazte prestu hura ere, berê senharraz bertzerekin izan zela, falsoki akhusaturik, harriz iokatzera, zeramatenean.



tinto de su marido. En fin, así socorrió también al Profeta Daniel, cuando lo sacó sano y salvo de entre los leones y del poder de ellos.

¿Quién había de decir que fuera a salir vivo a tierra un hombre que había pasado tres días y noches en el vientre de una ballena? ¿Quién iba a creer que los hijos de Israel que habían estado en tan gran aprieto a la orilla del mar escaparían de las manos de Faraón? ¿Y que el propio Faraón con todo su poder quedaría allí ahogado? ¿Quién iba a pensar que Susana, a quien habían sacado a la plaza condenada para matarla, volvería a casa con tanto honor, y que sus acusadores y condenadores habían de ser condenados y ajusticiados en su lugar? Finalmente, ¿a quién se le iba a ocurrir un caso como el de Daniel: que los leones hambrientos, habiéndolo tenido a su alcance y entre sus garras, lo habían de dejar sin despedazarlo y devorarlo? Estos son milagros de Dios, que solamente Dios puede hacer y no otro. Y los hizo en el tiempo de esas personas. Porque ellas, cuando se hallaban en esas apreturas, con gran confianza, pusieron toda su esperanza en Dios. Y porque no la pusieron de ese modo, de entre los hijos de Israel que salieron de Egipto, únicamente Josué y Calef entraron en la tierra prometida. Porque entre todos, estos dos fueron los únicos que tuvieron la debida esperanza, fe y confianza en las promesas y palabras de Dios.

§ 1

87 Cierto día San Pedro comenzó a caminar sobre el mar hacia su Señor Jesucristo. Y empezó a andar a pie, sin ningún género de embarcación, barca o bote, como si estuviera en tierra, con una gran confianza, con una esperanza cierta de que yendo como iba a su Señor Dios, con su favor el mar le había de sostener, que no se ahogaría ni hundiría. Y no se engañó por cierto. Porque mientras le duró dicha confianza, el mar le sostuvo, no se fue al fondo, asentaba los pies con la misma seguridad y firmeza que en tierra. Pero después, cuando por causa del viento, el mar empezó a embravecerse, también San Pedro comenzó asimismo a temer, a asustarse, a dudar, a perder la esperanza y confianza. Y como iba dudando y perdiendo la confianza, en la misma medida se iba metiendo dentro del mar, se iba hundiendo; de tal modo que al fin, para que

lehoin Finean hala faboratu zuen Daniel profeta ere, lehoinen artetik eta botheretik osorik eta salborik athera zuenean.

Nork erran zukeien, gizon bat hirur egunez eta gauez balearen sabelean ibiliz gero, bizirik leihorrera iltkiko zela? Nork sinhętsi zukeien Israeleko semeak, itsas-bazterrean, hain herstura handian izan zirenak, itzuri Faraonen eskuetarik itzuriko zirela? Eta Faraon bera bothere guztiarekin ithorik han geldituko zela? Nork pensatu zukeien Susana gaixtotzat kondenaturik, plazara galtzęko atheraz gero, hanbat ohorerekin etxerat bihurtuko zela, eta haren akhusatzailleak eta kondenatzailleak, haren lekhuan kondenatuak eta iustiziatuak izanen zirela? Finean, nori gogora zitzaikaion Daniel bezalakoa, lehoin gose-minduek bere menean, eta atzaparren artean edukiz gero, desegin gabe, eta iretsi gabe utziko zutela? Hauk dira Iainkoaren mirakuilluak, Iainkoak berak egin ahal zitzakęienak, eta ez bertzek. Eta egin zituen iende heken alditan. Zeren hek herstura hetan zirenean, bere esperantza guztia, fidantzia ibeni handirękin, Iainkoa baithan ibeni baitzuten. Hala ibeni gabez, Israeleko seme Ejiptotik iltki zirenetarik, etziren Iosue eta Kalef baizen, herri prometatuan sarthu. Zeren guztien artetik, hek biėk bai, baiña ezpaitzuen bertzek, Iainkoaren promesetan eta erranetan behar zen esperantza, sinhestea eta fidantzia eduki.

gose-mindu men (1)

ibeni

itzuri


§ 1

87 Abiatu zėn egun batez Iondone Petri, itsas gaiñean, Iesukristo bere nabusiagana. Eta abiatu zen berehala leihor oiñez, untzirik eta xaluparik edo batelik gabe, leihorrean izan bailliz bezala, fidantzia handi batekin, esperantza segur batėkin, bere Iainko nabusiagana zihoanaz geroztik, haren faborearekin batean, itsasoak iasanen zuela, etzela ithoko, eta ez hondatuko. Eta etzen enganatu ez enganatu. Zeren fidantzia hark iraun zeraukan bitartean iasan zuen itsasoak, etzen ondora, leihorrean bezain segurki eta gogortki finkatzen zituen oiñak. Baiña gero haize bat iaikirik, itsasoa handitzen, eta haserretzen hasi zenean, hasi zen halaber Iondone Petri izitu ere, izitzen, ikharatzen, dudatzen, esperantzaren eta fidantziaren galtzen. Eta nola baitzihoan dudatuaz, eta fidantziaren galduaz, hala zihoan itsasoan barrena ere sarthuaz, estaliaz eta hondatuaz: halako moldez, ezen

leihor

enganatu

izitu



no se hundiera del todo, su dueño hubo de darle la mano a fin de sostenerlo, diciéndole: "Modicae fidei quare dubitasti?" (Mt. 14). Ah, hombre de escasa fe, de poca confianza, ¿por qué has dudado? ¿Por qué no te has mantenido fiel en tu primera voluntad y fe? Mientras tuvo confianza le fue bien, entonces le sostuvo el mar. Pero cuando le faltó aquella confianza, le faltó también al mar la fuerza y el poder para aguantarle y sostenerle. Así dice el rey David: "*Qui confidunt in Domino sicut mons Sion*". Los que confían en Dios serán a manera del bosque y monte de Sión: firmes, consistentes y fuertes como éste.

Por lo tanto, mucho sirve la esperanza, gran fuerza tiene la confianza. Tan grande, que parece que basta la sola confianza para salvar a uno y ponerle en buen camino, por más malo que sea, cuando se encuentra en aprietos, y sobre todo en su último fin. Mas no hay tal. Aunque así parezca, no es así, no bastará solo la confianza. Porque es verdad que mucho vale la confianza, gran fuerza tiene la esperanza. Pero se entiende con medida, sin demasías. Porque todas las demasías son malas, como se echará de ver en el capítulo siguiente.

QUE NO SE DEBE DEJAR PARA LUEGO EL HACER PENITENCIA, FUNDANDOSE EN LA MISERICORDIA DE DIOS

CAPITULO XI

88 Dice San Agustín, hablando de los que confían demasiado en la misericordia de Dios, que estos tales suelen decir así (Vid. August. de vera et falsa paenit, cap. 4 tom. 4): Misericordioso es Dios, compasivo, lleno de amor y de bondad; por tanto no tenemos por qué matarnos haciendo obras buenas. No hay por qué preocuparse, lo mismo da mañana, lo mismo da después. Podemos tener esperanza, con-

azkenean guztiz honda etzedin, bere nabusiak eskua goiti edukitzeko, eman behar izatu baitzeraukan, erraiten zioela: *Modicae fidei, quare dubitasti?* (Mt. 14). Ha fede aphurretakoa, fidantzia gutitakoa, zergatik dudatu duk? Zergatik ez aiz leheneko gogoan eta sinhestean fin egotu? Fidantzia izan zuen bitartean, ongi ioan zeikan, orduan iasan zuen itsasoak. Baiña fidantzia hura faltatu zeikanean, faltatu zeikan itsasoari ere, iasaiteko eta sostengatzeko indarra eta bothërea. Halatan erraiten du errege Davitek: *Qui confidunt in Domino sicut mons Sion.* Iauna baithan fidatzen direnak Siongo oihana eta mendia bezala izanen dira: hura bezain fermo, fintko, segur eta bortitz.

aphurretakoa

sostengatu

fermo

fintko


Beraz hunelatan anhitz balio du esperantzak, indar handia du fidantziak, hain handia ezen baitirudi, asko izanen dela fidantzia hura bera, batbederaren, egitekotan denean, eta guztiz ere bere azken finean gaixtoago bada ere, salbatzeko eta bide onean ibentzeko. Ez horrelakorik. Hala iduriagatik, ezta hala, ezta fidantzia bera asko izanen. Zeren egia da, anhitz balio du fidantziak, indar handia du esperantzak. Ordea aditzen dela neurriz, soberania gabe. Zeren soberania guztiak dira gaixto, hunèn ondoko kapituluan ageriko den bezala.



IAINKOAREN MISERIKORDIAN FIDATURIK EZTELA PENITENTZIA EGITEA GEROKO UTZI BEHAR KAP. XI

88 Erraiten du San Agustinek, Iainkoaren miserikordian sobera fidatzen direnez mintzo dela, erraiten dutela halakoek: Miserikordios da Iainkoa, bihotz-bera, amorioz eta ontasunez bethea; bèraz eztugu zer lehiaturik obra onen egitera. Zeren berdin ezta deusen perilik, orobat da bihar, orobat da gero. Ahal dukegu es-

sobera



fianza y seguridad de que nos dará vida larga: y que en cualquier momento, ya sea en la vejez y aun en la misma muerte, perdonará todos nuestros pecados. Porque de otra suerte no supiera hacer cosas tan buenas, tan misericordiosas, tiernas y amorosas, no supiera hacer mal a nadie.

Por nosotros bajó del cielo a la tierra; por nosotros dio la vida, derramó toda la sangre del cuerpo; y con aquella sangre, habiendo quitado el obstáculo y enemistad que había entre su Padre y nosotros y habiendo pagado íntegramente la deuda del pecado conforme a justicia y habiéndonos sacado del cautiverio, nos puso en libertad. Y aun antes de que Dios hiciera nada de esto, en el mismo Antiguo Testamento, se condenaban los malos solamente. Por lo tanto, ahora ni todos los malos se condenan, o los malos se convierten fácilmente. Porque de no ser así ¿qué diferencia hay de aquel tiempo a éste? ¿O qué provecho se nos seguiría de las andanzas y trabajos de Dios en este mundo? Y aunque es verdad que Dios mismo dijo: "Multi sunt vocati, pauci vero electi" (Mt. 20): que muchos son los llamados, pero pocos los escogidos: aun así, nosotros los cristianos no tenemos por qué asustarnos. Porque no se salvan más que los cristianos, y los cristianos son pocos, en comparación de los no cristianos. Y así, cuando se dice que son muchos los llamados y pocos los escogidos, se entiende que los gentiles, moros, turcos, judíos, luteranos y todos los demás son llamados. Pero pocos, los cristianos solamente, son los escogidos.

Así dice San Agustín que suelen razonar cierta clase de personas. Pero en lo principal de su razonamiento razonan mal y pésimamente. Esta manera de hablar ha sido concebida en la cabeza de nuestro enemigo, y de allí ha brotado. Porque si bien es verdad que ahora, después de la muerte de Dios, es más fácil que antes el salvarse y el salir del pecado, con todo, también ahora es preciso salir, no se puede permanecer en él con la esperanza de esta facilidad.

89 De la misma manera que el enemigo dijo al mismísimo Dios cuando lo llevó para tentarlo al pináculo del templo: "Mitte te deorsum" (Mt. 4): que se arrojara de allí abajo, porque al fin y al cabo los ángeles le sostendrían, le preservarían de hacerse daño; de manera semejante te dice también a ti ahora: lánzate a ese pecado que tienes en el


52 Arrazoi hau Gerotiarren ahoan jartzen du hemen Axular-ek. Baina beherago (ikus 93. zatia), zerbait antzeko esaten du berak ere. Gaur egunean kristau batek ezin esan dezake horrelakorik (kristau ez diren guztiak ifernuratzen direla).

perantza, fidantza eta segurantza bizitze luzea emanen
noiz nahi den derakula; eta noiz nahi den, zahartzean, eta are hiltzerakoan ere, geure bekhatu guztiak barkhatuko derauzkigula. Zeren hain gauza onak, miserikordiosak, bihotz-
amoltsu berak, ēta amoltsuak, ez liakitke bertzela egiten, ez liakitke nehori gaitzik emaiten (Vid. August de vera et falsa paenit. cap. 4, tom. 4).

Guregatik zerutik lurrera iautsi zen; guregatik bizia eman zuen, gorputzeko odol guztia isuri zuen: eta
trabu odol hartzaz, bēre Aitaren eta gure arteko trabua eta etsaigoa khendurik, bekhatuaren zorra osoki iustiziaren arauaz pagaturik, eta gathibutasunetik ere atherarik libertatean ibeni ginituen. Eta Iainkoak hunelako
gathibutasun gauzarik egin baiño lehen, Lege zaharrean ere, gaixtoak berak kondenatzen ziren eta ez bertzerik. Beraz orai eztira gaixto guztiak ere kondenatzen, edo gaixtoak ērraxki ontzen dira. Zeren bertzela zer diferentzia lizateke leheneko denboratik hunetara? Edo zer probetxu genduke guk. Iainkoaren mundu hunetan ibiliaz, eta penatuaz? Eta Iainkoak berak erran bazuen ere, *multi sunt vocati, pauci vero electi* (Mt. 20), anhitz direla deituak, baiña gutiak hautatuak: hargatik eztugu
giristino guk giristinok, zer iziturik. Zeren giristinorik baizen ezta salbatzen,[52] eta gutiak dira giristinoak, giristino eztirenen aldean. Eta hala erraiten denean anhitz direla deituak eta gutiak hautatuak, aditzen da Ientilak, Mairuak, Turkoak, Iuduak, Luterak, eta munduko bertze guztiak direla deituak. Baiña gutiak, giristinoak berak hautatuak, eta ez bertzerik.

Hunela dio San Augustinek, erraiten dutela iende suerte batzuek. Baiña parterik gehienean erraiten dute gaizki eta gaixtoki. Minzatze molde haur, gure etsai gaixtoaren buruan pensatua da, eta handik iltkia. Zeren orai, Iaungoikoak heriotze errezibituz gero, errazago bada ere salbatzea, eta bekhatuetarik ilkitzea lehen
ilki baiño. Ordea orai ere iltki behar da, ezta erraztasun haren esperantzan bēkhatutan egon behar.

89 Nola etsai gaixtoak gure Iainkoari berari, tenploaren gaiñera tēntatzera eraman zuenean, erran baitzioen: *Mitte te deorsum* (Mt. 4). Egotz zezala handik behe-
aingiru ra bere burua; zeren berdin aingiruek iasanen zutela, min hartzetik begiratuko zutela. Hala erraiten deratzu zuri ere orai. Egotzazu zeure burua gogoan darabilla-



pensamiento, óbralo, cumple tu deseo, que nada te retraiga de ello. Porque en fin de cuentas, como Dios es tan bueno y misericordioso, no te pesará, no te vendrá daño alguno. El que por ti dio la vida, el que pasó tantos dolores y trabajos, no querrá por cierto que todos éstos resulten inútiles, no dejará que te condenes. Por tanto lánzate, peca, confía, no tengas miedo.

Este es el lenguaje del diablo, aprendido en la escuela de él, sembrado en ella y propagado desde allí. De la misericordia de Dios, de su bondad, y del mérito y valor de la Sagrada Pasión quieres tomar ocasión y atrevimiento para pecar y permanecer en el pecado. Es una villanía y ceguera tan grande, y conducta tan propia de gentes perdidas, que nuestro Salvador, que no se lamentó de su muerte dolorosa e ignominiosa, en cambio se querelló y se mostró sensible de esta ofensa diciendo: "Supra dorsum meum fabricaverunt peccatores, prolongaverunt iniquitatem suam" (Ps. 128). Sobre mis espaldas hicieron leña los pecadores, allí extendieron y prolongaron su iniquidad. Quiere decir: Los malos, para obrar su maldad y permanecer en ella por largo tiempo, toman pie y ocasión de los azotes, golpes, penas y dolores que yo recibí sobre mis espaldas. Y confiados y esperanzados en ellos, haciéndose cargo de que al fin y al cabo pagué yo por ellos, se atreven a pecar y permanecer en el pecado, diciendo: misericordioso es Dios, nos ama, nos tiene cariño, somos suyos, comprados con su sangre: cuando lleguemos al último trance, no nos ha de faltar; por consiguiente, podemos tomarnos licencia y permiso para cometer unos cuantos pecados. Ciertamente hay que decir que Dios es misericordioso cuando sufre semejantes injurias tan groseras.

§ 1

90 San Basilio emplea muy distinto lenguaje cuando habla de este asunto, pues dice: "Nam et ille misericordiam cum judicio exhibet, qui in pondere, numero et mensura admetitur, cujusque merita et appendit" (Basil. Hom. sup. psal. 32). Que nadie confíe excesivamente en la misericordia de Dios. Pues así como Dios cuenta, pesa y mide todas nuestras obras con número, peso y medida, de la misma manera

desira zun bekhatu horretan, obra ezazu, zeure desira konpli ezazu, etzaitzala deusek ere gibela. Zeren berdin nola urrikitu Iainkoa baita hain on eta miserikordios, etzaitu urrikituko, etzaitzu kalterik ethorriko. Zuregatik bizia eman zuenak, hanbat pena eta trabaillu iragan zuenak, eztu ez, hek guztiak, alfer gertha ditezin nahiko, etzaitu galtzera utziko. Egotz ezazu beraz zeure burua, egizu bekhatu, fida zaitezi, etzarela deusen beldur.

Haur da deabruaren hitzkuntza, haren eskolan irakurtua, han ereiña, eta handik banatua. Iainkoaren miserikordiatik, ontasunetik, eta Pasione sainduaren meritutik, eta baliostasunetik, nahi duzu hartu okhasino eta ausartzia bekhatu egiteko, eta bekhatutan egoiteko. Hain da itsustasun eta itsutasun handia eta iende galduen kontua haur, ezen gure Salbatzaillea arrenkuratu ezpazen ere bere heriotze penatuaz eta desohorezkoaz, arrenkuratu, eta sentikortu baitzen bidegabe hunetzaz, erraiten zuela: *Supra dorsum meum fabricaverunt peccatores, prolongaverunt iniquitatem suam* (Ps. 128). Ene sorbalden gaiñean egin zuten egur bekhatoreek, han bere gaixtakeria hedatu, luzatu eta zabaldu zuten. Erran nahi du: gaixtoek bere gaixtakerien egiteko, eta hetan luzaro egoiteko, hartzen dituzte zimendutzat eta okhasinotzat, nik neure sorbalden gaiñean errezibitu nituen azoteak, kolpeak, penak eta oiñhazeak. Eta hetan fidaturik, hetan esperantzaturik eta kontu eginik, berdin nik hekengatik pagatu nuela, ausartzen dira bekhatu egitera, eta bekhatutan egoitera, erraiten dutela: miserikordios da Iainkoa, maitẽ gaitu, on derizku, bereak, bere odolaz erosiak gaitu, men menera gaitezinean eztiazaigu falta: beraz har dezakegu esku eta lizentzia zenbait bekhaturen egiteko. Erran behar da miserikordios dela Iainkoa, hunelako ahapaldiak, hunein itsusiak pairatzen dituenean.

baliostasun ausartzia arrenkuratu desohorezko oinhaze men (2) ahapaldi

§ 1

usatu **90** San Basiliok bertze hitzkuntza batez usatzen du, gauza hunetzaz mintzo denean, erraiten duela: *Nam et ille misericordiam cum iudicio exhibet, qui in pondere, numero et mensura admetitur, cuiusque merita et appendit* (Basil. Hom. supẽr Ps. 32). Eztadilla nehor Iainkoaren miserikordian sobera fida. Zeren nola Iaungoikoak gure obra guztiak, kontuan, pisuan, eta neurrian kontatzen, pisatzen eta neurtzen baititu: hala bere mi-

usa también de su misericordia con número, peso y medida en conformidad con la justicia. "Mel invenisti, comede quod sufficit tibi, ne forte satiatus evomas illud" (Prov. 25). Dice el Espíritu Santo: Has encontrado miel, come de ella con medida, todo cuanto necesites y no más, no sea que hartado la vomites y la devuelvas por la boca.

La justicia es agria y amarga, la misericordia, en cambio, amable y dulce. Pero de este dulce, por dulce que sea, no se debe comer con exceso, no se debe pecar, fiándose en la dulzura de la misericordia. Porque el hacer así es como comer miel con exceso.

"Ne dicas miseratio Dei magna est, multitudinis peccatorum meorum miserebitur: misericordia enim et ira cito ab illo proximant" (Eccli 5). No digas que Dios es misericordioso y te perdonará todos tus pecados. Porque la misericordia y la justicia están próximas a Dios y próximas entre sí, y la justicia tiene los ojos puestos sobre los pecadores. Así como reparas en la dulzura de la misericordia, debes reparar también en la severidad de la justicia. Porque Dios es tan justiciero como misericordioso. La misericordia y la justicia igualmente entran en el peso, igualmente influyen en la balanza.

91 Verdad es que según dice Santo Tomás: "Magis proprium est Deo misereri et parcere quam punire, propter eius bonitatem infinitam, illud enim secundum se Deo convenit, hoc autem secundum nostra peccata" (S. Thom. 2/2. q. 21 art. 2): Más le agrada y *gusta a Dios la misericordia que la justicia*, y también le apetece más el perdonar que el castigar. Y por eso muchas veces usa de su misericordia sin nosotros merecerlo por su pura bondad; en cambio, no usa jamás su justicia si primeramente nosotros con nuestros pecados no le forzamos a ello. Pero por lo que se refiere a su naturaleza, en Dios se da tanto la justicia como la misericordia: según se revelará en el otro mundo, cuando haya pasado el tiempo presente, que es de misericordia. Por eso dice el Profeta David: "Misericordiam et justitiam cantabo tibi Domine" (Ps. 100): Señor, yo te cantaré la misericordia y la justicia, ambas por igual, tan bien la una como la otra.

El que habla única y exclusivamente de la misesicordia, sin hacer caso de la justicia, este tal no sabe lo que dice, este tal no repara en la grandeza de la justicia y repara tú en cómo no repara en ella. Tú dices que Dios es misericordioso, y dices


serikordiaz ere, kontuz, pisuz, eta neurriz, iustiziaren arauaz usatzen du. *Mel invenisti, comede quod sufficit tibi, ne forte satiatus evomas illud*, dio Spiritu Sainduak (Prov. 25). Ediren duzu eztia, ian ezazu bada neurriz, asko duzun bezain bertze, eta ez gehiago, ase-eginokha nik, okha eztagizun, ahotik bihur eztezazun.

Iustizia min da, eta garratz, eta miserikordia gozo eta ezti. Ordea ezti hartarik, ezti izanagatik, ezta sobera ian behar, ezta misèrikordiaren eztitasunean fidaturik, bekhaturik egin behar. Zeren hala egitea, ezti sobera iatea da.

Ne dicas miseratio Dei magna est, multitudinis peccatorum meorum miserebitur: misericordia enim et ira cito ab illo proximant (Eccli 5). Ezterrazula miserikordios dela Iainkoa, eta zeure bekhatu guztiak barkhatuko dèrauzkitzula. Zeren miserikordia eta iustizia hurbil dagotza Iainkoari, eta elkharri, eta iustiziak bekhatoretara daduka begia. Miserikordiaren eztitasunari behatzen diozun bezala, behatu behar diozu iustiziaren Iustiziati garratztasunari ere. Zeren Iainkoa hain da iustiziati nola misèrikordios. Miserikordia eta iustizia, berdin dira pisuan, berdin dira balantzan.

San Tomas **91** Egia da San Tomasek dioen bezala: *Magis propium est Deo misereri et parcere quam punire, propter eius bonitatem infinitam, illud enim secundum se Deo convenit, hoc autem secundum nostra peccata* (S. Thom. 2, 2 q. 21, art. 2). Plazentago eta laketago zaika Iainkoari miserikordia, iustizia baiño, eta bai barkhatzea ere, gaztigatzea baiño. Eta halatan usatzen du anhitzetan ere bere miserikordiaz, guk merezi gaberik, bere ontasunagatik beragatik; baiña ez iustiziaz, eztu behin ere usatzen, guk lehenik geure bekhatuez hartara behartu gabe. Ordea izaiteaz denaz bezanbatean, bada Iainkoa baithan hanbat iustizia, nola miserikordia: nola ageriko baita bertze munduan, hemengo denbora miserikordiazko haur iragan dadinean. Hargatik èrraiten du profeta Davitek: *Misericordiam et iustitiam cantabo tibi Domine* (Ps. 100). Iauna, miserikordia eta iustizia kantatuko derauzkitzut, biak berdin, hain ongi bata nola bertzea.

Miserikordiaz soilki, eta bakharrik, iustiziaz konturik egin gabe, mintzo denak, eztaki zer mintzo den, eztu halakoak iustiziaren handitasuna ikhusten. Eta ikhusazu nola eztuen ikhusten. Zuk diozu miserikordios de-



bien. Pero tú que dices que Dios es misericordioso, debes reparar también un poco en las alternativas y golpes de la justicia, para que comprendiéndolas, depongas las confianzas locas.

§ 2

92 El primer golpe y descarga de la justicia tuvo lugar allí arriba, en los Angeles del cielo, sobre Lucifer y sus amigos. Por un pecado de orgullo la justicia arrojó al ángel más hermoso del cielo, al más aventajado, al amigo más grande de Dios, a las penas del infierno por una eternidad sin fin. Y el primero de todos los ángeles, el jefe y caudillo, quedó hecho diablo, y jefe y capitán de todos los diablos. Siendo el más hermoso que cabe, se hizo el más feo; cuando estaba más a sus anchas, quedó reducido al peor estado. El más amado, pasó a ser el más aborrecido; el que estaba más alto, quedó en lo más bajo. De tal suerte que el profeta Isaías, maravillado de una caída tan grande, pregunta al mismo Lucifer: "Quomodo cecidisti Lucifer qui mane oriebaris?" (Is. 14). ¿Cómo es que caíste, Lucifer? ¿Cómo caíste, lucero del alba, tú que de madrugada, al canto del gallo solías aparecer y salir? ¿Tú que estabas tan encumbrado? Grande y terrible fue el golpe que obró la justicia en el cielo.

Pero también en la tierra llevó a cabo otro, de suyo no más grato, si no fuera porque se le aplicó remedio, a saber, el castigo que dio al pecado de Adán. Porque Lucifer él mismo en persona cometió el pecado y no es de maravillar que uno sufra por su pecado. Pero que en la tierra, por causa del pecado de otro, o sea, de Adán, todos sus descendientes, incluso antes de nacer, en el instante mismo en que son concebidos en el vientre de su madre, sean pecadores y culpables: y que al cabo de tantos años no se le olvide a Dios dicho pecado, ¿quién no se maravillará de esto? ¿Puede haber justicia más rigurosa?

Misericordioso es Dios y con toda su misericordia está mirando a uno que se halla en el infierno; le ve y le verá cómo está penando durante mil y diez mil años. Y con todo, a pesar de verlo en ese estado, lo deja como está. No se le parte el corazón, no se compadece lo más mínimo del pobre que se halla en tal estado. Antes al contrario se alegra de que padezca y quiere que padezca, y que padezca sin esperanza de salir de allí. Dureza incalificable. Jus-

[53] *Kidoin.* Itxuren arabera, banderaduna, gidaria (=alférez). Ikus MITX FLV (1974), 200.


la Iainkoa, eta ongi diozu. Baiña zuk, Iainkoa miserikordios dela diozunorrek, aditu behar ditutzu aphur bat
tornuak iustiziaren tornuak eta kolpeak ere, hek aditurik, fidantzia erhoak utz ditzatzun amoreakgatik.

§ 2

desarra **92** Iustiziaren lehenbiziko kolpea eta desarra izan zen goitian, zeruko Aingiruetan, Luziferren eta haren lagunen gaiñean. Zèruko aingirurik ederrena, abantaillatuena, eta Iainkoaren adiskiderik handiena, egotzi
urguillutasun zuen iustiziak, urguillutasuneko bekhatu batengatik, sekula fingabekotzat, ifernuko peneetara. Eta Aingiru guztien lèhena, aitzindaria eta agintaria, egin zen deabru, eta deabru guztien buruzagi, kidoin,[53] eta kapitain.
kidoin
gogara Zen ederrena, egin zen itsusienik, bere gogarena gaizkienik. Onhetsiena, gaitzetsienik; eta gorena, beherenik. Halako suertez non Esaias profetak hain iautsapen
iautzapen handiaz miretsirik, galdegiten baitio Luzifer berari: *Quomodo cecidisti Lucifer qui mane oriebaris?* (Is. 14). Nola erori zinen, Luzifèr? Nola erori zinen artizarra,
oillarite goizean goiz, oillaritean sortzen eta ilkitzen ohi zinena? Hain gora zeneundezina? Handia eta izigarria izan zen, zeruan iustiziak egin zuen kolpe hura.

Baiña egin zuen lurrean ere bertze bat, ez bere arauaz atseginagoa, baldin erremediorik ordenatu ezpalitzaika, zein baita *Adanen bekhatuari eman zeikan*
gaztigu bedere gaztigua. Zeruan Luziferrek berak bedere egin zuen bekhatu; eta ezta miretsteko nor bere bekhatuagatik, penatzea. Baiña lurrean bertzèren bekhatuagatik, Adanenagatik, haren ondoko guztiak, are sorthu baiño lehen, bere amaren sabelean pitzten diren pontuan, diren bekhatore, eta hobènduri: eta hanbat urtheren buruan eztakion ahantz Iainkoari bekhatu hura, nork ez-
bortitz tu miretsiko? Zer ahal dateke iustizia bortitzagorik?

Miserikordios da Iainkoa, eta bere miserikordia guztiarekin, beha dagoka ifernuan dagoen bati; ikhusten du, eta ikhusiko du, nola milla urthez, eta hamar millaz penatzen den. Eta guztiarekin ere, hala ikhusiagatik ere, han bere lekhuan utzten du. Etzaika bat ere biho-
on-behar tzik hautsten: etzaika bat ere hala dagoen on-beharra urrikaltzen. Aitzitik atsegin hartzen du, zeren hala penatzèn den, eta nahi du pena dadin, eta are handik ilkitzeko esperantzarik gabe pena dadin. Gogortasunaren



ticia increíble. Tú dices que Dios es misericordioso. Pero en esta ocasión parece que es más justiciero, y que la justicia vence a la misericordia. Y con razón parece así. Porque en el otro mundo no ha de haber misericordia para los malos.

Misericordioso es Dios, pero hay que decir que también es justiciero. Porque nada pudo aplacarle ni reducirle a perdonar al mundo más que la muerte de su Hijo.

93 Misericordioso es Dios, y con todo, en tiempo de Noé, a excepción de ocho personas, aniquiló y destruyó a todos por medio de un diluvio. Igualmente abrasó a Sodoma y Gomorra, junto con otras ciudades vecinas, enviando un fuego del cielo. Asimismo a Datán y Abirón junto con sus compañeros los devoró la tierra. Y entonces todos éstos se condenaron. Y ahora también se condenan los que no son cristianos. Y me temo que la mayor parte de entre los cristianos también siga ese mismo camino. Y que cuando se dice que muchos son los llamados y pocos los escogidos, que haya de entenderse así aún de los cristianos.

Porque ¿qué cristiano hay que viva como cristiano? ¿que alabe y sirva a Dios como es debido? ¿que guarde sus santos mandamientos o que por Dios se retraiga de satisfacer un mal deseo? ¿Habrá en el mundo uno siquiera de éstos? Sí, ya hay algunos, porque la Iglesia no puede existir sin ellos. Pero son pocos. Y así, en la Sagrada Escritura los buenos cristianos son comparados a las piedras preciosas para dar a entender que son pocos; que tanto unos como otros son difíciles de encontrar. Y así como de las otras piedras hay en más abundancia que de las preciosas; así también de los condenados hay más que de los salvados. Como dice Salomón: "Stultorum infinitus est numerus". Infinito es el número de los insensatos, infinitamente muchos se condenan.

Pues si muchos se condenan, aún de entre los cristianos, ¿por qué tú también, no obstante ser cristiano, no has de temer que vengas a ser uno de los condenados? Hasta el presente Dios ha arrojado a muchos al infierno, ¿por qué no te ha de arrojar también a ti, si vives al estilo de esos a quienes ha arrojado? ¿Piensas que para ti se va a poner una ley nueva? ¿Piensas que Dios, allá arriba, no

handia. Iustiziaren bortitza. Zuk diozu miserikordios dela Iainkoa. Baiña hunetan badirudi, iustiziatiago dela; eta iustiziak garaitzen duela miserikordia. Eta arrazoinekin dirudi hala.

Zeren ezpaita bêrtze munduan izanen gaixtoentzat miserikordiarik.

balakatu amoratu

Miserikordios da Iainkoa, baiña erran behar da Iustiziati ere badela. Zeren munduari barkhatzera, ezin deusek ere balakatu zuen êta amoratu, bere semearen heriotzeak baizen.

presunaz halaber

93 Miserikordios da Iainkoa, eta guztiarekin ere Noeren denboran, zortzi presunaz bertze guztiak, uholde batez hondatu, eta akhabatu zituen. Halaber Sodoma eta Gomorra, inguruneko bertze hiri batzuekin, su bat zerutik igorririk, erre zituen. Halaber Datan, eta Abiron, lurrak bere lagunekin iretsi zituen. Eta orduan hek guztiak ifernura ziren. Eta orai ere ifernuratzen dira giristino eztirenak. Eta bêldur naiz giristinoetarik ere, gehienek, bide hura hartzen duten. Eta erraiten denean anhitz direla deituak, eta gutiak hautatuak, giristinoez ere orobat aditzen den. Zeren non da giristinorik, giristino bezala bizitzen denik? Behar den bidean Iainkoa laudatzen, eta zerbitzatzen duenik? Haren manamendu sainduak begiratzen dituenik? Edo bere nahikunde gaixto baten konplitzetik Iainkoagatik gibelatzen denik? Othe da munduan bat ere halakorik?


ifernuratu

zerbitzatu

preziatu

Bai bada zenbait, zeren Eliza ezin dateke gabe. Ordea guti. Eta halatan Eskritura Sainduan konparatzen dira giristino onak, harri preziatuekin, aditzera emateagatik giristino on ere guti dela; batak bezain bertzeak, direla gaitz edireiten. Eta nola bertze harrietarik baita, preziatuetarik baiño frankoago, hala dela halaber kondenatuetarik ere salbatuetarik baiño gehiago. Salomonek dioen bezala, *Stultorum infinitus est numerus.* Erhoen kontua infinitu da, infinituki anhitz kondenatzen da.

Bada baldin anhitz kondenatzen bada, are giristinoetarik ere, zergatik zu ere, giristino izanagatik ere, etzara beldur izanen kondenatuetarik bat gertha zaitezin? Oraiñokoan, anhitz egotzi du Iainkoak ifernura, zêrgatik bada etzaitu zu ere egotziko, baldin egotzi dituen hek bezala bizitzen bazara? Uste duzu zuretzat lege berri bat iarriko dela? Uste duzu, Iainkoa han goi-



puede pasarse sin ti?, ¿o que por no ir tú allá va a perder algo de su gloria? ¿Qué título, qué privilegio o ventaja tienes tú al presente, que en su tiempo no hubiesen tenido los que están en el infierno, para librarte de ir como ellos a dicho lugar, viviendo como ellos vivieron? Y si dices que confías en la misericordia de Dios, ¿piensas tú que esos que están ahora en el infierno no confiaban también en ella en su vida? Sábete que así como la misericordia da a los justos la gloria, la justicia da a los malos el infierno.

§ 3

94 Del hecho de que Dios sea compasivo y misericordioso, no se debe tomar ocasión o libertad para pecar más. Porque esto sería convertir el contraveneno en veneno: usar de la misericordia y bondad de Dios en sentido contraindicado: y también exponerse al peligro de asentar los pies donde no hay misericordia. Existen unas gafas, unos anteojos que hacen que las cosas aparezcan más grandes de lo que son. Y puede suceder que yendo tú a atravesar un puente con unos anteojos de esta clase, pareciéndote que el puente es más grande de lo que es y poniendo el pie allá dondo no hay puente, te caigas al agua que está bajo el puente y allí te ahogues y te pierdas. Pues bien, el puente para pasar a la gloria del cielo es la misericordia: y si tú quieres atravesar este puente de la misericordia con sobrado atrevimiento y confianza, poniéndote las gafas de una esperanza loca e imaginándote que pues eres cristiano y Dios es misericordioso, por esto sólo te has de salvar, puedes ser víctima de engaño, y puestos los pies de la esperanza allí donde no existe el puente de la misericordia, puedes caer en el mar de la justicia. Porque si bien la misericordia de Dios es infinitamente grande, no se quiere decir ni se sigue de ahí que esa su grandeza te deba dar a ti ocasión para pecar. "Non sic est Deus misericors, ut sit iniustus", dice San Agustín (August. in Ps. 39). Dios no es misericordioso de tal suerte que haga injuria a la justicia.

95 Dice asimismo San Agustín: "Puniamus nostra peccata si quaerimus misericordiam Dei. Non potest Deus misereri omnium operantium iniquitatem quasi blandiens peccatis et non erradicans peccata" (August. in Ps. 58). Castiguemos nuestros pecados, hagamos

[54] *Zu ez haratzeaz.* Sustantibo berbala bakarrik erabiltzen du Axular-ek *(haratzen, haratzeaz)*, behin ere ez partizipioa (haratu). *Haratzen da* = está en camino para allá *(infectum)* Bestela, *hara da* = ha idc allá, esango du Axular-ek Ikus MITX FLV (1974), 115

burupe

tian, zu gabe ezin iragan ditekeiela? Edo zu ez haratzeaz[54] bere loriatik galduko duela? Zer burupe, zer pribilejio, edo abantail duzu zuk orai, ifernuan daudenek bere denboran zuten baiño gehiago, baldin hek bezala bizitzen bazara, ez hek bezala haratzeko, edo handik eskapatzeko? Eta baldin Iainkoaren miserikordian fidatzen bazara, eztuzu uste, orai ifernuan diren hek ere, bere dēnboran fidatzen zirela? Iakizu ezen miserikordiak iustuei loria bezala, iustiziak ere gaixtoei ifernua emaiten derauela.

§ 3


eskudantzia

94 Zeren Iainkoa den bihotz bera, eta miserikordios, ezta ēz hunetarik hartu behar okhasinorik eta ez eskudantziarik bekhatu gehiago egiteko. Zeren haur lizateke kontrapozoinaren pozoin egitea: Iainkoaren miserikordiaz eta ontasunaz kontrara usatzea: eta bai miserikordiarik ezten lekhuan ere, oiñen permatzeko, perilean iartzea. Badira bisera batzuk, begi-ordethaillu batzuk, zeiñek gauzak diren baiño handiago, iduri arazitzen baitituzte. Eta gertha ditekeien kasua da halako biserekin zubi batetarik iragaiten zarela, zubia den baiño handiago iduriturik, eta zubirik ezten lekhuan oiñak emanik, eror baitzindezke zubi azpiko hosinera, eta han itho, eta honda. Bada zeruko loriara iragaiteko zubia, miserikordia da: eta baldin miserikordiaren zubi hunetarik iragan nahi baduzu zuk ausartkiegi, fidatukiegi, esperantza erho baten biserak iauntzirik, eta iduriturik ezen zeren zaren giristino, eta Iainkoa ere den miserikordios, hargatik beragatik ere, salbatuko zarela, engana ahal zindezke eta miserikordiaren zubirik ezten lekhuan esperantzaren oiñak ibenirik, iustiziaren hosinean eror ahal zindezke. Zeren Iainkoaren miserikordia infinituki handi izanagatik, ezta ez aditzen, eta ez handik segitzen, handitasun hark zuri bekhatu egiteko okhasinorik eman behar deratzula. *Non sic est Deus misericors, ut sit iniustus*, dio San Augustinek (August. in Ps. 39). Ezta Iainkoa halako moldez miserikordios, non iustiziari bide gaberik egin diazon.

permatu

iauntzi

95 Badio halaber San Agustinek: *Puniamus nostra peccata si quaerimus misericordiam Dei. Non potest Deus misereri omnium operantium iniquitatem, quasi blandiens peccatis et non erradicans peccata* (August. in Ps. 58). Gaztiga ditzagun geure bekhatuak, dagigun



penitencia de ellos, si es que queremos alcanzar la misericordia de Dios. Porque Dios no puede perdonar al pecador, mientras éste está en pecado, mientras éste se complace en los pecados, hasta que se resuelva a alejarse de los mismos. La misericordia de Dios no llega a tanto, no se extiende hasta aquí. Y este no extenderse proviene de la imposibilidad de la cosa y no de falta de misericordia. No se le llama a Dios misericordioso porque mime y perdone al que anda en pecados, mientras anda en ellos y mientras tiene el propósito de continuar en ellos. Sino que se le llama misericordioso porque no falta ni niega su perdón al que, dejados sus pecados en el punto necesario, le sigue por la vía que es preciso, y al que hace lo que puede. Y basta esto y basta este proceder para ser misericordioso.

Cuando oyes que Dios es compasivo y misericordioso, te gozas de ello y, aunque oigas que también es severo, duro y justiciero, no prestas atención. Pues bien, los favores grandes, dulces, sabrosos y de misericordia que Dios promete en la Sagrada Escritura, son para los justos, para los que viven bien, recta y honestamente: y las amenazas, fruncimientos, rigores y castigos de la justicia son para los malos, para ti y para los semejantes a ti. Por tanto, ¿qué suerte de locura es ésta de no hacer caso de las amenazas y avisos que son para ti, y en cambio te complazcas de las palabras de misericordia que no son para ti? La misericordia conviene a los justos, a los que no son como tú. Tú, mientras estás en pecado, no tienes parte en ella ni nada que ver con la misma: por mucho que oigas que Dios es misericordioso, no tienes por qué alegrarte. Aléjate del pecado y entonces vendrá ella a ser tuya: aléjate del pecado y tendrás parte en ella. Pero hasta entonces, mientras tanto, ten por tuya la justicia, y deja la misericordia para los que se alejan de sus pecados. Porque de lo contrario pretendes meter las manos en coto prohibido, pretendes apropiarte y arrebatar lo que es derecho ajeno.

§ 4

96 Dirás que siempre es buena la esperanza, que siempre se debe tener confianza. Y en esto dices bien, ello es verdad, así es. Pero ¿cuándo y cómo? ¿siempre? Una vez de haber pecado, pero no al pecar.

erdietsi hetzaz penitenzia, baldin nahi badugu erdietsi Iainkoaren miserikordia. Zeren Iainkoak ezin barkha diazaio bekhatoreari, bekhatutan dagoeiño, hetan atsegin hartzen dueiño, hetarik apartatzera delibera arteiño. Ezta Iainkoaren miserikordia hain aitzina heltzen, eta ez hedatzen. Eta ez hedatze haur, gauzaren ezinkizunetik heldu da, eta ez miserikordiaren eskastasunetik. Ezta erraiten miserikordios dela Iainkoa, zeren bekhatutan dabillanari, hala dabillaino, eta ibiltzeko gogo dueiño, lausengatzen eta barkhatzen dioen: Baiña erraiten da miserikordios dela, zeren bere bekhatuak behar den bidean utzirik, behar den bidean ethortzen zaikanari, eta bere ahala egiten duenari, ezpaitio faltatzen, eta ez barkhamendurik ukhatzen. Eta asko da haur eta hunela egitea miserikordios izaiteko.

deliberatu

lausengatu

Enzuten duzunean, bihotz bera eta miserikordios dela Iainkoa, atsegin hartzen duzu, eta enzunagatik gaitz, gogor eta iustiziati ere badela, eztuzu konturik egiten. Bada Eskritura Sainduan, Iainkoak prometatzen dituen fabore handi, ezti, gozo, miserikordiazko hek, iustuentzat, ongi, artez, eta presturik bizitzen direnentzat dira: eta mehatxuak, kheiñadurak, iustiziaren garratztasunak eta gaztiguak gaixtoentzat, zure eta zu bezalakoentzat. Zer erhokeria da bada haur, zuretzat diren mehatxuez, eta gaztiguez eztagizun konturik, eta zuretzat eztiren miserikordiazko solhasez har dezazun atsegin? Miserikordia iustuei, zu ez bezalakoei dagote. Eztuzu zuk bekhatutan zaudeiño hartan parterik, eta ez ikhuskizunik: eztuzu orduan Iainkoa miserikordios dela ênzunagatik, zer bozturik. Zeren orduan, iustizia bai, baiña miserikordia ezta zurekin mintzo, ezta orduan zure. Aparta zaite bekhatutik eta izanen da zure: aparta zaite bekhatutik eta izanen duzu parte. Baiña anarteraiño, bitartean, iustizia edukazu zeuretzat, eta utzazu miserikordia, bere bekhatuetarik apartatzen direnentzat. Zeren bertzela debekuan nahi ditutzu eskuak sarthu, bêrtzeren zuzena nahi duzu zeuretu eta goratu.

mehatxu kheiñadura


solhas

goratu

§ 4

96 Erranen duzu, bethi dela on esperantza, beti behar dela eduki fidantzia. Eta ongi diozu, egia da, hala da. Ordea noiz, eta nola bethi? Bekhatu eginez gero, baiña ez egitêrakoan.

ion



No se debe pecar confiando en la misericordia de Dios. Aquella santa mujer llamada Susana prefería caer en las manos de unos hombres malvados antes que debajo de la misericordia de Dios. "Melius est mihi incidere in manus hominum absque peccato, quam peccare in conspectu Domini" (Dan. 13). Al contrario, el rey David prefería habérselas con Dios antes que con los hombres; prefería arreglar con él tanto lo bueno como lo malo: "Melius est ut incidam in mamus Domini, quam in manus hominum" (2 Rg. 24). Y ambos, tanto David como Susana, discurrían bien. Porque Susana no había pecado, y David lo hacía después de haber pecado. Y una vez de haber pecado, debe uno entenderse con Dios, a él hay que acudir, en él hay que confiar, en su misericordia se debe buscar el remedio. Así como el condenado por César apeló al mismo César, de un César indignado a un César no indignado: así también el pecador debe apelar de Dios a Dios: de Dios justiciero a Dios misericordioso. Después de haber pecado, no hay más solución, no hay más remedio. En cambio, cuando uno es inocente, como era Susana, mejor es ventilar el negocio por la parte de acá, mejor es habérselas con los hombres y aguantar el mal que de éstos nos podría venir que no cometer pecado fiándonos de Dios y de su misericordia.

Pero nosotros obramos al revés. Sea lo que fuere del futuro, y aunque después nos refugiemos en la misericordia de Dios, ahora, en este momento, actualmente, al presente, no queremos dejar un placer ni tomarnos ningún trabajo por evitar el pecado: preferimos correr el grave riesgo y mal inmenso del futuro, que no exponernos al pequeño trabajo presente. ¿Y de dónde proviene esto? De confiar, de calcular que Dios misericordioso, en fin de cuentas, nos lo ha de perdonar después todo. Cálculo necio, confianza loca.


97 Confías en que Dios remediará los males que se siguen de haber pecado y no confías ni adviertes que igualmente puede él remediar los disgustos y trabajos que por no pecar se te pueden originar. O sea, confías cuando no se debe, y no confías cuando se debe. Cuando no se debe, se te figura grande la misericordia de Dios y no se te figura cuando se debe. Cuando te encuentras falto de diez escudos, o tienes alguna otra necesidad o apremio, no confías, no esperas que viviendo honradamente y per-

55 *Apelatu.* Aditz laguntzaile iragangaitzaz jokatua.

Ezta Iainkoaren miserikordian fidaturik bekhaturik egin behar. Susana emazte saindu hark nahiago zuen, iende gaixto batzuen eskuetan erori, Iainkoaren miserikordiaren mènean baiño. *Melius est mihi incidere in manus hominum absque peccato, quam peccare in conspectu Domini* (Dan. 13). Baiña Errege Davitek nahiago
iharduki zuen, iendeekin baiño, Iainkoarekin iharduki, nahiago
ongaitzak zituen bere ongaitzak harekin iragan. *Melius est ut incidam in manus Domini, quam in manus hominum* (2 Rg. 24). Eta biek, hala Davitek nola Susanak, zeramaten kontu ona. Zeren Susana zen bekhatu egingabea, eta Davit bekhatu egina. Eta bekhatu èginez gero, Iainkoarekin behar da iharduki, hara laster, han fida, haren miserikordiatik behar da erremedio. Nola Zesarek
apelatu kondenatua, apelatu baitzen[55] Zesar beragana, Zesar haserretuaganik ez haserretuagana: hala bekhatoreak ere behar du apelatu, Iainkoaganik Iainkoagana: Iainko iustiziazkoaganik Iainko miserikordiazkoagana. Bekhatu eginez gero, ezta bertze biderik, ezta bertze erremediorik. Ordea nehor bekhatu egin gabea denean, nola baitzen Susana, hobe da egitekoen alde hunetarik egitea, hobe da gizonekin ihardukitzea, eta hetarik ethor ahal dakidikaion kalteari igurikitzea, ezen ez Iainkoa baithan, eta haren miserikordian fidaturik, bekhatu egitea.

kontrara Baiña guk kontrara egiten dugu. Zer izanen baita ere ethorkizunaz, gero Iainkoaren miserikordiara ihes
presente eginen badugu ere, orai eskuen gaiñean, presentean, eztugu, bekhaturik ez egiteagatik, plazerik utzi nahi, eta ez penarik hartu: nahiago gaitzaitza ethorkizuneko peril handiari, eta gaitz bortitzari iarri, presenteko trabaillu aphurrari baiño. Eta zerk egiten du haur? Fidatzeak, kontu egiteak, berdin gero Iainko miserikordiosak guztiak barkhatuko derauzkigula, eta erremefidantzia diatuko. Kontuaren gaixtoa, fidantziaren erhoa.

97 Fidatzen zara, bekhatu eginez gerozko kalteak erremediatuko dituela Iainkoak, eta etzara fidatzen eta ez orhoitzen, erremedia ahal ditzakeiela halaber, bekhaturik ez egiteagatik, ethor ahal dakidizketzun atsekabeak eta egitekoak. Behar eztenean fidatzen zara eta ez behar denean. Behar eztenean iduritzen zaitzu Iainkoaren miserikordia handi, eta ez behar denean. Ha-
ezkutu mar ezkuturen behar zarenèan edo bertze premia bat eta eskastasun bat duzunean, etzara fidatzen, eztuzu esperantzarik, prestuki bizitzen zarela eta bekhaturik



maneciendo sin pecar, Dios te podrá remediar y cubrir tu necesidad e indigencia. Y así, por falta de esperanza pecas, es decir robas, haces un latrocinio. Y haces dicho latrocinio con la esperanza de que después Dios misericordioso te perdonará tal pecado. ¡Ceguera grande! Ahora, cuando eres amigo de Dios, cuando estás sin pecado, no confías en que Dios pueda hacer algo por ti, en que pueda remediar tu necesidad; y después cuando eres su enemigo y estás lleno de pecados, confías en que perdonándote todos, te concederá su gracia y gloria, cosas tan grandes, valiosas y difíciles de alcanzar. En lo fácil no confías y sí en lo difícil. Tienes a Dios por grande, amplio, rico y liberal para el que peca; y en cambio, para el que vive sin pecar, honradamente, estimas que es rígido, estricto, duro y avariento. De todo en todo andas y andamos embrollados, extraviados y equivocados.

§ 5

98 Para no equivocarse, para esperar y confiar como se debe, ¿qué es lo que hay que hacer? El rey *David contesta*: "*Sacrificate sacrificium justitiae et* sperate in Domino" (Ps. 4). Quiere decir: Obrad el bien, ejercitaos en lo posible en obras buenas, y entonces tened confianza en Dios. Porque la otra esperanza poco vale.

Cierto día vinieron unos cardenales a visitar al santo fray Gil, y al marcharse, después de acabada su visita, le dijeron que por favor pidiese a Dios por ellos. Contestóles fray Gil: Al contrario, señores, pedidle vosotros por mí. Porque vosotros tenéis más fe y esperanza que yo. A lo que contestaron los cardenales: ¿Cómo? ¿Cómo puede ser eso? Porque nosotros vivimos metidos dentro del mundo, llenos de riquezas, rebosando de goces y placeres, y tú entre penitencias, obras buenas, lejos de los negocios del mundo, y con todo ¿dices que tenemos más fe y esperanza que tú? Sí, les contesta. Porque vosotros, a pesar de vivir como vivís, andáis alegres, sin miedo de nada, con una gran esperanza y ánimo

56 *Ordean.* Ordea-ren aldaera (variante). *Axular-en Hiztegia*-n ez zen jaso.

egin gabe ėgoiten zarela, zeure premia eta eskastasuna estal ahal diazaizula Iainkoak. Eta hala zeure esperantza gabearekin egiten duzu bekhatu, ebatsten duzu, egiten duzu ohoinkeria bat. Eta egiten duzu ohoinkeria hura esperantzaz, gero berdin Iainko miserikordiosak barkhatuko deratzula hartako bekhatua. Itsutasunaren handia. Orai Iainkoarėkin adiskide zarenean, bekhaturik gabe zaudenean, eztuzu esperantzarik Iainkoak zuregatik deus daidikeiela, zure premia estal dezakeiela; eta gėro etsai zarenean, eta bekhatuz bethea zaudenean, duzu fidantzia, guztiak barkhaturik, bere garazia eta loria, hain gauza handiak, baliosak, eta erdiesteko gaitzak, emanen derauzkitzula. Gauza errazean etzara fidatzen eta bai gaitzean. Bekhatu egiten duenarentzat dadukazu Iainkoa handi, zabal, franko, liberal; eta bekhaturik egin gabe, prestuki bizitzen denarentzat, estimatzen duzu dela hertsi, mehar, eskas eta abarizios. Guztietan zabiltza eta gabiltza nahasiak, errebelatuak eta huts eginak.

ohoinkeria

prestuki

abarizios

§ 5

98 Ez huts egiteko, behar bezala esperantza eta fidantzia izaiteko, zer egin behar da? Ihardesten du Errege Davitek: *Sacrificate sacrificium iustitiae et sperate in Domino* (Ps. 4). Erran nahi du: egizue ongi, ahalez obra onetan enplega zaitezte, eta gero orduan euzue Iauna baithan esperantza. Zeren bertzelako esperantzak dėus guti balio du.

Egun batez ethorri zeitzan Fray Gil Sainduari kardenal batzuk bisitatzera. Eta bere bisita akhabaturik partitzerakoan, erran zioten, arren zegiola Iainkoari hetzaz othoitz. Ihardetsi zerauen Fray Gilek: —Aitzitik, Iaunak, zuek ėgiozue nitzaz. Zeren nik baiño zuek sinheste eta esperantza gehiago duzue.


aitzitik

—Ordean[56] nolatan ahal dateke hori horrela?, diotsate kardenalek. Zeren gu gabiltza munduan barrena sarthuak, aberatstasunez betheak, atseginez eta plazerez gaiñez eginak, eta zu penitenziatan, obra onetan, munduko egitekoetarik kanpoan, eta guztiarekin ere diozu sinheste eta esperantza gehiago dugula zuk baiño?

ordean

—Bai, ihardesten deraue. Zeren zuek bizitzen zareten bezala, bizitzen zaretelarik ere, alegeraki, deusen beldur gabe, salbatzeko esperantza, eta esportzu han-

esportzu



de salvaros. Pero yo ando lleno de temor y temblor, porque soy pecador. Por tanto vosotros tenéis más esperanza y fe que yo.

99 Verás a ciertos tipos de gente, pura maldad y malicia, que tienen las cabezas más duras y más esperanza de salvarse que el santo más grande: de tal forma que cuando vienes a hablar con ellos te dirán que no pueden cambiar su esperanza con la tuya: que a nadie tienen por más santo ni honrado que a sí mismos: que se encomiendan a Dios tan bien como cualquiera. Y mientras así hablan se encuentran metidos en pecados hasta las orejas. ¡Qué gran ceguera, qué engaño del demonio! Creen y crees, estando en pecado, que se te dará el cielo, que se usará de misericordia contigo. Eso es escarnecer a Dios y a la misericordia de Dios: eso es alimentar una esperanza sin esperanza, una confianza loca, excesiva, exagerada. Esto ni es tan siquiera confianza sino pura osadía, presunción, un querer loco y un extender tu deseo más allá de donde alcanza la misericordia. Más aún, ese es uno de los pecados contra el Espíritu Santo. Y así, el que con la esperanza de conseguir misericordia, se anima a pecar, no merece misericordia, porque este tal procede en contra de la misma misericordia. Esto lo da a entender San Basilio hablando de la penitencia: "Qui spe poenitentiae male agit, modum habet maleficentiae, et poenitentia privatus est" (Basil. tom. 25 de Poenitentia). El que comete pecado con la esperanza de la penitencia, no toma buen camino, no merece que la penitencia le proteja. Y lo mismo puede decirse también del que peca con la esperanza de la misericordia, que este tal no merece misericordia.

100 Si queremos inspirar piedad a nuestro Dios, que nos oiga, que nos ayude y tenga de nosotros misericordia, tratemos también nosotros por nuestra parte de cumplir nuestro deber, de apartarnos de los pecados y de cumplir los santos mandamientos. Porque entonces sí, pero fuera de este caso todas las esperanzas no son esperanza legítima, son inútiles, son locuras.

Por lo tanto y en consecuencia, no debemos cometer el pecado con la esperanza de la misericordia, ni debemos con tal confianza aplazar para más tar-


di batekin zabiltzate. Baiña ni beldur naizela, ikhara irakin dirakidala, zeren bekhatore bainaiz. Beraz hunelatan zuek nik baiño esperantza eta sinheste gehiago duzue.

enganamendu **99** Ikhusiko duzu, iende thaillu batzuek, maliziarik eta enganamendurik baizen eztirenek, den sainduenak baiño buruak gogorrago dituztela, eta salbatzeko esperantza gehiago dutela: halako moldez, ezen ethortzen zarenean halakoekin minzatzera, erranen baiteratzute, eztezaketela bere esperantza, zurearekin truka: eztadukatela nehor ere bere buruak baiño sainduago, eta gomendatu ez prestuago: nor nahi den bezain ongi Iainkoari beharri gomendatzen zaitzala. Eta bitartean beharrietaraiño bekhatutan barrena sarthuak egon. Itsutasunaren handia, deabruaren enganamendua. Uste baitute eta uste baituzu, bekhatutan zaudela, parabisua emanen zaitzula, miserikordia eginen zaitzula. Hori da Iainkoaz, eta Iainkoaren miserikordiaz eskarniatzea: hori da esperantza, esperantza gabea, fidantzia erhoa, gaiñez egina, soberaniazkoa. Eta ezta ez hori fidantzia ere. Baiña hori da, ausartzia, presunzionea, nahi erhoa, eta miserikordia heltzen den baiño aitzinago zure desiraren hedatzea. are gehiago Are gehiago, hori da Spiritu Sainduaren kontra diren bekhatuetarik bat. Eta hala miserikordiaren esperantzan bekhatu egiten duenak, eztu miserikordiarik merezi, zeren halakoa, miserikordiaren beraren kontra baitabilla.

Hala emaiten du aditzera San Basiliok, penitenziaz mintzo dela: *Qui spe poenitentiae male agit, modum habet maleficentiae et poenitentia privatus est* (Basil. Tom. 25 de Poenit.). Penitenziaren esperantzan bekhatu egiten duenak, eztu bide ona hartzen, eztu penitenbaliatu ziarik balia dakion merezi. Eta molde berean erran ahal diteke miserikordiaren esperantzan bekhatu egiten duenaz ere, eztu hark ere miserikordiarik merezi.

urrikaldu **100** Nahi badugu urrikal gakitzan geure Iainkoari, enzun gaitzan, lagun dakigun, eta eduki dezan gutzaz miserikordia, enseiatu enseia gaitezin gu ere geure aldetik, geure egin bidearen egitera, bekhatuetarik apartatzera, eta manamendu sainduen begiratzera. Zeren halatan bai, baiña bertzela, bertzelako esperantza guztiak, eztira esperantza, alfêr dira, erhokeriak dira.

Beraz hunelatan, eztugu miserikordiaren esperantzan bekhaturik egin behar, eta ez fidantzia hartan pe-



de el hacer penitencia y el dejar las malas costumbres. Al contrario, porque Dios es tan bueno, compasivo y misericordioso. Porque nos ama tanto: porque no nos castigó al punto después de haber pecado, porque nos espera; y en fin, porque nos hace tantos beneficios y bondades, por ello mismo, tomando ocasión de aquí, deberíamos estimularnos a cumplir su voluntad más fielmente de como lo haríamos si no fuera así: y sea cual fuere el pecado y maldad que hasta el presente hemos alimentado, dejándolos todos, decidirnos a una vida intachable: y comportarnos para lo sucesivo de tal modo, suerte y manera, que al fin alcancemos a una con la misericordia el gozo cumplido que está ordenado y dispuesto para nosotros, y que es la gloria del cielo.

QUE CON LOS APLAZAMIENTOS INDEFINIDOS PERDEMOS EL TIEMPO

CAPITULO XII

101 Andas aplazando indefinidamente, dices que serás malo este año, pero que te enmendarás y convertirás en el que viene. Pues sea así, como tú dices, y que te suceda como proyectas, y que siendo malo este año te hagas bueno en ese futuro o mañana. Mas aun suponiendo que así ocurriese, ¿dónde está por un lado el mérito y adelantamiento que en ese año podías haber ganado? Porque los buenos cristianos en un año practican muchas obras buenas y asimismo ganan muchos méritos: los buenos cristianos en un año adelantan, pero tú ¿cómo vas a adelantar si vas para atrás cometiendo muchos pecados y maldades? Y por otro lado, ¿qué se hace del tiempo que durante este año pierdes, hasta llegar a

57 *Biz*=izan bedi. Ikus Euskaltzaindiak o n a r t u t a k o Aditz Laguntzaile Batua, I Iragangaitza, Ohar C. Ikus beherago ere 169 zatian.

aztura

nitentzia egitea, eta aztura gaixtoen utztea, geroko luzatu behar. Aitzitik, zeren Iainkoa den hain on, bihotz bera eta miserikordios. Zeren hain maite gaituen: zeren bekhatu êgin eta berehala ezkaituen gaztigatzen, zeren igurikitzen derakun; eta finean, zeren hanbat ongi eta ontasun egiten derakun, hargatik beragatik ere, hartarik okhasino harturik, behar gendukê, are bertzela eginen genduen baiño hobekiago, haren borondatearen egitera enseiatu: eta zerere bekhatu, êta gaixtakeria oraiñokoan erabili baitugu, hek guztiak utzirik, prestutasun batean iartzera deliberatu: eta halako moldez, thailluz, êta suertez aitzinerat gobernatu, non azken finean, Iainkoaren miserikordiarekin batean erdiets dezagun guretzat ordenaturik eta prestaturik dagoen bozkarioa, zein baita zeruko loria.

zer ere

bozkario loria

NOLA GEROTIK GERORA IBILTZEAZ GALTZEN DUGUN DENBORA


KAP. XII

prestutu

101 Gerotik gerora zabiltza; urthe hunetan gaixto izanik, dathorkeienean onduko, eta prestutuko zarela diozu. Bada biz[57] hala, zuk diozun bezala, eta gogoan darabillazun bezala, gertha dakizun, eta urthe hunetan gaixto, izanik, zure gero horretan, ethorkizunean prestu zaitezin. Hori horrela baliz ere, non da bataz, urthe hunetan egin ahal zendukeien irabazia eta aitzinamendua? Zeren giristino onek, urthê batez anhitz obra on egiten dute, eta bai meritu ere erdiesten: giristino onak urthe batez, aitzinatzen dira, baiña zu nola aitzinatuko zaren ezen gibêlatzen zara, anhitz bekhatu eta gaixtakeria egiten duzula. Eta berriz bertzea, non da halaber bitartean, urthe hunetan zure Gero horretara hel arte-

aitzinamendu

arteraino koan



ese tu "Después?". "Fili, conserva tempus" (Eccli 4). Hijo mío, cuida del tiempo, dice el Espíritu Santo. Mientras lo tienes ante tí, aprovéchalo. Porque una vez pasado, no hay posibilidad de volverlo ni de alcanzarlo. "Fronte capillata est, at post occasio calva" (Auson.). La ocasión en la frente, por la parte delantera, es peluda y cabelluda, pero en la cerviz, en la nuca, en la parte posterior, es mocha, pelada, calva y sin pelo. Por delante ya tiene por dónde cogerla, pero por detrás no. Por lo tanto, mientras la tienes delante, aprovéchala. Porque una vez vuelta al lado posterior, no tiene dónde echar la mano, ni asidero para cogerla. Pues bien, con el tiempo ocurre lo mismo que con la ocasión. Siendo esto así: "Quodcumque potest facere manus tua instanter operare. Quia nec opus, nec ratio, nec sapientia erit apud inferos quo tu properas" (Eccl. 9). Ahora, mientras el tiempo lo tienes delante, haz lo que puedas: y aún ahora, "Instanter", rápidamente, inmediatamente. Porque has de saber que en aquel lugar al que tienes que ir, no valdrá luego alegar razones ni aprovechará el saber. Si dejas pasar, sin reparar en ello, el tiempo que ahora tienes entre manos, se acabó, aquello se perdió, no vuelve más. Por eso dice San Pablo: "Dum tempus habemus operemur bonum" (Gal. 6). Mientras tenemos tiempo, obremos el bien.

102 Diga Aristóteles lo que quiera acerca del tiempo: "Tempus est numerus motus, secundum prius et posterius" (Aristot., 4. Physic.). Pero para nuestra cuenta, el tiempo es un caminar de las cosas antes, ahora y después, un pasar, y a la medida que pasan, un gastarse y acabarse. El tiempo siempre camina. "Neque quod futurum est meum, neque quod fuit", dice Séneca (Senec. lib. Natur. quaest.). El pasado y el futuro no son nuestros. El pasado se fue, el futuro está por venir, el presente únicamente es nuestro.

Y este presente es tan poca cosa, que dice Santo Tomás: "De tempore nihil est accipere in actu nisi nunc" (S. Thom. 1 p. q. 66 art. 4 ad. 4 et 5). Del tiempo no tenemos nada más que un ahora, una pequeña duración, un puntito, y no más. Verdad es sin embargo que como este puntito, este ahora junta y en cierto modo enlaza el uno con el otro al pasado y al futuro, este enlace nos hace acordarnos del pasado y nos da esperanza de lo venidero. Y así con este recuerdo y esta esperanza, uniéndose y enlazándose el pasado y el futuro con el pre-

[58] *Arteraiñokoan* = xedera heldu bitarteko denboran. Axular-en Hiztegia-n ez dago jasoa.

[59] *Higatzea.* Bai lehen eta bai 2. edizioan ere *higartzea* dio; errakuntza delakotan zuzentzen dugu.

rainokoan[58] galtzen duzun dènbora? *Fili, conserva tempus* (Eccli 4). Ene seme, begira ezazu denbora, dio Espiritu Sainduak. Aitzinean duzuiño, zakitza. Zeren behin ioanez gero, ezta bihurtzerik, eta ez erdiesterik.

belar xerlotsu garhaite garzeta garbal karsoil

Fronte capillata est, et post occasio calva (Auson.). Okhasinoa kopetan, belarrean, aitzin aldean, illetsu da, eta xerlotsu, baiña garhaitean, garzetan, gibel aldean, motz, soil, garbal, karsoil, eta ille gabe. Aitzinean badu nondik lot, baiña ez gibelean. Beraz, aitzinean duzuiño,

esku-toki

probetxa zakitza. Zeren gibeleraz gero, eztu esku-tokirik, eta ez lotzeko girthainik. Bada okhasinoa bezala da denbora ere. Beraz hunelatan: *Quodcumque potest facere manus tua instanter operare. Quia nec opus, nec ratio, nec sapientia, erit apud inferos quo tu properas* (Eccl. 9). Orai, denbora aitzinean duzuiño, egizu ahal

presenteon

dagizuna: eta orai ere, *Instanter*, fite, presenteon. Zeren iakin bèhar duzu ezen eztela gero, zuk ioan behar duzun lekhu hartan, arrazoin alegatzerik, eta ez iakintasunaz probetxatzerik izanen. Utzten baduzu, nola eztakizula, orai eskuen artean duzun denbora iragaitera, egin da, galdu da, ezta gehiago bihurtzerik. Hargatik erraiten du Iondone Paulok: *Dum tempus habemus operemur bonum* (Gal. 6). Denbora duguiño dagigun ongi.

102 Erran beza Aristotelek nahi duena denboraz (*«Tempus est numerus motus, secundum prius et posterius»*. Arist. 4 Physic.). Baiña gure kontuko, denbora da lehen, orai eta gero, gauzeen ibiltzea, iragaitea

higatu

eta iragaitearekin batean higatzea[59] eta akhabatzea. Denbora bethi doha. *Neque quod futurum est meum neque quod fuit*, dio Senekak (Senec. lib. 6 Natur. quaest.).

iragan

Iragana, eta ethorkizuna eztira gure. Ioana ioan, ethorkizuna ethorkizun, presentekoa da gure, eta ez bertzerik.


Eta presenteko haur, hain da guti ezen erraiten baitu San Tomasek: *De tempore nihil est accipere in actu, nisi nunc* (S. Thom. 1 p. q. 66 art. ad 4 et 5). Denboratik eztugu deus ere, orai bat baizen, iraute aphurra,

pontutsu

pontutsu bat, eta ez gehiago. Egia da ordea, nola pontutsu hunek, orai hunek iuntatzen eta iosten bezala baititu elkharrekin iragana eta ethorkizuna, ioste

orhoitu

hunek orhoitzèn gaitu iraganaz eta ethorkizunaz ere esperantza emaiten. Eta halatan orhoitze hunekin, eta esperantza hunekin batean, iragana, eta ethorkizuna



sente, éste no se nos figura tan corto. Porque miramos a todos tres unidos y como si fueran uno. Así lo dice Séneca: "Longam illi facit vitam, omnium temporum in unum collatio" (Senec. de brevitate vitae cap. 13).

Pero si tomamos el tiempo como se debe y como es, hallaremos que es muy poca cosa, que es angosto y breve. Podemos disponer del presente, desear el futuro y alabar o lamentar y llorar el pasado. El pasado no tiene remedio, aquello ya se fue: el futuro no sabemos si se nos concederá: el presente es tan poca cosa, tan breve e insignificante, que ahora mismo, para cuando he empezado la segunda palabra, ya ha pasado la primera y expirado el tiempo de ella.

103 Ha habido quien ha dicho que el tiempo no es nada cuando no se acuerda o piensa en él. Y que por tanto al que duerme el tiempo aquel no le parece nada, no lo siente, se le pasa como si no existiera. Porque entonces no piensa en él ni tiene cuenta de él.

Yo compararía el tiempo con el agua, pues el tiempo y el agua tienen un gran parecido entre sí. El agua siempre marcha, avanza una en pos de otra. La pasada se ha adelantado, la por pasar queda atrás, y la de en frente poco dura en esta posición. Nadie toma del agua que ha pasado ni tampoco de la que está por venir: de la que está en frente, al pasar, cuando es presente es preciso tomar. Pues lo mismo sucede y se debe hacer también con el tiempo, agárrate al presente, aprovéchalo. Porque de otra suerte podrías quedarte parado, como le sucede a la nave que no se hizo a la vela cuando soplaba el viento propicio.

§ 1

104 Del tiempo únicamente poseemos un poquitín, el ahora, y no más. Mas ¿quién podrá decir cuánto vale este ahora? ¿este momento de duración tan diminuto y breve? Vale tanto, que si a uno que está en el infierno se le diera a escoger a ver qué quisiera más poseer: o todo este mundo con todos sus bienes, o bien el espacio y tiempo de una hora: es bien cierto que no ya el tiempo de una hora, pero aún el momento que es suficiente para alzar

presentekoarekin lothurik, eta bat eginik, etzaiku presentekoa hain labur iduritzen. Zeren guztiak elkharrekin bezala, eta bat baillira bezala hartzen baititugu. Hala erraiten du Senekak: *Longam illi facit vitam, omnium temporum in unum collatio* (Senec. de brevitate vitae. cap. 13).

ediren auhendu deithoratu

Ordea den bezala, eta behar den bezala denboraren hartzera, edirenen dugu, deus guti dela, mehar dela eta labur. Presentekoa goza dezakegu, ethorkizunekoa desira, eta iragana lauda edo auhen eta deithora. Iraganak eztu erremediorik, hura ioan da: ethorkizunekoa eztakigu emanen zaikunz: presentekoa hain da guti, labur eta ez deus, ezen orai ere, bigarren hitza hasi dudanēko, iragan baitateke lehenbizikoa, eta lehenbizikoaren denbora.

orhoitzapen

103 Izatu da erran duenik denbora eztela deus, hartzaz orhoitzapenik eta pensatzerik eztenean. Eta halatan lo datzanari, etzaikala orduko denbora deus iduritzen, eztuela sentitzen, ezpailliz bezala iragaiten zaikala. Zeren orduan ezpaitu hartan pensatzen, eta ez gogorik edukitzen.


idurika iarraiki

Urarekin nahi nuke konparatu denbora. Zeren denborak eta urak elkharren idurika handi baitute. Ura bethi doha, bata bertzeari darraika. Iragana aitzina da, ethorkizunekoa gibela dago, eta aitzinekoak aitzinean guti irauten du. Eztu nehork iragan den uretik hartzen, eta ez ethortzeko dagoenetik ere: aitzinekotik, iragaitean, presentean denean behar da atrapatu. Hala da, bada, eta hala egin behar da denboraz ere, presentekoari lot zakitza, hari probetxa zakitza. Zeren bertzela, haize ona denean, bela egin gabe gelditzen den untzia bezala, geldi ahal zindezke zu ere.

§ 1

iraupe hautatu ailtxatu asko izan

104 Dēnboratik gauza aphurra, orai haur dugu, eta ez bertzerik. Ordea nork erranen du zenbat balio duen orai hunek? Iraute, iraupe, eta bitarte ttipi, aphur, labur hunek? Hanbat balio du, non baldin orai ifernuan dagoen bati, eman balekio hautatzera, ea zein lukeien nahiago bere eskuko, ala mundu haur guztior, bere on guztiekin, ala oren baten denbora, eta bitartea? Segur da ez oren baten dēnbora, baiña are begien goiti ailtxatxeko asko lukeien bitartea ere, lehen hauta leza-



los ojos, lo preferiría y estimaría en más, que todo el mundo. Porque aquel poco tiempo, con todo y ser pequeñísimo, empleándolo bien, le sería suficiente para remediar todas las faltas cometidas hasta entonces y para alcanzar la gloria del cielo.

Dícese que una cosa es preciosa cuando un trocito pequeño de ella vale más que otro grande de otras cosas, y así por ejemplo se dice que es cosa preciosa el oro. En consecuencia, hemos de decir que el tiempo es cosa realmente preciosa y valiosa, ya que un trozo pequeñísimo de él basta, junto con el dolor del corazón, para obrar la salvación. Y si no, pregunta al ladrón que en su última hora, tan brevemente, ganó el paraíso, a ver qué es lo que le parece del tiempo. A ver si es cosa estimable y que deba tenerse en algo. Y él, como experimentado, te dirá que sí, que es cosa de tenerse en algo, que es valioso, que en el mundo no hay nada comparable con él.

105 Es cosa tan grande y rica este momento de tiempo que ahora tenemos entre manos, que, a pesar de que las penas del purgatorio son más grandes que todas las penas y trabajos de este mundo sumados juntos, con todo viene a decir un doctor: "Plus valet hic in patientia dies unus, quam in purgatorio annus" (Lodolphus ex Saxonia 1 p. cap. 20): Vale más y rinde más el emplearse ahora aquí durante un día en obras buenas que el estar después penando durante un año en el purgatorio. El día de ahora valdrá tanto como el año de entonces. Así lo da a entender el Profeta Ezequiel: "Diem pro anno dedi tibi" (Ez. 4). Te di un día por un año. Quiere decir: Te he dado y te doy muchos días, tan ricos, tan valiosos y de precio tan grande que cada uno de ellos vale y valdrá como un año. Porque lo que después podrá hacerse y se hará en un año, ahora puede hacerse en un día. Y la razón: porque lo que después no habrá, ahora lo hay, y es la posibilidad, el poder y la libertad para merecer y adelantar en el bien. Y asimismo también, porque existen dos clases de penas: una es "Poena inflicta" (Vide Dion. Chartus. "De iudicio animae", cap. 15): o sea, la pena que otro nos inflige, la que nos viene de otros, como es la pena del purgatorio o la de una enfermedad. La otra es "Poena assumpta": la que nosotros voluntariamente asumimos, como es la penitencia que hacemos, el ayunar, orar, andar en peregrinación.

[60] *Orai.* Bai lehen eta bai 2. edizioan ere *ori* dio; errakuntza delakotan zuzentzen dugu.

keiela, nahiago lukeiela, eta bai hobeago ere, mundu guztia baiño.

Zeren denbora aphur hura, den aphurrena ere, ongi enplegatzen duela, asko bailluke anartēraiñoko falta guztien erremediatzeko, eta zeruko loriaren erdiesteko.

Erraiten da, gauza bat preziatua dela, hartarik puska ttipia, bērtzetarik handiak baiño gehiago balio duenean, eta halatan erraiten da gauza preziatua dela urrea. Beraz zinez da gauza preziatua, eta baliosa denbora. Zeren den gutiena, bihotzezko urrikimendu batekin, asko baita salbamenduaren egiteko. Eta ezpere galdegiozu, bere azken orenean, hain laburzki parabisua irabazi zuen ohoiñari, ea zer iduri zaikan denboraz? Ea gauza estimatzekoa, eta ezertan edukitzekoa denz? Eta hark, frogatuak bezala, erranen deratzu baietz, ezertan edukitzekoa dela, baliosa dela, eztuela munduan berē parerik.

urrikimendu

laburzki


105 Hain da gauza handia, eta aberatsa, orai eskuen artean dugun denboraren orai haur, ezen purgatorioetako penak, mundu hunetako pena guztiak elkharri iratxekirik baiño handiagoak direlarik, guztiarekin ere erraiten baitu doktor batek: *Plus valet hic in patientia dies unus, quam in purgatorio annus* (Lodolphus ex Saxonia 1 p. cap. 20). Gehiago balio du eta gehiago egiten du, orai hemen egun batēz obra onetan enplegatzeak, gero purgatorioetan urthe batez penatzen egoiteak baiño. Oraiko egunak balioko du urthea. Hala emaiten du aditzera Ezekiel profetak: *Diem pro anno dedi tibi* (Ez. 4). Eman neratzun eguna urthetzat. Erran nahi du: eman deratzut, eta emaiten deratzut anhitz egun, hain aberatsik, baliosik, eta prezio handitakorik, non hetarik batek balio baitu, ēta balioko baitu urthe bat. Zeren gero urthe batez egin ditekeiena eta eginen dena, egin baititeke orai egun batez. Eta arrazoiña. Zeren gero izanen eztena, orai[60] baita merezitzeko eta ontasunean aitzinatzeko ahala, indarra eta libertatea. Eta halaber, zeren bi pena suerte baitira, bata da, *poena inflicta* (Vide Dion. Chartus. *De iudicio animae* cap. 15). Bertzek emaiten derakuna, bertzetarik heldu zaikuna, nola baita purgatorioetako pena, eritasun batetakoa.

purgatorioak

aitzinatu

Bertzea da, *poena assumpta*, gerok geure borondatez hartzen duguna, nola baita egiten dugun penitenzia, barurtzea, orazinotan egoitea, erromerian ibiltzea.

barurtu



Y dicha pena, la que nosotros voluntariamente practicamos, lleva ventaja a la otra, a la que otro nos inflige, aun cuando ésta la recibamos pacientemente. Porque el que está en el purgatorio quisiera librarse de allí y también el enfermo querría curarse.

106 Pero la penitencia que nosotros hacemos ahora por nuestra voluntad, y la mortificación que tomamos, es completamente voluntaria, valiosa y agradable a Dios. Y por esto aventaja a las penas del purgatorio y también a las de la enfermedad tanto como el oro aventaja a todas las otras monedas.

Porque Dios, aunque también mira al trabajo que pasamos, con todo mira más a su voluntariedad. Por tanto, tomemos ahora el trabajo, ahora el ayuno y el cilicio. Porque la molestia pequeña de ahora, que nosotros libre y voluntariamente nos tomamos, valdrá más que las penas grandes del purgatorio o de la enfermedad. Y así parece que los que están en el purgatorio de ninguna cosa tendrán tanto pesar y sentimiento como de haber perdido el tiempo, de haberlo empleado mal y de no haberse tomado voluntariamente algunos trabajos. Con razón dice San Crisóstomo: "Neque intelligis omnia potius esse amittenda quam tempus; aurum amittis, potest recuperari, amissum tempus difficulter". (Chrys. Hom. 57 in cap. 9 Io. tom. 3). ¿No comprendes que antes que perder el tiempo deben dejarse perder todas las demás cosas? Porque el oro y la plata, aunque se hayan perdido, pueden recuperarse, pero el tiempo no.

§ 2

107 "Nihil proetiosius tempore et heu nihil eo vilius invenitur", dice S. Bernardo (Bernard. ad Scolast.). No hay en el mundo cosa más preciosa que el tiempo, mas ¡ay!, en el día de hoy no se halla cosa más despreciada. De nada hacemos menos aprecio que del tiempo. "Quem mihi dabis qui aliquod praetium tempori ponat, qui diem aestimet?" ¿Quién me darás, pregunta Séneca, que tenga en aprecio el tiempo? ¿que estime el día como se merece? Tenemos el tiempo como una futilidad, como una nonada. Muchas veces parece incluso que nos estorba, que quisiéramos no tenerlo; que andamos no sabiendo cómo matarlo; cuando es la una, deseamos que

Eta pēna hark, gerok geure borondatez hartzen dugunak, eramaiten dio aitzin aldea bertze penari, bertzek emaiten derakunari, pazientki errezibitua izanagatik ere. Zeren purgatorioetan dagoenak nahi luke handik libratu, eta bai eriak ere sendatu.

borondatezko eder izan

106 Baiña orai gerok geure borondatez egiten dugun penitenzia, eta hartzēn dugun pena, alde guztiz da borondatezkoa, baliosa, eta Iainkoari eder zaikana. Eta halatan hunek eramaiten deraue purgatorioetako penari, eta eritasunekoari ere, urreak, bertze diru guztiei eramaiten derauen abantailla.

Zeren Iainkoak behatzen badu ere iragaiten dugun penara, ordēa areago behatzen du hartako borondatera. Beraz orai pena, orai barur, zilizioa har. Zeren oraiko pena ttipiak gerok libreki, geure borondatez hartzen dugunak, gehiago balioko du, purgatorioetako edo eritasuneko pena handiak baiño. Eta hala badirudi ezen purgatorioetan daudenek, eztutela deusez ere hanbat damu, eta atsekabe izanen, nola denboraren galduaz, gaizki enplēgatuaz, eta bere buruen bere borondatez, aphur bat bedere, ez penatuaz. Arrazoiñekin erraiten du San Krisostomok: *Neque intelligis omnia potius esse amittenda quam tempus; aurum amittis, potest recuperari; amissum tempus difficulter.* (Chrys. Hom. 57 in cap. 9 Io. tom. 3). Eztuzu aditzen, bertze gauza guztiak lehen utzi behar direla galtzera, denbora baiño. Zeren urrea, eta zilharra kobera ditezke, galduagatik, baiña ez denbora.

zilhar koberatu


§ 2

107 *Nihil proetiosius tempore et heu nihil eo vilius invenitur*, dio San Bernardok (Bernard. ad Scolast.). Ezta munduan gauza preziatuagorik denbora baiño, ordea ai, ezta egungo egunean gauza eztheusagorik edireiten. Eztugu deusez ere hain kontu guti egiten, nola denboraz.

eztheus ediren

Quem mihi dabis qui aliquod praetium tempori ponat, qui diem aestimet? Nor emanen derautazu —galdegiten du Senekak—, denborari prezio dioenik? Egun**a merezi bezala estimatzen duenik?** Fitsaren berdin, ez deusen pare dadukagu denbora. Badirudi trabatzen gaituela anhitzetan ere, ezpagendu nahi gendukeiela: ez iakinez zertan iragan gabiltzala. Oren batean ga-

fits



fueran las dos. Hay que confesar que somos ricos, puesto que tan liberalmente administramos la cosa más rica y preciosa que existe en el mundo. Pues, ¡ay tú y ay yo también!, habremos de dar a Dios cuenta estrecha de esta pérdida de tiempo, de este dejarlo pasar sin provecho.

De tres maneras puede decirse que se pierde el tiempo. La primera, cometiendo el pecado y permaneciendo en él. El tiempo que se te pasa en pecar y en permanecer en el pecado después de haberlo cometido, dalo por perdido. Dicho tiempo no te sirve para nada. Antes al contrario, en dicho tiempo pierdes tu alma y todos los bienes de tu alma, y comúnmente también los del cuerpo: los arrojas al suelo como el agua. Este tiempo es el más perdido y el más perjudicial.

108 La segunda manera como se pierde el tiempo es demorándose en ciertas cavilaciones locas, vanas e inútiles. Cuando te encuentras solo, ocioso, desocupado, bien comido y mejor bebido, y particularmente cuando estás acostado en la cama, harto de sueño, despreocupado, haces en tu interior mil cavilaciones e imaginaciones, mil torres y castillos. Te vuelves Papa, te haces Rey, te haces rico, realizas muchas proezas. Te sucede un juego afortunado, y lo ganas. En fin, revuelves en tu mente ciertas cosas que quisieras fuesen verdad. Y aunque nunca hayan de realizarse y aunque sabes que nunca se realizarán, con todo, con el mero pensar, con sólo estarte en estas cavilaciones locas, recibes contento. Y no consideras que mientras tanto, el único provecho que tú sacas de ahí es la pérdida del tiempo, y nada más.

La tercera manera de perder el tiempo es entreteniéndose en diversiones corporales. Tú dices: pasemos el tiempo, juguemos, bailemos y divirtámonos. Y no te das cuenta que mientras tanto pierdes el tiempo. Pues San Bernardo dice: "Omne tempus in quo de Deo non cogitas, hoc te computes perdidisse" (Bernard. in medit. cap. 6). Todo el tiempo que se te ha pasado sin pensar en Dios, haz cuenta que lo has perdido. Así dice también San Jerónimo: "Omne tempus in quo meliorasse non senseris, aestima perdidisse" (Hieron. ad Eusthoch.). El tiempo que se te pasa sin darte cuenta de que has mejorado y sin hacer algún bien, piensa que lo has perdido. No basta no hacer el mal, no basta no vol-

61 *Ala h* gabe. *Ala* hunek eta bai beherago 254 eta 358 zatietan ageri diren biek ere interjezioak dirudite. Axular-en Hiztegia-n ez daude jasoak.

renean, bigarrenean bagina desiratzen dugula. Erran behar da aberats garela, munduan den gauzarik aberatsena ĕta baliosena, hain frankoki derabillagunean. Bada ala[61] zuk eta nik ere, denboraren galtze hunetzaz, hertsi probetxu gabe iragaitera utzteaz, kontu hertsia eman beharko baitiogu Iainkoari.

Hirur moldez erran ahal diteke galtzen dela denbora. Lehenbizikoa, bekhatu egiteaz eta bekhatutan egoiteaz. Bekhatu egiten hari zarela, eta eginez gero hetan zaudela, iragaiten zaitzun denbora, emazu galdutzat. Denbora hark eztu deus balio zuretzat. Aitzitik hartan zeure arima eta arimako on guztiak, eta komunzki gorputzekoak ere galtzeintutzu, ura behera bezala, egotzteintuzu. Denbora hura da denborarik galduena, eta galgarriena.

gogoeta **108** Bigarrena, galtzen da denbora, gogoeta erho, bano, deus balio eztuten batzuetan egoiteaz. Zerori bakharrik alfer, aise, egitekorik gabe, ongi iana eta hobeki edana zaudenĕan, eta guztiz ere ohean loz aserik, ardurarik gabe, zauntzanean, egiten duzu zeure pensu dorre baithan barrena, milla pensu eta gogoeta, milla dorre Aita Saindu eta gaztelu. Egiten zara Aita Saindu, egiten zara Errege, aberatsten zara, egiten duzu anhitz balentia. Ethor- ioko tzen zaitzu ioko eder bat, irabatzen duzu. Finean, erabiltzeintuzu zeure gogoan, hala balira nahi zendukeien gauza batzuk. Eta sekulan hala izanen ezpadira ere, eta eztirela izanen badakizu ere, guztiarekin ere, hala pensatzeaz beraz ĕre, gogoeta erho hetan egoiteaz, atsegin hartzen duzu. Eta bitartean eztuzu konsideratzen, zuk handik atheratzen duzun probetxua denboraren galtzea dela, eta ez bertzerik.

Hirurgarrena, galtzĕn da denbora gorputzaren plazeretan ibiltzeaz. Erraiten duzu: dezagun denbora ira- dostatu gan, gaitezin ioka, gaitezin dantza eta dosta. Eta etzaitzu gogoratzen bitartean denbora galtzen duzula. Bada erraiten du San Bernardok: *Omne tempus in quo de Deo non cogitas, hoc te computes perdidisse* (Bernard. in medit. cap. 6). Iainkoa baithan pensatzen eztuzula, iragan zaitzun denbora guztia, egizu kontu galdu duzula. Hala erraiten du San Ieronimok ere: *Omne tempus in quo meliorasse non senseris, aestima perdidisse* (Hieron. ad Eusthoch.). Hobetu zarenz sentitu gabe eta zerbait ontasun egin gabe iragaiten zaitzun denbora, es- estimatu tima ezazu galdu duzula. Ezta asko gaizkirik ez egitea,

verse malo, sino que hay que hacerse bueno y es preciso obrar el bien; no adelantar es retroceder. Porque mientras tanto, aunque no haya otro perjuicio, por lo menos se pierde el tiempo y transcurre sin provecho.

109 Hazte cuenta de que ahora tienes cuarenta años. Y considera asimismo y recapacita cuánto bien y cuántas obras buenas has hecho en esos cuarenta años, y hallarás que si te hubieses conducido y comportado seria, recta y virtuosamente, todos los bienes y obras buenas que has hecho en esos cuarenta años podías haberlos hecho en un año. Por consiguiente, has perdido todos los restantes, o sea de cuarenta los treinta y nueve. ¿Qué cuenta has de dar, pues, de esos años perdidos? Se debe dar cuenta de todas las palabras inútiles, ociosas, ¿cuánto más habiendo perdido tanto tiempo y dejándolo pasar inútilmente? Con razón dice el Profeta Jeremías: "Vocavit adversum me tempus" (Thren. 1). Llamó contra mí al tiempo. El mismo tiempo, el que nosotros perdemos, nos acusa, él mismo se levanta contra nosotros.

"Omnia, mi Lucile, aliena sunt, tempus autem, nostrum est", dice Séneca (Senec. Epist. 1). Todas las demás cosas son de otros, no así el tiempo; éste es nuestro.

El tiempo que ahora tenemos entre manos, nos lo presta nuestro Dios, lo deja a nuestra disposición. Y quiere que nos aprovechemos de él, que lo empleemos en buenas obras, y aun empleándolo así se nos pedirá cuenta: si hemos oído misa, a ver si la hemos oído bien y pensando en ella. Si hemos ayunado, si hemos rezado, si hemos dado limosna al pobre (pues todas estas son obras buenas), de todas éstas se nos pedirá cuenta a ver si las hemos hecho por bien parecer, por el mundo, o por Dios y con buena intención, sin vanagloria. Así lo dice el Profeta David hablando en nombre de Dios: "Cum accepero tempus ego justitias judicabo" (Ps. 74). Cuando yo atrajere a mí al tiempo, en la hora de la muerte, exigiré cuenta tan estricta, que examinaré y juzgaré aun las obras buenas, a ver si fueron hechas bien, justamente y como es debido. Las mismas obras buenas, si no son hechas bien y con buena intención, Dios las ha de reprobar, dándolas por malas.

ezta asko ez gaixtatzea, baiña ondu behar da, eta ongi egin behar da; ez aitzinatzea, gibelatzea da. Zeren bitartean bertze kalterik ezpada ere, denbora galtzen eta probetxatu gabe iragaiten baita.

109 Kontu ĕgizu ezen orai ditutzula berrogoi urthe. Eta egizu halaber kontu eta gogoeta, zenbat ongi eta obra on egin ditutzun berrogoi urthe horietan. Eta edirenen duzu, baldin zinzinez, fintki eta debotki manaiatu eta enplegatu bazina, bĕrrogoi urthe horietan egin ditutzun ongiak, ontasunak eta obra guztiak, egin zinituzkeiela urthe batez. Beraz hunelatan galduitutzu bertze urthe guztiak, berrogoietarik hogoi eta hemeretziak. Zer kontu emanen duzu bada urthe galdu hetzaz? Hitz alfer guztiez eman behar da kontu, zer izanen da bada hanbat denbora galduz eta alfer iraganez? Arrazoiñekin erraiten du Ieremias profetak *Vocavit adversum me tempus* (Thren. 1). Deitu zuen ene kontra denbora. Denborak berak, guk galtzen dugunak, akhusatzen gaitu, hura bera iaikitzen da gure kontra.

debotki manaiatu

kontu

Omnia mi Lucile aliena sunt, tempus autem nostrum est, dio Senekak (Senec. Epist. 1). Bertze gauza guztiak, bertzerenak dira, baiña ez denbora, hura gurea da.

bertzeren

Orai eskuen artean dugun denbora, prestatzen deraku geure Iaungoikoak, utzten deraku geure eskuko. Eta nahi du probetxa gakitzan, obra onetan enplega dezagun, eta hala enplegaturik ere, eskatuko zaiku kontu: baldin meza enzun badugu, ea ongi eta hartan pensatzen dugula, enzun dugunz. Baldin barurtu bagara, orazinotan egon bagara, probeari erremusina eman badiogu (hauk obra onak baitira), hautzaz guztioz eskatuko zaiku kontu, edergaillu, munduagatik, ala Iainkoagatik eta intenzione onez, banaloriarik gabe egin ditugunz. Hala erraiten du profeta Davitek Iainkoaren partez mintzo dela: *Cum accepero tempus, ego iustitias iudicabo* (Ps. 74). Denbora neuregana dezadanean, heriotzeko orenean, hain herstuki eskatuko naiz kontu, non obra onak ere, ea ongi, iustuki eta behar bezala eginak direnz, examinatuko eta iulgatuko baititut. Obra onak ere baldin ongi, eta intenzione onez eginak ezpadira, gaixtotzat emanik kondenatukoitu Iainkoak.

orazinotan

edergaillu

banaloria

§ 3

110 Si este tiempo presente, el que ahora tenemos entre manos, no lo empleamos bien, se corre peligro que se nos quite el futuro. Y sin embargo, esta es nuestra locura o ceguera: a pesar de haber empleado mal el tiempo anterior creemos que también en lo sucesivo se nos ha de conceder igualmente el tiempo. Si un comerciante hubiese dado a su hijo una suma de dinero poniéndola a su disposición para que la emplee en acciones comerciales y negocie con ella. Y para que de ese modo, iniciándose en los negocios, gane algo por sí mismo. Pero si ese hijo gastase todo el capital dado por su padre en el juego, en comer y beber y en la crápula, con razón debería temer dicho hijo que su padre no le diera más en lo sucesivo ni se fiara de él, y aún que le quitara lo que antes le había dado. Por tanto, con razón debemos temer que nos quite Dios el tiempo venidero, ya que el pasado lo hemos empleado tan mal. Así, en el tiempo de Noé, después de haberles prometido ciento y veinte años de vida, les quitó los últimos veinte, porque emplearon mal los cien primeros. Esto da a entender también el rey David cuando dice: "Viri sanguinum et dolosi non dimidiabunt dies suos" (Ps. 54,24). Los hombres malvados, sanguinarios, pendencieros, maliciosos y engañadores no llegarán a la mitad de sus días; los tales no vivirán la mitad de lo que hubieran vivido siendo de otra especie.

111 Hay algunos que en su juventud, cuando tienen la sangre caliente, viven en gran libertad, como si no hubiera Dios, ni muerte ni hubiera que rendir cuentas, cometiendo mil pecados, maldades y tropelías; concediendo al cuerpo todos los placeres posibles. Pero luego en la vejez, cuando comienza a enfriárseles la sangre, comienzan asimismo a acordarse de lo que está por venir, a recapacitar y pensar que tienen que morir, y que después de la muerte tienen que rendir cuentas. Y a partir de este momento, una vez que reflexionaron así, vuelven la hoja al otro lado: y así como antes fueron malos, se vuelven después buenos y virtuosos. Estos tales "dimidiant dies suos", hacen de sus días dos mitades, los parten en dos trozos.

Porque si bien una mitad, la juventud, la emplearon mal, la otra mitad, la vejez, la concluyeron bien. Y esto es finalmente dividir bien, o sea, dejando la parte mala, tomar la buena y hacer como hizo un San Pablo.

§ 3

peril Izan alabaiña

110 Baldin presenteko denbora haur, orai eskuen artean duguna, enplegatzen ezpadugu ongi, peril da edeki dakigun ethorkizunekoa. Eta alabaiña haur da gure erhokeria edo itsutasuna, uste baitugu geure lehenēkoa gaizki enplegatu guztiarekin ere, aitzinerat ere orobat emanen zaikula denbora. Baldin merkatari batek eman baliazo bere semeari diru suma bat bere eskuko, manaia lezan, enplega lezan, tratuan eta merkatalgoan ērabil lezan. Eta halatan, tratua ikhasirik, berak bere buruz zerbait irabaz lezan. Ordea, baldin seme hark bere aitaren eman hek guztiak, iokoan, ian edanean eta arloterian gasta balitza, arrazoiñekin lizateke sēme hura beldur, ez liazon bere aitak aitzinarat gehiago eman eta ez fida. Eta are lehen emanak ere edeki liatzon. Hala bada, arrazoiñekin izanen gara gu ere beldur ēdeki diazagun geure Iaungoikoak ethorkizuneko denbora, iragana hain gaizki enplegatu dugunaz geroztik. Hala Noeren denboran ehun eta hogoi urthe bizitzeko prometatuz gero, edeki zerauzten azkeneko hogoiak, zeren leheneko ehunak gaizki enplegatu baitzituzten. Haur emaiten du aditzera Errege Davitek ere erraiten duenean: *Viri sanguinum et dolosi non dimidiabunt dies suos* (Ps. 54,24). Gizon gaixto, odol-isurle, gerlati, maliziati, eta enganatiek eztituzte bere egunak erdizkatuko, eztira halakoak bertzela biziko zirenaren erdia biziko.

merkatalgoa


odol-isurle gerlati

errendatu

111 Batzuek bere gazte denboran, odola bero dutenean, bizitzen dira Iainkorik, heriotzerik, edo kontu errendatzerik ezpailliz bezala, libertate handian, milla bekhatu, malizia, eta ēnganamendu egiten dutela: gorputzari ahal bezanbat plazer emaiten diotela. Baiña gero, zahartzean, odola hotzten hasten zaienean, hasten dira halaber ethorkizunaz orhoitzen, hil behar dutēla, eta hil ondoan kontu errendatu behar dutela ohartzen eta pensatzen. Eta handik harat, hala bere buruei ohartuz gero, itzultzen dute plama eta orria bertze aldera: eta lehen gaixto bezain egitēn dira gero on eta prestu. Halakoek, *dimidiant dies suos*, bere egunak erdizkatzeintuzte, bi erdi egiteintuzte. Zeren erdi bata, gaztetasuna, gaizki enplegatu bazuten ere, bertze erdia, zahartzea, ongi akhabatu baitzuten. Eta haur da azkenekotz ongi erdizkatzea, gaixtoa utzirik, onaren hartzea, Iondone Paulo batek bezala egitea.

plama

Iondone



Pero otros, por el contrario, de jóvenes son buenos, virtuosos, y dados a la piedad, y de viejos malos y llenos de maldad. Al comienzo buenos y a la postre malos, como lo fue Judas. Estos tales "dimidiant dies suos", parten en dos mitades sus días, los dividen en dos. Porque si bien en la vejez son malos, de jóvenes fueron buenos. Esto es mala manera de partir los días, porque se pasan de bien a mal. Y en igualdad de circunstancias es peor y más peligroso ser malo de viejo, que serlo de joven.

112 Hay otros, en fin, que "Non dimidiant dies suos": nunca parten en dos sus días. Porque tanto en la vejez como en la juventud son totalmente unos, siempre llenos de malicia y de maldad. Y estos tales cuando ven que sus días están en trance de abreviarse, que se van acercando a la muerte, que tienen que rendir cuentas; entonces, hacen como los malos pagadores, piden nuevos plazos y prórrogas: "In die redditionis postulabit tempus" (Eccli 29). Pero como de lo pasado han dado mala cuenta, no serán oídos: a sus promesas no se dará crédito, nadie se fiará ya más en sus palabras. Así lo dijo también el Angel, jurando por el de arriba, que ya no habría más tiempo, que se acabarían todas las prórrogas. "Juravit per viventem in saecula, quia non erit tempus" (Ap. 10).

Podemos hacer tantas pruebas y vueltas como queramos o podamos, pero a la postre tendremos que llegar y reducirnos a un tiempo y trance del que no podemos huir. Así cuenta San Gregorio que un hombre malvado que se llamaba Crisaorio, cuando llegó a su última hora, no pudo conseguir prolongarla hasta el día siguiente, a pesar de haber hecho todas las plegarias que podía hacer. "Coepit magnis vocibus clamare "inducias vel usque mane, inducias vel usque mane": sed cum clamaret, in istis suis vocibus, de habitaculo suae carnis evulsus est". (Greg. hom. 12 super Evang. et lib. 4 dialog. cap. 38). Cuando se vio constreñido, quisiera prolongar un poco, quisiera ganar tiempo hasta el día siguiente: muchas bellas palabras profirió de su boca, hizo muchos ruegos y clamores: insistentemente pidió la tregua, el plazo y el espacio de un día. Pero todo fue en vano. Mientras clamaba y pedía, se

[62] *Hanbatik hanbatean*= coeteris paribus=en igualdad de condiciones. Ikus esanmolde berbera beherago hunako zati huetan: 115, 353 (bi aldiz).

[63] *Herstu.* 'Heldu, etorri'. Axular-en Hiztegian esanahia ez dago ongi emana.

debozinotsu

Baiña berriz bertze batzuk gaztean dira on, prestu eta debozinotsu, eta zahartzean gaixto, eta maliziatsu. Hastean on, êta akhabatzean gaixto, Iudas izan zen bezala. Halakoek, *dimidiant dies suos*, erdizkatzeintuzte bere egunak, bi erdi egiteintuzte, zeren zahartzean gaixto badira ere, gaztêan on izan baitziren. Ordea hura da gaizki eta gaixtoki egunen erdizkatzea, zeren onetik gaixtora aldatzen baitira. Eta hanbatik hanbatean[62] gaixtoago eta perilosago da zahartzean gaixto izaitea, gaztean baiño.

gaizki eta gaixtoki

nehoiz

112 Baiña finean berriz bêrtze batzuek: *Non dimidiant dies suos*. Eztituzte nehoiz ere erdizkatzen bere egunak. Zeren hala zahartzean nola gaztean, arront baitira bat, bethi ere baitira maliziaz, êta gaixtakeriaz orobat. Eta halako hek ikhusten dutenean bere egunak laburtu hurran zaiztela, heriotzera hurbiltzen direla, kontu eman behar dutela; orduan, pagatzaille gaixtoek egiten dutena, eskatuko dira ephe eta luzamendu gehiago. *In die redditionis postulabit tempus* (Eccli. 29).

xar

erran (sust).

Ordea nola iraganaz kontu xarra eman baitukete, eztira enzunak izanen: etzaie heken promesei sinhesterik emanen, ezta heken erranêtan nehor gehiago fidatuko. Hala erran zuen Aingiruak ere, gaiñekoaz zin egiñik, etzela izanen gehiago denborarik, akhabatuko zirela geroko gêro guztiak. *Iuravit per viventem in saecula, quia non erit tempus* (Ap. 10).

enseiu

Egin ahal dezakegu nahi bezanbat, edo ahal bezanbat enseiu, eta itzul-inguru, baiña azkenean ere, ezin ihesik daidikegun denborara eta pontura herstu[63] eta bildu beharko dugu. Hala kontatzen du San Gregoriok, ezen Krisaorio zeritzan gizon gaixto batek, bere azken orenera zenean, munduan egin ahal zitzan othoitz guztiak eginagatik, ezin êrdietsi zuela, biharamuneko luzamendua. *Coepit magnis vocibus clamare, inducias vel usque mane, inducias vel usque mane: sed cum clamaret, in istis suis vocibus, de habitaculo suae carnis evulsus est* (Greg. hom. 12 super Evang. et lib. 4 dialog. cap. 38). Herstu zenean, nahi zukeien aphur bat luzatu, nahi zukeien biharamun arteraiñoko denbora irabazi: anhitz hitz eder ahotik athera zuen, anhitz othoitz

tregoa

eta oihu egin zuen: anhitzetan egun baten tregoaren, ephearen eta espatioaren eskatu zen. Baiña guztiak alfêrrik. Oihuz, eta othoitzez zegoela, bere egunak akha-



le acabaron sus días, su alma expiró y se condenó para siempre.

§ 4

113 En consecuencia, si es que tenemos alguna sensibilidad, no debemos andar con más aplazamientos: en lo sucesivo no tenemos que perder más tiempo; por el contrario el tiempo antes perdido hemos de recobrarlo y remediarlo. Mas ¿cómo o de qué manera puede remediarse y recobrarse? Porque lo pasado pasado está, no hay manera de volverlo ni de alcanzarlo. Contesta San Gregorio con pocas y breves palabras: "Tempus redimimus quando ante actam vitam, quam lasciviendo perdidimus, flendo reparamus". (Greg. lib. Moral. cap. 28). Rescatamos el tiempo pasado y lo ganamos para nosotros, siempre que por medio del llanto y la penitencia recuperamos y reparamos la mala vida pasada que malgastamos con risas y placeres. Quiere decir: El tiempo pasado, que empleamos mal, que se nos fue de las manos, lo recuperamos cuando en desquite de los placeres de entonces, tomamos ahora doblado desplacer: cuando las obras buenas que debimos hacer entonces y las que debemos hacer ahora, las hacemos actualmente. Esto es lo que dice también Santo Tomás hablando de la satisfacción: "Quamvis homo non possit tempus praeteritum recuperare; potest tamen recompensare illud quod in praeterito fecisse debuisset". (S. Thom. in addit. q. 15 art. 1 ad 4). Si bien el hombre no puede recuperar el tiempo pasado ni hacerlo volver, con todo puede remediar la falta del pasado, haciendo en el futuro el bien que debió hacer en el pasado. Si en el pasado debiste oír una misa y no la oíste, confiesa semejante pecado, y después en el futuro duplica, es decir, oye dos. Si en el pasado debiste ayunar cierto día, y no ayunaste: confiesa primeramente el tal pecado y después en lo sucesivo, duplica, ayuna dos días. De este modo el tiempo pasado mal empleado se rescata, recupera y remedia de la manera que ello es posible.

114 Cuando tienes que hacer un camino de dos horas, y una de dichas horas la has pasado en la holgazanería, en comer y beber y en juergas, ¿qué remedio te queda para alcanzar a tiempo y antes de anochecer tu destino, para subsanar la falta que te ha sucedido? ¿Qué? En la hora que te resta, te pones en marcha tan de veras y con tal apresuramiento que el camino de dos horas lo recorres en una, y de ese modo remedias y subsanas tu falta

64 *Sekulakotz kondenatu zen.* Gaur ez ginake ausartuko horrenbeste esatera. Hunelako edo horrelako kondenatu ote zen jakiteko ez dugu biderik. Ikus beherago ere: 337.

batu zeitzan, arimak egin zeraukan, eta sekulakotz kondenatu zen.[64]

§ 4

113 Beraz hunelatan, bat ere sentimendurik badugu, eztugu gerotik gerora ibili behar: eztugu aitzinerat gehiago denborarik galdu behar. Aitzitik lehen galdu duguna, behar dugu orai koberatu, eta erremediatu. Ordea nola edo zer moldez erremedia ahal diteke eta kobera? Zeren ioana ioan da, ezta haren bihurtzerik, eta ez eskuetaratzerik. Ihardesten du San Gregoriok hitz gutiz eta laburzki: *Tempus redimimus, quando ante actam vitam, quam lasciviendo perdidimus, flendo reparamus* (Greg. lib. Moral. cap. 28). Denbora iragana reskatatzen, eta geuretakotzen dugu noiz eta bizitze gaixto iragana, irriz eta plazerez galdu gênduena, nigarrez eta desplazerez koberatzen eta erreparatzen baitugu. Erran nahi du: denbora iragana, gaizki enplegatu genduena, eskuetarik ioan zeikuna, erdietsten dugu, orduko plazeren ordain, orai desplazer dobleak hartzen ditugunean. Orduan egin behar ginituen ongiak, eta orai egin behar ditugunak, orai egiten ditugunean. Haur da San Tomasek êre satisfazioneaz mintzo dela erraiten duena: *Quamvis homo non possit tempus praeteritum recuperare, potest tamen recompensare illud quod in praeterito fecisse debuisset* (S. Thom. in addit. q. 15 art. 1 ad 4). Gizonak denbora iragana ezin kobera badezake ere, eta ez bihur, ordea erremedia dezake, iraganeko falta, iraganean egin behar zuen ongia, egiten duela ethorkizunean. Baldin iraganean meza bat enzun behar bazenduen, eta ez hura enzun, kofesa hartako bekhatua, eta gero ethorkizunean dobla, enzun bia. Baldin iraganean egun batez barurtu behar bazenduen, eta ez barurtu: lehenik kofesa hartako bekhatua eta gero ethorkizunean dobla, barur bi egunez. Halatan denbora iragan gaizki enplegatua êgin ahal ditekeien moldean reskatatzen, koberatzen eta erremediatzen da.

ioana ioan


laburzki

erreparatu

kofesatu

114 Bi orenen bidea iragaiteko duzunean, eta oren hetarik bata, alferkerian, ian edanean, eta arloterian iragan duzunean, zer erremedio zeure bidearen mugaz, eta ilhundu gabe erdiesteko? Gerthatu zaitzun faltaren estaltzeko? Zer? Gelditzen zaitzun oren hartan, hain zinez, eta laxter abiatzen zara, non bi orenen bidea,

alferkeria



y descuido anterior. Pues de esta misma manera debemos obrar también nosotros: el tiempo que hasta aquí hemos malgastado en la ociosidad y en el vicio, debemos recuperar y alcanzar haciendo ahora el doble y apresurando el paso en el camino de la virtud. Así se dice que incluso la oveja, comiendo por la tarde más velozmente, subsana lo que ha dejado de comer por la mañana. Así también el dueño de la viña concedió tanto jornal y sueldo a los que comenzaron a trabajar por la tarde como a los que trabajaron desde por la mañana, y la razón es porque los que comenzaron por la tarde se dedicaron tan de veras y con tal brío, que en poco tiempo hicieron tanto como los otros en mucho.

Pues bien: esto mismo hemos de hacer también nosotros ahora al atardecer, en la vejez, al fin de nuestros días. Ahora que vemos, a juzgar por la edad, que nos vamos acercando al puerto de la muerte, que lo de aquí abajo está en trance de acabarse. Ahora es, pues, cuando hay que redoblar la diligencia, ahora cuando debemos hacer trabajar a las manos. Ahora cuando hay que devolver a cada uno lo suyo y deponer la enemistad. Ahora cuando hay que pensar en lo que está por venir. Ahora es cuando seriamente y con verdadero dolor de corazón y con voluntad de no volver a hacer más, hay que confesarse entera y sinceramente, habiendo antes escudriñado y examinado bien la conciencia: después de haberse confesado, apartarse de las ocasiones anteriores, no volver más a ellas ni a otras semejantes. De esta manera el tiempo pasado, que es cosa tan grande y valiosa y que hemos malgastado con nuestras dilatorias, lo remediaremos, recuperaremos y alcanzaremos en la medida que es posible remediar.

batez egiten baituzu, eta halatan erremediatzen eta estaltzen zeure leheneko falta eta alferkeria. Bada molde hunetan bērean guk ere geure denbora, hunerainokoan alferkerian eta gaixtakerian gaizki enplegatu duguna, orai ontasunean doblatuz eta laster eginez behar dugu koberatu eta erdietsi. Hala erraiten da ardiak ere arratsaldean, fitetzago ianez, bere goizeko guti iana erdiesten duela. Halatan mahastiaren iabeak ere, arratsaldean trabaillatzen hasi zirenei eman zerauen hanbat iornal eta alokairu, nola goizetik trabaillatu zirenei. Zeren arratsaldean hasi zirēnak, hain zinez eta gogotik harizan ziren, non hek denbora gutiz, bertzek anhitzez bezanbat egin baitzuten.

hunerainokoan

fitetzago

alokairu

Bada haur beror egin behar dugu guk ere orai arratsaldeon, zahartzeon, gēure egunon akhabatzeon. Orai baitakusagu ezen ia adinaren arauaz, heriotzeko portura hurbiltzen garela, hemengoaz, egin hurran dugula. Orai bada, orai behar dugu permatu; orai behar derauegu eskuei eragin. Orai nori berea errenda, orai etsaigoatik iltki. Orai ethorkizunean pensa. Orai zinzinez, bihotzezko urrikimendu batekin, eta gehiago ez egiteko borondatearekin, aitzinetik konzientzia ongi iratiorik, eta examinaturik, osoki, eta egiazki kofesa: kofesatu ondoan, leheneko okhasinoetarik aparta, ez gehiago hetara, eta ēz bertze halakoetara itzul. Halatan denbora iragana, hain gauza handia eta baliosa, gerotik gerora ibiltzeaz galdu duguna, erremedia ahal ditekeien moldean, erremediatuko, koberatuko eta erdietsiko dugu.

arratsaldeon, zahartzeon

permatu

iratio



SOBRE EL QUE DIFIERE LA PENITENCIA DE LA JUVENTUD A LA VEJEZ

CAPITULO XIII

115 Dice el Espíritu Santo: "Memento Creatoris tui in diebus iuventutis tuae, antequam veniat tempus aflictionis tuae, et appropinquent anni de quibus dicas: non mihi placent" (Eccl. 12). Acuérdate de tu Dios en tu juventud. antes de que llegues a los trabajos de la vejez, antes de que se aproximen esos años de los cuales, cuando vengan, dirás: No me gustan. Mientras eres joven, mientras tienes vigor y fuerza, trabaja, emplea las manos. Porque cuando envejezcas, la misma vejez te ha de dar bastante quehacer.

En igualdad de circunstancias, Dios aprecia más las obras buenas de la juventud que las de la vejez. Porque las de la juventud son por su naturaleza mejores y más hermosas. Mandaba Dios en la ley antigua que de todos los frutos se le diera la primicia, que se le ofrendara una parte de todas las cosas, y la parte mejor, la más principal y más estimada, como suele ser ordinariamente la primeriza. Mandaba igualmente el mismo Dios que de las palomas se le trajeran no las palomas grandes, sino las crías. Quería las jóvenes y no las viejas. Porque las palomas, cuanto más jóvenes son tanto mejores, más ricas y sabrosas. De la misma manera las obras buenas de la juventud son también más meritorias y preciosas que las de la vejez. Y por esto mismo nuestro Dios es más codicioso y aficionado a ellas. Así lo dice en el capítulo séptimo del Profeta Miqueas: "Praecocas ficus desideravit anima mea" (Mich. 7). Mi alma deseaba los higos que maduran temprano. Yo quisiera las primeras obras buenas de las personas jóvenes, de ésas soy aficionado y deseoso, ésas me gustan, me son sabrosas y dulces.

Por eso es opinión de los teólogos que el hombre, tan pronto como llega al uso de razón, en el mismo punto está obligado a levantar el corazón a Dios, a tomar resolución de cumplir sus mandamientos y cuando menos de vivir en conformidad con la razón natural.

116 Si un pintor hiciera una imagen hermosa, totalmente perfecta y cumplida: si esta imagen tuviera conocimiento, ¿a quién debería mirar primeramente? Sin duda que al mismo pintor, a su ha-

[65] *Gura.* Hitz hau bizkaitarra izanarren, Axular-ek maiz erabiltzen duela, zioen Oihenart-ek. Ikus RIEV IV, 228.

GAZTETIK ZAHARTZERA PENITENZIA LUZATZEN DUENAZ

KAP. XIII

115 Erraiten du Spiritu Sainduak: *Memento Creatoris tui in diebus iuventutis tuae, antequam veniat tempus afflictionis tuae et appropinquent anni de quibus dicas, non mihi placent* (Eccl. 12). Orhoit zaitezi zeure Iaungoikoaz zeure gazte denboran, zahartzeko peneetara baiño lehen, eta hurbildu gabe urthe hek, zeiñengatik datozinean erranen baituzu: eztira ene gogarako. Gazte zareiño, ahala eta indarra duzuiño, trabailla zaite, orduan eskuei eragiezu. Zeren zahartuz gero, zahartzeak berak emanen deratzu egitekorik asko.

gogarako

Hanbatik hanbatean, ederrago zaitza Iainkoari gaztetasuneko obra onak, zahartasunekoak baiño. Zeren gaztetasunekoak bere egitez hobeago eta ederrago baitira. Manatzen zuen Iainkoak Lege Zaharrean, fruitu guztietarik primizia eman ziazotela, guztietarik parte bat, eta parterik hoberena, prinzipalena eta estimatuena, nola komunzki ohi baita lehenbizikoa, oferenda ziazotela. Manatzen zuen halaber Iainkoak berak, usoetarik, ez uso handiak, baiña usakumeak ekhar ziatzotela. Gazteak nahi zituen, eta ez zaharrak. Zeren usoak zenbatenaz gazteago, hanbatenaz dira hobeago, gozoago eta zaporetsuago. Hala dira bada halaber gaztetasuneko obra onak ere, zahartasunekoak baiño gaiago, eta baliosago. Eta halatan da gure Iainkoa ere hetarik gutiziosago, desirosago, eta zaleago. Hala erraiten du Mikeas profetaren zazpigarren kapituluan: *Praecocas ficus desideravit anima mea* (Mich. 7,1). Goiz ontzen diren fikoak, desiratzen zituen ene arimak. Presuna gazteen lehenbiziko obra on hek nahi nituzke, hetarik naiz zale eta gura,[65] hek zaizkit on, gozo eta ezti.

hanbatik hanbatean

oferendatu

zaporetsu


gutizios

Hargatik da Teologoen errana, gizona adimendura heltzen den bezain sarri, pontu bèrean, obligatu dela bihotzaren Iainkoagana ailtxatzera, haren manamenduen konplitzeko gogo hartzera, eta arrazoiñ naturalaren arauaz bedere bizitzera.

adimendu

116 Pintatzaille batek ègin baleza imajina eder bat alde guztiz konplitua, eta abantaillatua: imajina hark, baldin ezagutzarik balu, nori lehenik behatu behar othe leraukaio? Segur da pintatzailleari berari, bere

pintatzaille imajina



cedor. En consecuencia, el hombre, que tan hermosamente ha sido hecho por Dios a su imagen y semejanza, tan pronto como llega a la razón, debe mirar a su mismo hacedor, al que le ha dado la impronta, debe emplear su potencia en su servicio. En conformidad con esto dice San Pablo: "Laborantem agricolam oportet primum de fructibus accipere" (2 Thim. 2). Es razonable que el labrador que trabaja sea él el primero que guste de los frutos. Y como dice el mismo San Pablo: "Dei agricultura estis" (1 Cor. 3). Vosotros sois y nosotros somos la arada de Dios: nosotros somos la tierra labrada, aderezada y trabajada por Dios, Justo ha de ser por lo mismo que el mismo Dios, como buen labrador, guste primeramente su trabajo: y que desde el mismo momento en que llegamos a la razón o entendimiento, pruebe las primicias o comienzos de nuestras obras.

Pero ay, ay, ay, y mil veces ay. ¿Dónde hay quien dé a gustar a Dios de sus primeros frutos, del comienzo de sus obras? ¿Dónde hay un cristiano tempranero? ¿que temprano sea virtuoso? ¿que desde joven sirva a Dios? "Vae mihi quia factus sum sicut qui colligit in autumno racemos vindemiae, non est botrus ad comedendum" (Mich. 7). Ay pobre de mí (dice el Profeta Miqueas), porque he venido a ser semejante a aquel que al fin del verano anda en busca de los residuos de uva, después que otros han hecho la recogida. Las mejores las ha llevado otro. No me han dejado ni un gajo, ni siquiera un grano, que poder llevar a la boca. Pues esto mismo puede decir también nuestro Dios. Porque nuestra juventud otro se la lleva. Las primicias de las obras las recoge otro. Si algo queda para él, son la rebusca, los residuos, la vejez. Y en el peor de los casos ojalá le quedaran éstos, siquiera éstos.

§ 1

117 Dijérase que a los jóvenes de hoy les parece deshonor y afrenta el vivir virtuosamente y estar sin cometer pecado. Su obligación, el servicio que deben a Dios, lo dejan para después, para cuando sean viejos, diciendo: al fin y al cabo no hay peligro de morir, estoy fuerte, soy joven, y el joven debe vivir y comportarse a su estilo, como joven. ¿Qué diría el mismo mundo, si ya desde ahora me despidiera de él? He ahí la vejez, tiempo reposado,

[66] *Bikhor.* Alea edo garauna, bihia (=grano). Ikus MITX FLV (1974), 117.

[67] *Bertzek ioaiten du*=bertzek eramaten du. Aditz laguntzaile iragankorra ezartzen dio, *ioan*-i eta orduan aditz hunek *eraman*-en sentidua du. Ikus beherago ere: 203, 279.

[68] *Aillekitza.* Aditzaren aurrizki hunek *(ai-)* gogo bat edo nahi bat aditzera ematen du. Ikus R. Lafon, *Le système du verbe basque au XVI^e siècle* I, 394. Beherago dator beste kasu bat: *ailiotsa,* 271. Oihenart-ek hunela itzultzen du: «pleust a Dieu qu'il dit» (Riev IV, 225).

egilleari. Beraz hunèlatan, gizonak ere, Iainkoak berak bere imajinara eta idurira, hain ederki egina denaz geroz, adimendura heltzen den bezain fite, bere egilleari berari, iduria eman dioenari, behar dio behatu, haren zerbitzuan behar du bere ahala enplegatu. Hunen arauaz erraiten du Iondone Paulok: *Laborantem agricolam, oportet primum, de fructibus accipere* (2 Thim. 2). Arrazoin da, trabaillatzen den laborariak, berak lehenik berè fruituetarik dasta dezan. Eta Iondone Paulok berak dioen bezala, *Dei agricultura estis* (1 Cor. 3). Zuek zarete, eta gu gara Iainkoaren laboraritasuna: gu gara Iainkoaren lur landua, aphaindua eta trabaillatua. Arrazoin izanen da beraz halaber, Iainkoak berak laborari onak bezala, bère trabaillua lehenik goza dezan: eta adimendura edo endelegamendura heltzen garen pontu beretik, gure obren primizia, eta lehena dasta dezan.

fite

laborari

delegamendu

Baiña ai, ai, ai, èta millatan ai. Non da bere lehen fruitutik, bere obren hastetik, Iainkoari dasta arazitzen deraukanik? Non da giristino goiztiarrik? Goiz ontzen denik? Gaztedanik Iainkoa zerbitzatzen duenik? *Vae mihi quia factus sum sicut qui colligit in autumno racemos vindemiae, non est botrus ad comedendum* (Mich. 7). Ai ène urrikalkizuna (dio Mikeas profetak), zeren ni egin naiz udaren finean, bertzeren bil ondoan mahats hondar-mondarren bilha dabillana bezala. Hoberenak bertzek eramaintu. Ezterautate morkoxta bat ere eta ez bikhor[66] bat, ahoan eman ahal ditekeienik utzi. Bada haur beror erran ahal dezake gure Iaungoikoak ere. Zeren gure gaztetasuna bertzek ioaiten du,[67] lehenbiziko obrak bertzek biltzeintu. Deus gelditzen bazaika ere, bilondoak, hondarrak, zahartzekoak gelditzen zaitza. Eta gaixtoeneko kontuan, aillekitza[68] hek ere, edo hek bedere gèldi.

goiztiar

urrikalkizun


ondar-mondar

bikhor

§ 1

laido

117 Badirudi ezen desohore eta laido zaiela oraiko presuna gaztei prestuki bizitzea eta bekhaturik egin gabe egoitea. Bere eginbidea, Iainkoari zor dioten zerbitzua, geroko, zahartzeko ordenatzen dute, erraiten dutela: Berdin oraino ezta hiltzeko perilik, sendo naiz, gazte naiz, eta gazteak gazte antzu, gazte bezala behar du bizi eta gobernatu. Zèr lerrake munduak berak ere, baldin oraidanik parti banengio? Hor heldu da zahar-



maduro, apto para dejarse de locuras. Entonces sí, entonces me convertiré: entonces volveré la espalda al mundo y abrazaré la vida de devoción. Pero mientras tanto, a disfrutar se ha dicho, debo servir al mundo: he de gozar de él, debo hartarme y aburrirme de una vez, de tal modo que no me quede deseo de volver otra vez a él. Esta es la determinación de los jóvenes de hoy, este es su pensamiento: y esto es, lo mismo que en la edad, ser joven en todo lo demás, y, a la postre, ponerse en trance de acabar mal.

Si tuvieras esperanza de conseguir de un gran señor, de aquí a un año, ciertos cargos o rentas, ¿no sería gran locura que mientras tanto, en el tiempo intermedio, anduvieras ofendiendo a dicho señor? Pues mucho mayor es el disparate que tú cometes. Porque lo que tú quieres es de aquí a un año o más tarde, en tu vejez, convertirte; entonces quieres reconciliarte con Dios y alcanzar de él muchos favores y gracias: y con todo, mientras tanto, en todo el espacio de tiempo que media hasta entonces, en tu juventud, ofendes a ese Dios, eres su enemigo y vives haciéndole muchas ofensas como enemigo. ¡Vaya un procedimiento y manera, vaya un halago y caricia para alcanzar de él favor en la vejez, para conseguir lo que deseas!

El que en la vejez ha de valer mucho debe revelarlo y manifestarlo desde la juventud. El árbol que ha de dar fruto, antes tiene que florecer. El que ha de ser gran doctor debe estudiar desde niño. El que de joven no ha tocado un arma, ¿cómo ha de hacerse capitán en la vejez? "Quae in juventute non congregasti, quomodo in senectute invenies" (Eccli 25). Lo que de joven no acumulaste, ¿cómo lo has de hallar en la vejez? El que de joven ha sido por largo espacio malo, ¿cómo a la vejez ha de hacerse virtuoso en un instante y rápidamente? Porque dejando aparte otras razones (como antes se ha dicho), los hábitos de la juventud le acompañan a uno también en la vejez: e incluso entonces se vuelven más fuertes, más dominantes, y es cuando más le acosan. En efecto, parece que aún el diablo entonces es cuando más se esfuerza.


118 Así lo da a entender el Evangelista San Juan cuando dice que oyó una voz del cielo que decía: "Vae terrae et mari, quia descendit ad vos diabolus, habens iram magnam, sciens quia modicum tempus habet" (Apoc. 12). ¡Ay de la tierra y del mar! ma-

umo tasuna, denbora pausatua, umoa, erhokerien utztekoa. Orduan bai, orduan onduko naiz: orduan munduari gibela emanen diot, eta debozinoan sarthuko naiz. Baiña anarteraiñokoan dezadan atsegin har, dezadan mundua zerbitza: nakion goza: nakion behin, berriz bihurtzeko desirarik eztukedan bezala, ase, eta asper. Haur
deliberamendu da oraiko presuna gazten deliberamendua, haur da hekhen gogoa: eta haur da adinean bezala, gaiñerakoan ere gazte izaitea, eta azken finean, fin gaitz egiteko perilean iartzea.

Baldin bazina esperantzatan hèmendik urthe baten buruan erdiesteko iaun handi batenganik zenbait kargu edo errenta, ez lizateke erhokeria handia, bitartean, anarteraiñoko denboran, iaun haren kontra ibiltzea? Bada are da handiagoa zuk egiten duzun erhokeria. Zeren zuk nahi duzu hemendik urthe baten buruan, edo gehiagoren, zeure zahartzean ondu, zuk nahi duzu orduan Iainkoarekin adiskidetu, eta harenganik anhitz fabore eta garazia erdietsi; eta alabaiña bitartean, anarteraiñoko denbora guztian, zeure gaztètasunean, Iainko haren kontra zabiltza, harekin etsai zara, eta etsai
bidegabe bezala anhitz bidegabe egiten diozula, bizitzen zara. Ha zer bidea eta moldea, zèr lausengua eta balakua,
endrezu harenganik zahartzean, endrezu izaiteko, nahi duzunaren erdiesteko!

Zahartzean anhitz balioko duenak, gaztetik behar du ezagun eta ageri. Fruiturik izanen duen zuhaitzak, aitzi-
doktor netik behar du loratu. Doktor handi izanen denak, haurretik behar du eskolatu. Gaztean harmarik utkitu eztuena zahartzean nola kapitainduko da? *Quae in iuventute non congregasti, quomodo in senectute invenies?* (Eccli 25). Gaztean bildu eztuzuna, nola edirenen duzu zahartzean? Gaztean luzaro gaixto izatu dena, nola kolpe batez eta laburzki onduko da zahartzean? Zeren bertzeak bertze direla (lehen erran den bezala), gazteko
usantza usantzak jarraikitzen ohi zaitza nehori zahartzean ere:
kargatu eta are orduan kargatzenago, iauntzenago eta lehiatzenago zaitza. Bada badirudi ezen deabrua ere orduan
permatu permatzenago dela.

ebanjelista **118** Hala emaiten du aditzera Iondone Ioanes ebanjelistak, erraiten duenean aditu zuela zerutik mintzo bat, zioela: *Vae terrae et mari, quia descendit ad vos diabolus, habens iram magnam, sciens quia modicum tempus habet* (Ap. 12). Begirautzue, lurra eta itsasoa, gaiz-



la os espera, porque ha descendido el diablo con gran cólera a vosotros, sabiendo que tiene poco tiempo. A todos tienta el diablo, pero más de propósito y especialmente a los viejos. Porque como éstos, por largo que vivan no pueden durar mucho, tienen poco tiempo, están en trance de finalizar, y de este final depende todo el negocio de ser eternamente feliz o desgraciado: por eso el diablo extrema sus esfuerzos en este final: entonces es cuando emplea todo su arte, habilidad, maña y todo su poder: entonces es cuando saca las del saco, es decir, juega las partidas que él sabe: y viendo que tiene poco tiempo para tentar, de ese poco saca todo el partido posible.


Por tanto, el que quiere estar en pecado hasta la vejez quiere exponerse a un gran peligro. Porque, ¿qué sucederá (por dar una razón más), si como acontece a muchos, la esperanza de envejecer llegare a morir sin envejecer, en su mejor edad? Y aunque no muriera de esta suerte, ¿qué es lo que puede hacer en la vejez, en aquella edad sin fuerzas? Y el obrar bien entonces, ¿de qué le puede servir?

119 Es terrible lo que dice San Basilio acerca de este particular: "Temperantia in senecta non est temperantia, sed potius incontinentiae quaedam impotentia" (Basil. orat. 4 de poenit.). El aguante y sufrimiento de la vejez es una impotencia, no es aguante ni sufrimiento: es una falta de fuerza, un abandono de las energías, el resignarse por no poder obrar: un pararse por la fuerza: un desfallecer de la vida: una mera impotencia de quien quisiera obrar: es tomarnos la delantera el mismo pecado, no es abandonar nosotros el pecado, sino que el pecado nos abandona a nosotros. La sobriedad en el comer que se practica en la enfermedad, no es sobriedad: el ayunar en tal ocasión, no es ayunar, porque si hubiera apetito, no falta voluntad. De esta clase es, pues, comúnmente la resignación, circunspección y apartamiento del pecado que se practica en la vejez: es por impotencia y no por voluntad. En conformidad con esto dice también San Crisóstomo: "Qui modestus est in senectute, cum aetate plurimum jubetur, non magnam suae modestiae mercedem arbitror habiturum" (Chrys. hom. 50 in cap. 24 Mt. T. 2). No pienso que la persona anciana ha de sacar gran provecho porque en su ancianidad sea honesta, modesta, reposada y sosegada: porque la misma edad le ayuda a ello, la misma edad le hace ser así, y por más que quiera, no puede ser de otra forma. ¿Qué recompensa crees tú que va a tener o qué ganancia va a conseguir el viejo inválido por el hecho de que no sale al camino con armas a hacer frente al enemigo? ¿O porque a la noche se retira y vuelve a casa temprano?,

[69] *Lagundu*, aditz laguntzaile iragangaitzaz jokatua Ikus beherago ere: 142, 209 294.

Iautzi ki doha zuetzat: zeren iautzi da deabrua zuetara kolera handian, iakinik ezen denbora guti duela. Guztiak zintki tentatzeintu deabruak, baina zintkienik, eta fintkienik, zaharrak. Zeren nola hek, luzenaz ere ezin anhitz iraun hurran baitezakete, denbora guti baitute, akhabatu hurran baitzaie: eta akhabatze hartan, baitago sekulakotz ongi edo gaizki izaiteko pontua, eta gora beherà: halatan deabruak ere akhabatze hartan, eskuei eragiten daraue: antze orduan bere artea, antzea, maiña, eta ahal guztia enplegatzen du: orduan zakukoak atheratzeintu, dakizkien iokoak iokatzeintu: eta ikhusirik denbora guti duela tentatzeko, guti hari ahal dagien guztia balia arazitzen derauka. Beraz hunelatan, peril handian iarri nahi du, zagogo hartzeraiño bekhatutan egon gogo duenak. Zeren arrazoiñ haur ere eman dezadan, zer izanen da anhitzi gerthatzen zaikana, zahartu ustea zahartu gabe, bere adinik hoberenean hil badadi? Eta hil ezpadadi ere, zer ahal daidike, zahartzean, adin flako hartan? Eta orduko ongi egitea zer balia ahal dakidikaio?

Izigarri **119** Izigarri da San Basiliok pontu hunen gaiñean erraiten duena: *Temperantia in senecta non est temperantia, sed potius incontinentiae quaedam impotentia* (Basil. orat. 4 de poenit.). Zahartasuneko pairua pairatu eta pairatzea, ezina da eta ez pairua eta ez pairatzea: indarraren eskastea da, ahalaren faltatzea, ezin eginez egoitea: borxaz gelditzea, adinak ukho egitea, egin nahiaren ezin egina, bekhatuak berak aitzintzea; ez guk bekhatuen, baiña bekhatuak gure utztea. Eritasunean guti iatea ezta guti iate: orduko barurtzea ezta barurtze, zeren baliz aphetiturik, bada borondate. Hala da pairamendu bada komunzki zahartzeko pairamendua, begiramendua, eta bekhatuetarik barurtzea ere: ezinezkoa da, eta ez borondatezkoa. Hunen arauaz erraiten du San Krisostomok ere: *Qui modestus est in senectute, cum aetate plurimum iubetur, non magnam suae modestiae mercedem arbitror habiturum* (Chrys. Hom. 50 in cap. 24 Mt. T. 2). Eztut uste presuna zaharrak, probetxu anhitz onhest izanen duela bere zahartzean onhest, modest, pausatu eta sosegatu izaiteaz: zeren adina bera hartara laguntzen baitzaika,[69] adinak berak hartaratzen baitu; nahiago badu ere, ezin baitaidike bertzela. Zer esker uste duzu izanen duela, edo irabazi eginen duela zahar ezinduak etsaiari bidera harmaturik ez ilkitzeaz? Arratsean amorantia etxerat goiz biltzeaz eta bihurtzeaz? Amorantiara gaz-



¿o porque no va a donde la querida como en la juventud?, ¿o porque no se ocupa en bailes y saltos? Acerca de este particular, lo mismo que en todo lo demás, hermosamente dice San Agustín: "Sed quidam sunt, fratres mei, qui in juventute sua luxuriose vivere volunt, et si ad senectutem pervenerint gloriantur dicentes se continentes esse; tunc enim eligunt servire castitati, quando libido eos servos habere contemnit. Numquid tales continentes dicendi sunt? Absit. Tales enim praemium non habebunt, quia laboris certamen non habuerunt" (*August. ad fratres herem. serm. 6 Tom. 5*). Algunos quieren en su juventud vivir a su antojo, cometiendo muchos pecados y desórdenes, sobre todo con mujeres. Y después, si llegan a viejos, se glorían diciendo: nosotros somos personas castas, honestas, puras, reposadas y comedidas: gracias a Dios no cometemos deshonestidades ni pecado alguno con mujeres. Pero, ¿por qué no lo cometéis? Porque no podéis. Por tanto, ello es gracias a la impotencia, que no a vuestra voluntad.

Ahora bien, vosotros pensáis que sois personas honestas y castas y que por esta castidad recibiréis gran recompensa delante de Dios. Pero os engañáis. Porque el que ha de recibir recompensa debe dejar el pecado en tiempo en que puede pecar, y abrazar la virtud entonces mismo.

120 Porque como dice San Crisóstomo: "Neque enim omnis prorsus aetas omnibus vitiis est opportuna" (Chys. hom. 10 in cap. 3 Mt. tom. 2). No son todas las edades aptas y a propósito para toda clase de pecados. Los amoríos no se avienen bien con la ancianidad, ni tampoco la avaricia se aviene comúnmente con la juventud. Todas las cosas tienen su época, sazón y tiempo. Hay tiempo de siembra y también de recolección. Y gran loco es el que va a sembrar en el tiempo y sazón en que se debe cosechar. De "Quid est autem turpius quam senex vivere incijoven es cuando hay que sembrar y trabajar, y en la ancianidad recolectar, disfrutar y descansar. Mal acabarás, pájaro, si de joven no haces el nido, dice el refrán. Si tú quieres de joven vaguear y después en la vejez trabajar y comenzar a hacer obras buenas, eso es trastornar el orden, no hacer caso de la estación, sembrar cuando hay que recoger, y cuando hay que descansar ponerse a trabajar. Mejor orden observan entre ellas las abejas.

Las abejas jóvenes, mientras son jóvenes, andan fuera, trabajan. Pero después que se hacen viejas, se están en casa, en la colmena, no salen de allí

tean bezala ez ioaiteaz? Dantzan eta iauzian ez ibiltzeaz? Pontu hunen gaiñean ere bertze guztietan bezala ederki erraiten du San Agustinek: *Sed quidam sunt, fratres mei, qui in iuventute sua luxuriose vivere volunt, et si ad senectutem pervenerint, gloriantur dicentes se continentes esse; tunc enim eligunt servire castitati, quando libido eos servos habere contemnit. Numquid tales continentes dicendi sunt? Absit. Tales enim praemium non habebunt, quia laboris certamen non habuerunt* (August. ad fratres herem. serm. 6. Tom. 5). Batzuek nahi dute, bere gazte denboran bizi bere gogara, anhitz bekhatu, eta desordenu, guztiz ere emazteekin egiten dutela. Eta gero baldin zahartzen badira, loriatzen dira, erraiten dutela: Gu iende kastoak, onhestak, garbiak, pausatuak eta begiratuak gara: eztugu, Iainkoari esker, desonheskeriarik akhometatzen, eta ez emazteetako bekhaturik egiten. Ordea nolatan eztuzue egiten? Ezin baitaidikezue. Beraz ezinari esker, eta ez zuen borondateari.

gogara

akhometatu

Orai uste duzue zuek ezen iende garbiak, onhestak eta kastoak zaretela, eta kastitate horrengatik Iainkoaren aitzinean pagamendu handi izanen duzuela. Baina enganatzen zarete. Zeren pagamendua izanen duenak, utzi behar du bekhatua, bekhatu ahal daidikeien denboran, eta hartu berthutea orduan berean.

pagamendu

120 Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Neque enim omnis prorsus aetas omnibus vitiis est opportuna* (Chrys. hom. 10 in cap. 3 Mt. tom. 2). Eztira ez adin guztiak bekhatu suerte guztietako on eta ez gai. Eztagoka zahartasunari amurusia, eta ez komunzki gaztetasunari abarizia. Badituzte gauza guztiek bere sasoiñak, trenpeak eta denborak. Bada eraiteko denbora, eta bai biltzekoa ere. Eta erho handia da, bildu behar den denboran eta mugan ereitera dohana. Gaztean behar da erein eta trabaillatu, eta zahartzean bildu, gozatu eta pausatu. Fin gaitz eginen duk, xoria, baldin gaztedanik ezpadagik kafia, dio errefranak. Zuk nahi baduzu gaztean alfer egon eta gero zahartzean trabaillatu eta obra onen egiten hasi, hori da ordenantzaren haustea, sasoiñik ez begiratzea, bildu behar denean, eta pausatu behar denean trabailluari lotzea. Ordenantza hobea begiratzen dute erleek bere artean. Erle gazteak, gazte direiño, kanpoan dabiltza, trabaillatzen dira. Baiña zahartuz gero, etxean daude, kofauean daude. Eztira bere plazere-

amurusia

trenpe

kafia errefran (errefrau)

sasoin

kofau



sino para recrearse, allí descansan. Porque la vejez es para eso, para descansar.

§ 2

121 Es verdad que Dios promete el perdón de sus pecados a quien hace penitencia en cualquier tiempo, aunque sea en la vejez. Mas a nadie promete el día de mañana para hacer penitencia, ni da garantía de ello. Así lo dice San Agustín: "Indulgentiam peccatorum promisit Deus, sed crastinum diem quo poeniteas non promisit". (August. de verbis Domini serm. 16 tom. 10). Si en la vejez haces penitencia, bien está ello. Pero el problema es a ver si llegarás a viejo: y aun cuando llegues a viejo, a ver si en esa tu vejez harás penitencia. A ver, si lo que en tu primera edad robusta no comenzaste, vas a acabarlo en la subsiguiente edad débil; a ver si querrás molestarte a ti mismo cuando te encuentres más deseoso de bienestar que nunca, y en conformidad con la edad, más necesitado de vivir mejor y más propenso a los placeres; a ver si entonces, dejando los primitivos hábitos malos inveterados, vas a adquirir unas buenas costumbres nuevas.

Yo no lo sé, lo pongo en duda. Y ¿quién no ha de ponerlo en duda? Porque lo que el robusto no puede soportar, ¿cómo ha de sobrellevarlo el débil? Si tú tuvieras dos animales y dos cargas, ¿no fuera locura el dar la carga más pesada al animal más débil? Pues así procede el que relega a la ancianidad la carga de la penitencia.

122 La juventud es robusta, es fuerte, es a propósito para obrar el bien, para trabajar y para ocuparse en el servicio de Dios. Pero la ancianidad es débil, indigente, bastante quehacer tiene consigo y con cuidarse a sí misma. El viejo no puede ayunar, no puede estar de rodillas en la oración, no puede ir en peregrinación. En suma, el viejo, con las enfermedades y achaques de su vejez, no puede hacer obras de penitencia. ¿Cómo ha de ser, pues, apto ni capaz para hacer lo que debe?

Pocos hay que en la vejez sean más ágiles, ligeros y mayores saltarines que en la juventud.

El elefante (que es un animal grande) cuando es joven tiene las rodillas y demás articulaciones bien flexibles, con facilidad las dobla y pliega; pero en la vejez se le endurecen y anquilosan, de tal manera que si entonces llega a caer o a echarse, no es

[70] *Aniamalia* (sic) eta ez *animalia* dio Axular-ek, bai toki hunetan eta bai beste zenbaitetan ere. Mitxelenak uste duenez, zinetako variantea da, eta ez inprimeriako hutsa. FLV (1974), 108.

ra baizen handik ilkitzen, han pausatzen dute. Zeren zahartzea hartako, pausatzeko ordenatua da.

§ 2

121 Egia da: Iainkoak prometatzen dio bere bekhatuen barkhamendua noiz nahi den, zahartzean ere, penitenzia egiten duenari. Ez ordea eztio nehori penitenzia egiteko biharamunik prometatzen, eta ez hartako segurantzarik emaiten. Hala erraiten du San Agustinek: *Indulgentiam peccatorum promisit Deus, sed crastinum diem quo poeniteas non promisit* (August. de verbis Domini serm. 16 tom. 10). Zahartzean penitenzia egiten baduzu on da. Ordea pontua da, ea zahartuko zarenz: eta zahartzen bazara ere, ea zahartze hartan penitenziarik eginen duzunz. Ea leheneko adin sendoan hasi eztuzuna, geroko adin flakoan, akhabatuko duzunz.

biharamun

pontu

Ea egundaiño baiño ongi nahiago, adinaren arauaz hobeki beharrago, eta plazerei ere emanagoa zarenean, zeure burua penatuko duzunz. Ea orduan leheneko aztura zahar gaixtoak utzirik, aztura berri on batzuk hartuko dituzuntz. Eztakit, nik duda egiten dut. Eta nork eztu duda eginen? Zeren sendoak iasaiten eztuena, flakoak nola manaiatuko du? Baldin bazinitu bi abre, eta bi karga, ez lizateke erhokeria kargarik pisuena abrerik flakoenari emaitea? Hala egiten du bada, penitenziaren karga zahartzerat egotzten duenak.

abre

122 Gaztetasuna sendo da, indartsu da, ongi egiteko, trabaillatzeko, eta Iainkoaren zerbitzuan enplegatzeko gai da. Baiña zahartzea flako da, on behar da, berak du bere buruarekin, eta bere buruaren sostengatzen, egitekorik asko. Zaharra ezin barur diteke, belhauriko orazinotan ezin dagoke, erromerian èzin dabilke. Finean zaharrak, bere zahartasuneko eritasunekin eta arrazadurekin, penitenziazko obrarik ezin daidike. Nola izanen da bada orduan, bere eginbidearen egiteko on eta gai?


arrazadura

Guti da zahartzean, gaztean baiño zalhuiago, arinago, eta iauzkalari handiago.

zalhui

Iauzkalari

Elefantak (animalia[70] handi bat baita) bere gazte denboran belhaunak, eta gaiñerako bertze iunturak zalhuitu, erraxki doblatzen eta plegatzentu: baina zahartzean gogortzen eta osatzen zaitza, halako moldez, non baldin orduan eror, edo etzan badadi, ezin iaki baitite-



capaz de levantarse. Y por eso, una vez llegado a viejo, amaestrado por la misma naturaleza, duerme de pie, recostado contra los árboles. Ahora bien, la misma diferencia que existe entre el elefante viejo y el joven se da entre la persona vieja y la joven: tanto como el joven es flexible y manejable, el viejo es duro y rígido.

§ 3

123 Pero aun cuando no existiera tal diferencia, no se debe aguardar a la vejez. Porque también en el tiempo anterior a la vejez, o sea, cuando eres joven, tu Dios te dispensa muchos bienes y beneficios, te da el crecer y el mantenimiento, y te conserva con vida. ¿No es pues razón que tú también en este espacio y tiempo, cuando recibes los beneficios, le des gracias, le sirvas, le alabes y honres? Si Dios constantemente te favorece, ¿por qué tú no has de reconocerle y agradecerle siempre? Dios es para contigo espléndido y liberal. ¿Cómo eres tú tan roñoso y poco generoso, que, sobrestimando tu juventud, la edad mejor, no quieres darle sino la peor, el desecho, la vejez? Lo mejor, lo más excelente y escogido, para otro; el residuo y desecho para Dios.

"Non enim tantum minimum in fundo, sed pessimum" (Senec. epist.), dice Séneca. La cosa, cuando llega a su final, disminuye y se malea. El residuo es poco, y aún ese poco es malo. La flor, la harina, lo mejor, la juventud se la lleva el enemigo malo, y luego quieres que Dios se contente con el salvado y con el residuo de la vejez. Quejábase el Señor porque le ofrendaban los animales ciegos, estropeados, enfermos y baldados (Malach. 2). Pues con razón se quejará también de ti, porque la vejez es ciega, enferma, estropeada, baldada, y ésta es la que tú quieres ofrendarle.

En la vejez la vista de los ojos se acorta, en los oídos se produce sordera, en las rodillas se establece la artritis, la fuerza se disminuye, se pierde el apetito, se ausenta el sueño, se presenta el temblequeo: la piel se arruga, el pelo se vuelve cano, la cabeza se torna calva: el aliento se vuelve fétido. En suma, el viejo se hace friolero, susceptible, desconfiado, irritable, y bajo todos los conceptos se vuelve indigente y digno de compasión: tan digno

[71] *Pikaina.* «C'est le plus pur ou friant morceau d'une viande ou mangeaille». (Oihenart, RIEV IV, 228).

ke. Eta halatan hartaraz gero, bere naturalezak berak hala erakutsirik, zuhaitzen kontra, hek sostengu harturik, zutik dagoela, bere loa ere egiten du. Bada Elefant zaharraren eta gaztearen artean edireiten den diferentzia, edireiten da presuna zaharraren eta gaztearen artean ere: gaztea zalhui, eta manaiukor bezain, da zaharra gogor eta zurrun.

zurrun


§ 3

123 Baiña hunelako diferentziarik ezpaliz ere, ezta zahartzeko begira egon behar. Zeren zahar arteraiñoko denbora hartan ere, gazte zarenean ere, anhitz ongi eta ontasun egiten deratzu zeure Iaungoikoak: hazten, mantenatzen, eta bizirik edukitzen zaitu. Ez lizateke bada arrazoin, zuk ere bitarte hartan, zeure denboran, ontasunak errezibitzen ditutzunean, eskerrak errenda ziniatzon, zerbitza zenezan, lauda eta ohora zenezan? Zuri Iainkoak bethi egiten deratzu ongi, zergatik bada zuk ere eztiozu bethiere ezagutza eginen, eta esker emanen? Zure alderakotzat frantko da eta liberal Iainkoa, nolatan bada zara zu hain eskas eta hertsi, zeure gaztetasuna, adinik hoberena, sobera etsirik, gaixtoena, hondarra, zahartzea eman nahi baitiozu? Gaiñak, pikaiñak,[71] eta hautuak bertzeren, hondarrak eta arbuioak Iainkoaren. *Non enim tantum minimum in fundo, sed pessimum*, dio Senekak (Senec. epist.). Gauza hondartuz gero, gutitzen da eta gaixtatzen. Hondarra guti da, eta guti hura ere gaixto. Florea, irina, hoberena, gaztetasuna, eramaiten du etsai gaixtoak, eta gero nahi duzu kontenta dadin Iainkoa zahiaz, eta zahartzeko hondarraz. Arrenkuratzen zen Iainkoa, zeren aniamalia itsuak, mainguak, eriak, eta hebaiñak oferendatzen zerautzaten (Malach. 2): beraz arrazoiñekin arrenkuratuko da zutzaz ere. Zeren zahartzea baita itsu, eri, maingu, hebain, eta zuk hura oferendatu nahi baitiozu.

ongi
errendatu
alderakotzat
etsi
pikaiñak
flore
zahi
hebain

Zahartzean begietako bista laburtzen da, beharrietan gorreria egiten da: belhaunetan hezueria iartzen da, indarra gutitzen da, aphetitua galtzen da, loa ioaiten da, ikhara ethortzen da, larrua zimurtzen da, illea urdintzen da, burua karsoiltzen da, hatsa khiratsten da. Finean, presuna zaharra, hotzberatzen, minberatzen, idurikortzen, haserrekortzen da, eta alde guztiz on-behartzen eta urrikalkizun egiten da: hain urrikalkizun, non baldin nehon ere gorputzak narriorik, arrazadurarik,

ueria Iartzen
karsoildu
idurikortu
narrio



de compasión que si por algún lado el cuerpo tiene alguna tara, pensión o falta encubierta, entonces todas se descubrirán.

124 ¿Para qué quiere Dios a este tal? A quien el mundo y los mundanos no aguantan, al que no quieren ver entre ellos y cuya compañía les repugna, ¿a este tal quieres tú que Dios tome como su convidado, que lo ame y abrace? ¿Que lo reciba en su compañía y gloria? ¿A quien se le debe lo mejor y que no toma sino lo bueno, quisieras tú echarle lo peor?

Y aunque Dios misericordioso recibiera ese mal presente, a ese viejo, ciego, tullido, baldado y enfermo, aun así este tal no se encontraría libre de problemas. Porque, ¿dónde está el descargo y satisfacción que se debe dar por el pecado? ¿Cómo en la vejez, en tan corto tiempo y en edad tan débil e impotente podrá pagar y satisfacer la deuda y obligación de tantos pecados? Por eso dice San Agustín: "Qui sero poenitet non evadet ignem purgatorii" (August. de vera et falsa poenitentia cap. 18 tom. 4). El que no hace penitencia hasta tarde, el que no se convierte a Dios hasta la vejez, corre riesgo (en el mejor de los casos) de tener que estar por largo tiempo en el purgatorio, de no librarse de ir allá, de no necesitar durante el primer año de zamarra o ropa de abrigo.

Porque como dice San Clímaco: Gran hazaña es el llevar al día este cuidado de satisfacción y descargo (Climac. Scala 8 in fine). Y también San Mateo dice: "Sufficit diei malitia sua (Mt. 6). El día tiene bastante quehacer consigo mismo.

¿Cómo quieres tú pues acumular y juntar los pecados, deudas y cuidados de tantos días y tiempos, de toda la juventud, y todos ellos guardarlos y dejarlos para el tiempo de la vejez? ¿No ves que el balance de la vejez es un triste balance? ¿Y que esta edad tendrá bastante trabajo con remediar las faltas que en su tiempo cometa?

Por consiguiente, desde joven se ha de servir a Dios, ocuparse en penitencias, apartarse de los pecados, y no dejarlos para después, de la juventud a la vejez.

72 *Arropa forraturik beharko eztuen.* Irriño baten keinua somatzen da pasarte hunetan, Gero-ren beste zati askotan bezala. Ikus «Gero-ri darion umore puntta». *Axular: Mendea, Gizona, Liburua,* 169 or.

edo falta estalirik baldin badu, orduan guztiak agertuko baitira.

124 Zertako du beraz Iainkoak halakoa? Munduak eta mundukoek beretzat on eztadukatena, bere artean ikhusi nahi eztutena, eta konpainietan ere narda zaiena, nahi duzu zuk har dezan Iainkoak bere bestale, maita dezan, besarka dezan? Bere konpaiñian eta lorian errezibi dezan? Hoberena behar duenari, eta onik baizen hartzen eztuenari, nahi zeneraukaio zuk gaixtoena bulkhatu?

narda
bestale
bulkhatu

Eta gaixto hura, zahar, itsu, maingu, hebain, eri hura har baleza ere Iainko miserikordiosak, ez lizateke ez guztiarekin ere halakoa, egiteko gabe. Zeren non da bekhatuagatik egin behar den deskargua eta pagamendua? Nolatan zahartzean, hain denbora laburrean eta adin flakoan eta erbalean, pagatuko eta satisfatuko du, hanbat bekhaturen zorra eta obligazinoa? Hargatik erraiten du San Agustinek: *Qui sero poenitet, non evadet ignem purgatorii* (August. de vera et falsa poenit. cap. 18. Tom. 4). Beranduraiño penitentziarik egiten eztuenak, zahartzeraiño Iainkoagana itzultzen eztenak, peril du hoberenaz ere, purgatorioetan luzaro egon beharko duen, hara gabe eskapatuko ezten, lehenbiziko urthean zamarrik edo arropa forraturik[72] beharko eztuen.

satisfatu
purgatorioak

Zeren Klimako sainduak dioen bezala, balentia handia da egunean eguneko deskarguaren egitea. (Climac. Scala 8 in fine). Eta badio San Mateok ere: *Sufficit diei malitia sua* (Mt. 6). Egunak berak du bere buruarekin egitekorik asko.


Nola nahitutzu bada zuk, hanbat egunetako, eta denboratako, gaztetasun guztiko bekhatuak, zorrak eta egitekoak elkhargana bildu eta guztiak zahar denborako begiratu, eta eduki? Eztakusazu zahartzeko manaiua, manaiu aphurra dela? Eta adin hark bere denboran egiten dituen falten ere erremediatzen egitekorik asko izanen duela?

manalu

Beraz hunelatan, gaztedanik behar da Iainkoa zerbitzatu, penitenziatan enplegatu, bekhatuetarik apartatu, eta ez gerotik gerora, gaztetik zahartzera, luzatu.

gaztedanik





ACERCA DEL QUE NI AUN EN LA VEJEZ HACE PENITENCIA

CAPITULO XIV

125 Dice la Sagrada Escritura: "Filius unius anni erat Saul, cum regnare coepisset, duobus autem annis regnavit super Hierusalem" (1 Reg. 13). Niño de un año era Saúl cuando se hizo rey, y reinó sobre Jerusalén por dos años.

Mas, ¿cómo puede ser esto así? Porque es cierto que Saúl tenía más que un año cuando se hizo rey, y asimismo que duró más de dos años su reinado. Así es en verdad. Mas como en un principio era hombre sin dolo, semejante al niño de un año, y en este estado duró durante dos años, y no más; y como quiera que ante Dios no se toman en cuenta más que los años que se emplean en el bien, *por esto se dice que Saúl era niño de un año cuando* entró a reinar, y que estuvo dos años, y no más, en dicho reino. Ya que no permaneció más que dos años sin cometer pecado.

Dice Séneca: "Quidam tunc vivere incipiunt cum desinendum est: si hoc judicas mirum, adiiciam quod magis admireris: quidam ante vivere desierunt quam inciperent" (Senec. epis. 23). Cierta clase de gente comienza a vivir cuando hay que cesar de vivir: y si de esto te admiras, te diré algo que te maravillará aún más, y es que otros cesan de vivir antes de comenzar a vivir. Porque se les acaba la vida antes de comenzar a practicar obras buenas. piens?": dice asimismo Séneca (Senec. epis. 13). ¿Qué cosa hay más fea que ver a un viejo comenzando a vivir? Antes se debe comenzar, antes hay que aprender. Y como el viejo no puede empezar a vivir, es claro que Séneca habla en este lugar de las obras, y no de la edad.

126 Cosa fea es no comenzar a servir a Dios hasta la vejez, más fea el no comenzar ni aún entonces, y la más fea y la peor de todas el entregarse entonces nuevamente al vicio y meterse más adentro en el mal. Algunos al llegar a viejos comienzan a ser buenos y a seguir el camino de la virtud: y mejor es entonces que no nunca; empero, esto es como ponerse en marcha cuando, andado ya el camino, debiera estarse en casa; meterse a aprendiz cuando se es demasiado grande; ir a la escuela

[73] *Urthe batetako haurr zen Saul.* Irakurpen bitx hau hebreozko testutik har tua da. Makur hori nol sortu zen gaur ez da erra asmatzea. Beharbada lehen bizian idatzi zuenak urtee kontua jakin gabez, hutsar te bat utziko zuen toki ho rretan, geroago batetzeko tan. Olabideren euska itzulpenean hutsartea jar tzen da orain ere. Ikus AR NALDICH, *Biblia comenta da* BAC 201, in locum. Grie gora egin zen itzulpenea atal hau ez da ageri.

ZAHARTZEAN ERE PENITENZIARIK EGITEN EZTUENAZ
KAP. XIV

125 Erraiten du Eskritura Sainduak: *Filius unius anni erat Saul, cum regnare coepisset, duobus autem annis regnavit super Hierusalem* (1 Reg. 13). Urthe batetako haurra zen Saul,[73] erregetu zenean, eta bi urthez izan zen errege Ierusalemeren gaiñean.

erregetu

Ordea nolatan ahal dateke haur hunela? Zeren segur da urthe bat baiño gehiago zuela Saulek erregetu zenean, eta halaber bi urthe baiño gehiago egon zela bere erregetasunean. Egia da, hala da. Ordea nola hastean baitzen malizia gabe, urthe batetako haurraren pare, eta egoitza hartan iraun baitzuen bi urthez, eta ez gehiago: eta Iainkoaren alderakotzat, ezpaitira kontutan hartzen ontasunean enplegatzen diren urtheak baizen, halatan erraiten da, urthe batetako haurra zela Saul, errege sarthu zenean, eta bi urthez egon zela barren hartan, eta ez gehiago. Zeren ezpaitzen, bi urthez baizen, bekhaturik egin gabe egotu.

erregetasun

egoitza


ontasun

Erraiten du Senekak: *Quidam tunc vivere incipiunt cum desinendum est. Si hoc iudicas mirum, adiiciam quod magis admireris: quidam ante vivere desierunt quam inciperent* (Senec. epis. 23). Iende batzuk hasten dira bizitzen, bizitzetik gelditu behar denean: eta baldin hunetzaz miretsten baduzu, erranen deratzut are miretsikoago duzuna: bertze batzuk bizitzen hasi baiño lehen, gelditzen dira bizitzetik. Zeren obra onen egiten hasi baiño lehen akhabatzen baitzaie bere bizia. *Quid est autem turpius quam senex vivere incipiens?*, dio halaber Senekak (Senec. epis 13). Zer da gauza itsusiagorik, bizitzen hasten den zaharra baiño? Lehen behar da lehen hasi, lehen behar da ikhasi. Eta nola zaharra ezin has baititeke bizitzen, segur da obrez mintzo dela Seneka lekhu hunetan, eta ez adinaz.

126 Itsusi da zahartzeraiño Iainkoaren zerbitzatzen ez hastea, itsusiago orduan ere ez hastea, eta guztietako itsusiena eta gaixtoena, orduan gaixtakeriari berriro lotzea eta malizian barrenago sartzea. Batzuk zahartzean hasten dira prestutzen, eta berthuteari iarraitkitzen: eta hobe da orduan ere, ez nehoiz baiño, ordea hura da, bidea iraganik, etxean egon behar lukeienean, abiatzea: handituegirik aprendizkoan iartzea, urdindurik eskola-

gaixtakeria

aprendizkoa



con canas. Y todas estas cosas son feas, porque son hechas fuera de su tiempo y en la hora peor.

Cuando eras joven anduviste a lo joven, frívolamente, con poca devoción, prometiendo siempre y resolviendo que en la vejez harías milagros, que entonces te harías santo. Pues bien, ahora ya te has hecho viejo, estás en el término y hora de tus promesas y grandes palabras. Pero tú aún ahora buscas escapatorias, encuentras moratorias, y teniendo poca cuenta que estás en la última edad, te conduces como si estuvieras en la primera. No lo hacía así Séneca, a pesar de que era gentil, cuando decía: "Ante senectutem curavi ut bene viverem, in senectute ut bene morerer" (Senec. epis. 6). Antes de envejecer me preocupé de vivir bien, y en la vejez, de morir bien. De joven tuve cuenta con la vida, y de viejo con la muerte. Una vez llegado a viejo hay que despedirse de la vida y del deseo de vivir, hay que batirse con la muerte y disponerse para ella con todas sus fuerzas.

§ 1

127 El llegar a viejo, el alcanzar extrema longevidad, el vivir muchos años, de suyo es cosa buena, es un don y gracia de Dios. Porque como dice San Pablo: "Licet is qui foris est noster homo corrumpatur, is autem qui intus est, renovabitur de die in diem" (1 Cor. 4). Si bien este nuestro cuerpo —este envoltorio exterior y encimero del alma— se gasta y deshace con la vejez, empero el interior, el alma, se mejora y renueva. La persona anciana, como por propia experiencia y comprobación sabe de la vanidad y andanzas del mundo, está en momento oportuno para despedirse de los procederes y obras de la juventud, y para prestar atención y advertencia a sí mismo. En cambio, el joven es peligroso. Y así el rey David decía a Dios: "Ne revoces me in dimidio dierum meorum" (Ps. 101). No me llames en la mitad de mis días. Déjame envejecer, madurar, encanecer y llegar hasta la última edad. La vejez se concede, aparte de otras muchas razones, sobre todo, para remediar las faltas de la juventud. Y a este fin, una vez llegado a viejo, la sangre que antes fuera caliente, se enfría, sobreviene la calma, y todo el que tiene algún seso se pone a pensar en lo que está por venir. Aún la persona más indolente y descuidada por la noche cierra las puertas de la casa: la gente en las ciudades al llegar al límite de los portales apresura la marcha: la oveja hacia el anochecer come más

ra ioaitea. Eta hauk guztiok dira itsusi, sasoiñetik kanpoan, eta muga gaitzean.

Gazte denboran ibili zinen gazte antzu, arintki, debozino gutirekin, bethi prometatzen zenduela, eta gogoan erabiltzen, zahartzêan mirakuillu eginen zenduela, orduan saindutuko zinela. Bada orai zahartu zara, zeure promesen eta hitz handien ephean eta mugan zara. Baiña zuk orai ere itzurpideak bilhatzeintuzu, luzamenduak edireiteintutzu, eta azken adinean zarela guti konsideraturik, lehenbizikoan baitzina bezala gobernatzen zara. Etzuen hala egiten Senekak, ientil bazen ere, erraiten zuenean: *Ante senectutem curavi ut bene viverem, in senectute ut bene morerer* (Senec. epis. 6). Zahartzeko aitzinean enseiatu nintzen ongi bizitzera, eta zahartzean ongi hiltzera. Gaztean bizitzeaz eduki nuen kontu, eta zahartzean hiltzeaz, zahartuz gero utzi behar da bizitzea, eta bizitzeko gogoa, heriotzearekin behar da iharduki, eta hartako bere ahal guztiaz prestatu.

itzurpide

iharduki

§ 1


127 Zahartzea, sentontzea, urthe anhitzez bizitzea, bere egitez on da, Iainkoaren donua, eta dohaina da. Zeren Iondone Paulok dioen bezala, *Licet is qui foris est, noster homo corrumpatur, is autem qui intus est, renovabitur de die in diem* (2 Cor. 4,16). Gure gorputz haur, arimaren kanpoko, eta gaineko estalki haur, zahartzeaz higatzen eta desegiten bada êre, ordea barrena, arima, hobetzen eta erraberritzen da. Presuna zaharrak nola ia berak frogatuz, eta esperientziaz ere baitaki munduko erhokerien eta ioan-ethorrien berri, ordu du gaztetasuneko maiñen eta tornuen utzteko, eta bere buruari akhordatzeko, eta ohartzeko. Baiña gaztea perilos da. Eta halatan errege Davitek erraiten zioen Iainkoari: *Ne revoces me in dimidio dierum meorum* (Ps. 101). Ez nazazula dei neure egunen erdian. Utz nazazu zahartzera, umotzera, urdintzera, eta azken adinera heltzera. Zahartasuna bertze anhitz gauzatako ere bai, baiña guztien gaiñetik emaiten da, gaztetasuneko falteen erremediatzeko. Eta hartarakotzat, hartaraz gero, leheneko odol beroa hotzten da, sosegua ethortzen da, eta bat ere adimendurik duena, ethorkizunean pensatzen iartzen da. Den presunarik lazoenak eta antsikabenak ere arratsean etxeko atheak hertsteintu: portaleen mugan hirietan munduak laster egiten du: ardiak ilhuntzera-

sentondu donu

higatu

umo

antsikabe



velozmente: el cisne al morir redobla su canto. San Pablo aconseja a los viejos que obren del mismo modo. "Tanto magis quanto videritis appropinquantem diem" (Hebr. 10). Cuanto más veis que se aproxima vuestro último día, tanto más velozmente debéis caminar, esforzaos y apresuraos tanto más. Cuidado entonces con volveros indolentes, perezosos y descuidados. Porque entonces es el extremo, entonces es el momento crítico, entonces es el último tiempo y el riesgo máximo. Y así como en igualdad de circunstancias los servicios y buenas obras de la juventud agradan a Dios más que los de la vejez: así también por el contrario las faltas y delitos de la vejez le son más aborrecibles e insoportables que los de la juventud. Porque los de la vejez no son hechos por inadvertencia, ignorancia, o falta de experiencia, sino que, por el contrario, han sido emprendidos y ejecutados por malicia, maldad y con plena deliberación, como cegando los ojos.

No viene mal aquí lo que dice el Espíritu Santo (Eccli 25). "Tres species odivit anima mea et aggravor valde animae illorum: pauperem superbum, et divitem mendacem et senem fatuum et insensatum". Tres pecados o especies de pecadores aborrezco y me son por encima de todos los otros detestables: el pobre orgulloso, el rico mentiroso y el viejo loco y sin seso o el viejo enamorado.

128 Dignas de considerarse son estas palabras para que vengamos a descubrir por qué parecen a Dios tan mal estas tres suertes de pecado: el orgullo del pobre, la mentira del rico y la locura del viejo. Seguramente que ya existen pecados más grandes que éstos. En primer lugar, que el pobre sea orgulloso, parece que no es gran pecado, más parece desatino y falta de seso, porque, ¿qué es lo que puede enorgullecerle al pobre? Igualmente que el rico sea mentiroso, parece que es pecado leve, por lo menos hay muchos que son más graves. Pues que el viejo se vanagloríe y torne a ciertas vanidades de la juventud, es cosa que puede ocurrir al hombre; hay muchos pecados más graves que éste. ¿Por qué, pues, siendo esto así, dice no obstante el Espíritu Santo que estos tres pecados le son los más *antipáticos y detestables? No es difícil responder.*

Si examinamos estas tres suertes de pecados somera, superficial y exteriormente es cierto que hay otros mayores y que son más aborrecidos por Dios. Pero si miramos al interior, a la sustancia,

74 *Gaitz eritzi.* 'Gorrotatu'. Axular-en Hiztegian ez dago jasoa.

fitetzago koan fitetzago iaten du: zisneak hiltzerakoan bere kantua erredoblatzen du. Hala dagitela konseillatzeintu Iondone Paulok presuna zaharrak: *Tanto magis quanto videritis appropinquantem diem* (Hebr. 10). Zenbatenaz eta ikhusten baituzue zeuen azken eguna hurbiltzenago zaitzuela, hanbatenaz lasterrago abia, hanbatenaz permago eta lehiago zaitezte. Begirautzue orduan zabartzetik, nagitzetik, eta ezansiatzetik. Zeren orduan da peril mena, orduan da mina, orduan da azken adina, eta peril guztien gaiñeko perila. Eta nola hanbatik hanbatean, ederrago baitzaitza Iainkoari gaztetasuneko zerbitzuak eta obra onak, zahartasunekoak baiño: hala bertze aldera, zaitza halaber itsusiago, eta gaitziago, zahartasuneko faltak eta huts eginak, gaztetasunekoak baiño. Zeren zahartasunekoak ezpaitira iakin gabez, inorantziaz edo esperientzia faltaz eginak, baiña bai maliziaz, gaixtakeriaz, eta gogoan deliberaturik, begiak itsuturik bezala akhometatuak eta obratuak.

gaitzi

Ezta pontu hunetara gaixki heldu Spiritu Sainduak dioena: *Tres species odivit anima mea et aggravor valde animae illorum: pauperem superbum, et divitem mendacem, et senem fatuum et insensatum* (Eccli 25). Hirur bekhatu edo bekhatore suerte gaitzesteintut, eta zaizkit bertze guztiēn gaiñetik itsusi: probe urguillua, aberats gezurtia, eta zahar erho zentzugabea, edo zahar amurus amurusa.

128 Konsideratzekoak dira hitz hauk, iakin dezagun eritzi ea zergatik daritzten Iainkoak hain gaitz[74] hirur bekhatu suerte haui: probearēn urguillutasunari, aberatsaren gezurrari, eta zaharraren erhotasunari. Baldinba bada hauk baino bekhatu handiagorik. Lehenbizikorik, probea urguillu izaitea, badirudi eztela bekhatu handi, lehen dirudi erhokeria, eta adimendu falta. Zeren probea zerk urguillutzen du? Halaber aberatsa ere gezurti urguillutu izaitea, badirudi bekhatu arina dela, behintzat anhitz banaloriatu da handiagorik. Bada gizon zaharra ere banaloriatzea, eta gazte denborako zenbait erhokeriatara bihurtzea, gizonari gertha dakidikaiona da; anhitz da bekhatu handiagorik. Zergatik bada, hauk hunela direlarik, erraiten du guztiarekin ere Spiritu Sainduak hirur bekhatu hauk zaitzala gaitzienik eta itsusienik? Ezta gaitz ihardesten.

Baldin hirur bekhatu suerte hauk konsidera baitzagu gaingiroki, azaletik eta kanpotik, bada hauk baino handiagorik, eta Iainkoz ere gaitzetsiagorik. Ordea bal-



a lo que el Espíritu Santo quiere aquí decir, hallaremos que los pecados que se hacen por malicia, sin necesidad, por glotonería, por puro antojo, sin motivo, ocasión ni tentación, son los peores, y de esta especie son esas tres suertes de pecados de que hablamos al presente.

Que el pobre sea mentiroso no es de maravillar, porque la necesidad puede obligar a hacer muchas cosas. Que el rico sea orgulloso, es también común y frecuente, porque, como tiene lo indispensable y necesario sin depender de nadie, esto le ensoberbece, le engrandece y le infla. Que un joven en su obrar y andanzas sea ligero y casquivano no está bien, pero parece que le excusa un poco la edad. Pero el pobre, ¿qué disculpa tiene para ser orgulloso, y el rico para ser mentiroso, y el viejo para retornar a las andanzas y vanidades de la juventud? Estos pecados, y particularmente los de la vejez, no tienen excusa ni disculpa, no hay manera de colorearlos y por eso son tan enojosos y deformes *ante Dios.*

§ 2

129 Cierto día permitió Dios que sus enemigos destruyeran la célebre y hermosa ciudad de Jerusalén, dejó que hicieran con ella todo lo que quisieron. Y como Dios nunca castiga a nadie injustamente, el profeta Jeremías da la razón de por qué permitió *Dios que aquella ciudad fuera así destruida, diciendo:* "Sordes eius in pedibus eius, nec recordata est finis sui" (Jer. 1). Sus inmundicias y suciedades tenía en los pies y ni se acordó de su fin. Como si dijera: tenía los pies sucios, puercos e inmundos: esta es la causa y motivo por el cual se perdió aquella ciudad.

Cosa común y corriente es el tener los pies sucios, pues que andan en la tierra. ¿Qué importaba por ello? Si hubiera tenido sucio el rostro o la cara, parece que había razón para hacer lo que hizo, pero por los pies, ¿qué más daba? Y, sin embargo, por esto, por las inmundicias de los pies se dice que se perdió, porque como la vejez es la última edad, el *último cabo y extremo de la vida,* así también los pies son el término y extremo del cuerpo. Y así el ser inmundo de pies, quería decir que en la vejez era inmundo y malo y que no se acordó ni de su fin, y

[75] *Bilhakatu.* 'Hondatu ematen da Axular-en Hiztegia-n aditz hunen esanahi bezala. Agian beste hau eman beharko litzateke 'bihurtu, hortaraino etorri halakatu'.

din har badezagu barrena, mamia, Spiritu Sainduak hunetan erran nahi duena, edirenen dugu, maliziaz, premia gabe, golotoniaz, bere plazerera, kausarik, okhasinorik, eta tentamendurik gabe egiten diren bekhatuak direla gixtoenak, eta halakoak dira hirur bekhatu suerte hauk, zeinetzaz mintzo baikara presenteon.

golotonia

presenteon

Probea gezurti izaitea, ezta hain miretsteko, zeren beharrak anhitz gauza eragin dezake. Aberatsa ere urguillu gerthatzea, komun da, ardurako gauza da, zeren nola nehoren men gabe, berak baitu bere dina eta behar duena, hark urguillutzen du, hark handitzen eta hantzen du. Bada presuna gazte bat bere obretan eta ioan ethorrietan arin, eta erho izaitea, ezta ongi, baiña badirudi aphur bat bedere, adinak desenkusatzen duela. Baiña probeak zer okhasino du urguillutzeko, aberatsak gezurti izaiteko? Eta presuna zaharrak gazte denborako tornuetara eta erhokerietara bihurtzeko? Bekhatu hauk eta guztiz ere zahartasunekoek, eztute desenkusarik, eztute estakururik, eta ez ederztatzeko biderik, eta halatan zaitza hain gaitzi eta itsusi Iainkoari.

hantu

desenkusatu

estakuru ederztatu

§ 2

129 Egun batez permititu zuen Iainkoak desegin zezaten bere etsaiek Ierusalemeko hiri eder famatu hura, utzi zerauen hartzaz nahi zuten guztia zegitela. Eta nola Iainkoak ezpaitu behin ere nehor bidegabeki gaztigatzen, emaiten du arrazoina Ieremias profetak, ea zergatik Iainkoak hiri hura desegitera eta bilhakatzera[75] utzi zuen, erraiten duela: *Sordes ejus in pedibus ejus, nec recordata est finis sui* (Jer. 1). Bere likitskeriak eta lizuntasunak zituen oiñetan, eta bere finaz ere etzen orhoitu. Erran baillu bezala: Oiñak zituen lohiak, satsuak, eta likitsak, haur da kausa eta arrazoiña zeren hiri hura hala galdu zen. Bada gauza komuna da, eta ardurakoa, oiñak likits izaitea, zeren lurrean baitabiltza. Zer antsia zen beraz hargatik? Baldin begitartea, bisaia izan balu likits, badirudi arrazoiña izan zukeiela egin zuenaren egiteaz, baiña oiñakgatik zer antsia zen? Eta alabaiña hargatik, oiñetako likitskeriakgatik, erraiten da galdu zela; zeren nola zahartzea baita azken adina, eta bizitzearen bazterra eta hondarra: hala dira oiñak ere gorputzaren fina, akhabanza. Eta halatan oiñetan likits izaiteak erran nahi zuen, zahartzean zela likits eta gaixto, eta etzela bere finaz ere orhoitu, eta ha-


bidegabeki

bilhakatu

satsu

bisaia

akhaban(t)za



que por esto se perdió. Porque el que es malo en la vejez y el que entonces no se acuerda de su salvación, es difícil que se libre de la perdición. Dice San Cipriano: "Sicut in lignis ipsa reproba arbor comparet quae post flores, fructus optimos cultori suo non exhibet, sic et in hominibus ipse reprobus est quem flos juventutis deserit, et tamen in sui corporis senectute, bonorum operum fructus proferre parvipendit" (Cyprianus de 12 abusio. 2): Así como es árbol inútil, ocioso, estéril y vano el que tras las hojas y flores no da fruto: así también es inútil e inservible el hombre que una vez pasada la flor y el verdor de su juventud, persiste sin frutos de buenas obras. El hombre, si alguna vez, debiera ser a los veinte años ligero y ágil: a los treinta robusto y fuerte: a los cuarenta juicioso e inteligente: a los cincuenta rico en bienes y dinero: y a los sesenta devoto y concienzudo. El que en esta edad, o sea, a los sesenta años no tiene conciencia, no se aparta de sus apetitos desordenados, no hagas caso de él. Y menos aún del que aún entonces comienza a maquinar y a obrar nuevas maldades: desespera de él, dalo por perdido.

130 A los tales amenaza el profeta Jeremías debajo de unas palabras encubiertas, diciendo: "Vae nobis, quia declinavit dies, quia longiores factae sunt umbrae vesperi" (Jer. 6). ¡Ay pobres de nosotros, perdidos somos, nuestra suerte está echada! porque el día está a punto de fenecer, el sol ha descendido y hasta la sombra es más prolongada al atardecer. ¿Qué es lo que quiere decir esta forma de hablar? Porque el sol, como constantemente se ve, a la torde tiene que hacer una sombra más larga que al mediodía. Y la razón es que al mediodía pega de arriba abajo directamente, en cambio al atardecer de costado, de soslayo. Y no obstante, porque esto sucede así, se nos dice que miremos, que vamos perdidos. ¿Cómo se entiende esto? Se entiende que vamos perdidos no porque veamos que este sol hace a la tarde una sombra más grande y más larga; sino porque en nuestro atardecer —que es la vejez—, cuando la edad está de vuelta en descenso, entonces precisamente se nos redobla y prolonga el deseo y la voluntad de vengarnos, de engañar y aún de vivir; o sea, porque cuanto más viejos, nos hacemos más malos; por esto dice que vamos perdidos.

76 *Gizonak, nehoiz ere izai-tekotz...* Mitxelenak eraku-tsi duenez (FLV 1974, 112 pasarte hunek badu ant-Oihenart-en azaltzen de-atsotitz batekin (524 zenba-kia duenarekin).

latan galdu zela. Zeren zahartzean gaixto dena, eta orduan bere salbamenduaz orhoitzen eztena, gaitz da galdu gabe eskapatzea. Erraiten du San Zipirianok: *Sicut in lignis ipsa reproba arbor comparet quae post flores, fructus optimos cultori suo non exhibet; sic et in hominibus ipse reprobus est quem flos iuventutis deserit, et tamen in sui corporis senectute, bonorum operum fructus proferre parvipendit* (Cyprianus de 12 abusio. 2).

faun Nola zuhaitza baita zuhaitz alferra, fauna, idorra eta agorra, hostoaren eta lorearen ondoan fruiturik iasaiten

gutibalio eztuena: hala da gizona ere, gizon alferra eta guti balioa, bere gaztetasuneko lorea eta berdetasuna iraganez gero, obra onen fruiturik gabe dagoena.

Gizonak, nehoiz ere izaitekotz,[76] behar luke hogoi urthetan izan laster eta arin: hogoi eta hamarretan indar eta sēndo; berrogoietan zentzu eta adimendu; be-

hazienda rrogoi eta hamarretan diru eta hazienda, eta hirur hogoietan debozino eta konzientzia. Adin hartan, hirur hogoi urthetaraz gero konzientziarik eztuenaz, bere aphe-

gibelatu titu desordenatuetarik gibelatzen eztenaz, eztagizula konturik. Eta are gutiago, orduan berriro gaixtakeria pensatzen, eta egiten hasten denaz: hartzaz etsi ezazu,

eman hura emazu galdutzat.


mehatxatu **130** Hainak, eta halakoak mehatxatzeintu Ieremias profetak hitz estali batzuen azpian, erraiten duela: *Vae nobis, quia declinavit dies, quia longiores factae sunt umbrae vesperi* (Jer. 6). Ai gure urrikalkizunak, galdu

hurran gara, egin du gureak. Zeren akhabatu hurran da eguna, beheititu da iguzkia, eta itzala ere luzatuago da arratsaldean. Zer erran nahi du minzatze molde hunek? Baldinba iguzkiak, bethiere ageri den bezala, luzeago egin behar du itzala arratsaldean, eguerdian baiño. Ze-

soslai ren eguerdian gaindik behera artez, eta arratsaldean saihetsetik, soslai emaiten baitu. Ordea guztiarekin ere, zeren haur hunela gerthatzen den, erraiten zaiku begira dugula, galduak goazilla. Nola aditzen da bada haur? Aditzen da, galduak goazilla, ez zeren ikhusten dugun iguzki hunek egiten duen, arratsaldean, itzala handiago eta luzeago, baina zeren gure arratsaldean, zahartzean, adina irauliaz, eta beheitituaz dohanean,

mendekatu eta dihoakunean, mendekatzeko, enganatzeko, eta are

berretu bizitzeko nahia, eta desira ere, berretzenago eta luzatzenago zaikun; zeren zaharrago, eta gaixtoago egiten garen: hargatik erraiten du galduak goazilla.



Ya sabemos que el que ha de ir al cielo no debe tener pecado ni mancha de pecado ni aún arruga: "Non habentem maculam aut rugam" (Eph. 9). Ya sabemos que primero hay que dejar los malos hábitos. Y tú, cuando eras joven, decías que entonces no había lugar, pero que en la vejez los dejarías todos sin falta. Pues bien, ya estás en ella, estás en el borde extremo, te has hecho viejo, y con todo te metes más profundamente que nunca, eres tan malo o peor que antes. ¿Qué es lo que esperas hacer? ¿En qué piensas? ¿A qué esperas? ¿A la vejez? Ya estás en ella. ¿Al plazo? Ya se ha cumplido. En consecuencia cumple tú también tu palabra y promesa, la que hiciste para cuando fueras viejo.

Dirás: tengo aún otro plazo: no han concluido aún todos los tiempos. Es verdad que dije que en la vejez me convertiría: para entonces fue el primer plazo. Pero puedo aún tomar un segundo plazo. Porque todavía, aunque soy viejo, puedo vivir más. Así, pues, en el año postrero, antes de morir, corregiré sin falta todas las faltas. Entonces me atendré a mis palabras, cumpliré todas las promesas; mientras tanto, no hay lugar, no hay nada que hablar.


Este es el cálculo de las personas perdidas y casi casi una señal cierta de acabar mal, como se verá en el capítulo subsiguiente e inmediato a éste.

Badakigu parabisurako denak, eztuela behar bekhaturik, eta ez bekhaturen notharik, eta ez zimurdurarik. *Non habentem maculam aut rugam* (Eph. 9). Badakigu utzi behar direla aztura gaixtoak aitzinetik. Eta zuk gazte zinenean, erraiten zenduen, etzela orduan lekhurik, baiña zahartzean, guztiak falta gabe utziko zinituela. Bada orai han zara, bazterrean zara, zahartu zara, eta alabaiña egundaiño baiño barrenago sartzen zara, lehen bezain gaixto edo gaixtoago zara. Zer egin gogo duzu bada? Zertan pensatzen duzu? Zeren begira zaude? Zahartzearen? Han zara. Ephearen? Konplitu da. Konpli ezazu bada zuk ere, zeure hitza, eta promesa, zahar zindeziñeko eman zenduena.

Erranen duzu: Badut oraiño bertze ephe bat ere: eztira oraiño denbora guztiak iragan. Egia da, erran nuen, zahartzean onduko nintzela, orduko zen lehen ephea. Baiña har dezaket bigarren bat ere. Zeren oraiño, zahar naizenagatik, bizi naiteke gehiago ere. Bada azken urthean, hiltzerako aitzinean, falta gabe, falta guztiak erremediatukoitut. Orduan neure hitzak edukikoitut, promes guztiak konplitukoitut. Anarteraiño ezta lekhurik, ezta zer mintzaturik.

hitza eduki

Haur da presuna galduen kontua, eta hurran, hurran, hunen ondoko, eta hurrenako kapituluan, ageriko den bezala, fin gaitz egiteko seiñale gerthua.



ACERCA DEL QUE PIENSA PERMANECER EN EL PECADO HASTA LA MUERTE

CAPITULO XV

131 Dice Séneca: "*Moriantur ante te vitia*" (*Senec.* epi. 27). Mueran antes que tú tus faltas y pecados. Estos primero, tú después. No los retengas contigo hasta la muerte. Porque una vez llegado a este momento, corres el riesgo de que ellos queden vivos aunque tú mueras. El que persevera en el pecado hasta la vejez no está exento de peligro. ¿Y qué ha de ser del que continúa así siempre y desea continuar aún más hasta la hora de la muerte, metiéndose cada vez más adentro en el pecado?

No quisiera decir cuán grandes riesgos se corren en aquella hora de la muerte, por no dar a nadie ocasión de asustarse y de perder la esperanza. Pero, por otra parte, no puedo callar, porque la esperanza aquella pierde a muchos. Y veo que la ignorancia de los peligros de entonces puede producir más males que el espanto y temor que yo ahora pueda suscitar aquí.

Pero antes de entrar en este asunto quisiera que sepas una cosa, y es la siguiente: como la verdadera penitencia es un don, regalo y dádiva de Dios, que El puede conceder cuando le place, es claro que esta verdadera penitencia, en cualquier momento que se dé, incluso en la hora de la muerte, es suficientemente válida y eficaz, para salvarse. Y así, en su última hora, se salvó el ladrón, que hasta entonces había vivido en pecado. Todavía somos viadores, y mientras lo somos, podemos caminar adelante y también volver atrás, podemos obrar el bien y también el mal. Porque tenemos la voluntad libre y a nuestra disposición. Así dice San Agustín: "De nullo desperandum est, quamdiu patientia Dei ad poenitentiam adducit, nec de hac vita rapit impium" (Aug. sermo 11 de Verbis Domini Tom. 10). No hay que desesperar de nadie, a ninguno hay que tener por condenado, mientras la paciencia de Dios le aguarda para que haga penitencia, mientras le deja en este mundo. Igualmente dice el mismo San Agustín: "Poenitentia aboleri peccata indubitanter credimus, etiam si in ultimo vitae spiritu admissorum poeniteat" (Aug. de Ecclesiae dogmatibus cap. 80 tom. 3). Tenemos por cierto, creemos sin género de duda, que aún en el momento de lanzar el último suspiro,

HERIOTZEKO ORENERAIÑO BEKHATUTAN EGON GOGO DUENAZ
KAP. XV

131 Erraiten du Senekak: *Moriantur ante te vitia* (Senec. epi. 27). Hil bitezi zu baiño lehen, zure faltak, eta bekhatuak: Hek lehenik, zu gero. Eztitzatzula heriotzeraiño zeurekin eduki. Zeren hartaraz gero, periletan iar zindezke, zerori hilagatik, hek bizirik geldi litezin. Zahartzeraino bekhatutan dabillana, ezta peril gabe. Zer izanen da bada, are aitzinago, heriotzeko oreneraiño, bethi barrenago sartzen dela, bethi hala dabillanaz, eta ibili gogo duenaz?

izitu

Ez nuke erran nahi, zein peril handiak diren heriotzeko oren hartan. Zeren ezpaneraukaio nehori, izitzeko eta esperantzaren galtzeko okhasinorik eman nahi. Ordea ezin nagoke erran ere gabe. Zeren orduko esperantzak, anhitz galtzen baitu. Eta baitakusat ezen, nik orai hemen eman ahal dezakedan izialdurak, eta beldurtasunak baiño, orduko perilaren berririk iakingabeak, kalte gehiago egin dezakeiela.

dohain

Baiña egiteko hunetan sarthu baiño lehen, nahi nuke iakin zenezan gauza bat, eta da: Nola egiazko penitenzia baita Iainkoaren donua, dohaiña eta emaitza, Iainkoak berak plazer duenean eman dezakeiena: hala egiazko penitenzia hura, noiz nahi den dela, heriotzeko azken orenean bada ere, salbatzeko asko sendo eta bo-


ohoin

theretsu dela. Eta halatan salbatu zen ohoiña, bere azken orenean, anarteraiño bekhatutan egona eta ibilia. Oraiño bideazkoak gara, eta hunela gareiño iragan gaitezke aitzinat, eta bai gibelat ere bihur, badaidikegu ongi, eta bai gaizki ere. Zerèn borondatea libre eta geure eskuko baitugu. Halatan erraiten du San Agustinek: *De nullo desperandum est, quamdiu patientia Dei ad poenitentiam adducit, nec de hac vita rapit impium* (Aug. serm. 11 de Verbis Domini. Tom. 10). Ezta nehortzaz ere etsitu behar, ezta nehor ere galdutzat eduki

igurlki

behar, Iainkoaren pazienziak penitenzia egitera igurikitzen dioeiño, mundu hunetan utzten dueiño.

Halaber erraiten du San Agustinek berak: *Poenitentia aboleri peccata, indubitanter credimus, etiam si in ultimo vitae spiritu admissorum poeniteat* (Aug. de Ecclésiae dogmat. cap. 80. Tom. 3). Segur dadukagu, duda gabe sinhesten dugu, azken hatsaren aurthikitzean ere,



la penitencia perdona los pecados. Y dicho por el mismo Dios en el Profeta Ezequiel es: "Impietas impii non nocebit ei in quacumque die conversus fuerit ab impietate sua" (Ez. 13). Al pecador, a partir del día en que salga del pecado, su pecado no le perjudicará. Conviértase, vuélvase al bien, aun cuando sea al expirar, al proferir el último suspiro, y todavía entonces será oído. Mientras dure la vida, mientras haya huelgo en las entrañas, hasta tanto el alma salga del cuerpo, si aún todavía tiene bien la inteligencia, si conserva el uso de la memoria y el recuerdo, si no se trastorna en sus facultades, puede tener el necesario arrepentimiento, pesar y dolor de su pecado. Y, mientras tanto, no tiene por qué desesperar, no tiene por qué perder la esperanza, por cuanto todavía no se halla fuera de remedio.

132 Para conseguir el perdón de los pecados es preciso hacer penitencia: y para hacer penitencia basta un momento, el instante que se emplea en volver la cabeza, un cerrar y abrir de ojos. Porque la penitencia verdadera y la que basta para salvarse cuando otra cosa no es posible, es el dolor de corazón, el tener allá dentro pesar y sentimiento por Dios de las faltas cometidas.

Cuando se dice que hay que hacer penitencia y que de otro modo no se puede salvar, no se entiende que es indispensable confesarse, pedir perdón, ayunar, hacer oraciones, andar en peregrinación y mortificarse con otras obras de esta especie. Porque si bien es verdad que todas estas cosas son penitencias y obras de penitencia, con todo son exteriores y, cuando se puede, hay que hacer al menos algunas de ellas. Pero si no pueden hacerse, si no puede confesarse ni hablar ni moverse en absoluto: entonces es suficiente la disposición interior, la voluntad, el arrepentimiento, pesar y dolor de corazón, en el cual consiste la verdadera penitencia, que en este caso en que no es posible nada más, basta para salvar.

Este remedio tienen los que en el mar o fuera de él mueren sin confesarse, o sea, la penitencia interior, el arrepentimiento o dolor de corazón, la contrición. No tienen otro remedio, pero éste les basta si es que lo emplean en el momento oportuno.

133 Y esta penitencia interior, este pesar y dolor de corazón (el cual en latín es llamado "contritio, a verbo contero", que quiere decir romper, despedazar, pulverizar: porque el corazón que se endureció con el pecado, por medio del arrepentimiento, dolor y pesar, se rompe, ablanda y despedaza), puede uno tenerlo brevemente, en poco tiempo, en un instante.

penitenziak barkhatzen dituela bekhatuak. Eta Iainkoak berak errana da Ezekiel profeta baithan: *Impietas impii non nocebit ei, in quacumque die conversus fuerit ab impietate sua* (Ez. 13). Eztio bekhatoreari bekhatutik ilkitzen den egunetik harat, bere bekhatuak kalterik eginen. Konberti bedi, onera bihur bedi, nahiz dela arimak egiterakoan. Biz hats bakotxean dagoenean, eta orduan ere enzuna izanen da. Biziak diraueiño, hatsa sabelean deiño, arima gorputzetik iltki arteiño, baldin oraiño adimendua on badu, memorioan, eta akhorduan badago, nahasten ezpada, baduke bere bekhatuaz behar den urrikimendua, damua eta dolorea. Eta hanbatenarekin eztu bitartean zer etsiturik, eztu zer esperantza galdurik, zeren ezpaita oraiño orduan erremediotik kanpoan.

ilki
arimak egin
akhorduan

132 Bekhatuez barkhamendu erdiesteko, egin behar da penitenzia: eta penitenzia egiteko, asko da pontu bat, buru itzultze bat, begi herts-ideki baten bitartea. Zeren egiazko penitenzia, eta bertzerik ezin daidikeienean, salbatzeko asko dena, bihotzezko urrikimendua da, falta eginez barrenean, Iainkoagatik, damu eta dolu izaitea.

erdietsi

Erraiten denean egin behar dela penitenzia, eta bertzela ezin salba ditekeiela, ezta ez aditzen bada eta ezpada behar dela kofesatu, barkhamendu eskatu, barurtu, orazinotan egon, erromerian ibili, eta hunelako bertze obra penatuetan penatu. Zeren egia da, gauza hauk guztiok penitènziak dira, eta penitenziazko obrak: ordea dira kanpokoak, eta egin ahal ditezkeienean zenbait bedere egin behar direnak. Baiña baldin ezin egin baditezke, ezin kofèsa badadi, ez mintza, eta ez deusetan ere manaia: asko da orduan barren ona, borondatea, bihotzezko damua, dolua eta dolorea. Zein baita egiazko penitenzia, eta kasu hartan, bertzerik ezin daidikeienean, salbatzeko asko dena.

kofesatu
bedere

Erremedio haur dute itsasoan edo handik kanpoan kofesatu gabe hiltzen direnek: barreneko penitenzia, bihotzezko damua eta dolorea, kontrizionea. Eztute bertzerik, baiña haur dute asko, baldin behar den bidean izaiten badute.

haur

133 Eta barreneko penitenzia haur, bihotzezko damu eta dolore haur (zein latinez deitzen baita *contritio, a verbo contero*, èrran nahi baitu, xehatzea, zathitzea, porroskatzea. Zeren bekhatuz gogortu zen bihotza, damuaz, doloreaz, eta urrikiaz, xehatzen, beratzen eta zathitzen baita) baduke nehork laburzki, denbora gutiz,

porroskatu urriki



Porque como dice San Basilio: "Non enim temporis quantitate, sed animi proposito poenitentia judicatur" (Basil. orat. 4 de poenit.). La fuerza y valor de la penitencia estriba en la determinación de la voluntad y no en el largo tiempo. Así dice también San Agustín: "In actione autem poenitentiae, non tam consideranda est mensura temporis quam doloris" (August. in Enchyrid. cap. 6. T. 3). Al hacer penitencia no hay que atender tanto a la medición del tiempo, cuanto a la del dolor. Un sentimiento sincero, una conversión de corazón, un dolor auténtico y caliente, puede hacer más en poco tiempo que un dolor remiso y frío en mucho. El dolor es el que hay que medir y tener en cuenta y no el tiempo: esto mismo vuelve a indicar San Agustín, cuando dice: "Poenitentia vero non annorum numero censetur, sed amaritudine animi" (August). serm. 67 de temp. T. 10). La penitencia no se hace auténtica y preciosa por el cómputo de los años, sino por el dolor, arrepentimiento y pesar interior del corazón.

Así como para quitar y expeler el pecado del alma son necesarias dos cosas: una de parte de Dios, que es su gracia y favor, y otra de la nuestra, que es nuestro querer y voluntad (Vide S. Thom. 1, 2 q. 113, art. 7 in corp.): y todas estas cosas, incluso las que se requieren por nuestra parte, las hace principalmente Dios; de la misma manera el dar Dios su gracia y el disponernos para recibir dicha gracia y a la vez quitar el pecado, todo esto puede hacerse brevemente, en el último artículo de la muerte. Así como para cometer el pecado basta un instante, exhalar un deseo, una resolución y consentimiento de la voluntad: igualmente ha de bastar para remediar dicho pecado un instante, un viraje del deseo en sentido contrario, un abandono y aborrecimiento del pecado por parte de la voluntad, hecho por Dios sinceramente y de veras. Porque Dios es aún más misericordioso que justiciero, más dispuesto a perdonar que a castigar. Por consiguiente, aun en el momento de la muerte, incluso en la hora postrera, puede con el favor de Dios obrarse una verdadera penitencia y conseguirse el perdón de los pecados. Esta es la verdad y sobre esta verdad no hay duda.

§ 1

134 Sí la hay en cambio, y duda grande, sobre si *en aquella hora postrera tendrá el pecador una sincera* penitencia, o sea, el arrepentimiento requerido.

Are gehiago, zure orduko, azken oreneko onen emaite eta errepartitze hark, badirudi, deus guti balio duela zuretzat.

Zeren zure onetarik, eta zure izenean egiten bada ere errepartitze hura, ordea anhitzetan ere, ezpaituzu herio athaka zeurk egiten. Herioa hurbiltzen zaitzunean, nola athaka



gosta y por un mal paso, y los dolores del trance son también grandes, entonces haces poco caso de tus bienes, porque hay otros mayores que te hacen olvidarlos. Entonces a tus herederos y a los que se encuentran allí presentes les dejas que hagan como quieran y como vean que hay que hacer. Los bienes y hacienda que acumulaste con tanto trabajo y fatiga y que después administrabas con tanto cuidado y cariño, los dispensas también tan fácil y despreocupadamente: tanto como antes eras agarrado y avaro, te vuelves después generoso y liberal. Entonces cualquier cosa que te diga uno, la alabas: y muchas veces dices que sí, aun sin saber qué es lo que dices. He visto muchos casos de éstos en mi vida. Y así, más parece que todo lo que haces entonces, es otro el que lo hace, y notú. Mira, pues, qué provecho y mérito puedes reportar del bien que otro hace. Con razón dice el Espíritu Santo: "Ante mortem bene fac amico tuo et secundun vires tuas exporrigens da pauperi" (Eccli 14). Antes que llegue la muerte haz el bien a tu amigo y en conformidad con tus posibilidades extiende tu mano al pobre.

160 Cierto día le rogó Santa Lucía a su madre, diciéndole que lo que después esperaba hacer, sin aguardar al futuro, lo hiciera desde aquel mismo día, antes de ponerse en el aprieto de la enfermedad y de la muerte, o sea, que estando en plena salud repartiera sus bienes a los pobres.

Pero le contestó la madre como hoy se acostumbra: Hija mía, espera aún un poco, yo ya me he hecho vieja, pronto moriré, y entonces, como todos los bienes quedarán para ti, tú podrás hacer con ellos lo que te agrade. Cuando su madre le dio esta respuesta, la hija insistió de nuevo, diciéndole:

"Non est admodum gratum, o mater, Deo munus, quod qui offert, ideo offert, quia illius usum suprema interdicit dies" (Suri. tom. 10, die 13 septemb. in vita Stae Luciae). Madre mía querida, no parece que agrade ni guste a Dios el que la persona le dé y le ofrezca la cosa que ella no puede disfrutar.

"Da dum sana es, ne si moriens dederis, invita dedisse arguaris". Da, pues, madre, mientras tienes salud para que no te echen en cara o no te reprochen que lo que das al morir, lo das a la fuerza.

hertsian, eta pausu gaitzean iragan behar baituzu: eta bitarteko doloreak ere handiak baitira, orduan zeure onez kontu guti egiten duzu: zeren handiagoak ahantzarazitzen baiterauzkitzu. Orduan zeure ondokoei, eta han presentëan edireiten direnei, zer ere nahi baitute, eta nola behar dela ikhusiko baitute, hala dagitela utzten derauezu. Hain nekez eta penaz bildu zinituen onak eta onhasunak, eta hain zuhurtki eta maiteki begiratzen zinituenak gero, hain laxoki eta antsikabeki largatzeintuzu: lehen zein hertsi eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara. Orduan nork zer erraiten baiteratzu, hura laudatzen duzu: eta anhitzetan ere, zer erraiten duzun eztakizula, baietz erraiten duzu. Neure *mendean anhitz ikhusi dut halakorik.* Eta hala badirudi ezen, orduan egiten duzun guztia bertzek egiten duela, eta ez zuk. Ikhusazu bada ea zer probetxu eta merezimendu ahal dukezun, bertzek egiten duen ongiaz. Arrazoiñekin erraiten du Spiritu Sainduak: *Ante mortem bene fac amico tuo, et secundum vires tuas exporrigens da pauperi* (Eccli. 14). Heriotzera baiño lehen egiozu ongi zeure adiskideari, eta duzun indarraren arauaz heda iazozu zeure eskua probeari.

ondoko

laxoki

mendean

hedatu

160 Egun batez egin zioen othoitz Santa Luziak bere amari, gero egin gogo zuena, geroko begira egon gabe, egun beretik egin zezala, eritasunaren eta heriotzearen hersturan iarri gabe, sendo zela berak bere eskuz bere onak probei parti ziatzela.

herstura

Baiña ihardetsi zioen amak, orai usatzen den bezala:

Ihardetsi

Iguriki


Ene alaba, igurikazu oraiño aphur bat, ni zahartu naiz, sarri hilen naiz, eta orduan guztiak zerorri geldituko baitzaizkitzu, zerorrek eginen duzu plazer duzuna. Errepuesta haur bere amak eman zeraukanean, lehiatu zeikan berriz alaba, erraiten zioela:

errepuesta

Non est admodum gratum, o mater, Deo munus quod qui offert, ideo offert, quia illius usum suprema interdicit dies (Suri. tom. 10 diê 13 septemb. in vita Stae Luciae). Ene ama maitea, badirudi ezen etzaikala Iainkoari eder eta ez plazent, presunak, berak ezin goza dezakeien gauzaren êmaitea eta presentatzea.

plazent

Da dum sana es, ne si moriens dederis, invita dedisse arguaris. Emazu beraz, ama, sendo zarela, eztiagizuten eranzute, edo erran eztiazazuten, hiltzerakoan emaiten duzuna, bortxaz emaiten duzula.



Cuando la madre escuchó estas razones, hizo todo lo que la hija quería: y al punto, sin aguardar al futuro, ella misma por su mano distribuyó sus bienes a los pobres.

Ahora dirán algunos por ventura: Si esto es así, los legados, mandas, ofertas, limosnas y demás obras de misericordia que hacen los enfermos en sus enfermedades y últimas voluntades, no valen nada.

161 No: también valen los de entonces. Lo que decimos es que valen más los anteriores. Así lo dice San Crisóstomo: "Melius quidem fuerit, multumque afferens fiduciae, dum adhuc vivis paupertati egentium succurrere. Si vero istud nolueris vel moriendo generosum quid facies; id enim, licet non multum habeat dilectionis, aliqua tamen est dilectio" (Chrys. hom 10 in cap. 81 ad Doma. tom. 4). Aunque fuera mejor, más meritorio y más propio para inspirar confianza el que favorecieras a los pobres por tu mano mientras vivías y estabas con salud; con todo, si antes has faltado, no faltes a lo menos al morir; haz entonces algunas generosidades. Porque también lo que haces entonces, aunque no valga mucho, pero sí ha de valer algo; dará a mostrar que te acuerdas de Dios. Ante todo hagámoslo mientras tengamos salud y por nuestra mano; pero después también tras de nosotros, aunque sea por mano de otro, hagamos lo que podamos.

Este mundo es la habitación de los viandantes, estamos aquí de paso. Nuestra morada, pueblo y casa perpetua está en el otro mundo. Y cada cual suele enviar por delante todo lo que puede a su pueblo y a la casa que ha de tener para siempre; y aún después, si algo queda, cuando él va, lo lleva consigo. Así debemos hacer también nosotros. Ahora, mientras estamos sanos, debemos hacer lo principal, pero después, en la enfermedad, y aún al morir, debemos hacer lo que podamos. Mandemos por delante y llevemos también con nosotros.

Pero dejando a un lado las limosnas y demás obras buenas de misericordia que son voluntarias (pues en éstas no hay tanto peligro), vengamos a hablar en el siguiente capítulo de las obras de justicia y de obligación, y veamos cómo, por encima de todo, estamos obligados a hacerlas por nuestra mano sin dejarlas a los herederos.

Arrazoin hauk aditu zituenean amak, egin zuen alabak nahi zuen guztia: eta berehala, geroko begira egon gabe, berak bere eskuz partitu zituen bere onak probetara.

ordenu legat

Orai hemen benturaz erranen du zenbaitek: beraz hunelatan, eriek bere eritasunetan, eta azken ordenuetan egiten ditutzten lēgatek, emaitzek, eskentzek, erremusinek eta bertze obra miserikordiazkoek eztute deus balio.

161 Bada ordea, ordukoek ere balio dute. Ordea lehenekoek gehiago. Hala erraiten du San Krisostomok: *Melius quidem fuerit, multumque afferens fiduciae, dum adhuc vivis, paupertati egentium succurrere. Si vero istud nolueris vel moriendo generosum quid facies; id enim, licet non multum habeat dilectionis, aliqua tamen est dilectio* (Chrys. hom. 10 in cap. 81 ad Doma. tom. 4).

bihotz-sportzagarri

Hobeago, merituago, eta bihotz esportzagarriago bazatekeien ere, zerorrek zeure eskuz bizi zinela eta sendo zinela probearen faboratzea; ordea guztiarekin ere, lehen faltatu baduzu ere, eztezazula, hiltzerakoan bedere falta, egizu orduan zenbait liberaltasun. Zeren orduan egiten denak ere, ez anhitz, baiña zerbait balioko du. Iainkoaz orhoitzen zarela aditzera emanen du. Gehienik osasuna duguiño, eta geure eskuz, baiña gero ondotik ere, eta bertzeren eskuz ere, dagigun ahal dagiguna. Mundu haur bideazkoen ostatua da, iragaitzaz gare hemen.

bideazko


Gure sekulako ostatua, herria eta etxea, bertze munduan da. Eta nehork bere herrira, eta bethiereko behar duen etxera igortzen ohi du aitzinetik ahal dagiena, eta bai gero deus gèlditzen bazaika, bera dohanean, berekin ere eramaiten.

igorri

Hala egin behar dugu bada guk ere. Orai sendo gareiño gehienik, baiña gero eritasunean, eta hiltzerakoan ere, egin behar dugu ahal dagiguna. Igor dezagun aitzinetik, eta daramagun geurekin ere.

Baiña erremusinak, eta bertze obra on miserikordiazkoak, eta borondatezkoak utzirik, zeren ezpaita hetan hanbat peril, mintza gaitèzin hurreneko kapituluan obra iustiziazkoez, eta obligazinozkoez, eta dakusagun nola guztien gaiñetik heken geure eskuz egitera, ondokoetara utzi gabe, garen obligatu.

hurreneko



DE COMO DEBES HACER POR TI MISMO LAS OBRAS DE OBLIGACION, QUE DEBES EN CONCIENCIA, SIN DEJARLAS A LOS HEREDEROS

CAPITULO XVIII

162 Si las obras de misericordia, como son el favorecer a los pobres, el vestir a los desnudos, el dar de comer y beber al hambriento y al sediento, debe hacerlas uno por su mano, mientras vive, si quiere ganar grandes méritos; ¿cuánto más tendrá que hacer por su mano, sin dejarlas a los herederos, las obras de obligación, de justicia, y las que debe en conciencia? Como son el restituir las cosas robadas, el pagar las deudas, el satisfacer los falsos testimonios que ha levantado y el reparar los daños y maldades que ha mandado hacer.

Si las obras de misericordia no las haces tú mismo por tu mano ni mandas hacer a otro, es verdad que así no ganas mérito, pero tampoco cometes pecado mortal. Pues las obras de misericordia se llaman de misericordia y no de justicia precisamente porque no estamos obligados a hacerlas, fuera de algunos trances apurados y de necesidad. Pero tratándose de las obras de justicia, debemos hablar de modo diferente, pues estamos obligados a cumplirlas bajo pecado mortal.

Y no debes pensar que cumples con dejar el encargo a los herederos. Ni siquiera aunque les dejes determinado, designado y señalado el objeto con que pagar la deuda. Porque, como dice el dicho vulgar, el lobo puede comer de las ovejas contadas: así también tu heredero puede quedarse para sí un objeto que tú has señalado para otro: ¿Y por qué has de andar señalando y dando encargos a otro? Págalo por ti mismo, pues tú eres el que debes.

163 Dirás: es que no tengo con qué pagar. Si no tienes, nadie está obligado a lo que no puede. En este caso no estás obligado a pagar hasta que tengas poder de hacerlo. Ni estás obligado tampoco a pagar si el mismo acreedor te absuelve o perdona. Aún más, cuando el acreedor, no por la fuerza o porque no tiene otro remedio, sino voluntariamente, te concede una espera o plazo, entonces puedes demorar el pago hasta dicho plazo, pero no más. Pudiendo pagar, retener la cosa sin pagar contra la voluntad del dueño, es pecado.

NOLA OBRA OBLIGAZINOZKOAK, KONZIENTZIAZ ZOR DITUTZUNAK, ONDOKOETARA UTZI GABE, ZERORREK EGIN BEHAR DITUTZUN
KAP. XVIII

faboratu

162 Baldin obra miserikordiazkoak, nola baitira probeen faboratzea, biluzen beztitzea, gose, eta egarri denari, iatera, eta edatera emaitea, bat bederak berak bere eskuz, bizi dela, irabazi handirik egitekotz, egin behar

zenbatenaz

baditu: zenbatènaz berak bere eskuz ondokoetara utzi gabe, egin beharkoitu obra obligazinozkoak, iustiziaz-

ebatsi

koak, eta konzientziaz zor dituenak? Nola baitira ebatsien bihurtzea, zorren pagatzea, erauzi dituen falso testimonioen satisfatzea, eta eragin dituen kaltèn, eta gaixtakerien erremediatzea?

Baldin obra miserikordiazkoak zerorrek zeure eskuz egiten ezpadituzu, eta ez bertzeri ere eragiten, egia da, eztuzu orduan merezimendurik izanen, baiña ez bekhatu mortalik ere. Zeren obra miserikordiazkoak, hargatik deitzen dira miserikordiazkoak, eta ez iustiziazkoak, zeherstu ren zenbait behar ordu herstutan, eta premiazkotan baizen, ezpaikara obligatu heken egitera. Baiña obra iustiziazkoetan, diferentki mintzatu behar dugu. Zeren heken konplitzera obligatu gara bekhatu mortalen penan.

esleiturik

Eta eztuzu ez pensatu behar, ondokoetara utzteaz konplitzen duzula. Ez eta ondoko hei, zertzaz paga esleiturik, berezirik: eta seinalaturik utzten baderauezu ere. Zeren nola erran komuna den bezala, otsoak ian baitezake ardi kontatuetarik: hala zure ondokoak ere geldi dezake beretzat, zuk bertzerentazt seiñalatuetarik. Eta zertako ibili behar zara seiñalatzeketan, eta bertzeri

emanketan

kargu emanketan? Paga ezazu zerorrek, zeurk zor duzunaz geroztik.


163 Erranen duzu: Eztut ordea zertzaz paga. Baldin ezpaduzu, ezinak eztu legerik. Orduan etzara obligatu pagatzera, pagatzeko ahala dukezun arteiño. Ez eta etzara obligatu pagatzera, baldin hartzeko dunak berak kitatzen bazaitu edo barkhatzen baderatzu. Are gehiago,

hartzekodun

hartzeko dunak, ez ezin bertzez edo bortxaz, baiña bere nahiz eta borondatez, igurikitzen deratzunean, eta emai-

pagamendu

ten ephe, orduan luza dezakezu pagamendua ephe hartaraiño, baiña ez gehiago. Paga ahal dezakezula, pagatu gabe, iabearen borondatearen kontra, onaren edukitzea, bekhatu da.



Y esto se entiende tanto de la deuda sabida y reconocida como de la cosa robada y sustraída furtivamente. Se ha de pagar tanto la una como la otra.

Y no es bastante el reconocer la deuda, ni tampoco el que después en tu testamento, y al morir tengas deseo y voluntad de restituir y de pagar. Si pudieras, tú mismo mientras vives, y lo más pronto posible, debes pagar tu deuda y también restituir la cosa robada y futivamente sustraída. No basta dejar el encargo a los herederos. Así lo da a entender el *doctor Navarro*: "*Decedentes e vita, cum possint et* non restituunt, sed legant in testamento, non secure decedunt" (Navar. in Manuali de restitut. cap. 17 núm. 69). Los que al morir, pudiendo pagar no pagan, sino que lo dejan para sus testamentarios, albaceas y herederos, no hacen bien, estos tales no salen con conciencia segura de este mundo. Más todavía dice el doctor Navarro en el mismo lugar:

"Qui alienum injuste retinet, et scit illud se debere, si expectat donec condemnetur per justitiam, peccat mortaliter". El que sabe que es deudor y no quiere pagar hasta que la justicia le condene, comete pecado mortal.

164 Algunos, aunque reputan como pecado el retener sin pagar las cosas robadas, sin embargo no consideran pecado el demorar la deuda reconocida y confesada.

Dicen: Ya sé y ya sabe él que le debo, se lo reconozco, no se lo niego, y tengo deseo y voluntad de pagar. Te parece que si reconoces la deuda y tienes voluntad de pagar, con sólo esto ya has cumplido.

Pero te engañas. Porque por un lado la mera intención no es suficiente, ni tampoco la confesión de la deuda. Porque con tu intención, ni aún con tu confesión, poca utilidad recibe el acreedor, cuando en realidad no se paga. Y, por otro lado, el que pudiendo pagar estando sano, no quiere hacerlo hasta enfermar, da a entender que si no hubiera enfermedad y la enfermedad no trajera consecuencias, haría poco caso de ello. Y así se comprueba en los tales: porque cuando se libran de la enfermedad les parece que por aquella vez, hasta enfermar de nuevo, ya están seguros y libres de pagar.

Eta haur hain ongi aditzen da zor iakinaz, eta aithortuaz, nola gauza ebatsiaz, eta ixilik eramanaz. Hain ongi pagatu behar da bata nola bertzea.

aithorra eman

Eta, ezta ez asko, aithorraren emaitea, eta ez gero zeure ordenuan, eta hiltzerakoan, bihurtzeko eta pagatzeko, gogo eta borondate izaitea ere. Baldin ahal badezazu, zerorrek bizi zarela, eta ahalik eta fitetzena pagatu behar duzu zeure zorra, eta bai bihurtu ere gauza ebatsia, eta gaizki eramana. Ezta asko ondokoei kargu utztea. Hala emaiten du aditzera doktor Navarrok: *Decedentes e vita, cum possint et non restituunt, sed legant in testamento, non secure decedunt* (Navar. in Manuali de restitut. cap. 17, num. 69). Hiltzerakoan, berek paga ahal dezaketelarik, pagatzen eztutenek, baiña bere testamenteretara, ordeneretara, eta ondokoetara utzten dutenek, eztute ongi egiten, eztira halakoak bere konzientzietan mundu hunetarik segur partitzen. Gehiago dio Doktor Navarrok lekhu berean:

fitetzena

testamenter ordener

Qui alienum iniuste retinet, et scit, illud se debere, si expectat donec condemnetur per iustitiam, peccat mortaliter. Zordun dela dakienak eta iustiziaz kondena dezaketen arteiño, pagatu nahi eztuenak, bekhatu mortal egiten du.

khatu mortal

164 Batzuek bekhatu badaritzate ere, gauza ebatsien pagatu gabe edukitzea, ez ordea eztaritzate bekhatu, zor iakinari eta aithortuari luzatzea.


Erraiten dute: Badakit, eta badaki zor dudala, aithortzen diot, eztiot ukhatzen, eta badut pagatzeko gogo, eta borondate. Iduritzen zaitzu ezen baldin aithorra emaiten baduzu, eta pagatzeko gogo baduzu, hain bertzez konplitzen duzula.

enganatu

Baiña enganatzen zara. Zeren bataz gogoa bera ezta asko, eta ez aithorra ere. Zeren zure gogoaz eta aithorraz ere probetxu guti du hartzeko duenak, pagamendurik eztenean. Eta berriz bertzea, sendo dela pagamendua egin ahal dezakeielarik, eri arteiño egin nahi eztuenak, emaiten du aditzera, baldin eritasunik ezpaliz, eta eritasunak ondorerik ezpalu, kontu guti leidikeiela. Eta hala frogatzen da halakoetan: zeren eritasunetik eskapatzen direnean, iduritzen zaie ezen aldi hartakotz, berriz eri arteiño segur direla eta kito.

ondore

hartakotz kito



§ 1

165 Quieres tú que el descargo que tú debiste hacer y que no lo has hecho, lo haga tu heredero. ¿Es que piensas que tu dinero o hacienda, que tú dejas a tu heredero para pagar tu deuda y obligación, no se le hará al dicho heredero tuyo tan codiciable y sabroso como a ti? ¿No lo crees? ¿No crees que también él, lo mismo que tú, querrá en su tiempo disfrutar de él? Y que dirá para sí: Esta hacienda que me dejó a mí mi antecesor, tal vez la tenía adquirida de modo dudoso, injusta y malamente, y con todo no satisfizo, ni restituyó, sino que la tuvo siempre consigo. Pues bien, yo no estoy más obligado que él. Es verdad que él, como heredero suyo, me manda que la restituya: por tanto, también yo mandaré así a mi heredero. Pero mientras tanto, al igual que mi antecesor, quiero yo también disfrutar de ella, y retenerla en vida mía. Mira cómo con dejarlo el uno al otro no se hace descargo alguno. Y cómo asimismo por esta causa y de este modo tú te pierdes a ti mismo y pones a tu heredero en riesgo de perderse. Porque se corre el riesgo de que tampoco él haga los descargos como tú tampoco los hiciste. ¡Ah, cuántas misas gregorianas, cuántas obras relativas a los difuntos, cuántos descargos hay sin cumplir, por dejarlos el uno para el otro, y porque todos los dejan!

166 No viene mal a este propósito lo que cuenta un doctor que se llama Pedro Damiano (Petrus D. ep. 5 cap. 8 et refertur a S. Antonino 2 p. sum cap. 1 § 5). Dice este doctor que una vez un santo hombre vio en espíritu, como en sueños, una escalera en medio del fuego del infierno: y que en el primer peldaño y tramo de aquella escalera estaba un conde, un gran señor. Y que después vio igualmente siete condes, del mismo linaje, uno detrás de otro, que estaban todos en aquella misma escalera. Porque fueron uno en pos de otro herederos, sucesores y dueños de sus bienes y haciendas. Y lo que el primero adquirió mala e injustamente y dejó sin satisfacer, así el segundo, el tercero y también el séptimo lo dejó, ninguno de ellos hizo descargo alguno: y así todos, uno en pos de otro, se condenaron. Esto es lo que pasa también en el día de hoy entre algunas personas. Cometes latrocinios; y tú, o no haces caso o los dejas sin pagar, con la es-

[89] Galdera-saila, ez *othe* eta ez galderazko beste partikularik gabe.

§ 1

deskargu **165** Nahi duzu zuk ezen egin behar zenduen deskargua eta egin eztuzuna zure ondokoak egin dezan. Bada uste duzu, zure dirua edo hazienda zuk zeure ondokoari, zeure zorraren eta obligazionearen pagatzeko utzten diozuna, etzaikala zure ondoko hari ere zuri bezain on, gozo eta eder idurituko? Eztuzu uste? Eztuzu pensatzen, zuk bezala, hark ere bere denboran gozatu nahiko duela?[89] Eta erranen ere bai bere baithan: Niri neure aitzinekoak utzi derautan hazienda haur, nabaski, gaizki, eta bide gabeki beretakotua zuen, eta guztiarekin ere etzuen satisfatu, eta ez bihurtu. Bethi berekin eduki zuen. Bada ez naiz ni, hura baiño obligatuago. Egia da, hark, nola haren ondokoa bainaiz, manatzen nau bihur dezadala: hala bada manatuko dut nik ere neure ondokoa. Baiña bitartean ene aitzinekoak bezala, gozatu nahi dut nik ere, eta eduki neure denboran. Ikhusazu nola batak bertzeagana utziz, ezten deskargurik egiten. Eta nola halaber handik eta halatan zuk zeure burua galtzen duzun, eta zeure ondokoa ere galtzeko periletan ibentzen duzun. Zeren peril baita, zuk baiño gehiago eztuen hark ere deskargurik eginen. Ha zenbat trentena, zenbat arima-kari, zenbat deskargu dagoen egin gabe, batak bertzeagana utziz, eta guztiek utziz.


nabaski beretakotu halaber arima-kari

Pierres saindu pausu ethorki heredero primu

166 Ezta pontu hunetara gaizki heldu Pierres Damiano daritzan doktor batek kontatzen duena. Dio doktor hunek ezen behin gizon saindu batek ikhusi zuela bere espirituan, ametsetan bezala, ifernuko suaren erdian eskalera bat: eta eskalera haren lehen pausuan eta maillean zegoela konde bat. iaun handi bat. Eta gero ikhusi zituela halaber zazpi konde, ethorki berekoak, bata bertzearen ondoan, eskalera hartan berean zeudezilla. Zeren bata bertzearen heredero, ondoko, eta elkharren onen primu eta iabe izan baitziren. Eta lehenbizikoak gaizki eta bidegabeki beretakotu zuena, eta satisfatu gabe utzi; hala bigarrenak, hirurgarrenak, eta zazpigarrenak ere utzi baitzuen, ezpaitzuen batek ere deskargurik egin: eta halatan guztiak bata bertzeari zerraitzala kondenatu ziren (Petrus D. ep. 5 cap. 8 et refertur a S. Antonino 2 p. sum. cap. 1 § 5).

Iarraiki

Hala gerthatzèn da bada, egungo egunean ere iende batzuen artean. Egiten ditutzu ohoinkeriak, goraturik eta bortxaturik dadutzatzu bertzeren onak: eta zuk, edo eztuzu kasurik egiten, edo utzten ditutzu pagatu gabe



peranza de tu heredero, y aquél con la del suyo, y así sucesivamente los demás: y de este modo, dejando el uno para el otro, y dejándolos todos, se quedan los descargos sin hacer. No lo hizo así aquel rico Zaqueo cuando dijo: "Ecce dimidium bonorum meorum do pauperibus, et si aliquem defraudavi reddo quadruplum" (Lc 15). Doy a los pobres la mitad de mis bienes, y si a alguno he engañado, le devuelvo cuadruplicado. No dice "dabo", daré, no habla en futuro, dice en presente, "do", doy. Y si me ha ocurrido llevar algo malamente, aún aquello, por mi mano, mientras vivo, antes de enfermar, sin dejarlo a mis testamentarios y herederos, "reddo", yo mismo lo restituyo. De este modo, tanto las obras voluntarias como las obligatorias, las hacía por su mano. Y así las debe hacer todo el que quiera conseguir mérito grande y asegurar bien su conciencia.

167 He leído que en cierta ocasión un hombre tenía tres azores buenos y famosos. Y al morir, como tenía una deuda, dejó uno de ellos para pagar dicha deuda; el segundo, para un hijo que tenía; y el tercero para misas por su alma. Y luego, de allí a poco, se fue volando uno de aquellos azores y no volvió más: el hijo dijo que el azor que se fue era el que su padre había dejado para lo concerniente a su alma. No dijo que era el que había dejado para él. No estés, pues, esperando en tu heredero, ni te fíes de los descargos que él haga. Pues si tú, ahora que vives, no haces caso de tu alma, y si tú no remedias las faltas que tú mismo has hecho, no creas, no se te imagine, que después de ti, tu heredero lo vaya a hacer mejor que tú.

Todos queremos salvarnos, todos queremos ir al paraíso, y todos tenemos esperanza. Pero esperanza vana, ineficaz, y, al parecer, de poco provecho tiene. el que teniendo descargos por hacer y pudiendo hacerlos él mismo, los deja sin hacer, para que los hagan los herederos.

Cuando tenemos uno, queremos dos; cuando tenemos dos, tres. Bien o mal, a derechas o a torcidas, nos gusta recibir y aumentar, pero se nos hace duro y nos molesta el disminuir y el restituir: esto duele.

Pues bien: aunque duela, hay que restituir, hay que satisfacer. Y es mejor que vayas con uno al paraíso que con diez al infierno.

zeure ondokoaren esperantzan, eta bai hark ere berzerenean, eta hala hala bertzeak ere: eta handik, eta halatan, batak bertzeagana utziz, eta guztiek utziz, utzten dira deskarguak egin gabe. Etzuen hala egiten Zakeo aberats hark erraiten zuenean: *Ecce dimidium bonorum meorum do pauperibus, et si aliquem defraudavi reddo quadruplum* (Lc. 15). Neure onen erdiak emaiten derauztet probei, eta baldin nehor enganatu badut, bihurtzen dut laur doble. Eztu erraiten *dabo*, emanen dut, ezta geroko mintzo, presentean erraiten du, *do*, emaiten dut. Eta baldin deus gaizki eramaitera gerthatu bazait, hura ere neure eskuz, bizi naizela, eritu baiño lehen, neure ordeneretara eta ondokoetara utzi gabe, *reddo*, neurk bihurtzen dut. Hala borondatezko obrak nola obligazinozkoak berak bere eskuz egiten zituen. Eta hala egin behar ditu, nork ere nahi baitu merezimendu handirik erdietsi, eta bere konzientzia segurki seguratu.

bihurtu

laur doble

seguratu

167 Irakurtu izatu dut, ezen behin gizon batek zituela hirur aztore onak, eta famatuak. Eta bere azken finean, hetarik bata utzi zuela, zor bat baitzuen, haren pagatzeko; bigarrena, seme bat baitzuen, harendako; eta hirurgarrena, arima-kari, mezatan enplegatzeko. Eta gero handik fite, aztore hetarik bata ioan baitzen airaturik eta ez gehiago bihurtu: erran zuen semeak, ioan zen aztore hura zela, haren aitak arima-kari utzi zuena. Etzuen erran berarentzat utzi zuena zela. Etzaitezilla zeure ondokoaren esperanzan eta hark eginen duen deskarguan fida. Zeren baldin zerorrek bizi zarela zeure arimaz orai konturik egiten ezpaduzu, eta zeurk egin duzun falta, zeurk erremediatzen ezpaduzu, eztezazula, pensa, eztakizula iduri, gero zure ondotik zure ondokoak, zuk zerorrek baiño hobeki eginen duela.

Irakurtu

aztore

airatu


Guztiok nahi dugu salbatu, guztiok nahi dugu ioan parabisura, eta guztiok dugu esperantza. Baiña esperantza banoa, alferra, eta iduriz probetxu gutitakoa du, deskarguak egiteko dituelarik, eta berak egin ahal ditzakeielarik, egin gabe, ondokoetara utzten dituenak.

bano

Bat dugunean, bia nahi ditugu; bia ditugunean, hirur. Ongi edo gaizki, zuzen edo makhur, plazer zaiku hartzea, eta berretzea, baiña gaitz, eta gaitzi gutitzea, eta bihurtzea: hartan min hartzen da.

Bada min hartuko bada ere, bihurtu behar da, satisfatu behar da. Eta hobe da batekin zoazin parabisura, hamarrekin ifernura baino.

satisfatu



Y asimismo es preferible que dejes a tu hijo o descendiente poco, pero bueno, que no mucho y malo. Este poco y bien ganado, quiero decir este poco que le quedará una vez hechos los descargos y devuelto a cada cual lo suyo, luego se acrecentará, aumentará y prosperará; pero los otros bienes tendrán mal fin; los de la tercera generación poco gozarán de ellos.

Ve, pues, reflexiona a ver si tienes alguna deuda o bien ajeno mal apropiado; y pues se trata de cosas de obligación, y no facultativas, por encima de todo, mientras vives, tú mismo por tu mano, sin dejarlas al arbitrio y cuenta de otro, págalas, hazlas desaparecer. Porque de ese modo a tus hijos, herederos y sucesores los sacarás de un gran riesgo; y tú mismo, haciendo por adelantado los descargos, te pondrás desde ahora en una gran tranquilidad y en el camino de la salvación.

CUANTO DAÑO HACE EL JURAMENTO Y LA COSTUMBRE DE JURAR, Y COMO SE DEBE ABANDONAR CUANTO ANTES DICHA COSTUMBRE

CAPITULO XIX

168 Como nuestro primer padre con su pecado hirió, vició e hizo sujeta a enfermedades esta nuestra naturaleza, de ahí nos viene el ser tan quejumbrosos, gemebundos e indigentes. De allí nos viene el ser más inclinados y propensos al mal que al bien. De allí nos viene la ceguedad del entendimiento, la malicia de la voluntad y la debilidad de la memoria. De allí proviene asimismo el decir mentira, el no creerse mutuamente y el andar sin confianza, siempre recelosos. Lo cual es un gran daño para los que tienen que vivir en sociedad: tan grande, que el vivir recelando, sospechando y sin confianza,

[90] *Peskiza.* «Attente, esperance», Oihenart-ek dakarrenez. (RIEV IV, 231).

Eta hobe da halaber utz diazozun zeure umeari edo ondokoari guti, eta on, ezen ez anhitz eta gaixto. Guti hek, ongi irabazi hek, deskarguak eginik, eta nori berea errendaturik geldituko zaitzan aphur hek, sumatuko dira, berretuko dira, gurenduko dira: baiña bertze guztiek fin gaitz eginen dute: hetarik hirurgarren belhaunekoek guti gozatuko dute.

gurendu
belhaun

Ikhusazu bada, egizu gogoeta, ea, zorrik edo bertzeren onik, gaizki eramanik, baduzunz: eta hek obligazinozkoak baitira eta ez borondatezkoak, hek guztien gaiñetik, zerorrek bizi zarela, zeure eskuz, bertzeren peskizan,[90] eta esperantzan utzi gabe, paga itzatzu, iraungitzatzu. Zeren halatan zeure umeak, primuak, eta ondokoak peril handi batetarik atherakoitutzu: eta zerori ere, aitzinetik deskarguak eginik, aisia handi batean, eta salbamenduko bidean, oraidanik iarriko zara.

peskizan

aisia

ZENBAT KALTE EGITEN DUEN IURAMENTUAK, ETA IURAMENTU EGITEKO USANTZAK, ETA NOLA BEHAR DEN LEHEN BAIÑO LEHEN USANTZA HURA UTZI


KAP. XIX

narriatu
eritokitu
inzirinatsu

168 Nola gure lehenbiziko aita hark, gure naturaleza haur, bere bekhatuaz narriatu, arrazatu, eta eritokitu baitzuen, handik gara hain arrenkuratsu, inzirinatsu, eta on behar. Handik gara, ontasunera baiño gaixtatasunera eroriagoak, isuriagoak eta emanagoak. Handik dugu adimenduan itsutasuna, borondatean malizia eta memorian flakotasuna. Handik heldu da halaber, gezur erraitea, elkharren ez sinhestea, eta fidantzia gabe, bethi gogan behartsu ibiltzea. Zein baita kalte handia, elkharren artean bizi behar dutenentzat: hain handia, non gogan behartsu, idurikortsu, eta fidantzia gabe bizitzea,

memoria

ganbehartsu



no es vivir. Pues bien: para remediar este gran daño, encontró Dios un medio, que es el juramento. Cuando ves que no te quieren creer y que es preciso que te crean, haz entonces juramento, trae a Dios por testigo de tu decir, puesto que El no puede decir mentira y conoce todas las cosas. Para que así, a una con este testigo, presten fe y asentimiento a tu afirmación.

Por esto dijo el mismo Dios: "Dominum Deum tuum timebis et per nomen ejus jurabis" (Dt 6). Temerás a tu Dios y jurarás por su nombre.

No jurarás por los dioses falsos, porque con esto se le haría injuria al verdadero Dios, dando a otro el honor que a El se le debe. Porque como al jurar traes a Dios por testigo de tu palabra —pues esto es jurar: "jurare est Deum in testem adducere"—, y con ello das a entender que dicho Dios es verdadero y conocedor de todas las cosas, lo cual es un gran honor para Dios; no es razón que tal honor se dé a otro. Y así, en caso de jurar, debe jurarse por el Dios verdadero, y no de otro modo ni por ningún otro.

169 Es verdad que puede jurarse por el cielo, por la tierra y también por las otras creaturas (Vide S. Thom. 2. 2. q. 89 art. 6 ad 1), mas nunca tributando a éstas el honor que se debe a Dios, nunca dándole tal adoración, sino como creaturas de Dios y en cuanto que Dios tiene parte en ellas; así puede jurarse por ellas, mas no de otro modo.

Parece empero que ahora en la ley nueva no se puede jurar de ningún modo ni por nadie. Porque Dios mismo dice: "Ego autem dico vobis: non jurare omnino" (Mt. 7). Digan otros lo que quieran, mas yo os digo que de ninguna manera juréis. En conformidad con esto dice también el apóstol Santiago: "Ante omnia autem, fratres mei, nolite jurare, neque per caelum, neque por terram, nec aliud quodcumque juramentum. Sit autem sermo vester est, est, non, non" (Jac 7). Por encima de todas las cosas os recomiendo, mis amados hermanos, que no hagáis juramento alguno ni por el cielo, ni por la tierra ni por otro alguno; sino que vuestro lenguaje, conversación y modo de hablar sea: no, no, sí, sí. Por consiguiente parece que en manera alguna


ezpaita bizitze. Bada kalte handi hunen erremediatzeko, ediren zuen Iainkoak bide bat, zein baita iuramentua. Ikhusten duzunean, etzaituztela sinhetsi nahi, eta premia dela sinhets zaitzaten, dagizun orduan iuramentu, dagizun zin, ekhar dezazun zeure erranaren lekhuko Iainkoa, gezurrik ezin derrakeiena, eta gauza guztien berri dakiena.

Eta halatan lekhuko harekin batean eman diazazuten zeure erranean fede eta sinheste. Hunetakotzat erran zuen Iainkoak berak: *Dominum Deum tuum timebis, et per nomen eius iurabis* (Dt. 6). Izanen zara zeure Iainkoaren beldur, eta eginen duzu haren izenaz iuramentu.

Eztuzu eginen iuramenturik Iainko falsoez, zeren hartan bide gabe egin ziniazaio egiazko Iainkoari, hari dagokan ohorearen, bertzeri emaiteaz. Zeren nola iuramentu egiten duzunēan, ekhartzen baituzu Iainkoa zeure erranaren lekhuko (zeren hura da iuramentu egitea: *Iurare est Deum in testem adducere*; eta hartan emaiten
eglatl baituzu aditzera, Iainko hura dela egiatia, eta gauza guztien berri dakiena, zein baita ohore handia Iainkoarentzat); ezta arrazoin eman dakion ohorerik bertzeri. Eta hala iuramenturik egitekotz, egiazko Iainkoaz egin behar da, eta ez bertzela, eta ez bertzez.

169 Egia da, egin diteke iuramentu, Zeruaz, lurraz,
kreatura sainduez, eta bertze kreaturez ere: ez ordea hei Iainkoari dagokan ohorerik emaiten zaiela, halako agurrik egiten zaiela, baiña Iainkoaren kreatura bezala eta Iainkoak hetan parte duen bezala: halatan egin diteke hetzaz iuramentu eta ez bertzela (Vide S. Thom. 2 2ae, q. 89, art. 6 ad 1).

Ordea badirudi ezen orai legē berrion, ezin egin di-
ıolatan ere tekeiela, neholatan ere, eta nehortzaz ere iuramenturik. Zeren Iainkoak berak erraiten du: *Ego autem dico vobis non iurare omnino* (Mt. 7). Erran bezate bertzek nahi dutena, baiña nik diotsuet zuei, eztagizuela neholatan ere iuramenturik. Hunen arauaz èrraiten du Iondone
Iakue Iakue apostoluak ere: *Ante omnia autem, fratres mei, nolite iurare, neque per caelum neque per terram, nec aliud quodcumque iuramentum. Sit autem sermo vester est est, non non* (Jac. 7). Guztien gaiñetik gomendatzen deratzuet, neure anaia maiteak, eztagizuen batere iuramenturik, ez zeruaz, ez lurraz, eta ez bertzez: baiña
mintzaia biz zuen hitzkuntza, solhasa, eta mintzaia: ez, ez, bai, bai. Beraz hunelatan, badirudi, eztela bat ere, eta neho-



se debe hacer ningún juramento. Es verdad, así parece y así es. No se debe hacer ningún juramento, cuando no hay necesidad y cuando la verdad puede acreditarse de otro modo. Mas cuando hay necesidad y cuando no hay otro medio para demostrar la verdad, puede y debe jurarse. Porque el juramento se ordena por su origen, naturaleza y esencia a honrar a Dios; y por su fin e intención, a hacer valer la verdad y a disipar y dirimir los pleitos y diferencias. Así dice el rey David: "Laudabuntur omnes qui jurant in eo" (Ps. 62). Alabados serán los que juran por Dios. Y dice también San Pablo: "Homines per maiorem sui jurant et omnis controversiae eorum finis, ad confirmationem, est juramentum" (Hebr. 6). Los hombres juran por algo que es mayor que ellos, y el fin y término de todas las diferencias de ellos es el juramento. Porque una vez que se les lleva a jurar y se les hace jurar, no puede haber más pleito.

Y así el juramento es cosa buena, santa, y ordenada por el mismo Dios. Sin embargo, a pesar de ello puede cometerse pecado en el juramento. Porque también es cosa buena y santa el recibir el sagrado cuerpo, pero se entiende cuando se le recibe bien y santamente, y no en otro caso. Así, pues, también el juramento es cosa santa y buena cuando se hace bien.

§ 1

170 El juramento, para que sea hecho bien, a las derechas y como se debe, requiere tres cosas, tres acompañantes y sostenes: la verdad, la necesidad y la justicia. Así lo dice el profeta Jeremías: "Jurabis, vivit Dominus, in veritate et in iudicio et justitia" (Jer. 4).

Primeramente el juramento debe hacerse con verdad, y ciertamente con verdad, y no dudosamente. Porque el juramento que se hace de otro modo, aunque sea sobre la cosa más insignificante, será pecado mortal.

El jurar con mentira, aunque el mundo no lo tenga por tal, es pecado más grande que el robar los bienes ajenos, y mayor también que el unirse con cualquier mujer, porque el juramento afecta a Dios en persona, pero esos otros pecados no le alcanzan tan enteramente, no se le aproximan tanto. Si un rey pusiera la ley de que nadie, so pena de la vida, diera a nadie ningún sopapo, y con todo sucediera que alguno diera a alguno, ese tal haría

latan ere iuramẽnturik egin behar. Egia da, hala dirudi, eta hala da. Ezta bat ere iuramenturik egin behar, premiarik eztenean, eta egia bertzela froga ahal ditekeienean. Baiña premia denean, eta egiaren frogatzeko bertze biderik eztenean, egin diteke eta egin behar da iuramentu. Zeren iuramentua bere ethorkiz, naturaz eta izanez Iainkoaren ohoratzeko; eta bere finez, eta intenzionez, egiaren balia arazitzeko eta hauzien eta diferentzien iraungitzeko eta erabakitzeko ordenatua da. Halatan erraiten du errege Davitek: *Laudabuntur omnes qui iurant in eo* (Ps. 62). Laudatuak izanen dira Iainkoaz iuramentu egiten dutenak. Eta badio Iondone Paulok ere: *Homines per maiorem sui iurant, et omnis controversiae eorum finis, ad confirmationem, est iuramentum* (Hebr. 6). Gizonék, berak baiño handiagoaz egiten dute iuramentu, eta heken diferentzia guztien fina, eta akhabatzea, iuramentua da. Zeren iuramentura emanez gero, zin eraginez gero, ezin dateke, gehiago hauzirik.

ohoratu

Eta hala gauza ona, saindua, eta Iainkoak berak ordenatua da iuramentua. Ordea hargatik égin diteke bai iuramentuan bekhatu. Zeren gauza ona eta saindua da gorputz sainduaren errezibitzea ere, ordea aditzen da ongi eta sainduki errezibitzen denean, eta ez bertzela. Hala da bada gauza saindua, eta ona, iuramentua ere, ongi egiten denean.

sainduki


§ 1

170 Iuramentuak ongi, zuzentki eta behar den bidean egina izaiteko, behar ditu hirur gauza, hirur lagun eta sostengu: egia, premia eta zuzena. Hala erraiten du Ieremias profetak: *Iurabis vivit Dominus, in veritate, et in iudicio et iustitia* (Jer. 4). Lehenbizikorik, iuramentua behar da egin, egiaz, eta segurki egiaz, eta ez dudan. Zeren bertzela egiten den iuramentua, den gauzarik eztheusenaren gainean izanagatik ere, bekhatu mortal izanen da.

eztheus

Gezurrez iuramentu baten egitea, munduak hala ezpadaduka ere, bekhatu handiagoa da, lagunaren onaren ebastea baiño, eta bai edozein emazterekin parte izaitea baiño ere, zeren iuramentuak Iainkoa bera bere presunan utkitzen du, baiña bertze bekhatu hauk, eztiote hain arras emaiten, etzaitza hala hurbiltzen. Iben baleza Errege batek legea, eztioela nehork ere biziaren penan nehori behar-ondokorik emanen, eta guztiarekin ere gertha balekio zenbaiti, emaitera zenbaiti, halakoak bide gabe

ebatsi
presuna
arras
ehar-ondoko



injuria al rey, pues ha quebrantado su ley y mandamiento. Pero con más razón se la haría si diera el sopapo al mismo rey en su persona. Pues bien, así es el jurar con mentira: con ello se le toca a Dios mismo en su persona. Porque expresamente se trae a Dios por garante y testigo de la mentira, lo cual es un grande y feo pecado.

Por lo tanto, la primera cosa, cuando juras, es que debes hacerlo, no con mentira ni con duda. sino con verdad y sobre verdad, al menos en tu opinión.

171 En segundo lugar, aunque el juramento sea con verdad y sobre verdad, no se debe jurar precipitadamente, a la ligera, sin necesidad y sin mirar las circunstancias. Debe usarse del juramento como de la purga. Tomas la purga cuando es indispensable, cuando estás enfermo, cuando tienes necesidad; y aún entonces tomas de ella lo menos posible, y lo más tarde que se pueda; y si pudieras pasarte sin ella, ello sería sin comparación mejor. Así debe hacerse también el juramento cuando no hay otro remedio, por necesidad, cuando te conviene por tu honor y cuando la justicia te obliga y requiere a ello legítimamente. Porque de otra suerte, si es que profieres juramento cuando basta el no y el sí, aun cuando se sobre verdad, cometerás por lo menos pecado venial. No se halla que San Pablo jurase jamás más que por escrito. (Ita S. Thom. 2-2ae q. 89 art. ad 1). Porque la cosa que se escribe se piensa y considera mejor que lo que se dice al momento de palabra: y asimismo por esto se cometen también menos faltas. En tu opinión al menos debes jurar con verdad y con necesidad.

En tercer lugar: no basta jurar con la verdad y aun con necesidad; sino que debe hacerse el juramento sobre cosa buena y justa, y no con idea de cometer un mal. Cuando juras que vas a romper la cabeza a una persona o que le vas a hacer cualquier otro mal, pecas haciendo tal juramento y más aún pecas cumpliéndolo. Y si piensas o crees que estás obligado a cumplirlo, te cargas con un tercero.

Igualmente, cuando juras no hacer ciertas obras buenas, no dar nada al pobre, no prestar nada a nadie o no ayunar más que cuando estás obligado por la Iglesia, cometes cuando menos pecado venial al hacer tales juramentos, y no estás obligado a cumplirlos, y es mejor no cumplirlos.

91 Objetiboki gauza hala izanarren, bere ezjakinez hori hala dela uste izan badu eta kontzientziarekin arauaz obratu badu, bistan da ez zaizkiola hiru bekatu hoiek kontutan hartu behar.

liazaio Erregeri, zeren haren lege, eta manamendu hautsi baitu. Baiña areago egin liazaio, baldin Errege berari bere presunan eman baliazo. Hala da bada gezurrez iuramentu egitea: hartan Iainkoa bera bere presunan ukitzen da. Zeren Iainkoa izendatuki, gezurraren aithor eta lekhuko ekhartzen baita: zein baita bekhatu handia eta itsusia.

izendatuki

Beraz hunelatan iuramentu egiten duzunean, lehenbiziko gauza behar duzu egin, ez gezurrez eta ez dudan ere, baiña ustez bedere egiaz, eta egiaren gaiñean.

171 Bigarrena, egiaz, eta egiaren gaiñean ere, ezta ez berehala banoan, premia gabe, eta aitzin-gibel behatu gabe egin behar iuramentua. Usatu behar da iuramentuaz, purgaz bezala. Purga ezin bertzez, eri zarenean, premia duzunean hartzen duzu: eta orduan ere ahalik eta gutiena, eta berantena: eta baldin gabe, iragan albazindezi, ez luke hark bere parerik, are hura hobeago. Hala egin behar da bada iuramentua ere, ezin bertzez, premiaz, zeure ohoreaz dihoatzunean, eta iustiziak hartara zuzentki behartzen, eta errekeritzen zaituenean. Zeren bertzela, baldin ez eta bai asko den lekhuan, egiten baduzu iuramentu, egiaren gainean izanagatik ere, bekhatu benial bedere eginen duzu. Ezta edireiten egin zuela egundaiño Iondone Paulok iuramenturik eskiribuz baizen. (Ita S. Thom. 2-2-ae q. 89 art. ad 1). Zeren eskiribatzen den gauza, hobeki pensatzen eta konsideratzen baita, berehala solhasean erraiten dena baiño: eta bai halaber, halatan huts ere gutiago egiten. Ustez bedere egiaz eta premiaz behar duzu egin iuramentua.

berant

errekeritu


olhas erran

Hirurgarrena; ezta ez asko, egiaz, eta premiaz ere iuramentuaren egitea; baiña egin behar da gauza onaren eta iustuaren gaiñean, eta ez gaizki ẽgiteko kontuan. Egiten duzunean iuramentu hautsi behar diozula presuna bati burua, edo bertze gaizki bat egin behar diozula, bekhatu egiten duzu halako iuramentuaren egiteaz, eta are bekhatuago haren konplitzeaz. Eta baldin uste baduzu edo sinhesten baduzu, obligatu zarela konplitzera, hirurgarren batez kargatzen zara.[91]

kargatu

Halaber egiten duzunean iuramentu, zenbait ongiren ez egiteko, probeari ez deus emaiteko, nehori ez deus prestatzeko, edo elizaz obligatu zarenean baizen ez barurtzeko, bekhatu egiten duzu halako iuramentuen egiteaz, benial bedere, eta etzara obligatu heken konplitzera, eta hobe ez konplitzea.

barurtu



Asimismo haces otros juramentos acerca de cosas que no importan nada, pues que con quebrantarlos no viene perjuicio ni de cumplirlos se sigue provecho, como es que al sentarte en la mesa no te sentarás el primero; al entrar en casa no entrarás el primero; al beber no beberás el primero.

172 En hacer juramentos de éstos no hay pecado, por lo menos mortal, ni tampoco en no cumplirlos. San Pedro dijo formalmente y como haciendo juramento, a su maestro: "Non lavabis mihi pedes in aeternum": No me lavarás tú a mí jamás los pies. Con todo, dejó que se los lavara, y con ello no cometió pecado (Jo 13). Porque con esta clase de juramento se da a entender que por lo que respecta a nosotros así lo quisiéramos por deferencia. Pero, no obstante, podemos dejar que nos venzan, como lo hizo San Pedro.

Y porque unos juramentos son sobre cosas de presente y otros sobre cosas futuras, en todos se precisa la verdad. Y los de cosa futura se deben hacer sobre cosa buena, sin malicia, sin engaño y con intención de cumplir: a no ser que con cumplirlo se origine o manifieste algún daño que anteriormente nadie pensaba: como se manifestó en el juramento que hizo Herodes. Herodes, tal vez sin tener ningún designio malo, prometió con juramento a una joven bailarina que le daría todo lo que le pidiese. Y aún entonces este juramento era bueno; pero después, cuando le pidió la cabeza de San Juan Bautista, perdió el juramento la fuerza, ya no se debía cumplir.

Asimismo hay otros juramentos, algunos de amenaza, y también de maldición, que los padres hacen a sus hijos y los amos a sus criados. Todos ellos son pecado. Y muchas veces, aunque los de amenaza los hagan sin deseo de que se cumplan y aunque las maldiciones sean de mera palabra, porque no quisieran que tales cosas les ocurrieran, particularmente a sus hijos; pero a pesar de eso, todos éstos son pecado. Porque por un lado y dejando ahora otras consideraciones, de ahí aprenden los hijos a maldecir y a blasfemar también ellos: y por otro lado, porque las maldiciones de los padres muchas veces

Halaber egiten baititutzu bertze iuramentu batzuk, deus balio ẽztuten gauza batzuen gaiñean, ezpaita heken hautsteaz kalterik eta ez konplitzeaz probetxurik, nola baita mahaian iartzean etzarela lehenik iarriko, etxean sartzean, etzarela aitzinean sarthuko: edatean eztuzula lehenik edanen.

172 Hunelako iuramentu hauken egiteaz, ezta bekhaturik, behintzat mortalik, eta ez, ez konplitzeaz ere. Iondone Petrik erran baitzioen zin zinez iuramentu eginik bezala, bere nabusiari: *Non lavabis mihi pedes in aeternum* (Jo. 13). Ezterauzkidatzu sekulan zuk niri oinak garbituko. Utzi zẽrautzan, guztiarekin ere, garbitzera, eta etzuen hartan bekhaturik egin, zeren hunelako iuramentu hautan emaiten da aditzera, geure aldetik denaz bezan batean kortesiaz, hala nahi gendukeiela. Ordea utz ditzakegu geure buruak, bekhaturik egin gabe, benzutzera, Iondone Petrik utzi zuen bezala.

nabusi

benzutu

Eta zeren iuramentu batzuk baitira prẽsenteko gauzez, bertze batzuk ethorkizunekoez, guztietan behar da egia. Eta ethorkizunekoak behar dira egin, gauza onaz, maliziarik gabe, enganamendurik gabe eta konplitzeko borondatearekin: baldin konplitzeaz, zenbait kalte, nehork lehen uste etzuenik, sortzen eta agertzen ezpada: nola agertu baitzen Herodesek egin zuen iuramentuan.

Herodesek, benturaz gogoan gaitzik etzedukala, prometatu zioen, iuramentu eginik neskatxa dantzari bati, emanen zioela eska zedin guztia.

Eta oraino orduan, on zen iuramentua. Ordea gero eskatu zeikanean Iondone Ioannes Baptistaren buruaren, galdu zuen iuramentuak indarra, etzen konplitu behar.


Halaber badira bertze iuramentuak, batzuk mehatxuzkoak, eta bai maradizinozkoak ere, aita amek bere umei eta nabusiek ere bere sehiei, ẽgiten deraustezatenak. Hek guztiak dira bekhatu. Eta anhitzetan ere mehatxuzkoak, konplitzeko borondaterik gabe egiten badituzte ere, eta maridizioneak ere ez hitzez baizen, zeren ezpailukete nahi halakorik, guztiz ere heken umei gertha lekien.

aradizinozko

sehi

Ordea guztiarekin ere, guztiak dira bekhatu. Zeren bataz, bertzeak bertze direla, handik ikhasten dute umek ere maradizino egotzten ete burho egiten: eta berriz bertzea, zeren burhasoen maradizioneak anhitzetan heltzen

maradizino egotzi



les alcanzan a los hijos, y quedan malditos, como quedó maldito uno de los hijos de Noé.

§ 2

173 Lo peor, lo más pernicioso y peligroso que hay en el jurar es la costumbre. El traer el juramento en la boca sin ninguna necesidad, sin reparar si se habla verdad o mentira, por cada palabra que se dice, lo mismo que se sirve del palo o bordón en la mano para apoyarse y apuntalarse en cada paso. ¿Quién no se asustará y espantará de decir y oír "sí, por la pasión de Dios", "no, por la sangre de Dios" en cosas en que basta el no y el sí? ¿A quién no se le pondrán los pelos de punta? Al menos el Espíritu Santo dice esto: "Loquela multum iurans horripilationem capiti statuet et irreverentia ipsius obduratio aurium" (*Eccli* 27). *El jurar a cada paso, el* hablar siempre con maldiciones, pone de punta los pelos de la cabeza y las gentes honradas, por no oír tales cosas, se tapan las orejas, vuelven la cabeza al otro lado.

El jurar y maldecir, el andar siempre perjurando y diciendo maldiciones es costumbre del infierno y lenguaje que se emplea en el infierno.

Y así como se reconoce a cada uno de dónde es por su lengua: el que habla francés, que es de Francia: y el que habla español, de España, así también por sus maldiciones y juramentos se le conoce de dónde es al que es del infierno. Y así como a San Pedro, cuando negó a su maestro le dijeron: "Tu ex illis es, nam loquela tua te manifestum facit" (Mt. 26). Es inútil que lo niegues, tú eres de ellos, eres de los discípulos de Jesucristo, se te conoce en el lenguaje; así también se le puede decir al maldiciente y al que tiene costumbre de jurar: "Tu ex illis es": *Tú eres de los del infierno, en tu lenguaje, en tus maldiciones y juramentos se te conoce.* Porque ese es lenguaje e idioma del infierno, esa es la lengua que allí se estila. Los que están en el infierno, por causa de los grandes dolores que tienen y no pudiendo sufrirlos, siempre están jurando, maldiciendo y blasfemando. Así lo dice San Juan Evangelista: "Blasfemaverunt Deum coeli prae doloribus et vulneribus" (Ap. 8).

174 Y así como los predestinados al cielo comienzan y se acostumbran desde ahora, estando aquí en la tierra, a practicar y aprender el oficio que ha-

92 *Bere nabusiaz u k h a t zuenean.* Kasu errejimenar Errejimen berbera harak pasarte hartan: *Bada eztu zu zuk ere zeure arraza ukhatu,* 4.

zaizte umei, eta gelditzen dira maradikatuak, Noeren semetarik bata maradikatua gelditu zen bezala.

§ 2

usantza makilla pordoinkatu

173 Iuramentuan den gauzarik gaixtoena, galgarriena eta perilosena da usantza. Premia gabe, egiaz ala gezurrez mintzo den behatu gabe, makillaren permatzeko eta pordoinkatzeko urrats guztiaz eskuan bezala iuramentuaren ere ahoan, hitz guztiaz minzatzeko, erabiltzea. «*Ez*» eta «*bai*» asko den lekhuan erraiteaz eta enzuteaz «bai Iainkoaren Pasionea», «ez Iainkoaren Odola», nor ezta ikharatuko? Nori etzaitza buruko illeak latztuko? Behintzat badio Spiritu Sainduak: *Loquela multum iurans, horripilationem capiti statuet, et irreverentia ipsius obduratio aurium* (Eccli. 27). Iuramentu anhitz egiteak, bethi burhoz minzatzeak, latzteintu buruko illeak, eta iende prestuek, halakorik ez enzuteagatik, beharriak hersteintuzte, burua bertze aldera itzultzen dute.

arneguz

Iuramentu anhitz egitea, bethi burhoz, arneguz eta maradizinoz egoitea eta minzatzea, ifernuko usantza da, eta hitzkuntza ifernuan usatzen dena.

Espaiñiako

Eta nola bat bedera bere hitzkuntzan baita ezagun nongo den: franzesez mintzo dena Franziako dela: eta espaiñolez mintzo dena Espaiñiako: hala da bada halaber bat bedera bere arneguetan eta iuramentuetan ezagun nongo den, ifernukoa dela. Eta nola Iondone Petriri bere nabusiaz ukhatu zuenean,[92] erran baitzioten: *Tu ex illis es, nam loquela tua te manifestum facit* (Mt. 26). Eztuzu zer ukhaturik, zu hetarik zara, Iesu Kristoren dizipuluetarik zara, zure mintzaian ezagun zara: hala erran ahal dakidikaio arnegariari eta iuramentu egiteko usantza duenari ere: *Tu ex illis es.*


arnegari

lengoaia

Zu ifernukoetarik zara; zeure minzatzean, arneguetan, burhoetan eta maradizionetan ezagun zara. Zeren hori da ifernuko ērdara, lengoaia, eta hitzkuntza, han eta hangoen artean usatzen dena. Ifernuan daudenak, hango dolore handiak direla kausa, hek ezin pairatuz, bethi daude arneguz, iuramentuz, burhoz eta maradizinoz. Hala erraiten du Iondone Ioannes Ebanjelistak: *Blasfemaverunt Deum coeli prae doloribus et vulneribus* (Ap. 8).

Ioannes

174 Eta nola parabisuratzen direnak, usatzen baitira eta hasten oraidanik, hemen lurrean, gero zeruan egi-



rán después en el cielo: alabar a Dios; así también los precitos para el infierno comienzan desde ahora a hacer el oficio del infierno, que es echar maldiciones.

Verás que los padres y los amos y amas de casa consienten a sus hijos, criados y a toda la familia que hagan todos los juramentos que quieran sin fruncir el ceño ni dar muestra de que esto les causa sentimiento alguno. Estos tales son como los escribas y fariseos, que consentían a sus domésticos y a todos los demás cuando hacían a Jesucristo nuestro Salvador y a su santo nombre tantas burlas y escarnios.

Mal fin tuvieron aquellos y así lo tendrán también todos sus semejantes. Porque una de las señales más grandes de ir al infierno es el tener costumbre de jurar. Los que tienen esta costumbre, tal vez tienen cierta vergüenza para confesar otros pecados, pero no tienen ninguna para decir que han jurado.

Estos tales, cuando vienen a confesarse y se les pregunta a ver qué pecados han cometido, en seguida, como jactándose, o como si fuera cosa honrosa, ponen los juramentos en la proa, en el principio o comienzo. ¡Ah Dios, tócalos tú, remédialos tú, porque de otra suerte están perdidos!

§ 3

175 El honor de Dios y el de su santo nombre están de tal manera relacionados entre sí que si el primer mandamiento está puesto para velar por el honor de Dios, el segundo a su vez trata del que se debe a su santo nombre.

Grande es el honor que debe tributarse al santo nombre de Dios, la veneración que se le debe dispensar y la alabanza que se le debe dar. Por lo tanto, se sigue que ha de ser asimismo grande y feo el pecado y la grosería que se comete empleando dicho santo nombre ligeramente, sin necesidad y sin reparar si se habla con verdad o con mentira. Si vieras que un hombre, cogiendo del altar el cáliz de decir misa, daba en él de beber a cualquiera, a los desarrapados y pobres que se presentan y a gentes de toda estofa y en cualquier esquina, ¿qué es lo que dirías? Por lo menos dirías que eso es un flagrante luteranismo, un crimen horrendo, y que no sabes qué castigo se debe dar a este tal.

[93] *Sendagaillaz bezala* = be
re burua laudatuz, espantu
ka. Gaztelaniaz, «haciend
alarde, jactándose».

nen duten ofizioaren egiten eta ikhasten, Iainkoaren laudatzen: hala ifernurako direnak ere, hasten dira, orai beretik, ifernuko ofizioaren egiten, arnegatzen eta maradizino egotzten.

arnegatu

burhaso familia beltzuri

Ikhusiko duzu, burhasoek eta nabusi-etxekoandrek, bere semealaba, sehiak eta etxeko familia guztia, hargatik beltzuri bat ere egin gabe, eta hartan bat ere damurik hartzen dutela iduririk egin gabe, nahi duten iuramentu guztien egitera utzten dituztela. Hek eta halakoak dira eskriba fariseoak bezala, zeiñek konsentitzen baitzuten, egin ziazoten Iesu Kristo gure Salbatzailleari eta haren izen sainduari, heken etxekoek eta bertze guztiek hanbat irri eta eskarnio.

Fin gaitz egin zuten hek, eta hala eginen dute, hala diren bertze guztiek ere. Zeren ifernura ioaiteko seiñale handietarik bat da iuramentu egiteko usantza izaitea. Usantza hura dutenek, agian badute zenbait ahalke bertze bekhatuen kofesatzeko, baiña ez bat ere iuramentu egin dutela erraiteko.

agian

Halakoak kofesatzera ethortzen direnean, eta galdegiten zaienean, ea zer bekhatu egin duten, berehala, sendagaillaz bezala[93] eta ohore bailliz bezala, iuramentuak ibenzeintuzte brankan, lehenbiziko hastean. Ha Iainkoa, zuk ukitzatzu, zuk erremedia itzatzu halakoak, zeren bertzela egin du hekenak.

ankan ibeni


§ 3

175 Iainkoaren beraren ohorea, eta haren izen sainduarena hain dabiltza elkharganik hurbil, ezen baldin Iainkoaren ohoreaz ibentzen bada lehenbiziko manamendua, halaber haren izen sainduari dagokanaz, minzatzen baita bigarrena.

Handia da Iainkoaren izen sainduari ekharri behar zaikan ohorea, egin behar zaikan agurra, eta eman behar zaikan laudorioa. Beraz hunelatan, handia izanen da halaber, eta itsusia izen saindu haren, banoki, premia gabe, eta egiaz ala gezurrez mintzo den konturik egin gage erabiltzeaz egiten den bekhatua eta deskortesia. Baldin ikhus bazeneza ezen gizon batek, meza erraiteko kaliza, aldaretik harturik, hartan nori nahi den, ageri diren arlote, errumes eta bertze iende suerte guztiei emaiten derauela kantoin guztietan edatera, zer othe zenerrake? Gutienean bazenerrake hura dela luthertasun handia, gauza itsusia, eta eztakizula zer gaztigu ordena halakoari.

laudorio banoki

luthertasun



Pues bien: cosa más excelente y que merece mayor honor es el santo nombre de Dios, que no el cáliz. Y con todo, tú no sabes qué castigo imponer al que trata el cáliz de la manera que se ha dicho: ¿qué castigo impondrás, por tanto, al que tiene la costumbre de tratar el santo nombre de Dios tan a la ligera, tan desaprensivamente y con tan poca *consideración*?

Jurar no es otra cosa que invocar y poner por testigo a Dios para hacer que nos crean la cosa que decimos. Si en todas las palabras necias que pronuncias, invocases por testigo a un rey o a un gran señor, merecerías, sin duda, que te dieran cualquier castigo, porque esto sería tener poca consideración de dichas personas. ¿Qué merecerás, pues, y qué castigo será razón que se te dé, cuando para esto mismo, para todo lo que mentas, invocas por testigo al Rey de todos los reyes y al Señor de todos los señores, como lo haces cuando juras? No puede ponderarse cuán grande es la injuria que con ello se le hace a Dios; ni el mal y daño que el propio pecador se acarrea a sí mismo.

Por eso dice el Espíritu Santo: "*Non assuescat* juramento os tuum, multi enim casus in illo" (Eccli 25). Cuida de que tu boca no se acostumbre al juramento, porque en ello se encierran muchos reveses, accidentes y peligros.

176 Así como el que mucho habla corre peligro, si no es una vez, en otra, de equivocarse y hablar mal, así también el que jura muchas veces, corre peligro de hacer mal algunos juramentos. Tanto, que el que tiene costumbre de jurar sin mirar ni tener en cuenta de cuándo habla con verdad y cuándo con mentira y estando resuelto y dispuesto a jurar lo mismo sobre la verdad que sobre la mentira; este tal, cada vez que jura de este modo comete pecado y se pone a sí mismo en el camino del infierno.

Por esto Salomón, como quien sabía qué daños ocasionaba la costumbre de jurar, dijo: "Vir multum jurans replebitur iniquitate et non discedet a domo eius plaga" (Eccli 23). El que mucho jura se llenará de pecados y de maldad, y no se alejará de su casa la plaga, en ella se dará el accidente grave, ocurrirá lo que no procede.

Bada baldinba gauza handiagoa eta ohore gehiago merezi duena da Iainkoaren izen saindua, kaliza baiño.

Eta guztiarekin ere, eztakizu, erran den moldean kaliza erabiltzen duenari, zer gaztigu ordena: zer ordenatuko diozu bada Iainkoaren izen saindua, hain deblauki, antsikabeki eta kontu guti eginik erabiltzeko usantza duenari?

deblauki

Iuramentu egitea da erraiten dugun gauzaren sinhets arazitzeko, Iainkoaren lekhuko deitzea, ekhartzea eta ibentzea.

lekhuko

Eta baldin erraiten ditutzun hitz ergel guztietan, dei bazeneza errege bat edo iaun handi bat lekhuko, merezi bazenduke eman liazazuten edozein gaztigu, zeren hura baillizateke halako presunez kontu guti egitea. Zer mereziko duzu, eta zer gaztigu izanen da arrazoin eman dakizun, hartako bereko, aiphamen guztietako, Iainkoa bera, Errege guztien Erregea, eta Iaun guztien Iauna, lekhuko deitzen duzunean, nola deitzen baituzu iuramentu egiten duzunean?

aiphamen

Ezin erran diteke, zein handia den hartan Iainkoari egiten zaikan bidegabea: eta bekhatoreak berak ere, bere buruari garraiatzen dioen damua eta kaltea.

garraiatu

Hargatik erraiten du Spiritu Sainduak: *Non assuescat iuramento os tuum, multi enim casus in illo* (Eccli. 25). Begirautzu eztadilla zure ahoa iuramentura usat, zeren anhitz kasu, behatztopa eta peril da hartan.


176 Nola anhitz mintzo denak, peril baitu batean ezpada bertzean, bere hitzetan huts egiteko, eta errebelatzeko, hala iuramentu anhitz egiten duenak ere, du peril zenbait iuramenturen gaizki egiteko. Hain peril ezen iuramentu egiteko usantza duenak, behatu gabe eta konturik eduki gabe, noiz mintzo den egiaz eta noiz gezurrez, eta dagoenèan deliberatua eta prestik, egiaren gaiñean bezala orobat gezurraren gaiñean ere iuramentu egiteko: halakoak, hala iuramentu egiten duen guztiaz, bekhatu egiten du eta ifernuko bidean bere burua ibentzen du.

errebelatu

prestik

Handik Salomonek, ziakienak bezala, zenbat kalte zekharkeien iuramentu egiteko usantzak, erran zuen: *Vir multum iurans replebitur iniquitate, et non discedet a domo eius plaga* (Eccli. 23,12). Iuramentu anhitz egiten duena, betheko da bekhatuz eta gaixtakeriaz, eta ezta haren etxetik apartatuko plaga, han izanen da inkontru gaitza, edirenen da behar eztena.

plaga



Y, en efecto, si reparamos bien, hallaremos que la persona maldiciente aún en este mundo suele sufrir muchos accidentes desgraciados y por causa de sus maldiciones cae en otros muchos pecados y por último tiene un fin totalmente desastrado.

§ 4

177 Gran pecado es, y pecado sin utilidad alguna, el juramento y la costumbre de jurar. Todavía el robar o mezclarse con una mujer, no es tan de extrañar, pues en aquellos pecados hay algún provecho o placer. Pero en el juramento no hay provecho ni placer.

Asimismo el juramento es cosa de deshonor y que deshonra. Porque el que jura a cada palabra da a entender que es mentiroso, y que a sus palabras no se les puede dar crédito sin testigo. Así como si a un hombre, en todas las palabras que dice, alguien le contradijese, y le dijeran: "No te creemos, trae algún testigo", a este tal se le haría deshonor: del mismo modo, el que en toda palabra jura y quiere con juramentos probar sus afirmaciones, se deshonra a sí mismo. Porque viendo que él no merece crédito, aduce testigos (que son los juramentos), con el fin de que con éstos le crean.

Las personas honradas reciben pesar cuando no se da crédito a su sola palabra y cuando alguien les obliga a jurar. Y si a ti te obligan de ese modo, tuya es la falta, tú mismo eres el causante. Así lo dice San Crisóstomo: "Tu horum causa es, qui tam prompte et facile juras" (Chrys. hom. 9 in Act Apost. tom. 3). Precisamente porque juras tan ligera y fácilmente, por eso te hacen jurar tan frecuentemente. "Quod si hoc non esset, sed omnibus esset manifestum quod non jures, crede mihi dicenti quod vel solo nutu plus crederetur tibi quam iis qui multa juramenta dederant" (Chrys. ibid. 5). Si el mundo viera que jamás juras ni dices mentira, sino que siempre hablas con verdad y tuvieras fama de ello, créeme, dice San Crisóstomo, que entonces se daría más crédito a tu palabra simple y sencilla, y aún a tu gesto y ademán, que a los que profieren muchos juramentos y maldiciones. Pero como eres

presuna

Eta hala baldin kontua ongi edukitzen badugu, edirenen dugu, ezen presuna arnegariak, are mundu hunetan ere, anhitz inkontru gaitz izaiten duela, eta arnegu hek direla kausa, anhitz bertze bekhatutan ere erortzen dela, eta azkenean, alde guztiz fin gaitz egiten duela.

§ 4

177 Bekhatu handia da, eta probetxu gabekoa iuramentua, eta iuramentu egiteko usantza.

parte izan


Oraiño ebastea edo emazte batekin parte izatea, ezta hain miretsteko, zeren hetan bada zenbait probetxu edo plazer. Baiña iuramentuan ezta probetxurik, eta ez plazerik.

Halaber gauza desohorezkoa eta desohoragarria da iuramentua. Zeren hitz guztiaz iuramentu egiten duenak, emaiten du aditzera, gezurtia dela; eta haren erranei lekhukorik gabe. sinhesterik ezin eman dakidikeiela. Nola baldin gizon bati, erraiten dituen hitz guztietan nehor kontra balekio, eta erran baliazote; «etzaitugu sinhesten, ekhartzu zenbait lekhuko», desohore eman bailliazaiote. Hala hitz guztiaz iuramentu egiten duenak: eta iuramentuez bere erranak frogatu nahi dituenak ere, emaiten dio bere buruari desohore. Zeren ikhusirik eztela bera sinhesteko, ekhartzen baititu lekhukoak, zein baitira iuramentuak, hekin batean sinhets dezaten amoreakgatik.

kontratu

Iende prestuek damu hartzen dute heken hitz sinpleari sinheste emaiten etzaikanean, eta iuramentu egitera, nehork behartzen dituenean. Eta baldin zu hala behartzen bazaituzte, zeurk duzu falta, zerori zara kausa. Hala erraiten du San Krisostomok: *Tu horum causa es, qui tam prompte et facile iuras* (Chrys. hom. 9 in Act. Apost. tom. 3). Zeren hain prestki eta erraxki egiten baituzu iuramentu, halatan hain maiz behartzen zaituzte. *Quod si hoc non esset, sed omnibus esset manifestum quod non iures, crede mihi dicenti, quod vel solo nutu plus crederetur tibi quam iis qui multa iuramenta dederant* (Chrys. ibi. 5). Munduak balekusa eztuzula bat ere iuramenturik egiten eta ez gezurrik erraiten, baiña bethi egiaz mintzo zarela, eta fama hartan bazeneunde, sinhets nazazu, dio San Krisostomok, ezen orduan, zure hitz sinpleari eta bakhunari, eta are kheinuari eta aieruari ere sinheste gehiago eman lekidikaiola, anhitz arnegu eta iuramentu egiten dutenei baiño. Baiña nola

bakhun aleru



mentiroso y tienes fama de tal, por eso no te creen; y por eso, para hacer que crean tus mentiras, tú mismo profieres tantas blasfemias y juramentos.

178 Pero cuanto más juras tú, yo menos te creo. Porque el que no tiene reparo en mentir, tampoco lo tendrá en jurar con mentira. Y una vez que se les ha cogido en mentira (como con frecuencia se les coge a los perjuros), después ya no se les da crédito a esos tales. Este es el castigo del mentiroso: que no se le cree cuando dice la verdad. Y no merece que se le crea. Porque, como dice el refrán popular: el que hace un cesto, puede hacer ciento: el que dice una mentira, lo mismo puede decir más.

Aunque San Pablo Apóstol se convirtió tan de veras como todo el mundo sabe, y con una gran santidad comenzó a predicar, con todo, la primera vez que fue a Jerusalén los demás Apóstoles huían de él, no se fiaban, porque pensaban que era el de antes, y que seguía siendo enemigo de ellos. Así es también el mentiroso, el que una vez ha sido sorprendido en la mentira, y también todo el que ha caído en cualquier otra falta. A partir de este momento, a este tal no se le suele dar ni se le debe dar crédito hasta mucho después, hasta que se acredite un poco de nuevo.

Ni se le debe dar absolución y perdón al que después de prometer al confesor una, dos y más veces que ha de dejar la mala costumbre de jurar, vuelve a confesarse de nuevo sin ninguna enmienda, continuando con dicha costumbre.

Así como el que vive con una querida o retiene cosas robadas a otro no puede ser absuelto hasta que deja a la querida o restituye, si es que puede, lo ajeno, así también el que tiene costumbre de jurar no puede ser absuelto mientras persevera con dicha costumbre, hasta que se esfuerce por abandonarla. "Quia tunc est in statu peccati". Porque entonces se encuentra en la morada, estado y habitación del pecado.

Y así recapaciten los confesores qué es lo que hacen cuando les vienen a sus rodillas personas de esta clase, pues no es negocio fácil. Parece que lo mejor sería mostrarles primeramente y darles a entender en qué grave peligro se encuentran: y después diferirles un poco la absolución y decirles que se va-

baitzara gezurti eta fama hartan baitzaude, halatan etzaituzte sinhesten: eta halatan zerorrek ere, zeure gezurrak sinhets arazi nahiz, hanbat arnegu eta iuramentu egiten duzu.

178 Baiña zenbatenaz eta zuk iuramentu gehiago, hanbatenaz nik gutiago sinhets. Zeren gezurraren erraitera herabe eztuenak, eztu gezurraren gaiñean iuramentu egitera ere herabe izanen. Eta behin gezurrean frogatuz gero (nola iende iuramentutsuak maiz frogatzen baitira), etzaie handik harat halakoei sinhesterik emaiten. Zeren haur da gezurtiaren gaztigua, egia erraiten duenean eztadin sinhets. Eta eztu merezi ere sinhets dadin. Zeren erran komuna den bezala, otharre bat egiten duenak egin ditzake ehun ere, gezur bat erraiten duenak, baderrake gehiago ere.

frogatu

otharre

Iondone Paulo Apostolua, munduak dakien bezain fintki konbertitu bazen ere, eta saindutasun handi batekin hasi predikatzen; guztiarekin ere Ierusalemera zen lehenbiziko aldian ihesi zihoazkon bere lagun Apostoluak, etzeitzan fidatzen, zeren uste baitzuten ezen lehena zela, eta lehen bezala, heken kontra zebillala.

saindutasun

Hala da bada gezurtia, behin gezurrean frogatu dena, eta bai edozein bertze faltatan erori dena ere.

Etzaika handik harat halakoari beranduraiño, aphur bat froga arteiño, sinhesterik emaiten, eta ez eman behar ere.

absolbazino biatan kofesor


Ez eta etzaika absolbazinorik, eta barkhamendurik eman behar behin, biatan, eta gehiagotan bere iuramentuen egiteko usantza gaixtoa utziko duela kofesorari prometatuz gero, bat ere utzi gabe, bere leheneko usantzarekin berriz kofesatzera bihurtzen denean.

amorante absolbatu

Nola amorantearekin dagoena, edo bertzerena ebatsirik dadukana, ezin absolba baititeke amorantea utz arteiño edo bertzerena ahal badeza, bihur arteiño, hala iuramentu egiteko usantza duena ere, ezin absolba diteke, usantza harekin dagoeiño, haren utztera enseia ditekeien arteiño. *Quia tunc est in statu peccati.* Zeren orduan bekhatuaren egoitzan, estatuan, eta tokian baitago.

Eta hala pensa bezate kofesorek zer hari diren halakoak belhaunetara ethortzen zaiztenean, zeren eztira egiteko gabe.

Eta badirudi, hoberena lizatekeiela behin erakustea eta aditzera emaitea zein peril handian dauden: eta gero aphur bat absolbazinoaren luzatzea, eta erraitea doha-



yan, y que vuelvan al cabo de unos quince días, y que en este intervalo se esfuercen por desarraigar su mala costumbre. Y después, cuando vuelvan, si es que se halla que le han desarraigado del todo y que se esfuerzan por vencerla, absolverles entonces, mas no en caso contrario.

§ 5

179 "¡Ah, gran Dios! ¡ay! ¿qué será de mí? Mi lengua está toda adentrada en la costumbre de jurar, totalmente entregada a ella, no sé hablar de otra manera. ¿Qué he de hacer, pues? ¿Cómo me corregiré?" Escucha lo que dice sobre este particular San Crisóstomo: "Malam jurandi consuetulinem ab ore nostro auferamus, fraenum imponamus linguae. Nullo hic sumptu opus est, nullus labor exigitur, non indiget magna temporis mora exercitatio, sufficit velle et totum factum est, res enim haec a consuetudine pendet" (Chrys. Hom. 26 ad pop. Anth. t. 5). Quitemos de la boca la costumbre de jurar, pongamos freno a la boca: que si lo queremos podemos. Porque para ello no es preciso hacer ningún gasto ni tomarse ningún trabajo ni emplear en ello mucho tiempo. Basta con quererlo, con esto solo se consigue, porque es cosa que proviene de la costumbre. Te has acostumbrado a hablar mucho, a jurar por cada palabra que dices: acostúmbrate ahora, en cambio, a dejar de jurar. Si es que lo quieres, puequieres.

des hacerlo, y si no lo haces, es señal de que no lo

Tal vez digas: "Yo lo quisiera, pero dame algunos remedios". El primer remedio sea que por la mañana tomes una resolución seria, firme y decidida de no jurar aquel día, de vigilar sobre tu lengua. Y si a pesar de ello te ocurre faltar, imponte a tí mismo una penitencia, como golpear el pecho, decir Jesús o hacer algunas obras buenas, y entonces, cuando así te empeñas, si la lengua se te resbala en fuerza de la costumbre y contra tu voluntad a proferir algunos juramentos, no cometes en ello pecado. Porque una tal acción es enteramente de la costumbre y no de la voluntad.

180 El segundo remedio para desarraigar la costumbre de jurar es que digas en vez de los juramentos: "Sí, por cierto", "no, por cierto", "así es", "no es así", "te digo la verdad, créeme". "no me obligues a más". Así solía expresarse nuestro


amortz zilla eta bihur ditezilla handik amorz egunen buruan; eta bitartean enseia ditezilla bere usantza gaixtoaren utztera. Eta gero bihurtzen direnean edireiten bada bat ere utzi dutela eta utztera enseiatzen direla, orduan absolba, eta ez bertzela.

§ 5

179 Ha Iainko handia, helas, zer izanen da bada nitzaz? Ene mihi guztia da iuramentu egiteko usantzan barrena sarthua, guztia da hartara emana, eztakit bertzela minzatzen. Zer eginen dut bada? Nola erremediatuko naiz? Adi ezazu zer erraiten duen pontu hunen gaiñean San Krisostomok: *Malam iurandi consuetudinem ab ore nostro aufferamus, fraenum imponamus linguae. Nullo hic sumptu opus est, nullus labor exigitur, non indiget magna temporis mora exercitatio, sufficit velle et totum factum est, res enim haec a consuetudine pendet* (Chrys. Hom. 26 ad popul. Anth. tom. 5). Iuramentu egi-
bridatu teko usantza ahotik khen dezagun, mihia brida dezagun: eta nahi badugu, badaidigu. Zeren ezta, hartakotzat, bat
trabaillu ere gasturik egin behar, ez trabaillurik hartu, eta ez denbora anhitz enplegatu. Asko da nahia, egin da hain bertzez, zeren egiteko haur usantzatik heldu da. Usatu zara anhitz minzatzen, hitz guztiaz iuramentu egiten, usat zaitezi bada orai, aldiz iuramentuen utzten. Nahi baduzu, badaidikezu, eta baldin egiten ezpaduzu, seiñale da, eztuzula nahi.

Erranen duzu: «Nahi nuke bada, eta indazu zenbait erremedio». Lehenbiziko erremedioa da hartzea goizean gogo eta borondate fin bat, deliberamendu deliberatu bat, egun hartan iuramenturik ez egiteko, mihiaz kontu edukitzeko. Eta baldin halarik ere, gerthatzen bazaitzu huts egitera, eman zeure buruari zenbait pena: bulha-
Iesus rrak io, erran Iesus, edo egin zenbait obra on. Eta orduan, hala enseiatzen zarenean, zeure nahigaberik, usan-
errekeritu iuramentu tzak errekeriturik, zenbait iuramenturen egitera mihia linburtzen bazaitzu, eztuzu hartan bekhaturik. Zeren hura guztia dateke usantzarena, eta ez borondatearena.

180 Bigarren erremedioa, iuramentu egiteko usantzaren utzteko, da erraitea, iuramentuaren orde, iuramentuaren lekhuan: «bai segur», «ez segur», «hala da», «ezta hala», «egia erraiten deratzut», «sinhets nazazu», «ez nazazula gehiagotara behar». Hunela minzatzen zen gu-



Salvador: "Amen amen dico vobis": En verdad en verdad os digo. Hazlo tú también así, y mantente sin proferir juramentos. Sin duda que te mantendrías si tuvieras la seguridad de ganar diez escudos el día que no juras. Pues bien: tu alma vale más que diez escudos.

Vaya, pues, lejos el juramento y el vicio de jurar, ese lenguaje propio del infierno, ese pecado estéril, sin provecho ninguno, que no sirve para nada más que para perder el alma. Y venga desde hoy mismo, sin diferirla para más tarde, la costumbre y la norma de hablar con verdad y de decir "no" y "sí", "no es cierto", "sí por cierto", desterrando todos los juramentos. Porque mientras te expreses de otro modo, sábete que vives en gran peligro, que vas por el ancho camino del infierno, y que en la hora postrera te has de ver en trance difícil.

CUANTO DAÑO OCASIONAN LA COLERA Y ENEMISTAD Y COMO SE DEBE SALIR CUANTO ANTES DE LA ENEMISTAD

CAPITULO XX

181 Tirando constantemente en lo posible al blanco que desde el principio nos hemos propuesto, yendo en la prosecución, apuntando al mismo y encarándonos con él, hallaremos que este nuestro "Después" tiene también su asiento y morada entre las personas iracundas, rencorosas y pendencieras, que también entre éstas hace grandes estragos. Porque cuando rompes con un amigo, si al punto no cuidas de reconciliarte, sábete que cuanto más lo difieras, te será más costoso, te retraerás, alejarás y despreocuparás más. De tal suerte, que, como dice San Agustín: "Sicut festuca crescit in trabem, sic ira inveterata fit odium" (August. Homil. 5). Como la

re Salbatzaillea: *Amen amen dico vobis.* Egiaz egiaz erraiten deratzuet. Hunela mintza zaite bada zu ere, eta zaude iuramenturik egin gabe. Eta bazeneundeke, baldin iuramenturik egiten eztuzun egunean, hamar ezkuturen irabazteko segurantza bazendu. Bada baldinba, zure arimak, hamar ezkutu baiño gehiago balio du.

ezkutu

arima

Bihoa beraz urrun iuramentua eta iuramentu egiteko usantza, ifernuko hitzkuntza, bekhatu idorra, gozogabea, arimaren galtzeko baizen deus balio eztuena. Eta bethor egun beretik, geroko luzatu gabe, egiaz minzatzeko, eta iuramentu guztiak utzirik, *ez* eta *bai, ez segur, bai segur,* erraiteko usantza eta aztura. Zeren bertzela minzatzen zaren bitartean, iakizu ezen peril handian bizi zarela, ifernuko bide zabala daramazula, eta azken finean egiteko handitan izanen zarela.

idor

aztura

ZENBAT KALTE EGITEN DUTEN KOLERAK ETA ETSAIGOAK, ETA NOLA BEHAR DEN LEHEN BAINO LEHEN ETSAIGOATIK KANPORA
KAP. XX

181 Bethi ere, lehenbizitik hartu dugun xedeari, ahal bezanbat, authikitzen dioguela, hari iarraikitzen gatzaitzala, hartara destatzen eta enkaratzen garela, edirenen dugu gure gero hunek presuna herratsuen, errietatsuen eta haserrekorren artean ere baduela bere ostatua eta iarlekua, hetan ere kalte handiak egiten dituela. Zeren adiskide batekin hautsten duzunean, baldin berehala osatzera eta bat egitera enseiatzen ezpazara, iakizu ezen, gero eta gero gaitziago izanen zaitzula, gibelatukoago, urrundukoago, eta ezantsiatukoago zarela. Halako moldez ezen San Agustinek dioen bezala: *Sicut festuca crescit in trabem, sic ira inveterata fit odium* (August. Ho-

aurthiki

herratsu

gaitzi izan



planta se hace árbol, así también el enfado se hace odio. En conformidad con esto dice Séneca: "Optimum est primum irritamentum irae protinus spernere ipsisque repugnare seminibus" (Sen. lib. 2 de ira cap. 8). Cosa buena es vigilar el primer asalto, ímpetu e impulso de la cólera, precaverse para que dicha semilla no germine, crezca y fructifique. Por eso dice San Pablo: "Sol non occidat super iracundiam vestram" (Eph 4). Que el sol no se ponga sobre vuestro enfado. Quiere decir: "Non duret usque ad occasum solis" (Glos interl.). Que no dure hasta que el sol se meta: que no os vayáis a la cama con el deseo de vengaros: que acaben las diferencias de sol a sol. Porque de otra manera, así como el fuego pequeño se hace grande, también las diferencias irán creciendo cada vez un poco, y una vez crecidas será dificultoso el amenguarlas y apagarlas.

Así como con las cosas de nuestro agrado naturalmente nos gozamos y alegramos, así también con las desagradables y adversas nos entristecemos y enfadamos. Y tanto nos enfadamos, que entonces no solemos poder estar (siguiendo el impulso de la carne) sin encolerizarnos, sin agriarnos y sin deseo de vengarnos.

Así como la oveja con la vista del lobo se espanta, se apura, se turba, se impresiona y se conmueve: lo mismo nos pasa también a nosotros al encontrarnos y juntarnos con el enemigo. Entonces, según el impulso de la carne, no podemos estar sin enfadarnos, sin experimentar dolor y sin hervir por dentro. En conformidad con esto, dice San Crisóstomo: "Caro quidem diligere inimicum non potest, quia dilectio vel odium carnis in sensu est, animae vero in intellectu. Propterea anima quidem secundum rationem vertitur, caro autem invertibilis in passione tenetur" (Hom. 13. tom. 2). La carne no puede amar a su enemigo ni puede estar sin sentir la injuria y sinrazón que se le hace. Pero el alma sí lo puede amar. Porque el alma posee la libertad: ella es dueña de sí misma. La carne, en cambio, no tiene libertad ni es dueña de sí.

§ 1

182 Así como hay dos odios: uno natural, de la carne, y otro libre, de la voluntad; así también hay dos amores, uno natural de la carne, y otro libre, de la voluntad. Nuestro Salvador experimentó respecto a la muerte una aversión natural: natural-

gaitzerizkoa

narritamendu

hozitu

ohe mendekatu

gogarako desgogarako

Inkontratu

Irakitu

desarrazoin

mil. 5). Landarea zuhaitz bezala, haserretasuna ere egiten da gaitzerizkoa. Hunen arauaz erraiten du Senekak ere: *Optimum est, primum irritamentum irae protinus spernere, ipsisque repugnare seminibus* (Senec. lib. 2 de ira cap. 8). Gauza ona da koleraren lehenbiziko narritamenduari, mugidari eta abiadurari begiaren edukitzea, hazi haren hozitzetik, sorzetik eta bihitzetik begiratzea. Hargatik erraiten du Iondone Paulok: *Sol non occidat super iracundiam vestram* (Eph. 4). Eztadilla iguzkia eror zuen haserretasunaren gaiñean. Erran nahi du: *Non duret usque ad occasum solis* (Glosa interl.) Eztezala iraun iguzkia sar arteiño: etzoaztela oherat mendekatzeko desirarekin: akhaba diferentziak iguzkiz iguzki. Zeren berzela su ttipia handitzen den bezala, diferentziak ere aphur bana handituko dira, eta behin handituz gero, nekez ttipituko eta iraungiko dira.


Nola geure gogarako gauzekin naturalki bozten eta alegeratzen baikara, hala desgogarakoekin eta kontrakoekin tristetzen eta haserretzen gara. Hain haserretzen, ezen ezin baikarateke orduan behintzat haragiaren arauaz, koleratu gabe, sentikortu gabe eta mendekatzeko desira gabe.

Nola ardia otsoaren ikhusteaz latzten, larritzen, asaldatzen, izitzen eta ikharatzen baita: hala egiten gara gu ere etsaiarekin batzeaz eta inkontratzeaz.

Orduan haragiaren arauaz ezin garateke haserretu gabe, min hartu gabe, eta barrenean irakitu gabe. Hunen arauaz erraiten du San Krisostomok: *Caro quidem diligere inimicum non potest, quia dilectio vel odium carnis in sensu est, animae vero in intellectu. Propterea anima, quidem, secundum rationem vertitur; caro autem, invertibilis in passione tenetur* (Hom. 13, tom. 2). Haragiak ezin onhets dezake bere etsaia, eta ez sentitu gabe utz, egiten zaikan bide gabea eta desarrazoiña. Bai ordea arimak onhets dezake, zeren arimak libertatea du, bere burua bere eskuko du. Baiña haragiak eztu libertaterik, eta ez bere burua bere eskuko.

§ 1

182 Nola baitira bi gaitzerizkoa, bata naturala, haragiarena, eta bertzea librea, borondatearena: hala dira halaber, bi onherizte eta amorio: bata naturala, haragiarena, eta bertzea librea, borondatearena. Gure Salbatzailleak izan zuen heriotzearen alderakotzat gaitzeriz-



mente aborrecía la muerte, según la carne no quería morir. Y por eso hizo oración a su Padre, diciéndole: "Pater, si possibile est, transeat a me calix iste". Padre, si es posible, pase de mí ese cáliz: no reciba yo la muerte. Empero, juntamente con esta aversión natural tuvo amor libre. Porque libremente, por su querer y voluntad, murió. Y en este caso se pone de manifiesto que pueden coexistir a la vez la aversión natural y el amor libre. Podemos tener aversión hacia el enemigo junto con amor. Y el odio libre, que es de la voluntad, es comúnmente pecado: no el natural, que es de la carne.

Un malvado ha matado a tu padre y a ti mismo te ha hecho mil jugadas, maquinaciones y maldades: en consecuencia no es posible que no sientas odio natural. Con todo, este odio natural no te quita el amor libre, no obliga a la voluntad a odiar ni te imposibilita para perdonar y hacer bien a aquel malhechor, a pesar de ello tu voluntad sigue libre.

Y así, muchas veces hacemos el bien a quien nos ha hecho el mal. Y así también el mandamiento de amar al enemigo se lo dio Dios al alma, al poder libre del alma; no se lo dio a la carne ni al apetito de la carne. Y por eso, cuando te hacen una injuria, te sobreviene por un lado un movimiento, un impulso y un deseo grande de vengarte y de devolverle la partida. Y, en cambio, por otro lado, considerando bien la cosa y mirando todos los aspectos, desistes de tomar venganza: entonces la carne es la que se enfada, pero el alma no. Así lo dice San Crisóstomo: "Quando ergo homo irascitur et non vult facere quod ira compellit, caro eius irata est, animus autem non est iratus" (Chrys. Hom. 13 t. 2). Y esta es precisamente la guerra temible que existe entre el alma y el cuerpo, entre el espíritu y la carne, y también la victoria gloriosa: que lo que el uno aborrece, el otro ame.

183 La aversión natural de la carne, el primer movimiento de la carne, "Primus motus", ese impulso y acometida de la carne a enfadarse y vengarse, hecho brevemente y sin reflexión, él solo, sin más, no es pecado. Para que sea pecado, también la razón debe tener parte e intervención, la voluntad debe decidir y consentir.

arauaz

koa naturala, naturalki gaitzesten zuen heriotzea, haragiaren arauaz etzuen hil nahi. Eta halatan egin zioen othoitz bere aitari, erraiten zioela: *Pater, si possibile est transeat a me calix iste.*

Aita baldin posible bada, iragan bedi enegandik kaliza hori: eztezadala heriotzerik errezibi. Ordea, gaitzerizkoa natural hunekin izan zuen amorio librea.

Zeren libreki, bere nahiz, eta borondatez hiltzen. Eta hunetan da ageri badiratekeiela elkharrekin gaitzerizkoa naturala, eta amorio librea. Badukegu etsaiaren alderakotzat gaitzerizkoa, onherizkoarekin. Eta gaitzerizkoa librea, zein baita borondatearena, da komunzki bekhatu, eta ez naturala, zein baita haragiarena. Gaixto batek hil deratzu zeure aita, zerorri ere egin deratzu milla pensu, asmu falso eta malizia: heken arauaz ezin zarateke, gaitzerizkoa naturala gabe. Ordea gaitzerizkoa natural hark, ezteratzu amorio librea edekitzen, eztu borondatea gaitzestera bortxatzen, eta ez gaizki egille hari barkhatzetik, eta ongi egitetik debekatzen, hargatik libre da zure borondatea.

onherizkoa

asmu

Eta halatan anhitzetan ere egiten diogu geure gaizki egilleari ongi. Eta halatan, halaber, etsaiaren onhesteko manamendua, eman zioen Iainkoak arimari, eta arimaren bothere libreari, borondateari, eta ez haragiari eta ez haragiaren aphetituari. Eta hala bidegabe bat egiten deratzutenean, ethortzen baitzaitzu alde batetik mendekatzeko, eta ordaiñaren bihurtzeko mugida bat, gutizia bat, eta desirkunde handi bat. Eta berriz bertze aldetik, gauza ongi konsideraturik, eta aitzingibel behaturik, gibelatzen baitzara mendekatze hartarik: orduan haragia haserretzen da, eta ez arima. Hala erraiten du San Krisostomok: *Quando ergo homo irascitur, et non vult facere quod ira compellit, caro eius irata est, animus autem non est iratus* (Chrys. Hom. 13 tom. 2).

manamendu


aitzingibel

spiritu

Eta haur da arimaren, eta gorputzaren, spirituaren, eta haragiaren arteko gerla perilosa, eta biktoria loriosa, batak gaitzesten duena, bertzeak onhesten baitu.

mugida

183 Haragiaren gaitzerizkoa naturala, haragiaren lehenbiziko mugida —*Primus motus*—, haragiaren haserretzera eta mendekatzera laburzki, eta konsiderazinorik gabe oldartze eta abiatze hura, bera soilki eta bakharrik, ezta bekhatu. Bekhatu izaiteko arrazoiñak behar du lekhu eta parte, borondateak behar du deliberatu eta konsentitu.



Aún más quiero decirte, a saber: que no siempre es pecado el enfadarse con el consentimiento y decisión de la voluntad. Al contrario, puede pecarse tanto por enfadarse como por no enfadarse. Así como es pecado el enfadarse e intentar vengarse *contra razón e injustamente; así también* es pecado el no enfadarse cuando hay que enfadarse y cuando hay motivo para ello. Así lo dice San Crisóstomo: "Itaque non solum non peccant qui cum causa irascuntur, sed e contra nisi irascantur peccant" (Chrys. Hom 12 t. 2).

"Quoniam patientia irrationabilis vitia seminat, negligentiam nutrit, et non solum malos, sed etiam bonos invitat ad malum". El no enfadarse, el ser sobrado paciente, el disimular las faltas, el hacer la vista gorda sobre ellas y no castigarlas, da ocasión para cometer más faltas, para complacerse de las cometidas y arrastrar al mal no sólo a los malos, sino a los mismos buenos.

184 El no enfadarse cuando hay que enfadarse, el no afectarse cuando hay que hacerlo, el ser siempre impasible, siempre mosca, memo, débil y limaco, eso no es hombría, sino incapacidad. "Sicut excessus irae est malus et vitiosus, ita moderatae irae deffectus a justa reprehensione et peccati labe non est immunis" (S. Thom. 2. 2. q. 158 art. 8), dice S. Tomás. Así como es pecado el enfadarse con exceso, así también el enfadarse demasiado poco no está exento de culpa.

El *airarse con razón, con buena intención y conforme* a justicia y, así enfadado, tener deseo de castigar, es cosa buena y santa. Tan santa, que dice San Basilio: "Neque enim si contra nequitiam desit indignatio et ira, satis eam odio quo decet persequi poteris" (Basil. Homil. 9 de ira). Sin enfadarse, sin encolerizarse por lo menos un poco, y sin encenderse dentro de sí mismo, las maldades no se castigan con el necesario rigor ni las obras buenas se hacen con la debida seriedad. "Neque damus aliter disciplinam filiis nisi aliquantum irascendo", dice San Agustín (August. de verb. Dom. Hom. 16. T. 10). El padre no castiga a su hijo permaneciendo en su tranquilidad, no le enseña qué es lo que debe hacer sin mirarle con ojo airado.

Es precioso, sí, cuando se debe, encender un poco la llama, hace falta encolerizarse y enfadarse. Y así el padre tiene derecho y poder de hablar reciamente al hijo, y los que desempeñan cargos lo tie-

nsentimendu aitzitik

Are gehiago erran nahi deratzut, borondatearen deliberamenduarekin, eta konsentimenduarekin haserretzea, eztela bethi ere bekhatu. Aitzitik haserretzeaz bezala, ez haserretzeaz ere egin diteke bekhatu. Nola arrazoiñaren kontra eta bidegabeki haserretzea, eta mendeku bilha ibiltzea, baita bekhatu: hala halaber haserretu behar denean, eta haserretzeko okhasinoa denean, ez haserretzea, da bekhatu. Hala erraiten du San Krisostomok: *Itaque non solum non peccant qui cum causa irascuntur, sed e contra, nisi irascantur peccant* (Chrys. Hom. 12 T. 2).

mendeku

Quoniam patientia irrationabilis, vitia seminat, negligentiam nutrit, et non solum malos, sed etiam bonos invitat ad malum. Ez haserretzeak, sobera pazient izaiteak, faltén disimulatzeak, ez ikhusi iduri egiteak, eta ez gaztigatzeak emaiten du okhasino, falta gehiago egiteko, eginetan laketzeko, eta gaixtoen bezala, onen ere gaixtakeriara konbidatzeko.

laketu

sentikortu


184 Haserretu behar denean, ez haserretzea, sentikortu behar denean, ez sentikortzea, bethi bat, bethi uli, lolo, malba, eta bare izaitea, eztheustasuna da, eta ez gizontasuna. *Sicut excessus irae est malus et vitiosus, ita moderatae irae deffectus a iusta reprehensione et peccati labe non est immunis*, dio San Tomasek (S. Thom. 2-2 q. 158, art. 8). Nola sobera haserretzea baita bekhatu, hala halaber gutiegi egitea ere, ezta hoben gabe.

ztheustasun

Arrazoiñarekin, intenzione onez eta iustiziaren arauaz haserretzea, eta hala haserreturik, hala gaztigatzeko desira izaitea, gauza ona da, eta saindua. Hain saindua, ezen erraiten baitu San Basiliok:

Neque enim si contra nequitiam desit indignatio et ira, satis eam odio, quo decet, persequi poteris (Basil. Homil. 9 de ira). Haserretu gabe, aphur bat bedere koleran iarri gabe, eta bere baithan piztu gabe, eztira gaixtakeriak asko fintki gaztigatzen, eta ez obra onak ere asko zintki egiten. *Neque damus aliter disciplinam filiis, nisi aliquamtum irascendo* (dio San Agustinek) (August. de Verb. Dom. Hom. 16. T. 10). Eztu aitak bere semea, bere soseguan dagoela, gaztigatzen, eztio begia bihurtu gabe zer egin behar duen erakusten. Behar da behar, behar denean, khar aphur bat ailtxatu, behar da koleratu, eta haserretu. Halatan du aitak esku, eta bothere, semeari gogorki minzatzeko, eta bai kargudunak

koleratu



nen para levantarse y enfadarse contra sus subordinados cuando van descaminados. Así se airaron Moisés y Matatías contra los que adoraban los ídolos (Ex. 31; 1 Mach 2). Así también nuestro Salvador, cuando resucitó, habló reciamente a unos discípulos suyos, llamándoles insensatos e incrédulos: "O stulti et tardi corde ad credendum" (Lc ultimo). Así también San Pablo increpó a los de Galacia, diciéndoles: "O insensati Galatae, quis vos fascinavit non oboedire veritati?" (Gal. 5). ¡Ah galatas faltos de juicio! ¿quién os ha entontecido y seducido, puesto que ahora no obedecéis y creeis la verdad, como antes? Estas palabras eran deshonrosas para los gálatas. Con todo, porque eran dichas con buen corazón e intención santa, no había en ellas pecado.

185 Esto es lo que dice San Agustín: "Non irascitur fratri, qui peccato fratris irascitur" (August. lib. 1 Rhetor. cap. 19 T. 1). No se enfada contra el hermano, el que se enfada contra el pecado que tiene el hermano. Lo que este tal aborrece no es el pecador, sino el pecado. Y con ello se comporta como lo hace un médico o un barbero con el enfermo. El barbero aflige al enfermo, le corta, le sangra, lo trata como un enemigo. Mas como todo ello lo hace contra la enfermedad y no contra el enfermo: no con mala intención, sino con amor y con idea de curarle, por eso se aprecia todo lo que él hace y se echa a buena parte. Del mismo modo deben ser apreciadas y echadas a buena parte las riñas, reprensiones, conminaciones y reprimendas que se hacen conforme a razón, con buena intención, para corregir las faltas y con voluntad de curar de la enfermedad de los pecadss.

§ 2

186 Mas debe cuidar cada uno, cuando se enfada contra los pecados, de no hacerlo con exceso, de no hacer por cólera o venganza lo que debe hacer por amor y con buena voluntad. Porque los padres, los predicadores, los amos y los que tienen cargo de instruir y gobernar a otros, no deben en su cargo irritarse y hervir en forma tal, que se desborden, y el amor se les trueque en desamor y aborrecimiento. Por eso dice el Profeta: "Irascimini et nolite peccare" (Ps. 4). Enfadaos y no cometáis pecado. Enfadarse sí, pero con medida, sin traspasar

Moisen

ere, bere kargukoen kontra, huts eginak dohazinean iaikitzeko, eta haserretzeko. Hala haserretu ziren Moisen eta Matatias, idoloak adoratzen zituztenen kontra (Ex. 31; 1 Mach. 2). Hala gure Salbatzaillea ere errezuzitatu zenean mintzatu zeien gogorki bere diszipulu batzuei, deitzen zituela adimendu gabeak, eta sinhets gogorrak.

mehatxatu

galatar

O stulti et tardi corde ad credendum (Lc. ultimo). Hala Iondone Paulok ere mehatxatu zituen Galaziako iendeak, erraiten zerauela: *O, insensati galatae, quis vos fascinavit, non oboedire veritati?* (Gal. 5 al 3,1). Ha galatar zentzu gabeak, nork erhotu, eta liluratu zaituzte, ezpaituzue orai, lehen bezala, egia obeditzen eta sinhesten? Hitz hauk desohorezkoak ziren galatarrentzat. Ordea zeren bihotz onez, eta intenzione sainduz erranak baitziren, etzen bitartean bekhaturik.

midiku

185 Haur da San Agustinek ere erraiten duena: *Non irascitur fratri, qui peccato fratris irascitur* (August. lib. 1 Rhetor. cap. 19. T. 1). Ezta anaiaren kontra haserretzen, anaiak duen bekhatuaren kontra haserretzen dena. Halakoak bekhatua gaitzesten du, eta ez bekhatorea. Eta hartan egiten du midiku batek edo barber batek eriarekin egiten duena. Barberak penatzen du, ebakitzen du, odol husten du, etsai bat bezala erabiltzen du. Ordea zeren hura guztia eritasunaren kontra egiten baitu, eta ez eriaren; ez intenzione gaixtoz, baiña amorioz, eta sendatzeko kontuan, halatan hark egiten duen guztia estimatzen da, eta hartzen da parte onera. Hala behar dira bada halaber arrazoiñaren arauaz, intenzione onarekin, faltén erremediatzeko, eta bekhatuen eritasunetik sendatzeko borondatearekin, egiten diren liskarrak, ahakarrak, mehatxuak, eta eranzuteak ere, estimatu eta parte onera hartu.

halaber

ahakarrak


§ 2

predikari

eskolatu

desamorio

186 Ordea begira beu bat bederak, bekhatuen kontra haserretzen denean, sobera haserretzetik, amorioz, eta borondate onez egin behar duena, koleraz, eta mendekuz egitetik. Zeren aita-amék, predikariek, nabusiek, eta bertzeren eskolatzeko eta gobernatzeko kargu dutenek, eztute kargu hartan halako moldez kexatu eta irakitu behar, non gaiñez egin dezaten, eta amorioa desamorio, eta gaitzerizkoa bihur dakien. Hargatik erraiten du profetak: *Irascimini et nolite peccare* (Ps. 4). Haserre zaitezte, eta eztagizuela bekhaturik. Haserre bai, ordea



el límite y la línea de la paciencia: teniendo odio y aversión a la falta, mas no al dueño de la falta.

Cuando quieres corregir, enmendar y enderezar a tu hijo o criado, muchas veces tú mismo te pones en mayor necesidad de corrección. Porque en tal corrección, o sea, al advertir a tu hijo, de tal modo te enfadas, te encolerizas y sales de tu juicio y seso, que, profiriendo muchas maldiciones y juramentos, al fin tu falta resulta mayor que la falta de tu hijo y criado, y tú mismo te pones en mayor necesidad de corrección y enderezamiento.

Es, pues, cosa buena y santa el enfadarse con medida, conforme a razón y justicia y por el bien de aquel contra quien te enfadas y por la corrección de las faltas (de otro modo no lo es). Y el enfadarse así se llama "Ira per zelum": ira de celo bueno, enfado de amor, de afecto. Pero hay otro enfado de mala voluntad, que no pretende corregir el pecado, sino hacer mal al mismo pecador. Este se llama "Ira per vitium": ira viciosa, enfado pecaminoso, contrario a razón, de mala intención, exagerado, desbordado.

De aquí, de este desbordarse, de este enfadarse y encolerizarse con exceso provienen grandes daños, pendencias, malas palabras, juramentos, diferencias, pleitos, aborrecimientos, muertes, el perderse a sí mismos y a otros y el ponerse en graves necesidades.

187 Muchas cosas hay que perjudican y dañan al cristiano; y una de éstas, y de las principales, es la ira, la cólera, el enfado, el deseo desordenado de venganza. Este hiere al alma y al cuerpo, enferma a ambos, acorta los días y aún los cabellos los vuelve canos antes de tiempo. Así lo da a entender el Espíritu Santo: "Zelus et iracundia minuit dies et ante tempus senectam adducet cogitatus" (Eccli 30). En conformidad y de acuerdo con esto dice también Séneca: "Vitanda est ira, non solum moderationis causa, sed sanitatis" (Senec. ep. 18). Hay que precaverse de enfadarse con exceso, hay que huir de la ira, hay que tener cuidado con la cólera; y no tan sólo por vivir virtuosa y honradamente, sino también por la salud del cuerpo. Porque el enfado, el deseo de venganza, el odio interior, la efervescencia,

[94] *Haserretasunak...* Zortzi hitz sinonimo metatzen eta elkarrekin biltzen ditu hemen Axular-ek, haserreak egiten dituen kalteak hagitz eta bortizki azpimarkatu nahiz.

pazientziaren xedea eta marra iragan aiherkunde

neurriz, pazientziaren xedea eta marra iragan gabe; faltari bai, baiña faltaren iabeari herrarik eta aiherkunderik eduki gabe.

KOLERAREN IRAUNGITZEKO HIRURGARREN ERREMEDIOA: EZ ORDUAN LEHIATZEA, KOLERA IRAGAN ARTEIÑO PAUSATZEA

KAP. XXIII

199 Hirurgarren erremedioa ez haserretzeko eta koleraren iraungitzeko edireiten dena da, Livio filosofoak

diszipulu

bere diszipulu Teodosio enperadoreari eman zioena, erraiten zioela: Badakit, Enperadore handia, zenbait al-


ordukotzat

diz, haserretuko eta koleran iarriko zarela. Bada ordukotzat eman nahi deratzut konseillu on bat. Hala zarenean, ez kexa, ez lehia, ez berehala abia, iguriki aphur bat: ez al baitzeneza[103] deus egin, ez erran eta ez aitzina

iarraiki

A.B.C. eta hei darraizten bertze letrak erran arteiño, edo hartako espatioa, bitartea eta denbora iragan arteiño, har al baitzeneza hainbertze asti eta pazientzia (Aurelius Victor, in vita Theod.).

Hunetara dio Spiritu Sainduak: *Ne proferas in iurgio cito* (Prov.). Eztezazula liskarrean ahotik hitza fite athera. Konseillu haur beror eman zeraukan bere nabusi Atenedoro filosofoak ere, etxetik partitzerakoan, Oktavio Augusto enperadoreari. Eta konseillua, hain parte onera hartu zuen enperadoreak, non urthe bat gehiago



Otros muchos también han tenido esta idea, han hallado este remedio contra la cólera: han mostrado de palabra, y aún de obra, que es bueno diferir un poco lo que la cólera les dicta, tenerlo como en la balanza, no decidir inmediatamente. Porque la cólera y la prisa no son buenos consejeros.

Y Séneca dice también: "Magnum remedium irae est mora" (Senec. lib. 2 de ira cap. 34). El gran remedio contra la ira, contra el deseo desordenado de venganza es el diferir, el hacer alto, el no precipitarse. Porque, como dice Cicerón: "Numquam iratus mediocritatem illam tenebit quae est inter nimium et parum" (Cicero lib. 1 Offic.).

El hombre airado jamás guardará el justo medio, corre el peligro de faltar por defecto o por exceso. Y así, cuando estás enfadado, teme, retráete, no hagas entonces nada de lo que te dice la pasión. Porque entonces eres ciego, eres loco, estás turbado, aun lo irracional te parece razonable. El marinero se hace a la vela en tiempo de bonanza, pero en la tormenta se está quieto. Así, pues, tú también —supuesto que cuando estás airado es tiempo malo y tormentoso— estáte quieto, estáte en el puerto, quédate en casa, descansa, no hagas ni hables nada mientras dura la tormenta de la ira, hasta que vuelva la bonanza. Porque como dice Menandro: "Omnia quae iratus agis, postmodum errata invenies". Todo lo que haces estando airado, después comprobarás que está mal hecho. Y dice también Séneca: "Finis irae initium est paenitentiae" (Senec. in pr.). El final y el término de la ira y de la cólera coincide con el comienzo del arrepentimiento.

200 Herodes, aquel rey gentil primero de este nombre, mató a su mujer Mariamnes en un acceso de cólera, por celos, por una sospecha, y lo hizo tan ligera, rápida y precipitadamente, que para cuando el mundo se enteró, ya estaba asestado el golpe. Pero después, pasado el acceso de cólera y mejor informado, cuando supo la verdad y obtuvo certeza de que la mató sin que tuviera culpa, de tal manera le pesó y tuvo tal sentimiento y vino a tal extremo de locura, que en todos los rincones de la casa andaba clamando en busca de su mujer, llamándola por su nombre: añadiendo con ello a su primera locura otra aún mayor (Josephus lib. Antiquitatum Judaicarum cap. 9).

Cuando estás encolerizado cometes muchos disparates, y después, cuando se te ha pasado el acceso, te viene el pesar de haber hecho tales disparates y desearías no haberlos hecho. Aún más: así como

konseillari eduki baitzuen etxean konseillaria. Anhitz bertzek ere egin du pensu haur, ediren du koleraren kontrako erremedio haur: erakutsi du hitzez eta obraz ere, on dela kolerak diotsanaren aphur bat luzatzea, balantzan bezala edukitzea, ez berehala deliberatzea. Zeren kolera eta lehia eztira konseillari onak.

Eta badio Senekak ere: *Magnum remedium irae est mora* (Senec. lib. 2 de ira, cap. 34). Hiraren, mendekatzeko desira desordenatuaren, erremedio handia da, luzatzea, pausatzea, ez lehiatzea. Zeren Zizeronek dioen bezala: *Nunquam iratus mediocritatem illam tenebit quae est inter nimium et parum* (Cicero lib. 1 Offic.). Eztu behin ere gizon haserretuak behar den neurria begiratuko, peril da, gutiz edo soberaz huts egin dezan. Eta hala, haserre zarenean, zaren beldur, zaude gibela, eztagizula orduan gogoak diotsun gauzarik. Zeren orduan itsu zara, erho zara, nahasia zara, desarrazoiña ere arrazoiñ iduritzen zaitzu. Marinelak denbora eder denean, bela egiten du, baiña tormentan geldi dago. Hala bada zu ere, nola haserre zarenean, denbora gaixtoa baita, zaude geldirik, zaude portuan, zaude etxean, pausa ezazu, ez deus egin eta ez erran, denbora eder arteiño, koleraren tormentak diraueiño. Zeren Menandrok dioen bezala: *Omnia quae iratus agis, postmodum errata invenies.* Haserreturik egiten duzun guztia, edirenen duzu, ondoan, gaizki egina dela. Eta badio Senekak ere: *Finis irae initium est poenitentiae* (Senec. in pr.). Hiraren eta koleraren fina eta akhabatzea da, urrikimenduaren hastea.

lehiatu

portu

urrikimendu


200 Herodes izen hunetako lehenbiziko errege ientil hark, hil zuen Mariamnes bere emaztea koleran, ielosiaz, gogan behar batez, eta hain arinki, laburki eta lehiatuki, non munduak iakin zueneko egin baitzen kolpea (Ioseph. liber antiquit. iudaicarum cap. 9). Baiña gero kolera hotzturik eta hobeki informaturik, iakin zuenean egia, eta izan segurantza hoben gabe hil zuela, hain dolutu eta atsekabeztatu zen, eta ethorri zoratzeko pontura, non gero bere etxeko zokho guztietan, bere izenaz deitzen zuela, bere emaztearen bilha, oihuz baitzebillan: hartan bere leheneko erhokeriaren gaiñera bertze bat, are handiagoa, egiten zuela.

ientil

lehiatuki

atsekabeztatu

Koleran zarenean egiten duzu anhitz erhokeria, eta gero kolera hura ioan zaitzunean, ethortzen zaitzu, erhokeria heken urrikia, eta egin ezpazinitu nahia.



antes te enfadabas contra otro (como dice Séneca), entonces te enfadas contra ti mismo. "Iratus cum irasci desierit tunc irascitur sibi" (Senec. in Proverb.).

Las obras de la ira nunca son cumplidas, siempre tienen alguna tacha, como los cachorros del oso y del mastín. Podque las madres son furiosas, las crías son también defectuosas: las del oso son como un tarugo y las del mastín nacen ciegas.

Es alabado aquel Arquita Tarentino porque conociendo que estaba irritado dijo a un amigo suyo: "Caederem te nisi irascerer" (Lact. de ira cap. 18). Te pegaría si no estuviera irritado. Como si le dijera: Da gracias a que estuve irritado, porque de otra suerte hoy habrías recibido buena tunda.

Es alabado asimismo el célebre Platón porque encargó a un amigo suyo el castigo de su criado, temiendo que él en su cólera se excediera en el castigo.

201 Mira cómo aquellos filósofos, aquellos hombres prudentes e inteligentes se cautelaban en sus accesos de ira: se conducían con un gran temor en sus arrebatos. Es que sabían que el hombre encolerizado es igual que un loco, que no tiene control de sí. Así lo dice San Basilio: "Momentanea quaedam insania est ira" (Basil. Hom. de ira). Que la ira o cólera es una locura breve. Y Platón estimaba que la locura del hombre furioso y la del enajenado mental no tenía más diferencia sino que una dura menos y la otra más. Porque al enfadado más pronto se le pasa su enfado que al loco de verdad su locura. Pero por lo demás, mientras el uno esté furioso y el otro loco, con tanta razón pueden atar, sujetar y amarrar al uno como al otro. Pues entonces ambos son iguales, ambos son locos.

Y así como es locura grande el exhortar, dar consejo y hablar con prudencia al loco, al enajenado mental; así también es no pequeña locura hablar de reconciliación, decirle que perdone a su enemigo, a uno que se encuentra cegado por una gran furia y al que está fuera de sí de ira, al menos mientras está en ese estado. Porque en aquel calor, en el primer ímpetu, movimiento y arrebato de la cólera, no es dueño ni señor de sí mismo. "Nec ira repletus, consili est capax" (August. ad fratres in Eremo). El que está lleno de cólera no es capaz de recibir consejo. Al contrario, si entonces alguno llega a mentarle alguna cosa de este estilo, es decir, de con-

104 *Hartz, a* itsatsirik gab*Hartz bat,* beraz.

Eta are lehen bertzeren kontra haserretzen zinena orduan (Senekak dioen bezala) zeure buruaren kontra haserretzen zara: *Iratus cum irasci desierit, tunc irascitur sibi* (Senec. in proverb.). Haserrearen obrak eztira behin ere konplituak, bethi dira zerbaiten eskas, hartzaren eta oraren umeak diren bezala.

hartza

or

Zeren amak diren koleratsu, halatan dira umeak ere faltatsu: hartzarenak,[104] tronko bat bezala, eta orarenak itsu sortzen baitira.

Laudatzen da Arkhita Tarentino hura, zeren bere burua koleratua ezaguturik, erran baitzioen bere lagun bati. *Caederem te nisi irascerer* (Lact. de ira cap. 18). Zeha intzakêt, baldin haserre ezpanintz. Erran baillio bezala: esker emok ene koleran egonari, zeren bertzela, hartuko ituen egun heureak. Laudatzen da halaber Platon famatu hura, zeren bere adiskide bati, zeha arazi baitzeraukan bere muthila, beldurrez berak bere koleran, barrenegi sar zitzan eskuak.

zehatu

201 Ikhusazu nola filosofo hek, gizon zuhur adimendutsu hek, begiratzen ziren bere haserreduretan: beldurtasun handi batekin gobernatzen ziren bere koleretan. Zeren baitziakiten gizon koleratua, erho baten pare zela, etzegoela bere baithan. Halatan dio San Basiliok: *Momentanea quaedam insania est ira* (Basil. hom. de ira). Erhokeria labur bat dela hira, kolera. Eta uste zuen Plat. ezen gizon haserrearen, eta adimendutik iauziaren erhokeriak, etzuela bertze diferentziarik batak gutiago eta bertzeak gehiago irautea baizen. Zeren haserretuari, fitetzago iragaiten baitzaika bere haserretasuna, erho erhoari, bere erhotasuna baiño. Baiña gaiñerakoan, bata haserre eta bertzea erho diren bitartean, hain ongi lot, uzkal, eta amarra ahal dezakete bata nola bertzea. Zeren orduan biak baitira berdin, biak baitira erho.


begiratu

uzkaldu

Eta nola baita erhokeria handia, erhoari, adimendutik iauzia dagoenari predikatzea, konseillu emaitea, eta zuhurtziaz minzatzea: hala da halaber, erhokeria ez ttipia, kolera handi batean itsutua eta irakitua dagoenari, hala dagoenean, abenikoaz minzatzea, bere etsaiari barkha diazola erraitea. Zeren bere bero hartan, koleraren lehenbiziko apoderan, abiaduran eta indarrean, ezta bere buruaren iaun eta ez iabe. *Nec ira consilii est repletus capax.* (August. ad fratres in eremo.). Koleraz betherik dagoena, ezta konseillu hartzeko gai. Aitzitik baldin orduan nehork halako gauzarik, abenikoazkorik, aipha ba-

abenikoa

apodera



ciliación, con sólo mentarla se enfurece, se requema, comienza a jurar y a maldecir. Por eso, si entre los que están enfadados y entre los que andan en pendencias quieres alcanzar alguna reconciliación y avenencia, no abordes el asunto inmediatamente, el primer día; si quieres que el intento tenga éxito, déjalos que se enfríen un tanto, que se cansen y se desplumen mutuamente. Porque tampoco el médico emplea la purga con la enfermedad cuando ésta se encuentra en su punto álgido, a no ser en caso extremo.

Por lo tanto, es bueno aceptar el consejo que dio el filósofo Livio, a saber, cuando se está airado, aguardar un poco, dejar que transcurra algún tiempo sin que se haga nada. Porque como dice el poeta Stacio: "Da spatium tenuemque moram; male cuncta ministrat impetus". La furia y la cólera ninguna cosa hace bien; todas las comienza mal y las acaba peor. Hay que dejar, pues, que se enfríe un tanto y que se pase. Porque este es el tercer remedio para apagar la cólera, a saber, no hacer nada mientras aquélla dura, dejar que se calme.

EL CUARTO REMEDIO PARA APAGAR LA COLERA ES CONSIDERAR QUE LAS INJURIAS QUE NOS HACEN LOS ENEMIGOS SON CASTIGOS DE DIOS

CAPITULO XXIV

202 El cuarto remedio para apagar la cólera y para aguantar las injurias que nos hacen los enemigos es considerar la disposición de Dios y pensar que las penas que nos ocasionan los enemigos vienen de la mano de Dios, que El es quien las permite, que son purgas suyas. En conformidad con esto dijo nuestro mismo Salvador a San Pedro al recibir

diazo: aiphatzeaz beraz ere errabiatzen da, erratzen da, arneguz eta iuramentuz hasten da. Eta hala baldin haserre direnen, eta hauzitan dabiltzanen artean, ongunderik, eta abenikoarik egin nahi baduzu, ez berehala lehenbiziko egunean ekhin, utzkitzu, baldin nahi baduzu kolpea segur egin, aphur bat hotztera, unhatzera, eta elkharren biphiltzera.

ongunde

unhatu


Zeren midikuak ere eztio eritasunari, goren pontuan denean, ezin bertzez baizen purgarik emaiten.

Beraz hunelatan on da Livio filosofoak eman zuen konseilluaren hartzea: haserre denean aphur bat igurikitzea, zenbait denboraren, deus egin gabe iragaitera utztea. Zeren Stazio poetak dioen bezala: *Da spatium tenuemque moram, male cuncta ministrat impetus.* Lehiak, kolerak eztu gauzarik ongi egiten, guztiak hasteintu gaizki, eta akhabatzen gaizkiago. Utzi behar da beraz aphur bat hotztera eta iragaitera. Zeren haur da koleraren iraungitzeko hirurgarren erremedioa: hark diraueiño ez deus egitea, pausatzera utztea.

KOLERAREN IRAUNGITZEKO LAURGARREN ERREMEDIOA DA, KONSIDERATZEA, ETSAIEK EGITEN DERAUZKIGUTEN BIDEGABEAK IAINKOAREN GAZTIGUAK DIRELA KAP. XXIV

202 Laurgarren erremedioa koleraren iraungitzeko eta etsaiak egiten derauzkigun bidegaben ere pairatzeko, da Iainkoaren ordenamenduaren konsideratzea, eta pensatzea etsaiek egiten derauzkiguten atsekabeak, Iainkoaren eskutik heldu direla, hark permititzen dituela, haren purgak direla. Hunen arauaz erran zioen gure Salbatzailleak berak heriotze errezibitzerakoan, Iondone

Iondone



la muerte: "Calicem quem mihi dedit pater, non vis ut bibam illum?" (Jo. 18). ¿No quieres que beba el cáliz que me ha dado mi Padre? ¿Que reciba la muerte? ¿Que sufra las penas y trabajos que El tiene dispuestos?

A esta disposición de Dios miraba el santo Rey David cuando un tal Semei le echaba maldiciones. Y así dijo a Abisai, que quería castigar al que profería dichas maldiciones: "Dimitte illum ut maledicat juxta praeceptum Domini" ((2 Rg 16). Deja que me maldiga conforme al mandato del Señor. Porque ese hombre no tuviera semejante osadía si Dios no se lo permitiera y no le auxiliara; déjale, por tanto; que diga lo que quiera; que cumpla el mandato y la disposición de Dios.

Los enemigos son azotes y varas de Dios. Los enemigos son oficiales y verdugos de la justicia de Dios. Por lo tanto no debemos airarnos contra ellos. Porque ¿qué falta comete el azote? ¿Qué culpa tiene el verdugo? Si una persona te rompe la cabeza con una piedra, ¿qué culpa tiene aquella piedra? ¿Por qué has de dar golpes a la piedra? El perro es el que hace eso; dejando a la persona, la emprende con la piedra.

203 Cuando al Santo Job le dijeron que los ladrones se habían llevado sus ovejas, camellos y demás bienes, no se enfureció lo más mínimo ni se querelló contra los ladrones. Porque sabía que aquellos ladrones eran instrumentos de la justicia de Dios y porque fue Dios mismo quien les permitió que se llevaran sus ovejas y todos los demás bienes. Y así, haciendo poco caso de los ladrones, dijo: "Dominus dedit, Dominus abstulit, sicut Domino placuit ita factum est: sit nomen Domini benedictum" (Job. 1). El Señor lo dio, el Señor lo quitó. Se ha hecho como al Señor le plugo. Sea pues bendito el nombre del Señor.

Cuando el niño ve la vara en la mano de su madre y que con ella quiere pegarle, más mira a la madre que a la vara. Porque sabe que si la madre no quiere, la vara no le ha de dañar. Así también nosotros cuando tenemos enemigos, y éstos nos hacen o nos quieren hacer daños y ofensas, más debemos mirar a Dios y a su misericordia que a los enemigos. Porque los enemigos, si Dios no se lo permite, y si él los quiere echar para atrás, no nos ha-

Petriri: *Calicem quem mihi dedit Pater, non vis ut bibam illum* (Jo. 18). Eztuzu nahi neure Aitak eman derautan kaliza edan dezadan? Heriotze errezibi dezadan? Hark ordenaturik dadutzan penak eta trabailluak paira ditzadan? Iainkoaren ordenamendu huni behatzen zioen errege David sainduak, Semei zeritzan batek maradizinoak egotzten zerautzanean. Eta hala erran zioen Abisairi, maradizino heken egotzlea gaztigatu nahi zuenari: *Dimitte illum ut maledicat iuxta praeceptum Domini* (2 Rg. 16). Utzazu maradika nazan Iaunaren manuaren arauaz.

madarizino

egotzle

maradikatu

Zeren ez lezake ez gizon horrek, horrelako ausartziarik har, baldin Iainkoak permititzen eta esku emaiten ezpalio, utzazu beraz, berra nahi duen guztia, konpli beza Iainkoaren manua eta ordenamendua.

Etsaiak Iainkoaren azoteak eta zigorrak dira. Etsaiak Iainkoaren iustiziaren muthilak eta borreroak dira. Beraz ezkara heken kontra haserretu behar. Zeren zer hoben du azoteak? Zer kulpa du borreroak? Baldin presuna batek, hautsten baderatzu harri batez burua, zer falta du harri hark? Zergatik eman behar diozu harri hari kolperik? Orak egiten du hori, presuna utzirik, lotzen baitzaika harriari.

borrero


kamelu

203 Erran ziotenean Iob sainduari haren ardiak, kameluak, eta bertze onak ere ioan zituztela ohoiñek, etzen bat ere haserretu eta ez arrenkuratu ohoiñen kontra. Zeren baitziakien ezen ohoiñ hek Iainkoaren iustiziaren muthilak zirela, eta zeren Iainkoak permititu baitzerauen, eta bere ardiak eta gaiñerako onak ere ioan zerautzatela. Eta halatan ohoiñez kontu guti eginik erran zuen: *Dominus dedit, Dominus abstulit, sicut Domino placuit ita factum est, sit nomen Domini benedictum* (Job 1). Iaunak eman, Iaunak edeki, Iaunak plazer zuen bezala egin da; biz bada Iaunaren izena benedikatu.

behatu

Ikhusten duenean haurrak bere amaren eskuan zigorra eta hartzaz eman nahi dioela, behatzenago dio amari zigorrari baiño. Zeren baitaki ezen, baldin amak nahi ezpadu, eztioela zigorrak minik eginen. Hala bada guk ere etsaiak ditugunean, eta hek kalteak eta bidegabeak egiten, edo egin nahi derauzkigutenean, behatuago behar diogu Iainkoari, eta haren miserikordiari, etsaiei baiño.

Zeren etsaiek, baldin Iainkoak permititzen ezpaderaue, eta gibelatu nahi baditu, ezpaiterakute kalterik egi-



rán daño alguno. Y así dijo nuestro Salvador a Pilatos: "Non haberes in me potestatem, nisi datum esset tibi desuper" (Jo. 19). No tendrías potestad ni poder sobre mí, si no te hubiera sido dado de arriba.

Tus enemigos te hacen muchas ofensas, y Dios ve aquellas ofensas, las conoce, y si él quisiera, no te hicieran tales cosas, él podría impedirlas; mas no lo impide. Porque como dice San Agustín: "Cum Deus adversis rebus exagitat aut merita examinat, aut peccata castigat, aut mercedem mihi aeternam, pro malis toleratis servat". Con esas ofensas que te hacen tus enemigos lo que Dios pretende es: o bien comprobar y examinar tus obras y méritos para ver si son de calidad y auténticos; o bien, castigar aquí tus pecados por no castigarlos en otra parte; o, en fin, mediante el sufrimiento de aquellas ofensas, sobrellevándolas tú con paciencia, darte una gran retribución, la gloria del cielo.

§ 1

204 Cuando tienes enemigos y accidentes infortunados, cuando te hacen injusticias: entonces debes mirar a Dios, acordarte de El, consolarte con El y pensar para tus adentros que es Dios quien te envía todas aquellas cosas: y precisamente cuando en este mundo te van peor las cosas, pensar que entonces es cuando te van mejor en el otro, al menos si tú sabes sobrellevarlas: y que si Dios creyera que no vas a ser suyo, no te enviaría tales penas y trabajos, *sino que te dejaría hacer cuanto quisieras* y vivir a tu placer.

El médico, una vez que ha desahuciado al enfermo, una vez que ha perdido la esperanza de que cure, le deja que haga lo que quiera, que coma y beba cuanto quiera y de lo que quiera, no le prohíbe nada, porque lo ha desahuciado. Pero cuando abriga esperanza de que cure, le prohíbe la mitad de las cosas, pocos deseos le permite satisfacer. Así también nuestro Dios, mientras abriga la esperanza de que ha de curar y salvarse, prohíbe muchas cosas al pecador enfermo, no le deja satisfacer todos sus caprichos; le aplica muchas purgas y remedios desagradables; quiere que tenga enemigos y le infieran injurias. Y todo ello es buena señal. Porque en

[105] *Malenkonia.* Gaztelania zaharrean ere ageri da hitz hau. Ikus *Quijote*, 1.ª parte, cap. 17.

nen. Eta halatan erran zioen gure Salbatzailleak ere Pilatosi: *Non haberes in me potestatem, nisi datum esset desuper* (Jo. 19). Etzenduen ene gaiñean eskurik, eta ez bothererik izanen, baldin eman ezpalitzaitzu han goititik.

Zeure etsaiek anhitz bidegabe egiten deratzute, eta ikhusteintu Iainkoak bidegabe hek, badakizki, eta nahi balu ezliazaizute halakorik egin, debeka litzake: ordea eztu debekatzen.

Zeren San Agustinek dioen bezala: *Cum Deus adversis rebus exagitat aut merita examinat, aut peccata castigat, aut mercedem mihi aeternam pro malis toleratis servat.* Zeure etsaiek egiten derauzkitzuten bidegabe hetzaz, edo nahi ditu Iainkoak zure obrak eta merezimenduak, ea finak eta egiazkoak direnz frogatu, eta examinatu: edo zure bekhatuak hemen, bertzetan ez gaztigatzeagatik, gaztigatu: edo finean, heken pairamenduaz eta sofrimenduaz, hek pazientki pairatzen eta sofriten ditutzula, pagamendu handi bat, zeruko loria eman.

fin (adj.)
gaztigatu

§ 1


204 Etsaiak, eta fortuna gaixtoak ditutzunean, bidegabeak egiten darauzkitzutenean: orduan behar diozu Iainkoari behatuz hartzaz orhoitu, harekin konsolatu, eta zeure baithan pensatu, hek guztiak Iainkoak igortzen derauzkitzula: eta noiz eta mundu hunetakotzat baitihoatzu gaizkienik, orduan baldin zerori nor bazara, dihoatzula bertze mundukotzat hobekienik: eta Iainkoak uste balu etzarela harentzat izanen, halako penarik eta atsekaberik ez liazaizula eman, baiña utz zinitzakeiela nahi duzun guztiaren egitera, eta zeure plazerera bizitzera.

orhoitu

Midikuak etsituz gero, esperantza galduz gero, uzten dio eriari nahi duenaren egitera, nahi duen bezanbat, nahi duenetarik iatera eta edatera, eztio deus debekatzen, zeren etsitu baitu. Baiña duenean esperantza sendatuko dela, debekatzen derautza erdi gauzak, aphetitu guti utzten dio konplitzera. Hala bada gure Iaungoikoak ere bekhatore eriari, esperantzatan denean, sendatuko eta salbatuko dela, debekatzen dio anhitz gauza, ezterautza bere plazer guztiak konplitzera utzten, emaiten dio anhitz purga eta malenkonia[105]; nahi du, dituen etsaiak, eta egin diatzoten bidegabeak. Eta hura guztia da seinale ona. Zeren hartan da ageri, eztuela oraiño Iain-

aphetitu

bekhatore



ello se evidencia que Dios todavía no ha desesperado de él, que no ha dudado ni perdido la esperanza.

Y este es un gran motivo de consuelo para el que tiene enemigos y recibe ofensas, o sea, el saber y considerar que todas aquellas cosas son purgas y azotes de Dios, y que todas ellas son en provecho de él. Y que siendo esto así, debe recibirlas como venidas no del enemigo, sino de Dios, que es el amigo que está por encima de todos los amigos.

Y si así las recibiera y las recibiéramos, no nos enfureciéramos contra el enemigo como lo hacemos, ni nos requemáramos y entristeciéramos en nuestro interior.

205 Dirás que no te enfadas contra el enemigo por los males que te hace o dice, que no lo odias por esto, porque ya sabes que todas estas cosas es Dios quien las permite. Pero que le aborreces por su intención perversa, por su voluntad turbia. Porque sin tú darle ocasión ni hacerle injuria alguna, él con todo te persigue de ese modo y te quiere hacer mal.

Así dices, pero no dices bien. Porque tú no debes mirar a la mala voluntad de tu enemigo, sino que debes mirar a la óptima voluntad de tu Dios. Porque la voluntad e intención de éste es beneficiarte a tí con aquellos males que te hace el enemigo: con ellos quiere afligirte aquí ahora, a fin de no afligirte después en el otro mundo.

Cuando tienes una herida maligna de esas que no pueden curarse sin aplicarles hierro rusiente: ¿por ventura te enfadas contra el hierro rusiente porque te quema y te lastima? A buen seguro que no serás tan loco. Al contrario, lo sufres con paciencia, porque sabes que es buena la intención y la voluntad del barbero que maneja aquel hierro, y esto es lo principal. Así también la intención y la voluntad de tu Dios es buena y orientada al bien, por más que la de tu enemigo sea mala y todo lo que se quiera. Por consiguiente, hay que mirar a la voluntad de Dios, y no a la del enemigo.

Y si esto lo juzgamos y pensamos así —como lo debemos hacer, porque esta es la verdad— habremos hallado un gran remedio para calmarnos en nuestro interior y no enfadarnos por los daños que nos infiere el enemigo, y, en fin, para apaciguar la cólera.

gogatu koak hartzaz etsitu, eztuela gogatu, eta ez esperantza galdu.

Eta haur da konsolamendu handia, etsaiak dituenaren eta bidegabeak errezibitzen dituenarentzat: iakitea eta konsideratzea hek guztiak Iainkoaren purgak, eta azoteak direla, eta guztiak haren probetxutan direla. Eta hala ez etsaiaganik, baiña Iainkoaganik, adiskide guztien gaiñeko adiskideaganik heldu direnak bezala, errezibitu behar dituela.

Eta baldin hala errezibi balitza, eta baginitza, ezkindezke, egiten garen bezala, etsaiaren kontra kolera, eta
ıalenkoniatu ez geure baithan barrena ere egos eta malenkonia.

205 Erranen duzu, etzarela ez haserretzen etsaiaren kontra, egiten edo erraiten derauzkitzun gaizkiakgatik, eztuzula hargatik gaitzesten, zeren badakizula hek guztiak Iainkoak permititzen dituela. Baiña gaitzesten du-
uher zula, bere intenzione gaixtoagatik, borondate uherragatik. Zeren zuk hari okhasinorik eman gabe, eta bidegaberik ere egin gabe, guztiarekin ere, hala darraitzun eta gaitz nahi deratzun. Hunela erraiten duzu, ez ordea ongi. Zeren zuk eztuzu behatu behar zeure etsaiaren borondate gaixtora, baiña behatu behar duzu zeure
ıorondatetsu Iainkoaren borondate borondatetsura. Zeren haren borondatea, eta intenzionea da, etsaiak egiten derauzkitzun gaizki hetzaz zuri ongi egitea: hetzaz nahi zaitu orai hemen penatu, gero bertzetan ez penatzeagatik.

burdina Zauri gaixto bat, burdin goriaz io gabe, ezin senda ditekeiena duzunean, baldin-ba etzara burdin goriaren kontra, zeren erratzen zaituen, eta min egiten deratzun, haserretuko? Baldinba etzara hain erho izanen. Baiña pazientki pairatzen duzu, zeren baitakizu ezen burdina
barber hura erabiltzen duen barberaren intenzionea eta borondatea ona dela, zein baita prinzipala. Hala da bada zure Iainkoaren intenzionea, eta borondatea ere ona, eta one-
ıla-ahalezko ra emana, zure etsaiarena gaixtoa eta nola-ahalezkoa izanagatik ere. Beraz Iainkoaren borondateari behatu behar zaika, eta ez etsaiarenari.

Eta baldin haur hunela estimatzen, eta pensatzen badugu, nola egin behar baitugu, zeren hala baita egia, zeure baithan sosegatzeko, eta etsaiak egiten derauzkigun kalteakgatik ez haserretzeko, eta koleraren iraungitzeko, erremedio handi bat edirenen dugu.



EL QUINTO REMEDIO PARA CALMAR LA COLERA ES CONSIDERAR EL ASPECTO DE TU ENEMIGO, CUANDO ESTA ENFADADO

CAPITULO XXV

206 Un remedio bueno para calmar la cólera, para no enfadarse contra el enemigo y retraerse de tomar revancha es el considerar la forma, aspecto y estado en que se encuentra tu enemigo cuando está enfadado, cuando se halla furioso, deseando vengarse, cuando anda hablando mal de ti. Y hallarás (como ya antes se ha dado a entender) que entonces dicho enemigo tuyo está ciego, loco, fuera de juicio y de razón. Por lo tanto, de la misma manera que si tuvieras un hermano loco, alienado, y éste te hiciera y dijera muchos despropósitos y aun a sí mismo se maltratara, sin duda recibieras más sentimiento del daño de tu hermano y de su estado que de todas las ofensas que él te hace y dice; del mismo modo debes tener más pena de los daños que a sí mismo se causa tu enemigo por estar fuera de sí de cólera, que no de los que a ti te irroga.

Aunque un niño o uno que está alterado por la fiebre te diga cualquier cosa, no por eso te incomodas ni te inmutas lo más mínimo. Porque ya sabes que aquellos no saben lo que dicen ni qué es lo que hacen. Pues bien: el que está fuera de sí por la cólera tampoco sabe lo que dice ni tras de lo que se anda. Por eso, refiriéndose al tal y a los tales, rogó nuestro Salvador a su Padre, diciendo: "Pater, ignosce illis quia nesciunt quid faciunt" (Lc. 23). Padre, perdónales, no saben lo que hacen. Porque están fuera de sí por la cólera. "Cogita quod non est in se qui vituperat, sed insanit, et non moleste feres contumelias ipsius", dice San Crisóstomo (Chrys. Hom. 79. Tom. 2). Piensa que no está en sus cabales el que anda profiriendo injurias, sino que se halla fuera de razón, y si así lo piensas, fácilmente sufrirás las injurias que te hace. La persona furiosa no se conoce a sí misma ni ve a nadie, es ciega. Y que el ciego choque contra un obstáculo y que al pasar tenga un traspiés nada tiene de extraño, por ello no debes enfadarte; y en caso de enfadarte, debes hacerlo contra ti mismo y no contra el ciego ni contra el que está encolerizado. Porque tú tienes vista, pero él está ciego; tú estás en tus cabales y él está loco; tú estás en tu juicio y razón, y él


106 *Aurizkitzea.* Berez, «za paltzea, azpian hartzea esan nahi du, eta ez «behaz topatzea». Ikus MITX FL (1974), 118.

KOLERAREN IRAUNGITZEKO BORZGARREN ERREMEDIOA DA KONSIDERATZEA ZER MOLDEZ DAGOEN ZURE ETSAIA, HASERRE DENEAN

KAP. XXV

206 Koleraren iraungitzeko, etsaiaren kontra ez haserretzeko, eta mendekatzetik ere gibelatzeko, erremedio ona da konsideratzea nola, zer moldez, eta zer estatutan dagoen zure etsai hura, haserre denean, mendekatu nahiz koleratua, zutzaz gaizki erraiten duela dabillanean. Eta edirenen duzu (lehen ere aditzera eman den bezala), orduan zure etsai hura, itsu dela, erho dela, zentzutik eta adimendutik kanpoan dela. Beraz nola, baldin bazendu anaia bat erhoa, eta adimendutik iauzia, eta hark anhitz gaizki egin, eta erran baliazazu, eta bere buruari ere zenbait kolpe gaixto eman baliazo, damuago baitzenduke zeure anaia haren kalteaz, eta haren hala izaiteaz, egiten eta erraiten derauzkitzun bide gabe guztiez baiño; hala halaber bĕhar duzu izan damuago zure etsai kolerak erauzirik dagoen hark bere buruari egiten derautzan kaltez, zuri egiten derauzkitzunez baiño.

Haur batek, edo sukharrarekin nahasirik dagoen batek, edozein gauza erranagatik, etzara bat ere asaldatzen eta ez zeure sosegutik kantitzen. Zeren baitakizu ezen hek eztakitela zer mintzo diren, eta ez zer hari diren. Hala bada koleran dagoenak ere, eztaki zer mintzo den, eta ez zer hari den. Eta halatan halakoagatik, eta halakoakgatik, egin zioen othoitz gure Salbatzailleak bere Aitari, erraiten zioela: *Pater, ignosce illis quia nesciunt quid faciunt* (Lc. 23). Aita, barkha iazezu, eztakite zer hari diren. Zeren koleran baitaude. *Cogita quod non est in se, qui vituperat, sed insanit, et non moleste feres contumelias ipsius,* dio San Krisostomok (Chrys. Hom. 79. Tom. 2). Pensa ezazu eztagoela bere baithan gaizki erraiten hari dena, baiña adimendutik kanpoan dela, eta baldin hala pensatzen baduzu, erraxki pairatukoituzu egiten derauzkitzun bidegabeak. Presuna haserretuak eztu bere burua ezagutzen, eta ez nehor ikhusten, itsu da. Eta itsuak inkontru ioitea, eta iragaitean aurizkitzea[106], ezta miretsteko, etzara hargatik haserretu behar; eta haserretzekotz ere zeure buruaren kontra haserretu behar zara, eta ez itsuaren kontra, eta ez koleran dagoenaren ere. Zeren zu baitzara argi, eta hura itsu: zu zuhur, eta hura erho: zu zeure tentuan



está fuera de ella. Por lo tanto, sufra el sensato al loco, el vidente al invidente, el que está libre de cólera al que sufre de ella. Este es un buen remedio para perdonar y sufrir al enemigo, para no hacer caso de lo que hace y dice, o sea, el considerar cuál es su estado cuando es presa de la cólera.

SEXTO REMEDIO PARA APLACAR LA COLERA: NO INQUIRIR QUE ES LO QUE DICEN DE *NOSOTROS* LAS *GENTES*

CAPITULO XXVI

207 Para vivir en tranquilidad, sin encabritarse ni enfurecerse, no es mal camino el no inquirir ni preguntar qué es lo que dicen de nosotros las gentes. Así lo dice Séneca: "Non expedit omnia videre, omnia audire, multae injuriae nos transeant, ex quibus plerasque non accipit qui nescit" (Senec. lib. 3 de ira, cap. 11). No está bien ni conviene el saber, ver y oír todas las cosas: pásense muchas cosas sin saberlas nosotros, porque el que no sabe no recibe dolor.

Si *quieres permanecer en tranquilidad* y sin enfadarte, no preguntes ni inquieras demasiado. El que anda buscando hallará, y si no es una vez, otra se meterá a sí mismo en líos. No es bueno ser entrometido, no es bueno andar al acecho ni el saber todas las cosas que pasan. Muchas veces nos traen nuevas y chismes, oímos qué es lo que dice fulano y zutano, éste y aquél, y aun nosotros mismos solemos ser curiosos de saberlo. Pero después que lo hemos sabido, topamos con lo que no queremos: y por causa de ello nos irritamos y encolerizamos. Y entonces solemos tener que hacer muchas cosas por nuestro honor; si no lo hubiéramos sabido, nos hubiéramos visto libres de tales enredos. Por eso es preferible no saber muchas cosas.

eta zentzuan, eta hura handik athean, eta kanpoan. Beraz paira beza zuhurrak erhoa, argiak itsua, eta kolerarik eztuenak, koleran dagoena. Haur da erremedio ona, etsaiari barkhatzeko eta pairatzeko, haren egin-erranez konturik ez egiteko: nola, eta zer moldez dagoen koleran dagoenean konsideratzea.



KOLERAREN IRAUNGITZEKO SEIGARREN ERREMEDIOA: EZ BILHATZEA ZER DIOTEN GUTZAZ IENDEK


KAP. XXVI

asaldatu galdegin

207 Bere soseguan egoiteko, asaldatu gabe, eta haserretu gabe bizitzeko, ezta bide gaixtoa, gutzaz iendèk zer erraiten duten ez bilhatzea eta ez galdegitea. Hala erraiten du Senekak: *Non expedit omnia videre, omnia audire, multae iniuriae nos transeant, ex quibus plerasque non accipit qui nescit* (Senec. lib. 3 de ira cap. 11). Ezta konpli, ezta on, gauza guztien iakitea, ikhustea, eta ez enzutea: iragan bedi anhitz gauza guk iakin gaberik, zeren eztakienak eztu damurik hartzen.

barrendari elhaberri urlia sandia

Nahi baduzu sosegu onean, eta haserretu gabe egon, ez sobera galde, ez sobera bilha. Billa dabillanak edirenen du, eta batean ezpada bertzean, bere burua egitekotan ibeniko du. Ezta on barrendari izaitea, ezta on zelatan egoitea eta ez iragaiten diren gauza guztien iakitea. Anhitzetan ere ekhartzen derauzkigute elhaberriak, erran-merranak, enzuten dugu zer dioten urliak, eta sandiak, hunelakok eta halakok, eta gerok ere desiros gara iakitera. Baiña gero iakin dugunean, edireiten dugu nahi eztuguna: eta gero handik iauzten eta koleratzen gara. Eta are orduan anhitz gauza egin behar dugu, geure ohoreagatik ere, baldin iakin ezpagendu, ezpaikinen halako egitekotan izanen. Eta hala hobe da anhitz gauzaren ere ez iakitea.



Más aún: aunque las sepamos, es bueno disimular, hacer como que no se sabe, no hacerse cargo, no tomarlo para sí o excusarlo.

Ciertas personas hablaban mal del rey Saúl cuando éste fue proclamado por rey y lo hacían tan cerca de él y tan fuertemente que el mismo rey les oía. Pero volvió la cabeza a otro lado y disimuló, hizo como que no oyó. "Dissimulabat se audire" (1 Rg. 10). Así ahogó todo el fuego que por esta causa podía encenderse.

208 Cierto día pasando por la calle el Rey Arquelao, le echaron ciertas aguas de arriba abajo. Y no sabemos si lo hicieron inadvertidamente o con intención. Pero los que le acompañaban comenzaron a decir que aquello era una gran osadía y que si no se castigaba, la próxima vez harían más. Pero al punto el mismo rey les hizo calmar, diciendo: "Non me respersit" (Plutar. in Aphoth.). Tranquilizaos que no ha habido injuria alguna. El que ha echado esta agua no me ha mojado a mí, porque no sabía que era yo. No lo tomó para sí y de este modo mucho mejor y más fácilmente atajó el fuego que iba a encenderse.

El Emperador Vespasiano tenía una condición tan buena, y tan inclinada al bien, que si alguien le hablaba como él no quisiera o como no correspondía a su rango, o lo disimulaba o bien lo adornaba con ciertas palabras jocosas o de broma, con ciertas gracias que hacían reír, y así se quedaba sin perder lo más mínimo del respeto que se le debía. (Aurelius Victor. De vitis Imperator.).

Así también el Rey Antígono, hallándose cierto día en una compañía en que hablaban mal de él, les dijo: "Longius discedite, ne vos Rex audiat" (Senec. lib. 2 de ira, cap. 22). Idos más lejos, de modo que no os oiga el Rey. Estaban hablando contra él, y él les dijo que se alejaran: y por esta causa él quedó con alabanza y los otros avergonzados. Una vez de haber sabido una cosa, de haberla oído y de haberse hecho cargo de lo oído, una vez de haberlo tomado para sí, es difícil permanecer sin montar en cólera, sin intentar vengarse, sin dar algún mandoble o sin meterse en líos y pendencias. ¿Qué remedio habrá, pues, para huir de todo esto? No preguntar, no inquirir, no saber; y aun después de sabida, hacer como que no se sabe, disimular, no hacerse cargo de ella, no tomarla para sí, hacerse el ciego, el mudo y el sordo.

iduri egin

Eta are gehiago iakinagatik ere, on da disimulatzea, ez iakin iduri egitea, ez iabetzea, ez bere gaiñera hartzea, edo desenkusatzea.

erregetu hagitz

Errege Saulez erregetu berrian, mintzo ziren iende batzuk gaizki eta hain hurbil eta hagitz, non Erregek berak aditzen baitzituen. Ordea burua bertze alderat itzuli eta disimulatu zuen, ez aditu iduri egin zuen. *Dissimulabat se audire* (1 Rg. 10). Eta halatan, handik pitz ahal zitekeien su guztia iraungi zuen.

208 Egun batez Arkelao Erregeari, karrikan iragaiten zela, aurthiki zioten zenbait ur burutik behera. Eta eztakigu ala ustekabean, ala berariaz. Baiña konpaiñiakoak hasi ziren erraiten hura zela ausartzia handia, eta baldin gaztigatzen ezpazen, hurrenekoan gehiago eginen zutela. Ordea berehala Erregek berak sosega arazi zituen, erraiten zuela: *Non me respersit* (Plutar. in Aphoth.). Euzue bakea, ezta bidegaberik egin. Ur haur aurthiki duenak, ez nau ni busti, zeren etziakien ni nintzela. Etzuen bere gaiñera hartu, eta halatan hobekiago eta erraxkiago erremediatu zuen, eta iraungi, pitztera zihoan sua.

berariaz

hurreneko

enperadore


Vespasiano Enperadoreak hain zuen kondizione ona, eta onera emana, ezen nahi etzuen bezala, edo haren presunari etzegokan bezala nehor minzatzen zeikanean, edo disimulatzen zuen, edo zenbait hitz iokolariz eta dostailluz, zenbait irri egiteko solhasez ederztatzen zuen, eta gero bere zegokan ohorearekin, deus galdu gabe gelditzen zen (Aurelius Victor. De vitis Imperator).

dostailla

konpaiñia

Hala errege Antigonok ere, ediren baitzen egun batez hartzaz gaizki mintzo ziren konpaiñia batetan, erran zerauen: *Longius discedite, ne vos rex audiat* (Senec. lib. 2 de ira, cap. 22). Zoazte urrunago, Erregek adi etzaitzaten. Beraren kontra mintzo ziren, eta berak aparta zitezilla erran zerauen: eta handik bera laudoriorekin, eta bertzeak ahalketuak gelditu ziren. Iakinez gero, enzunez gero, eta entzunari iabeturik, bere gaiñera hartuz gero, gaitz da koleratu gabe, mendekatzera enseiatu gabe, kolperik egin gabe, edo hauzitan edo egitekotan sarthu gabe gelditzea. Zer erremedio bada hautarik guztiotarik eskapatzeko? Ez deus galde, ez bilha, ez iakin; eta iakinez gero ere, egin ez iakin iduri, disimula, ez egitekoari iabe, ez bere gainera har, egin bere burua itsu, mutu eta gor.

inari iabetu



Este es buen remedio para calmar la cólera, para ahorrarse disgustos a sí mismo, para no comprometerse con nadie en diferencias y para permanecer en paz y tranquilidad sin enfadarse.

SE RESUMEN EN ESTE CAPITULO, BREVEMENTE, LOS DEMAS REMEDIOS PARA CALMAR LA COLERA

CAPITULO XXVII

209 Para tener aguante y paciencia, para no enfadarse mutuamente, consideremos que todos los hijos de Adán, y particularmente los cristianos, constituimos un cuerpo, y que Jesucristo nuestro Salvador es cabeza de este cuerpo. Así lo dice San Pablo: "Unum corpus sumus in Christo Jesu, singuli autem alter alterius membra". Un cuerpo somos en Jesucristo y miembros y partes los unos de los otros. Por consiguiente, debemos amarnos mutuamente, como se aman entre sí los miembros y partes del cuerpo.

En los miembros del cuerpo no se conoce la envidia ni la venganza. El pie sirve a la mano, y la mano al pie. La mano no hiere al pie porque éste tropiece. Cuando los dientes muerden la lengua, ¿quién es el que por esto se saca los dientes? Los ojos están en lugar más elevado que los pies, pero con todo los ojos aprecian a los pies, los estiman, no los rechazan. Al contrario, se ayudan unos a otros todo lo que pueden, y si no lo hicieren, ello redundaría en perjuicio propio: porque si los ojos no iluminan a los pies, los pies tropezarán y los ojos reventarán. Si el vientre no come, los pies se debilitarán y aun el vientre mismo desfallecerá. El no ayudar es cosa que redunda en perjuicio de cada uno. Y por esto, viendo esto, todos mutuamente se

Haur da erremedio ona koleraren iraungitzeko, bere buruari egitekorik ez emaiteko, diferentziatan nehorekin ez sartzeko, eta bakean eta soseguan koleratu gabe egoiteko.



KOLERAREN IRAUNGITZEKO GAIÑERAKO BERTZE ERREMEDIOAK KAPITULU HUNETAN LABURZKI EZARRIAK
KAP. XXVII


pairu **209** Pairu eta pazientzia izaiteko, bata bertzearekin ez haserretzeko, konsidera dezagun, ezen Adanen seme guztiok, eta guztiz ere giristinok, gorputz bat garela, eta gorputz hunen buru Iesu Kristo gure Salbatzaillea dela. Hala erraiten du Iondone Paulok: *Unum corpus sumus in Christo Iesu, singuli autem alter alterius membra.* Gorputz bat gara Iesu Kristo baithan, eta bat bertzearen mienbro eta parte. Beraz hunelatan elkhar onhetsi behar dugu, gorputzeko mienbroek eta partèk elkhar onhesten duten bezala.

mienbro

Inbidia Gorputzeko mienbroetan ezta inbidiarik, eta ez mendekurik. Oiñak zerbitzatzen du eskua, eta eskuak oiña. Oiñari behaztopatuagatik, eztio eskuak kolperik emaiten. Hortzek mihia autsikitzen dutenean, nork hargatik atheratzeintu hortzak? Begiak lekhu goragoan daude oiñak baiño, ordea hargatik begiek ezertan dadutzate oiñak, estimatzeintuzte, eztuzte arbuiatzen. Aitzitik ahal dagiten guztia elkharri laguntzen zaitza, eta baldin egiten ezpazaitza, bere kaltetan faltatzen dute: zeren baldin begiek argitzen ezpaderaueza oiñei, oiñak behaztopatuko dira, eta begiak iraziko. Sabelak iaten ezpadu, zangoak flakatuko dira, eta bai sabela bera ere ihartuko. Ez laguntzea, bat bederak bere kaltetan egiten du. Eta halatan haur ikhusirik, guztiek elkhar da-

mihi autsiki

Irazi



sostienen, se ayudan los unos a los otros, se aman entre sí. Y aunque en alguna cosa falten, se sufren y se perdonan mutuamente. Así, pues, también nosotros debemos sufrirnos y perdonarnos y amarnos los unos a los otros, porque somos un cuerpo, y miembros y partes del mismo cuerpo.

§ 1

210 Asimismo, para apaciguar la cólera es bueno emprender algún trabajo, pensar en otra cosa, cambiar de pensamiento. Así cuentan que hacía un tal Climas, cuando se sentía afectado por la enfermedad de la cólera, o sea, mudaba de quehaceres, empezaba a tocar y a cantar, y dicen que así se le olvidaba su mal y cólera, y se quedaba apaciguado (Aelianus.).

Buen remedio es también para alejar la cólera el considerar que tú también haces muchas faltas, pero con todo no por eso te golpeas ni afliges a ti mismo. Este remedio es al que Séneca se refirió cuando dijo: "Poterit non irasci, statim utique, si sibi tacitus ad singula quibus offenditur, dixerit: Haec et ipse commissi" (Senec. lib de ira cap. 28). Puede permanecer sin irritarse el que recibe agravios, si entonces mismo se dice callandito a sí mismo en su interior: También yo hice alguna vez otro tanto.

Y San Gregorio dice también: "Quasi aqua ignis extinguitur, cum surgente furore, animi sua cuique ad mentem culpa revocatur. Quia erubescit, peccatls non parcere, qui Deo vel proximo saepe se recolit parcenda peccasse" (Gregor. in Moral. lib. 5). Así como el agua se apaga con el fuego, así también la cólera se apaga recordando cada uno sus propias faltas. Porque se avergüenza —o debería avergonzarse— de no perdonar a otro, teniendo él más o por lo menos tanto que hay que perdonar. No es razonable que el que incurre en faltas aborrezca y castigue al que comete faltas. Porque en ese caso también a sí mismo debería aborrecerse y castigarse.

§ 2

211 Asimismo, para calmar la cólera es bueno tener un amigo, un Mecenas al lado, con el fin de que él, cuando vas a precipitarte, cuando la ira te ciega y te lleva a hacer un disparate, te tire de la capa, te avise y te preserve de caer. Un hombre

dukate, elkharri laguntzen zaitza, elkhar onhesten dute. Eta batak bertzeari zerbaitetan huts eginagatik, elkharri pairatu eta barkhatu behar diogu, eta amorio eduki, zeren gorputz bat, eta gorputz batetako mienbroak eta parteak baikara.

amorio

§ 1

halaber

210 Halaber koleraren iraungitzeko on da zerbait lani lotzea, bertzetan pensatzea, gogoaren aldatzea. Hala erraiten dute egiten zuela Klimas zeritzan batek; koleraren eritasunaz ukitua sentitzen zenean, aldatzen zela bertze egitekotara, soiñuz eta kantuz hasten zela, eta halatan bere gaitza eta kolera ahantzten zeitzala, eta sosegatua gelditzen zela (Aelianus.).

ukitu

Halaber erremedio ona da, koleraren gibelatzeko, konsideratzea zeurk ere anhitz huts eta falta egiten duzula, baiña hargatik eztuzula zeure burua zehatzen, eta ez penatzen. Erremedio haur ukitu zuen Senekak, erran zuenean: *Poterit non irasci statim utique, si sibi tacitus ad singula, quibus offenditur, dixerit: Haec et ipse commissi* (Senec. lib. de ira cap. 28). Badagoke haserretu gabe, bidegabeak errezibitzen dituena, baldin orduan berean, erraiten badio ixilik bere baithan bere buruari: Nik neronek ere egin nuen noizbait hunein bertze.

iuneInbertze


Eta badio San Gregoriok ere: *Quasi aqua ignis extinguitur, cum surgente furore animi, sua cuique ad mentem culpa revocatur. Quia erubescit, peccatis non parcere, qui Deo vel proximo saepe se recolit parcenda peccase* (Gregor. in Moral. lib. 5). Ura suaz iraungitzen den bezala, iraungitzen da kolera ere bat bederak bere faltèn gogoratzeaz. Zeren ahalketzen da, edo ahalketu behar luke, bertzeri ez barkhatzeaz berak barkhakizun gehiago, edo hainbertze duenean. Ezta zuhurtzia, faltetan erortzen denak faltatan erortzen denaren gaitzestea, eta gaztigatzea. Zeren halatan berak ere bere burua, gaitzetsi eta gaztigatu behar bailuke.

zuhurtzia

§ 2

211 Halaber koleraren iraungitzeko, on da, adiskide baten, Mezenas baten aldakan izaitea. Hark linburtzera zohazinean, kolerak itsuturik erhokeria baten egitera zaramatzinean, kapatik thira zaitzan, abisa zaitzan, eta erortzetik begira zaitzan. Gizon bat zihoan behin bere

aldaka



iba una vez espontáneamente con intención de matar a otro; y viendo un amigo suyo cómo iba, le preguntó: ¿A dónde vas armado de ese modo? Le contestó: Voy a matar a fulano. Y ¿qué ocurrirá si es él el que te mata a ti? —No reparé en eso. El amigo le hizo caer en cuenta y, avisado, le hizo volver atrás.

Muchas veces prestó este servicio al Emperador César Augusto su compañero Mecenas. Y particularmente cierto día en que dicho Emperador, cegado por la cólera, dio una sentencia injusta, y en conformidad con ella llevaban a mucha gente al patíbulo, le escribió su amigo Mecenas y le envió de mano en mano (pues él se encontraba lejos entre la gente) un lacónico billete donde decía: "Surge carnifex" (Zonat. T. 2. Annal.). Levántate, carnicero, mira qué es lo que haces, verdugo. Cuando el Emperador recibió aquella carta tan corta y sincera, aunque no traía nombre, conoció de quién era por la letra y mano de su amigo; la echó a buena parte, e inmediatamente, reconociendo su falta, viendo que obraba impulsado por la cólera, perdonó a todos. Mucho sirve el tener en su compañía un amigo leal para que le diga las verdades y, aun sin decir nada, le dé un codazo, o le haga un guiño con el ojo. Porque a veces más fuerza tiene el guiño que la lengua. Cuando vas a hacer una cosa y tu amigo te dice que no la hagas, no la hagas, si es que puedes excusarte de hacerla. Porque comúnmente entonces mejor ve tu amigo que no tú. Porque como tú estás decidido y a veces hasta enardecido y cegado, no ves toda la realidad. Pero tu amigo está exento de pasión, tiene los ojos claros, él ve las cosas como son y como hay que verlas.

Jamás me ha resultado bien ninguna cosa que haya *ejecutado en contra del consejo de mi amigo.* Aun el médico, aunque sea el mejor del mundo, cuando se enferma, se pone en manos de otros médicos, se deja medicinar y tratar con las recetas y órdenes de otro. Pues bien, el airado está enfermo. Por lo tanto, si desea curarse, mire a su amigo, guíese por su consejo y aviso, porque así es como le sucederá bien, mas no si obra de otra suerte.

212 Finalmente, para no airarse y para no ejecutar cosa que nos dicta la cólera, el último remedio por ahora es considerar y recapacitar en nuestro inte-


107 *Karnazer.* Hunela, a g
be behar du Hiztegia-n, te
tuan ageri den *a* hori art
kulua bait da.

gogoz bertze baten hiltzera, eta ikhusirik bere adiskide batek nola zihoan, galdegin zeraukan: Norat zoaz horrela harmatu harmaturik? Ihardetsi zioen: —Hunelakoren, urliaren hiltzera noha. —Eta zer izanen da, baldin hark zu hiltzen bazaitu? —Ez nintzen horretzaz orhoitzen. Adiskideak orhoitarazi zuen, eta orhoiturik, gibelat bihur arazi zuen.

Anhitzetan egin zioen ofizio haur Mezenas bere adiskideak Augusto Zesar enperadoreari. Eta guztiz ere egun batez, enperadore hark, kolerak itsuturik eman baitzuen sentenzia gaixto bat, eta haren arauaz iende handia, baitzeramaten galtzera, eskiribatu zioen Mezenas bere adiskideak, ĕta igorri eskutik eskura, bera iend'artean urrun buthun egonez, buthun labur bat erraiten zioela: *Surge carnifex* karnazer (Zonat. T. 2. Annal.). Iaiki adi karnazera,[107] ikhusak zer hari aizen, borreroa. Enperadoreak buthun hura hain laburra, eta zinezkoa errezibitu zuenĕan, nork egina zen, izenik ezpazuen ere, ezagutu zuen bere adiskidearen letra eta eskua: hartu zuen parte onera, eta berehala, bere falta ezaguturik, kolerak eragin zeraukala ikhusirik, barkhatu zerauen guztiei. Anhitz balio du adiskide leial baten bere konpaiñian izaiteak, hark egiak erran diatzon, eta deus erran gabe ere, ukhondoaz utki dezan edo begiaz kheiñu egin diazon. Zeren batzutan gehiago egiten du kheiñuak, mihiak baiño. Gauza baten egitera zohazinean, eta zeure adiskideak eztagizula erraiten deratzunean, ez al baitzenegi, gibela al baitzindezi. Zeren komunzki orduan hobeki dakusa zure adiskide hark, zuk baiño. Zeren zu nola baitzaude deliberatua, eta bai batzutan pasionatua eta itsutua ere, eztuzu den guztia ikhusten. Baiña zure adiskideak eztu pasionerik, argi ditu begiak, hark den bezala, eta behar bezala ikhusten du.

Etzait egundaiño neure adiskidearen abisuaren kontra egin dudan gauzarik ongi gerthatu. Midikuak ere, munduko hoberena bada ere, eritzen denean, bertze midikuen eskuetan utzten du bere burua, bertzeren abisuz midizinatu errekaitatu eta ordenantzaz midizinatzen eta errekaitatzen da. Bada koleran dagoena eri da. Beraz nahi badu sendatu, beha bekio bere adiskideari, goberna bedi haren konseilluz, eta abisuz, zeren halatan edirenen da ongi, eta ez bertzela.

212 Finean, ez koleratzeko eta kolerak dioskun gauzarik ez egiteko, oraikotz azken erremedioa da konsideratzea, eta geure baithan barrena pensatzea, zein gauza




rior qué cosa tan buena, agradable y de buenas consecuencias es el no reñir, el no buscar la venganza, el permanecer en paz.

"Quis enim labor est fratri indulgere conturbanti? Labor quidem in remittendo nullus, in retinendo inimicitias maximus, si quidem iracundia liberari, maximam reddit menti quietem, et valde hoc est facile volenti. Neque enim necesse est maria transfretare, nec longi itineris peregrinationem subire, nec montium excelsa ascendere, nec pecuniam impendere, nec corpus intendere, sed sufficit velle tantummodo" (Chrys. serm. 28, tom. 2). ¿Qué trabajo es perdonar al enemigo? Ninguno, dice San Crisóstomo. Porque para esto no hay que atravesar el mar, ni caminar ni subir monte arriba, ni gastar dinero, ni consumir el cuerpo, ni tomarse otra suerte de trabajo; lo que hace falta es quererlo, no se precisa más. En cambio, el no perdonar, el andar pensando siempre a ver cómo o por dónde se va a tomar la revancha, es un negocio malo y aflictivo. Y si no, no tienes más que comparar y relacionar entre sí el tiempo en que has andado con enemistades y con deseo de vengarte y aquél en que has estado o estás sin enemistad y en paz: y echarás de ver qué diferencias hay entre ambos, cuánto va del uno al otro. Hallarás que antes muchas veces te ocurría tener que apartarte de ciertas compañías por el hecho de que allí había algunos que eran enemigos tuyos. Asimismo hallarás que antes estabas en guerra y que ahora en cambio estás en paz, obtenida la victoria. Porque, como dice San Crisóstomo: "Victoria contra iram est quidem maxima, non cum injurias ulciscimur, sed cum eas aequo animo toleramus". El triunfo y la victoria contra le enemistad no consiste en vengarse ni en devolver lo equivalente o el doble: sino que consiste en perdonar y en sufrir pacientemente las injusticias. Porque entonces vences a tu enemigo, a ti mismo y al diablo: y no sólo el alma, sino también el cuerpo, los pones en paz, en sosiego y en seguro. Lo cual es cosa grande, digna de alabarse, y un remedio bueno —además de los indicados anteriormente— y muy propio de considerarse, para deponer la enemistad cuanto antes sin diferirlo para más tarde.

ihardukl ona, plazenta, eta ondore onetakoa den, ez ihardukitzea, mendeku bilha ez ibiltzea, bakean egoitea. *Quis enim labor est fratri indulgere conturbanti? Labor quidem in remittendo nullus; in retinendo autem inimicitias, maximus; si quidem iracundia liberari, maximam reddit menti quietem, et valde hoc est facile volenti. Neque enim, necesse est maria transfretare; nec longi itineris peregrinationem subire, nec montium excelsa ascendere, nec pecuniam impendere, nec corpus intendere; sed sufficit velle tantummodo* (Chrys. serm. 28, tom. 2). Zer trabaillu da etsaiari barkhatzea? Ez bat ere, dio San Krisostomok. Zeren ezta hartarakotzat itsasorik iragan behar, ez bi-
igan dean ibili, ez mendian gora igan, ez dirurik gastatu, ez gorputzik higatu, eta ez bertze trabaillurik hartu; nahia behar da, eta ez bertzerik. Baiña egiteko handia da eta penagarria ez barkhatzea, ea nondik edo nola mendekatuko den bethiere gogoetan egoitea. Eta ezpere konpa-
komunztatu raitzatzu, eta komunzta elkharrekin, etsaitasunean eta mendekatzeko desiran ibili zaren denbora, eta etsaitasunik gabe, bakean egon zarena, edo zaudena: ikhusiko duzu zer diferentzia den bien artean, zenbat dohan batetik bertzera. Edirenen duzu, ezen lehen anhitzetan ere, konpaiñia batzuetarik aldaratu behar zenduela, zeren han gerthatzen baitzen zenbait zure etsai. Halaber edirenen
biktoria duzu, lehen zinela gerlan, eta orai zarela, biktoria erdietsirik, bakean. Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Victoria contra iram est quidem maxima, non cum iniurias ulciscimur, sed cum eas aequo animo toleramus.*
garaitia Etsaitasuneko biktoria, eta garaitia, eztago ez mendekatzean, eta ez ordaiñaren bihurtzean edo doblearen: baiña dago barkhatzean, eta bidegabèn pazientki pairatzean. Zeren orduan zeure etsaia, zeure burua, eta dea-
arima brua ere garaitzen baititutzu, eta arima, eta gorputza ere bakean, soseguan eta sègurean ibentzen. Zein baita gauza handia, laudatzekoa, eta lehen baiño lehen geroko begira egon gabe, etsaitasunaren utzteko, lehenen gaiñera erremedio ona, eta konsideratzekoa.





POR QUE HEMOS DE PERDONAR A NUESTRO ENEMIGO Y TENERLE AMOR, PRIMERA RAZON: PORQUE DIOS LO MANDA

CAPITULO XXVIII

213 Hemos dicho cuántos daños se siguen del deseo desordenado de venganza y del odio que de ahí se origina. Hemos indicado asimismo algunos remedios y consideraciones para no enfadarse, para deponer la venganza y calmar la cólera.

Mas ahora es menester estudiar y considerar el punto principal de esta cuestión, o sea, a ver cómo debemos conducirnos respecto de nuestro enemigo: si debemos amarlo o aborrecerlo. Y si debemos amarlo, a ver por qué, por qué causa o razón debemos hacerlo.

Anteriormente, en la ley antigua, entendiendo mal la ley, no tenían por pecado el aborrecer al enemigo. Porque como la ley mandaba que amasen a los amigos y no decía nada ni se ocupaba de los enemigos, de ahí sacaron que en consecuencia podían odiar a los enemigos.

Pero el que descendió del cielo a la tierra enseñó qué es lo que se debía hacer aun en este particular, diciendo: "Si enim diligitis eos qui vos diligunt, quam mercedem habebitis? nonne et publicani hoc faciunt?" (Mt. 5) Con amar a los amigos ¿qué premio, qué gratificación y mérito pensáis que vais a tener? Aun los gentiles, los que no conocen ningún Dios, y las gentes depravadas hacen eso: también ellas aman a los que les hacen bien.

"Diligite inimicos vestros". A los enemigos, a los enemigos es a los que debéis amar, a los que os hacen mal debéis hacer bien. Y cuanto más mal os hacen ellos a vosotros, tanto más bien debéis hacerles vosotros. "Vince in bono malum". Hay que vencer al mal con el bien.

Mas ¿por qué hemos de amar a nuestro enemigo? A quien nos hace mal ¿por qué hemos de hacer bien? Inquiramos, busquemos algunas razones.

La primera razón, primerísima por todos conceptos, que nos ata de pies y manos, de forma que no podamos decir "no" es el precepto y la voluntad de Dios. "Ego autem dico vobis, diligite inimicos vestros": Diga el que quiera lo que quiera, pero yo os digo a vosotros que améis a vuestros enemigos.

ZERGATIK BEHAR DIOGUN GEURE ETSAIARI BARKHATU ETA AMORIO EDUKI. LEHENBIZIKO ARRAZOIÑA ZEREN IAINKOAK MANATZEN BAITU KAP.XXVIII

213 Erran dugu zenbat kalte egiten duen mendekatzeko desira desordenatuak, eta handik sortzen den gaitzerizkoak, ibeni dugu halaber zenbait erremedio eta konsiderazino ez haserretzeko, mendekuen utzteko eta koleraren iraungitzeko.

gaitzerizkoa

Bada orai behar da iakin eta konsideratu, materia hunetako ponturik prinzipalena, ea nola behar dugun geure etsaiaren alderakotzat gobernatu: behar dugunz etsaia onhetsi ala gaitzetsi.

materia

alderakotzat

Eta baldin onhetsi behar badugu, ea zergatik, zer kausaz edo arrazoiñez behar dugun onhetsi.

Lehenago, Lege Zaharrean, legea gaizki aditurik, etzedukaten bekhatu etsaiaren gaitzestea. Zeren nola legeak manatzen baitzuen adiskideak onhets zitzatela, eta etsaiez ezpaitzuen deus erraiten eta konturik egiten, handik atheratzen zuten, beraz etsaiak gaitzets ahal zitzaketela.

Lege Zahar

Baiña zerutik lurrera iautsi zenak erakutsi zuen zer egin behar zen hunetan ere, erraiten zuela: *Si enim diligitis eos qui vos diligunt, quam mercedem habebitis, nonne et publicani hoc faciunt?* (Mt. 5). Adiskidearen onhesteaz, zer irabazi, zer esker eta merezimendu uste duzue izanen duzuela? Ientilek, Iainkorik ezagutzen eztutenek eta iende gaixtoek ere egiten dute hori, hek ere onhetsteintuzte bere ongi egilleak. *Diligite inimicos vestros.*


ongia

Etsaiak, etsaiak onhetsi behar ditutzue, gaizki egiten deratzuezanei egin behar derauezu ongi. Eta zenbatenaz eta hek zuei gaizkiago, hanbatenaz zuek hei ongiago. *Vince in bono malum.* Ongiaz gaizkia garaitu behar da.

galzkia

Ordea zergatik onhetsi behar dugu geure etsaia? Egiten derakunari gaizki, zergatik egin behar diogu ongi? Dugun iakin, dugun bilha zenbait arrazoiñ.

Lehenbiziko arrazoiña, alde guztiz lehenbizikoa, ezetz ezin derrakegun bezala, oiñ-eskuetan lotzen gaituena, da, Iainkoaren manua eta borondatea: *Ego autem dico vobis, diligite inimicos vestros.* Nahi duenak berra nahi duena baiña nik erraiten deratzuet zuei, onhets ditzatzuela zeuen etsaiak.



214 Los discípulos del gran filósofo Pitágoras no necesitaban otro mandato ni otra razón que el saber que lo había dicho su maestro (Cicero de nat. deorum). El maestro lo ha dicho, el maestro lo ha mandado: por tanto así es y así se debe hacer. Tal era su lenguaje.

Pues bien: a nosotros, para amar a nuestro enemigo ¿no nos ho de bastar el saber que Dios manda que le amemos?

Cuando una persona te ha hecho una ofensa suele suceder que se recurre a intermediarios y mediadores para hacer las paces. Primeramente viene a ti un amigo o compañero tuyo, y éste te dice: Ya sé que fulano te ha irrogado una ofensa, pero él está pesaroso y arrepentido, reconoce su falta, y por tanto en atención a mí debes perdonarle, debéis reconciliaros. En estos términos te habla tu amigo y compañero. Pero tú fácilmente a éste le das la negativa, diciendo que no te da la gana, porque no te da reparo, pues no tienes a tu amigo por superior a ti.

Después de aquel amigo, cuando aquél nada ha podido hacer, te viene otro emisario más grande y que infunde más respeto. Y como estás grandemente irritado, también a éste le das la negativa, aunque no tan fácilmente como al anterior. Le dices que por favor no te hable de ese negocio, porque estás sobradamente requemado, herido y lastimado en la fibra más delicada. Por fin interviene en ello el mismo rey, y éste fácilmente te vence, te ablanda, no te atreves a decirle que no.

Pues bien: si a un rey de una parte de la tierra —el cual, si hoy es, mañana no va a ser nada—, no te atreves a dar la negativa: al Rey de todo el mundo, al mismo Dios, ¿cómo te vas a atrever a decirle que no, a contrariarle, y cuando te manda que ames a tu enemigo, ¿cómo te vas a atrever a decirle que no le quieres amar y que no le quieres perdonar?

§ 1

215 Dirás aquello que suelen decir comúnmente los que abrigan enemistad y quieren paliarla y encubrirla: yo ya le perdono, no le deseo ni quiero mal alguno. Al contrario, concédale Dios todo el bien que yo quisiera para mí. Pero no quiero hablarle ni quiero que él me hable. Unica y simplemente, que

108 *Ahalkesun.* Hunela dago idatzirik, baina Mitxelenak uste du *ahalkeizun* behar lukeela. Ikus FLV (1974) 108.

214 Pytagoras filosofo handi haren diszipuluek, etzuten bertze manurik behar, eta ez arrazoiñik, iakitea baizen heken nabusiak erran zuela (Cicero de nat. deorum).

manatu hitzkuntza

Nabusiak erran du, nabusiak manatu du: beraz hala da, eta hala egin behar da. Haur zen heken hitzkuntza. Bada guretzat, guk geure etsaiaren onhesteko, ezta asko izanen, onhets dezagula Iainkoak manatzen duela iakitea?

ongunde

Presuna batek, bidegabe bat egiten deratzunean, gerthatzen da, enplegatzen baitira bitartekoak eta ararteko koak, ongunden egiteko; lehenbizikorik ethortzen zaitzu zeure lagun bat, zeure adiskide-kide bat, eta hark erraiten deratzu:

rikitan egon

Badakit urliak bidegabe egin deratzula, baiña urrikitan dago, damu du, ezagutzen du bere falta, eta hala ene amoreakgatik barkhatu behar diozu, adiskidetu behar zarete. Hunela erraiten deratzu zeure lagun adiskideak. Baiña zuk hari erraxki erraiten diozu ezetz, eztuzula nahi, zeren ezpatzatzaitza ahalke, ezpaitadukazu zeure burua baiño gehiagoren.

ahalkesun

Zure lagun haren ondoan, hark deus ezin egin duenean, ethortzen zaitzu bertze ararteko bat, handiagoa eta ahalkesunagoa.[108] Eta ez hain erraxki, nola lehenari, baiña zeren kolera handian baitzaude, hari ere emaiten

othoi

diozu eza, erraiten diozu eztakizula othoi gauza hartzaz mintza, zeren sobera zaudela errea, zaurtua, eta giharran ukitua.

Azkenean enplegatzen da errege bera, eta hark berehala hausten zaitu, beratzen zaitu, etzatzaitza ezetz erraitera ausarzen.

Bada baldin lurreko parte baten Errege bati, egun baldin bada bihar izanen eztenari ausartzen ezpazatzaitza ezetz erraitera, mundu guztiko Erregeari, Iainkoari


kontratu

berari, nolatan ausartuko zatzaitza ezetz erraitera, kontratzera, eta manatzen zaituenean onhets dezazula zeure etsaia, eztuzula onhetsi nahi ēta eztiozula barkhatu nahi erraitera?

§ 1

etsaigoa

215 Erranen duzu komunzki etsaigoan daudenak bere etsaigoaren ederztatzeko eta estaltzeko erraiten dutena. Nik barkhatzen diot, eztiot gaitzik desiratzen eta ez ordenatzen. Aitzitik nik neuretzat nahi nukeien bezanbat ontasun demola Iainkoak. Baiña eznatzaika mintzatu nahi, eta eztut nahi mintza dakidan.



no quiero nada con él. Así te expresas, pero no sé si lo haces rectamente. Porque parece que los que de esa forma no se hablan, no están libres de mala voluntad.

Se denuncian en sus palabras y conversaciones. *Porque no pueden hablar cosa buena el uno del otro,* a no ser fingidamente: y en las obras cuando se necesitan y tienen que recurrir el uno al otro, se juntan lo menos posible.

Y en cuanto a la intención y voluntad, pongo a ellos mismos por testigo, porque ellos saben bien qué género de voluntad se tienen el uno para el otro. Y si lo quieren pensar y considerar bien, hallarán que allá en su interior tienen cierta animosidad, cierto rencor y odio, y que no tienen el alma y los corazones tan limpios y claros como ellos dicen.

En la herrería, en la fragua del herrero, cuando los fuelles cesan de dar aire, hace impresión de que no hay fuego. Porque al punto los carbones se cubren de cenizas. Empero mueve un poco los fuelles, y verás cómo inmediatamente reaparece de nuevo el fuego. Así también reaparece el fuego de la mala voluntad que existe entre los que no se hablan a la menor ocasión en que mutuamente se precisan.

216 Ahora bien, cuando no hay mala voluntad, el mero no hablar, el no saludar o no conversar ¿es pecado? (Vide Caiet. in Summa, verbo odium). Si te comportas como comúnmente lo hace el cristiano con los cristianos, el pariente con los parientes, el paisano con los paisanos y de su pueblo, o sea, si al topar con él en el camino, y preguntándole alguna cosa u ofreciéndose alguna otra circunstancia, le contestas, le saludas y le muestras que no abrigas mala voluntad aunque por lo demás le despaches brevemente y no te conduzcas con él lo mismo que con un amigo íntimo: no parece que en este proceder haya pecado: sobre todo si piensas que de hablar con frecuencia y de prolongar el trato, pueden originarse inconvenientes, como a veces se originan. Porque existen ciertas clases de personas tan pendencieras, tan malas compañeras, tan particularmente nefastas y de tan mala estrella que es preferible alejarse de ellas, y huir y apartarse de sus caminos y de topar con ellas o aguardarlas.

Mas como el andar distanciados, el huir de tener mutuos contactos y el no hablarse mutuamente a no ser por bien parecer, indica que existe cierta enemistad y mala voluntad; por ello, por lo que se

Ezta bertze gauzarik, harekin deus eztudala nahi baizen. Hunela erraiten duzu, baiña eztakit, ongi erraiten duzunz. Zeren badirudi ezen hunela elkharrekin minzatzen eztirenak eztirela borondate gaixto gabe.

solhas itxurapenez

Ezagun dira bere hitzetan eta solhasetan. Zeren ezterrakete elkharrez ongirik, itxurapenez edo baizen: obretan ere elkharren behartzen eta meneratzen direnean, elkharri ahalez heltzen zaitza.

Bada gogoaz eta borondateaz denaz bezanbatean, berak ibenzeintut lekhuko, zeren berek dakite zer borondate duten elkharren alderakotzat. Eta baldin ongi pensatzen eta konsideratzen badute, edirenen dute, badutela barren hartan, zenbait uherdura, zenbait herra eta gorrotu, eta ez dioten bezain bere gogoa eta bihotzak garbi eta klar.

uherdura

ementaldegi hausko

Errementaldegian, harotzaren sutegian, hauskoak haize emaitetik gelditzen direnean, badirudi eztela surik. Zeren berehala ikhatzak ilhaunez estaltzen baitira. Ordea higitzatzu aphur bat hauskoak, eta ikhusiko duzu nola berehala berriz sua agertzen den. Hala agertzen da bada, elkharrekin mintzatzen eztirenen arteko borondate gaixtoaren sua ere, den okhasinorik ttipienean elkharren behartzen direnean.

ilhaun

216 Ordea borondate gaixtorik eztenean, ez minzatzea bera, ez salutatzea, edo ez konbersatzea, bekhatu othe da? (Vide Caiet. in Summa, verbo odium).


komunzki inkontratu

Baldin komunzki, giristinoak giristinoekin, ahaideak ahaidekin, eta herrikoak herrikoekin bezala, bidean inkontratzean, dēus galdegiten deratzunean, edo bertze kasurik gerthatzen denean, ihardesten badiozu, salutatzen baduzu, eta borondate gaixtorik ez izan, bertze gaiñerakoan laburzki utziagatik, adiskide mami batekin bezala harekin ez ibiliagatik: badirudi eztela orduan bekhaturik: guztiz ere baldin uste baduzu, maiz minzatzetik eta elkharrekin segitzetik ethor ditekeiela kalte, nola ethortzen baita batzutan. Zeren badira iende batzuk hain okhasinotsuak, arrunkide gaitzak, batkari ondikozkoak eta inkontru gaixtotakoak, non hobe baita halakoei alde egitea, eta heken bidetarik eta inkontruetarik ihes egitea, eta aldaratzea, igurikitzea baiño.

mami

arrunkide batkari ondikozko

Ordea zeren apartaturik ibiltzeak, elkharren inkontruetarik ihes egiteak, eta edergaillu baizen elkharrekin ez minzatzeak, erran nahi baitu, badela bitartean, zenbait etsaigoa eta borondate gaixto, erraite huragatik,



pueda decir, por la fama de enemistad y por el escándalo que con ello se da, si es que no deshaces estos dichos, esta opinión de enemistad y este escándalo, aun cuando no tengas ninguna mala voluntad, no estás exento de peligro en tu conciencia, porque estás obligado y estamos obligados, así como somos cristianos en lo interior, a mostrar y dar a entender que también lo somos por fuera. No estamos obligados a hablar con nuestros enemigos lo mismo que con los amigos sobre nuestros secretos y negocios, a andar con ellos frecuentemente ni a ir con ellos como se va con los amigos. Basta saludar, vivir de manera que el mundo no nos pueda tener por enemigos, no abrigar mala voluntad y no dar escándalo. Por lo demás lleve cada uno por su parte sus negocios y hable lo que necesita con el que necesite.

Verdad es, empero, que para ser santo, para hacer ventaja a los cristianos comunes, no basta con saludar, con no abrigar mala voluntad y con no dar escándalo: sino que es preciso ser con todos lo mismo, con todos es preciso ser conversador cariñoso y familiar.

Y con mayor razón, no basta con no hacer mal al que nos hace mal, sino que debemos hacerle bien. Porque esta es la santidad, la perfección, el ser cumplido en la virtud y el dar cumplimiento al mandato que nos ha dado Dios acerca de la caridad y el amor.

§ 2

217 Hemos dicho que tenemos que perdonar y amar a nuestro enemigo porque así lo manda Dios. Mas ¿cuándo lo mandó? El jueves santo por la noche, la víspera de su muerte, en su última hora, cuando se hallaba, como quien dice, con la candela en la mano. La esposa se acuerda de la palabra postrera que su marido le dijo al morir, y también el hijo se recuerda del consejo dado por su padre en esta ocasión.

Pues bien, nuestro Dios en su última hora, al partir de este mundo al otro, dijo a sus discípulos y con ellos a todos nosotros:

Discípulos míos, mis queridos cristianos, ya veis cómo me encuentro, cómo se me ha acercado la muerte, cómo debo morir dentro de poco y cómo me ha llegado la hora de hacer mi testamento y última disposición. Pues bien, mi última disposición, mi última voluntad y mandato es éste: "Ut diligatis invicem" (Jo. 15). Que os améis los unos a los otros, que perdonéis al enemigo.

etsai fama gatik, eta hartan emaiten den eskandaluagatik, baldin erraite hura, etsai fama hura eta eskandalua iraungitzen ezpaduzu, borondate gaixtorik ez izanagatik ere etzara peril gabe zeure konzientzian, zeren obligatu zara, eta obligatu gara, baldin barrenean giristino bagara, kanpoan ere giristino garela erakustera eta aditzera emaitera. Ezkara obligatu adiskidekin bezala, etsaiekin
sekeretu geure sekeretuez eta egitekoez minzatzera, hekin maiz ibilzera, eta ez hekengana, adiskidetara bezala ioaitera. Asko da salutatzea, munduak etsai eduki ezkaitzakeien bezala bizitzea, borondate gaixtorik ez edukitzea, eta eskandalurik ez emaitea. Gaiñerakoan nork bere egitekoak
solhastatu egin ditzala eta behar duena behar duenarekin solhasta dadilla.


Egia da ordea, saindu izaiteko, girisino komunei abantail eramaiteko, ezta asko salutatzea, borondate gaixtorik ez edukitzea, eta ez eskandalurik ere ez emaitea: baiña guztiekin behar da izan orobat, guztiekin be-
solhasturi har da izan solhasturi amoltsu eta arronter.

Eta are gehiago ezta asko gaizki egiten derakunari gaizkirik ez egitea, baiña ongi egin behar diogu. Zeren hura da saindutasuna, perfettasuna, debozinoan konplitu izaitea, eta Iainkoak karitateaz eta amorioaz eman derakun manuaren konplitzea.

§ 2

217 Erran dugu barkhatu behar diogula geure etsaiari eta amorio eduki, zeren hala manatzen baitu Iain-
orzegun koak. Ordea noiz manatu othe zuen? Orzegun Saindu arratsean, hil behar zuen bezperan, bere azken finean, kandela bere eskuan harturik bezala zegoenean. Emaztea orhoitzen da, bere senharrak hiltzerakoan erran zioen azken hitzaz, eta bai semea ere, orduko bere aitaren konseilluaz.

Bada gure Iaungoikoak bere azken finean, mundu hunetarik bertzera partitzerakoan, erran zerauen bere diszipuluei eta hekin batean guri guztioi: Ene diszipuluak, ene giristino maiteak: badakusazue, nola nagoen,
sarri nola heriotzea hurbildu zaitan, sarri hil behar dudan, eta
ordu neure testamentaren eta azken ordenuaren egiteko ordu dudan. Bada ene azken ordenua, ene azken borondatea eta manua haur da: *Ut diligatis invicem* (Jo. 15). Elkhar onhets dezazuela, etsaiari barkha diazozuela.



En esto tendréis la contraseña, en esto seréis reconocidos de que sois míos y de que habéis sido criados e instruidos en mi escuela y compañía. "In hoc cognoscent omnes quod discipuli mei estis, si dilectionem habueritis ad invicem" (Jo. 13).

218 Ya sabéis cuántas ofensas le hicieron al gran patriarca José sus hermanos: cómo le odiaron y vendieron. Y como después, al cabo de tiempo, cuando menos lo pensaban, vinieron a necesitar y a estar dependientes de su hermano vendido, esto les puso en gran aprieto; tan grande, que después, cuando murió su padre Jacob, comenzaron a reunirse y a decirse mutuamente: ¿Qué será ahora de nosotros? Ha muerto nuestro padre virtuoso, bueno y santo: y mientras él vivía estábamos bien, estábamos seguros, porque nuestro hermano nos perdonaba en atención a él. Pero ahora, ¿quién nos valdrá? ¿Por causa de quién nos dispensará el perdón? Traían dentro de sí grandes cavilaciones. Y como las cavilaciones provocaban cavilaciones, se dijeron mutuamente: Antes nuestro hermano nos perdonó por consideración a nuestro padre: pues bien, también ahora nos tiene que perdonar por él mismo. Y para ello debemos ir a hablarle de parte del padre y le diremos de su parte lo siguiente: "Pater tuus praecepit nobis antequam moreretur ut haec tibi verbis diceremus: Obsecro ut obliviscaris sceleris fratrum tuorum, et peccati atque malitiae quam exercuerunt in te. Nos quoque oramus ut servo Dei patri tuo dimittas iniquitatem hanc. Quibus auditis flevit Joseph" (Gen. ult.). Señor, le dicen a José sus hermanos: ya sabes que ha muerto tu padre y nuestro, y que ha muerto tan virtuosa y santamente como vivió. Al morir preguntó por ti, y exhalando un gran suspiro dijo: ¿Dónde está José, mi hijo bien amado? Decidle que muero con un gran deseo de verle y que le doy mi bendición. Decidle asimismo que hasta ahora como buen hijo siempre ha hecho mi voluntad y que también ahora debe hacerla. Y que mi voluntad, mi último adiós y ruego es que no se acuerde de la injusticia y maldad que vosotros le hicisteis, sino que quiera perdonaros y teneros y mostraros una sincera hermandad, como si tal cosa no hubiera sucedido: que esto y ninguna otra cosa más es lo que le encomiendo: que este es mi último adiós y lo que él debe ejecutar por mi amor. Cuando sus hermanos hablaron a José de esta forma de parte de su padre, se le humedecieron los ojos, le invadieron las lágrimas; y cómo se vengaría que

Hunetan izanen zarete seiñale, hunetan izanen zarete ezagutuak, eneak eta ene eskolan eta konpaiñian haziak eta ikhasiak zaretela. *In hoc cognoscent omnes quod discipuli mei estis, si dilectionem habueritis ad invicem.* (Jo. 13).

218 Badakizue, zenbat bidegabe egin zioten Ioseph Patriarka handi hari bere anaiek: Nola gaitzetsi zuten eta saldu zuten. Eta nola gero halaber denboraren buruan, guti usterik, bere anaia salduaren beharrera eta menera ethorri ziren, herstura handian iarri ziren: hain handian, ezen gero bere aita Iakob hil zeienean, hasi baitziren elkhargana bildurik, elkharri erraiten: zer izanen da bada orai gutzaz? Hil da gure aita prestua, ona eta saindua: eta hura bizi zeiño ongi ginen, segur ginen, zeren haren amoreakgatik, geure anaiak barkhatzen zerakun.

gaitzetsi

menera


Baiña orai, nor baliatuko zaiku? Norgatik baliatuko deraku? Gogoeta handi zuten bere baithan. Eta gogoetak, gogoeta eragiten zerauela, erran zioten elkharri: Lehen geure aitaren amoreakgatik barkhatu zerakun geure anaiak; bada orai ere, harengatik beragatik, barkhatu behar deraku. Eta hartarakotzat ioan behar gatzaitza aitaren partez minzatzera, eta erran behar diogu harketz molde hunetan: *Pater tuus praecepit nobis antequam moreretur, ut haec tibi verbis diceremus: obsecro ut obliviscaris sceleris fratrum tuorum et peccati atque malitiae quam exercuerunt in te. Nos quoque oramus, ut servo Dei, patri tuo, dimittas iniquitatem hanc. Quibus auditis, flevit Ioseph* (Gen. ult.). Iauna, erraiten diote Iosephi bere anaiek, badakizu zure eta gure aita prestua hil dela, eta hil ere ongi eta sainduki, bizi bezala hil ere. Hiltzerakoan zure galdegin zuen, eta hats-beherapen handi bat egiñik, erran zuen: Non da Ioseph ene seme maite hura? Errozue haren ikhus min handi batekin hiltzen naizela, eta neure benedizionea badiodala. Errozue halaber, orainokoan seme onak bezala, bethi ene borondatea egin duela, eta orai ere egin behar duela. Eta ene borondatea, ene azken adioa eta othoitza dela, eztadin orhoit zuek egin zinioten bidegabeaz, eta maliziaz, baiña nahi deratzuen barkhatu, eta halakorik iragan ezpailliz bezala, anaiatasun on bat eduki eta erakutsi: haur gomendatzen diodala, eta ez bertzerik: haur dela ene azken adioa, eta hark ene amoreakgatik egin behar duena. Hunela bere aitaren partez bere anaiak Iosephi, mintzatu zeitzanean, begiak busti zeitzan, nigarra iauzi

harketz

s-beherapen

adio

anaiatasun



asió a sus hermanos abrazándoles y diciéndoles: el padre me manda que os perdone, pues bien, un *mandato de tal padre y dado en tal ocasión* y coyuntura, al expirar, ¿quién dejará de cumplirlo? Y de hecho lo cumplió perdonando a todos.

219 Así también nuestro Dios, en su última hora, cuando se le acercó el tiempo de morir, nos dijo: Buenas gentes, ya veis cómo me encuentro en la víspera de mi último trance, cómo mañana debo morir: pues bien, si hasta el presente os he hecho algún favor, si en algo os sentís deudores para conmigo, *una cosa debéis hacer por mí y con ello doy por* cancelada vuestra deuda. —Ah, Señor, di cuál, porque duro de corazón y poco agradecido ha de ser el que no cumpla el mandato de un tal padre, y mandato dado en semejante trance. —¿Cuál? Que os améis los unos a los otros, que por mi amor perdonéis al enemigo. Esta es mi última voluntad y lo que por encima de todas las cosas os recomiendo.


Por consiguiente, no podemos negarnos, tenemos que perdonar a nuestro enemigo, hacerle el bien y amarle. Porque así nos lo ha mandado nuestro Dios. Y nos lo ha mandado, no en cualquiera ocasión, sino en su última hora, al tiempo en que a uno debe grabársele en lo más íntimo del corazón aun la palabra más pequeña.

zeikan: eta nola mendekatuko zen, ezen besarka bere anaiei lothu zeien, erraiten zerauela: aitak manatzen nau barkha diazazuedala: bada halako aitaren manua, eta
puntada halako puntadan eta denboran, arimak egiterakoan emana, nork eztu konplituko? Konplitu zuen, guztiei barkhatu zerauen.

219 Hala bada guri ere Iainkoak, bere azken finean, hiltzeko denbora hurbildu zeikanean, erran zerakun:
pontu Iende onak, badakusazue nola nagoen neure azken pontuaren bezperan, nola bihar hil behar dudan: bada baldin orainokoan bat ere ontasunik egin baderatzuet, baldin deusetan ere ene alderakotzat zordun edireiten baditutzue zeuen buruok, gauza bat egin behar duzue ene-
kitatu gatik, eta hartzaz kitatzen zaituztet. Ha Iauna, errazu zer, zeren bihotz gogorra eta ezagutza gutitakoa izanen da, zu bezalako aitaren manua, eta pontu horretan emana konplituko eztuena. Zer? Elkhar onhets dezazuela, etsaiari ene amoreakgatik barkha diazozuela. Haur da ene azken borondatea, eta guztien gaiñetik gomendatzen deratzuedana.

Beraz ezta ezetz erraiterik, barkhatu behar diogu
morio eduki geure etsaiari, egin ongi eta eduki amorio. Zeren hala manatu baikaitu geure Iaungoikoak, eta manatu ere ez noiz nahi den, baiña bere azken finean, bat bederari, den hitzik ttipiena ere, bihotzean barrena sarthu behar litzaikaion denboran.





LA SEGUNDA RAZON POR LA QUE DEBEMOS PERDONAR A NUESTRO ENEMIGO ES QUE DIOS SE RESERVA PARA SI LA VENGANZA

CAPITULO XXIX

220 Cuando alguien te irroga una ofensa, no quiere Dios que tú le devuelvas lo equivalente: él toma sobre sí el vengar y el hacer justicia (Dt. 32). "Mea est ultio et ego retribuam eis in tempore" (Rom. 12). Cuando el enemigo te hace un mal, más que a ti *se lo hace a Dios porque con ello quebranta* su mandato. Mas no por eso le castiga Dios al punto, le aguarda, y por aguardar no recibe deshonor. Por lo tanto, tampoco tú has de recibir deshonor alguno con aguardar hasta el otro mundo, con no vengarte hasta allá.

Si ahora tienes paciencia, si dejas al mismo Dios que El lo haga, estate seguro de que El castigará según se merece, sin falta y de un solo golpe, tanto la injusticia que a El se le ha hecho como la que a ti te han hecho, y que obligará al enemigo a hacer el preciso descargo.

Si quieres vengarte por tu mano tienes que tomarte trabajos, y muchas veces tienes que quedarte sin poder hacer nada. Porque por ventura tu enemigo será más fuerte y poderoso que tú. Y como dice Livio: "Vana sine viribus ira" (Livius dec. 1, lib. 1). La cólera sin fuerza, el enfado y el deseo de venganza del que no puede sobreponerse a su semejante *es vano, inútil y sirve de poco.* Y Séneca dice también: "Ergo ab ira abstinendum est, sive par est qui lacessendus est sive superior, sive inferior. Nam cum pari contendere anceps, cum superiori furiosum et cum inferiori sordidum" (Senec. lib. 2 de ira cap. 34). En cualquiera de los casos hay que evitar el pelearse y el acometer al enemigo, ya sea que ese enemigo sea igual a ti, ya sea superior y ya sea inferior. Porque luchar con el igual es cosa expuesta y peligrosa, con el superior locura y con el inferior es cosa fea y deshonrosa. Y con todo, siendo esto así y sabiendo que es así, andas queriendo pelearte, estás lleno de malos deseos, no quieres perdonar al enemigo. Y con ello te pierdes a ti mismo. Porque con ello más daño te haces a ti que al enemigo. Así lo da a entender el rey David cuando dice: "Circumderunt me sicut apes" (Ps.

[109] *Parrik* = parerik.

BIGARREN ARRAZOIÑA, ZERGATIK BEHAR DIOGUN GEURE ETSAIARI BARKHATU, DA, ZEREN MENDEKATZEA BERETZAT BEGIRATZEN BAITU IAINKOAK

KAP. XXIX

220 Nehork bidegabe bat egiten deratzunean, eztu nahi Iainkoak zuk ordaiñik bihur diazozun: berak hartzen du bere gaiñera mendekatzea eta iustizia egitea. *Mea est ultio et ego retribuam eis in tempore* (Dt. 32; Rom. 12). Etsaiak gaizki bat egiten deratzunean, zuri baiño gehiago egiten dio Iainkoari, zeren hartan haren manua hausten baitu. Ordea eztu hargatik Iainkoak berehala gaztigatzen, igurikitzen dio, eta igurikiagatik eztu desohorerik. Beraz eztuzu zuk ere desohorerik izanen, bertze munduraiño igurikitzeaz, hareraiño ez mendekatzeaz. Baldin orai pazientzia baduzu, Iainkoari berari, berak dagiela utzten badiozu, zaren segur, berak berari egin zaikan bidegabea, eta zuri ere egin deratzutena, kolpe batez, eskas gabe, eta merezi bezala gaztigatuko dituela, eta behar den deskargua etsaiari eraginen deraukala.

gaizki (sust.)


Iguriki

Zerori zeure eskuz mendekatu nahi bazara, penatu behar zara, eta anhitzetan ere deus ezin eginez gelditu behar zara. Zeren benturaz etsaia izanen baita, zu baiño indartsuago eta botheretsuago. Eta Liviok dioen bezala, *Vana sine viribus ira* (Livius dec. 1, lib. 1). Indar gabeko kolera, haserrea eta mendekatzeko desira, parrik[109] ezin iragan dezakeienarena, bano da, alfer eta guti balio. Eta erraiten du Senekak ere: *Ergo ab ira abstinendum est sive par est qui lacessendus est, sive superior sive inferior. Nam cum pari contendere anceps, cum superiori furiosum, et cum inferiori sordidum. (Senec. lib 2* de ira cap. 34). Nola nahi den dela, begiratu behar da ihardukitzetik eta etsaiaren akometatzetik, nahiz dela etsai hura zure berdin, nahiz handiago, eta nahiz ttipiago. Zeren berdinarekin ihardukitzea dudos da eta perilos, handiagoarekin erhokeria, eta ttipiagoarekin itsusi eta dosohore. Eta guztiarekin ere haur hunela delarik eta dela dakizularik ere, iharduki nahiz zabiltza, desira gaixtoz bethea zaude, eztiozu etsaiari barkhatu nahi. Eta hartan zeure burua galtzen duzu. Zeren hartan zeure buruari, etsaiari baiño kalte gehiago egiten baitiozu. Hala emaiten du aditzera errege Davitek erraiten duenean: *Circumdederunt me sicut apes* (Ps. 117).

parrik = parerik

akometatu

dudos



117). Me rodearon los enemigos como abejas. Cuando la abeja muerde a alguien, más se muerde a sí misma, pues en ello le va su aguijón y la vida. Eso mismo te sucede también a ti: cuando muerdes al enemigo, cuando no le quieres perdonar y le haces alguna ofensa, más te la haces a ti mismo.

221 Y acerca de este particular te quiero decir una cosa. Debes saber que aunque tú no perdones a tu enemigo, de ahí no se sigue —si él por su parte cumple su deber— que Dios no le va a perdonar a él. Y en ese caso, con no perdonarle, a ti mismo es a quien te perjudicas, y no a tu enemigo.

Y por esto, siempre, pero particularmente cuando no puedes vengarte por ti, consuélate y sábete que Dios tomará la venganza. Y que él no deja ni dejará ninguna falta sin castigo: y que las castigará más rigurosamente que tú lo harías. Y así como muchas veces cuando un padre ha pegado a su hijo, rompe el palo y lo echa al fuego: así a tu enemigo —que es el que a ti te pega y aflige— romperá Dios y al último lo echará al fuego del infierno.

Por consiguiente, cuando una persona te hace, te dice o proyecta contra ti una sinrazón, debes decir a Dios: "Señor, ya veis en lo que estoy y qué es lo que me ha hecho; y es a ti a quien te lo ha hecho, más que a mí. Y tú sabes mejor que yo qué castigo y cuánto es lo que merece: por lo tanto, no es razón que yo me entrometa a sustituirte. Y así, como es justo y como tú lo mandas, a ti te lo dejo, haz tú justicia. Y con esto —pues confío en que tú lo harás— desde ahora me tengo por vengado, y me quedo aplacado dentro de mí y decidido a perdonar al enemigo".

Inguratu nenduten etsaiek, erlek bezala. Erleak nehor autsikitzen duenean, autsikitzenago du bere burua. Zeren bere eztena eta bizia han utzten baititu. Hala gerthatzen zaitzu bada zuri ere, etsaiari autsiki egiten diozunean, barkhatu nahi eztiozunean, eta bidegaberik egiten diozunean, gehiago egiten diozu zeure buruari.

ezten

221 Eta pontu hunen gaiñean gauza bat erran nai deratzut: iakin behar duzu ezen zuk zeure etsaiari ez barkhatuagatik, eztela handik segitzen, baldin hark bere aldetik bere eginbidea egiten badu, eztioela hari Iainkoak barkhatuko. Orduan ez barkhatzeaz, zeure buruari egiten diozu kalte, eta ez zeure etsaiari.

Eta hala bethiere bai, baiña guztiz ere zerori ezin mendeka zaitezkeienean, konsola zaite eta iakizu ezen, Iainkoa mendekatuko dela. Eta hark eztuela utzten, eta ez utziko ere, faltarik, gaztigatu gabe: eta zuk zerorrek eginen zinituen baiño, zintkiago, eta fintkiago gaztigatuko dituela. Eta nola anhitzetan ere, aita batek bere semea zehatu duenean, zathitzen baitu zigorra eta egotzten sura: hala zure etsaia, zure zehatzaillea, eta penatzaillea ere zathituko du Iainkoak, eta azkenean egotziko ifernuko sura.

konsolatu

zehatzaille

Beraz hunelatan presuna batek, bidegabe bat egiten, erraiten edo pensatzen deratzunean, erran behar diozu Iainkoari: Iauna, badakusazu zertan naizen, eta zer egin derautan: eta zuri, niri baiño gehiago egin deratzu. Eta zuk badakizu, nik baiño hobeki, zer gaztigu eta zenbat merezi duen. Ezta beraz arrazoin, zu zaren lekhuan, nik eskurik har dezadan. Eta hala, arrazoin den bezala, eta manatzen duzun bezala, zerorri utzten deratzut, zeurk egizu iustizia. Eta hunein bertzez, zeren fida bainaiz eginen duzula, oraidanik mendekatutzat dadukat neure burua, eta gelditzen naiz neure baithan sosegatua, eta etsaiari barkhatzera deliberatua.

oraldanik



TERCERA RAZON, Y POR AHORA LA ULTIMA: QUE HEMOS DE PERDONAR A NUESTRO ENEMIGO A FIN DE QUE DIOS NOS PERDONE A NOSOTROS

CAPITULO XXX

222 Debemos perdonar a nuestro enemigo porque nuestro Dios nos perdone también a nosotros. Porque Dios mismo lo tiene dicho: que si perdonamos nosotros a nuestro enemigo, también El nos perdonará a nosotros; pero no en otro caso (Mt. 6). Y no estamos mal cuando Dios nos perdona a nosotros a trueque de perdonar nosotros a nuestro enemigo: es indecible el gran negocio que con esto hacemos. Porque siendo cosa insignificante la ofensa que a nosotros se nos hace, y en cambio grande, y en parte infinitamente grande la que nosotros hacemos a Dios, resulta que nuestro perdón no es nada comparado con el de Dios.

Hay algunas cosas que miradas aisladamente, por su naturaleza, son difíciles, pero relacionándolas y comparándolas con otra, son fáciles. El sacar sangre, el sajar, el beber una purga agria o pócima amarga es difícil y penoso, pero comparándolo con la salud resulta fácil. Por obtener la salud se toman y sufren de buen grado. Así también el perdonar al enemigo las faltas que te hace, aisladamente y en sí mismo, es algo difícil; pero relaciónalo con el perdón que por esta causa te hace a ti Dios de las ofensas que a El le haces, y entonces te parecerá fácil. Fácilmente perdonarás a tu enemigo, a fin de que Dios te perdone a ti. Y, por tanto, seremos gentes perdidas e insensatas si al menos por nuestro interés no perdonamos a nuestro enemigo.

223 Hazte cuenta a ver cuántos pecados has cometido hasta el presente, y cuán grandes, y si quieres que tu Dios te perdone a ti esos pecados, perdónale tú también a tu enemigo los que él te hace a ti. Cuando una persona te hace una injuria dices que no le quieres perdonar: por lo menos no tan pronto. Pues sería incluso un deshonor el perdonar al instante. El hablar así es una gran blasfemia, es hablar contra Dios. Porque eso equivale a decir que el cumplir el precepto de Dios es un deshonor.

Por consiguiente, debes perdonar a tu enemigo, y debes perdonarlo no de cualquier modo, no de palabra, en apariencia, exteriormente y por bien parecer: sino de veras y de buen grado, interiormente y de corazón. Porque sábete que de otro modo, Dios

HIRURGARREN ARRAZOINA, ETA ORAIKOTZ AZKENA: BARKHATU BEHAR DIOGULA GEURE ETSAIARI, IAINKOAK GURI BARKHA DIAZAGUN AMOREAKGATIK

KAP. XXX


222 Behar diogu geure etsaiari barkhatu, guri ere geure Iainkoak barkha diazagungatik. Zeren Iainkoak berak errana da, ezen baldin barkhatzen baderaukagu guk geure etsaiari, barkhatuko derakula hark ere guri, baiña ez bertzela (Mt. 6). Eta ezkara gaizki, guk geure etsaiari barkhatzeaz, Iainkoak guri barkhatzen derakunean: ezin erran diteke, zein irabazi handia egiten dugun hunetan. Zeren nola gauza aphurra baita guri egiten zaikun bidegabea, baiña handia, eta aldez infinituki handia, guk Iainkoari egiten dioguna, gure barkhamendua ezta deus Iainkoarenarekin konparaturik.

Badira gauza batzuk, berak bakharrik, bere egitez gaitz baitira, baiña bertze batekin iuntaturik eta elkhar harturik erraz dira. Odol atheratzea, kopatzea, purga uher baten, edari min baten edatea gaitz da, penos da, baiña osasunarekin iuntaturik erraz da. Sendatzeagatik, gogotik errezibitzen eta pairatzen dira. Hala etsaiari ere egiten derauzkitzun falten barkhatzea, bera bakharrik bere egitez, gaitz da. Ordea iunta ezazu, hargatik zuri Iainkoak egiten derautzatzunak barkhatzearekin, eta errax idurituko zaitzu. Erraxki barkhatuko diozu zeure etsaiari, Iainkoak zuri barkha diazazungatik. Eta hala iende galduak eta adimendu gabeak izanen gara, baldin geure probetxuagatik bedere, geure etsaiari barkhatzen ezpadiogu.

kopatu
min (adj.)
bedere

223 Egizu kontu, ea zenbat bekhatu egin ditutzun orainokoan, eta zein handiak, eta nahi baduzu zuk barkha diatzatzun hek zuri zeure Iaungoikoak, barkha iatzotzu zuk ere zeure etsaiari, egiten derauzkitzunak. Presuna batek bidegabe bat egiten deratzunean, erraiten duzu eztiozula barkhatu nahi, ez behintzat hain fite. Zeren desohore ere badela, berehala barkhatzea. Hori da blasfemia handia, Iainkoaren kontra minzatzea. Zeren hori da Iainkoaren manuaren konplitzea, desohore dela erraitea. Barkhatu behar diozu beraz zeure etsaiari, eta barkhatu ere, ez edozein moldez, ez hitzez, itxurapenez, kanpotik eta edergaillu: baiña zin zinez eta gogotik, barrenetik eta bihotzetik. Zeren iakizu ezen bertzela ez-

fite
blasfemia



no te perdonará. Ya puedes confesarte, recibir el sagrado Cuerpo, ayunar, orar y dar a los pobres todo cuanto tienes, pero todas estas cosas nada te valdrán si en el interior alimentas rabia, rencor, odio o mala voluntad contra alguno. No puede curarse la herida mientras la espina está dentro, no puede perdonarse el pecado mientras dure la mala voluntad. Los barberos en las heridas de la cabeza, primeramente apartan la carne y descubren el cráneo, con el fin de que no quede sangre podrida en medio. Porque si quedara, dicha sangre restaría fuerza y quitaría la eficacia a la medicina y al remedio que se coloca.

Así también, en esta herida del alma, primeramente hay que sacar y limpiar la sangre podrida de dentro y la turbiedad de la enemistad. Porque de otra suerte no hay curación posible, ni aprovechan las medicinas que se dan, ni las limosnas, ayunos, oraciones y demás obras buenas que se hacen.

§ 1

224 El que no quiere perdonar a su enemigo, no hallará en la hora de su necesidad ningún intercesor ni nadie que ruegue por él. Porque como dice el Espíritu Santo: "In hominem sibi similem non habet misericordiam, quis exorabit pro peccatis illius?" (Eccli. 29). No tiene misericordia ni compasión de su compañero, del que es su semejante, ¿quién hará, pues, oración por el pecado de este tal? Ni Santo ni Angel ni tan siquiera la madre de misericordia. Porque como dice Santiago: "Judicium sine misericordia illi qui non facit misericordiam" (Jac. 2). Justicia sin misericordia debe hacérsele a quien no hace misericordia. No se le debe perdonar al que no quiere perdonar.

Y este tal, él mismo tampoco quiere que le perdonen. Porque cada vez que dice "Pater noster", pide a Dios diciendo: "Dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris" (Mt. 6). Señor, perdónanos nuestras deudas, como nosotros perdonamos a los que son deudores para con nosotros. Quiere decir: Señor Dios, perdónanos las faltas y pecados que cometemos para contigo, como nosotros perdonamos a nuestros enemigos los defectos y maldades que cometen para con nosotros. Y no obstante esto, tú no quieres perdonar a tus enemigos las que te hacen: luego tampoco quieres que tu Dios te perdone a ti las faltas que le haces. Porque tal

110 *Ez sainduk...* mugagabe zeinen ederki


teratzula Iainkoak barkhatuko. Kofesa ahal zaitezke, gorputz saindua errezibi, barur, orazinotan egon, eta duzun guztia probei eman, baiña hek guztiak etzaizkitzu
hegigoa deus baliatuko, baldin barrenean nehori herrarik, hegigoarik, gorroturik edo borondate gaixtorik badiadukozu.

elhorri Eztiteke zauria senda, elhorria barrenean deiño, eztiteke bekhatua barkha borondate gaixtoak diraueiño. Barberek buruko zaurietan, lehenik haragia aldaratzen du-
ezur krosko te, eta hezur kroskoa agertzen, bitarten odol ustelik geldi eztadin. Zeren baldin geldi baledi, hark midizinari eta ezartzen den erremedioari, indarra flaka liazaio, eta berthutea edeki: hala arimako zauri hunetan ere lehenik behar da barreneko odol ustela, eta etsaigoaren uhertasuna athera eta garbitu. Zeren bertzela ezta sendatzerik, eta ez emaiten diren midizinek, eta egiten diren erremusinek, barurek, orazinoek eta bertze obra onek on egiterik.

§ 1

224 Bere etsaiari barkhatu nahi ezteraukanak, eztu
araiteko edirenen bere behar orduan arartekorik, eta ez othoitz egillerik. Zeren Spiritu Sainduak dioen bezala: *In hominem sibi similem non habet misericordiam, quis exorabit pro peccatis illius?* (Eccli. 29). Bere lagunaz, bera bezalakoaz, eztu miserikordiarik, eta ez urrikalmendurik, nork eginen du bada othoitz halakoaren bekhatuakgatik?
aingiruk Ez sainduk, ez aingiruk[110], eta ez are miserikordiaren amak ere. Zeren Iondone Iakuek dioen bezala: *Iudicium sine misericordia, illi qui non facit misericordiam* (Jac. 2). Miserikordia gabeko iustizia egin behar zaika miserikordiarik egiten eztuenari. Etzaika barkhatu behar, barkhatu nahi eztuenari. Eta halakoak eztu berak ere nahi barkha diazoten. Zeren, *Pater noster* erraiten duen guztian, egiten dio Iainkoari othoitz erraiten duela:

Dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris (Mt. 6). Iauna, barkha iatzagutzu geure zorrak, guk guregana zordun direnei barkhatzen derauztegun bezala. Erran nahi du: Iainko Iauna, barkha iatzagutzu zure alderakotzat egiten ditugun faltak, eta bekhatuak, guk geure etsaiei, gure alderakotzat egiten dituzten hutsak eta gaizkiak barkhatzen derauztegun bezala. Eta alabaiña ezterauztetzu zuk barkhatu nahi, zeure etsaiei egiten derauzkitzutenak, beraz eztuzu nahi barkha diatzatzun zuri ere zeure Iainkoak, egiten derau-



como obras tú con tu enemigo, así ruegas a Dios que obre contigo.

Cuando alguien comete contigo alguna falta, dices con toda la fuerza que tienes: Antes pierdo la vida que perdonarle esto. Y no consideras ni reparas que cometiendo tú faltas más grandes con Dios, quieres *no obstante que él te las perdone a ti todas.*

225 Considera, pues, que lo que tú no quieres perdonar a tu enemigo, perdonó Dios a los enemigos que le quitaron la vida; y aún más, que hizo oración a su padre a favor de ellos, y que tus enemigos no te han causado todavía a ti tan grande mal ni tan grandes pellizcos. Considera asimismo *lo que dice el Espíritu Santo: "Memento novissimorum et desine inimicari"* (Eccli. 28). Acuérdate de los negocios de tu último fin, del trance de la muerte, de aquel momento peligroso de la salida del alma y de la cuenta que entonces tendrás que dar, y acordándote de estas cosas, deja las enemistades.

Nik uste dut ezen emaztetara emana den gizona hala deiño ezin datekeiela ongi eta guztiz ere baldin ezkondua bada. Ezkondu gabe baten erortzea, behar ezten emazte batekin segitzea, ezta ongi, bekhatu da. Baiña aldez ezta hain miretsteko munduko arauaz.

begi-zeihar ezkel betheriatsu

Ordea ezkondu batek, emazte ederra eta prestua duen batek, hura utzirik, har dezala itsusi bat, begi-zeihar bat, ezkel bat, betheriatsu bat, finean eztheus bat: eta harekin iosia bezala egon dadilla.

Erran behar da adimendua itsutu zaikala, memoria nahasi zaikala, eta borondatea behar ezten aldera itzuli zaikala. Halakoaren etxean ezta gerlarik, liskarrik eta bizitze gaixtorik baizen. Zeren emazte ezkondua eztu

giharra krozka

deusek ere hala giharran ukitzen, krozkan erauzten, eta ez bere tentutik eta pazientziatik atheratzen, nola bere senharra bertzerekin diabilkola iakiteak.

§ 1

238 Baiña gero nahi nuke iakin: gizon ezkondua bere emazte prestua utzirik, zerk hala, behar eztenaren har-

aldaguratu

tzera itsutzen du? Zerk alda guratzen du? Hitz gutiz ihardesten du San Hieronimok: *Quidquid non licet magis desideratur* (Hier. in cap. 13 Oseae.). Nehork debeku


sori

den gauza, sori eztena, desiratzenago du, hartara lehiago du. *Aquae furtivae dulciores sunt*, dio Salomonek. Ur ebatsiak eztiago eta gozoago dira.

Halatan Plautok ere, hobekiago saltzeagatik egiten zuen oihu, emazte ebatsiak zekazkeiela. Eta poetek adul-

epaskoa

terioa deitzen zuten epaskoa, ohoinkeria. Haur da lehenbiziko arrazoiña, zeren gizon ezkonduak berea baiño bertzerik nahiago duen. Zeren berea ezpaitu debeku eta bai bere eztuena, eta nehork debekura lehiago baitu. Ha-



Asimismo la segunda razón la da el mismo San Jerónimo en el mismo lugar: "Quod varietate dulce est, assiduitate vilescit" (Prov. 9). Lo cotidiano produce hastío, inspira deseo de cambiar. Como el hombre casado tiene siempre a su disposición a su mujer, de la suya tiene abundancia y de la ajena tiene falta; y como la cosa que falta y se quiere con cariño e insistentemente, tanto más se apetece y se *imagina ser más sabrosa, así la persona casada, de*jando la suya, se vuelve a la ajena, desea cambiar y esto le pierde. Porque una vez que se ha echado una querida, hacia ella vuelve su pensamiento, con ella gasta sus bienes: a partir de este momento vuelve la espalda a su mujer y a los hijos que de ella ha tenido. Y si no posee muchos bienes, no podrá resistir sin empobrecerse. Porque la querida, y particularmente la querida pobre y pedigüeña, es como el brote de hiedra.

La hiedra rodea el árbol, lo abraza, lo chupa y al fin lo seca. Así también la querida despluma, despelleja, seca en cuerpo y alma.

El tal es digno de compasión, y también el hijo tenido de la querida. Porque como no es legítimo, como es bastardo, natural, habido fuera de matrimonio, no puede hablar libremente en público, no puede levantar cabeza: en seguida al primer altercado le llaman hijo de puta.

Por eso dice Salomón o el Espíritu Santo por su boca: "De patre impio quaeruntur filii, quoniam, propter ipsum sunt in opprobrio" (Eccli. 41). Del padre impío se quejan los hijos, porque por causa de él se hallan deshonrados. El hijo bastardo no tiene culpa, pero por la culpa de su padre tiene que traer la cabeza gacha.

239 El gran Solón, legislador de los Atenienses, hablando de la obligación que los hijos tienen para con sus padres, cómo deben honrarlos, y en los casos de necesidad, y particularmente en la vejez, cómo deben socorrerlos, exime de esta obligación a los bastardos, a los engendrados fuera de matrimonio, a los que no son legítimos. Y la razón es porque estos padres, al juntarse, más intención tuvieron de satisfacer sus pasiones desordenadas que de tener hijos, y como han sido engendrados contra la voluntad y a pesar suyo, por tanto merecen semejante *castigo y aún mayor.*

118 *Aldanahitu* eta pixka ba gorago *aldaguratu* = aldatzeko gogoz jartzea.

laber bigarren arrazoiña emaiten du San Jeronimok berak lekhu berean: *Quod varietate dulce est, assiduitate vilescit* (Prov. 9). Bethierekoak, higuintza emaiten du, alda nahia ekhartzen du. Nola gizon ezkonduak bethi ere baitu bere emaztea bere ēskuko, bereaz frankia, eta bertzerenaz eskasia, eta eskas den gauza maitaro eta iarraikiz izaiten dena, desiratzenago eta gozoago iduritzen baita, halatan presuna ezkondua berea utzirik, bertzerenera lehiatzen da, alda nahitzen[118] da eta handik galtzen da.

higuintza

frankia

maitaro

Zeren amorantea egiñez gero, harengana egotzten du bere gogoa, harekin gastatzeintu bere onak; handik harat bere emazteari eta harenganik izan dituen haurrei gibela emaiten deraue. Eta baldin on handiak ezpaitu, ezin dateke errumeztu gabe. Zeren amorantea, eta guztiz amorante miaüa eta eskalea, huntzadarra bezala da.

errumeztu

miau

huntzadar

Huntzak inguratzen du zuhaitza, besarkatzen du, edoskitzen du, eta azkenean ihartzen du. Hala bada amoranteak, biphiltzen du, larrutzen du, ariman eta gorputzean ihartzen du.

edoski

Urrikalkizun da halakoa: eta bai amoranteaganikako haurra ere. Zeren nola ezpaita lejitimo, nola baita bastart, bort, ezkontzaz kanpoan egina, ezin mintza diteke libreki iend'artean, ezin bururik ailtxa dezake: berehala lehenbiziko liskarrēan, puta seme deitzen dute.

bort

Hargatik erraiten du Salomonek edo haren ahotik Spiritu Sainduak: *De patre impio quaeruntur filii, quoniam propter ipsum sunt in opprobrio* (Eccli. 41).

Aita gaixtoaz errenkuratzen dira semeak, zeren hura dela kausa baitira desohorezko. Seme bastartak berak eztu hobenik, baiña bere aitarenagatik ekharri behar du burua behera.

errenkuratu

239 Solon handiak Atenaskoen maestruak, umek bere aita-ametara duten obligazinoaz mintzo dela, nola ohore ekharri behar derauezan, eta bere behar orduetan, eta guztiz ere zahartzean, behar ditutzten faboratu, atheratzeintu obligazino hunetarik bastartak, ezkontzaz landan eta kanpoan eginak, lejitimo eztirenak. Eta arrazoiña, zeren aita ama hek, elkharrekin batzean eta iuntatzean, intenzione gehiago izan baitzuten bere plazer desordenatuen konplitzeko, seme eta alaba izaiteko baiño, eta nola heken borondatearen kontra eta hek nahi gaberik egiñak baitira, hala dutela merezi gaztigu hura eta gehiago ere.

maestru

faboratu

lejitimo



Ve, pues, en qué mala situación está el hombre casado que dejando a su mujer anda con la que no debe, y también el hijo que de ella tiene.

Pues el eclesiástico que se encuentra tocado de este mal es aún peor y más perdido. Es de temer que este tal habrá de casar a pocos parientes pobres y ha de hacer escasas limosnas. Porque una vez que se ha echado la querida, pone en ella su mente y su corazón, y sus bienes los gasta y arruina con ella.

Hay dos clases de pecados que acechan cara a cara y directamente al hombre de Iglesia, que son sus enemigos y su perdición. El primero es andar con mujeres y el segundo alimentar enemistad. Quiere Dios que el servidor de su casa, el ordenado de sacerdote, tenga por encima de todo dos cualidades: la paz y la pureza. Porque trae entre las manos un sacramento puro y de paz. Por consiguiente tampoco es bueno para sacerdote el que abriga enemistad, pero particulamente no lo es el que anda con mujeres. Y de tal manera es esto verdad, que pienso que el sacerdote que no tiene tacha en cuestión de mujeres, aunque tenga otras muchas faltas, todas éstas mejor se le pueden perdonar, encubrir y disimular: y que todas las otras no le deslucen ni le infaman en su honor tanto como el andar y fornicar con mujeres. El sacerdote que no anda con mujeres, tenlo por santo; y al que anda, mientras anda así, dalo por perdido.

Por lo tanto, principalmente el hombre eclesiástico y la persona casada, mas después también todos los demás, guárdense de meterse en el cieno de la carne, y de enlodarse. Porque una vez enlodados pueden saber que han de resultar víctimas y han de estar sin paz y que luego les pesará. Y a la larga, cuanto más tiempo estén en este estado, tanto más adentro se meterán, y más dificultosamente saldrán y se limpiarán.

[119] *Gero eta gero,* geroago eta gehiago, bezala («cada vez más») Ikus beste zati hauetan ere: 181, 317.

Ikhusazu zein gaizki den gizon ezkondua, bere emaztea utzirik, behar eztenarekin dabillana, eta bai hetarik izaiten den haurra ere.

Bada eritasun hunez kutsatua gerthatzen den Eliza gizona are da gaizkiago eta galduago. Peril da halakoak, ahaide probe guti ezkonduko duen, erremusinak bakhan eginen dituen. Zeren amorantea eginez gero, bere gogoa eta bihotza haren baithan ibentzen baitu, eta bere onak ere harekin gastatzen eta hondatzen baititu.

erremusina

Bi bekhatu suerte dira, begiz begi, eta artez Elizagizonari kontra dagotzanak, Elizagizonaren etsaiak eta galgarriak.

suerte

Bata da emaztekin segitzea, eta bertzea etsaigoan egoitea. Nahi du Iainkoak, haren etxeko zerbitzariak, aphez ordenatuak dituen guztien gaiñetik bi abantail: bakea eta garbitasuna. Zeren sagaramendu garbi bat, eta bakezko bat erabiltzen baitu eskuen artean. Beraz hunelatan etsaigoan dagoena ere ez, baiña guztien gaiñetik emaztètan dabillana ezta aphezetako on. Eta hain da egia haur, non uste baitut ezen, emaztètan faltarik eztuen aphezari, bertzerik anhitz falta izanagatik ere, hek guztiak hobeki barkha, estal eta disimula dakiditzaiola; eta bertze guztiek eztutela hala desbistatzen, eta ez bere ohorean nothatzen, nola emaztekin ibiltzeak, eta kutsatzeak. Emaztetan eztabillan apheza, emazu saindutzat: eta dabillana, hala dabillaiño, emazu galdutzat.

sagaramendu

desbistatu


nothatu

Beraz hunelatan, prinzipalki eliza gizonak eta presuna ezkonduak, baiña gero begira bitezi bertze guztiak ere haragiaren lohian sartzetik eta hidoiztatzetik. Zeren behin hidoiztatuz gero, iakin ahal dezakete ezen kaltiar eta sosegu gabe izanen direla: eztirela urriki gabe gerthatuko. Eta gero eta gero,[119] zenbatenaz eta gehiago egonen baitira, hanbatenaz barrenago sarthuko, eta nekezago iltkiko, eta garbituko direla.

hidoiztatu

kaltiar





LA ORACION: PRIMER MEDIO Y REMEDIO PARA GUARDARSE DEL PECADO DE LA CARNE Y PARA REPARAR LOS DAÑOS QUE DE EL SE ORIGINAN

CAPITULO XXXV

240 Antes de empezar a indicar los remedios que hay para los placeres y aficiones desordenados de la carne y para los daños que ellos causan, quiero decir una cosa, y establecer y asentar un principio verdadero.

El librarse de las mujeres, el guardar la castidad, el perseverar sin caer en el pecado de la carne y sin mancillarse es un don, dádiva y gracia de Dios. Y sin esta gracia son inútiles nuestro poder, querer, intentos y todos los esfuerzos. "Non est virginitas quae praetio emitur, non virtutis studio possidetur", dice San Ambrosio (Ambros. lib. 5 ep. 31). La virginidad no es cosa que se logre a peso de dinero y por nuestras fuerzas y virtud, porque el que la carne venza a la carne; el que la naturaleza sojuzgue a la naturaleza, es difícil. Para esto es menester la ayuda ajena, de aquel que tiene poder sobre la naturaleza. Y así debe saber cada cual que no puede obtener plena victoria contra la carne mientras confía en su poder y hasta que se haga desconfiado, y persuadido de que por sí no tiene fuerzas bastantes para defenderse. Debe reconocer que este enemigo le es superior, que las fuerzas no están equilibradas. Y conociéndolo así debe también buscar un aliado y pedir ayuda, si no quiere resultar perdidoso y salir vencido. Esta es la verdad. Conociéndolo así, dijo Salomón: "Ut scivi quoniam aliter non possem esse continens nisi Deus det et hoc ipsum erat summa sapientia, scire cujus esset hoc donum, adii Dominum et deprecatus sum illum" (Sap. 8). Cuando supe que no podía estar sin caer, si Dios no me sostenía y que aún el saber esto era don de Dios, al punto me dirigí a su encuentro y le rogué que me tuviera de la mano, que me guardara de caer y me diera fuerza y disposición para reportar victoria. De este modo, como quien conocía esta verdad, suplicó San Agustín a Dios, diciendo: "Continentiam jubes, da quod jubes, et jube quod vis" (August. 10 Conf. c. 24). Mandas que guardemos la castidad, concede pues lo que mandas, y después manda cuanto gustes: así como das el

HARAGIAREN BEKHATUTIK BEGIRATZEKO ETA HANDIK HELDU DIREN KALTÈN ERREMEDIATZEKO, LEHENBIZIKO ERREMEDIOA ETA BIDEA: ORAZINOA

KAP. XXXV

240 Haragiaren plazerei, desira desordenatuei, eta egiten dituen kaltei, erremedio emaiten hasi baiño lehen, erran nahi dut gauza bat, eta ibeni eta pausatu egiazko zimendu bat.

zimendu


Emaztètarik eskapatzea, kastitatearen begiratzea, haragiaren bekhatuan erori gabe eta kutsatu gabe egoitea, irautea eta perseberatzea, Iainkoaren donua, dohaiña, emaitza eta garazia dela. Eta garazia hura gabe, alfer direla, gure ahala, nahia, permatzea eta enseiu guztiak. *Non est virginitas quae praetio emitur, non virtutis studio possidetur*, dio San Anbrosiok (Ambros. lib. 5 ep. 31). Ezta ez birjinitatea, diruaren pisuz eta gure indarrez eta berthutez erdiesten den gauza, zeren haragiak haragiaren benzutzea, naturalezak naturalezaren azpiratzea, gaitz da. Hartakotzat bertzeren faborea, naturalezaren gaiñean esku duènarena behar da. Eta hala iakin ahal dezake bat bederak, eztezakeiela haragiaren kontra biktoria osorik erdiets, bere ahalean fidatzen deiño, berak eztuela defendatzeko indarrik asko, etsitua, gogatua, eta errendatua iar arteiño. Behar du ezagutu, bere etsai haur garai zaikala, eztirela indarrez berdin. Eta hala dela ezaguturik, behar du halaber lagun bilhatu, eta fabore eskatu, baldin nahi ezpadu kaltiar gerthatu eta benzutua gelditu. Haur da egia, haur ezaguturik erran zuen Salomonek: *Ut scivi quoniam aliter non possem esse continens nisi Deus det, et hoc ipsum erat summa sapientia, scire cuius esset hoc donum, adii Dominum, et deprecatus sum illum* (Sap. 8). Iakin nuenean, ezin nengokeiela erori gabe, Iainkoak edukiten ezpaninduen, eta hunen iakitea ere Iainkoaren donua zèla, ioan nintzaikan berehala edireitera eta egin nioen othoitz: bere eskutik eduki nintzala, erortzetik begira nintzala, eta garaitiarekin geldi tzeko indar eta antze eman ziazadala. Halatan egia hunen berri ziakienak bezala egiten zioen othoitz San Augustinek ere Iainkoari, erraiten zioela: *Continentiam iubes, da quod iubes, et iube quod vis* (August. 10 Conf. c. 24). Manatzen duzu, begira dezagula kastitatea, emazu bada manatzen duzuna, eta gero mana ezazu plazer

donu dohain

erdiets

garai

antze



mandamiento, da fuerza para cumplirlo y observarlo; porque entonces sí, pero de otra suerte no hay manera de cumplirlo ni de observarlo.

241 Puesto que el estar y perseverar sin mancharse o deslizarse en el pecado de la carne más pronto o más tarde, de una forma u otra, de obra o de deseo, es un don y dádiva de Dios, que nosotros por nuestra fuerza no podemos lograr, espabilémonos, despertémonos, y a fin de evitar la caída, busquemos los apoyos, sostenes y remedios que podamos.

Y el primer remedio y sostén es la oración, la súplica. Por lo que a nosotros respecta dándonos por vencidos, concediendo la victoria, otorgando el triunfo, reconociendo que no tenemos fuerza bastante, pedir a nuestro Dios que nos ayude y nos tenga de su mano. Y poner, a una con esta oración, por intercesora a nuestra Señora, como patrona de la castidad. Porque si, como dicen algunos doctores de la Iglesia, la Virgen Santísima, aun cuando vivía en este mundo, si miraba a alguno, o alguien le miraba a ella, a ese tal, apagándole los apetitos desordenados de la carne y pensamientos obscenos, le encendía y concedía en su lugar, unos pensamientos puros y unos grandes deseos de vivir castamente; ¿cuánto más ahora, de allí arriba, de la gloria, de un puesto donde tiene tanto crédito y poder, conseguirá, y, consiguiendo, concederá a sus devotos que de verdad se encomiendan a ella la gracia y fuerza de ahuyentar y vencer las tentaciones de la carne? (Ambros. de insit. Virg. c. 7. S. Thom. 3 sent. q. 1 art. 3 ad 1).

Por consiguiente pidamos y supliquemos a Dios, poniéndole por intercesora a su Madre Virgen, que nos guarde, que nos ayude.

Porque el primer remedio y el mejor para no caer en el cieno de la carne y aun para salir de él una vez caído, para perseverar y conservarse puro y limpio, hallaremos que es éste: el pedir a Dios con el alma y corazón, y el interponer la mediación de la Virgen Santísima.

120 *Erauki.* Burruka batean bentzutuak esaten zuen hitz hau, bentzutua zela aitortzeko, eta garaitia besteari ematen ziolako seinale bezala.

duzuna: manua bezala, emazu manuaren konplitzeko eta begiratzeko indarra ere, zeren halatan bai, baiña bertzela ezta konplitzerik eta ez begiratzerik.

241 Bada haragiaren bekhatuan, lehen edo gero, aldez edo moldez, obraz edo gogoz, kutsatu gabe, edo linburtu gabe egoitea, eta irautea, Iainkoaren donua eta emaitza, geurok geure indarrez ezin erdiets dezakeguna denaz geroztik, erna gaitezin, iratzar gaitezin, eta erortzetik begiratzeko, ahal diratekeien habeak, sostenguak eta erremedioak bilha ditzagun.

emaitz

Iratzarri

Eta lehenbiziko erremedioa eta sostengua da orazinoa, othoitza. Geureaz denaz bezan batean, errendatuak iarririk, garaitia emanik, erauki[120] erranik, eztugula indarrik asko ezaguturik, gèure Iainkoari hel dakigula, eta bere eskutik eduki gaitzala othoitz egitea. Eta othoitz hunekin batean, Ama Birjinaren, kastitatearen patroin bezala ararteko ibentzea. Zeren baldin Elizako doktor batzuek diotèn bezala, Ama Birjinak, are mundu hunetan zenean ere, nori ere, eta nork ere behatzen baitzioen, hari, haragiaren desira desordenatuak eta gogoeta lizunak iraungirik, heken lekhuan gogoeta garbi batzuk, eta garbiki bizitzeko nahikunde handi batzuk pitzten eta emaiten bazerautzan: zenbatenaz orai han goititik, loriatik, hanbat kredit eta esku duen lekhutik, bere debotei egiazki gomèndatzen zaizkonei erdietsiko deraue, eta erdietsirik emanen deraue, haragiaren tendamenduen haizatzeko eta benzutzeko indar, bothere, eta garazia? (Ambros, de instit. Virg. c. 7. S. Thom. 3 sent. q. 1 art. 3 ad 1).


patroin

benzutu

Beraz dagiogun Iainkoari othoitz eta orazino, emaiten diogula ararteko bere Ama Birjina, begira gaitzala, fabora gaitzala.

Zeren lehenbiziko erremedioa eta erremediorik hoberena, haragiaren lohian ez sartzeko, eta sarthuz gero ere, fite ilkitzeko, aratz eta garbi gelditzeko eta egoiteko, haur edirenen dugu: Iainkoari gogoz eta bihotzez othoitz egitea, Ama Birjinaren ararteko ibentzea eta enplegatzea.

Ilki aratz



SEGUNDO REMEDIO PARA PRESERVARSE DEL PECADO DE LA CARNE: NO DAR LUGAR A LOS PENSAMIENTOS DE ESTA ESPECIE

CAPITULO XXXVI

242 El segundo remedio, y remedio bueno y selecto para el que no quiere mancillarse con mujeres es tener cuidado con los pensamientos de esta especie; el cerrarles la puerta cuando se ve que vienen. El fuego en el momento en que se enciende es cuando más fácilmente se apaga; y la planta cuando es pequeña es cuando más fácilmente se puede trasplantar y sacar.

De los pensamientos, del pararse a pensar provienen todos los pecados, y particularmente los de la carne: de aquí comienzan, éstos son los brotes, éstas son las fuentes y raíces. Por lo tanto éstas son las que hay que vigilar para que no crezcan. El soldado, una vez metido en casa, hace lo que quiere: así también el pensamiento malo hace lo que quiere una vez que ha tomado asiento en el alma, una vez que se ha establecido en ella.

La chispa o centella de fuego se apaga pronto por sí misma; mas tú sin aguardar a que se apague, sin dejarla descansar, al punto la arrojas de ti. Así también al mal pensamiento referente a mujeres, inmediatamente, tan pronto como aparece, debes ahuyentarlo, alejarlo y sacudirlo de ti.

Cierto día preguntaron a Fray Gil, santo compañero de San Francisco a ver de qué manera o cómo solía superar las tentaciones, apetitos, solicitaciones y pensamientos de la carne. Y contestó: A los malos pensamientos que llaman a las puertas de mi voluntad, les digo: Ea, tentadores, pasad adelante: no hay aquí para vosotros hospedaje ni lugar de reposo. No les dejo entrar en casa, no les pongo buena cara, no les doy hospedaje, no me deleito en ellos ni me pongo a parlamentar, inmediatamente los hago saltar: y así' no me vencen, y yo les venzo a ellos.

Te viene al pensamiento una mujer que no te corresponde, y el consiguiente placer; y tú, en vez de arrojar al momento tal pensamiento, no sólo no lo arrojas, sino que lo saboreas, te complaces en él, *e incluso muchas veces, como si estuvieras realizándolo*, te estás gozándote en tu alma, y estando así incurres en un gran pecado mortal.

HARAGIAREN BEKHATUTIK BEGIRATZEKO, BIGARREN ERREMEDIOA: HARTAKO GOGOETEI LEKHURIK EZ EMAITEA

KAP. XXXVI

242 Bigarren erremedioa, eta erremedio ona eta hautatua, emaztèkin kutsatu nahi eztuenarentzat, da, hartako gogoetez begiaren edukitzea; heldu direla ikhusten direnean athearen herstea. Sua pitzten denean da erraxenik iraungitzeko, eta bai landarea ere ttipi denean bir landatzeko eta atheratzeko.

iraungi bir-landatu

Gogoetetarik, pensatzen egoitetik heldu dira bekhatu guztiak, eta guztiz ere haragiarenak: handik hasten dira, hek dira xertoak, hek dira landareak eta erroak. Hek beraz behar dira handitzetik begiratu. Soldaduak etxean barrena sarthuz gero, nahi duena egiten du: hala egiten du bada halaber nahi duena gogoeta gaixtoak ere, gogoan ostatu hartuz gero, han behin pausatuz gero.

'nhar xinda

Suko inharra, suko xinda, bera ere bere buruz fite iraungitzen da; ordea zuk anarteraiño iguriki gabe, pausatzera ere utzi gabe, berehala, pontu berean, zeureganik egotzten duzu. Hala bada emaztetako gogoeta gaixtoa ere, berehala agertzen den bezain fite haizatu, urrundu, eta zeureganik egotzi behar duzu.


Egun batez galdegin zeraukaten Frai Gil, San Franziskoren lagun saindu hari, ea zer moldez edo nola garaiten zituen haragiaren tentamenduak, gutiziak, kilikadurak, eta hartako gogoetak? Eta ihardetsi zuen: Ene borondatearen atheak ioiten dituzten gogoeta gaixtoei erraiten derauet: Ea tentagarriak, iragan aitzinat; ezta hemen zuentzat ostaturik, eta ez pausa lekhurik. Eztut etxean barrena sartzera utzten, ezterauet begitarterik egiten, ezterauet ostaturik emaiten, ez naiz hekin gozatzen, eta ez solhasean iartzen, berehala iauzi eragiten derauet: eta halatan, ez hek ni, baiña nik hek garaitzeintut.

kilikadura

egitarte egin

Ethortzen zaitzu gogora behar ezten emaztea, eta harekiko plazera, eta zuk gogoeta hura zeureganik, berehala egotzi behar bidean, nola egotziko duzun ezen hartan zaphoratzen zara, gozatzen zara, eta are obran baitzina bezala anhitzetan ère, zeure gogoan atsegin hartzen egoiten zara, eta hala egonez bekhatu mortal handitan erortzen zara.

zaphoratu



243 Porque aunque no se ponga por obra, el deseo de ponerlo por obra, e incluso el deleitarse en tal pensamiento aun sin intención de ponerlo por obra, es pecado. Así lo dicen los Teólogos. "Non solum consensus in actum, sed etiam consensus in delectationem est peccatum". En conformidad con esto dice también San Jerónimo: "Periit et mente virginitas" (Hieron. ad Faustum). La virginidad se pierde también con el pensamiento. Y Casiano dice también: "Mulierem ignoro et virgo non sum" (Casian. lib. 6 cap. 19). No conozco mujer, y sin embargo no soy virgen.

Porque como dice San Mateo: "Qui viderit mulierem ad concupiscendum eam, jam moechatus est in corde suo" (Mt. 5). El que mira a la mujer con intención de desearla y de deleitarse en tal deseo, ya ha cometido pecado en su mente y corazón. Considerando este punto y deseando poner remedio a él, decía San Gregorio: "Celer ergo et facilis victoria contra libidinem est circunspectio cogitationis, si quoties carnalia obviant, ad aliquid aliud recurramus, quod libidinis incitamentum non sit" (Greg. in cap. 1 Reg.). Para oponerse a la carne y reportar victoria de ella, es camino bueno y rápido el vigilar los pensamientos de esta especie y el sustituir dichos pensamientos por otros.

Nuestra mente no puede estar desocupada. No podemos estar sin pensar en algo. La cuestión es saber qué pensamos, qué clase de pensamientos alimentamos; y si éstos son malos, dejemos éstos y acojamos en su lugar los buenos.

Mira, que no estés pensando en mujeres. Porque de dicho pensar se seguirá el deleitarse: del deleite el desear: del desear el poner los medios y el realizar. Y todo ello se ha originado del primer recuerdo de la mente y de dar consentimiento y acogida a dicho recuerdo, de dejarle echar raíces y crecer. Por lo tanto, hay que cuidarse de esto. Porque este es el segundo remedio para guardarse de caer en pecados de mujeres: el no dar consentimiento a pensamientos de esta especie, el quitarlos cuando se presenten, el no dejarles que se detengan y asienten; el ponerles mala cara y no mostrarles simpatía alguna.

243 Zeren ez obratuagatik, obratzeko gogoa, eta are obratzeko gogorik gabe ere, gogoeta hartan atsegin hartzea, bekhatu da. Hala erraiten dute teologoek: *Non solum consensus in actum, sed etiam consensus in delectationem est peccatum.* Hunēn arauaz erraiten du San Jeronimok ere: *Periit et mente virginitas* (Hieron. ad Faustum). Galtzen da, gogoz ere, birjinitatea. Eta badio Kasianok ere: *Mulierem ignoro et virgo non sum* (Casian. lib. 6 cap. 19). Eztakit emaztearen berririk, eta alabaiña ez naiz birjina.

alabaiña

Zeren San Mateok dioen bezala: *Qui viderit mulierem ad concupiscendum eam, iam maechatus est in corde suo* (Mt. 5). Emazteari, desideratzeko, eta desira hartan atsegin hartzeko kontuan, behatzen dioenak, egin duke ia bere gogoan, eta bihotzean bekhatu. Pontu haur konsideraturik, eta huni erremedio eman nahirik, erraiten zuen San Gregoriok: *Celer ergo et facilis victoria, contra libidinem est circunspectio cogitationis, si quoties carnalia obviant, ad aliquid aliud recurramus, quo libidinis incitamentum non sit* (Greg. in cap. 1 Reg.). Haragiari kontra egiteko, eta harenganik biktoria erdiesteko, bide ona da, eta lasterra, hartako gogoetei begiaren edukitzea, eta heken lekhuan bertze gogoetari lotzea.


laster (adj.)

Gure gogoa ezin dagoke gogoeta gabe; ezin gauteke, zerbaitetan pensatu gabe. Pontua da ea zertan pensatzen dugun, nolako gogoetak ditugun; eta baldin gaixtoak baditugu, utz hek, eta har heken lekhuan onak.

Begirautzu, etzaudela emaztètan pensatzen. Zeren pensatze hartarik ethorriko zaitzu atsegin hartzea: atsegin hartzetik, dēsiratzea, desiratzetik bidèn egitea, eta obratzea. Eta guztiak heldu dira, gogoaren lehenbiziko orhoitzapenetik, eta orhoitzapen hari lekhu eta ostatu emaitetik, erroen egitera eta handitzera utztetik. Beraz hartarik begiratu behar da. Zeren hura da emaztètako bekhatutan erortzetik begiratzeko bigarren erremedioa: hartako gogoetei lekhurik ez emaitea, agertzen direnean khentzea, baratzera ez utztea, eta ez sosegatzera: beltzuri bai, baiña begitarterik ez egitea.

baratu beltzuri





TERCER REMEDIO PARA GUARDARSE DEL PECADO DE LA CARNE: LA RESOLUCION DE LA VOLUNTAD

CAPITULO XXXVII

244 Para no caer, y aun después de caído, para levantarse, es gran remedio el propósito, la resolución de la voluntad: tan grande, que todos los otros son inútiles sin esta resolución. Por lo que a Dios se refiere hace falta su gracia y favor, y por lo que a nosotros respecta, nuestro propósito y voluntad.

Cuando estás en relaciones pecaminosas con una mujer y en gran riesgo de que estando así te sorprenda tu último día: ¿qué remedio habrá para escapar de tan gran peligro? ¿para dejar a dicha mujer? ¿Qué remedio? El quererlo, el decidirse resueltamente a apartarse.

Viene un jubileo o una fiesta importante o la cuaresma: y en una de estas ocasiones, viendo que de otra suerte vas perdido, haces con gran dolor una confesión general de todas las faltas que has cometido en tu vida, haciendo un propósito firme de no volver más a donde aquella mujer ni a otra semejante. Y a partir de este momento lo cumples efectivamente, no vuelves más. He aquí un buen remedio y el camino a seguir para dejar a la mujer que te tiene ciego y esclavizado.

§ 1

245 Pero el abandonarla, el dejar a la querida, ¿cómo o de qué forma lo vas a hacer? ¿A buenas *sin enfadarte, o enfadándote*? Si *te enfadas, he aquí* que te esperan de ella mil maldiciones e improperios, chismes y habladurías: murmurará, chillará, nadie la podrá acallar. El hacerlo sin enfadarse y sin ponerse a malas, el alejarse a buenas, también será cosa difícil y peligrosa. Porque habiendo tenido antes familiaridades y habiendo caído: y a pesar de ello seguir viviendo como antes juntos, tratándose y hablando: presentándose las mismas ocasiones que antes o aún más frecuentes: teniendo un ánimo débil y voluble: por otra parte tampoco la mujer, una vez que se ha presentado la ocasión, evita la falta. Ya es cosa difícil, ya es cosa de pensarlo. Parece que sería mejor apartarse y separarse a malas y enfadándose.

Acerca de este particular quisiera decir dos cosas. La primera: si no puedes *alejarte sin enemistarte,*

121 *Gaitzerarik* = gaitzer etorririk, esan nahi du, ha serruturik.

HARAGIAREN BEKHATUTIK BEGIRATZEKO, HIRURGARREN ERREMEDIOA: BORONDATEAREN DELIBERAMENDUA

KAP. XXXVII

244 Ez erortzeko, eta eroriz gero ere, iaikitzeko, erremedio handia da gogoa, borondatearen deliberamendua: hain handia, non bertze guztiak alfer baitira, deliberamendu hura gabe. Iainkoaren aldetik, behar da haren garazia garazia, eta faborea, eta guretik gure gogoa eta borondatea.


Emazte batekin bekhatutan zaudenean, eta peril handian, hala zaudela, zeure azken egunak ediren zaitzan: zer bide izanen da, peril handi hartarik eskapatzeko? Emazte haren utzteko? Zer? Gogoa, borondatea, apartatzera dèliberatuki deliberatzea.

iubilio Ethortzen da iubilio bat, edo besta-buru bat, edo garizuma: eta hetarik batetan, ikhusirik ezen bertzela galkofesione dua zoazilla, egiten duzu urrikimendu handi batekin kofesione jeneral bat, zeure mendean egin ditutzun falta guztiez, harturik borondate fin bat, ez gehiago emazte harengana, eta ez bertze halakotara bihurtzeko. Eta handik harat hala konplitzen duzu, etzara gehiago bihurtzen. Haur da erremedio ona, eta hartu behar den bidea, beretakotu itsutua eta beretakotua zadutzan emaztearen utzteko.

§ 1

245 Ordea utzte haur, amoranteaganik apartatze haur, nola edo zer moldez eginen duzu? Onez onetara, etsaitu gabe, ala etsaiturik? Baldin etsaitzen bazara, horra non burho duzun berehala amorante harenganik milla burho eta maradizino: erran-merran, eta dèsohore: erasiko du, oihu eginen du, eztu nehork ixilduko. Bada etsaitu gabe, eta gaitzera ethorri gabe, onez onetara apartatzea ere gaitz izanen da, eta perilos. Zeren lehen trebatuak izan, eroriak izan: lehen bezala elkharrekin egoiten, ibiltzen, minzatzen: okhasinoak erè lehen bezala, edo maizago urri presentatzen eta gerthatzen: gogoa urri, aldatzen errax: ekidin eta emazteak ere behin gerthatuz gero, ez falta ekidin. Bada egiteko, bada zertan pensa. Badirudi hobe lizatekeiela gaitzerarik[121] eta haserreturik, partitzea eta elkhar utztea.

Pontu hunen gaiñean bi gauza nahi nituzke erran. Lehenbizikoa: baldin etsaitu gabe, adiskidetasuna hautsi



sin romper la amistad, rómpela, enemístate. Y entonces no se te dé nada por ver que la dicha mujer se enfada o se pone a malas. Porque la responsabilidad de aquel enfado y enojo recaerá sobre ella y no sobre ti. Y asimismo si habla mal de ti, súfrelo porque lo tienes merecido. A tales bodas, tal sopa. A tales acciones, tales consecuencias. Los placeres pasados suelen traer aflicción.

246 La segunda cosa que quisiera decir: si es que pudieras apartarte de la dicha mujer, de tu querida, sin romper la amistad, ni enfadarte, y sin reñir, hazlo así. Mas ¿cómo podré alejarme de ella sin enfadarme? No es difícil, si los dos interesados, así como habéis estado de acuerdo para el mal, lo estáis para el bien, como debéis hacerlo. Cuando has resuelto en tu interior abrazar el camino de la devoción, apartarte de toda clase de pecados y particularmente de los de mujeres; entonces a aquella mujer con la cual has tenido ilícito trato, debes hablarle a buenas de este modo:

Sabe Dios cómo quisiera —si no fuera más que un querer— continuar viviendo contigo de aquí en adelante como lo he hecho hasta ahora. Pero haciéndolo así ya veo que tú y yo vamos perdidos, que estamos en camino de acabar mal. Y por tanto debemos dejar nuestras relaciones ilícitas, debemos apartarnos: y de aquí en adelante (continuando amigos por lo demás) debemos vivir sin tales relaciones, casta y virtuosamente. Yo así lo quisiera; así lo he decidido, he formado propósito, fórmalo tú también. Y sábete que de aquí en adelante no hay nada que hablar conmigo acerca de estos tratos: y que desde ahora me despido de ti por lo que a ellos se refiere.

Y entonces también la otra parte debería decir y obrar como tú. Y creo que pocos faltarían si por una parte o por otra se propusiera en buena forma esta solución. He aquí dónde tienes un buen remedio, tanto para el alma como para el cuerpo y también para el mundo: el alejarse y apartarse el uno del otro, previo consentimiento y acuerdo mutuo.

Empero, los que antes han vivido en pecado, sabiéndolo el mundo, y que después se han apartado por lo que respecta al pecado, no deben a partir de este momento andar juntos como antes, comer, beber y conversar: no deben juntarse más que en las cosas precisas. Y esto en primer lugar para que la ocasión no suscite la ocasión; y en segundo lugar pa-

122 *Onez onetara* = de bue
nas a primeras; sin rodeo
ni circunloquios. Ikus MIT
FLV (1974), 118.

gabe, ezin aparta bazaitezke, hauts ezazu, etsai zaitezi. Eta orduan emazte hura haserretzen dela, edo gaitzez iartzen dela ikhusiagatik, eztagizula konturik. Zeren haserretze hura eta gaitzez iartze hura haren gaiñean izanen da, eta ez zure. Eta halaber orduan, zutzaz gaizki erraiten badu ere, paira ezazu, zeren zeure merezia duzu. Halako ezteietan, halako zopak; halako egitekoek, halako ondorea, plazer iraganek atsekabea ohi dute.

eztei

246 Bigarrena erran nahi nuke: baldin emazte hari, zeure amoranteari adiskidetasuna hautsi gabe, etsaitu gabe, eta liskartu gabe, aparta ahal bazakitza, hala egin zakitza. «Ordea nola apartatuko natzaika etsaitu gabe?» Ezta gaitz, baldin partida biok, gaixtakerian izan zareten bezala, ontasunean akhort bazarete, nola izaiteko baituzue. Zeure gogoan deliberatu duzunean debozinoan iartzera, bekhatu suerte guztietarik eta guztiz ere emaztétakoetarik kanporatzera; orduan emazte hari, zeiñekin behar ezten ezagutza izatu baituzu, erran behar diozu onez onetara:[122]

liskartu

akhort izan

onez onetara


Iainkoak daki, nola nahia baizen ezpaliz, nahi nukeien oraiño bezala, hemendik aitzina ere zurekin egon, ibili, bizi eta segitu. Baiña hunela izaitera badakusat ezen zu eta ni ere galduak goazilla, fin gaitz egiteko bidean garela. Eta hala geure arteko ezagutza gaixtoari alde egin behar diogu, apartatu behar gatzaitza: eta hemendik aitzina (gaiñerakoan adiskide gelditzen garela) halako traturik gabe, garbiki eta prestuki bizi behar dugu. Nik hala nahi nuke, hala deliberatu dut, gogo hartu dut, har ezazu bada zuk ere. Eta iakizu ezen eztela hemendik aitzina, halako egitekoz, enekin zer gehiago mintzaturik: eta oraidanik, nik hetzaz, adio erraiten deratzudala. Eta orduan bertzeak ere, zuk bezala erraiteko luke eta egiteko. Eta uste dut gutik falta lezakeiela, baldin alde batetik edo bertzetik, hunelako biderik, molde onez ideki baledi. Huna non duzun erremedio ona, hala arimako nola gorputzeko, eta bai munduko ere: elkharrekin akhordaturik eta mintzaturik, elkharganik apartatzea eta bereztea.

alde egin

akhordatu

Ordea lehen munduak dakiela bekhatutan egon direnek, eta bekhatuaz denaz bezan batean elkhar utzi dutenek, eztute handik harat, lehen bezala elkharrekin ibili, ian, edan eta solhastatu behar: eztute premiazko gauzètan baizen elkhargana behar. Bataz okhasinoak okhasinoa pitz eztezangatik; ēta berriz bertzea eskandalurik

solhastatu



ra que no haya escándalo, y para dar a entender al mundo que ya no hay entre ellos cosa de pecado como anteriormente. Porque estás obligado a dar buen ejemplo y a mostrar al mundo que vives cual conviene a un cristiano: no para que con ello se descubra tu santidad, sino para que Dios sea loado. Y asimismo para que si hay alguno que se encuentra en el estado en que tú te encontrabas, se anime a tomar la resolución que tú has tomado y a dejar como tú el pecado.

§ 2

247 El propósito de dejar las mujeres hay que formarlo tanto en la vejez como en la juventud. Pues por lo que se refiere al propósito, casi hay tanto peligro en la vejez como en la juventud. Cuando una persona es borracha y mujeriega, dada al comer y beber y a las mujeres. comúnmente se suele decir de ella que con el tiempo dejará las mujeres, mas no el beber. Porque la capacidad para mujeres se le irá, pero no le faltará el poder para la bebida. Mas sábete que el hombre mujeriego, el que de joven ha sido siempre así, también de viejo comúnmente suele serlo: no de obra, pero sí con el deseo. Porque el deseo siempre es joven; y las costumbres de la juventud solicitan al deseo aun en la vejez. Aunque el viejo peque menos de obra, con todo, el deseo de hacer eso poco lo tiene constantemente despierto. Y esta es, como dice San Gregorio, la práctica del diablo: lo que no puede promover de obra, promoverlo cuando menos con el deseo. "Callidus adversarius noster, cum ab effectu operis extollitur, secreta cogitatione polluere nititur" (Gregor. in Mt.). El que a pesar de ser viejo tiene el pensamiento en las mujeres, caerá en todos los pasos, o hablando mejor, siempre estará caído. Y por eso el librarse de este pecado, no consiste todo en la edad ni en el vigor, sino que consiste en el propósito y en la firme resolución, poniendo delante la gracia de Dios. Y feliz es el que faltándole el vigor natural para la mujjeres, le falta también el consiguiente deseo.

248 Es verdad que una vez envejecido, una vez llegado a cierta edad, la sangre se enfría, la naturaleza se debilita. Y por eso el enamoramiento de la vejez es peor. "Senex amore captus ultimum malum" (Menander). Porque dicho enamoramiento es del deseo que quiere forzar a la naturaleza, sin ocasión, señal de condenación; y uno de los pecados que, como se ha dicho antes, son abominables al Espíritu Santo.

eztengatik, eta munduari ere eztela ia heken artean, lehen bezalako bekhaturik aditzera emaiteagatik. Zeren obligatu zara exenplo onaren emaitera, eta munduari ere giristino bezala bizitzen zarela erakustera: halatan, ez zure saindutasuna ager dadin, baiña Iainkoa lauda dadin amoreakgatik. Eta halaber baldin bada nehor, zu zeneunden bezala, dagoenik, esportza dadin hura ere, zuk hartu duzun gogoaren eta borondatearen hartzera, eta zuk bezala bekhatuaren utztera.

laudatu

§ 2

247 Emaztètarik apartaturik egoiteko gogoa, hain ongi hartu behar da zahartzean, nola gaztean. Zeren gogoaren aldetik denaz bezanbatean, bada hurran, hurran hanbat peril zahartzean nola gaztean. Presuna bat denean hordi, eta emakhoi, ian-edanera, eta emaztètara emana, erraiten ohi da komunzki halakoagatik, utziko dituela denborarekin emazteak, baiña ez edatea. Zeren emaztètako indarra flakatuko baitzaika, baiña ez edatekoa hala. Bada iakizu ezen gizon putanera, gaztean bethi hala izatu dena, zahartzean ere komunzki hala ohi dela: ez obraz, baiña bai gogoz. Zeren gogoa bethi da gazte, eta gaztetasuneko usantzek zahartzean ere, gogoa errekeritzen dute. Zaharrak bekhatu gutiago egiten badu ere obraz, ordea guti haren egiteko, gogoa bethi hartan daduka. Eta haur da San Gregoriok dioen bezala, deabruaren usantza, obraz ezin eragin dezakeienean, gogoz bedere, eragitea: *Callidus adversarius noster, cum ab effectu operis expellitur, secreta cogitatione polluere nititur* (Gregor. in Mt.). Zahar izanagatik, gogoa emaztètan badaduka, urrats guztiaz eroriko da, edo hobeki minzatzera, bethi eroria egonen da. Eta hala bekhatu hunetarik begiratzea, eztago ez guztia adinean, eta ez indarrean, baiña bethiere Iainkoaren faborea aitzinean hartzen dela, dago gogoan, eta gogoaren deliberamenduan. Eta dohatsu da emaztètako indarra ioaiten zaikanean, hartako gogoa ere ioaiten zaikana.

zahartze gazte

emakhoi

putaner


urrats

dohatsu

248 Egia da, zahartuz gero, adin batera helduz gero, odola hotzten da, naturaleza flakatzen da. Eta hala zahartzeko amurusia da gaixtoena. *Senex amore captus ultimum malum* (Menander). Zeren hura baita gogoarena, naturaleza bortxatu nahizkoarena, okhasino gabekoa, kondenatzeko seiñalea; eta Spiritu Sainduari lehen erran den bezala, itsusi zaizkon bekhatuetarik bat.

amurusia

nahizkoarena



A este tal se le puede decir lo que se le dijo a uno que se llamaba Udo: "Impone finem ludo, quia satis lusisti, Udo".Ya has jugado bastante, ya te has hecho viejo, no vuelvas más. Concluye el juego, antes de que concluyas tú: abandónalo, antes de que él te abandone a ti. Pero el susodicho Udo no lo abandonó, y así acabó mal, y acabarás tú también, si por lo menos al envejecer no apartas de ello el pensamiento.

Y digo el pensamiento. Porque ya puedes hacer mil limosnas y obras buenas y estar cargado de años. De nada sirve todo ello, si por otra parte tienes el pensamiento en las mujeres. Créeme que, a una con Dios, todo consiste en el pensamiento.

Este es el tercer remedio para librarse de las mujeres, para no mancillarse con ellas, y para limpiarse después de mancillado: la resolución de la mente, el volver la voluntad resueltamente al otro lado y perseverar en ello.

CUARTO REMEDIO PARA GUARDARSE DEL PECADO DE LA CARNE: NO ESTAR OCIOSO

CAPITULO XXXVIII

249 Trabaja, ocúpate en quehaceres, empléate en algo, guárdate de estar ocioso, y así te guardarás también de faltar con las mujeres. Porque de la ociosidad se origina el enamorarse, el pensamiento y recuerdo de mujeres. Y también el maquinar maldades y provocar revueltas. Así lo dice Aristóteles: el pueblo mejor es aquel donde no hay más que labradores (Arist. lib. 5 Politic.). Y es que el labrador bastante tiene con pensar en su fatiga y trabajo, sin acordarse de enamoramientos ni de revolver a nadie. Al que trabaja o se ocupa en quehaceres, la carne no le tienta mucho. Al contrario, sus trabajos, aflicciones y quehaceres ya le dan bastante en qué ocuparse.

Halakoari erran ahal dakidikaio, Udo zeritzan bati erran zeikana: *Impone finem ludo, quia satis lusisti, Udo.* Asko iokatu zara, zahartu zara, ez gehiago bihur. Akhaba iokoa, zerori akhabatu gabe: utz zuk hura, hark zu utzi gabe. Baiña Udo hark etzuen utzi: eta hala fin gaitz egin zuen, eta eginen duzu zuk ere, baldin zahartzean bedere aldaratu bedere gogoa hartarik aldaratzen ezpaduzu.

Eta gogoa diot. Zeren egizu milla erremusina, eta obra on, eta zaren urthez kargatua. Baiña ezta probetxu, baldin bertze aldetik gogoa emaztètan badadukazu. Sinhets ezazu ezen Iainkoarekin batean, guztia gogoan dagoela.

Haur da hirurgarren erremedioa, emaztètarik begiratzeko, hekin ez kutsatzeko, eta kutsatuz gero ere, garbitzeko, gogoaren deliberamendua, borondatearen bertze aldera deliberatuki itzulirik iartzea, eta egoitea. deliberatuki



HARAGIAREN BEKHATUTIK BEGIRATZEKO LAURGARREN ERREMEDIOA: EZ ALFER EGOITEA KAP. XXXVIII

249 Trabailla zaite, egitekotan ibil zaite, zerbaitetan enplegatu enplega zaite, alfer egoitetik begira zaite, eta halatan begiratuko zara emaztèkin huts egitetik ere. Zeren alferkeriatik heldu da amurusia, emaztètako gogoa, orhoitzapena. Eta bai malizia pensatzea, eta nahastekamenastekamendu duen egitea ere. Halatan erraiten du Aristotelek: Nekhazalerik, eta laboraririk baizen ezten herria, dela herrirekhazale laborari rik hoberena (Arist. lib. 5 Politic.).

Zeren nekhazaleak bere nekeaz eta trabailluaz baitaduka kontu, eta ez amurusiaz, eta ez nehoren nahastekatzêaz. Trabaillatzen dena, edo egitekotan dabillana, ntatzen-handi eztu haragiak tentatzen-handi. Aitzitik trabailluek, atsekabèk, eta egitekoek, bertze egitekorik emaiten diote.



En prueba de esta verdad cuenta San Jerónimo (Hieron. ad Rusticum) que en un monasterio de Egipto había un monje joven, al que la carne tentaba violentamente y de puro caliente estaba siempre en ebullición; y tanto le hervía, que ni con ayunos, disciplinas ni con otras industrias podía apagar aquel fuego ni echar de sí semejante pensamiento. El Abad de aquel monasterio, cuando tuvo noticia de ello, viendo que aquel monje estaba en peligro de perderse, reflexionó de qué manera lo sacaría y libraría de dicho peligro. Y pareciéndole que aquellas tentaciones provenían de la ociosidad, de hallarse sin ocupación, cómodamente, a su gusto y placer, sin aflicciones, hizo que le levantaran un falso testimonio. Dos testigos le acusaron delante del Abad, de acuerdo con el mismo Abad. Y disputaban entre sí. El acusado negaba, gritaba que aquello era falso, que era mentira, que no había tal, que él no tenía culpa. Pero los testigos mantenían la acusación, persistían en ella. Mientras andaban en estas discusiones, y como el abad deliberadamente difiriese el dar sentencia, se pasó un año. Y al cabo de él le preguntó el abad a aquel monje ¿a ver qué tal le iba con su carne? ¿a ver si le tentaba como antes? Y le contestó: "Papae, vivere non licet, et fornicari libeat?" ¿Qué tentaciones? ¿No ves cómo me encuentro? ¿No ves que estoy que casi he desesperado de la vida? ¿Que ni dormir puedo? Ya se fueron para siempre aquellos pensamientos anteriores, ahora otros son los que me traen inquieto. Considera con qué habilidad acertó aquel Abad en el blanco, y cómo, enviándole aflicciones y removiendo la ociosidad y el bienestar, le quitó también las tentaciones de la carne.

"Amor est animi vacantis passio" (Chrys. Hom. 14 in cap. 1 Mt.). El amor desordenado se suele encontrar y hospedar en el que tiene tiempo libre, en la persona ociosa; es un huésped y manjar propio de esta clase de personas. Por eso pintaban a Venus sentada. Porque el amor y el enamoramiento crece y se alimenta con la ociosidad, estando en holgura y tranquilidad. Y Ovidio dice también: "Otia si tollas, periere cupidinis arcus" (Ovid. lib. 2 de remed. amoris). Si remueves los ocios, los arcos de Cupido quedan desvirtuados, a nadie herirá con sus saetas.

§ 1

250 Comúnmente el vago tiene el pensamiento en comer y en mujeres. Así lo dice Casiano: "Mens

monasterio fraide

Egia hunen frogatzeko kontatzen du San Jeronimok (Hieron. ad Rusticum): Ejiptoko monasterio batean zela fraide gazte bat, haragiak bortitzki tentatzen zuena, bero hutsez bethi zirakiena, hain irakin ezen barurtuagatik, disziplinatuagatik, eta bertze anhitz enseiu eginagatik, ezin iraungi baitzezakeien su hura, eta ez egotz beregatik hartako gogoa. Monasterio hartako abadeak egiteko haren berri iakin zuenean, ikhusirik ezen fraide hura galtzeko periletan zela, egin zuen gogoeta, zer moldez atherako eta libratuko zuen peril hartarik. Eta idurituriik ezen tentamendu hek guztiak alferkeriatik, egiteko gabe, aise, bere gogara, plazerera eta atsekaberik gabe egoitetik heldu zeitzala, erauzarazi zeraukan falso testimonio gaixto bat. Akhusatu zuten bi lekhukok abadearen aitzinean, abadearekin berarekin aditurik. Eta bazihardukaten elkharren artean. Akhusatuak ukha, oihu, falso zela, gezurra zela, etzela halakorik, etzuela hobenik. Baiña lekhukoek mantena, on eduki, hala zela. Hunela zebiltzala, eta abadea ere sentenzia emaitetik berariaz gibelatzen zela, iragan zen urthe bat. Eta gero haren buruan, galdegin zeraukan abadeak fraide hari, ea nola zihoakon bere haragiarekin? Ea lehen bezala tentatzen zuenz? Eta ihardetsi zioen: *Papae, vivere non licet, et fornicari libeat?* Zer tenta? Eztakusazu zertan naizen? Eztakusazu biziaz etsitu hurran dudala? Lorik ere ezin daidikedala? Ioan dira leheneko gogoeta hek, orai bertzek deraut gogoeta eta egiteko. Ikhusazu zein artez eman zioen abade hark xedeari, eta nola atsekabearen emaiteaz, eta alferkeriaren eta aisiaren kentzeaz, kendu zerautzan haragiaren tentamenduak ere.

erauzarazi

berariaz

hurran

aisia

Amor est animi vacantis passio (Chrys. Hom. 14 in cap. 1 Mt.). Amorio desordenatua, astia duena baithan, presuna alferrean edireiten eta ostatatzen da, hari dagokan arrotza eta bianda da. Hargatik pintatzen zuten Venus iarririk. Zeren amorioa edo amurusia, alferkeriaz, aise eta geldi egoiteaz hazten eta mantenatzen baita. Eta badio Ovidiok ere: *Otia si tollas, periere cupidinis arcus* (Ovid. lib. 2 de remd. amoris). Baldin ken baitzatzu alferkeriak, galdu dirateke Kupidoren arkuak, eztu nehor bere tragazèz zaurtuko.

ostatu bianda

tragaza zaurtu

§ 1

250 Komunzki alferrak ian edanean, eta emaztètan ohi daduka gogoa. Hala erraiten du Kasianok: *Mens otiosa*



otiosa nihil aliud novit nisi de escis atque ventre" (Casian. lib. 10. cap. 8). Los pensamientos y palabras del vago son sobre comer y beber y sobre el vientre; de otras cosas ni piensa siquiera. Por eso le decía San Jerónimo a Rústico: "Ama studia litterarum et vitia carnis non amabis" (Hieron. ad Rusticum). Ama el estudio, y no te complacerás en el pecado de la carne ni pensarás en él. Si tomas el estudio de veras, dejarás fácilmente a la mujer. "Haec fuit iniquitas Sodomae sororis tuae, superbia, saturitas et otium" (Ez. 10). Jerusalén, el pecado y la perdición de tu hermana Sodoma fue el orgullo, la hartura y la ociosidad. A una con la ociosidad cometió aquella ciudad de Sodoma unas faltas tan grandes y pecados tan repugnantes, que Dios mandó no ya tierra para cubrirla ni agua para limpiarla, sino fuego y llamas para quemarla y abrasarla.

El Rey David, cuando trabajaba y se ocupaba personalmente en la guerra, hacía poco caso de las mujeres. Pero cuando estuvo desocupado y ocioso, cuando empezó a despachar los negocios por medio de delegados y representantes, en seguida fue cogido y cayó con mujer ajena. Tampoco de Salomón hallamos que le engañasen las mujeres mientras estuvo ocupado en hacer el templo, pero una vez concluido éste, cuando se dio a la ociosidad, en seguida fue víctima de ellas.

Y a Sansón mientras se ocupó en guerrear, jamás pudieron vencerle sus enemigos; mas cuando dejando sus negocios y guerras, se acostó a su gusto en el regazo de una mujer, esta misma mujer le engañó y luego los enemigos hicieron de él cuanto quisieron.

"Vigilate ergo fratres mei, quia nec sanctiores Davide, nec fortiores Sansone nec sapientiores Salomone vos esse video" (August. ad fratres in eremo. Sermo 17 T. 10). Estad pues despiertos, hermanos míos queridos (dice San Agustín), porque yo no veo que seáis más santos que David, más valientes que Sansón, ni tampoco más sabios que Salomón.

"Quaeritur Aegistus quare sit factus adulter? In promptu causa est, desidiosus erat" (Ovid. lib. 1 de remedio amoris). ¿Se pregunta por qué cayó Egisto en adulterio? La razón es clara; porque era vago. Y lo mismo se puede decir de David, de Sansón, y también de Salomón. Porque a todos éstos, como a muchos otros, la ociosidad los perdió o los puso en trance de perderse.

123 *Aizpa.* Hunela, *h* gabe, bai lehen eta bai 2. edizioan (*aixpa* dio 2.ak). Hitz hau ez zen *Axular-en Hiztegia*-n jaso.

124 *Lur, ur, su, khar,* denak muga gabe.

nihil aliud novit nisi de escis atque ventre (Casian. lib. 10 cap. 8). Alferraren gogoetak eta solhasak ian-edanaz eta sabelaz dira, eztu bertzetan pensatzen ere. Halatan erraiten zioen San Jeronimok Rustikori: *Ama studia litterarum eta vitia carnis non amabis* (Hieron. ad Rusticum). Onhets ezazu estudioa, eta eztuzu haragiaren bekathuan atseginik hartuko, eta ez gogorik edukiko. Hartzen baduzu estudioa fintki, utziko duzu emaztea laxoki. *Haec fuit iniquitas Sodomae sororis tuae, superbia, saturitas et otium* (Ez. 10). Ierusalem, zure aizpa[123] Sodomaren bekhatua eta galgarria izan zen, urguillutasuna, asea eta alferkeria. Alferkeriarekin batean egin zituen Sodomako hiri hark hain huts handiak, eta bekhatu khiratsak, non igorri baitzeraukan Iainkoak, ez lur estaltzeko, eta ez ur garbitzeko, baiña bai su eta khar[124] erratzeko eta xispiltzeko.

estudio laxoki hiri khar erre xispili


Errege Davitek, trabaillatzen zenean, gerlan bere presunaz zebillanean, kontu guti egiten zuen emaztèz. Baiña astiari, eta aisiari iarririk, mandatariz eta bere ordaiñez egitekoen egiten hasi zenean, atzeman zen berehala, eta erori bertzeren emaztearekin. Salomon ere tenploaren egiten hari zen bitartean, eztugu edireiten enganatu zutela emaztèk, baiña tenploa akhabaturik, alferkeriari eman zeikanean, fite atrapatu zen.

Bada Sanson ere gerlan zebillaiño, ezin egundaiño garaitu zuten bere etsaiek, baiña egitekoak eta gerlak utzirik, emazte baten altzoan bere plazerera etzan zenean, emazte hark berak enganatu zuen, eta gero etsaiek hartzaz nahi zutena egin zuten.

Vigilate ergo, fratres mei, quia nec sanctiores David nec fortiores Sansone, nec sapientiores Salomone vos esse video (August. ad fratres in eremo. Sermo 17. T. 10). Zaudete beraz iratzarririk, ene anaia maiteak (dio San Agustinek), zeren eztakusat nik, zaretela zuek, David baiño sainduago, Sanson baiño balentago, eta ez Salomon baiño iakinsunago.

anaia iakinsun

Quaeritur Aegistus quare sit factus adulter? In promptu causa est, desidiosus erat (Ovid. lib. 1 de remedio amoris). Galdegiten da, zergatik erori zen Egisto adulterioan? Prest da arrazoiña: zeren alferra baitzen. Bada molde berean erran ahal diteke, Davitez, Sansonez eta Salomonez ere. Zeren hek guztiak, bertzerik anhitz bezala alferkeriak galdu zituen edo galtzeko perilean ibeni zituen.



Por consiguiente, empléate en algo, guárdate de la ociosidad. Porque así te guardarás de las mujeres.

QUINTO REMEDIO PARA GUARDARSE DEL PECADO DE LA CARNE: CONSIDERAR CUAN PEQUEÑO Y BREVE ES ESTE PLACER

CAPITULO XXXIX

251 Para guardarte de las mujeres, para no ser tan aficionado, propenso ni tener la mente tan ocupada en ellas, sería bueno reflexionar y considerar dentro de ti, por lo menos algunas veces, cuando estás a solas, a ver cómo es el placer de las mujeres: si grande o pequeño, si largo o breve. Porque si es pequeño y breve, gran locura es que por él la persona tome sobre sí tantos pesares y disgustos como muchas veces se toma.

Pues bien, todos los que lo han probado, a una y unánimemente reconocen, dicen y confiesan que dicho placer es un placer insignificante y breve, que termina para cuando ha comenzado: y que incluso algunas veces termina sin haber comenzado. Porque aun en el mismo placer comúnmente se encuentra más disgusto que gusto. Dejo ahora a un lado las circunstancias de dicho placer, los quebraderos de cabeza y los disgusto que le preceden y le siguen, y que son grandes; pero yo hablo ahora del mismísimo placer de aquel momento: y digo que aún entonces, cuando estás en él, experimentas cierta falta, cierto descontento; y que ésta es la causa de que aún entonces, bien mirado todo, sientas más disgusto que gusto.

Así lo dice San Basilio: "Oblectatio corporeae voluptatis, plus doloris habet quam voluptatis" (Ba-

Beraz hunelatan zerbaitètan enplega zaite, trabailla zaite, alferkeriatik begira zaite. Zeren halatan emaztètarik ere begiratuko zara.



HARAGIAREN BEKHATUTIK BEGIRATZEKO BORZGARREN ERREMEDIOA: KONSIDERATZEA ZEIN TTIPIA ETA LABURRA DEN HARTAKO PLAZERA

KAP. XXXIX


251 Emaztetarik begiratzeko, hetara ez hain isuria, eroria, eta gogoa egotzia egoiteko, on lizateke, zenbait aldiz bedere, bakharrik zaudenean, gogoeta egitea, eta zeure baithan konsideratzea, ea nolakoa, handia ala ttipia, luzea ala laburra den emaztètako plazer hura. Zeren baldin ttipia, eta laburra baldin bada, erhokeria handia da hargatik presunak bere buruari hanbat atsekabe eta egiteko, nola anhitzetan ere emaiten baitio, emaitea.

boz kofesatu

Bada frogatu duten guztiek batetan, eta boz batez, aithortzen, erraiten, eta kofesatzen dute, plazer hura, plazer aphurra eta laburra dela, hasi deneko akhabatu dela: eta are batzutan hasi gabe ere akhabatzen dela. Zeren plazer hartan berean ere, komunzki plazer baiño desplazer gehiago edireiten baita. Utzten ditut plazer haren aitzin-gibelak, anarteraiñoko, eta ondoreko egitekoak, eta atsekabeak, handiak baitira; baiña hartan zareneko bereko plazeraz mintzo naiz: eta diot ezen orduan ere, hartan zarenean ere, zerbait eskastasun, zerbait deskontentamendu izaiten duzula; eta hura dela kausa, orduan ere guztiak ongi kontatzera, plazer baiño desplazer gehiago izaiten duzula. Hala erraiten du San Basiliok:

aitzin-gibel

Oblectatio corporeae voluptatis, plus doloris habet quam voluptatis (Basil. in Ps. 33). Haragiaren plazer



sil. in Ps. 33). El placer corporal de la carne tiene más de dolor y de disgusto, que de placer y de satisfacción. Con razón pregunta también San Pablo: "Quem fructum habuistis in iis quibus nunc erubescitis?" ¿Qué fruto, qué ganancia y qué placer sacasteis entonces de aquellos pecados de los que ahora estáis avergonzados y no atreviéndoos a levantar la cabeza? Ni aún entonces reportasteis placer completo, no os hartasteis y saciasteis. Y no es de maravillar que no os saciaseis. Porque el pecado de la carne es como el fuego: y el fuego nunca dice que tiene bastante. "Ignis numquam dicit, sufficit" (Prov. 30). Porque, como dice la glosa: "Voluptates semper habent famem sui" (Glosa ordinaria in cap. 7 Luc.). Los placeres de la carne siempre están hambrientos de placer. Y aunque te parezca que si dieras satisfacción a tu apetito desordenado, con esto te aquietarías, te engañas. Porque, como dice San Jerónimo: "Libido numquam satiatur, et cum videtur extincta reaccenditur, usu crescit et deficit" (Hieron. ad matrem). El placer de la carne nunca se harta del todo ni se apaga totalmente. Y aunque a veces parece que se harta y se apaga, pero pronto vuelve a encenderse y a sentir hambre. E incluso al poco tiempo se despierta más vivaz que antes. Así dice la Glosa: "Luxuria etsi ad horam satiatur, postmodum tamen ad appetendum arctius inflammatur" (Glos. Lyrana in cap. 3. Prov.). Como el amor que el hombre tiene a la mujer es de suyo natural, aunque dicho amor se haya enfriado un poco, muy pronto la misma naturaleza lo calienta; aunque se haya apagado, lo enciende.

§ 1

252 Dice Alciato: "Heu miser! in mediis sitiens, stat Tantalus undis. Et poma esuriens proxima, habere nequit" (Alciatus. Emblem. 8 4). Aquel pobre Tántalo se hallaba hambriento y sediento: y tenía bajo sus pies agua abundante y encima de la cabeza un árbol, lleno de fruto. Mas cuando quería beber, el agua se apartaba de él, y al ir a comer, las ramas del árbol se levantaban, no las podía alcanzar. Estaba rodeado de comida y bebida, y sin embargo el hambre y la sed le llevaba a morir. De esta guisa es también el que anda metido en los placeres de la carne.


Está hambriento, está sediento, y dale todo lo que quiere, métase hasta los ojos, pero no puede hartarse, no puede cumplidamente llenarse ni contentarse. "Libido lassari potest, satiari non potest" (Destructor vitiorum). Puede fatigarse y cansarse, pero no har-

korporal korporalak, dolore, eta desplazer gehiago du, atsegin eta plazer baiño. Arrazoiñekin galdegiten du Iondone Paulok ere: *Quem fructum habuistis in iis quibus nunc eru-*
fruitu *bescitis?* Zer fruitu, zer irabazi eta plazer izan zenduten orduan, orai ahalkez ere bururik ere ezin ailtxatuz, zaudeten bekhatu hetan? Are orduan ere etzenduten plazer osorik hartu, etzineten aspertu, eta ez ase. Eta ezta miretsteko ez asetzea. Zeren sua bezala da haragiaren bekhatua: eta suak eztu behin ere erraiten asko duela. *Ignis numquam dicit sufficit.* Zeren Glosak dioen bezala, *voluptates semper habent famem sui* (Prov. 30. Glosa ordin. in cap. 7 Luc.). Haragiaren plazerak, bethi dira, plazer gose. Eta iduritzen bazaitzu ere, baldin behin zeure desira desordenatua konpli bazeneza, hainbertzez sosega zindezkeiela, enganatzen zara. Zeren San Jeronimok dioen bezala: *Libido numquam satiatur, et cum videtur extincta, reaccenditur, usu crescit et deficit* (Hieron. ad matrem). Haragiaren plazera, ezta behin ere guztiz asetzen, eta ez osoki iraungitzen. Eta batzutan asetzen eta iraungitzen dela badirudi ere, berriz berehala gosetzen eta pitzten da. Eta are denbora gutiren barrenean, lehen baiño bizikiago iratzartzen da. Hala erraiten du Glosak: *Luxuria etsi ad horam satiatur, postmodum tamen ad appetendum arctius inflammatur* (Glos. Lyrana in cap. 3 Prov.). Nola gizonak emazteari diadukon amorioa, bere egitez baita, natural, amorio hura aphur bat hotztuagatik ere, berehala naturalezak berak berotzen du, iraungiagatik, pitzten du.

§ 1

252 Erraiten du Alziatok: *Heu miser in mediis sitiens, stat Tantalus undis; et poma, esuriens proxima, habere nequit* (Alciatus, Emblem. 84). Tantalo on-behar hura gose eta egarri zen: eta bazuen oiñen azpian ur franko, eta buruaren gaiñean zuhaitz bat, fruituz bethea. Ordea edan nahi zuenean, urak ihes egiten zioen, eta iaterakoan, zuhaitz adarrak goititzen eta goratzen zeitzan, ezin
Ianhari erdiets zitzakeien. Ianhariz eta edariz inguratua zegoen, eta alabaiña goseak eta egarriak hilzera zeraman. Hala da bada haragiren atseginetan eta plazeretan dabillana ere.

Gose da, egarri da eta emozu nahi duen bezanbat, sar bedi begietaraiño, baiña eztiteke ase, eztiteke osoki konpli eta ez kontenta. *Libido lassari potest, satiari non*



tarse. Así se dice de una señora de Roma que anduvo tanto con hombres, que se alejó de ellos cansada, pero no saciada. "Et lassata viris, sed non satiata recessit" (Juven. Satir. 6). Al contrario, cuando más se bebe, más sed se tiene; cuanto más se habitúa, más se quiere. El apetito desordenado de la carne es como la avaricia. "Crescit amor nummi, quantum ipsa pecunia crescit" (Juvenal.). Cuanto más dinero se tiene, tanto más se quiere tener. Así es también el pecado de la carne. Cuanto más se va tras él, más se le quiere; cuanto más se frecuenta, más adentro se mete; cuanto más se harta, más hambriento se queda.

253 Te engañas si es que crees que con frecuentar las mujeres se te va a disminuir el deseo de ellas. Al contrario, así como con mucho comer y mucho beber uno se hace más comedor y bebedor: así también frecuentando las mujeres se hace más mujeriego y más propenso a ellas.

El apetito de la carne se mata mejor no haciendo uso de él, que haciendo uso. Dejo a un lado los otros remedios, pero para tener pocas tentaciones de la carne, no hay remedio natural comparable al no hacer uso. Porque al no hacer uso, la carne queda como estéril, despreocupada y olvidada. Pero haciendo uso, siempre está excitada, despierta y alerta. Así hallarás que un hombre, cuando enviuda, al punto al primer recuerdo de la carne, anda queriendo casarse, que no puede sosegar. Y es porque el hábito contraído le solicita. Y este tal, como él no puede sosegar, piensa que todos los demás son como él, que tienen tan poca paciencia y aguante como él. Pero habla como quien no tiene más conocimiento que de su propia persona. Porque en quien no hace uso, la carne está amortiguada, sosegada, insensible e indiferente.

Por lo tanto, haz por no usar, por estar resignado y determinado a ello y, en fin, por considerar qué cosa tan insignificante y breve es el placer de la carne. Porque de este modo te darás a ti mismo una gran tranquilidad y hallarás el quinto remedio para guardarte del pecado de la carne.

unhatu

potest (Destructor vitiorum). Unha ahal diteke eta nekha baiña ez ase. Hala erraiten da Erromako andre batez, hanbat ibili zela gizonekin non hetarik partitu baitzen nekhaturik, baiña ez aserik. *Et lassata viris, sed non satiata recessit* (Iuven. Satir. 6). Aitzitik edanago, egarriago; usatuago, nahiago. Haragiaren desira desordenatua,

abarizia

abarizia bezala da. *Crescit amor nummi, quantum ipsa pecunia crescit* (Iuvenal.). Zenbatenaz diru gehiago, hanbatenaz gutiziosago. Hala da bada haragiaren bekhatua ere. Segituago, nahiago; usatuago, barrenago; aseago, goseago.

253 Baldin uste baduzu, emaztetan anhitz usatzeaz, emaztètako gutizia gutituko zaitzula, enganatzen zara. Aitzitik nola bat bedera anhitz iateaz eta anhitz edateaz, ialeago eta edaleago egiten baita, hala emaztekin usatzeaz ere, egiten da emakhoiago, eta emaztètara emanago.

Haragiaren aphetitua hobeki hiltzen da ez usatzeaz, usatzeaz baiño. Utzten ditut bertze erremedioak, baiña erremedio naturalik, haragiaren tentamendu guti izaiteko, ezta halakorik, nola ez usatzea. Zeren ez usatzeaz

anzutu ez-ansiatu

anzutzen da haragia, ez-ansiatua, eta ahantzia iartzen da. Baiña usatzeaz bethi ernatua, iratzarria eta orhoitua egoiten da. Hala edirenen duzu, ezen gizon bat alharguntzen denean, berehala haragiaren lehenbiziko orhoi-

ezkondu

tzapenean ezkondu nahiz dabillala, ezin dagokeiela. Zeren leheneko usantzak errekeritzen baitu. Eta halakoak nola bera ezin baitagoke, uste du ezen bertze guztiak

igurikitza

ere hura bezala direla, hark bezain igurikitza eta pairu guti dutela. Baiña bere buruaren baizen berririk eztakiena bezala mintzo da. Zeren usatzen eztuenari, haragia hildua, sosegatua, sorthua eta ez ansiatua dagoka.


gogatu

Beraz ez usatzeaz, etsitua eta gogatua egoiteaz, eta guztien buruan haragiaren plazera, zein gauza aphurra eta laburra den konsideratzeaz, egizu. Zeren halatan

segamendu

zeure buruari sosegamendu handi bat emanen diozu, eta haragiaren bekhatutik begiratzeko ere borzgarren erremedioa edirenen duzu.





SEXTO REMEDIO PARA GUARDARSE DEL PECADO DE LA CARNE: CONSIDERAR CUAN MAL EFECTO DEJA ESTE PLACER TRAS DE SI

CAPITULO XL

254 Aunque para guardarse del pecado de la carne, para cumplir el sexto mandamiento, es remedio grande el considerar qué cosa tan poca y tan breve es el placer de la carne: con todo, no es remedio menor el considerar igualmente y traer bien grabado en el pensamiento cuán mal efecto deja tras de sí este placer pequeño y breve. Porque tan pronto como se ha pasado el placer, se presenta el desplacer, allí está al punto la pena, el pesar, la aflicción y el querer no haberlo hecho.

Cuenta Aulo Gelio, que en la ciudad de Corinto había una mujer que se llamaba Lais, hermosa, famosa, caricíosa y placentera, y que sabía explotar bien su oficio. Cierto día pasando cerca de dicha mujer el gran filósofo Demóstenes, se sintió excitado, comenzó a resbalar: y preguntó a la misma Lais a ver por cuánto se vendía el género, a ver qué es lo que valía la mercancía. Y alegremente, pensando que tenía la pieza en la red, le pidió una gran suma: más de quinientos escudos: al grande a lo grande (Aul. Gel. lib. 1. cap. 3). Cuando Demóstenes oyó la proposición de la desvergonzada mujer, le contestó de forma impensada: "Ego poenitere non tanti emo" (Plutarc. in Aphothe.). Yo no compro tan caro el arrepentimiento. Como si le hubiera dicho: Ya sé, señora, que si yo ahora cediera contigo a mi pasión desordenada, muy pronto me había de pesar. Pues bien, ese pesar, ese arrepentimiento consiguiente, no lo compro tan caro, no doy por él tanto dinero. La que pensaba burlarse, quedó burlada. Y Demóstenes dio a entender con ello que al pecado le sigue siempre por detrás el arrepentimiento. En estos placeres mundanos desordenados, después de muerto y saciado el apetito, después de haberse satisfecho, el manjar repugna, sobreviene el pesar. No es posible decir cuán enloquecido anduvo Amnón, primogénito del rey David, tras de su hermana Thamar, cuántas cavilaciones, proyectos y rodeos maquinó por poseerla. Pero una vez que la poseyó y gozó de ella, de tal modo la aborreció, que al punto, no queriendo ni aun verla, la arrojó de casa.

125 *Zenbana.* *Zenbatnare* laburpena. Zenbatetan aldi ko esan nahi du. *Axular-e* *Hiztegia*-n ez dago jasoa.
126 *Amnon,* Daviden seme: Izen hau Axular-en Hizte gian ez zen jaso.
127 *Arreba.* Axular-en Hiz tegia-n ez zen jaso.

HARAGIAREN BEKHATUTIK BEGIRATZEKO SEIGARREN ERREMEDIOA: HARTAKO PLAZERAK ZEIN ONDORE GAIXTOA BERE ONDOTIK UTZTEN DUEN, KONSIDERATZEA

ondotik

KAP. XL

254 Haragiaren bekhatutik begiratzeko, seigarren manamenduaren konplitzeko erremedio handia bada ere, haragiaren plazera zein gauza aphurra eta laburra den konsideratzea: ordea ezta ttipiagoa, plazer ttipi labur hark, zein ondore gaixtoa bere ondotik utzten duen halaber konsideratzea, eta ongi gogoan edukitzea. Zeren plazera iragan den bezain fite, han da desplazera, han da berehala damua, urrikia, atsekabea eta egin ezpalu nahia. Kontatzen du Aulo Geliok Korintioko herrian zela Lais zeritzan emazte eder bat, famatua, amoltsua eta plazer egillea, eta bere ofizioaren baliatzen ongi ziakiena (Aulo Gelio lib. 1 cap. 3). Bada egun batez Demostenes filosofo handi hura emazte haren aldetik iragaiten zela, kilikatu zen, ernatu zen, linburtzen hasi zen: eta galdegin zioen Lais berari, ea zenbana[125] saltzen zen fruitua, zer balio zuen merkatalgoak. Eta alegerarik, ustez ezen ihizia sarean zuen, eskatu zeikan suma handi baten, gehiago bortz ehun ezkuturen baiño: handiari handiki. Demostenek aditu zuenean, ema-muthiriaren demanda, ihardetsi zioen, ez uste bezala: *Ego poenitere non tanti emo* (Plutarc. in Aphothe.). Eztut nik urrikitzea edo urrikia horrein garastia erosten. Erran baillio bezala: Badakit, andrea, ezen baldin nik orai iragan baneza zurekin neure aphetitu desordenatua, urriki lekidikedala berehala. Bada urrikitze hura, ondoko damu hura, eztut horrein kario erosten, eta ez hargatik hanbat diru emaiten. Eskarnio egin ustea, gelditu zen eskarniatua. Eta Demostenek eman zuen hartan aditzera bekhatuari bethiere bere ondotik urrikia darraikala. Munduko plazer desordenatu hautan aphetitua hillez gero, asez gero, gozatuz gero, higuintzen da bianda, ethortzen da urrikia. Ezin erran diteke zein erhotua ibili zen Amnon,[126] errege Daviten lehenbiziko semea, bere arreba[127] Tamarren ondoan, zenbat pensu, gogoeta eta itzul-inguru egin zuen, haren erdiesteko. Baiña gero, erdietsi eta gozatu zuenean, hain gaitzetsi zuen, ezen berehala, ikhusi ere nahi gabez, etxetik egotzi baitzuen.

urriki

amoitsu

ernatu


merkatalgoa

ema-muthiri

garasti

kario

erhotu



Cuando el rey Lisímaco, dominado por la sed, se rindió en cierta ocasión por beber, exclamó con gran tristeza, después de haber bebido, pesaroso de la bebida: "O dii, quam parvae voluptatis causa me ipsum ex Rege servum effeci" (Plutar. in Aphothe). Ah, dioses, ¡ay de mí!, por un placer insignificante, por beber momentáneamente agua fresca, siendo rey y libre, he venido a ser súbdito y cautivo. Exactamente lo mismo puede decir el que por un pequeño placer de la carne se hace súbdito y cautivo del diablo. ¡Ay de mí!, por una nonada, yo he venido a esto; yo que antes era amigo de Dios, he quedado enemistado.

§ 2

255 Si se reflexionara cuán poco dura el placer de la carne, si se pensara cuántos trabajos, noches y días malos es preciso pasar por conseguir dicho placer: y, sobre todo, cuántas molestias y pesares ocasiona este placer insignificante que concluye para cuando comienza, o aun sin haber comenzado: y si se considerara qué malas consecuencias deja tras de sí, no creo que hubiera uno solo que se metiera en tal negocio; al menos ninguno que esté en su sano juicio, que tenga seso, que no sea loco y ciego.

Y los mismos que andan en ello conocen bien que van extraviados, que de ahí se les originan grandes quebrantos, ya en la conciencia, ya en el honor, ya en la salud y ya también en la economía.

Y así pienso que no hay ninguno que cuando ha satisfecho su deseo, no se entristezca, no le pese, *y que para sus adentros no haga alguna reflexión* de no volver más a las andadas. Porque entonces, cuando es aún reciente la impresión, se encuentra un poco enfriado y calmado. Mas como después vuelve nuevamente a su antigua afición: así vuelve también a su antiguo lugar, ocasión e inmundicia. Y así como la mariposa no se aparta de la proximidad de la vela hasta quemarse las alas: así también el enamorado ciego no se escarmienta hasta que arruina el alma, el cuerpo y la hacienda.

Y la razón de esto es porque el que anda así no mira al porvenir más que si fuera un animal, ni considera como es debido el efecto frío y penoso que dicho placer deja tras de sí.

128 *Uli-farfailla.* Lehen edi
zioak eta bai 2.ak ere, baz
terrean *Papillio* jartzen du
mitxeletaren latinezko ize
na.

egartsu

Errege Lisimakok, egartsua iaundurik, behin edateagatik, errendatu zenean, erran zuen, edan ondoan, edanaz urrikiturik, tristura handi batekin: *O dii: quam parvae voluptatis causa, meipsum ex rege servum effeci* (Plutarc. in Aphothe.). Ha Iainkoak: ala ni plazer aphurragatik, behingo ur hotz edateagatik, errege eta libre nintzena, muthil eta gathibu egin bainaiz. Hala erran ahal dezake bada haragiaren plazer aphur batengatik, deabruaren azpiko eta gathibu egiten denak ere. Ala ni, deus gutigatik, hunetara bainaiz, Iainkoarekin adiskide nintzena, etsaitu bainaiz.

gathibu

azpiko

§ 2

255 Haragiaren plazerak zein guti irauten duen gogoeta egitera: plazer haren erdiesteko, zenbat trabaillu, gau eta egun gaixto iragan behar den pensatzera: eta guztien gaiñetik, plazer eztheus hark, hasi deneko edo hasi gabe akhabatzen den hark, zenbat pena eta atsekabe emaiten duen: eta zein ondore gaixtoa bere ondotik utzten duen konsideratzera, eztut uste, lizatekeiela bat ere egiteko hartan sar litekeienik; ez behintzat adimenduan dagoenik, zentzua buruan duenik, zoro eta itsu eztenik.

zoro

Eta hartan dabiltzanek berèk ere ezagutzen dute, ezagutzen, huts eginak doazilla, anhitz kalte handik errezibitzen dutela, bai konzientzian, bai ohorean, bai osasunan eta bai haziendan ere.

osasuna

Eta hala uste dut, ezen, eztela bat ere, bere desira iragan duenean, tristetzen eztenik, urrikitzen etzaikanik, eta bere baithan eztuela gehiago bihurtu behar, zerbait gogoeta egiten eztuenik. Zeren orduan bere berri hartan aphur bat hotztua dateke, ematua dateke. Ordea nola gero berriz bere leheneko aphetitura bihurtzen baita: hala bihurtzen da halaber, bere leheneko tokira, tornura eta lohira. Eta nola uli-farfailla,[128] ezpaita, hegalak erra arteiño, kandelaren ingurunetik urruntzen, hala amurus itsutua ere, ezta, arima, gorputza eta hazienda honda arteiño zenzatzen.

urrikitu

ematu

tornu

uli-farfail hegal

Eta hunen arrazoiña da, zeren hala dabillanak, ezpaitu abreak baiño gehiago, ethorkizunera behatzen: eta ez plazer hark zein ondore hotza eta atsekabetsua bere ondotik utzten duen behar bezala konsideratzen.

abre



SEPTIMO REMEDIO PARA GUARDARSE DEL PECADO DE LA CARNE: VIGILAR SOBRE LOS CINCO SENTIDOS, Y EN PRIMER LUGAR SOBRE LOS OJOS

CAPITULO XLI

256 Todo el que quiera dar buena cuenta de su persona debe guardar y vigilar los cinco sentidos, que son la vista, el gusto, el oído, el olfato y el tacto. Porque estas son las ventanas y portales por los que entran en el alma todos los pecados, y particularmente los de la carne. Estas son las puertas que es preciso cerrar y cuidar bien, si es que queremos impedir que el enemigo entre en el castillo de nuestra alma.

La primera puerta y portal principal es la vista de los ojos: "Visus". Este sentido hace ventaja a todos los demás. Este en poco tiempo hace mucho. Ve de lejos, y lo que ve lo introduce dentro del alma, y ésta lo acoge. Si es que al ojo no se le tiene a raya, grandes males tienen que suceder.

Eva vio la manzana, y a causa de ello puso a su persona juntamente con la nuestra en dolor y aflicción. David miró a una mujer que no debía, y a causa de ello cayó en grandes descalabros.

Ordinariamente el enamoramiento entra por los ojos, por allí comienza y nace. Grandes cazadores son los ojos, y cuando levantan alguna caza de su gusto no se detienen hasta alcanzarla.

Una sola vista de los ojos, una mirada única, e incluso muchas veces la mirada que se hace de pasada e impensadamente, roba el corazón; ¿qué no hará, pues, el estar mirando una y otra vez, expresa y detenidamente? Esta segunda mirada, este volver nuevamente, con reflexión y a sabiendas de lo que se hace, este estar con los ojos fijos y clavados a los ojos de la mujer, al rostro, al cuerpo, a la hermosura y porte, enciende el fuego, lo acrecienta y, por fin, quema. Por eso dice el Espíritu Santo: "Ne respicias mulierem multivolam, ne forte incidas in laqueos illius" (Eccl. 9). No mires a la mujer ligera, vaporosa y voluble: una vez vista, "ne respicias", no la veas de nuevo, no vuelvas de nuevo. Porque si vuelves, te pondrás en peligro de caer en sus redes. La mujer que anda paseando sus ojos desvergonzada y atrevidamente por todos los rincones es de temer que ya está caída o que caerá

[129] *Baldin begiari edukitzen ezpazaika begia.* Kasu *begi* hitzaz egiten duen jokoari.

zensu

HARAGIAREN BEKHATUTIK BEGIRATZEKO ZAZPIGARREN ERREMEDIOA: BORZ ZENSUEZ, ETA LEHENBIZIKORIK BEGIEZ, KONTU EDUKITZEA

KAP.XLI

dastatu portale gaztelu

256 Nork ere nahi baitu bere buruaz kontu onik eman, behar ditu borz zensuak (zein baitira, ikhustea, dastatzea, enzutea, usnatzea, eta ukitzea) guardiatu eta begiratu. Zeren hauk dira leihoak eta portaleak, zeiñetarik bekhatu guztiak, eta guztiz ere haragiarenak, ariman barrena sartzen baitira. Athe hauk behar ditugu hertsi, eta hautzaz eduki kontu, baldin etsaia geure arimako gazteluan sartzetik nahi badugu begiratu.

Lehenbiziko athea eta portale prinzipala da begietako bista, *Visus*. Hunek bertze zensu guztiei eramaiten deraue abantail. Hunek denbora gutiz egiten du anhitz. Urruititik ikhusten du, eta ikhusten duena gogoan barrena sartzen du, eta gogoak ere errezibitzen du. Baldin begiari edukitzen ezpazaika begia,[129] kalte handiak gerthatuko dira.

Ebak ikhusi zuen sagarra, eta handik bere burua gurekin batean, penatan ibeni zuen. Davitek behatu zioen behar etzen emazteari, eta handik egiteko handitan erori zen.

Ihiztari ihizi baratu

Komunzki amorioa begietarik sarzen da, handik hasten eta sortzen da. Ihiztari handiak dira begiak, eta bere gogarako ihizirik eraikitzen dutenean, eztira erdiets arteiño baratzen.

Iragaitzaz

Begietako bista batek, behingo behatzeak, eta are anhitzetan ere, iragaitzaz eta ustekabean behatzeak, arrobatzen du bihotza: zer eginen du bada behin eta berriz, berariaz eta luzaro beha egoite hark? Bigarren behatze hark, berriz bihurtze hark, gogoeta egiten duela, eta zer hari den dakiela, begiak finkaturik eta landaturik, emaztearen begiei, begitarteari, gorputzari, edertasunari eta ibilguneari beha egoite hark, sua pitzten du, aitzinatzen du eta azkenean erratzen du. Hargatik errai-


Ibilgune

ten du Spiritu Sainduak: *Ne respicias mulierem multivolam, ne forte incidas in laqueos illius* (Eccle. 9). Eztiazozula beha, emazte arin, airatu, leihariari: behin ikhusiz gero, *ne respicias*, ez bir-ikhus, ez berriz bihur.

Leihari

Zeren bihurtzen bazara, haren saretan erortzeko periletan iarriko zara. Ahalke gabeki, muthiriki, kantoin guztietara begiak dabiltzala, dabillan emaztea, peril da ero-

Muthiriki



pronto. "Ne dicatis vos habere animos pudicos, si habeatis oculos impudicos, quia impudicus oculus, animi impudici est nuntius" (August. in regula). No digáis, dice San Agustín, que tenéis corazones puros y honestos, si es que tenéis ojos deshonestos y desvergonzados. Porque el ojo deshonesto, desvergonzado, y que por de fuera no tiene reposo, es reflejo y señal de un interior corrompido, inquieto y deshonesto. El que quiere guardarse de las mujeres debe también guardarse de mirar a las mujeres, por lo menos de estar mirando con mal deseo y sintiendo excitaciones por ello.

§ 1

257 Cosa hermosa es y de gran provecho para el alma el tener los ojos bajos con modestia. Se cuenta del santo Obispo Hugo que tenía tan gran cuidado con el recato de sus ojos, que cuando hablaba con una mujer volvía siempre la cabeza al otro lado cuanto podía (Guidus Cartus. in vita Hugonis). Y decía que era bien que así se hiciese, porque de otra suerte era difícil que después de ver cosa de su gusto, no se la desease o no se pensase en ella.

Cuando los soldados de Ciro se apoderaron de la población y de los bienes de los Asirios, encontraron entre otros presos a la hermosa Pantea, mujer del Rey Abradat (Rhodig, lib. 13. cap. 3). Y avisaron en seguida al rey Ciro la hermosura, cualidades y excelencias de la mujer. Pero como el rey hacía como si no oyese, uno de sus amigos íntimos, el más familiar de todos, llamado Arraspas, se apresuró a decirle: Oh rey, jamás ha nacido sobre la tierra mujer tan hermosa, bien merece que la hagas tal honor, merece que la veas una vez: y yo te prometo que, si la ves una vez, no necesitarás que por segunda vez te vengan a invitar, tú mismo te invitarás.

Entonces contestó el rey al que así decía: Precisamente por esa misma razón no la quiero ver. Porque si una vez la veo, siendo libre, temo que para la segunda me cautive y que mi pasión desordenada me obligue a hacer lo que no se debe. Esta bella respuesta dio aquel rey gentil. Es que sabía cuántos males acarreaba el ver la cosa prohibida.

ria den, edo sarri èroriko den. *Ne dicatis vos habere animos pudicos, si habeatis oculos impudicos, quia impudicus oculus, animi impudici est nuntius* (August. in regula). Ezterrazuela (dio San Agustinek) bihotz garbiak eta onhestak ditutzuela, baldin begi desonhestak eta ahalke gabeak baditutzue. Zeren begi desonhesta, ahalke gabea, eta kanpoan sosegurik eztuena, barren gaixtoaren, sosegu gabearen eta desonhestaren mandataria da eta seiñalea. Emaztètarik begiratu nahi duenak, begiratu behar du halaber emaztei behatzetik, behintzat bai, aiherkunde gaixtoz, eta handik kilikatzen dela, sentitzen duelarik beha egoitetik.

mandatari

aiherkunde

§ 1

257 Gauza ederra da, eta arimakotzat probetxu handitakoa onhetstasun batetan begien beheititurik edukitzea. Kontatzen da Hugo Ipizpiku saindu hartzaz, hain zedukala kontu handia bere begien egin bideaz, non emazte batekin minzatzen zenean, bethiere burua ahal bezanbat, bertze alderat itzultzen baitzuen (Guidus Cartus. in vita Hugonis). Eta erraiten zuen ongi zela hala egitea, zeren bertzela gaitz zela bere gogarako gauza ikhusiz gero, haren ez desiratzea, edo hartzaz gogoetarik egin gabe egoitea.

beheititu

Ipizpiku


Ziroren soldaduek hartu zituztenean Asirioen iendeak eta onak, ediren zuten bertze presoen artean Pantea ederra, errege Abradaten emaztea. Eta eman zioten berehala aditzera errege Zirori, emazte haren edertasuna nolakoa eta zein abantaillatua zen. Baiña zeren erregek ez aditu iduri ègiten baitzuen, lehiatu zeikan bere adiskide mamietarik bat, trebèn zeikana, Arraspas zeritzan bat, erraitera: Errege, ezta egundaiño lurraren gaiñean hain emazte ederrik sorthu, merezi du hain bertze ohore eman diazozun, merezi du behin ikhus dezazun: eta prometatzen deratzut, ezen baldin behin ikhusten baduzu, eztuzula bigarrenean gonbidatzaillerik beharko, zerori egonen zarela errana (Rhodig. lib. 13 c. 3).

abantaillatu

Orduan ihardetsi zioen erregek, hala erraile hari: Bada arrazoin horren beronengatik, eztut ikhusi nahi. Zeren baldin behin libreki ikhusten badut, beldur naiz bigarreneko gathiba nadin, eta neure desira desordenatuak behar eztena eragin diazadan. Errèpuesta eder haur eman zuen errege ientil hark. Zeren baitziakien, zenbat kalte egiten zuen, gauza debekuaren ikhusteak.

erraile

gathibatu



Así leemos también, que cuando Alejandro Magno consiguió aquella famosa victoria sobre el rey Darío, y entre otros presos se apoderó de las bellas hijas de éste, no quiso que ninguna de ellas fuese traída a su presencia, temiendo que después de verlas, le forzaran a hacer lo que no debía.

Hállanse muchos otros ejemplos similares, de los cuales debemos deducir que si no queremos que el amor ilícito se nos meta en el alma y en el corazón, debemos algunas veces bajar y cerrar los ojos: debemos tener cuidado de este portal de la vista, que es el primer sentido. Este es un buen remedio que hay que tomar para guardarse del pecado de la carne.

OCTAVO REMEDIO PARA GUARDARSE DEL PECADO DE LA CARNE: TENER CUIDADO CON LA LENGUA

CAPITULO XLII

258 Si hay que vigilar y guardar el portal de la vista, a buen seguro que otro tanto se ha de hacer con el del gusto. Con tanto cuidado se ha de vigilar *el uno como el otro. Y cuando hablo del gusto* hablo de todo lo que se refiere a la boca: así de la lengua y del hablar, como del comer y beber.

En primer lugar es preciso guardarse de hablar vana, ligera, frívola y deshonestamente. Porque como dice San Pablo: "Corrumpunt bonos mores colloquia mala" (1 Cor. 15). Las malas conversaciones echan a perder las buenas costumbres. Y los filósofos dicen también: "Voces sunt signa conceptuum". La lengua declara qué es lo que cada cual tiene en su alma y corazón. Tal como uno habla por fuera, así

Hala irakurtzen dugu Alexandro handiak ere biktoria famatu hura errege Darioren gaiñean izan zuenean, eta haren alaba edèrrak bertze presoen artean hartu zituztenean, etzuela nahi izatu ekhar ziazoten hetarik bat ere bere aitzinera, beldurrez ikhusi eta gero, behar etzena eragin ziazoten.

exenplo

Edireiten da bertzerik ere anhitz hunelako exenplorik, zeiñetarik athera behar baitugu, baldin nahi ezpadugu, behar ezten amorioa gogoan eta bihotzean barrena sar dakigun, zenbait aldiz begiak beheititu eta hertsi behar ditugula: begietako bistaren portale hunez (zein baita lehenbiziko zensua), kontu eduki behar dugula. Zeren haur da erremedio ona haragiaren bekhatutik begiratzeko hartu behar dena.

HARAGIAREN BEKHATUTIK BEGIRATZEKO ZORTZIGARREN ERREMEDIOA: MIHIAZ KONTU EDUKITZEA


KAP. XLII

uardia egin

258 Baldin bistaren portaleari eduki behar bazaika begia, eta egin guardia, segur da etzaikala gutiago egin behar gustuarenari. Hain ongi eduki behar da kontua bataz nola bertzeaz. Eta gustuaz mintzo naizenean, mintzo naiz ahoari ukitzen zaitzan gauza guztiez: hala mihiaz eta minzatzeaz, nola ianaz eta edanaz.

mihi

Lehènbizikorik behar da banoki, ergelki, arintki eta desonheski minzatzetik begiratu. Zeren Iondone Paulok dioen bezala: *Corrumpunt bonos mores, colloquia mala* (1 Cor. 15). Solhas gaixtoek galtzen dituzte aztura onak. Eta erraiten dute filosofoek ere: *Voces sunt signa conceptuum.* Mihiak deklaratzen du zer dadukan bat bederak bere gogoan eta bihotzean. Nor nola mintzo baita



suele ser por dentro. Lo que uno tiene en el alma, eso es lo que quiere mentar ante los otros, la lengua es el mensajero del corazón, por la lengua se conoce lo que es cada uno, y también de dónde es, como fue conocido San Pedro.

Deben excusarse y evitarse las palabras ociosas, ligeras, jocosas, de diversión, y particularmente las deshonestas, vanas y necias. Porque éstas despiertan al dormido, levantan la presa y mueven a hacer lo ilícito. Estas son las que encienden el fuego y conducen a adquirir mutua familiaridad. Debes excusar tu lengua de tales palabras, si es que quieres guardarte a ti mismo de mujeres.

§ 1

259 Asimismo te has de guardar de hablar, conversar y razonar demasiado con mujeres. Porque la conversación y el entretenimiento con ellas tiene consigo miel, lleva consigo la complacencia, la ocasión de resbalar y también la viscosidad y el aglutinante con que se pegan el uno con el otro.

El que anda entre mujeres, el que siente su gusto en conversar con ellas, y con todo dice que no hay peligro de caer, quiere hacer creer que no es hecho de carne, que no es hombre: o que guardando fuego en el seno, puede traerlo sin que se propague a los vestidos: o que puede andar descalzo sobre carbones encendidos sin quemarse las plantas (Vid. Basil. de constit. monast. cap. 4). Pero el Espíritu Santo dice que no es posible hacer tal cosa: "Numquid potest homo abscondere ignem in sinu suo, ut vestimenta illius non ardeant? Aut ambulare super prunas ut non comburantur plantae ejus? Sic qui ingreditur ad mulierem" (Prov. 6). El andar con muteres y no recibir daño es como estar en el fuego sin quemarse. Quienquiera que seas y como quiera que seas: seas grande o pequeño: por devoto y bien intencionado que seas: en fin, ya puedes ser a tu juicio más duro que la piedra y más excelente que el oro: pero la mujer con su palabra suave, con su decir insinuante, dulce y blando, te conquistará, te sacará de tus cabales, te fascinará y te volverá hacia el otro lado. Frecuenta dicho molino, se te pegará la harina: acércate a él, te manchará. Por eso dice San Pablo: "Fugite fornicationem". Huid de las mujeres, del pecado de la carne, poned un muro entre vosotros y la ocasión, no os acerquéis el uno al otro. No dice San Pablo —como dice de los otros pecados— que ataquemos al pecado de la carne: no dice

iendartean

kanpoan, hala ohi da barrenean. Zer baitaduka gogoan, hura aipha nahi du iendartean, mihia da bihotzaren mandataria, mihian da ezagun nor den bat bedera, eta bai nongo den ere. Iondone Petri ezagutu zen bezala.

dostaillu

eraiki trebatu

Eskusatu behar dira eta gibelatu hitz alferrak, arinak, iokolariak, dostailluak, eta guztien gaiñetik desonhestak, banoak eta ergelak. Zeren hek iratzartzen dute lo datzana, eraikitzen dute ihizia eta eragiten behar eztena. Hek dira su pitzgarriak, eta elkharrekin trebatzeko bideak. Halako hitzetarik behar duzu eskusatu zeure mihia, baldin nahi baduzu begiratu emaztètarik zeure burua.

§ 1

halaber solhastatu

259 Halaber begiratu behar duzu emaztèkin sobera solhastatzetik, konbersatzetik eta hitztun izaitetik. Zeren heken konbersazioneak eta solhasak berekin du eztia, berekin du balakua, linburtzeko okhasinoa, eta bai elkharri lotzeko kola, biska eta lekeda ere.

lekeda


golkho

orthus oin-zola

Emazten artean dabillanak, hekin solhastatzeaz atsegin hartzen duenak, eta guztiarekin ere eztela erortzearen beldur erraiten duenak, sinhets arazi nahi du, eztela haragiz egina, eztela gizona: edo sua golkhoan gorderik, arropei lothu gabe erabil dezakeiela: edo ikhatz bizien gaiñean orthusik, oin-zolak erre gabe, ibil ditekeiela (Vid. Basil. de constit. monast. cap. 4). Ordea erraiten du Spiritu Sainduak eztela posible hala egitea: *Numquid potest homo abscondere ignem in sinu suo, ut vestimenta illius non ardeant? aut ambulare super prunas ut non comburantur plantae eius? Sic qui ingreditur ad mulierem* (Prov. 6). Emaztèkin ibiltzea eta kalterik ez errezibitzea, suan erre gabe egoitea bezala da. Nor nahi den, eta nolakoa nahi den zarela: zaren handi edo ttipi: zaren debozinoz eta intenzione onez bethea; finean, zaren zeure ustez harria baiño gogorrago eta urrea baiño finago, baiña emazteak bere hitz leunaz, solhas garaziatsuaz, eztiaz eta emeaz, beretakotuko zaitu, zentzutik atherako, liluratuko eta bertze aldèra itzuliko zaitu. Zabiltza errota hartara: irina lothuko zaitzu; hurbil zakitza: kutsatuko zaitu. Halatan erraiten du Iondone Paulok: *Fugite fornicationem.* Ihes egizue emaztètarik, haragiaren bekhatutik, ibenzue zuen eta okhasinoaren artean murru bat, ez elkhargana hurbil. Eztu erraiten Iondone Paulok, bertze bekhatuez bezala, emaztètako bekhatuari defenda

garaziatsu beretakotu

Ibenl murru



que nos enfrentemos a él con armas, sino que dice "fugite", huyamos (Vide August. de honestate mulier. cap. 1). Como si dijera: a todos los otros pecados se les debe con el favor de Dios combatir y atacar, pero del de la carne se debe huir: de este modo es como venceremos y reportaremos victoria. Porque de otra suerte, una vez acercados, una vez juntos y puestos a conversar a solas, es difícil quedar sin mancharse, es difícil escaparse sin ser cogido en la red.

260 No es prudencia el ir a un sitio donde hay peste, confiando en los remedios. Aléjate, huye, ese es el remedio mejor y el más seguro para no contraer el contagio. Pues bien, el pecado sexual es como la peste, se propaga por contagio, es suficiente el tocar, basta con acercarse. Tomemos pues el consejo que da San Pablo, huyamos, no nos metamos ni nos pongamos en la ocasión.

En el tiempo de aquellos antiguos Emperadores malvados, el que huía de ellos perdía la palma y la corona del martirio. El que quería ganar la corona, el que había de ser mártir, no debía huir. Pero cosa diferente acontece cuando se huye por no perder la castidad; el guardarte a ti mismo, el hacerte violencia cuando estás en ocasión, ese es el martirio y el ser mártir. Así lo dice San Agustín: "Nemo dicat, fratres charissimi, quod temporibus nostris martyrum certamina esse non possunt, habet enim pax nostra martyres suos, nam libidinem fugere pars magna martyrii est" (Aug. serm. 240 de temp.). Que nadie diga que hoy en nuestro tiempo no puede haber mártires: ¡sí que hay mártires también ahora! Porque el vencer los apetitos desordenados de la carne, el huir de las mujeres y guardarse de ellas, es un gran heroísmo y como ser mártir.

§ 2

261 Mas ¿por qué razón se dice que los otros pecados debemos vencerlos luchando y enfrentándonos, el de la carne, en cambio, huyendo? Primera razón: porque el hombre y la mujer son como el fuego y la estopa: por lo tanto no son buenos para estar juntos; si se acercan no hay seguridad, lo mejor es que estén separados. Segunda razón: porque no es bien acercarse a un enemigo que con aproximarse cobra fuerza. Así sucede con la carne y con el pecado de la carne. Porque nuestra carne, que antes estaba


gakitzala: eztu erraiten harmetan mokhoz-mokho iar gakitzala, baiña dio, *fugite,* ihes dagigula (Vid. Aug. de honestate mulier. cap. 1). Erran bailleza bezala: bertze bekhatu guztiei behar gatzaizte, Iainkoaren faborearekin batean, kontratu eta defendatu, baiña haragiarenari ihes egin: halatan behar dugu garaitu eta biktoria erdietsi. Zeren bertzela, hurbilduz gero, elkharganaz gero, solhasean bakharrik iarriz gero, gaitz da kutsatu gabe geldi-
Itzuri tzea, sarean sarthu gabe itzurtzea.

zuhurtzia izurri **260** Ezta zuhurtzia, izurria den lekhura, erremedioetan fidaturik, ioaitea. Alde egizu, ihes egizu, hura da ez
Izurriztatu izurriztatzeko erremediorik hoberena eta segurena. Bada
pare emaztètako bekhatua izurriaren pare da, kutsuz doha, asko du ukitzea, asko du hurbiltzea. Har dezagun beraz Iondone Pauloren konseillua, dagigun ihes, ezkaitezilla okhasinotan sar èta ez iar.

Lehenagoko enperadore gaixto heken denboran, hetarik ihes egiten zuenak galtzen zuen martirioaren pal-
koroa ma eta koroa. Koroa hura erdietsiko zuênak, martir izanen zenak, etzuen ihesik egin behar. Baiña diferent da kastitatearen ez galtzeagatik, ihes egitean: ihes egite hura, okhasinotan zarenean, zeure buruaren begiratze eta
bortxatu bortxatze hura da martirio eta martir izaitea. Hala erraiten du San Agustinek: *Nemo dicat, fratres mei carissimi, quod temporibus nostris martyrum certamina esse non posunt; habet enim pax nostra martyres suos; nam libidinem fugere, pars magna martyrii est* (Aug. sermo 240 de temp.). Ezterrala nehork, ezen orai gure denbora hunetan ezin datekeiela martirik; badira bai orai ere martirak. Zeren haragiaren aphetitu desordenatuen benzutzea, emaztètarik ihes egitea, eta bere buruaren hetarik begiratzea, balentia handia da eta martir izaitea.

§ 2

contrakarrean iarri **261** Ordea zergatik erraiten da, bertze bekhatuak defendatuz eta kontrakarrean iarriz, behar ditugula garaitu, baiña haragiarena ihes eginez? Lehenbiziko arrazoi-
Istupa ña: zeren gizona eta emaztea, sua eta istupa bezala baitira. Beraz eztira elkharrekiko on; hurbiltzen badira, ezta segurantzarik, apart egoitêa da hoberenik. Bigarren arrazoiña: zeren ezpaita on, hurbiltzeaz indar hartzen duen etsaiari alderatzea. Hala da bada haragia eta haragiaren bekhatua. Zeren gure haragia lehen geldi eta so-



tranquila y aquietada, al acercarse a la otra carne, se enciende, se despierta, cobra fuerzas, se torna enemiga. Y así como un Rey se resistiría a entrar en batalla y en combate contra sus enemigos si supiera que sus propios soldados son unos traidores que se van a levantar contra él; así también nosotros debemos temer el ponernos a luchar y a guerrear con la carne. Porque nuestra carne, como traidora, se levanta contra nosotros.

Esta razón la expresa y aun la declara Santo Tomás cuando dice: "Peccatum semper est fugiendum, sed impugnatio peccati quandoque est vincenda fugiendo, quandoque vero resistendo. Fugiendo, quando continuata cogitatio perseverans auget incentivum peccati, sicut accidit in luxuria. Resistendo autem, quando cogitatio perseverans tollit incentivum peccati sicut accidit in omnibus peccatis, praeter luxuriam" (S. Thom. 2. 2. q. 35 art. 1 ad 4). Del pecado siempre se ha de huir, pero la acometida, solicitación y tentación del pecado unas veces hay que vencerla huyendo y apartándose, y otras veces resistiendo, oponiéndose y peleando. Si resistiendo y pensando en ello se disminuye la tentación del pecado, como sucede en todos los otros pecados excepto el de la carne, entonces es mejor embestir y pelear contra la tentación. Pero si con acometer y con pensar en ello se enciende más el fuego y aumenta la tentación, como acontece en el pecado de la carne, entonces es preciso huir y no ponerse a pensar cómo va a luchar, porque este mismo pensamiento añade combustible al fuego.

Y por huir se entiende el guardarse de las ocasiones, conversaciones, encuentros y cavilaciones de esta especie. Porque el dinero no está seguro en sitio donde hay ladronesnes, ni la oveja entre los lobos, ni la estopa junto al fuego. Cosas peligrosas son éstas para estar la una junto a la otra, y también el hombre y la mujer para estar ellos dos solos.

§ 3

262 Pero aun dado que no hubiera peligro de estar juntos, existe todavía otra razón para apartarse de las mujeres, para no frecuentar su compañía y conversación, y es la obligación que tenemos de dar buen ejemplo y de excusar el escándalo. No basta con que

Y con razón le sucede así. Porque así como el pie, el brazo u otra parte del cuerpo, cuando sale de su sitio o articulación, cuando se tuerce o disloca, no sosiega ni descansa hasta que torna a su sitio y lugar: así también el que dando la espalda a su conciencia, permanece en pecado, como se encuentra apartado y salido de la debida articulación y del camino y orden que la razón natural le muestra, no puede sosegar ni descansar, mientras está así. Cuando está en su camino y lugar —como acontece cuando no tiene pecado— entonces es cuando está alegre, risueño, satisfecho, contento y a su gusto.

§ 2

274 No hay cosa tan mala ni que queme tanto como la mala conciencia: ella es bastante azote y verdugo. Así dice San Agustín hablando con Dios: "Jussisti enim et sic est, ut poena sua sibi sit omnis inordinatus animus" (Aug. lib. 1 Confes. cap. 12). Mandaste y así es: la conciencia desordenada ella misma es pena y castigo para sí misma.

No hay torrentera ni aguaducho que así despelleje y expolie la tierra; no hay carcoma que así destruya y pulverice la madera: no hay lombriz que así dañe y coma el tocino: no hay polilla que deje la tela tan deteriorada ni gusano que así eche a perder y pudra la carne, como la mala conciencia lo hace consigo mismo.

Este gusano es el pecado que está dentro de la conciencia, el cual, a modo de gusano noche y día muerde, come, despelleja. Y es tan hambriento, que nunca se harta ni cesa de morder y de recordar sus faltas.

132 *Utzi nahi badigu.* Hala lehen eta 2. edizioan. Badirudi *diogu* behar lukela.

xuxen

Utzi nahi badigu[132] konzientziari, bera da asko, errebelatzetik begiratzeko, artez eta xuxen erabiltzeko. Zeren badaki behar dena, eta bere egitez guztia da onera emana. Eta San Tomasek dioen bezala, ontasunari

begitarte

egiten dio besta eta begitarte, eta gaixtatasunari liskar eta beltzuri: *Synderesis dicitur instigare ad bonum, et murmurare de malo* (S. Thom. 1 pars q. 79 art.13). Beraz bere konzientziaren arauaz, haren buruz eta konseilluz gobernatzen eta kidatzen dena ongi da, alegera da, kontent eta pagu da. Baiña bertzela, bere konzientziaren kontra dabillana gaizki da, beltz, ilhun, goibel eta triste da.

enhardatu

Eta arrazoiñekin da hala. Zeren nola, zangoa, besoa edo gorputzeko bertze parte bat, bere tokitik eta iunturatik ilkitzen, makhurtzen, aldaratzen edo enhardatzen denean ezin sosega baititeke, eta ez pausa, bere tokira eta lekhura bihur arteino: hala bere konzientziari gibela emanik, bekhatuan dagoena ere, nola behar den iunturatik eta arrazoin naturalak erakusten dioen bidetik eta ordenantzatik aldaratua eta iltkia baitago, ezin sosega diteke, eta ez pausa, hala dagoeiño. Bere bidean eta tokian dagoenean, nola baitago bekhaturik eztuenean, orduan da alegera, arrai, aise, kontent eta bere gogara.

arrai

§ 2


erragarri
borrero

274 Ezta konzientzia gaixtoa bezain gaixtorik eta erragarririk: bera da azoterik eta borrerorik asko. Hala erraiten du San Agustinek Iainkoarekin mintzo dela: *Iussisti enim et sic est, ut poena sua, sibi sit, omnis inordinatus animus* (Aug. lib. 1 Confes. cap. 12). Manatu zenduen eta hala da: konzientzia desordenatua, bera da, bere buruarentzat, pena eta gaztigu.

zuhirindu zeden

Ezta uharrerik eta ez uholderik lurra hala larrutzen eta arrobatzen duenik: ezta pipirik, zura hala desegiten eta zuhirintzen duenik: ezta zedenik urdaia hala bohatzen eta iaten duenik: ezta zerrenik oihala hala eta hain gisa gaizki bilhakatzen duenik, eta ez harrik haragia hala galtzen eta gastatzen duenik, nola konzientzia gaixtoak egiten baitu bere burua.

Harra da, konzientzian barrena, dagoen bekhatua, eta harrak bezala, gau eta egun, autsikitzen du, iaten du, larrutzen du. Eta hain da gose, ezen ezpaita behin ere asetzèn eta ez autsikizetik eta bere faltèn gogora ekhartzetik gelditzen.



Cuando el Rey David faltó con mujer ajena, tomó muchas diligencias y providencias a fin de encubrir dicha falta. Y no porque tuviera miedo de nadie, ya que era Rey; sino porque su conciencia no le dejaba en paz.

La conciencia no perdona ni a Papa, Emperador ni Rey ni a ninguna otra persona del mundo. Y lo hace así por nuestro bien, para que no nos adormezcamos en el pecado. Nuestra conciencia nos quiere más que nuestro propio padre. Cuando un padre ha reprendido a su hijo, una, dos, tres o diez veces, si ve que no se corrige ni enmienda, lo deja por imposible. No así la conciencia: ésta nunca deja, nunca desespera (Vid. Chrysost. Concio 4 de Lazaro. Tom. 2).

Grande es la guerra que hace contra nosotros la conciencia, y esta guerra nos retrae un poco de pecar; de lo contrario estábamos perdidos. Así lo dice San Crisóstomo: "Conscientiae increpatio sacra est anchora non sinens nos tandem in peccatorum demergi profundum" (Chrys. ubi supra). La reprensión y amonestación de la conciencia es como un ancla, y ancla santa y sagrada, que nos preserva de caer en el profundo de los pecados y de ahogarnos allí,

§ 3

275 Empero, hay gran diferencia entre las conciencias; va mucho de una a otra. Ciertas conciencias son vivas, sensibles, delicadas, estrechas; y, en cambio, otras adormecidas, muertas, negligentes, anchas y despreocupadas. Cuando tienes un zapato bien ajustado, a la medida, exacto, no puedes aguantar la menor piedrecilla que se introduce; pero los zapatos grandes y anchos de vaqueta no dan tantos cuidados; éstos tienen espacio abundante para contener no ya escrúpulos, sino aún piedras, lastimando poco el pie.

Pues bien: esta misma diferencia existe también entre la conciencia buena y la mala. La conciencia buena, justa, no puede soportar ni aun un pecado venial, pero la mala, la negligente, ni aun del mortal hace escrúpulo. "Multi per nimias iniquitates non sentiunt peccati conscientiam" (Ambros. lib. 3 de parad. cap. 5 tom. 2). Muchos, por pura fuerza de los pecados cometidos, no sienten el pecado de su conciencia. Y esto es lo que el mismo Espíritu Santo dice: "Impius cum in profundum malorum venerit contemnit" (Prov. 18í. El malo, una vez metido en

133 *Az Aita Sainduri, ez Enperadoreri...* Kasu mugagabeari.

134 *Zapata bat duzunean neurri.* Hemen *neurri*-k partizipio balioa du (*neurtu*-r dagokioena, a l e g i a). Izar ere, antzina *neurri* izango zen partizipioa, *-tu* aditz bukaera berria denez gero Ikus MITX. FLV (1974), 110

Errege Davitèk bertzeren emaztearekin huts egin zuenean, anhitz enseiu eta itzul-inguru egin zuen, huts hura estali nahiz. Eta ez, ez, zeren nehoren beldur zen, Errege zenaz geroz. Baiña zeren ezpaitzuen bere konzientziak sosegatzera utzten.

Konzientziak ez Aita Sainduri,[133] ez Enperadoreri, ez Erregeri, eta ez munduan den bertze presunari, eztiazaio barkha. Eta haur guztior egiten du gure probetxuagatik, bekhatutan lohakar ezkaitezingatik. Geure aita propioak baiño maiteago gaitu geure konzientziak. Aita batek bere semea behin, biatan, hiruretan edo hamarretan mehatxatu duenean, ikhusten badu eztela zenzatzen eta ez emendatzen, utzten du, etsitzen du. Baiña ez konzientziak, eztu behin ere utzten eta ez etsitzen (Vid. Chrysost. Concio 4 de Lazaro. Tom. 2).

lohakartu

biatan

Gerla handia egiten deraku geure konzientziak, eta gerla hunek, aphur bat ere gibèlatzen gaitu bekhatu egitetik, bertzela egin luke gureak. Hala erraiten du San Krisostomok: *Conscientiae increpatio, sacra est anchora non sinens, nos tandem in peccatorum demergi profundum* (Chrys. ubi supra). Konzientziaren eranzutea eta mehatxua, aingura da, eta aingura ere saindua eta sakratua, bekhatuen hondarrean erortzetik eta han ithotzetik begiratzen gaituena.


aingura

§ 3

275 Ordea diferentzia handia da, konzientzien artean, anhitz doha batetik bertzera. Konzientzia batzuk dira erne, sentikor, minbera, hertsi: eta berriz bertze batzuk loti, hil, lazo, zabal, eta ez antsia. Zapata bat duzunean neurri,[134] iustu, doi; ezin paira dezakezu barrenean, den legarrik ttipiena: baiña zapata baketazko handi zabalak, eztira hain perilos; hek badute lekhu franko, oiña guti minberaturik, ez legarraren, baiña harrizkoen ere edukitzeko.

neurri legar baketazko

Bada diferentzia haur beror da, konzienzia onaren eta gaixtoaren artean ere. Konzientzia onak, iustuak, ezin paira dezake bekhatu benial bat ere, baiña gaixtoak, lazoak, eztu mortalez ere konturik egiten. *Multi per nimias iniquitates non sentiunt peccati conscientiam* (Ambros. lib. 3 de parad. cap. 5 tom. 2). Anhitzek ere bekhatu egin hutsen botherez, eztute bere konzientziako bekhatua sentitzen. Eta haur da Spiritu Sainduak ere dioena: *Impius cum in profundum malorum venerit contemnit* (Prov. 18). Gaixtoak bekhatuen hosinean barre-



el abismo de los pecados pierde la sensibilidad, no tiene cuidado. "Piae mentis est vulnus sentire peccati, nam qui expertes doloris sunt, non sentiunt vulneris acerbitatem, quod est immedicabilis aegritudinis" (Ambros. in Psalm. 50 tom. 2). Buena señal es sentir la herida del pecado, y mala el no sentirla. Porque una vez perdida la sensibilidad, una vez muerto el dolor, no hay remedio, no es posible la curación, no trae cuenta el entablar tratamiento. Esta es la calamidad más grande que pueda tener el pecador en este mundo, el estado más peligroso y la peor de las situaciones, a saber, el no sentir el pecado. El tal no hay cuidado de que perciba el ladrido de la conciencia ni de que por ello pierda el sueño. Pero ni aún éste se encuentra completamente libre de remordimiento; aún al más malo, por lo menos de vez en cuando, le atormenta su conciencia. Porque como dice San Crisóstomo: "Neque enim in eius potestate situm est remittere" (Chrys. in Ps. 142. Tom. 1). Por más que quiera la conciencia no puede perdonar. Así lo da a entender también San Ambrosio: "Conscientia cum non habet loquendi usum, nescit tamen tenere silentium (Ambros. de poenit. c. 1. Tom. 4). La conciencia, siendo así que no está acostumbrada a hablar, no sabe, sin embargo, estar en silencio. Porque aunque no hable exteriormente, lo hace en el interior. 276 La conciencia es un servidor que jamás se adormila, un predicador que jamás padece afonía o ronquera, y un guía que siempre nos conduce en la medida de lo posible a la virtud. Y no se nos aparta ni un punto, siempre nos sigue, como la sombra sigue al cuerpo.

Y no está ociosa, nos atormenta, nos embiste con ladridos y reprensiones. Antes de cometer el pecado, al cometerlo y después de cometido nos regaña, nos afea y acusa. Y particularmente después de haber pecado, entonces es cuando se levanta, entonces se despierta, entonces son los sufrimientos más crueles, los más fuertes espolonazos. Porque como dice San Crisóstomo (Chrysost. Hom. 64 in cap. 42 Genes): "Sicut ebrius cum multum vini ingurgitat, nullum sentit a vino damnum, postea autem sentit: ita et peccatum, donec consummatur obtenebrat mentem, et quasi densa nubes, ita mentem corrumpit. Deinde conscientia insurgit, et quovis accusatore mentem gravius arrodit, monstrans absurditatem peccati". Así como el borracho cuando traga el vino no siente el daño que de ello se le sigue, porque el gusto y el placer que experimenta al beber le ciega el entendimiento; mas luego, cuando la borrachera se le

135 *Zinak eta minak* = Sofrikario handiak, oinaze biziak. Axular-en Hiztegia-n esaera hunen esanahia ez dago ongi emana.

na sarthuz gero, galtzen du sentimendua, eztu antsiarik. *Piae mentis est, vulnus sentire peccati, nam qui expertes doloris sunt, non sentiunt vulneris acerbitatem, quod est immedicabilis aegritudinis* (Ambros. in Ps. 50. Tom. 2). Seiñale ona da bekhatuaren zauriaren sentitzea, eta gaixtoa ez sentitzea. Zeren sentimendua galduz gero, oinhazeak hillez gero, ezta sendagai, ezta sendakizun, eta ez midikuntzatan ibiltzeaz probetxurik. Haur da mundu hunetan bekhatoreak ahal dukeien miseriarik handiena, estaturik perilosena eta egoitzarik gaixtoena: bekhatuaren ez sentitzea. Halakoak konzientziaren sainga guti aditzen du, lo guti hargatik galtzen du, ordea ezta ez hura ere alde guztiz narrio gabe; den gaixtoenari ere, noizik behin bedere alhatzen zaika bere konzientzia. Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Neque enim in eius potestate situm est remittere* (Chrys. in Ps. 142 Tom. 1). Nahiago badu ere ezin barkha dezake konzientziak. Hala emaiten du aditzera San Anbrosiok ere: *Conscientia cum non habet loquendi usum, nescit tamen tenere silentium* (Ambros. de poenit. c. 1. Tom. 4). Konzientziak minzatzen usatua eztelarik, eztaki alabaina ixilik ere ẽgoiten. Zeren kanpoan minzatzen ezpada ere, bai ordea minzatzen da barrenean.

midikuntza

egoitza

sainga


276 Konzientzia da behin ere lohakartzen ezten zerbitzari bat, marrantatzen edo erlasten ezten predikari bat, eta bethiere ontasunera ahal bezanbat eramaiten gaituen kidari bat. Eta etzaiku pontu batez ere aldaratzen, bethi darraiku, gorputzari itzala darraikan bezala.

marrantatu erlastu

Eta eztago ez alferrik ere, alha zaiku, saingaz eta eranzutez dagoku. Bekhatua egin baiño lehen, egitean, eta eginez gero ere, erasten du, abisatzen du, akhusatzen du. Eta guztiz ere bẽkhatu egin ondoan, iaikitzen da, orduan atzartzen da, orduan dira zinak eta minak,[135] orduan dira ezproin kolperik handienak. Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Sicut ebrius cum multum vini ingurgitat, nullum sentit a vino damnum; postea autem sentit; ita et peccatum, donec consummatur, obtenebrat mentem, et quasi densa nubes ita mentem corrumpit. Deinde conscientia insurgit, et quovis accusatore mentem gravius arrodit, monstrans absurditatem peccati* (Chrysost. Hom. 64 in cap. 42 Genes.). Nola hordiak arnoa iresten duenean, ezpaitu sentitzen handik heldu zaikan kaltea: zeren gozatasun hark, edatean hartzen duen atseginak, itsutzen baitio adimendua. Ordea gero,

atzartu

ezproin



ha ido, conoce su falta y su infamia: así también el pecador, cuando comete el pecado, no siente ni ve el daño que de ello le viene, porque el placer le ofusca, le ofusca en tal grado, que entonces no se acuerda del mal. Pero luego, cuando ha pasado el pecado, se alza la conciencia y comienza tan severamente a acusar y a reñir que hace al pecador olvidar todos los placeres pasados.

§ 4

277 Dice San Agustín que así como la mala mujer, la gotera y el humo sacan al hombre de su casa; así también la mala conciencia saca al pecador de su tranquilidad. Allí donde hay una mala mujer, una gotera y humo no hay bienestar: tampoco lo hay en la residencia de quien tiene mala conciencia. Si el pecador se mete en el interior de su conciencia, al instante el humo de allí lo saca afuera, le domina la tristeza.

El que por fuera tiene enemigos, riesgos y perturbaciones, corre a casa a descansar y a poner en salvo su persona. Mas aquel que aún en casa tiene enemigos, aflicciones, gotera, humo y mala mujer, ¿qué podrá hacer?, ¿dónde podrá descansar?, ¿qué consuelo podrá tener? Enemigos en el exterior, guerra en casa, ¿dónde podrá hallar la paz? ¿Dónde? En su morada interior, en su conciencia es donde debe descansar, donde debe hallar consuelo y donde debe confortarse y alegrarse. Mas si aún en esta su morada interior, en su conciencia, encuentra al enemigo, la gotera del pecado, el humo y el reproche, ¿qué puede hacer entonces?, ¿a dónde se dirigirá? Aunque se introduzca en su morada interior, en su conciencia, no puede hallar descanso. Porque allá mismo se le junta su enemigo, y el peor de los enemigos es el doméstico. "Hostem suum invenit, quo confugerat" (August. in Psal. 45). Anda huyendo del enemigo y resulta que topa con él. Por lo tanto, el tal se encuentra tomado por los puntos principales, cogido por todos los lados. Porque aún su propia persona es su enemigo, y él no puede huír de sí mismo. Con razón dice San Agustín: "Nullae poenae graviores quam malae conscientiae, in qua cum non habetur Deus, consolatio non invenitur" (Aug. sent. 191 tom. 3). No hay sufrimiento mayor que los trabajos y sufrimientos de la mala concien-


hordia ioan dakionean, ezagutzen baitu bere falta eta desohorea: hala bekhatoreak ere, bekhatua egiten duenean, eztu sentitzen eta ez ikhusten, handik heldu zaikan kaltea, zeren hartako atseginak eta plazerak liluratzen baitu; hain liluratzen, ezen ezpaita orduan gaitzez orhoitzen. Baiña gero, iragan denean bekhatua, iaikitzen da konzientzia, eta hain zinez akhusatzen eta liskar egiten hasten da, non iragan diren plazer guztiez ahantzirik ibentzen baitu bekhatorea.

§ 4

ithaizur **277** Erraiten du San Agustinek, emazte gaixtoak, ithaizurak, eta kheak atheratzen duten bezala gizona bere etxetik: atheratzen duela konzientzia gaixtoak ere bekhatorea bere sosegutik (Vid. August. in Ps. 33 et in Ps. 100). Emazte gaixtoa, ithaizura, eta khea diren lekhuan ezta plazerik, ez eta konzientzia gaixtoa duena baithan ere ontasunik. Bekhatorea sar badadi bere konzientzian barrena, berehala hango kheak atheratzen du kanporat, azpiratzen du tristurak.

asaldu Kanpoan etsaiak, perilak eta asalduak dituenak, laster egiten du etxera, pausatzera eta bere buruaren seguratzera, ordea etxean ere etsaiak, atsekabeak, ithaizura, khea eta emazte gaixtoa dituenak zer eginen du? Non pausatuko du? Zer konsolamendu izanen du? Kanpoan etsaiak, etxean gerla, non edirenen du bakea? Non?

ganbara Bere barreneko ganbaran, bere konzientzian, han behar du pausatu, han behar du konsolatu eta bere burua arindu eta alegeratu. Ordea baldin bere barreneko ganbara hartan ēre, bere konzientzian ere edireiten badu etsaia, bekhatuaren ithaizura, khea eta eranzutea, zer eginen du orduan? Norako da? Sarthuagatik bere barreneko ganbaran, bere konzientzian, eztezake pausurik ediren. Zeren han berean batzen baitzaika bere etsaia, eta etsairik gaixtoena etxe barrenekoa da. *Hostem suum invenit, quo confugerat* (August. in Ps. 45). Etsaiaren ihesi dabillala, egiten du etsaiarekin inkontru. Beraz gehien bazterretarik hartua da halakoa, alde guztietarik atrapatua da. Zeren bēre burua ere etsai baitu, eta berak, bereganik ezin baitaidike ihesik. Arrazoiñekin erraiten du San Agustinek: *Nullae poenae graviores quam malae conscientiae, in qua cum non habetur Deus, consolatio non invenitur* (Aug. Sent. 191. Tom. 3). Ezta konzientzia gaixtoaren egitekoak eta penak baiño pena handiagorik.



cia. Porque así como allí no está Dios, tampoco se encuentra consuelo de ninguna clase.

278 La persona que está enferma, la que por dentro tiene dolor, puede por un poco de tiempo aparecer alegre por fuera y ante la gente, pero poco puede durar en tal forma; muy pronto su mal interior le hace entrar en consideración, le causa tristeza. "Vides convivium peccatoris, interroga eius conscientiam, nonne gravius omnibus foetet sepulchris?" (Ambros. lib. 1 offic. c. 12. tom. 5). Ves el convite, el banquete, el aparato y la bulla del que está en pecado: parece que allí se encuentra el cielo, que no se puede desear más. Empero, si le preguntas a ver cómo le va por dentro, en su conciencia, te dirá que está mal, que está nauseabunda, que está más hedionda que los sepulcros hediondos. "Impii quasi mare fervent, quod quiescere non potest". Los malos son como el mar alborotado, no tienen paz ni tranquilidad: sus olas, ondas y tormentas son tantas que desbordan. Y Salomón dice también: "Praecordia fatui quasi rota carri". La conciencia y el interior del malo son como la rueda del carro. El carro cargado refunfuña, parece que se queja de no poder soportar su gran carga: de la misma forma se queja también la conciencia del pecador, al no poder aguantar la carga y peso de sus pecados: ésta es la que cansa, ésta es la que le agobia, la que con su rumor, murmullo y estrépito le entristece y le causa dolor.

279 Cierto día llevó un filósofo unos zapatos a su casa, prometiendo al zapatero que dentro de poco tiempo se los pagaría. Y, en efecto, se fue a hacer el pago en el plazo convenido. Pero habiendo oído que había muerto el zapatero que debía cobrar los dineros, se volvió alegre a su casa con ellos, pareciéndole que con esto se hallaba desobligado: y durante algún tiempo retuvo consigo los dineros. Pero en ese espacio tanto le devoraba y remordía en su interior su conciencia, que no pudiendo sufrirlo, tomando sus dineros, se fue a casa del zapatero; y allí los arrojó diciendo, como si hablara con el mismo zapatero: "Ille tibi vivit, redde quod debes" (Senec. lib. 7 de benefic. cap. 21). Aunque para todos los demás has muerto, todavía vives para mí.

Zeren nola ezpaita Iainkoa han egoiten, ez eta, ezta konsolamendurik ere edireiten.

278 Eri den presunak, barrenean min duenak, ahal daidike dĕnbora aphur batez, kanpoan eta iendartean alegera iduri, ordea guti hala iraun, berehala bere barreneko gaitzak, gogoetan ibentzen du, tristetzen du. Hala tristetzen du bada bekhatutan dagoena erĕ, bere konzientziak, bere barreneko eritasunak. *Vides convivium peccatoris, interroga eius conscientiam, nonne gravius omnibus foetet sepulchris?* (Ambros. lib. 1 Offic. c. 12. Tom. 5). Ikhusten duzu bekhatutan dagoenaren gonbitea, ian-edana, bonbazia eta bankezia, baitirudi ezen han dela parabisua, eztela zer gehiago desira. Ordea baldin galdegiten badiozu, ea nola dihoakon bere barren hartan, bere konzientzian, erranen deratzu gaizki dela, nardagarri dela, sepultura kiratsak baiño kiratsago dela. *Impii quasi mare fervent, quod quiescere non potest.* Gaixtoak itsas irakitua bezala dira, eztute bakerik eta ez sosegurik: heken holek, uhinek, bagèak eta tormentèk, hanbat badira, ezen gaiñez egiten baitute. Eta badio Salomonek ere: *Praecordia fatui quasi rota carri.* Gaixtoaren konzientzia eta barren aldeak, orgaren edo gurdiaren arroda bezala dira. Gurdi kargatuak badarasa, badirudi bere karga handia ezin iasanez, arrenkuratzen dela: hala arrenkuratzen da bada bekhatorearen konzientzia ere, bere bekhatuen karga eta pisutasuna ezin iasanez: hark nekhatzen du, hark zapatzen du, hark bere soiñuaz, habarrotsaz, eta erasteaz tristetzen eta penatzen du.

gonbite bonbazia bankezia

hola uhin bage

arroda


zapatu

279 Egun batez ioan zituen filosofo batek zapata batzuk bere etxera, prometaturik zapata egilleari, denbora gutiren barrenean pagatuko zerautzala. Eta abiatu zen bere hitzean, eta ephean pagamenduaren egitera. Baiña enzunik ezen hiltzela diruak behar zituen zapatagina, bihurtu zen alegerarik bere diruekin etxerat, iduriturik ezen hainbertzez kito zela: eta eduki zituen zenbait denboraz diruak berekin. Ordea bitarte hartan hain iaten eta erratzen zuen bere baithan barrena bere konzientziak, ezen ezin pairatuz, ioan baitzen bere diruak harturik, zapataginaren etxera eta han egotzi zituen, erraiten zuela, zapataginarekin berarekin mintzo izan bailliz bezala: *Ille tibi vivit, redde quod debes* (Senec. lib. 7 de benefic. cap. 21). Bertze guztientzat hil bahaiz ere, oraiño bizi aiz enetzat. Thotzik bada, har itzak

zapatagin

kito izan

thotzik



Tómalos, pues, coge los dineros de tus zapatos y déjame a mí la paz. Hasta que no hubo hecho el descargo, su conciencia no le dejó sosegar, siempre le causó malestar y remordimiento. En el día de hoy el mundo no es tan hipersensible y delicado de conciencia.

§ 5

280 Al malo, sin necesidad de otro enemigo, su misma conciencia es la que en su interior le azota, le muerde, le hiere, le desuella y atormenta. En cuanto ha pasado el gusto del pecado, allí está al punto el disgusto de la conciencia. El pecado es a manera de una llaga que produce comezón. Al rascar sientes placer. Pero si rascas ásperamente, a la postre sobreviene el escozor. Del mismo modo, después que ha pasado el placer del pecado, lo que queda es el dolor y el tormento de la conciencia. Cuando tienes fiebre alta, sientes placer bebiendo agua fresca; empero después de haberla bebido, el mal se agudiza y experimentas la aflicción de aquel placer. Esta es la secuela que traen los frutos no maduros, la dentera, el disgusto.

Al que está en la cárcel dale de comer y de beber cuanto quiera, hazle todas las fiestas que puedas, pero no por eso se alegra del todo. Y la causa es porque no sabe lo que le espera. Más alegremente vive el pobre que anda de puerta en puerta. Porque, como dice San Crisóstomo: "Suplicii expectatio non sinit praesentium voluptatum sensum capere" (Chrysost. Hom. 12 in c. 7 Rom. tom. 4). Al que está en la cárcel, el temor del castigo venidero no le deja disfrutar de placer ni regocijarse de los pequeños gustos que tiene entre manos.

281 El que está condenado a la horca sufre por adelantado, cada vez que se acuerda de la horca es como si le ahorcaran. Pues bien, lo mismo sucede al que tiene mala conciencia. Este tal, cuando más a su gusto empieza a regocijarse con sus amigos, entonces mismo se acuerda de sus pecados, entonces mismo le atormenta su conciencia: de tal suerte, que no es posible que el que está en pecado, mientras está en él, pueda tener plena alegría.

El tal, aun cuando no tiene peligro, cree que lo tiene Y así verás muchas veces que el ladrón o el asesino, cuando siente a la justicia, él mismo al instante por su cuenta, sin que nadie se acuerde de él, acusado por su conciencia, se da a la fuga ocultamente: y que siendo descubierto por ello, le sucede mal.

heure zapaten diruak, eta utztak niri bakea. Deskargua egin arteiño, etzuen utzi bere konzientziak sosegatzera, anarteraiño bethi eman zioen garri eta narrio. Ezta egungo egunean mundua hunein sentikor eta konzientziatsu.

garri narrio

§ 5

280 Gaixtoa, bertze etsairik gabe, bere konzientziak berak, bere baithan barrena, azotatzen du, autsikitzen du, zaurtzen du, larrutzen eta penatzen du. Iragan denean bekhatuaren plazera, han da berehala konzientziaren desplazera. Bekhatua, zauri hatz-gillea bezala da. Hatz egitean atsegin hartzen duzu. Ordea hatz gordin eginik, gelditzen zaitzu ondotik errasumina. Hala gelditzen da bada, bekhatuaren plazera iragan denean ere, konzientziaren mina eta oinhazea. Sukhar handiarekin zaudenean ere, atsegin hartzen duzu ur hotzaren edateaz, ordea gero edan ondoan, gaitza berreturik, izaiten duzu atsegin haren atsekabea. Haur da fruitu ondu gabèn ondorea, horzkidura, higuintza.

zaurtu

hatz-gille

errasumin

horzkidura

Garzelean dagoenari, emozu nahi duen bezanbat iatera eta edatera. Egiozu ahal dagizun besta guztia, baiña ezta hargatik osoki alegeratzen. Zeren ezpaitaki zeri dagokan. Alegerakiago bizi da, athez athe dabillan errumesa. Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Supplicii expectatio non sinit praesentium voluptatum sensum capere* (Chrysost. Hom. 12 in c. 7 Rom. Tom. 4). Garzelean dagoena, eztu utzten, geroko gaztiguaren beldurrak, atsegin hartzera, eta ez eskuen artean dituen plazer aphurren gozatzera.

garzele

urkhabe

281 Urkhabera kondenaturik dagoena, aitzinetik penatzen da, urkhabeaz orhoitzen den guztiaz, urkhatzen bezala da. Hala da bada konzientzia gaixtoa duena ere. Halakoa noiz eta hasten baita bere gogarenik, bere lagunekin atsegin hartzen, orduan berèan orhoitzen da bere bekhatuez, orduan berean alhatzen zaika bere konzientzia: halako suertez, ezen ezpaita posible bekhatutan dagoenak, hala dagoeiño, atsegindasun osorik ahal dukeien.

atsegindasun

Halakoak, perilik eztuenean ere, uste du peril duela. Eta hala ikhusiko duzu anhitzetan ere, ohoiñak edo gizon hilzaileak sentitzen duenean iustizia, berehala bera bere buruz, nehor orhoitzen eztela, bere konzientziak akhusaturik, ihesi itzalgaizka abiatzen dela: Eta handik nabarbendurik gaizkiere heltzen dela.

hiltzaile

nabarbendu



El malo cree que están hablando de él aun cuando no se acuerdan de él. El malo siempre es desconfiado y suspicaz.

El que anda solo en una noche oscura, aunque no tenga ningún peligro, se siente despavorido, tiene miedo, se espanta y tiembla: así también el malo, aunque no haya ningún peligro, acusado por su conciencia, se siente despavorido, se asusta, tiembla y tiene miedo.

El cerdo, a diferencia de los otros animales, antes de que sienta dolor, con sólo tocarle, gruñe. Porque como no tiene ninguna cosa buena, fuera de su tocino, ni lana, ni pluma, ni piel, ni ninguna otra cosa, por su misma naturaleza teme cuando le cogen, que será para quitarle la vida. Así también el que tiene mala conciencia, en la primera indisposición, en el más ligero dolor de cabeza, teme que muera, que le quiten la vida. Pues no tiene cosa que valga nada, fuera de su vida, y, una vez perdida ésta, tiene que penar.

§ 6

282 Dice el Santo Job: "Sonitus terroris semper in auribus eius et cum pax sit, ille insidias suspicatur" (Job. 15). Al malo siempre le resuena en los oídos el murmullo del miedo, el terror, y la turbación de la conciencia: y aun cuando está en paz, cree que está en guerra y que le están acechando con deseo de cogerle. Este es el castigo del malo en este mismo mundo (además del que se da en el otro mundo): el miedo, el vivir espantado, sin seguridad. Con este castigo amenazó nuestro Dios a los transgresores de sus mandamientos, diciendo: "Quod si non audieritis me, nec feceritis omnia mandata mea, fugietis nemine persequente" (Levit. 26). Si no me escucháis y si no cumplís todos mis mandamientos, sabed que sin peligro alguno y sin que nadie os persiga, os daréis a la fuga y os sobrevendrá un gran espanto.

Así se le produjo un gran miedo a Caín, cuando hubo muerto a su hermano Abel. Echó a andar Caín por el mundo en plan de fugitivo, diciendo: "Omnis igitur qui invenerit me, occidet me" (Gen. 4). Estoy perdido, no es posible escapar; cualquiera que me encuentre, me matará. ¿Qué es lo que dices, Caín? ¿De quién tienes miedo? ¿Quién te ha de matar? No por cierto Adán ni Eva. Porque éstos son tus padres, y todavía no hay ninguno más en el mundo. ¿De quién tienes, pues, miedo? No de otro alguno sino de ti mismo, de tu conciencia. Porque la

Gaixtoak uste du ezen hartzaz orhoitzen eztirenean ere, hartzaz mintzo direla. Gaixtoa bèthi da gibel beldurti, eta gogan behartsu.

izi

Gau ilhunean bakharrik dohana deusen perilik ez izanagatik ere, latz da, beldur da, izi eta ikhara da: hala da bada gaixtoa ere, deusen perilik ez izanagatik ere, bere konzientziak akhusaturik latz, izi, ikhara eta beldur.

abre marraska

Urdeak, bertze abrèk egiten eztutena, oraiño minik hartu gabe, ukitzeaz beraz egiten du marraska. Zeren nola ezpaitu deus ere on den gauzarik, bere urdaia baizen, ez illerik, ez lumarik, ez larrurik, eta ez bertze gauzarik, berè izanez eta naturaz da beldur, hartzen dutenean, biziaren edekitzeko hartzen duten: hala bada, konzientzia gaixtoa duena ere, lehenbiziko aldi gaitzean, den buruko minik ttipienean, da beldur hil dadin, bizia edeki diazoten. Zeren ezpaitu deus ere balio duen gauzarik, bere bizia baizen, eta hura galduz gero, penatu behar baitu.


edeki

§ 6

282 Erraiten du Iob gizon saindu hark: *Sonitus terroris semper in auribus eius, et cum pax sit, ille insidias suspicatur* (Job 15). Gaixtoari bethi dagoka bere beharrietan bèldurtasunaren soiñua, konzientziaren latztasuna, eta asaldua: eta bakean denean ere, uste du gerlan dela, eta orduan ere atrapatu nahiz, zelatan dagotzala. Haur da are mundu hunetan ere, bertze mundukoaz gaiñera, gaixtoaren gaztigua: beldurtasuna, segurantzarik gabe, izi ibiltzea. Gaztigu hunetzaz mehatxatu zituen gure Iainkoak bere manamenduen hautsailleak, erraiten zerauela: *Quod si non audieritis me, nec feceritis omnia mandata mea, fugietis nemine persequente* (Levit. 26). Baldin enzuten ezpanauzue, eta ene manamendu guztiak konplitzen ezpaitutzuè, iakizue ezen, nehoren peril gabe eta nehor iarraiki gabe, emanen diozuela ihesari, eta ikhara handi bat eginen zaitzuela. Hala egin zeikan ikhara handia Kaini berè anaia Abel hil zuenean. Abiatu zen Kain mundutik ihesi, erraiten zuela: *Omnis igitur qui invenerit me occidet me* (Gen. 4). Egin du eneak, ezta eskapatzerik, ediren nazan guztiak hillen nau. Zer diozu Kain? Noren zara beldur? Nork hillen zaitu? Ez Adanek, ez Ebak. Zeren horiek zure aita-amak dira, eta oraiño ezta munduan bertzerik. Noren zara bada beldur? Ez nehoren bertzeren: zeure buruaren, zeu-

beldurtasun

hautsaille



misma conciencia, sin otro enemigo, es suficiente para traerle a uno con gran temor.

283 Cuando Adán hubo pecado, y conoció que Dios quería llamarle, huyó, se escondió. ¿ Y por qué se escondió? ¿Es que sabía acaso lo que Dios le quería decir? Porque se lo decía su conciencia. "Neque alium objurgatorem habebat et testem peccatorum" (Aug. Hom. 17 in cap. 3 Gen. T. 1). No tenía otro testigo ni otro acusador, fuera de su conciencia, pero ella era bastante. Y así él mismo, por iniciativa propia, conociendo su falta y descubriendo que era culpable, buscó un escondite. Por eso dice San Isidoro: "Numquam securus est reus animus, mens enim malae conscientiae propriis agitatur stimulis" (2 Soliloq. Isidor. lib.). La persona culpable, delincuente, jamás está tranquila, porque las espuelas de su conciencia constantemente le están embistiendo. Acerca de este particular dice San Ambrosio: "Domini autem traditorem non invenio a judice esse damnatum. Non enim damnat eum Pilatus, non damnat populus, sed quod gravius est, se ipsum condemnat" (Ambros. Serm. 2 in Daniel T. 2.). No hallo que Judas —el que traicionó al Señor— fuera condenado por nadie: ni por Pilatos ni por el pueblo, ni por ningún otro: pero —lo que es peor— hallo que él mismo se condenó a sí. Porque la sentencia suprema, que sobrepasa y supera a todas, es la que cada cual se da a sí mismo, vencido por su conciencia.

284 Y por aquí se echa de ver que no importa el que ningún otro sepa tu falta y pecado, si tú la sabes. La misma conciencia es bastante testigo. Para ella no hay senos, rincones ni escondrijos ocultos. Porque como dice Séneca: "Quid prodest recondere se et oculus hominum auresque vitare? Bona conscientia turbam advocat, mala autem in solitudine anxia est, atque sollicita. Si honesta sunt quae facis, omnes sciant, si autem turpia, quid prodest neminem scire, cum tu scias?" (Senec. epis. 43). ¿Qué aprovecha el ocultarse y el huir de los ojos y oídos de la gente? La buena conciencia gusta de andar en público y ante la gente; aún allí se siente confiada. Pero la mala en ningún lado encuentra seguridad: ni en casa ni fuera, ni cuando está a solas, ni tampoco cuando está acompañado. Si tus obras son buenas y honradas, que las sepan todos; pero

re konzientziaren. Zeren konzientzia bera, bertze etsairik gabe, da asko, beldurtasun handiarekin erabiltzeko.

283 Adanek bekhatu egin zuenean, eta sentitu Iainkoak deitu nahi zuela, ihes egin zuen, gorde zen. Eta zergatik gorde zen? Othe ziakien zer nahi zioen Iainkoak? Bai baziakien (dio San Agustinek). Eta nondik ziakien? Bere konzientziak erranik. *Neque alium obiurgatorem habebat, et testem peccatorum* (Aug. Hom. 17 in cap. 3 Gen. T. 1). Etzuen bertze lekhukorik, eta ez akhusatzaillerik, bere konzientzia baizen: baiña hura zuen asko. Eta halatan, berak bere buruz, bere falta ezaguturik, eta hobendun zela nabarbendurik, estalgunea bilhatu zuen. Hargatik erraiten du San Isidorok: *Numquam securus est reus animus, mens enim malae conscientiae propriis agitatur stimulis* (2 Soliloq. Isidor. lib.). Presuna hobenduria, faltatsua, ezta behin ere segur, zeren bere konzientziaren ezproiñak bethiere kolpeka hari baitzaitza. Pontu hunen gaiñean erraiten du San Anbrosiok: *Domini autem traditorem non invenio a iudice esse damnatum. Non enim damnat eum Pilatus, non damnat populus, sed quod gravius est, seipsum condemnat* (Ambros. serm. 2 in Daniel. T. 2). Eztut edireiten ezen Iudas, Iaunaren saltzaillea, nehork kondenatu zuela, ez Pilatusek, ez herriak: eta ez bertzek: baiña, gaixtoago baita, edireiten dut, berak bere burua kondenatu zuela. Zeren sentenzia guztien gaiñeko sentenzia, guztiak xitzen eta iragaiten dituena, bat bederak bere buruari, bere konzientziak benzuturik, emaiten dioena da.

lekhuko

hobenduri ezproin


xitu

284 Eta hunetan da ageri eztela antsia, nehork bertzek ez iakinagatik ere zure falta eta bekhatua, baldin zerorrek badakizu; konzientzia bera da lekhukorik asko. Ezta harentzat golkhorik, zokhorik, eta ez estalgunerik. Zeren Senekak dioen bezala: *Quid prodest recondere se et oculos hominum auresque vitare? Bona conscientia turbam advocat, mala autem in solitudine anxia est atque sollicita. Si honesta sunt quae facis, omnes sciant, si autem turpia, quid prodest neminem scire cum tu scias?* (Senec. epis. 43). Zer probetxu da gordetzea, eta iendèn begietarik eta beharrietarik ihes egitea? Konzientzia onak agerrian, eta iendartean ibili nahi du, fida da han ere. Baiña gaixtoak eztu nehon ere segurantzarik edireiten: ez etxean, ez kanpoan, ez bakharrik dagoenean, eta ez are konpainiatan denean ere. Zure obrak onak eta prestuak badira, iakin bitzate guztiek, baiña

nehor

agerrian

konpainia



si son malas, vergonzosas y de las que causan deshonra, ¿qué aprovecha que otro no las sepa, si es que tú las sabes? Tú mismo eres, tu conciencia, el testigo más seguro: aunque todos los otros fallen, ella no puede fallar, ella dará la cara, ella acusará.

Por eso dice también Séneca: "Nullum conscium peccatorum tuorum magis tenueris, quam te ipsum; alium, enim, potes fugere: te autem, numquam; nequitia, enim, ipsa, est sui poena" (Senec. lib. de moribus). A ninguno de los que conocen tus pecados temas tanto como a ti mismo; porque de los otros puedes huir, te puedes escapar, mas de ti mismo no. El pecado, él mismo es pena y castigo para sí.

En todos los daños, reveses y desgracias que ocurrieron al santo Job, escapaba uno siempre para avisar y traer la noticia. "Ego evasi solus, ut nuntiarem tibi" (Job 1). Así también se escapa en el pecador la conciencia y el enviado de la conciencia, y el reproche, para notificar, avisar y decir cuánto perjuicio le ha sobrevenido y qué bienes ha perdido cometiendo el pecado.

§ 7

285 La conciencia representa muchos papeles: ella es alcalde, ella es testigo, ella es fiscal y defensor. Y es tan excelente e insobornable, que ella vale por mil testigos. "Conscientia mille testes" (Quintilian.). Es tan recta, justa y leal, que todo el mundo no la puede ganar ni corromper ni volver para el otro lado. No hay dinero ni favor, no hay lisonja ni amenaza: no hay intercesor ni amigo que pueda desviar de su verdad a la conciencia. Acerca de este particular, como siempre, habla bellamente San Crisóstomo, aquella lengua de oro: "Externi judices et pecuniis corrumpuntur, et assentationibus deliniuntur et metu simulant. At conscientiae tribunal mulli hominum novit cedere: sed quamvis dederis pecunias, quamvis mineris, quamvis aliud quodvis feceris, justam ferret sententiam adversus peccatoris cogitationes, adeo, ut ipse quoque qui peccatum admisit, se ipsum condemnet, quamvis nullus alius condemnet" (Chrysost. concio 4 de Lazaro). Las cortes, audiencias y justicias del mundo se pervierten, los testigos niegan, el notario es ganado, el alcalde por el dinero se ciega, con el halago y favor es gobernado. De aquí que muchas veces, cuando piensas

baldin gaixtoak, desohorezkoak, eta desohoragarriak badira, zer probetxu da, bertzèk ez iakitea, baldin zerorrek badakizkitzu? Zerori zara, zure konzientzia da lekhukorik segurena: bertze guztiek faltatuagatik hark eztezake falta, hark on edukiko du, hark akhusatuko du. Hargatik erraiten du halaber Senekak:

Nullum conscium peccatorum tuorum magis tenueris, quam te ipsum: alium enim potest effugere, te autem numquam, nequitia enim ipsa est sui poena (Senec. lib. de moribus). Etzarela zure bekhatuak dakizkitenen, baten ere hain beldur, nola zeure buruaren; zeren bertzètarik badaidikezu ihes, ẽskapa zaitezke, baiña ez zeureganik. Zeren bekhatua bera da, bere buruarentzat pena, eta gaztigu.

fortuna

Iob gizon saindu hari gerthatu zeitzan kalte, galtze eta fortuna gaixto guztietan, eskapatzen zen bethi ere bat, abisatzeko eta berriaren ekhartzeko: *Ego evasi solus, ut nuntiarem tibi* (Job 1). Hala eskapatzen da bada bekhatorea baithan ere konzientzia, eta konzientziaren mandataria eta eranzutea, berri ekhartzeko, abisatzeko, eta erraiteko zenbat kalte ethorri zaikan, eta zenbat ontasun galdu duen bekhatuaren egiteaz.

§ 7


alkhate egiati

285 Konzientziak anhitz ofizio du, bera da alkhate, bera da lekhuko, bera da akhusatzaille, eta defendatzaille. Eta hain da fin eta egiati, ezen berak milla lekhuko balio baititu. *Conscientia mille testes* (Quintilian.). Hain da artez, iustu eta leial, non mundu guztiak ezpaitezake irabaz, ez korronpi, eta ez bertze aldera itzul. Ezta dirurik, eta ez faborerik: ezta lausengurik, eta ez mehatxurik: ezta arartekorik, eta ez adiskiderik, konzientzia bere egiatik makhur dezakeiẽnik. Pontu hunen gaiñean bethi bezala ederki erraiten du San Krisostomo, urrezko mihi hark: *Externi iudices, et pecuniis corrumpuntur, et assentationibus deliniuntur, et metu simulant. At conscientiae tribunal nulli hominum novit cedere; sed, quamvis dederis pecunias, quamvis mineris, quamvis aliud quodvis feceris, iustam ferret sententiam, adversus peccatoris cogitationes, adeo ut ipse quoque qui peccatum admisit, seipsum condemnet, quamvis nullus alius condemnet* (Chrysost. concio 4 de Lazaro). Munduko gortheak, audientziak, eta iustiziak nahasten dira, lekhukoek ukhatzen dute, notaria irabazten da, alkatea diruz itsutzen da, lausenguz eta faborez gobernatzen da: eta

makhurtu

gorthe

notari



estar adentro, te encuentras afuera; lo que creíste ganar, lo pierdes. Pero en la corte y audiencia de la conciencia no se comete semejante injusticia. Al contrario, aunque todos los demás fallen, el mismo culpable, la misma conciencia, se acusa a sí misma e incluso se condena.

Exteriormente pueden hacerse tentativas en contra de la verdad y probanzas falsas: el que ha faltado puede negar y decir que no ha faltado, pero con todo, en su interior, la conciencia se mantendrá siempre en su verdad. Los que hablan pueden faltar, mas la conciencia no: interrógale a ella, habla con ella, y ella te dirá quién eres; en ella, como en el espejo, te verás a ti mismo.

286 Cuando una aflicción se apodera de ti, allí está al punto la conciencia y te recuerda todas las faltas que en tu vida has cometido, te las trae todas a la memoria. E incluso te dice que todas estas cosas te han sucedido por ciertos pecados tuyos, en concreto por tal y por cual. Así los hermanos de José, cuando fueron a Egipto y allí sufrieron tribulación, acordándose de su pecado —cometido hacía veinte años— se dijeron los unos a los otros: "Merito haec patimur, quia peccavimus in fratrem nostrum, videntes angustias animae illius dum deprecaretur nos, et non audivimus; idcirco venit super nos ista tribulatio" (Gen. 42). Bien merecidas tenemos todas estas tribulaciones, justo es que padezcamos aún más, porque vendimos a nuestro hermano, cometiendo un gran pecado. Nos portamos cruelmente para con él, nos hizo muchas súplicas tiernas, derramó muchos lagrimones, que hubieran bastado para quebrantar y ablandar el corazón más duro; pero los nuestros ni se inmutaron, no se compadecieron, no le escuchamos. Por esta causa andamos ahora turbados, acusados y atribulados. Así se decían los unos a los otros, así les acusaba su conciencia. Y particularmente Rubén, uno de los hermanos, les recriminaba grandemente diciendo: "Numquid non dixi vobis: nolite peccare in puerum, et non audistis me? En sanguis ejus exquiritur". ¿No os dije yo entonces que mirarais bien, que no hicierais semejante pecado contra el hermano menor?, ¿que no le vendierais? Pero no me quisisteis escuchar. He aquí, pues, dónde tenéis ahora vuestro merecido, vuestra sanción. Por motivo de dicho pecado, por causa de él, estáis y

136 *Gogora ekharri:* oroit arazi. Axular-ek *gogo* hitzaz egiten duen enplegua, hitzaren adierak, maiztasuna, eremu zabala, *gogo*-tik sortzen diren itzulikak eta deribatuak aztertuz, lan guztiz ona egin du Aita Angel Goenagak, «Gogo en Axular», *Fontes Linguae Vasconum* 1973, 15 n.


137 *Anhitz nigar purpuilla* = anhitz malko. Ikus MITX FLV (1974), 117.

handik anhitzetan ere, barrenean zarela uste duzunean, kanpoan èdireiten zara, irabazi ustea galtzen duzu. Baiña konzientziaren gorthean eta audientzian ezta halako bidegaberik egiten. Aitzitik bertze guztiek faltatuagatik,
kulpant kulpantak berak, konzientziak berak akhusatzen du bere burua, eta bai kondenatzen ere.

Kanpoan egin ahal ditezke, egiaren kontrako enseiuak, eta frogantza falsoak: falta duenak ere ukha ahal dezake, eta erran eztuela faltarik, baiña hargatik, barren hartan, bethiere konzientzia bere egian egonen da. Mintzo direnek ahal daidikete huts, baiña ez konzientziak: hari galdegiozu, harekin mintza zaitezi, eta hark nor zaren erranen deratzu; han miraillean bezala, zeure burua ikhusiko duzu.

286 Egiteko batek hartzen zaituenean, han da berehala konzientzia, eta egundaiño egin ditutzun falta guztiez orhoitzen zaitu, guztiak gogora ekhartzen[136] derauzkitzu. Eta are erraiten deratzu, zenbait zeure bekhatugatik, hunelako eta halakogatik, hek guztiak ethorri zaitzkitzula. Hala Iosephen anaiek Ejiptora zirenean, eta han egitekotan iarri zirenean, bere bekhatuaz, hogoi urthe zuela egin zutenaz, orhoiturik, erran zioten elkharri: *Merito haec patimur, quia peccavimus in fratrem nostrum, videntes angustias animae illius dum deprecaretur nos, et non audivimus, idcirco venit super nos ista tribulatio* (Gen. 42). Mereziturik ditugu egiteko hauk guztiok, iustu da gehiago ere paira dezagun, zeren bekhatu handia eginik, geure anaia saldurik baikaude. Gogorki usatu
alderakotzat genduen haren alderakotzat, anhitz othoitz eder egin zerakun, anhitz nigar purpuilla[137] isuri zuen, asko baitziratekeien, den bihotzik gogorrenaren ere hautsteko eta beratzeko; baiña gureak etziren kantitu ere, etzeikun urrikaldu, ezkenduen entzun. Hargatik gabiltza bada
itsekabeztatu orai gerok ere asaldatuak, akhusatuak eta atsekabeztatuak. Hunela erraiten zioten elkharri, hunela akhusatzen zituen bere konzientziak.

Eta guztiz ere Ruben bere anaietarik batek egiten zerauen eranzute handi, erraiten zerauela: *Numquid non dixi vobis, nolite peccare in puerum, et non audistis me, en sanguis eius exquiritur.* Ezneratzuen nik orduan ere erran, begira zendutela, etzenegitela halako bekhaturik anaia haurraren kontra? Etzenezatela sal? Baiña ez nenduzuen enzun nahi izatu: huna non duzuen bada zuek
pagu ere orai zeuen merezia, zeuen ordain pagua. Bekhatu



estamos atribulados: él es el que se nos echa encima. Tan pronto como se presentó la ocasión, se les levantó su conciencia, no falló, les acusó. E incluso, como dice San Crisóstomo: "Ipsorum conscientia per oblatam occasionem insurrexit, momorditque illorum animos, efficiens ut nemine compellente confiterentur sua facinora" (Chrysost. Conc. 4 de Lazar.). Sin que nadie les forzara, ellos mismos voluntariamente descubrieron y confesaron el delito que por tanto tiempo tuvieron oculto. Este es el empleo y oficio de la conciencia: ella recuerda cuando los otros se olvidan y después de transcurrido el tiempo, atormenta, causa dolor y aflicción. Y nos urge para que cuanto antes, sin aplazamientos, nos establezcamos en el buen camino. E incluso nos dice que hasta tanto, no nos dejará en paz, y efectivamente no nos deja. Por consiguiente, por los reproches que nos dirige la misma conciencia, y por no mantener dentro de casa ningún humo, gotera ni altercado del pecado, debemos esforzarnos desde hoy mismo, sin dejarlo para más tarde, en quitar de nuestra conciencia cualquier mancha, falta e inmundicia que tengamos, y de ese modo establecernos en paz y tranquilidad, y así descansar.

QUE MIENTRAS ANDAMOS APLAZANDO INDEFINIDAMENTE, PERDEMOS LA PAZ Y TRANQUILIDAD DE LA BUENA CONCIENCIA

CAPITULO XLVI

287 Es cosa averiguada, evidente y comprobada por la experiencia que los remordimientos de la mala conciencia son remordimientos dolorosos, que sus reproches son reproches severos, y que sus embestidas son embestidas violentas: y que el que tiene una tal conciencia, mientras la tenga, no puede tener felicidad completa.

Pero cosa evidente y comprobada es asimismo que la paz y tranquilidad de la buena conciencia es co-

karia hura dela kausa, haren kariaz zarete, eta gara egitekotan, hura heldu zaiku geure gaiñera. Okhasinoa presentatu zen bezain fite, iaiki zeien bere konzientzia, etzuen faltatu, akhusatu zituen.


ere, pisu dira, ordea hekin batean arintkiago, eta lasterrago dohazi untziak eta xalupak. Hegaztinaren hegalek ere badute bere karga, eta pisutasuna. Ordea karga hark, ez kargatzen, baiña arintzen du hegaztina. Hala erraiten du San Agustinek: *Haec sarcina non est pondus onerati, sed alae volaturi, habent enim et aves pennarum suarum sarcinas. Et quid dicimus? Portant illas et portantur. Portant illas in terra, et portantur ab illis in caelo* (August. de Verbis Domini serm. 24. tom. 10).

aire Hegaztinak iasaiteintu lurrean bere hegalak, eta airean hegalek iasaiten dute hegaztina: iasaiten du, eta iasaiten dute. Erran bazeneza: Hegaztina haur trabatzen, eta kargatzen dute bere hegalek, eta urrikaldurik, edeki baziniatzo, kalte gehiago egin ziniazaio, probetxu baiño. Zeren airatzen, eta hegaldatzen zena, lurrean geldi baillitеke.

hegaldatu

Beraz karga badira ere, on dira orgak, belak, arrauak, hegalak, eta bai Iainkoaren lege sainduaren uztarria ere. Zeren uztarri haur, karga izanagatik ere, hunekin batean hobekiago, eta aisekiago iragaiten baitira mundu hunetako trabailluak, eta atsekabeak. Zeren Iainkoa bera legearen emaillea, legearen begiratzen, eta konplitzen laguntzen baitzaiku: eta hartarakotzat, uztartzen bezala baita gurekin. Egia haur ezaguturik, erraiten zioen San Agustinek Iainkoari, hitz gutiz, eta ederki: *Da quod iubes, et iube quod vis* (August. lib. 10 confes. cap. 29 & 31). Iauna, emazu manatzen duzuna, eta gero mana ezazu nahi duzuna. Zeren indarra franko denean, eta laguna ere ona, ezta kargagatik antsia. Beraz Iainkoa bera iasaiten laguntzen zaikunaz geroztik, arrazoiñekin erraiten da, haren uztarria plazent dela, eta karga ere arin.


aisekl

§ 5

321 Gure lege sainduaren, eta manamenduen karga, arin da, eta are arintkarri da. Zeren baldin alde batetarik kargatzen bagaitu, bertzetik arintzen, eta bertze anhitz kargaren, eta obligazinoren azpitik, atheratzen baikaitu.

Galdegiten dute Teologoek, ea guk geure bekhatuakgatik, geure Iainkoari, satisfazionerik, eta pagamendurik egin ahal diazaiogunz. Eta badirudi ezetz. Zeren erraiten du San Tomasek: *Satisfactio est reddiſio voluntaria, aequivalentis, alias indebiti.* (S. Thom. 4 disc. sent. q. 1. ar. 1). Satisfatzea da, zor eztitugun obrez, geure

satisfatu



facer es pagar y retornar tanto como debemos, valiéndonos de obras que no debemos, que están a nuestro arbitrio y que son enteramente voluntarias. Por consiguiente, no podemos nosotros pagar a nuestro Dios. Porque siendo como es Dios el bienhechor supremo, y todo cuanto tenemos lo tenemos de él, es claro que todo cuanto tenemos y todo lo que podemos, a él se lo debemos. Por lo tanto, nada nos queda que sea facultativo, no hay obra libre, que no sea mandada, de esas que los teólogos llaman "opera supererogationis", obras de añadidura, por encima de las impuestas, libres, voluntarias y que no estamos obligados a hacerlas. Parece, pues, que no hay obras de esta clase; y si no las hay, es claro que no podemos pagar a nuestro Dios, ni satisfacer.

Pero, sin embargo, contestan los mismos teólogos, y dicen: Aunque seamos absolutamente deudores con nuestro Dios, con todo, hay muchas obras buenas que no estamos obligados a hacer si no queremos, que son facultativas: como son el ayunar todos los viernes, el oír misa todos los días, el estar en oración hasta media noche, y muchas otras de esta especie. No estamos obligados a hacer estas cosas, son voluntarias. Porque aunque seamos deudores de Dios por todos los costados y con todo nuestro ser, con todo, la misericordia y liberalidad de Dios es tan grande, que, si cumplimos sus mandamientos, se contenta con ello; y todas las demás obras buenas nos las deja a nuestro arbitrio. Y así, con dar los mandamientos lo que hizo fue reducir los mandamientos, nos aligeró la carga. Porque de otro modo, si no nos hubiera dado los mandamientos, todas las cosas hubieran sido mandamientos.

Por tanto, con razón dice: "Jugum meum suave est, et onus meum leve". Mi yugo es suave, agradable y cómodo, y mi carga es ligera. Porque efectivamente es así. E incluso, siendo carga, es carga aligeradora y reductora.

Y así, es cosa cierta que el camino del paraíso, para el que lo abraza como es debido, es llano, fácil, placentero y agradable.

eskuko ditugunez, nahi badugu baizen egitera obligatu ezkarenez, zor dugun bezanbat pagatzea, eta bihurtzea. Beraz ezin egin diazaiogu guk geure Iainkoari pagamendurik. Zeren nola baita Iainkoa guztien gaiñeko ongi egillea, eta dugun guztia harenganik baitugu: hala dugun guztia, eta ahal dagigun guztia hari diogu zor; beraz etzaiku deus gelditzen geure eskuko, ezta obra librerik, manamendu eztenik, zein deitzen baitituzte Teologoek: *Opera supererogationis,* obra emendailluzkoak, emanen gaiñekoak, gure eskuko direnak, libreak, nahi badugu baizen, egitera obligatu ezkarenak. Badirudi eztela hunelako obrarik: eta baldin ezpada, segur da, ezin paga dezakegula geure Iainkoa, eta ez satisfa.

emendailluzko

Baiña guztiarekin ere ihardesten dute Teologoek berèk, eta erraiten: Alde guztiz zordun bagatzaitza ere geure Iaungoikoari, badela guztiarekin ere, anhitz obra on nahi badugu baizen, egitera obligatu ezkarenik, geure eskuko dugunik: nola baita orzirale guztietan barurtzea, egun oro meza enzutea, gau erditaraiño orazinotan egoitea, eta hunelako bertzerik anhitz. Hauken egitera ezkara obligatu, nahi badugu baizen. Zeren Iainkoari alde guztiz, eta geure ahal guztiaz zordun bagatzaitza ere: ordea Iainkoaren miserikordia, eta liberaltasuna hain da handia, non baldin, haren manamenduak konplitzen baditugu, kontentatzen baita hainbertzez, eta gaiñerako bertze obra on guztiak, geure eskuko utzten baiterauzkigu. Eta hala manamenduen emaiteaz, manamenduak gutitu zerauzkigun, karga arindu zerakun. Zeren bertzela, baldin manamenduak eman ezpalerauzkigu, guztiak manamendu izanen baitziren.


orzirale

Beraz arrazoiñekin erraiten du: *Jugum meum suave est, et onus meum leve.* Ene uztarria leun, plazent, eta aisit da, eta ene karga ere arin: zeren hala baita. Eta are karga delarik, karga arintgarri, eta gutigarri baita.

leun

Eta hala segur da, parabisuko bidea, behar den bidean hartzen duenarentzat, plaun dela, plazent, eta atsegin.

plaun



QUE EL CAMINO DEL PARAISO ES MAS FACIL QUE EL DEL INFIERNO

CAPITULO L

322 De las razones que se han dado en el capítulo precedente aparece que la carga de la santa ley de Dios es carga ligera y fácil de soportar. Pero, con todo, es carga; y supuesto que es carga, es cierto que importa alguna fatiga y trabajo, como lo es también que el que lleva camino del infierno, encuentra algún gozo y placer. Pues bien, la cuestión y el punto que ahora tenemos que decidir es el siguiente: ¿A ver quién tiene más gozo y placer o más trabajo: el que camina por el camino del paraíso o el que va por el del infierno? Y es cosa averiguada que el que camina por el camino del infierno lleva consigo más trabajo, carga más pesada; de tal manera que, no pudiendo soportar dicha carga, decía el profeta David: "Iniquitates meae supergresae sunt caput meum; et sicut onus grave gravatae sunt super me" (Ps. 32). Mis pecados me han atravesado y desgarrado, y a manera de una carga pesada me han oprimido y abrumado por completo. Y por eso les dice Dios a los que andan con semejante carga: "Venite ad me, omnes qui laboratis et onerati estis, et ego reficiam vos" (Mt. 11). Venid a mí todos los que estáis trabajados y cargados, y yo os aligeraré; yo, quitándoos esa carga pesada, os daré otra más ligera: "Tollam, quidem, sarcinas; sed inanes a sarcinis non dimittam. Tollam sarcinas malas, et imponam bonas" (August. de Verb. Dom. serm. 24. tom. 10) Os quitaré la carga mala, pero no os dejaré sin carga. Os quitaré la carga mala y os daré la buena. La virtud, el servicio de Dios tiene sus fatigas y trabajos; y el pecado tiene también sus goces y placeres.

Pues bien, las fatigas y trabajos de la virtud son más agradables que los goces y placeres del pecado. Así lo dice San Agustín: "Dulciores sunt lachrymae orantium quam gaudia theatrorum" (August. in ps. 127. tom. 8). Más dulces y deliciosas son las lágrimas de los que están en oración que las risas de los que se entretienen en comedias, bailes y placeres mundanos.

323 Verás a un devoto entregado a la oración en un rincón con lágrimas y suspiros; y verás asimismo a otro que no le importa nada por la oración

NOLA PARABISUKO BIDEA DEN ERRAZAGO IFERNUKOA BAIÑO

KAP. L

kapitulu


322 Hunen aitzineko kapituluan, eman diren arrazoinen arauaz, ageri da, Iainkoaren lege sainduaren karga, karga arina dela, eta iasaiteko erraza. Ordea karga da, neke eta karga denaz geroz segur da zenbait neke, eta trabaillu baduela: nola halaber ifernuko bidea dadukanak, edireiten baitu zenbait atsegin, eta plazer. Orai da bada kontua, eta pontua, ea zeinek duen atsegin eta plazer, edo trabaillu gehiago, parabisuko bidean, ala ifernukoan dabillanak? Eta gauza segura da, ifernuko bidean dabillanak trabaillu gehiago duela, karga pisuagoa darabillala, halako moldez ezen karga hura ezin iasanez, erraiten baitzuen Profeta Davitek: *Iniquitates meae supergressae sunt caput meum: sicut onus grave gravatae sunt super me* (Ps. 37). Ene bekhatuek iragan, eta erdiratu aurizki zapatu erdiratu dute ene burua, eta karga sortha pisu batek bezala, aurizki, eta zapatu naute naizen guztia.

Eta halatan erraiten deraue Iainkoak halako kargarekin dabiltzanei: *Venite ad me omnes qui laboratis, et oneratis, et ego reficiam vos* (Mt. 11). Zatozte enegana trabaillatzen zareten guztiok, eta kargaturik zaudetenok eta nik arinduko zaituztet: nik karga pisu hori edekirik, karga arinago bat emanen deratzuet. *Tollam quidem sarcinas, sed inanes a sarcinis non dimittam. Tollam sarcinas malas, et imponam bonas* (August. de Verbis Domini, serm. 24. Tom. 10). Edekiko deratzuet karga, baiña karga gabe etzaituztet utziko. Edekiko deratzuet karga gaixtoa, eta emanen ona. Berthuteak, Iainkoaren zerbitzatzeak baditu bere nekeak, eta trabailluak, eta bai bekhatuak ere bere atseginak, eta plazerak.

Bada berthutearen neke, eta trabaillu hek, atseginago dira, bekhatuaren atseginak, eta plazerak baiño. Hala erraiten du San Agustinek: *Dulciores sunt lachrymae orantium quam gaudia theatrorum* (August. in Ps. 127. Tom. 8). Eztiago, eta gozoago dira orazinotan, eta othoitzetan daudezinen nigarrak, komedietan, dantzétan, eta munduko plazeretan dabiltzanen irriak baiño.

saindutto

323 Ikhusiko duzu saindutto bat zokho batean nigarrez, eta hats-beherapenez, orazinotan dagoela: eta ikhusiko duzu halaber orazinoz, eta debozinoz konturik egi-



y la devoción, que siempre anda entre la gente, en juegos, danzas y diversiones. Ya sé que a ti te parecerá que no; mas aquel que está en oración en el rincón tiene en su interior más caliente y alegre su ánimo que el que se ocupa en los placeres del mundo. Y la causa es porque Dios con su gracia y favor hace sabrosas y deliciosas las lágrimas del devoto; y él mismo encuentra un buen fruto en dichas lágrimas. Refiriéndose a éstos, dice San Agustín: "Semper doleat, et de dolore gaudeat" (August. de vera et falsa paenit. cap. 13 in fine tom. 4): Haya siempre dolor, y con el dolor sabor y dulzura.

Cuando ves a una persona que de puro dolor de sus pecados está llorando, piensas que dicha persona está triste; pero te engañas; porque en realidad está alegre, y la alegría es la que le hace derramar esas lágrimas. Porque, como dice San Ambrosio: "Non solum dolor lachrymas habet; habet et laetitia lachrymas" (Ambros. de obitu fratr. orat. 4, tom. 5): No todas las lágrimas proceden del dolor; las hay también que se originan de la alegría. Los suspiros de las personas justas, las lágrimas de los que están en oración y en penitencias, proceden de alegría. Estas lágrimas son como rosas entre espinas. La leña verde produce llama y produce lágrimas; le embiste el fuego y le mana agua. Así también la persona justa, en las obras de virtud llora y ríe; tiene trabajo y consuelo, tristeza y alegría: por fuera tristeza y por dentro alegría. Y la alegría interior vence a la tristeza exterior. Porque aquella tristeza la acepta voluntaria y gustosamente y por su bien; y tras de ella espera la alegría.


324 Refiriéndose a esto dice también la Iglesia: "In labore requies, in aestu temperies, in fletu solatium": descanso en el trabajo, frescura en el calor, consuelo en el llanto. Asimismo refiriéndose a esto dice el Santo David: "Labores manuum tuarum, quia manducabis" (Ps. 127): que comerá los trabajos de sus manos. El que trabaja suele comer la ganancia que obtiene de sus trabajos, pero no el mismo trabajo. Y con todo dice el rey David que la persona justa come incluso el mismo trabajo. Y con razón se expresa así (Vid. August. super hunc ps.). Porque el justo, aun en el mismo trabajo, experimenta tanto placer como si comiera un rico manjar. El buen cristiano come en este mundo sus trabajos; y en el otro mundo las ganancias y frutos del traba-

[154] *Beu.* Inperatiboko forma iragankorra (aditz azkarra). Ikus R. LAFON, *Le système...* I, 515.

ten eztuen bat, bethiere iend'artean, iokoan, dantzan, eta atsegin hartzen dabillala. Bada orai zuri idurituko zaitzu ezetz, baiña zokhoan orazinotan dagoen hark, beroago, eta alegerago du bere baithan barrena bere gogoa, munduko atseginetan dabillanak baiño. Zeren Iainkoak bere garaziaz, eta faborez debozinotan dagoenaren zaphoratu nigarrak, gozatzen, eta zaphoratzen baititu: eta berak ere nigar hetan ondore on bat edireiten baitu. Halakoagatik erraiten du San Agustinek: *Semper doleat, et de dolore gaudeat* (August. de vera & falsa poenitentia cap. gozo (sust.) 13 in fine. Tom. 4). Beu[154] bethi dolore, eta doloreaz gozo, eta zaphore.

Ikhusten duzunean presuna bat bere bekhatuen dolore hutsez, nigarrez dagoela, uste duzu ezen presuna hura triste dela, baiña enganatzen zara: zeren alegera da, eta alegeraz nigar hek egiteintu. Zeren San Anbrosiok dioen bezala: *Non solum dolor lachrymas habet, habet et laetitia lachrymas* (Ambros. de obitu fratris orat. 4. Tom. 5). Eztira ez nigar guztiak doloretik heldu, baalegriantza dira alegriantzatik heldu direnak ere. Presuna iustuen hats-beherapenak, orazinotan, eta penitenziatan daudearrosa nen nigarrak, alegriantzatik heldu dira. Nigar hek, arrosak dira elhorrien artean. Egur hezeak egiten du gar, iariatu eta egiten du nigar: sua datxeka, eta ura dario. Hala bada presuna iustuak ere berthutezko obretan egiten du nigar, eta egiten du irri: badu trabaillu, eta konsolamendu, badu tristura, eta alegriantza: kanpoan tristura, eta barrenean alegriantza. Eta barreneko alegriantza hark, garaitzen du kanpoko tristura. Zeren tristura hura bere nahiz, eta borondatez, eta bere probetxutan hartzen baita, eta haren ondoan alegriantza uste baitu.

324 Halakoagatik erraiten du Elizak ere: *In labore requies, in aestu temperies: in fletu solatium.* Trabailluan pausua: beroan freskura, nigarrean konsolamendua. Halaber halakoagatik erraiten du David sainduak: *Labores manuum tuarum quia manducabis* (Ps. 127). Bere eskuen trabailluak ianen dituela. Trabaillatzen denak, bere trabailluaz izaiten duen irabazia, iaten ohi du, eta ez trabaillua bera. Eta alabaiña erraiten du trabaillua bera ere iaten duela. Eta arrazoinekin erraiten du hala (Vide August. super hunc ps.). Zeren iustuak trabaillu hartan ere, ianhari gozo baten iatean bezanbat atsegin hartzen baitu. Giristino onak iaten ditu mundu hunetan bere trabailluak, eta bertze munduan, trabailluaren ira-



jo. Porque en aquellos trabajos, en ayunar, en hacer oración y hasta en llorar percibe más placer que en comer carne de perdiz. "Fuerunt mihi lachrymae meae panes die ac nocte", dice el profeta (Psalm. 41). Las lágrimas fueron mi pan de noche y de día. En llorar percibía tanto placer como en hartarme de pan. "Gaudet iniquus in pompa; gaudet martyr in catena" (August. in psalm. 137). El malo se regocija y divierte en las vanidades y pompas del mundo, en boatos y magnificencias; y el mártir, el justo, en la cárcel, en los trabajos y en la cadena. Y el dicho mártir recibe más placer en sus trabajos y en las aflicciones que pasa por Dios que el malo en los goces mundanos. Porque, como dice San Agustín: "Maior est suavitas mentis quam ventris" (August. de Verb. Dom. serm. 28): Mayor es la consolación del alma y su bienestar, que no el del cuerpo, el placer del entendimiento que no el del vientre, y el gozo interior que no el exterior.

§ 1

325 Como los malos, que se ocupan en placeres mundanos, bailes, comilonas y otras diversiones, no ven la sustancia interior del ayunar, de la oración y de las demás virtudes, sino sólo la corteza exterior, no experimentan la suavidad que está oculta en la penitencia y en las obras de penitencia; piensan que la penitencia no tiene ningún bien, placer ni delicia; y en caso que lo tenga, lo tendrá en el otro mundo, mas no aquí. Y como lo del otro mundo es para después, dicen que no quieren dejar el placer presente por la esperanza futura. Y hablan así porque ven que la virtud, la ley santa de Dios, tiene el rostro y el aspecto exterior feo, áspero y difícil. Y por esta causa, asustados por dicha dificultad exterior, dejan la sustancia interior y se quedan con la corteza de fuera.

Uno que está entregado a mujeres no cree que sin andar con mujeres pueda nadie vivir. Si le dices que hay muchos que no andan con ellas, no lo cree. Y la causa es porque él no se pasa sin ellas.

A un jugador, a un maldiciente, a un bebedor, a un bailarín o a gente de esta estofa se les antoja que en tales vicios está toda la felicidad; y que la virtud, el servicio de Dios, el cumplimiento de los mandamientos, no lleva consigo ningún placer ni de-

fruitu baziak eta fruituak. Zeren trabaillu hetan, barurtzean,
epherki orazinotan egoitean, eta nigar egitean ere, epherki iatean baiño atseginago hartzen baitu.

gauazko egunazko *Fuerunt mihi lachrymae meae, panes die ac nocte,* dio Profetak (Psalm. 41). Ene gauazko, eta egunazko ogia, nigarrak izan ziren. Ogiz asetzean bezanbat, atsegin hartzen nuen, nigar egitean. *Gaudet iniquus in pompa, gaudet martyr in catena* (August. in Psalm. 137).


ponperia bonbazia handirasun Gaixtoak munduko banalorietan, ponperietan, bonbazietan, eta handirasunetan hartzen du atsegin eta plazer: eta martirak, iustuak, gartzelean, trabailluetan, eta gathean. Eta martir hark atseginago hartzen du bere trabailluetan, eta Iainkoagatik iragaiten dituen penetan, gaixtoak munduko plazeretan baiño. Zeren San Agustinek dioen bezala: *Maior est suavitas mentis, quam ventris* (August. de Verbis Domini serm. 28). Handiagoa da arimaren konsolamendua, eta bere gogara, gorputzarena baiño, adimenduaren atsegina sabelarena baiño, eta barreneko bozkarioa, kanpokoa baiño.

§ 1

325 Nola gaixtoek, munduko atseginetan, ian edanean, iokoan, eta bertze plazeretan dabiltzanek, ezpaitute ba-
berthute rurtzearen, orazinoaren, eta bertze berthutén barreneko mamia, kanpoko azala baizen ikhusten, ezpaitute penitenzian, eta penitenziazko obrétan estalirik dagoen gozotasuna frogatzen, uste dute ezen penitenziak eztuela bat ere ontasunik, atseginik, eta ez plazerik: eta izaitekotz ere, bertze munduan izanen duela, eta ez hemen. Eta nola bertze mundukoa baita geroko, erraiten dute, eztutela presenteko plazera, geroko esperantzagatik utzi nahi. Eta erraiten dute hunela, zeren baitakusate ezen berthuteak, Iainkoaren lege sainduak, kanpoko iduria,
latz eta figura duela itsusi, latz, eta gaitz. Eta handik kanpoko gaitztasun hark iziturik, utzten dute barreneko mamia, eta hartzen dute kanpoko azala.

Emaztétara emana den batek, eztu uste, emaztékin
segitu segitu gabe, nehor bizi ahal ditekeiela. Baldin erran badiazozu badela anhitz segitzen eztuenik, eztu sinhesten. Zeren ezpaita bera egoiten.

Iokari Iokari bati, arnegari bati, edale bati, edo halako bertze iende thailluei, iduritzen zaie ezên bizio hetan dela plazer guztia: eta berthuteak, Iainkoaren zerbitzatzeak, manamenduen konplitzeak, eztuela bat ere atseginik,



licia, sino tan sólo dolor y aflicción. Pero se engañan, hablan sin saber. Ellos no lo han experimentado nunca, nunca han servido a Dios; y luego dicen que el servicio divino es difícil. Rechazan un manjar que no han probado; condenan una cosa que no saben. Cosa dificultosa es que el ciego sepa de colores, que conozca si es rojo o morado, que decida sobre ello. Todos los santos han dicho, han consignado por escrito que el yugo de Dios es agradable, que su santa ley es fácil; por consiguiente, como éstos lo han probado, deben ser más creídos que los que, sin saber nada, dicen lo que se les antoja. No ha habido jamás ninguno que haya practicado y probado la santa ley de Dios y no haya dicho y referido sobre ella mil excelencias y alabanzas.

El diablo da a sus seguidores sus gustos y formas de placer. ¿Pues qué? ¿Dios va a ser tan seco y duro que deje a sus amigos y servidores sin un poco de placer? ¿Qué partido te parece mejor, el de Dios o el del diablo? ¡Por ventura, el de Dios! Por lo tanto, los gustos y placeres de Dios han de ser también mejores y mayores que los del diablo.

Y no es que yo me refiera a lo del otro mundo; sobre esto no hay duda. Porque es claro que allí los malos han de ser atormentados para siempre, y los buenos galardonados y glorificados. Yo me refiero a lo de este mundo. Y digo que aun en este mundo los buenos cristianos, los que siguen el partido de Dios, gozan más gustos y placeres que los malos cristianos, que siguen el partido del diablo.

326 Esta verdad les dio a entender el mismo Dios a algunos que se quejaban de El, diciéndoles: "Convertimini, et videbitis quid sit inter justum et impium, et inter servientem Deo et non servientem ei" (Mal. 5). Convertíos, poneos en el buen camino; y veréis qué diferencia hay entre el bueno y el malo, entre el que sirve a Dios y el que no le sirve. Como si les hubiera dicho: Sin estar esperando al otro mundo, sin aguardar hasta entonces, en el momento en que os convirtáis, conoceréis la diferencia que existe entre el bueno y el malo: la alegría del uno y la tristeza del otro; la paz del uno y la guerra del otro; el placer del uno y la aflicción del otro; la jocundidad del uno y la mohína del otro. Finalmente, co-

eta ez plazerik, penarik, eta atsekaberik baizen. Baiña enganatzen dira, eztakitenak bezala mintzo dira. Eztute egundaiño frogatu, eztute egundaiño Iainkoa zerbitzatu, eta gero erraiten dute gaitz dela Iainkoaren zerbitzatzea: dastatu eztuten bianda arbuiatzen dute: eztakiten gauza kondenatzen dute. Gaitz da, itsuak kolorèn berri iakitea. Saindu guztiek erran dute, eskiribuz ezarri dute, Iainkoaren uztarria plazent dela, haren lege saindua erraz dela, beraz hek, nola berak frogatuak baitira, sinhetsiago behar dira, bat ere berririk iakin gabe bere plazerera mintzo direnak baiño. Eztu egundaino nehork Iainkoaren lege saindua eskuztatu, eta frogatu, non ezpaitu milla ontasun, eta laudorio, lege hartzaz erran, eta kontatu.

arbuiatu

eskuztatu

Deabruak emaiten derauzte bere iendei bere atsegin, eta plazer moldeak. Zer, bada, Iainkoa izanen da hain idor, eta on-edeki, non utziko baititu bere adiskideak, eta zerbitzariak, atsegindasun mokho bat ere gabe? Zein parte estimatzen duzu hobe, Iainkoarena ala Deabruarena? Baldin ba Iainkoarena? Beraz Iainkoaren atseginak eta plazerak ere hobeagoak eta handiagoak izanen dira Deabruarenak baiño.

Idor on-edeki

Eta ez naiz ez mintzo bertze mundukoaz, hangoaz ezta dudarik. Zeren segur da, han gaixtoak izanen direla sekulakotzat penatuak, eta onak golardoatuak, eta lorifikatuak. Baiña mintzo naiz mundu hunetakoaz. Eta diot ezen, are mundu hunetan ere, giristino onek, Iainkoaren partea dadukatenek, atsegin eta plazer gehiago gozatzen dutela, giristino gaixto Deabruaren partea segitzen dutenek baiño.

golardoatu

326 Egia haur eman zerauen aditzera Iainkoak berak, hartzaz arrenkuratzen ziren iende batzuei, erraiten zerauela. *Convertimini et videbitis quid sit inter iustum et impium, et inter servientem Deo, et non servientem ei* (Mal. 5). Konberti zaitezte, bide onean iar zaitezte, eta ikhusiko duzue zer diferentzia den onaren eta gaixtoaren, Iainkoa zerbitzatzen duenaren, eta zerbitzatzen eztuenaren artean. Erran bailleraue bezala: Bertze munduko begira egon gabe, anarteraiño iguriki gabe, konbertitzen zareten pontuan, ezagutuko duzue, onaren eta gaixtoaren arteko diferentzia: bataren alegriantza, eta bertzearen tristura: bataren bakea, eta bertzearen gerla, bataren atsegina, eta bertzearen atsekabea, bataren arraitasuna, eta bertzearen goibeltasuna. Finean eza-

arrenkuratu

Iainko

arraitasun goibeltasun



noceréis y comprobaréis por experiencia cuán grande es la ventaja que tienen los buenos sobre los malos, y que los buenos, aun en este mundo disfrutan de más bienestar y delicias de lo que piensan los malos.

Un día preguntaron los Apóstoles a su Maestro: "Ecce nos reliquimus omnia, et secuti sumus te; quid ergo erit nobis? (Mc. 10). Señor, todos los bienes que tenemos los hemos dejado por tu amor, y te hemos seguido: ¿qué será pues de nosotros o qué habrá para nosotros? Les contestó: "Amen dico vobis: nemo est qui reliquerit domum aut fratres aut sorores, aut patrem aut matrem propter me, aut propter Evangelium, qui non accipiet centies tantum in tempore hoc, et in saeculo futuro vitam aeternam". En verdad os digo, os aseguro que quienquiera que deje por mí y por mi Evangelio casa, hermano, hermana, padre o madre, recibirá ahora, en este tiempo presente, cien veces más de lo que deja, y después en el otro mundo, la vida eterna. Mira cómo habla de la retribución de este mundo y del otro; y cómo, haciendo diferencia entre el uno y el otro, dice que a quien por servir a Dios deja algo, se le dará, aun en este mundo, cien veces más de lo que deja, y después, en el otro mundo, la gloria sempiterna.

Por consiguiente, el servicio de Dios tiene también en este mundo, además del que tiene en el otro, cierto galardón, cierta recompensa, gozo y placer.

§ 2

327 Dirá alguno: ¿cómo puede ser así lo que acabamos de decir? Porque a la verdad no vemos que Dios dé en este mundo a sus servidores, a las personas justas, ninguna cosa grande, ni cargo, ni honor, ni riqueza ni ninguna otra cosa del mundo. Por el contrario, muchas veces vemos que éstos son pobres, enfermos y necesitados según el concepto del mundo. ¿Cómo se entiende, por lo tanto, eso de que les dará, incluso en este mundo, cien veces más de lo que dejan? No es difícil contestar. Se entiende que Dios dará a sus servidores en su interior tales dones y riquezas espirituales, que son cien veces su-

gutuko duzue, eta esperientziaz frogatuko, zein handia den onek gaixtoen gaiñetik duten abantailla, eta nola diren onak, are mundu hunetan ere, gaixtoek uste duten baiño aiseago, eta bere gogarago.

Egun batez galdegin zeraukaten Apostoluek bere Nabusiari: *Ecce nos reliquimus omnia, et secuti sumus te, quid ergo erit nobis?* (Mc. 10). Iauna, guk utzi ditugu ditugun on guztiak, zure amoreakgatik, eta iarraiki gatzaizkitzu, zer izanen da bada gutzaz, edo guretzat? Ihardetsi zerauen: *Amen dico vobis nemo est, qui reliquerit domum aut fratres aut sorores, aut patrem aut matrem propter me, aut propter Evangelium, qui non accipiet centies tantum in tempore hoc, et in saeculo futuro vitam aeternam.*

Egiaz erraiten deratzuet, seguratzen zaituztet, ezen nork ere utziko baitu enegatik, eta ene Ebanjelioagatik etxerik, anaiarik, arrebarik, aitarik edo amarik, errezibituko duela orai presenteko denbora hunetan, utziko duenetik ehun gehiago, eta gero bertze munduan bizitze eternala. Ikhusazu nola mintzo den mundu hunetako pagamenduaz, eta bertze mundukoaz: eta nola bataz eta bertzeaz diferentzia eginik, erraiten duen, Iainkoaren zerbitzatzeagatik deus utzten duenari, emanen zaikala, are mundu hunetan ere, utzten duenetik ehun gehiago, eta gero bertze munduan sekulako loria.

eternal


Beraz hunelatan, badu Iainkoaren zerbitzatzeak bertze mundukoaz gaiñera, mundu hunetan ere zenbait golardoa, zenbait pagamendu, atsegin, eta plazer.

golardoa

§ 2

327 Erranen du zenbaitek: Nolatan ahal dateke oraiñokoan erran duguna hala? Zeren eztugu ikhusten ezen Iainkoak bere zerbitzariei, presuna iustuei, mundu hunetan horrela gauza handirik emaiten derauela, ez kargurik, ez ohorerik, ez aberatstasunik, eta ez munduko bertze gauzarik. Aitzitik anhitzetan ere, hek dakuskigu direla probe, eritoki, eta munduko arauaz on behar. Nola aditzen da beraz, emanen zaiela, are mundu hunetan ere, utzten dutenetik ehun gehiago? Ezta gaitz ihardesten. Aditzen da Iainkoak bere zerbitzariei, halako donuak, eta aberatstasun espiritualak emaiten derauztela, bere baithan barrena, non hek baitira, ehunetan ere handiago, eta baliosago, mundu hunetako at-

eritoki



periores y más preciosas que todos los goces, placeres y bienes corporales de este mundo juntos.

Los goces y placeres de Dios radican ante todc en el alma. Y estos gustos interiores superan a las tribulaciones exteriores, y también a los placeres corporales. "Omnes Sancti adiuvantur a Deo; sed intus, ubi nemo videt", dice San Agustín (*August. in* ps. 53): Todos los santos son ayudados y favorecidos de Dios. Mas ¿dónde? En el interior, donde no lo ve nadie.

Si dejas los placeres exteriores, corporales, se te darán los interiores, los del alma, los cuales serán cien veces superiores a los corporales, más dulces y aventajados. Y si dejados los corporales, gustases los del alma, al punto te repugnarían aquéllos. A partir de este momento, los gustos y placeres que antes te parecían buenos y sabrosos, no quisieras ni verlos ni mentarlos. Porque entonces de tal forma se te iluminaría tu entendimiento y se te cambiaría el gusto anterior, que todas las cosas cobrarían un color, un aspecto y un sabor que antes no tenían.

328 Los servidores de Dios parecen por de fuera pobres, inútiles, faltos de placer, próximos a la muerte. Empero, como dice San Pablo, en el interior llevan oculta la vida, que es Jesucristo. "Mortui enim estis, et vita vestra abscondita est cum Christo in Deo" (Col. 3). Y al modo como el mismo Jesucristo tenía su divinidad oculta en el interior y por de fuera semejaba pequeño y pobre; así también sus servidores, a imitación de su Señor, por de fuera parecen insignificantes y tristes, pero por dentro están alegres y llenos de consuelo. "Quam magna multitudo dulcedinis, quam abscondisti timentibus te" (Ps. 3): ¡Ah, cuán grande es la muchedumbre de dulzura que Dios tiene guardada y encubierta para los cristianos que le temen! Es tan grande que únicamente el que lo ha experimentado puede saber qué tal es. Así lo dice el Rey David: "Gustate et videte, quoniam suavis est Dominus" (Ps. 33). Gustad y probad, porque no es Dios tan áspero y duro como parece. Así como hasta el presente te has empleado en el servicio del diablo, empléate de aquí en adelante en el de Dios, y entonces verás y comprobarás por experiencia cuán sabroso, cuán dulce, cuán agradable y placentero es Dios. Así como la virtud, la honorabilidad y el ser bueno trae consigo en su

onhasun segin, plazer, eta onhasun korporal guztiak elkharri iratxekirik baiño.

Iainkoaren atseginak eta plazerak, gehienik ariman barrena dira. Eta barreneko atsegin hek, garaitzen dituzte kanpoko atsekabeak, eta bai gorputzaren plazerak ere. *Omnes sancti adiuvantur a Deo, sed intus, ubi nemo videt,* dio San Agustinek (August. in Ps. 53). Saindu guztiak dira Iainkoz lagunduak, eta faboratuak. Ordea non? Barrenean, nehork ikhusten eztuen lekhuan.

faboratu

Baldin utzten baditutzu kanpoko plazerak, gorputzarenak, emanen zaizkitzu barrenekoak, arimarenak, izanen baitira ehunetan, gorputzarenak baiño handiagoak, eztiagoak eta abantaillatuagoak. Eta baldin gorputzarenak utzirik, dasta bazinitza arimarenak, higuin lekidisketzu berehala gorputzarenak. Handik harat, lehen on eta gozo zeizkitzun atseginak, eta plazerak, etzinituzke ikhusi ere nahi, eta ez aiphatu. Zeren orduan halako moldez argi lekidikezu zeure adimendua, eta alda leheneko gogoa, non gauza guztiek, lehen ez bezalako kolore bat, iduri bat, eta zaphore bat har baillezakete.

iduri

328 Iainkoaren zerbitzariek badirudite kanpotik probe, eztheus, plazer gabe, hil hurranak. Ordea Iondone Paulok dioen bezala, barrenean darabillate gorderik bizitzea, zein baita Iesu Kristo. *Mortui enim estis, et vita vestra abscondita est cum Christo in Deo* (Col. 3). Eta nola Iesu Kristok berak, baitzedukan bere dibinitatea, eta Iainkotasuna barrenean estalia, eta kanpoan baitzirudien ttipi, eta probe: hala haren zerbitzariek ere bere iaunari iarraikitzen zaitzala, dirudite kanpoan deus guti, eta triste, baiña barrenean dira alegera eta konsolamenduz betheak. *Quam magna multitudo dulcedinis, quam abscondisti timentibus te* (Ps. 30, 20). A zein handia den Iainkoak giristino beldur zaizkonentzat gorderik eta estalirik dadukan eztitasunaren multzutasuna. Hain da handia ezen frogatu duenak baizen ezin iakin baitezake nolakoa den. Halatan erraiten du Errege Davitek: *Gustate et videte, quoniam suavis est Dominus* (Ps. 33). Dasta ezazue, froga ezazue, zeren ezta Iainkoa dirudien bezain latz eta gaitz. Orainokoan Deabruaren zerbitzuan bezala, enplega zaite hemendik aitzina, Iainkoarenean, eta orduan ikhusiko duzu, eta esperientziaz frogatuko, zein gozo, zein ezti, zein atsegin, eta plazent den Iainkoa. Nola berthuteak, prestutasunak eta giristino on izaiteak baithakarke berekin, bere baithan

eztheus hurran

multzutasun

esperientzia



interior un gozo, una alegría y un gran contento; del mismo modo, el pecado y la vida viciosa lleva también consigo un desplacer, una gran aflicción, tan grande, que aunque no hubiera infierno, aun porque el pecado es de suyo tan feo y constituye *tormento y sanción para sí mismo, aun por esta* razón deberíamos guardarnos de pecar.

Un jugador aunque ande jugando, aunque no saque ningún provecho ganando ni perjuicio perdiendo, con todo recibe placer ganando y pesar perdiendo. Porque el ganar, por su misma naturaleza es placer, y el perder, desplacer. Así también el ser virtuoso, aunque no hubiera paraíso, tiene en sí mismo su gozo y placer; y el ser vicioso, igualmente, aunque no hubiera infierno, tiene su desplacer y aflicción.

§ 3

329 A algunos les parece que el pecado es sabroso, lleno de delicia. Pero se engañan. Porque, por un lado, aquella delicia no es delicia, sino ilusión. Y aquella ilusión no es del pecado ni nacida del pecado; sino que es del pecador, proviene del mismo pecador y del diablo instigador del pecado.

El perro gustosamente revuelve en la boca el hueso seco que halla en el camino, no porque aquel hueso tenga carne ni jugo; sino porque, con sólo revolverlo, al mismo perro le fluye sangre de la boca, y después aquel hueso seco mezclado con la sangre le parece bueno, sabroso y dulce. Así también al pecador su pecado escuálido se le antoja bueno, sabroso y fresco, no porque el pecado mismo tenga en sí ninguna bondad ni sabrosidad, sino porque el pecador tiene puesto su pensamiento, su codicia y todo su deseo en aquel pecado; y dicho deseo es el que al pecado le da placer y sabor.

Cierto día el pueblo de Israel tuvo una sed tan feroz y un tan grande deseo de beber, que Dios viendo su necesidad les dio una agua fresca de fuente, sacada de una piedra durísima. Y después, cuando hubieron bebido de ella, dijeron que aquello no era agua, sino mejor que agua, más rico que todos los vinos del mundo, que era como la miel. "Ut suggeret mel de petra" (Dt. 32). ¿Y qué fue lo que a aquella agua le dio tal dulzura? El ansia, el deseo y la sed de ellos mismos, pues por lo demás

155 *Zeren bataz...* Bigarren mienbroa *(eta berriz bertzea...)* ez da nehon ageri.
156 *Iarien.* Hunela behar du partizipioa aditz hunek, ez Axular-en Hiztegian, ageri den bezala. Hiztegi hunetan, s. v. *Irion* badira jasoak *Irion*-i ez, baina *Iarien* huni dagozkion etsenpluak.
157 *Ithur-ur.* Konposizioan, lehen hitzak hiru silaba dituenean, sarritan galtzen du hirugarrena: *Behar-ondoko, itsas zabal, burdin gori...*


bozkario barrena, bozkario bat, alegriantza bat, eta kontentamendu handi bat: hala bekhatuak, eta bekhatutan ibiltzeak
desplazer ere dakharke berekin desplazer bat, atsekabe handi bat: hain handia non baldin ifernurik ezpaliz ere, zeren bekhatua bera bere baithan baita hain itsusi, eta bere buruarentzat penagarri, eta gaztigu, hargatik beragatik ere, behar baikenduke bekhatu egitetik begiratu.

Iokari batek nahiz hari dadilla dostetan eztuen bat ere irabazteaz probetxurik, eta ez galtzeaz kalterik, guztiarekin ere atsegin hartzen du irabazteaz, eta damu galtzeaz zeren irabaztea, bere egitez baita plazer, eta galtzea desplazer; hala bada prestu izaiteak ere, parabisurik ezpaliz ere, badu bere baithan barrena, bere atsegina, eta plazera, eta bai gaixto izaiteak ere, halaber ifernurik ezpaliz ere, bere desplazera eta atsekabea.

§ 3

plazentzia **329** Batzuei iduritzen zaie ezen bekhatua gozo dela, plazentziaz bethea dela: baiña enganatzen dira. Zeren bataz[155] plazentzia hura ezta plazentzia, baiña enganamendu: eta enganamendu hura ere, ezta ez bekhatuarena, eta ez bekhatutik sortzen dena: baiña bekhatorearena, bekhatorea beraganik, eta bekhatuaren eragi-
or lle Deabruaganik heldu dena. Orak bidean edireiten duen hezur idorra, gozoki erabiltzen du ahoan, ez zeren
urin hezur hark duen berekin mamirik edo urinik: baiña ze-
larietu ren, erabili hutsez, orari berari, ahotik odola iarieten[156] baitzaika, eta gero odol harekin batean, hezur idor hura, on gozo, eta ezti iduritzen baitzaika. Hala bada bekhatoreari ere iduritzen zaika bere bekhatu idorra, on, gozo eta heze, ez zeren bekhatuak berak bere baithan duen ontasunik edo gozotasunik, baiña, zeren bekhatoreak baitaduka bere gogoa, bere gutizia eta desira guztia bekhatu hartan ibenia; eta desira hark emaiten baitio bekhatuari gozo eta zaphore.

egartsu Egun batez Israeleko iendeak hain zuen egartsu idorra eta edateko desira handia, non Iainkoak heken pre-
harri-muger mia ikhusirik, eman baitzerauen, harri-muger batetarik atherarik, ithur-ur[157] fresko bat. Eta gero hartarik edan zutenean, erran zuten ur hura etzela ez ura, baiña ura baiño hobeago, munduko arno guztiak baiño gozoago, eztiaren pare zela. *Ut suggeret mel de petra* (Dt. 32). Eta zerk eman zioen ur hari eztitasun hura? Heken gutiziak, heken desirak eta egartsuak; zeren gaiñerakoan,



aquella agua era como las otras. Así también es nuestro pensamiento. nuestro deseo y el diablo quien al pecado da su delicia. El pecado en sí mismo no tiene sino una delicia engañosa y de ilusión.

330 Y aun esta misma delicia engañosa que el diablo comunica al pecado, él se la comunica forzado y bien a su pesar. Si de otra forma pudiera inducir a pecar, no daría el más insignificante placer del mundo. El pescador arroja el anzuelo al agua con carnada, con cebo o algo de comer, y esto no por compasión del pez ni porque quiere darle de comer, sino porque de otra forma no le puede engañar ni atrapar. Así también el diablo comunica al pecado cierto placer y gusto, cierto cebo y delicia, no porque quiera dar placer, no a título gratuito, sino porque de otra suerte no puede engañar ni cazar al pecador.

Y la delicia engañosa que el diablo comunica al pecado, aun toda ella dura poco; mas el tormento y la aflicción consiguiente, mucho. Hablando del placer del pecado, dice Sofar, el amigo de Job: "Hoc scio a principio, ex quo homo positus est super terram, quod laus impiorum brevis sit, et gaudium hypocritae ad instar puncti" (Job 10): Desde el principio del mundo, desde que existen los hombres sé una cosa: que la alabanza de los malos es breve, y la alegría de los hipócritas es aún más breve, es como un momento. Se llama hipócrita al pecador, porque el goce y el placer del pecador se asemeja a la santidad del hipócrita. Así como el hipócrita por fuera parece santo y devoto, pero por dentro es malo y lleno de maldad, así también el pecador por fuera parece alegre, contento, lleno de placer y de gozo; pero en el interior está triste, sombrío y obscuro.

§ 4

331 El que se dedica al vicio, bien miradas todas las cosas, es claro que aun en este mundo experimenta más aflicciones que alegrías.

Un ladrón, ¡cuántos trabajos tiene que pasar para efectuar su robo! El que alimenta una enemistad, ¡cuántos temblores, cuántos sobresaltos tiene que recibir para vengarse de su enemigo! Un engañador, ¡cuántas imaginaciones y vueltas y revueltas tiene que realizar para llevar a efecto su engaño! El mentiroso, ¡cuántas mentiras, cuántas bellas palabras


bertze ur bat bezala zen ur hura ere. Hala bada emaiten dio bekhatuari ere bere gozotasuna, gure gogoak, gure desirak eta Deabruak. Eztu bekhatuak berak bere
itxurapenezko baithan itxurapenezko eta enganamenduzko gozotasunik baizen.

330 Eta Deabruak bekhatuari emaiten dioen enganamenduzko gozotasun hura ere, bortxaz emaiten dio eta ez borondatez. Baldin bertzela eragin albaleza bekhatua, ezlemake munduan den plazerik ttipiena ere. Arran-
amu tzaleak egotzten du amua urera beitarekin, zenbait ia-
beita teko eta bazkarekin; eta ez, ez arraiñaren urrikariz,
urrikari ez hari iatera eman nahiz, baiña zeren bertzela ezin engana baitezake eta ez atzeman. Hala bada Deabruak ere emaiten dio bekhatuari zenbait atsegin eta plazer, zenbait bazka eta gozotasun, ez eman nahiz, ez atsegin sari, baiña zeren bertzela ezin engana baitezake bekhatorea eta ez atrapa.

Eta Deabruak bekhatuari emaiten dioen enganamenduzko gozotasun hark ere, denak ere, deus guti irauten du, baiña ondoko penak eta atsekabeak anhitz. Bekhatuaren plazeraz mintzo dela, erraiten du Sophar Ioben adiskide hark: *Hoc scio a principio, ex quo homo positus est super terram, quod laus impiorum brevis sit, gaudium hypocritae ad instar puncti* (Iob. 10). Munduaren hastetik huneraiño, iendeak iende direnaz geroztik, badakit pontu haur: gaixtoen laudorioa labur dela, eta
hipokrita hipokritén alegriantza are laburrago, pontu bat bezala. Bekhatorea deitzen da hipokrita. Zeren hipokritaren saindutasuna bezala, baita bekhatorearen atsegina eta plazera ere. Nola hipokritak kanpotik baitirudi sain-
maiziati du eta debot, ordea barrenean baita gaixto eta maliziati; hala bekhatoreak ere kanpotik dirudi alegera; kontent, atseginez eta plazerez bethea, ordea barrenean triste da, goibel eta ilhun.

§ 4

331 Gaixtakerian dabillanak, guztiak ongi kontatzera, segur da, are mundu hunetan ere, atsegin baiño atse-
ohoin kabe gehiago iragaiten duela. Ohoin batek zenbat tra-
baillu iragan behar du, bere ohoinkeriaren egiteko?
etsaigoa Etsaigoan dabillanak zenbat ikhara, zenbat bihotz-ukhaldi errezibitu behar du, bere etsaiaz mendekatzeko? En-
pensu ganatzaille batek, zenbat pensu eta itzul-inguru egin behar du, bere enganamenduaren baliatzeko? Gezurtiak



tiene que vender, para dorar su mentira, para encubrirla y para hacerla rodar como verdad! Como siempre, también aquí dice bien San Crisóstomo: "Quemadmodum, enim, deformia corpora artificiis et indumentis indigent, quae naturae deformitatem contegant; quae, autem, natura pulchra sunt, ipsa per se, etsi nihil extrinsecus deveniat, resplendeant; ita etiam in virtute et vitio, in veritate et mendacio, invenire possumus" (Chrys. in Ps. 26 t. 1): La persona hermosa, que tiene un cuerpo esbelto y bien conformado, no necesita de aderezos extrínsecos, porque ella es de por sí suficientemente bella. Pero la fea, la deforme, necesita de muchos velos, de muchos barnices y adornos; y aun con todos ellos, donde mejor estaría es en casa. Esto mismo sucede entre la virtud y el vicio, entre la verdad y la mentira. La verdad, la virtud, no necesita de afeites; ella misma es bastante hermosa. La mentira, sí, ella necesita muchas composturas y aderezos. Y aun así, nunca se la hermosea y encubre lo bastante. Si el mentiroso quiere que su mentira pase por verdad y triunfe, tiene que sudar; tiene que haber pensado de antemano qué es lo que ha de responder al uno y al otro, necesita buena memoria, necesita estar avisado y en guardia. "Mendacem opportet esse memorem". Porque según el proverbio, la mentira tiene flacos fundamentos.

¿Y qué diremos del que anda tras de una mujer? Ese placer que con ella se alcanza, bien mirado todo, ¿es placer o aflicción? Verás acaso a un hombre joven, y a veces (lo que es peor) también a ciertos viejos, que perdiendo noches, gastando sus bienes, destrozando el cuerpo, postergando su honra y obligación, anda tras de una mujer. Y verás asimismo a otro que no se ocupa de mujeres. Ahora bien, de estos dos, ¿cuál es el que pasa los días y las noches más tranquilo y con menos melancolía? No hay por qué preguntarlo. Tú mismo confesarás que todos los malos lances que has tenido en este mundo o, por lo menos, la mayoría, de una forma o de otra, los has tenido por pecados de mujeres; y que si quieres decir la verdad, en dichos pecados has hallado más aflicción que placer. Y lo mismo sucede, guardadas las proporciones, en todas las otras clases de pecado.

158 *Etxean legoke ederkienik.* Hau ere latinezko testu baten itzulpenean dator. Testu horren muina hartuz, gauza bere erara eta bere gisa esaten du Axular-ek.

ederztatu

zenbat gezur, zenbat hitz eder saldu behar du, bere gezurraren edertztatzeko, estalzeko eta egiatzat bulkhatzeko? Bethi ere bezala, hemen ere ederki erraiten du San Krisostomok: *Quemadmodum enim deformia corpora multis artificiis et indumentis indigent, quae naturae deformitatem contegant, quae autem natura pulchra sunt, ipsa per se, etsi nihil extrinsecus deveniat, resplendeant: ita etiam in virtute et vitio, in veritate et mendacio, invenire possumus* (Chrys. in Ps. 26. Tom. 1). Presuna ederrak, gorputza bere eskuko eta ongi egina duenak, eztu kanpoko edergarriren beharrik, zeren bera baita bere baithan eder asko. Baiña itsusiak, marketsak, behar du anhitz estalki, anhitz bernizadura eta aphaindura, eta hekin guztiekin ere, etxean legoke ederkienik[158].

markets


bernizadura

Hala da bada berthutearen eta bizioaren, egiaren eta gezurraren artean ere. Egiak, berthuteak, eztu edergarriren beharrik, bera da eder asko. Gezurrak bai, hark anhitz estalki behar du eta edergarri; eta halarik ere ezta behin ere asko edertzen eta ez estaltzen. Baldin gezurtiak bere gezurra egiatzat iragan eta salduko badu, penatu behar du; batari eta bertzeari zer ihardetsiko dioen, aitzinetik pensatua eduki behar du, gogonduri on behar du, akhorduan eta memorioan egon behar du. *Mendacem opportet esse memorem.* Zeren erran komuna da, gezurrak zaiñak labur dituela.

gogonduri

memorio

Zer erranen dugu bada, emazte baten ondoan dabillanaz? Harekin hartzen den atsegin hura, guztiak ongi kontatzera, atsegin othe da, ala atsekabe? Ikhusiko duzu gizon gazte bat; eta batzutan, are gaixtoago baita, zenbait zahar ere bai, gauak galdurik, onak gastaturik, gorputza deseginik, bere ohorea eta eginbidea gibelat utzirik, emazte bati darraikala. Eta berriz ikhusiko duzu halaber bertze bat, emaztèz kontu guti eginik, dabillan bat. Orai bada hetarik bietarik, zein othe da aiseago, eta bere gogarago? Zeinek iragaiten othe ditu gau egunak geldiago eta malenkonia gutirekinago? Ezta zer galdeginik. Zeurk aithortuko duzu, mundu hunetan izatu ditutzun inkontru gaitz guztiak, edo behintzat gehienak, aldez edo moldez, emaztetako bekhatuakgatik izan ditutzula. Eta baldin egia erran nahi baduzu, bekhatu hetan, plazer baiño desplazer gehiago iragan duzula. Eta hala da, bere arauaz, bertze bekhatu suerte guztietan ere.



332 No hay cosa más trabajosa que el vicio, ni trabajo más perdido que éste. Porque de semejante trabajo no se recoge otro fruto sino perjuicio y deshonor. Por eso les preguntó San Pablo a ciertas personas que se dedicaron al vicio: "Quem fructum habuistis tunc in illis in quibus nunc erubescitis?" (Rom. 6). ¿Qué fruto, qué ganancia obtuvisteis entonces de aquellos pecados, cuya sola mención ahora os ruboriza?

Uno de los grandes castigos del pecado es la vergüenza. Aceptas al diablo como dueño tuyo, y te da vergüenza decir que eres su siervo. Eres malo; mas no quieres que te llamen malo. El pecado que tú has cometido, tú mismo no lo quieres mentar; hablar de ello se te hace deshonroso.

Bien dignos de compasión y miserables son los malos. Pues aun sus mismos amigos, si no al descubierto, por lo menos bajo capa, hablan mal de ellos. En cambio, de los buenos y virtuosos todos, incluso los enemigos, si no es más en el interior de sus corazones, dicen bien.

Y con todo, no obstante esto, a pesar de ello, prefieren los malos andar por el mal camino cansados y con deshonor y con todos los trabajos, que ir por camino bueno y recto sin cansarse.

Muchas cosas hay en el servicio de Dios que pueden hacerse con poco esfuerzo. ¿Qué cuesta decir la verdad? ¿No levantar falso testimonio? ¿No jurar? ¿Perdonar al amigo cristiano? Pero en hacer lo contrario sí que hay fatiga y trabajo. Porque la mentira, el falso testimonio, el juramento y el vengarse de los enemigos sos causa de muchos encuentros y quebraderos de cabeza. Y con todo —y esto es lo grande— preferimos ir del infierno al infierno que no del paraíso al paraíso. Para cumplir y guardar los mandamientos, no tenemos que fatigarnos, al menos no tanto como para extenuarnos; y con todo, aun cansados y trabajados, preferimos ir al infierno antes que ir sin trabajo al paraíso.

No dijo mal un santo (In vita Thomae Mori, c. 21): que muchas veces, con la mitad del trabajo que nos tomamos para ir al infierno, podríamos alcanzar el paraíso. Este mismo santo, viendo también que una joven, para embellecer la frente, se atormentaba tirándose de los pelos hacia arriba, y que para tener el talle esbelto se oprimía violentamente, dijo: Agravio cometerá Dios con esta joven,

332 Ezta gaixtatasuna baiño gauza trabaillutsuagorik, eta ez hartako trabaillua baiño, trabaillu galduagorik. Zeren ezta trabaillu hartarik, kalterik eta desohorerik baizen, bertze fruiturik biltzen. Halatan galdegin zerauen Iondone Paulok bekhatutan ibili ziren iende batzuei: *Quem fructum habuistis tunc in illis, in quibus nunc erubescitis?* (Rom. 6). Zer fruitu, zer irabazi izan zenduten orduan, orai aiphatzera ere, ahalke zareten bekhatu hetan?

Bekhatuaren gaztigu handietarik bat da ahalkea. Hartzen duzu Deabrua zeure nabusi, eta ahalke zara, haren muthil zarela erraitera. Gaixto zara, ordea eztuzu nahi gaixto dei zaitzaten. Zeurk egin duzu bekhatua, eztuzu zeurk aiphatu nahi: desohore zaitzu hartzaz minzatzea.


urrikalkizun agerri

Urrikalkizun dira, on behar dira gaixtoak. Zeren hetzaz, heken adiskideak ere agerriz ezpada ere, kapapetik bedere gaizki mintzo baitira. Baiña onez eta prestuez, guztiek, are etsaiek ere, bere bihotzetan barrena bedere, ongi erraiten dute.

Ordea guztiarekin ere, halarik ere, bere ahalke, desohore eta trabaillu guztiekin ere, nahiago dute gaixtoek kontrako bidean trabaillaturik ibilli, bide onean artez eta artezean trabaillatu gabe baiño.

Anhitz gauza egin ahal diteke, Iainkoaren zerbitzuan, trabaillu gutirekin. Zeren zer trabaillu da, egiaz minzatzea? Falso testimoniorik ez erauztea? Iuramenturik ez egitea? Giristino lagunari barkhatzea? Baiña bertzela egitean, bada pena eta trabaillu. Zeren gezurrak, falso testimonioak, iuramentuak eta etsaiez mendekatzeak ere, anhitz okhasino eta egiteko pitzten ohi dute. Eta ifernu alabaiña haur da egitekoa: nahiago dugu ifernutik ifernura ioan, ezen ez parabisutik parabisura. Manamenduen konplitzeko eta begiratzeko, eztugu nekhatu behar, ez behintzat hautsteko bezanbat, eta halarik ere, nekhaturik eta trabaillaturik ere, nahiago dugu ifernura ioan, trabaillurik gabe parabisura baiño.

Etzuen behin gaizki erran saindu batek: anhitzetan ere, ifernura ioaiteko, hartzen dugun trabailluaren erdiaz, erdiets genezakeiela parabisua. Halaber saindu neskato xerlo goiti hark berak ikhusirik, ezen neskato bat, kopetaren edertzeko, xerloak goiti thiraturik, penatzen zela: eta gerriaren ere lerdentzeko, bortitzki hersten zela, erran zuen: Bidegabe eginen dio Iainkoak neskato huni, baldin



si por tantos tormentos y trabajos no le da el infierno. Porque así como ciertas personas se atormentan y trabajan para ir al paraíso, del mismo modo otras se atormentan y trabajan aún más por conseguir el infierno.

Y el tormento del infierno no les parece tormento, no lo sienten; el del Paraíso, en cambio, sí; éste es el que sienten, únicamente éste se les hace gravoso, con éste en seguida quedan extenuados. En amoríos, latrocinios, juegos, pasas fácilmente días y noches sin apenas sentirlo; para ello no estás enfermo, para ello no te faltan fuerzas. Mas para ayunar, para estar en oración, para ir a visitar enfermos, estás débil, estás enfermo, te duele la cabeza; cuando por Dios recibes aún la más pequeña privación, al punto te quejas; mas por el diablo, los vientos nocturnos, los fríos y los calores, todo lo sufres en silencio.

333 Verás a una mala mujer que empieza a chillar, a clamar, a gritar y a arañar, porque su marido, exasperado por sus excesos, le ha dado una bofetada. Pero aunque su amante —el hombre malo que es de su agrado—, aunque éste le rompa la cabeza, lo sufre en silencio; lo encubre diciendo que se ha caído o que ha recibido el golpe de otro modo. Se queja de un golpe pequeño del marido, y no del golpe grande del amante; procede al revés de lo que debía. Así también nosotros procedemos al revés, y nos quejamos de los trabajos insignificantes que pasamos en el servicio del diablo; éstos no cuentan; éstos no los sentimos. Porque, como dice San Crisóstomo, el diablo nos ayuda a soportarlos: "Laborant peccatores, quamvis adjutorio diaboli, laborem non sentiant" (Chrys Hom. 29. t. 2).

Pero vendrá un tiempo en que el diablo no nos ha de ayudar, y entonces experimentaremos cuán grandes y pesados son los trabajos que se pasan en el camino del infierno y las cargas que en dicho camino se soportan. Un madero, por grande y pesado que sea, en un estanque grande se maneja fácilmente; con presteza y sin apenas sentirlo, se le vuelve y remueve a una parte y otra. Pero en la orilla, en tierra, no lo puedes mover; allí es donde se evidencia, donde se conoce y se prueba cuán pesado es. Así, pues, del mismo modo, en la orilla de la vida, en el fin, en la muerte es cuando se descubrirá, entonces es cuando se conocerá y se experimentará de qué catadura es el pecado y la carga y peso del pecado; y cuán grande es la fatiga y el sacrificio que

hunenbat pena eta trabaillugatik, emaiten ezpadio ifernua. (In vita Thomae Mori, cap. 21). Zeren nola iende batzuk penatzen eta trabaillatzen baitira, parabisura ioaiteko: hala bertze batzuk, are penatzenago eta trabaillatzenago dira ifernuaren erdiesteko.

Eta ifernuko pena hura etzaie pena iduritzen, eztute hura sentitzen, baiña bai parabisukoa, hura sentitzen dute, hura xoil zaie gaitzi, hartan fite unhatzen dira.

amorantia Amorantian, ohoinkerian, iokoan, gau egunak aise eta guti sentiturik iragaiteintutzu, hartako etzara eri, hartako baduzu indar. Baiña barurtzeko, orazinotan egoiteko, erien bisitatzera ioaiteko, flako zara, eri zara, buruan min duzu. Iainkoagatik den penarik ttipiena errezibitzen duzunean, berehala arrenkuratzen zara; baiña Deabruagatik, gau-aireak, hotzak eta beroak ere, ixil pairatzeintuzu.

gau-aire

helagora atzaparta **333** Ikhusiko duzu emazte gaixto bat, hasten dela oihuz, heiagoraz, deihadarrez eta atzapartaz, zeren bere senharrak, soberaniak gainez eginik, behar-ondoko bat eman dioen. Baiña bere amoranteak, bere plazereko dadukan gizon gaixto batek, burua hauts badiazo ere ixil pairatzen du; eroririk edo bertzela hartu duela, ederztatzen du. Senharraren kolpe ttipiaz arrenkuratzen da, eta ez amorantearen handiaz, kontrara dabilla. Hala gabiltza bada gu ere kontrara, eta arrenkuratzen gara, Iainkoaren zerbitzuan iragaiten ditugun trabaillu aphurrez, barurtze batez, eta ez Deabruarenean pairatzen ditugun pena handiez, hek eztira deus, hek eztitugu sentitzen. Zeren San Krisostomok dioen bezala, Deabrua iasaiten laguntzen baitzaiku: *Laborant peccatores, quamvis adiutorio Diaboli laborem non sentiant* (Chrys. Hom. 29. Tom. 2). Baiña ethorriko da denbora Deabruak laguntzarik eginen ezterakuna, eta ifernuko bidean iragaiten diren trabailluak, eta iasaiten diren kargak ere, zein handiak eta pisuak diren frogatuko duguna. Zur bat, handiago eta pisuago bada ere, hosin handian erraxki manaiatzen da, arintki eta guti sentiturik, alde batera eta bertzera itzultzen eta erabiltzen da. Baiña ur bazterrean, leihorrean, ezin higi dezakezu; han da ageri, han iakiten eta frogatzen da, zein pisu den. Hala bada halaber bizitzearen bazterrean, akhabatzean, heriotzean, ageriko da, han iakinen eta frogatuko da, nolakoa den bekhatua eta bekhatuaren karga eta pisutasuna,


pairatu

kontrara

zur

hosin

higitu



se pasa en el servicio del diablo, en el camino del infierno.

§ 5

334 Como el camino del servicio divino es llano y anchuroso para el que lo corre a gusto, el diablo no quisiera que reparásemos en dicha anchurosidad; mas como también tiene un algo de angosto y empinado, lo que quiere es que miremos a esto. Y a la inversa, como el servicio del diablo tiene muchos sacrificios, no quisiera él que nos apercibiésemos de ellos; mas como también tiene cierto placer, él quisiera que tuviésemos esto siempre presente y ante nuestros ojos.

Así los judíos, cuando salidos del cautiverio de Egipto andaban libres y a su talante, saciándose con manjar del cielo, porque les vino una apetencia de comer carne, y dicha apetencia no la realizaban tan pronto como querían, empezaron a decir que querían volver a Egipto, a su anterior cautividad, porque decían que allí se hartaban de puerros, cebollas y ajos. No consideraban la mala vida que pasaban en aquel cautiverio; y sí, en cambio, la poca cosa que tenían entre manos o el deseo desordenado; y por eso quisieron tornar a su antiguo lugar o miseria. Porque tal es la malicia del diablo: nos pone ante suestros ojos el placer del pecado; y nos oculta el desplacer. Nos pinta el trabajo de la virtud, pero no nos pinta la ganancia.

Si pusiéramos en la balanza la virtud y el vicio, y las andanzas, los pros y los contras tanto de la virtud como del vicio. y los considerásemos como se deben, no creo que pueda encontrarse en el mundo quien pueda pecar.

Dirás que la virtud. el servicio de Dios lleva consigo un cierto sacrificio y dolor; y que el pecado y la vida de pecado tiene, en cambio, cierto gusto y placer; que por consiguiente es mejor el placer del pecado que el desplacer de la virtud. No hay tal. Porque, como dice San Agustín: "Nec per latam viam diu gaudetur, nec per asperam et angustam longo tempore laboratur. Quia et ipsi per brevem tristitiam accipiunt vitam aeternam, et illi per parvum gaudium patiuntur sine fine supplicium" (August. serm. 55 de temp. t. 10). Las fatigas y trabajos de la virtud son breves; como también lo son los placeres y goces del pecado. Mas el breve trabajo de la virtud tiene tras de sí una gloria larga y sempiterna, como también el mezquino placer del

eta zein handia Deabruaren zerbitzuan, ifernuko bidean, iragaiten den nekea eta trabaillua.

§ 5

334 Nola Iainkoaren zerbitzatzeko bidea, gogotik dagoenarentzat, baita plaun eta zabal, ezluke nahi Deabruak zabaltasun hari beha giniazon; baina zenbait mehartasun eta buruz gora ere baitu, hura nahi luke ikhus genezan. Eta berriz bertze aldera, nola Deabruaren zerbitzatzeak, baitu anhitz trabaillu, ez luke nahi Deabruak genegien trabaillu hetzaz konturik: baiña atsegin ere zenbait baitu, hura nahi luke bethi geure gogoan eta begien aitzinean eduki genezan. Hala Iuduak Ejiptoko gathibutasunetik iltkirik, libre eta bere gogara, zeruko ianhariz asetzen zirela zebiltzanean, zeren ethorri zeien haragi iateko gutizia bat, eta gutizia hura etzuten nahi bezain fite konplitzen, hasi ziren erraiten, bihurtu nahi zutela Ejiptora, bere leheneko gathibutasunera: Zeren han porruz, tipulaz eta baratxuriz asetzen zirela. Etzuten konsideratzen gathibutasun hartan iragaiten zuten bizitze gaixtoa, baina bai eskuen artean zuten eskasia aphurra, edo desira desordenatua: eta halatan bere leheneko tokira eta miseriara bihurtu nahi zuten. Zeren haur da Deabruaren malizia, ibentzen deraku geure begien aitzinean bekhatuaren plazera, baina ez desplazera. Pintatzen deraku berthutearen trabaillua, baina ez irabazia.

behatu

kontu egin

Iudu gathibutasun


gutizia

porru baratxuri

Baldin berthutea eta bizioa, eta berthutearen eta bizioaren ioan ethorriak, onak eta gaitzak, iben baginitza bi balantzatan, eta konsidera behar lizen moldean, eztut uste ediren litekeiela munduan, bekhatu leidikeienik.

Erranen duzu, baduela berthuteak, Iainkoaren zerbitzatzeak, zenbait pena eta trabaillu; eta bai bekhatuak eta bekhatutan ibiltzeak ere atsegin eta plazer, beraz hobe dela bekhatuaren plazera, berthutearen desplazera baiño. Ez horrelakorik. Zeren San Agustinek dioen bezala: *Nec per latam viam diu gaudetur, nec per asperam et angustam longo tempore laboratur. Quia et isti per brevem tristitiam accipiunt vitam aeternam, et illi per parvum gaudium, patiuntur, sine fine supplicium* (August. serm. 55 de tempore, Tom. 10). Berthutearen nekeak eta trabailluak labur dira, eta bai bekhatuaren atseginak eta plazerak ere. Ordea berthutearen trabaillu laburrak ondotik du loria luzea eta sekulakoa, eta

loria



pecado tiene un castigo grande y sin fin. Por lo tanto, es preferible el desplacer de la virtud al placer del pecado.

335 Así como el que anda fatigado y abrumado de trabajos, si después espera tener una gran ganancia o un cargo honroso, no siente nada todas estas fatigas y sacrificios: así también a la inversa, el que anda en placeres y contentos, si sabe que hay para él dispuesto un gran castigo, no es posible que en dichos placeres pueda hallar placer completo. Por el contrario, entonces el placer se le vuelve aflicción.

Un hombre, cuando lo llevan a la horca, por más que tenga buenas comidas y mejores bebidas, y aunque el camino de la horca sea hermoso, llano, agradable, y aunque lo vea lleno de árboles verdes, de sombra y de encantos, ¿qué placer puede recibir de todas estas cosas? Parece que San Agustín le está diciendo a este tal: "Noli attendere qua iturus es, sed quo iturus es" (August. in Psalm. 36. t. 3): No mires por dónde tienes que pasar, pero mira a dónde tienes que ir. No mires al hermoso camino de la horca, pero mira a la misma horca, adonde tienes que venir a parar.

Del mismo modo, tú también, cuando vas a cometer un pecado, no mires al placer que recibes al cometerlo, pero mira a la consecuencia que viene tras de aquel placer, al lugar a donde él te lleva y la aflicción que él te va a ocasionar.

Si el que va a cometer un pecado considerara cuántos dolores y aflicciones tiene que pasar al cometer dicho pecado y después de haberlo cometido, ¿qué contento, qué sabor, placer ni gusto podría recibir del mismo?

336 La virtud, el servicio divino, la vida honesta, tiene un final bueno, y aunque suponga algún sacrificio, éste es pequeño y breve; y aún este breve sacrificio lo aligera, lo disminuye y lo endulza la seguridad de la recompensa y de la felicidad postrera; el hacerlo a gusto, por amor y voluntariamente, y sobre todo la ayuda y el favor de Dios. Pero en los pecados y en los placeres y obras pecaminosas todas estas cosas son al revés: en éstas el placer es pequeño y breve, y el desplacer postrero es grande, prolongado, eterno y perdurable.

Por lo tanto, consideradas bien todas estas razones, puesta cada una en su balanza, es seguro que el camino del paraíso es más fácil que el del infierno; y que el que se condena, tiene que pasar para con-

bai bekhatuaren atsegin aphurrak ere, gaztigu handia eta fin gabekoa. Beraz hobe da berthutearen desplazera, bekhatuaren plazera baiño.

335 Nola penatan eta trabaillutan denak, baldin gero ondoan irabazi handi bat edo kargu ohorezko bat uste badu, ez paititu pena eta trabaillu hek guztiak deus sentitzen; hala heken ondoan senti badu gaztigu handi bat harentzat prestatua dagoela, ezta posible, atsegin hetan, atsegin osorik har ahal dezakeien. Aitzitik orduan, atsegina, atsekabe bihurtzen zaika.

senti izan

urkhabe

Gizon batek, urkhabera daramatenean, ianhari onak eta edari hobeak izanagatik, eta urkhabeko bidea ere, bide ederra, plauna, plazenta, zuhaitz berdez, itzalez eta plazerez bethea ikhusiagatik, zer plazer ahal duke hetan guztietan? Badirudi erraiten dioela halakoari San Agustinek: *Noli attendere qua iturus es, sed quo iturus es* (August. in Psalm. 36, Tom. 3). Eztezazula beha nondik iragan behar duzun, baiña beha ezazu, nora behar duzun. Eztiazozula beha urkhabeko bide ederrari, baiña beha iazozu urkhabeari, baratu behar duzun lekhuari.

Hala bada zuk ere bekhatu baten egitera zoazinean eztiazozula beha bekhatuaren egitean hartzen duzun atseginari, baiña beha iozozu haren ondoko ondoreari, atsegin hark eramaiten zaituen lekhuari eta emanen deratzun atsekabeari.

ondoko ondore


Bekhatu baten egitera dohanak konsidera baleza, zenbat pena eta atsekabe iragan behar duen bekhatu haren egitean eta egin ondoan; zer gozo, zer zaphore, zer atsegin eta plazer har ahal liazaio bekhatuari?

336 Berthuteak, Iainkoaren zerbitzatzeak, prestuki bizitzeak, ondore ona du, eta zerbait trabaillu badu ere, du aphurra eta laburra: eta labur hura ere arintzen, gutitzen eta gozatzen du, ondoreko irabaziaren eta plazentziaren segurantzak; gogotik, amorioz eta borondatez egoiteak, eta guztien gaiñetik Iainkoaren laguntzak eta faboreak. Baiña bekhatuetan eta bekhatuzko plazeretan eta obretan gauza hauk guztiok dira kontrara: hetan plazera da ttipi eta labur, eta ondoko desplazera handi, luze, eterno eta sekulako.

plazentzia

Eta hala arrazoin hauk guztiok ongi konsideraturik, bat bedera bere balanzan ibenirik, segur da parabisuko bidea errazago dela, ifernukoa baino; eta ifernuratzen denak, pena eta trabaillu gehiago iragan behar duela

Ifernu



denarse más fatigas y sacrificios que los que pasa para salvarse el que va al cielo.

Por consiguiente, a fin de ir de un paraíso a otro paraíso, de una vida buena a otra mejor, deberíamos desde hoy mismo, sin aplazarlo para luego, elegir, abrazar con toda nuestra alma y corazón la santa ley de Dios —que es yugo tan suave y carga tan ligera— y con esto esforzarnos a vivir de tal manera que después no nos haya de pesar.

QUE NO SE DEBE DIFERIR LA CONFESION INDEFINIDAMENTE

CAPITULO LI

337 Si leemos y consideramos bien la Sagrada Escritura, hallaremos que jamás se ha salvado ni se salvará ninguno sin haberse confesado de una u otra forma.

Desde siempre, en todas las leyes y en todos los tiempos se ha practicado y se practica la confesión. Pero con diferencias; no en la misma forma. La confesión de la ley natural era como una sombra de la confesión actual. La de entonces era un signo de la de ahora, una figura, una pintura y un tipo de ésta. En la ley natural bastaba el confesarse y pedir perdón al mismo Dios, con un arrepentimiento *de corazón y con ciertas demostraciones exteriores* que se le ocurrían a cada uno en su interior, valga por ejemplo un alzar los ojos o un ponerse de rodillas.

Llamó el Señor Dios a Adán y le preguntó a ver dónde estaba. "Vocavit Dominus Deus Adam, et dixit: Ubi es?" Y esta pregunta no la hizo, por cierto, porque no lo supiera, sino para que de este modo Adán conociera su pecado y, conociéndolo, lo confesara. Y porque no lo confesó como se debía, sino que lo quiso excusar y paliar diciendo que le había inducido su mujer, por eso, al menos en parte, recibió tantos males y daños. Del mismo modo se

ifernuratzeko, ezen ez parabisuratzen denak, parabisuratzeko.

Beraz hunelatan parabisutik parabisura, bizitze on batetarik, hobeagora ioaiteagatik ere, behar genduke egun beretik, geroko begira egon gabe, Iainkoaren lege saindua, hain uztarri emea eta karga arina, geure gogo eta bihotz guztiaz hautatu, besarkatu eta halatan gero urrikirik eztukegun bezala bizitzera enseiatu.

urriki



NOLA EZTEN KOFESATZEA GEROTIK GERORA LUZATU BEHAR
KAP. LI

kritura saindu egundaiño

337 Baldin skritura saindua ongi irakur eta konsidera badezagu, edirenen dugu, eztela egundaiño nehor salbatu, eta ez salbatuko ere, aldez edo moldez kofesatu gabe.


Egundaiñoz geroz, lege guztietan, eta mende guztietan usatu da eta usatzen da kofesatzea. Diferentki ordea, ez berdin. Lege naturaleko kofesatzea, oraiko kofesatzearen itzala bezala zen. Ordukoa zen oraikoaren seinale bat, figura bat, pintura bat, eta signifikantza bat. Lege naturalean asko zen bihotzezko urrikimendu batekin, eta bat bederari bere gogoak, bere baithan barrena, ziotsan kanpoko zenbait seiñalerekin, kontu egizu begi ailtxatze batekin, edo belhaurikatze batekin, Iainkoari berari kofesatzea eta barkhamendu eskatzea.

signifikantza

belhaurikatu

Deitu zuen Iainko Iaunak Adan, eta galdegin zuen ea non zen: *Vocavit Dominus Deus Adam, et dixit: Ubi es?* Eta galdegite hura etzuen ez egin, iakin gabez, baiña halatan bere bekhatua ezagun zezan, eta ezaguturik kofesa zezan amoreakgatik. Eta zeren ezpaitzuen behar zen bidean kofesatu, baiña desenkusatu eta ederztatu nahi izatu baitzuen, errairen zuela ezen bere emazteak eragin zeraukala, halatan parte bat bedere, hanbat kalte eta damu errezibitu zuen. Molde berean edireiten da,

desenkusatu



encuentra que preguntó también a Caín, cuando mató a su hermano Abel: "Ubi est Abel frater tuus?" ¿Dónde está tu hermano Abel? ¿Y por qué le preguntó esto? A fin de que recordara su pecado, y, recordándolo, lo confesara. Y porque no lo confesó, sino que lo negó, por esto vino a ser tan miserable y desdichado, y andando desterrado por el mundo, al fin se condenó. Tanto Adán como Caín pertenecían a la ley natural, al tiempo en que los hombres vivían conforme a su naturaleza, sin ninguna norma ni doctrina escrita.

Mas como la misma naturaleza enseña que es preciso vivir conforme a la razón, y evitando el mal, tratar con Dios y confesarle a El sus propias faltas, por eso, de algún modo, aun en la ley natural, ninguno se salvaba sin confesarse al menos de deseo y corazón con ciertos signos. Es verdad que aún no existía entonces ningún ritual determinado de confesión. Así lo dice Santo Tomás: "Sicut in statu legis naturae homines nulla lege exterius data, sed solo interiori instinctu movebantur ad Deum colendum, ita etiam ex interiori instinctu determinabatur eis, quibus rebus sensibilibus ad Dei cultum uterentur" (S. Thom. 3 p. q. 60, art. 3, ad. 3). Bastaba con el arrepentimiento interno y con exteriorizar y dar a entender el arrepentimiento con algunos signos exteriores, los que a cada cual le parecían mejor. No había todavía ningún otro modo de confesión ni ningún remedio establecido y decretado por escrito.

338 Pero después, cuando el mundo avanzó un poco más hacia adelante, cuando, saliendo de la ley natural, llegó a la Ley escrita en tiempo de Moisés, empezó a estilarse otro modo de confesión. Entonces ya no era suficiente el que cada uno exteriorizara su arrepentimiento y su dolor interno con el signo que quisiera; sino que el dicho dolor interno y arrepentimiento debía declararlo y darlo a entender con algunas ofrendas y sacrificios, y no con cualesquiera, sino con aquellos que estaban determinados por escrito al efecto. Existían en la Ley Antigua escrita sacerdotes y encargados del Templo. Y cuando una persona cometía un pecado, debía hacer ciertas ofrendas y sacrificios ante esos Sacerdotes por dicho pecado, con arrepentimiento y voluntad de no cometerlo más, y dar con ello a entender que era pecador. Así se ordenaba en ciertos capítulos del

159 *Kidarik* (sic). Hunela dator, bai lehen eta bai 2. edizioan ere. Hitz hau, *kida, Axular-en Hiztegia*-n ez dago jasoa.

anaia galdegin zioela Kaini ere, bere anaia Abel hil zuenean: *Ubi est Abel frater tuus?* Non da zure anaia Abel? Eta zergatik galdegin zeraukan hunela? Bere bekhatua gogora zezan eta gogorarik kofesa zezangatik. Eta zeren ezpaitzuen kofesatu, baina ukhatu baitzuen, halatan hain on behar eta urrikalkizun egin zen, eta mundutik desterratua ibilirik, azkenean kondenatu zen. Bada Adan eta Kain ere lege naturalean ziren, iendeak bere naturalezaren arauaz, eskiribuzko kidarik[159] eta erakuslerik ere gabe, bizitzen ziren denboran.

kondenatu

eskiribuzko

Ordea zeren naturalezak berak ere, erakusten baitu, behar dela arrazoinaren arauaz bizi, gaizki egitea utzirik, Iainkoarekin eduki, eta hari bere faltak aithortu; halatan etzen lege naturalean ere, zerbait moldez, gogoz eta bihotzez bedere, zerbait seinalerekin, kofesatu gabe, nehor salbatzen. Egia da, etzen oraino orduan kofesatzeko zirimonia seinalaturik. Hala erraiten du San Tomasek: *Sicut in statu legis naturae, homines nulla lege exterius data, sed solo interiori instinctu, movebantur ad Deum colendum, ita etiam ex interiori instinctu determinabatur eis, quibus rebus sensibilibus, ad Dei cultum uterentur* (S. Thom. 3. p. q. 60 art. 3. ad 3). Asko zen barreneko urrikimendua, eta urrikimendu haren, bat bederari bere baithan iduritzen zeikan kanpoko zenbait seinalerekin agertzea eta signifikatzea. Etzen oraino orduan bertze kofesatze molderik eta ez erremedio eskiribuz ezarririk eta ibenirik.

338 Baiña gero, mundua aphur bat aitzinago iragan zenean, lege naturaletik ilkirik, lege eskiribatura, Moisenen denborara heldu zenean, hasi zen usatzen bertze kofesatze molde bat. Etzen ia orduan asko bat bederak, bere barreneko damuaren eta dolorearen, plazer zuen seinalearekin kanpoan agertzea. Baina behar zuen barreneko dolore hura eta urrikimendua, zenbait oferendaz eta sakrifizioz, eta ez ez, zeinetzaz nahi zen, baina hartako eskiribuz ordenaturik zeudezinez deklaratu eta eman aditzera. Baziren lege zahar eskiribatuan Sazerdoteak, eta tenploko kargudunak. Eta presuna batek bekhatu bat egiten zuenean, behar zuen bekhatu huragatik, urrikimendu batekin, eta gehiago ez egiteko borondatearekin, Sazerdote heken aitzinean, ègin zenbait oferenda eta sakrifizio, eta hartan eman aditzera, bekhatore zela. Hala manatzen zen lebitikoaren kapitulu batzuetan. Eta are hetan seiñalatzen ziren, bekhatuei ze-

oferenda

sazerdote

bekhatore



Levítico (Vid. Levit. c. 3, 4, 5 et 6). Y en ellos se determinaban las ofrendas y sacrificios que correspondían a los pecados.

No había aún entonces, como lo hay ahora, ningún mandamiento de confesar sus pecados especialmente a nadie ni ninguna necesidad de decir cómo, cuándo y cuántos se han cometido. Bastaba entonces el hacer las ofrendas y sacrificios que mandaba la ley con un cierto arrepentimiento. Este era el modo de confesión que había entonces. Cuando el rey David pecó con mujer ajena, y a fin de encubrir dicho pecado hizo matar al marido de aquella mujer, dice la Glosa refiriéndose a él: "Ex verecundia enim non aperiebat peccata sua, faciendo pro eis sacrificia in Lege praecepta, quae pro variis peccatis varie imponuntur" (Glos. Lyrana in Ps. 31): El rey David por vergüenza y por no descubrirse dejaba sin cumplir los sacrificios que estaban ordenados por sus pecados. Y no los cumplió nunca hasta que el profeta Natán vino a amenazarle y reprenderle. Mas entonces, venciendo la vergüenza, cumplió todas las ofrendas y sacrificios requeridos y con esto consiguió el perdón. Y es que también entonces, en la Ley Antigua escrita, *se debían hacer las ofrendas* y sacrificios que para remediar los pecados estaban señalados; y ésta era la manera de confesión que había entonces.

§ 1

339 Actualmente, en la Ley nueva, después de promulgado el Santo Evangelio, se estila entre los cristianos otro modo de confesión, que se hace ante el sacerdote, y es más seguro y eficaz y más precioso que el de la ley natural y el de la escrita. Porque para decirlo en una palabra, en la confesión actual obra la muerte y Pasión del Señor Jesucristo. Cuando confiesas el pecado y el sacerdote te da la absolución, allí está al punto el mérito y el precio de la Pasión de Jesucristo; allí está al instante su gracia y favor, y juntamente con él el perdón del pecado.

Dos razones pueden darse principalmente para probar que la confesión actual tiene más eficacia que la de la Antigua Ley. Primera: porque la confesión actual tiene de suyo fuerza para dar gracia, cosa que no tenía la de la Antigua Ley. La confesión de la Antigua Ley y los demás Sacramentos de entonces no daban por su fuerza y virtud gracia alguna;

gozten oferendak eta sakrifizioak (Vide Ievit. cap. 3. 4. 5 & 6).

beregainki

Etzen oraiño orduan, orai den bezala, nehori beregainki bere bekhatuen kofesatzeko manurik, eta ez nola, noiz eta zenbat egin zituen erraiteko premiarik. Asko zen orduan urrikimendu batekin, legeak manatzen zituen oferenden eta sakrifizioen egitea. Hura zen orduko kofesatze moldea. Errege Davitek bertzeren emaztearekin bekhatu egin zuenean, eta bekhatu haren estalzeagatik, emazte haren senharra hil arazi zuenean, erraiten du Glosak, haren gainean: *Ex verecundia enim non aperiebat peccata sua, faciendo pro eis sacrificia in lege praecepta, quae pro variis peccatis, varie imponuntur* (Glos. Lyrana in Ps. 31). Errege Davitek ahalkez, eta bere buruaren ez nabarbentzeagatik, utzten zituen egin gabe, haren bekhatuentzat ordenaturik zeuden sakrifizioak. Eta etzituen behin ere egin, Natan profeta mehatxatzera eta eranzute egitera, ethor zekidikaion arteiño. Baiña bai orduan, ahalkea benzuturik, egin zituen behar ziren oferendak eta sakrifizio guztiak, eta gero hekin batean erdietsi zuen barkhamendu. Zeren orduan ere, lege zahar eskiribatuan ere, egin behar ziren, bekhatuen erremediatzeko, ordenaturik zeuden oferendak, eta sakrifizioak; eta hura zen, orduko kofesatze moldea.

senhar

nabarbendu

§ 1


giristino

339 Orai lege berrion, Ebanjelio saindua deklaratuz gero, usatzen da giristinoen artean, bertze kofesatze molde bat, aphezaren aitzinean egiten dena. Lege naturalekoa, eta eskiribatukoa baiño seguragoa, indartsuagoa, eta baliosagoa. Zeren hitz batez erraitera, oraiko kofesatzean, obratzen baitu Iesu Kristo Iaunaren heriotzeak, eta pasioneak. Bekhatua kofesatzen duzunean, eta aphezak absolbazinoa emaiten deratzunean han da berehala Jesukristoren pasioneko meritua eta balioa, han da berehala haren garazia, eta faborea, eta harekin batean bekhatuaren barkhamendua.

absolbazino

Bi arrazoin eman ahal ditezke prinzipalki, frogatzeko oraiko kofesatzeak indar gehiago duela, lege zaharrekoak baiño. Lehenbizikoa: zeren oraiko kofesatzeak, lege zaharrekoak etzuena, badu bere baithan barrena indar, garazia emaiteko. Lege zaharreko kofesatzeak, eta orduko bertze sakramenduek etzuten berék bere indarrez, eta berthutez garaziarik emaiten: baiña

sakramendu



la gracia que daban la daban, según la disposición, devoción y aparejo que tuviera el que los recibía. "Sacramenta veteris Legis conferebant gratiam ex opere operantis". Según cómo se preparaban para recibirlos, así recibían. Mas la confesión y los Sacramentos actuales comunican la gracia y favor que corresponde a nuestra disposición y preparación, y lo que es más aún, los mismos sacramentos reparten de lo que tienen dentro de sí; y también nosotros recibimos nuestra parte, si nosotros mismos por nuestra parte no ponemos óbice. "Sacramenta Novae Legis conferunt gratiam ex opere operato.

340 Una segunda razón puede darse para probar que la confesión actual tiene más eficacia que la de la ley Antigua: y es que en la confesión de entonces, si había de obtenerse el perdón, hacía falta tener un dolor superior, un arrepentimiento de corazón, tenido y concebido por motivo del mismo Dios y por amor a El, que se llama "contritio", contrición, un arrepentimiento de calidad superior a todos los arrepentimientos. Empero en la confesión actual es suficiente, juntamente con la absolución del sacerdote, un dolor diferente de la contrición, nacido del temor de perder la gloria del Paraíso o de ir a los tormentos del infierno, el cual se llama "atritio", atrición. "Ex attrito per Sacramentum fit contritus". En la confesión actual basta con creer que tiene contrición. Porque aunque no tenga más que atrición, el Sacramento suple la falta e insuficiencia que hay de por medio; lo cual es un punto digno de consideración y un gran favor en orden a la salvación.

Tan grande, que con razón pregunta el profeta Jeremías. "Numquid resina non est in Galaad? Aut medicus non est ibi? Quare igitur non est abducta cicatrix filiae populi mei?" (Jer. 8): ¿Qué es esto? ¿No hay resina o triaca en la ciudad de Galaad, o no hay médico allí? ¿Cómo es que la herida de la hija de mi pueblo no se ha curado? Quiere decir: habiendo en el pueblo cristiano para curar la enfermedad del alma, un remedio tan grande y una medicina tan a mano, como es la confesión; y habiendo asimismo tantos barberos y médicos, como son los confesores; ¿cómo es que a pesar de ello se encuentra tanta herida y enfermedad?, ¿tanto pecado y maldad? ¿Y cómo es que no se curan más rápidamente? ¿Cómo es que durante todo el año, y a veces aún más, se encuentran podridos y apestados en la enfermedad del pecado? La Glosa contesta:

160 *Eskuarra.* Hunela jarri zen hitz hau *Axular-en Hiztegia*-n. Badirudi, ordea, *Eskuar* dela hitza.

aparaillu

emaiten zuten garazia, emaiten zuten, errezibitzen zituenak zuen disposizionearen, debozinoaren, eta aparailluaren arauaz. *Sacramenta veteris legis conferebant gratiam ex opere operantis.* Nola prestatzen baitziren errezibitzeko, hala errezibitzen zuten. Baina oraiko kofesatzeak eta sakramentuek emaiten dute gure disposizioneari, eta prestatzeari dagokan garazia, eta faborea, eta are gehiago, sakramenduek berèk bere baithan dutenetik ere errepartitzen dute; eta errezibitzen dugu guk ere parte hura, baldin gerok geure aldetik, traburik ibentzen ezpadugu. *Sacramenta novae legis conferunt gratiam ex opere operato.*

trabu

340 Bigarren arrazoina eman ahal diteke frogatzeko, oraiko kofesatzeak indar gehiago duela, lege zaharrekoak baino. Zeren orduko kofesatzean, baldin erdietsiko bazen barkhamendurik, behar zen dolore fin bat, bihotzezko urrikimendu bat, Iainkoa beragatik, eta harenganako amorioakgatik izana eta hartua, zein deitzen baita: *Contritio,* kontrizionea, urrikimendu guztien gaineko urrikimendua. Baina oraiko kofesatzean asko da, aphezaren absolbazinoarekin batean, kontritioneaz bertze dolore molde bat, parabisuko loriaren galtzeko, edo ifernuko penetara ioaiteko beldurtasunetik heldu dena, zein deitzen baita: *Atritio,* Atrizionea. *Ex attrito per sacramentum fit contritus.* Asko da oraiko kofesatzean uste izaitea baduela kontrizionea. Zeren ezpadu ere atrizionea baizen, konplitzen du sakramenduak bitartean den falta, eta eskastasuna: Zein baita konsideratzeko pontua, eta salbatzeko fabore handia.

kontrizione


aphez

Hain handia, ezen arrazoinekin galdegiten baitu Ieremias Profetak: *Numquid resina non est in Galaad? aut medicus non est ibi? Quare igitur non est obducta cicatrix filiae populi mei?* (Ier. 8). Zer da haur? Ez othe da arroxinarik edo atriakarik Galaadteko hirian, edo midikurik han berean? Nolatan bada ene herriko alabaren zauria ezta sendatu? Erran nahi du: Giristino herrian, arimako eritasunaren sendatzeko, hain erremedio handia, eta midizina eskuarra[160] den lekhuan, zein baita kofesionea; eta halaber hanbat barber, eta midiku, zein baitira kofesorak, nolatan guztiarekin ere, edireiten da hanbat zauri, eta eritasun? Hanbat bekhatu, eta gaixtakeria? Eta nolatan eztira fitetzago sendatzen? Urthe guztian, eta batzutan gehiago ere, bekhatuaren eritasunean ustelduak, eta khirastuak baitaude? ihardesten

arroxina atriaka

eskuar kofesione

khirastu



"Populus nolebat audire medicum, nec ejus recipere medicinam" (Glos. Lyr. in c. 8 Jerem.): No se curan porque no se empeñan, porque no van al médico a recibir consejo y medicina. Quiere decir: No se confiesan como es debido ni se acercan al confesor.

341 La confesión es el remedio para curarse de la enfermedad del alma. Una vez que se ha perdido el barco, ¿qué remedio le queda al marinero para salvarse? El asirse a un trozo de madera, el tomar una tabla y juntamente con ella, agarrado a ella, ganar la costa a nado. "Poenitentia est secunda post naufragium tabula". La confesión, para el que ha caído en pecados y padecido tormenta, es como esa tabla que se coge después de haber perdido el barco. "Si poenitentiam non egeritis, omnes simul peribitis" (Lc. 13), dice el Evangelista San Lucas: Si no hacéis penitencia, todos a una acabaréis mal. Pues bien: una de las partes de la penitencia es la confesión. Por consiguiente, para no acabar mal, es preciso confesarse.

El pecado es la llaga y el tumor del alma. Y cuando el tumor se abre y revienta por fuera, hay esperanza de que curará. Pero cuando se queda por dentro y se endurece, es peligroso. Del mismo modo es peligroso el pecado que sin confesarlo queda dentro y se endurece. Por eso pregunta y responde San Gregorio: "Quid est peccatorum confessio, nisi quaedam vulneris ruptio? Et confitendo peccata, quid facimus nisi malum quod intus latebat aperimus?" (Greg. Hom. de divite et Lazar.): ¿Qué es la confesión de los pecados sino reventar la llaga o el tumor? ¿Y qué otra cosa hacemos al confesar sino revelar el mal y la enfermedad que está oculta en el interior?


Una vez caído en el pecado, el primer remedio es la confesión. Porque sin confesarse (o, cuando no es posible confesarse, sin la voluntad de confesarse) no se puede tener ni contrición ni el arrepentimiento necesario. Así lo dice San Agustín: "Initium operum bonorum, confessio est operum malorum" (Aug. tract. 32 in Io. Tom. 9): El principio de las obras buenas es la confesión de las obras malas.

du Glosak: *Populus nolebat audire medicum, nec recipere medicinam* (Glosa Lyr. in cap. 8 Jerem.). Eztira sendatzen, zeren ezpaitira enseiatzen, ezpaitira midikuagana konseillatzera, eta midizinaren errezibitzera ioaiten. Erran nahi du, ezpaitira behar bezala kofesatzen, eta ez kofesoragana hurbiltzen.

341 Arimako eritasunetik sendatzeko, erremedioa da kofesatzea. Untzia galduz gero, zer erremedio izanen
thaula du marinelak salbatzeko? Zur puska bati lotzea, thaula baten edo ohol baten atrapatzea, eta harekin batean,
ieri hari datxekala, ieri kostaren atrapatzea. *Poenitentia est secunda post naufragium tabula.* Untzia galdu ondoan atrapatzen den thaula haren pare da, bekhatutan erori, eta tormentatu denarentzat, kofesatzea. *Si poenitentiam non egeritis omnes simul peribitis,* dio San Lukas Ebanjelistak (Lc. 13). Baldin egiten ezpaduzue penitentzia, guztiok fin gaitz elkharrekin eginen duzue. Bada penitenziaren partétarik bat da kofesatzea, beraz ez fin gaitz egitekotz, behar da kofesatu.

handitsu Bekhatua da arimaren zauria, eta handitsua. Eta handitsua irazten denean, eta kanporat lehertzen, esperantza sendatuko dela. Baiña barrenean gelditzen de-
perilos nean eta gogortzen, perilos da. Hala izanen da bada halaber perilos, kofesatu gabe barrenean gelditzen, eta gogortzen den bekhatua ere. Halatan galdegiten du, eta ihardesten ere bai, San Gregoriok: *Quid est peccatorum confessio, nisi quaedan vulneris ruptio? Et confitendo peccata quid facimus, nisi malum quod intus latebat aperimus?* (Greg. Hom. de divite et Lazar.). Zer da bekhatuen kofesatzea, zauriaren edo handitsuaren lehertzea baizen? Eta zer egitĕn dugu bekhatuaren kofesatzeaz, barrenean estalirik zegoen gaitzaren, eta eritasunaren agertzea baizen?

Bekhatutan eroriz gero, lehenbiziko erremedioa, kofesatzea da. Zeren ezin dateke kontritionerik, eta ez behar den bertze urrikimendurik, kofesatu gabe: edo, ezin kofesa ditekeienean, kofesatzeko borondatea gabe. Hala erraiten du San Agustinek: *Initium operum bonorum, confessio est operum malorum* (Aug. Tract. 32 in Io. Tom. 9). Obra onen hastea, obra gaixtoen kofesatzea da.



§ 2

342 Si la confesión de las obras malas es el principio de las obras buenas, ¿cómo o de qué manera se ha de hacer esta confesión? Pregúntaselo al profeta Jeremías. Porque él lo esseña en el segundo capítulo de los llantos y lamentaciones que hizo sobre la ciudad de Jerusalén, diciendo: "Effunde cor tuum sicut aquam in conspectu Domini" (Thren. 2): Derrama tu corazón como agua delante de Dios.

Quiere decir: con un pesar de las faltas cometidas y con propósito de no cometerlas más, en presencia del confesor que Dios tiene puesto como representante suyo, confiesa, arroja, afea y derrama todos los pecados que has hecho, dicho y pensado. No dice que derrames tus pecados a manera de aceite, de miel o de vino. ¿Cómo ha de ser pues? "Sicut aquam": como agua. Porque no hay manjar ni bebida alguna que tan pura y totalmente se vacíe, se derrame y seque como lo hace el agua. Cuando vacías miel o aceite, siempre se le queda al recipiente algún resto o resabio. Cuando vacías vino, por más que seques todo lo posible, le queda por lo menos el olor. Pero del agua no queda ni resabio ni olor. Totalmente se vacía, se seca y se limpia. Así, pues, también nosotros, cuando confesamos nuestros pecados debemos totalmente vaciar, secar, limpiar nuestra alma y corazón de todas las malas intenciones, y así, como un recipiente donde ha habido agua, quedarnos sin ningún resto, resabio, sin olor ni hedor del pecado.

Empero, esta confesión, ¿cuántas veces se ha de hacer? ¿Será suficiente, difiriéndola para después, hacerla una vez al año?

Siendo así que este mandamiento de la confesión ha sido dado por el mismo Dios, es preciso cumplirlo alguna vez, sea cuando fuere. Y así, en la hora de la muerte, o cuando vemos que si dejamos pasar la ocasión que tenemos entre manos, no podríamos confesarnos jamás; entonces, por cumplir el precepto de Dios, es preciso confesarse. Mas porque parece que cuando nuestro Dios dio este precepto de la confesión tuvo intención y voluntad de que nos confesáramos algunas veces, aunque no estuviéramos en peligro de muerte —pues de la confesión se originan muchos bienes—, por eso la Iglesia ha prestado siempre atención a este punto; y ha ordenado dife-

§ 2

342 Obra onen hastea baldin bada, obra gaixtoen kofesatzea, kofesatze haur nola edo zer moldez egin behar othe da? Galdegiozu Ieremias Profetari. Zeren hark Ierusalemeko hiriaren gaiñean egin zituen nigarren, auhenen, eta dolamenen bigarren kapituluan erakusten du, erraiten duela: *Effunde cor tuum sicut aquam in conspectu Domini* (Thren. 2). Isurezazu zeure bihotza, ura bezala, Iainkoaren aitzinean.

auhen
dolamen


Erran nahi du: Lehen eginen urrikimenduarekin, eta gehiago ez egiteko borondatearekin, Iainkoak bere lekhuan ibenirik dadukan kofesoraren aitzinean, kofesa, egotz, afen, eta isur ditzatzula, egin, erran, eta pensatu dituzun bekhatu guztiak. Eztu erraiten, isur ditzatzula zeure bekhatuak, olioa bezala; eztia bezala, edo arnoa bezala. Nola bada? *Sicut aquam.* Ura bezala. Zeren ezta ianharirik, eta ez edaririk ura bezain garbiki, eta osoki hutsten, isurtzen, eta xutkatzen denik. Eztia hutsten duzunean, edo olioa, gelditzen zaika bethiere untziari, zenbait hondar edo kutsu. Arnoa hutsten duzunean ere, ahal guztia xutkatuagatik, gelditzen da usaina bedere. Baiña uretik ezta gelditzen kutsurik, eta ez usainik. Alde guztiz hutsten, xutkatzen, eta garbitzen da. Hala bada guk ere geure bekhatuak kofesatzen dituzunean, behar dugu geure gogoa, eta bihotza, intenzione gaixto guztietarik, alde guztiz hutstu, xutkatu, garbitu; eta halatan, ura egotu den untzia bezala, bat ere hondarrik, kutsurik, eta bekhatuaren usainik, eta urrinik gabe gelditu.

kofesor
arno
xutkatu
urrin

Ordea hunela kofesatze haur, zenbatetan egin behar othe da? Asko othe da geroko luzaturik, urthean behin kofesatzea?

Nola kofesatzeko manamendu haur, Iainkoak berak emana baita, konplitu behar da, noiz izanen baita ere, noizbait. Eta hala heriotzeko orenean, edo dakusagunean, utzten badugu eskuen artean dugun okhasinoa iragaitera, ezkaitezkeiela sekulan kofesa, orduan Iainkoaren manuaren konplitzeagatik ere, behar dugu kofesatu. Ordea zeren baitirudi, ezen kofesatzeko manamendu haur gure Iainkoak eman zuenean, izan zuela intenzione, eta borondate, kofesa gindezin zenbait aldiz, heriotzeko perilean ezkinenean ere, zeren kofesatzetik anhitz ontasun sortzen baita; halatan Elizak, eduki du bethiere pontu hunez kontu: eta ordenatu du dife-

oren



rentemente, según la diversidad de los tiempos, cuándo y cuántas veces debemos confesarnos, aunque no nos hallemos en trance de muerte ni en peligro de ella.

343 Anteriormente, en el tiempo de los Apóstoles, y aun después de muertos los Apóstoles, en aquella primera época, había una devoción tan grande y ferviente, que diariamente recibían el Sagrado Cuerpo, y para ello, los que tenían algún pecado, asimismo se confesaban diariamente. Mas como después, a la postre, empezó la devoción a enfriarse, ordenó el Papa Fabiano que, aunque no fuera con más frecuencia, recibiéramos el Sagrado Cuerpo tres veces al año, después de confesados, en Pascua, Pentecostés y Navidad. Y por fin de tal forma se enfrió y apagó la devoción, que Inocencio, el tercer Papa de este nombre, tuvo que mandar que nos confesáramos por lo menos una vez al año, y recibiéramos el Sagrado Cuerpo en la Pascua de Cuaresma. Y así, ahora, aunque no haya peligro de muerte, estamos obligados a confesarnos una vez al año. Y esta confesión anual se hace comúnmente en la Pascua de Cuaresma. Porque entonces se debe recibir el Sagrado Cuerpo; y el que ha de recibir el Sagrado Cuerpo, si tiene algún pecado, primeramente tiene que confesarse.

Mas ¿quién se conformará con la mera confesión anual? ¿Quién estará durante todo un año sin mirar absolutamente a su conciencia y sin examinar su estado?

Dirás: La Iglesia no me manda que me confiese más que una vez al año, y yo ya cumplo tanto como eso; por consiguiente no deben criticarme, aunque no lo haga más veces. Pues sí, eres digno de crítica. Porque es verdad que la Iglesia no te manda hacerlo más veces; pero tampoco te lo prohíbe. Al contrario, quisiera que lo hicieras más veces. Y por eso dice: "Saltem semel in anno". Por lo menos una vez al año. Dice "por lo menos" para dar a entender que quisiera lo hiciéramos más veces. Porque son numerosos y grandes los provechos y ganancias que se originan de la confesión frecuente; como asimismo las pérdidas y perjuicios que provienen de hacerlo pocas veces. Como se verá en el capítulo siguiente.

rentki, denboren diferentzien arauaz, noiz eta zenbatetan behar dugun, heriotzeko pontuan edo perilean ez egonagatik ere, kofesatu.

343 Lehenago, Apostoluen denboran, eta oraiño Apostoluak hillez gero ere, lehenbizi berri hartan, hain zen debozinoa handi, eta bero, ezen egunoro gorputz saindua errezibitzen baitzuten, eta hartarakotzat, bekhaturik zutenak, egunoro halaber, kofesatzen baitziren. Ordea nola gero ondoan, debozinoa hotzten hasi baitzen; manatu zuen Fabiano Aita sainduak, maizago izanen ezpazen ere, urthean hiruretan, bazkoz, mendekostez eta eguerriz kofesaturik, gorputz saindua errezebi genezala. Eta azkenean, hain hotztu edo iraungi zen debozinoa, non Inozenzio izen hunetako hirurgarren Aita sainduak, manatu behar izatu baitzuen, urthean behin bedere kofesa gindezilla, eta errezibi gorputz saindua, bazko garizumakoz. Eta hala orai, heriotzeko perilik ez izanagatik ere, obligatu gara urthean behin kofesatzera. Eta urthean behin kofesatze haur, egiten ohi da komunzki, bazko garizumakoz. Zeren orduan errezibitu behar baita gorputz saindua, eta gorputz saindua errezibituko duenak, baldin badu bekhaturik, lehenik behar baitu kofesatu.

halaber

hiruretan mendekoste eguerri

lehenik

Ordea nor izanen da, urthean behin baizen kofesatuko eztena? Urthe batez osoki, bere konzientzia bisitatu gabe, eta nola dadukan auteman gabe, pairatuko duena?

El pastor se alegra más al encontrar una oveja extraviada que al saber que todo el rebaño está paciendo en buenos pastos. Un padre recibe más alegría al oír una palabra de la boca del hijo que por largo tiempo ha estado mudo, que al oír a todos los otros hijos que hablan bien. Por esto su padre hizo una fiesta mayor al hijo que después de haber gastado su legítima en banquetes y en mujeres, retornó perdido y destrozado, que al otro que siempre estuvo en su casa a sus órdenes. Porque al de casa siempre lo veía a salvo; en cambio al otro lo daba por perdido y lo recuperó. Ello es así, y por eso nuestro Dios recibe tanto gozo y contento con la penitencia del pecador. Porque es encontrado después de haber estado perdido, porque ha salido y se ha librado de un gran peligro.

§ 3

355 Nuestro Dios recibe gran contento con la penitencia del pecador; y todo este contento se lo ocasiona el amor que siente hacia el pecador. Y así como, según dice Terencio, "Amantium ira, amoris redintegratio est", los enfados y diferencias de los

165 Lehen edizioan oker dago zati hunen kontua: 3 ipini beharrean, 2 jartzen du.

denean, edukitzen da ezertan osasuna. Eta zenbatenaz eta gerla, tormenta eta eritasuna izan baitira handiago eta perilosago, hanbatenaz gero ondoko bakea, denbora ederra eta osasuna ere dira prezatzenago, estimatzenago. Zer nahizu gehiago, dio San Agustinek: *Edendi et bibendi voluptas nulla est, nisi praecedat esuriendi et sitiendi molestia. Et ebriosi quaedam salsiuscula comedunt, quo fiat molestior ardor, quem cum extinguit potatio, fiat delectatio. Et institutum est, ut iam pactae sponsae non tradatur statim, ne vilem habeat maritus quam non suspiraverit dilatam* (August. lib. 8 conf. c. 3). Baldin plazera, plazer, eta atsegina atsegin izanen bada, behar da aitzinetik aphur bat bedere nekhatu eta unhatu. Iakinen bada zer den plazera, frogatu behar da lehenik zer den desplazera. Gaitzen berririk eztakienak, eztu ontasuna estimatzen. Loan ezta gozorik, logale eztenean: eta ez ian edanean ere, asea dagoenean. Eta halatan edale on batzuek bilhatzeintuzte bianda gaziak egarriaren pizteko, eta pizturik edatean plazer gehiago hartzeko. Halatan ordenatu zen halaber, etzekiola espos berriari, berehala lehenbiziko gutiziamenduan edo aiphamenean bere esposa eman, nekez izana hobeki estima zezan, edo fite izana arbuia etzezan.

unhatu

logale

gutiziamendu

Artzaina alegeratzenago da ardi errebelatu baten edireiteaz, artalde osoaren, larre onean, alha dela, iakiteaz baiño. Aita batek atseginago hartzen du, denbora luzeaz mututurik egotu den semearen ahotik hitz baten enzuteaz, bertze seme guztiak ederki minzatzen direla aditzeaz baiño. Halatan bere hazienda partea, ian edanean eta emaztétan gastaturik galdua eta desegina, bihurtu zen semeari, egin zioen bere aitak besta gehiago, bethiere etxean bere manuko egon zeikanari baiño. Zeren etxekoa bethiere segurean ikhusten baitzuen, baina bertzea, galdutzat zedukana, koberatu baitzuen. Hala da bada, eta halatan gure Iaungoikoak ere hartzen du hanbat atsegin eta plazer bekhatorearen penitenziaz. Zeren galduz gero edireiten baita, eta bai peril handitik ere ilkitzen eta eskapatzen.

alha izan


besta egin

Ilki

§ 3[165]

355 Bekhatorearen penitenziaz atsegin handia hartzen du gure Iaungoikoak: eta atsegin hartze haur guztior eragiten derauka bekhatoreagana dadukan amorioak. Eta nola Terenziok dioen bezala: *Amantium ira, amoris redintegratio est*: Zinez eta egiaz elkhar maite dutenen

amorio eduki



que se quieren realmente y de veras muchas veces suelen ser medios para aumentar y consolidar el amor. (Porque aun durante aquel tiempo que han estado sin hablarse y sin juntarse, se les aviva el amor y el deseo de estar juntos). De la misma manera a nuestro Dios —según nuestro modo de hablar—, durante el tiempo que el pecador ha estado alejado, se le acrecienta el deseo y voluntad que tiene de atraer a sí a dicho pecador. Y dijérase que no tiene reposo hasta que lo consigue. Porque durante este espacio, como viniendo a la puerta, siempre está llamando; y llamando prolongadamente y sin desesperar jamás. "Expectat Dominus ut misereatur vestri" (Is. 3): Aguarda junto a la puerta un año, dos y diez. Y con todo, el pecador se hace sordo e insensible, aplaza para después lo que es su deber. Cosa que está mal e incorrecta es el no contestar al amigo cuando te llama, el hacerle esperar a la puerta y el aplazar para luego la respuesta que se le podría dar en seguida y el servicio que cabía hacer inmediatamente.

Por consiguiente, en verdad que ha de ser cosa que está mal e incorrecta el hacer tan poco caso, el hacer esperar tanto al Dios y amigo que tanto te quiere, a quien tanto se goza con tu penitencia y tu conversión, y a quien sabes que te está llamando y que anda en pos de ti, el demorarlo para después, el no responder inmediatamente. Parece que si Dios pudiera contristarse por algo, se contritaría con este proceder.

Por consiguiente, hay que decir que es grande el agravio que hace a Dios el pecador que anda demorando, mientras observa esa conducta. Y que por no hacer semejante agravio, debería y deberíamos dejar los aplazamientos y moratorias indefinidas.

166 *Kontu guti eman.* Itzulika hau ez zen *Axular-en Hiztegia*-n jaso. Erderazko «conceder poca estimación» edo horrelako zerbait esan nahi du.

167 *Luzamendutan.* Kasu mugagabeari. Axular-ek zehatz bereizten du *bekhatutan* (=en pecado) eta *bekhatuetan* (=en los pecados). Ikus, adibidez, 301.

berretgarri

arteko haserredurak eta diferentziak, anhitzetan ere, amorio berretgarri eta fintkagarri ohi dira zeren elkharrekin minzatu gabe, eta elkhargana gabe egotu diren denbora hartan ere, elkharganatzeko amorioa eta desira berretzen baitzaie; hala bada gure Iainkoari ere, gure moldera minzatzera, bekhatorea apartaturik dagokan bitarte hartan, berretzen zaika, bekhatore haren beregana-tzeko duen desira eta borondatea. Eta badirudi eztuela onik, beregana dezakeien arteiño: zeren bitarte hartan, athera ethorririk bezala bethi deiez baitagoka: eta deiez ere luzaro eta behin ere etsitu gabe. *Expectat Dominus ut misereatur vestri* (Is. 30). Urthe batez, biaz eta

athal ondo

hamarrez, athal ondoan igurikitzen du. Eta alabaiña bekhatoreak bere burua gor eta sor egiten du, geroko bere eginbidea luzatzen du. Gauza gaizki egina da eta itsusia, adiskideari deiez dagotzunean, ez ihardestea, athean igu-

errepuesta

riki arazitzea; eta berehala eman ahal diazaion errepuestaren, eta egin ahal diazaion zerbitzuaren geroko luzatzea.

Beraz zinez izanen da gauza gaizki egina eta itsusia hain maite zaituen Iainkoari eta adiskideari, zure penitentzia egiteaz eta bide oneratzeaz, hanbat atsegin hartzen duenari: eta bethi ere deitzen zaituela eta zure bilha dabillala dakizunari, hain kontu guti emaitea,[166] hanbat iguriki arazitzea, geroko luzatzea, ez berehala ihardestea. Badirudi ezen baldin Iainkoak, deusez ere albalu damurik, hunetzaz lukeiela.

Beraz hunelatan erran behar da handia dela luzamendutan[167] dabillan bekhatoreak, hala ibiltze hartan eta bitarte hartan Iainkoari egiten dioen bidegabea. Eta halako bidegaberik ez egiteagatik ere utzteko lituzkeiela, eta ginituzkeiela luzamenduak, eta gerotik gerora ibiltzeak.

QUE EL QUE ANDA DEMORANDO Y APLAZANDO INDEFINIDAMENTE, HACE AGRAVIO A LOS ANGELES

CAPITULO LIV

356 Dice el Espíritu Santo: "Spes quae differtur, affligit animam" (Prov. 3): La esperanza que se retarda aflige al espíritu, atormenta al alma. Por lo tanto, es asimismo grande, a su manera, el agravio que hacemos a los Angeles con los aplazamientos. Porque con un gran deseo están aguardando a que hagamos penitencia y nos convirtamos, y se entristecen de ver que retrasamos el hacerlo. Así lo da a entender San Agustín: "Quoties bene agimus, gaudent Angeli et tristantur Daemones, gaudium est enim Angelis super uno poenitentiam agente: sed Diabolo super uno poenitentiam differente" (Aug. in Soliloq. anim. ad Deum, c. 27. Tom. 9). Todas las veces que obramos bien, se alegran los Angeles y se entristecen los diablos. Y cuando se dice que los Angeles se alegran y los diablos se entristecen, se da a entender que por lo que a nosotros respecta, somos nosotros los que los alegramos o entristecemos; y que si pudieran alegrarse o entristecerse, las obras que nosotros practicamos les alegraran o entristecieran; porque, por lo demás, los Angeles como siempre están en la gloria, no pueden entristecerse; ni tampoco los diablos pueden alegrarse, porque también éstos están siempre penando.

Dice Santo Tomás: "Daemones propter invidiam, profectum hominum impedire nituntur; et propter superbiam, divinae potestatis similitudinem usurpant, deputando sibi ministros ad hominum impugnationem, sicut et Angeli Deo ministrant in determinatis officiis ad hominum salutem" (S. Thom. 1. p. q. 114, art. 1): Sabemos que cada uno de nosotros tiene su Angel de la guarda, dado por Dios; y que el dicho Angel tiene entre los otros y por encima de todos los otros un cuidado especial del que está a su cargo, y desea su salvación. Y como lo que Dios hace en el bien, el diablo quisiera hacer en el mal, por eso Lucifer, jefe y capitán de todos los diablos, destina también ciertos ángeles malos y diablos para tentar y hacer pecar. Y así podemos decir que, como tenemos un ángel bueno para cuidarnos, tenemos también igualmente uno malo para tentarnos y perdernos en cuanto pueda: el bueno, dado por Dios, y el malo, enviado por Lucifer.

NOLA LUZAMENDUTAN GEROTIK GERORA DABILLANAK, EGITEN DERAUEN BIDEGABE AINGIRUEI
KAP. LIV

356 Erraiten du Spiritu Sainduak: *Spes quae differtur affligit animam* (Prov. 3). Luzatzen den esperantzak nekhatzen du gogoa, penatzen du arima. Beraz handia da halaber bere arauaz, Aingiruei luzamendutan ibiltzeaz egiten derauegun bidegabea. Zeren desira handi batekin, gure penitentziaren eta konbertitzearen beha baitaude, eta berantzeaz damu hartzen baitute. Hala emaiten du aditzera San Agustinek: *Quoties bene agimus gaudent Angeli, et tristantur Daemones: gaudium est enim Angelis super uno poenitentiam agente: sed Diabolo, super uno poenitentiam deserente* (Aug. in Soliloq. anim. ad Deum c. 27 Tom. 9). Ongi egiten dugun guztiaz alegeratzen dira Aingiruak eta tristetzen deabruak. Eta erraiten denean Aingiruak alegeratzen direla, eta deabruak tristetzen: aditzen da ezen geure aldetik denaz bezan batean, guk alegeratzen ditugula, edo tristetzen: eta alegera edo triste albalitezi, guk egiten ditugun obrek, alegera eta trista litzaketela. Zeren bertze gainerakoan, Aingiruak nola bethi lorian baitaude, ezin triste ditezke, eta ez deabruak ere alegera, zeren hek ere bethi penatan baitira.


berantu

Erraiten du San Tomasek: *Daemones propter invidiam, profectum hominum impedire nituntur; et propter superbiam divinae potestatis similitudinem usurpant, deputando sibi ministros, ad hominum impugnationem: sicut et Angeli Deo ministrant, in determinatis officiis, ad hominum salutem* (S. Thom. 1 part. q. 114. art. 1). Badakigu, baduela gutarik bat bederak, Iainkoak emanik, nork bere Aingiru begiraillea: eta Aingiru hark bertze guztien artetik, eta gainetik, edukitzen duela bere kargukoaz kontu, eta desiratzen duela haren salbamendua. Eta nola Iainkoak ontasunean egiten duena, nahi bailluke Deabruak ere gaixtatasunean egin: halatan Luziferrek Deabru buruzagiak eta kapitainak, emaiten du halaber zenbait Aingiru gaixto, eta Deabru tentatzeko, eta bekhatu eragiteko. Eta hala erran ahal dezakegu ezen Aingiru on bat begiratzeko bezala, badugula halaber gaixto bat ere, bere ahalaz gure tentatzeko; ona Iainkoak emanik, eta gaixtoa Luziferrek igorririk.

aingiru begiraille

buruzagi

igorri



357 Y no es posible describir qué guerra tan grande riñen los dos Angeles —el bueno y el malo— por nuestra alma. Los dos se esfuerzan, los dos se empeñan. Y cuando con más ahínco se dedican a ello es en la hora de la muerte. Porque entonces es el momento crítico; entonces es el trance decisivo para el alma, el instante en que la balanza se inclina para un lado o para el otro. Entonces se juntan los diablos y se ayudan unos a otros diciendo: "Deus dereliquit eum; persequimini et comprenhedite, quia non est qui eripiat" (Ps. 70): Dios le abandonado: tomémoslo, pues, nosotros, llevémoslo. Porque nuestro es, y nadie puede quitar a uno lo que es suyo. Lo rodean, lo tientan, lo ponen en trance de desesperar, y de hecho es de temer que hacen desesperar a algunos. En aquel momento a la pobre alma le vienen a la mente todas las faltas que alguna vez cometió; y viendo que son tantas y tan grandes, se le oprime el corazón, se amilana y se pone a reflexionar consigo misma diciendo: ¿Qué será ahora de mí?, ¿qué camino tomaré?, ¿me salvaré? ¡Momento terrible! ¡Paso dificultoso! ¿Grave tribulación! ¡Qué aprieto tan espantoso! ¿Qué hará entonces aquella alma tan asustada? ¿A quién llamará en favor suyo? ¿Quién le dará la mano? ¿Quién le asirá? ¿Quién le ayudará? ¿Quién, como no sea el Angel de la guarda? Este, entonces, a fuerza de buen amigo, acude presuroso, se mueve solícito, y a todos los enemigos que rodean, a los demonios tentadores, los echa a un lado y a otro. Y después dice al alma: ¡Vaya!, ¡alma asustada!, no te descorazones, no pierdas la esperanza. Porque aunque tus pecados son muchos y grandes, sábete que la misericordia de Dios es aún más grande; y que Dios quiere que te salves; y que si por alguna parte hubiere fallo, será por la tuya, mas no por parte de Dios. Entonces también la Iglesia ruega, diciendo: "Occurrite, Angeli Domini, suscipientes animam ejus:" Ea, ángeles del cielo, vosotros que estáis delante de Dios: ahora es el momento, apresuraos; echad una mano a esta alma que está en aprieto, socorredla.


Entonces aquella alma tiene que luchar en su mismo interior con sus obras. Allí no llegan parientes ni amigos, mas sí llega el Angel de la guarda. Este no ceja, éste está a su lado, éste no le abandona mientras está en el cuerpo.

357 Eta ezin erran diteke zein gerla handia duten Aingiru hek biek, onak eta gaixtoak, gure arimaren gaiñean. Biak permatzen dira, biak enseiatzen dira. Eta zintkienik, heriotzeko orenean enplegatzen dira. Zeren orduan dira zinak eta minak: orduan da arimaren gorabehera guztia, eta balantzaren alde batera edo bertzera erortzeko pontua eta puntada. Orduan biltzen dira Deabruak eta laguntzen zaitza elkharri, erraiten dutela: *Deus dereliquit eum, persequimini et comprehendite, quia non est qui eripiat* (Ps. 70). Utzi du Iainkoak, har dezagun beraz guk, daramagun, zeren gurea da, eta nori berea, ezin nehork edeki diazaio. Inguratzen dute, tentatzen dute, desesperatzeko pontura ekhartzen dute: eta peril da, zenbait desespera arazitzen ere baduten. Pontu hartan ethortzen zaitza arima tristeari gogora egundaiño egin dituen falta guztiak: eta hanbat eta hain handiak direla ikhusirik, bihotza hersten zaika, hiltzen zaika: eta iartzen da bere buruarekin gogoetan, erraiten duela: Zer izanen da orai nitzaz? Zer bide hartuko othe dut? Salbatuko othe naiz? Pontuaren latza. Pausuaren gaitza; egitekoaren handia: hersturaren hertsia, eta izigarria. Zer eginen du orduan arima izi hark? Nor deituko du bere faboretan? Nork eskua emanen dio? Nor helduko? Nor lagunduko zaika? Nor bada? Bere Aingiru begiraillea: hark orduan, adiskide onak bezala, laster egiten du, hark eskuei eragiten deraue: eta inguruneko etsai guztiak, demonio tentazailleak, alde batera eta bertzera bulkhatzeintu.

enseiatu
zinak eta minak
edeki
pausu
bere faboretan
ingurune demonio

Eta gero erraiten dio arimari: Ea arima izitua, bihotz har ezazu, esportza zaitezi, etzaitezila errenda, eztezazula gal esperantza. Zeren zure bekhatuak anhitz, eta handiak badira ere, iakizu ezen Iainkoaren miserikordia are dela handiago: eta Iainkoak nahi duela salba zaitezin; eta izaitekotz faltarik, zure aldetik izanen dela, eta ez Iainkoarenetik. Orduan Elizak ere egiten du othoitz, erraiten duela: *Occurrite Angeli Domini, suscipientes animam eius.* Ea zeruko Aingiruak, Iainkoaren aitzinean zaudetenak, orai da ordua, laster egizue, hersturatan dagoen arima huni eskua emozue, hel zakitzate. Orduan arima hark bere barren hartan, bere obrekin, berak iharduki behar du: Ezta ahaide adiskiderik hara heltzen: baiña bai Aingiru begiraillea, hark edukitzen dio on, hura dagoka aldakan, hark eztu utzten, gorputzean dagoen bitartean.

errendatu
iharduki
begiraille



§ 1

358 Si aquella alma, perseverando en el bien, en la fe y en la esperanza, y habiendo subsanado sus faltas, parte de este mundo estando en gracia de Dios, ¿quién podrá decir cuán grande es entonces el gozo y placer que recibe el ángel de la guarda? En primer lugar deja chasqueados a los diablos que andaban en torno a aquella alma, los burla, se ríe de ellos.

Y después, toma a la dicha alma, la abraza, la lleva a la presencia de Dios, diciéndole: Señor, aquí tienes el alma que me encomendaste. Me mandaste que la cuidara. La he cuidado. Sana y salva te la devuelvo. Recíbela, pues, y concédele tu gloria, y dame a mí también el galardón de mi trabajo.

Pero si aquella alma sale del cuerpo estando en pecado, si se condena, entonces el ángel de la guarda la abandona, se aleja de ella, y, al alejarse, le dice: ¡Ah, malvada!, ¡objeto de mis tormentos!, ¡ah, qué mal gastado ha sido el tiempo que he empleado contigo! Desde el instante en que saliste del vientre de la madre hasta el instante actual, siempre te he seguido, nunca me alejé de ti. Muchas tentativas he hecho para librarte de ese enemigo y para hacerte dejar el mal camino que ahora llevas. Pero todo ha sido en balde. Porque como eras libre y dueña de ti misma hiciste tu gusto y voluntad. Me has vencido; no has hecho caso de mí; no te has dejado guiar por mí. Yo he perdido mi trabajo y tú te has perdido a ti misma para siempre jamás.

359 Si dicho ángel pudiese sentir tristeza o vergüenza, yo pienso que se entristeciera o avergonzara con la pérdida de esta alma y viendo cómo se la lleva el enemigo. Y parece que como avergonzado les dice a sus amigos los ángeles lo que el profeta Jeremías dijo acerca de la ciudad de Babilonia: "Curavimus Babilonem": Yo he hecho por mi parte todo lo que se podía hacer. Esta alma se ha perdido y nadie tiene de ello más sentimiento que yo. Mas suya es la falta. Si a mí me hubiera creído, no nos veríamos hoy en este trance; ni yo tendría tanta pena, ni ella tanto mal y aflicción.

—¿Pero qué es esto? ¿Cómo se ha perdido esta alma? ¿Es que Dios no derramó su sangre y murió por su salvación? ¿Es que no dispuso, para cuando

§ 1

358 Baldin arima hura, ontasunean, fedean, eta esperantzan firme egonik, eta bere faltak erremediaturik, partitzen bada Iainkoaren garazian dagoela mundutik: nork erranen du, zein handia den orduan Aingiru begirailleak hartzen duen atsegina, eta plazera? Lehenbizikorik arima haren ondoan zebiltzan Deabruak musikatzeintu, eskarniatzeintu, irriz iokatzeintu.

musikatu
eskarniatu

Eta gero hartzen du arima hura, besarkatzen du, Iainkoaren aitzinera eramaiten du, erraiten dioela Iainkoari: Iauna, huna non den zuk gomendiotan eman zenerautan arima: manatu nenduzun begira nezala: begiratu dut, sendorik eta salborik bihurtzen deratzut. Errezibi ezazu bada, eta emozu huni zure loria, eta niri ere, neure trabailluaren golardoa, eta pagamendua.

gomendiotan eman

golardoa

Ordea baldin arima hura ilkitzen bada, bekhatutan dagoela, gorputzetik, baldin kondenatzen bada: orduan utzten du bere Aingiru begirailleak, apartatzen zaika, eta apartatze hartan, erraiten dio: «ha gaiztoa, ene nekhagarria, ala nik gaizki enplegatu baitut hirekiko denbora. Amaren sabeletik iltki intzen pontutik, pontu hunetaraino, bethiere iarraiki natzain, eznatzain behin ere apartatu. Anhitz enseiu egin dinat, hire horretarik begiratzeko, eta orai daramanan bide gaixtoaren huts eragiteko. Baina alferrik guztiak. Zeren nola baituen libertatea, eta heure burua heure eskuko, hala egin dun heure plazera eta borondatea: garaitu naun, eztun nitzaz konturik egin: ez aiz nitzaz gobernatu. Galdu dinat nik neure trabaillua, eta bai hik ere, sekula fingabekotzat heure burua.»

iarraiki

libertate


sekula fingabekotzat

359 Baldin Anigiru hura triste albaledi, edo ahalke, uste dut ezen arima haren galtzeaz, eta etsai gaixtoak daramakola ikhusteaz, triste litekeiela, eta alhalke. Eta badirudi ahalketurik bezala erraiten derauela bere lagun Aingiruei, Ieremias Profetak Babiloniako hiriaz erran zuena: *Curavimus Babilonem.* Nik egin dut neure aldetik egiteko zen guztia. Galdu da arima haur, eta eztu nehork ere nik baino damuago. Berak du ordea falta. Ni sinhetsi banendu, ezkinen egiteko hunetan izanen: ez nik izanen nuen hunenbat damu, eta ez hunek ere hunenbat kalte, eta atsekabe.

ahalketu

hunenbat

Ordea zer da haur? Nolatan galdu da arima haur? Etzuen Iainkoak hunen salbatzeagatik odol isuri, eta he-



se enfermaba, medicinas y remedios, o sea, los Santos Sacramentos? ¿Y no te dio a ti, oh ángel santo, el encargo de cuidarla? ¿Cómo, pues, se ha perdido?, ¿cómo es que se ha condenado?

El Angel contesta: —Verdad es todo eso. Estaba bajo mi cuidado, y no faltaban remedios. Pero no le han servido de nada; pues por un lado, su enfermedad era grave, y escaso el deseo de cuidarse; y por otro lado, se ha guiado siempre por su capricho y voluntad y no por mi consejo.

Grande motivo de pena se le da al Angel de la guarda cuando el alma a él encomendada anda aplazando la conversión, y aún más grande al ver que dicha alma se condena. Grande es el sentimiento y el agravio que con esto se hace al Angel de la guarda y a todos los ángeles. Porque todos desean nuestra salvación y el vernos cuanto antes fuera de pecado, y cuando nos ven fuera de él se alegran.

Por consiguiente, aun por esta razón, por dar a los ángeles alegría y por no ocasionarles pena y sentimiento, deberíamos desde hoy mismo —sin dejarlo para después— tomar el camino de la salvación, removiendo todos los obstáculos, y emplear en él el resto de vida que nos queda.


riotze errezibitu? Eta etzituen halaber eritzen zeneko medizinak, eta erremedioak, Sakramendu sainduak ordenatu? Eta etzeratzun zuri ere, Aingiru saindua, begiratzeko kargua eman? Nolatan bada galdu da? Nolatan kondenatu da? Ihardesten du Aingiruak:

probetxatu

Egiak dira horiok guztiok: ene kargutan zen, eta etzen erremedio eskasik ere: Ordea etzaitza deus probetxatu: zeren bataz eritasuna baitzuen handia, eta sendatzeko desira ttipia: eta berriz bertzea zeren bere fantasiaz, eta borondatez gobernatu baita, eta ez ene konseilluz. Damu hartzeko okhasino handia emaiten zaika Aingiru begirailleari, bere kargutan duena, bekhatutik ilkitzeko luzamendutan dabilkonean, eta are handiagoa kondenatzen zaikala dakusanean. Handia da hunetan Aingiru begirailleari, eta bertze Aingiru guztiei ere egiten zaien damua, eta bidegabea. Zeren guztiek gure salbamendua, eta lehen baiño lehen bekhatutarik iltkirik ikhustea, desiratzen baitute, eta ilkitzen garela dakusatenean, atsegin hartzen baitute.

trabu
aphur

Beraz hunelatan, hargatik beragatik ere, Aingiruei bai atsegin, baiña damurik, eta atsekaberik ez egiteagatik ere, behar genduke egun beretik, geroko luzatu gabe, trabu guztiak khendurik, salbamenduko bidea hartu, eta hartan, gelditzen zaikun geure mende aphurra, enplegatu.



QUE EL QUE APLAZA INDEFINIDAMENTE LA CONVERSION SE HACE AGRAVIO A SI MISMO, LO HACE A SU PROJIMO Y AUN A TODOS LOS SERES DEL UNIVERSO

CAPITULO LV

360 Si con estar largo tiempo en pecado y andar aplazando indefinidamente hacemos agravio a Dios y a los ángeles, es claro que a nosotros mismos nos hacemos también agravio, pérdida y daño. Porque si entonces, mientras estamos en pecado, nos morimos, debemos condenarnos y estar penando para siempre.

El mayor enemigo que tenemos somos nosotros mismos. Nadie nos hace tanto daño y agravio como el que nos hacemos nosotros a nosotros mismos. Nosotros mismos somos los que nos condenamos y nos arrojamos al infierno. De nadie tenemos tanto motivo y razón de quejarnos como de nosotros mismos; ni tenemos por qué disculparnos ni echar la culpa a otro; nuestras son las faltas.

No sé dónde tenemos el seso ni en qué pensamos, pues mientras queremos que sean buenas todas las otras criaturas que hay en el mundo, nuestra *misma vida, nuestra conciencia, nuestra alma* queremos que sea mala. "Quid enim est quod vis habere malum? Nihil omnino; non uxorem, non filiam, non servum, non ancillam, non villam, non tunicam, postremo non caligam; et tamen vellis habere malam vitam? Rogo te praepone vitam tuam caligae tuae. Si possent respondere bona tua, quibus est plena domus tua, quae habere optasti et perdere timuisti, nonne et tibi clamarent?" "Sicut tu nos bona vis habere, sic et nos volumus bonum habere dominum" (August. serm. 12. De verbis Domini, Tom. 10): Dime, por favor (dice San Agustín): ¿Quisieras tener alguna cosa mala? No por cierto. No quieres tener una mujer mala, ni un hijo malo, ni un criado malo, ni una camisa mala, ni, en fin, un zapato malo. ¿Cómo es, pues, que sobre todo quieras tener una conciencia mala? ¿Que todas las otras cosas sean buenas, pero que tú mismo, tu vida, tu conciencia, tu alma sea mala? Si tus zapatos y las demás cosas que tienes en casa para tu servicio pudieran hablar te dirían: Tú quieres que nosotros seamos buenos; pues bien, nosotros queremos que también tú lo seas. Tú quieres buenos sirvientes, y nosotros queremos buen señor.

[168] *Azkenez goiti* = azkenekotz. *Axular-en Hiztegia*-n falta da.

NOLA GEROTIK GERORA LUZAMENDUTAN DABILLANAK EGITEN DERAUEN BIDEGABE, BERE BURUARI, BERE GIRISTINO LAGUNARI, ETA BAI MUNDUKO BERTZE GAUZA GUZTIEI ERE

KAP. LV

360 Baldin luzaro bekhatutan egoiteaz, eta gerotik gerora ibiltzeaz, egiten baderauegu bidegabe Iainkoari, eta Aingiruei: segur da hala hala egiten diogula geure buruari ere bidegabe, damu, eta kalte. Zeren baldin orduan hala bekhatutan gabiltzanean, eta gaudenean hiltzen bagara, sekulakotzat galdu, eta penatu behar baikara.

Guk dugun etsairik handiena geure burua dugu. Ezteraku nehork ere hanbat kalte, eta bidegabe egiten, nola gerok egiten baitiogu geure buruari. Gerok geure buruak galtzeintugu, ifernura egotzteintugu. Eztugu nehortzaz ere hanbat okhasino, eta arrazoin arrenkuratzeko, nola geure buruoz: eztugu bertzeri zer atxakia emanik, eta ez, zer hoben egotzirik, geureak ditugu faltak.


arrenkuratu

atxakia

Eztakit non dugun adimendua, eta ez zertan pensatzen dugun; ezen munduan ditugun bertze gauza guztiak nahi dugularik diren onak; gure bizitzea bera, gure konzientzia, gure arima nahi baitugu den gaixto. *Quid enim est quod vis habere malum? Nihil omnino; non uxorem, non filiam, non servum, non ancillam, non villam, non tunicam, postremo non caligam, et tamen vellis habere malam vitam? Rogo te praepone vitam tuam caligae tuae. Si possent respondere bona tua quibus est plena domus tua quae habere optasti et perdere timuisti, nonne et tibi clamarent? Sicut tu nos bona vis habere sic et nos volumus bonum habere dominum* (August. serm. 12 de verbis Domini, Tom. 10). Erradazu othoi (dio San Agustinek) nahi othe zenduke deus ere gauza gaixtorik? Ez segur. Eztuzu nahi emazte gaixtoa, ez seme gaixtoa, ez zerbitzari gaixtoa, ez athorra gaixtoa, eta ez azkenez goiti[168] zapata gaixtoa ere. Nolatan bada nahi duzu guztien gaiñetik konzientzia gaixtoa? Bertze gauza guztiak onak, baiña zeure burua, zeure bizitzea, zeure konzientzia, zeure arima, gaixto. Baldin zure zapatak, eta etxean zeure zerbitzuko dituzun bertze gauzak mintza albalitezi, erran liazaizute: Zuk nahi duzu gu garen onak: hala nahi dugu bada guk ere zu zaren ona. Zuk nahi ditutzu zerbitzari onak, hala nahi dugu bada guk ere nabusi ona.

zerbitzari athorra goiti

zerbitzu



361 Si te preguntaran qué es lo que tú más amas, podrías contestar que es tu vida, porque por la vida estás dispuesto a dejar todas las cosas del mundo. ¿Cómo es, pues, que queriendo que todas las otras cosas sean buenas, en cambio aquello que tú más amas, quieres que sea malo? No puedo encontrar otra razón sino que el diablo te ha cegado y ofuscado; y que tú eres de aquellas personas de las cuales dice el Profeta Sofonías: "Ambulaverunt caeci, quia peccaverunt Domino" (Soph. 1). Anduvieron obcecados porque cayeron en el pecado.

Durante todo este espacio en que andas aplazando de un día a otro día el salir de la vida de pecado, eres enemigo de ti mismo. Porque pudiendo estar bien, por falta tuya te ves precisado a estar mal. Por lo tanto, procediendo así, te haces agravio a ti mismo. Porque tú mismo eres el que te pierdes.

§ 1

362 Asimismo, con perseverar indefinidamente en el pecado, agravias también a tu prójimo.

Algunos suelen decir: "Si soy malo, lo soy para mí; mis pecados no llevarán al infierno a ningún otro; cada uno responderá de sus actos". Es verdad: cada uno responderá de sus actos.

Pero no dices bien al decir que sólo para ti eres malo. Porque, en primer lugar, así como el bueno es bueno para muchos, así también el malo es malo para muchos. En segundo lugar, porque con tu mala vida, dando mal ejemplo, das a otros ocasión de inducirles a pecar. Así lo dice San Agustín: "Qui in conspectu populi male vivit, eum a quo attenditur, quantum in illo est, occidit" (Aug. lib. de Past. c. 4 tom. 9). El que a la vista de otro, en presencia de las gentes, vive mal, en cuanto está de su parte, mata y perjudica a éstos que están presentes y miran. Por lo tanto, con tu pecado perjudicas y agravias también a otro, además de ti mismo. Porque muchas veces por causa de tu pecado Dios castiga también a otros, no con el castigo eterno, pero sí con castigo temporal (Vid. Nicol. Lyra, Deut. 34 super illud: Non occidentur patres pro filiis).

Finalmente, no ya sólo a tu prójimo cristiano, sino también a todas las criaturas desprovistas de razón que hay en el mundo, las agravias mientras permaneces en pecado. Porque, en primer lugar, agraviando y deshonrando al señor de la casa, to-

361 Baldin galdegin baliazazute, zer den zuk duzun gauzarik maiténa, ihardets zenezake, zure bizia dela: zeren biziagatik, munduko gauza guztiak utz baititzaketzu. Nolatan bada bertze gauza guztiak nahi ditutzularik onak, nahi duzu zuk duzun gauzarik maiténa, den gaixto? Ezin ediren dezaket bertze arraizoinik, Deabruak itsutu, eta liluratu zaituela baizen: eta zu zarela iende hetarik, zeinengatik erraiten baitu Sofonias Profetak: *Ambulaverunt caeci, quia peccaverunt Domino* (Soph. 1). Itsutuak ibili ziren, zeren bekhatutan erori baitziren.

ediren

bekhatutan

Egunetik egunera bekhatutarik ilkitzeko luzamendutan zabiltzan bitarte hartan, zeure buruaren etsai zara. Zeren ongi ahal zinatekeiena, zeure faltaz gaizki behar baitzara. Beraz orduan hala ibiltzeaz, zeure buruari bidegabe egiten diozu. Zeren zerorrek zeure burua galtzen baituzu.

bitarte

§ 1

362 Bada halaber gerotik gerora bekhatutan egoiteaz, bidegabe egiten diozu zeure giristino lagunari ere.

halaber

Batzuek erraiten dute: Baldin gaixto banaiz, neuretzat naiz gaixto, eztute ene bekhatuek nehor ifernurako, nork bereak iasaneintu. Egia da nork bereak iasaneintu.

Ordea eztiozu ongi etzarela zeuretzat baizen gaixto. Zeren lehenbizikorik, nola ona anhitzentzat baita on: hala gaixtoa ere, anhitzentzat da gaixto. Bigarrena, zeren zeure bizitze gaixtoaz, exenplo gaixtoa emanez, bertzeri ere bekhatu eragiteko okhasino emaiten baitiozu. Hala erraiten du San Agustinek: *Qui in conspectu populi male vivit, eum a quo attenditur, quantum in illo est occidit* (Aug. lib. de Past. cap. 4. Tom. 9). Bertzeren agerrian iendèk ikhusten dutela, gaizki bizitzen denak, bere aldetik denaz bezanbatean, agerrian diren hek, beha daudenak, hiltzeintu, kaltiar errendatzeintu. Beraz zeure bekhatuaz egiten diozu, zeure buruaz bertzeri ere, kalte, eta bidegabe. Zeren anhitzetan ere zure bekhatuagatik, bertzeak ere gaztigatzen baititu Iainkoak: ez gaztigu eternalaz, baiña bai tenporalaz. (Vide Nicol. Lyra, Deut. 4 super illud: Non occidentur patres pro filiis).


exenplo

agerrian

kaltiar

Finean ez giristino lagunari berari, baiña are munduko bertze kreatura arrazoiñaz usatzen eztuten guztiei ere, bidegabe egiten derauezu bekhatutan zauden bitartean. Zeren lehenbizikorik, etxeko iaunari bidegabe egi-

arrazoin



dos los domésticos quedan alcanzados, toda la familia sufre la deshonra. Ahora bien: con perseverar en el pecado, agravias y deshonras a Dios, que es el Señor y Cabeza de todo el universo; y como todas las criaturas del universo, aun las piedras, son familia y domésticos de este Señor, resulta que con vivir tú en pecado todos quedan afectados, todos reciben agravio.

363 Asimismo, viviendo en pecado agravias a todas las criaturas insensibles. Porque, como dice el Rey David, todas han sido dispuestas para tu servicio y colocadas bajo tus pies: "Omnia subjecisti sub pedibus ejus" (Ps. 8); pero mientras estás en pecado, no mereces que te sirvan; entonces no eres digno ni del pan que comes; porque entonces eres servidor y esclavo del pecado; y más inútil e insignificante que la criatura más inútil e insignificante que hay en el universo: "Omnis qui facit peccatum, servus est peccati". Y no es razón que el más digno sirva al más indigno ni que el inferior traiga debajo de sí al que es superior.

Del mismo modo, perseverando en el pecado agravias a todas las criaturas del universo. Porque a todas ha castigado y castiga Dios por tus pecados; tanto las castiga, que dice un Doctor: "Sol et omnes creaturae, propter peccatum hominis, perdiderunt septem partes suarum virtutum" (Petrus Lomb. 4 Sent. dist. 48): El sol, la luna y todas las demás criaturas del mundo perdieron por el pecado del hombre la séptima parte de su virtud y valor. Y así con razón puede quejarse y querellarse el sol del pecador, diciéndole: Yo por tu causa me ensombrecí y oscurecí. Porque aunque ahora soy luminoso y claro, anteriormente fui más luminoso y más resplandeciente. Igualmente, las bestias irracionales pueden también decirle con razón: Por tu causa, nosotras, en aquel gran diluvio —en el diluvio del tiempo de Noé— perecimos y nos ahogamos. Pues también la tierra puede hacerle recriminaciones. Porque la que antes era limpia, por su culpa se llenó de espinos, endrinos y malas hierbas, y además se debilitó y empobreció.

364 Finalmente, "Lapis de pariete clamabit, et lignum quod inter iuncturas aedificiorum est, respondebit" (Habac, 2). Todas las criaturas del mundo, hasta las piedras que están clavadas en las pa-

teaz, eta desohore emaiteaz, etxeko guztiak ukitzen dira, familia guztia desohoratzen da. Bada nola bekhatutan egoiteaz, Iainkoari, mundu guztiko etxeko jaunari, eta buruzagiari, egiten baitiozu bidegabe, eta emaiten desohore: eta munduko kreatura guztiak, are harriak ere, etxeko iaun hunen familia, eta etxatiarrak baitira: hala zure bekhatutan ibiltzeaz guztiak ukitzen dira, guztiek bidegabe errezibitzen dute.

etxatiar

363 Halaber bekhatutan egoiteaz, bidegabe egiten derauezu sentimendurik eztuten kreatura guztiei. Zeren guztiak baitira, Errege Davitek dioen bezala, zure zerbitzuko ordenatuak, eta zure oiñen azpiko egiñak. *Omnia subiecisti sub pedibus eius* (Ps. 8). Ordea eztuzu merezi zerbitzurik, bekhatutan zauden bitartean: orduan etzara iaten duzun ogiaren ere merezient: zeren orduan bekhatuaren zerbitzari eta azpiko baitzara: eta munduan den kreaturarik eztheusena eta ttipiena baiño eztheusago, eta ttipiago. *Omnis qui facit peccatum servus est peccati.* Eta ezta arrazoin, deusagoak, eztheusagoa zerbitza dezan; eta ttipiagoak, handiagoa bere azpiko erabil dezan.

sentimendu

merezient

deusago

Halaber bidegabe egiten derauezu munduko kreatura guztiei bekhatutan egoiteaz. Zeren guztiak, zure bekhatuakgatik, gaztigatu baititu, eta gaztigatzen baititu Iainkoak: hain gaztigatzen ezen erraiten baitu Doktor batek: *Sol et omnes creaturae propter peccatum hominis, perdiderunt septem partes suarum virtutum* (Petrus Lomb. 4 sent. dist. 48). Iguzkiak, illargiak, eta munduko bertze kreatura guztiek, galdu zuten gizonaren bekhatuagatik, bere berthutearen, eta balioaren zazpigarren zathia eta partea. Eta hala arrazoinekin arrenkura ahal diteke, eta gereilla iguzkia bekhatoreaz, erraiten dioela: Ni hiregatik goibeldu ninduan, eta ilhundu. Zeren orai argi banaiz ere, eta klar, are lehen ninduan argiago, eta klarago. Halaber abre adimendugabèk ere, arrazoinekin erran ahal diazaiote: Hiregatik gu dilubio handi hartan, Noeren denborako uholdean, hondatu, eta itho ginituan. Bada lurrak ere egin ahaldiazaio eranzute. Zeren lehen garbi zena, harengatik elhorriz, arantzéz, eta belhar gaixtoz bethe baitzen, eta bai flakatu, eta mehatu ere.

Iguzkl

gereillatu


abre

dilubio

elhorri

mehatu

364 Finean, *Lapis de pariete clamabit et lignum quod inter juncturas aedificiorum est respondebit* (Habac 2). Munduko kreatura gutiek, perétetan iosirik dauden ha-



redes, tienen derecho y razón para alzarse contra el pecador. Y así dice el Espíritu Santo que lo harán en el último día. "Pugnabit pro eo orbis terrarum contra insensatos" (Sap. 1).

Y así como ahora el pecador hace guerra a todas, entonces todas tomarán la revancha pagándole con la misma moneda; y entonces se vengarán de los grandes agravios que ahora reciben.

Por consiguiente, por no meternos en semejantes conflictos y por no hacer tantos agravios a tantos —a Dios, a nosotros mismos, a los ángeles, al prójimo, y aun a todos los demás seres del universo— debemos espabilar, echar a andar; y dejadas las moratorias, resolvernos a hacer cuanto antes lo que hay que hacer después: ponernos en el buen camino y perseverar en él.

DE COMO LA CONSIDERACION DE LAS PENAS DEL INFIERNO DEBE ACORTAR LOS APLAZAMIENTOS INDEFINIDOS

CAPITULO LVI

365 Así como Dios mostró su poder en la creación del mundo, la sabiduría en su gobierno y la misericordia en su redención; así también ha mostrado, muestra y mostrará su justicia en el castigar. Porque si no es razón que la virtud quede sin recompensa, tampoco es razón que el pecado pase sin castigo. Tan bien le está al malo el infierno como al bueno el paraíso.

Muchos y grandes son (como hasta aquí se ha dado a entender) los detrimentos y daños que ocasiona este nuestro "Después", o sea, el andar difiriendo. Pero el detrimento mayor de todos los detrimentos, el daño más grande, el más pernicioso y el que

[169] *Egitekotan.* Kasu mugagabeari. Axular-ek ongi bereizten du *Egitekotan* = en conflictos, eta *Egitekoetan* = en los conflictos.

[170] *Hanbati. Hanbat* mugagabeki deklinatua, datibozko kasuan.

rriek ere zuzen dute, eta arrazoin, bekhatorearen kontra iaikiteko. Eta hala erraiten ere du Spiritu Sainduak iaikiko direla azken egunean: *Pugnabit pro eo orbis terrarum contra insensatos* (Sap. 1).

Eta nola orai bekhatoreak guztiei egiten baiteraue gerla: hala orduan bekhatoreari ere, guztiek, pagamendu ordaina, moneda berean, bihurtuko diote; eta orai errezibitzen dituzten bidegabe handiez, mendeku hartuko dute.

ordain moneda

Beraz hunelatan halako egitekotan[169] ez erortzeagatik: eta hanbat bidegabe, hanbati,[170] Iainkoari, geure buruari, Aingiruei, giristino lagunari, eta munduko bertze kreatura guztiei ere, ez egiteagatik, behar dugu ernatu, abiatu: eta luzamenduak utzirik, gero egin behar denaren, lehen baiño lehen egitera, bide onean iartzera, eta hartan egoitera deliberatu.

ernatu

NOLA IFERNUKO PENEN KONSIDERATZEAK, BEHAR DITUEN, GEROTIK GERORA IBILTZEKO LUZAMENDUAK LABURTU
KAP. LVI


365 Nola Iainkoak erakutsi baitzuen bere botherea, munduaren kreatzean: iakindasuna gobernatzean: eta miserikordia erremediatzean: hala erakutsi du, erakusten du, eta erakutsiko du bere iustizia ere, gaztigatzean. Zeren baldin ezpada arrazoin, geldi dadin berthutea pagamendu gabe; ezta arrazoin iragan dadin bekhatua ere, gaztigu gabe. Hain ongi dagoka gaixtoari ifernua, nola onari parabisua.

iakindasun

Iragan

parabisu

Anhitz, eta handiak dira (orainokoan ere aditzera eman den bezala) gure gero hunek, luzamendutan ibiltzeak, egiten dituen damuak, eta kalteak. Baiña damu guztien gaineko damua, kalterik handiena, galgarriena,



sobrepasa, supera y hace olvidar todos los otros, es que lanza al "Después" que no tiene fin, al abismo sin fondo, a los tormentos eternos.

Vives es la enemistad, vives con la querida, retienes el bien del prójimo —que son tres especies de pecado particularmente peligrosas—; y por ventura abrigas la intención y el deseo de salir de estos pecados. Pero ¿cuándo? No ahora, no hoy. Mañana, después. Y mientras estás así diciendo siempre después, siempre mañana, te coge la enfermedad, viene la muerte y te vas al infierno...

Mas yo no puedo encontrar remedio mejor, triaca *más excelente ni medicina más segura para cambiar* este "después" en "ahora", para curarlo y restablecerlo, que el considerar los daños que el dicho "después" acarrea. La mordedura del perro debe ser curada con pelo del mismo perro; el fuego del infierno debe ser apagado con fuego del infierno. Para no ir después al infierno, no hay mejor remedio que ir ahora. El que después no quiere ir al infierno, debe ir ahora. Ahora debe considerar y traer en la mente, estando aquí, los tormentos de allí —sin ir allí—, y de este modo huir y escapar de ir allí.

366 Es un dicho común que la espada hace entrar a la espada en la vaina. Al que por amor y a buenas no quiere hacer el bien, hay que obligarle a hacerlo a la fuerza y por temor del castigo. Cuando el ladrón se retrae de robar, ¿qué es lo que le retrae? *No ciertamente la vergüenza ni tampoco el amor* que tiene hacia nadie. ¿Qué es, pues, lo que le retrae? El miedo. Así también, aquel a quien el amor a Dios no le retrae de pecar, debe retraerle el miedo de los tormentos del infierno.

Y este es uno de los grandes remedios eternos que nuestro Dios ha dispuesto para el pecador de duro corazón a fin de quebrantar y ablandar su dureza, a saber: el amenazarle, decirle y recordarle que mire que hay un castigo formidable, un tormento grande y espantoso, preparado y dispuesto para él.

Por eso San Juan Bautista, como quien lo sabía, hizo su primer sermón sobre esta materia, sobre los tormentos del infierno, diciendo: "Facite fructus dignos poenitentiae. Iam enim securis ad radicem arboris posita est. Omnis arbor, quae non facit fructum *bonum, excidetur, et in ignem mittetur*" (Lc. 3). Andad con tiento, haced penitencia y hacedla en proporción de los pecados que habéis cometido: "Fructus dignos poenitentiae". Por los pecados grandes, penitencia grande. Porque habéis de saber que el hacha está ya asestada a la raíz del árbol, y que

171 *Gero hunen orai oraira-tzeko.* Kasu hitzen joko jatorrari.

172 *Oraren autsikia...* Sendatze kontuan herriak bere usteak eta sineskeriak izan ditu. Hoietako bat aipatzen da hemen.

xitu egotzi leze eta bertze guztiak xitzen, iragaiten, eta ahantz arazitzen dituena da, egotzten baitu fingabeko gerora, hondar gabeko lezera, sekulako penetara.


etsaigoa amorante Etsaigoan zaude; amorantearekin zaude; bertzeren ona goraturik zaude. Zein baitira hirur bekhatu suerte perilosak. Eta benturaz baduzu,bekhatu horietarik ilkitzeke gogo, eta borondate. Ordea noiz? Ez orai, ez egun, bihar, gero. Eta bethi gero, bethi bihar: horrela zaudela, eritasunak har, heriotzea ethor, eta ifernura ioan.

atriaka Bada nik ezin ediren dezaket erremedio hobeagorik, atriaka finagorik, eta ez medizina seguragorik gero hunen orai, orai-ratzeko,[171] sendatzeko, eta erremediatzeko: gero hunek beronek, egiten dituen kaltén konsideratzea autsiki baiño. Oraren autsikia, oraren beraren illeak behar du sendatu:[172] ifernuko sua, ifernuko suak behar du iraungi. Ezta halako erremediorik, ez gero ifernuratzeko, nola orai ifernuratzea. Gero ifernura ioan nahi eztuenak, orai behar du ioan ifernura. Orai behar ditu hango penak hemen, hara gabe konsideratu, gogoan erabili, eta halatan itzuri handik ihes egin, itzuri, eta eskapatu.

erran komun magina **366** Erran komuna da, ezpatak ezpata sar arazitzen duela maginan. Amorioz, eta onez onetara, ongirik egin nahi eztuenari, bortxaz, eta gaztiguaren beldurrez eragin behar zaika. Ohoiña zerk gibelatzen du, gibelatzen ahalke denean, ebastetik? Ez ahalkeak, ez nehorengana dadukan amorioak. Zerk bada? Beldurrak. Hala Iainkoaganako amorioak, bekhatu egitetik, gibelatzen eztuena ere, ifernuko penen beldurrak gibelatu behar du.

Eta haur da egundaiñoz gero, gure Iainkoak, bekhatore bihotz gogorrari, bere gogortasunaren hautsteko, eta beratzeko, ediren duen erremedio handietarik bat: mehatxatu mehatxatzea, erraitea, eta gogora ekhartzea, begira duela, gaztigu paregabe bat, pena handi izigarri bat harentzat prestatua, eta ordenatua dagoela.

Halatan Iondone Ioannes Baptistak, ziakienak bezala, egin zuen pontu hunetzaz, ifernuko penez, bere lehenbiziko predikua, erraiten zuela: *Facite fructus dignos poenitentiae. Iam enim securis ad radicem arboris posita est. Omnis arbor quae non facit fructum bonum, excidetur, et in ignem mittetur.* Begirautzue; egizue penitenzia, eta egizue, egin ditutzuen bekhatuen arauaz. *Fructus dignos poenitentiae* (Lc. 3). Bekhatu handiakgatik penitenzia handia. Zeren iakin behar duzue ezen haizkora, haizkora kheinatu zuhaitzaren erroari kheinatua dagokala, eta fruiturik ia-



el que no porta fruto será cortado y echado al fuego. Este es el primer sermón de San Juan Bautista. Esta fue la nueva que trajo consigo cuando vino. *Y con esta nueva, al oír que había un tal castigo* —o sea, el fuego del infierno— dispuesto para los malos, se espantaron y asustaron tanto, que todos los presentes, aun los más malos, vinieron a preguntarle: "*Quid faciemus?*" *¿Qué haremos, pues?*, ¿qué será de nosotros?, ¿cómo o de qué manera nos libraremos de esos grandes tormentos que tú dices, del fuego del infierno? Pues bien: lo que aquel gran predicador, *San Juan Bautista, les decía entonces* a aquellas gentes, os decimos también nosotros ahora a vosotros. Verdad es: no con la santidad y calidades que él: pero sí decimos la misma verdad que *él decía.*

367 Porque la misma ley, fe y Dios que él predicaba, es la que predicamos y escribimos nosotros; en esto no hay diferencia. También nosotros os de*cimos como él. Midad que el hacha está ya puesta* en la base del árbol; que la hoz de la muerte, el machete que siega a buenos y malos está afilado y dispuesto; y que el grano —o sea, los buenos— *será recogido en el granero del cielo; y la paja* —los malos— se estarán por siempre jamás ardiendo en el horno del infierno.

Esta es la verdad; y estas son las amenazas que *por adelantado nos hace nuestro Dios* y los avisos que nos da por medio de sus predicadores, para que con estos avisos nos asustemos, nos espantemos; y con el fin de que así espantados, hagamos ahora *al presente el bien que decimos haremos después.*

§ 1

eta gorputzeko endrezera, aurkientza, iuntura eta parte guztietan, osoki, berdinzki, eta batetan oinhaze bazendu, eta oinhaze harekin erreka batetan, guztiek utzia, bazeneuntza? Orduan zinez zinateke on-behar, ondikozko eta urrikalkizun. Hala da bada, eta are urrikalkizunago, ifernuko penetan dagoena. Zeren hura da osoki guztia eta guztietan eri: hura da guztietan minez eta oinhazez gainez egina: eztu bazterrik, eztu huts-gunerik, guztia da bethea. Eta ongi da hala den. Zeren nola gorputz guztiaz, eta gorputzeko parte guztiez, osoki, bekhatu egin baitzuen, arrazoin da halaber, gorputz guztiaz eta gorputzeko parte guztiez osoki paga dezan, eta guztietan den alde guztiz penatua, gaztigatua eta oiñhazeztatua.

ondikozko

hutsgune

§ 4

380 Oiñhaze hek, dolorezko dolore hek, emaiten zaitza ifernuan dagoenari, diferentki, egin zituen bekhatuen diferentzien arauaz. Han urguillua, handi nahia, desohorezki oiñen azpian erabiliko, eta ostikatuko da. Han abariziosa, diruz betherik zegoena, nezesitate handian, munduko beharrik beharrena baiño beharreanago iarriko da. Han sabeldarraio, golosa, lamitia, ian edanera emana, gulara eroria, gosez eta egarriz ur xorta bat ere ezin erdietsiz, amitua ibiliko da, flakatua, eta iragana iarriko da. Han arnegaria, mihitik urkhatua dilindaka egonen da. Han emakhoia, haragiaren lohian lizundua, eta hidoiztatua ibili dena, Deabru izigarriek bere atzapar zorrotzez, ferekatuko, larrutuko, eta halakoari dagotzan bertze pena molde batzuez penatuko dute.

beharreanago sabeldarraio lamiti

amitu

dilindaka egon

hidoiztatu

ferekatu


Are gehiago, ifernuan, abariziosak abariziosekin: ohoiñak ohoiñekin; arnegariak arnegariekin, finean kideak kidékin, eta suertekoekin egonen dira bereziak eta parzelatuak. Hala emaiten du aditzera San Mateo Ebanjelistak: *Colligite primum zizania et alligate ea in fasciculos ad comburendum* (Mt. 13). Biltzatzue belhar gaixtoak eta biltzatzue multzuka, eta zamaka, erratzeko elkharrekin. Eta nahi baduzue iakin zer den hunela multzuka, eta zamaka bildurik erratzea, deklaratzen du San Gregoriok: *Fasciculos ad comburendum ligare, est eos qui aeterno igni sunt traditi, pares cum paribus sociare, ut quos similis culpa inquinat par etiam poena constringat* (Greg. lib. 2 Moral c. 47). Belhar gaixto zamak, multzuak, eskumenak edo eskutarak elkharrekin erratzeko biltzea, eta lotzea, ezta bertze gauza-

kide

parzelatu

multzuka

eskumen eskutara



que tienen que ir al infierno, al ladrón con el ladrón, al maldiciente con el maldiciente, el juntar y hacer acompañarse a cada uno con su semejante. Para que de esta manera los que en el pecar y en la culpa fueron iguales, lo sean también en la pena y en el castigo, y tanto en lo uno como en lo otro estén juntos.

381 Hablando de estos tales, dice el Rey David: "Sicut oves in inferno positi sunt; mors depascet eos" (Ps. 48): A manera de rebaños de ovejas estarán en el infierno, agrupados y arracimados; la muerte los devorará, la muerte será el alimento de ellos, y ellos lo serán también de ella. El penar del condenado se compara con el pacer de la oveja. Así lo dice San Gregorio: "Depascere dicitur; quia sicut ovis depascens herbam, non eam radicitus evellit sed ita pascit, ut, manente radice, iterum herba crescat, ut iterum depascatur; ita mors semper depascit miseros, quia semper illis relinquitur vita, ut tormenta valeant sustinere": Así como la oveja nunca consume totalmente la hierba ni la saca de raíz, sino que, comiendo la hoja superior, deja siempre la raíz inferior, de modo, que formándose de nuevo la hoja, pueda comer nuevamente de ella; así la muerte, el dolor, el sufrimiento y el tormento se ceban en los condenados sin sacar la raíz, sin quitar la vida; de modo que viven perpetuamente, para penar perpetuamente. Y así la vida de éstos no es vida ni la muerte es muerte; no es vida porque no tiene bienandanza ni consuelo; no es muerte porque no tiene final. Con razón se dice de los tales: "Bonum erat ei, si natus non fuisset homo ille" (Mt. 26): Bien le estuviera que no hubiera nacido; o que en seguida de haber nacido se hubiera aniquilado, destruido y vuelto a la nada. Porque, como dice Santo Tomás: "Melius est non esse quam male esse" (S. Thom. 39, q. 93, art. 3 in corp.): Mejor es no existir que un mal existir. En conformidad con esto dice también San Juan Evangelista: "In diebus illis desiderabunt homines mori, et mors fugiet ab eis" (Ap. 9): En aquellos días, entonces, los que están penando desearán el fin y el término de sus días, querrán morir, andarán tras de la muerte, pero en vano: no la encontrarán. Porque la muerte huirá de ellos. De modo que vivan perpetuamente, para penar perpetuamente. Porque el penar es como morir.

179 *Hurtu* (sic). Hala dator lehen edizioan. Badirudi *h* gabe behar lukeela.


rik, ifernura behar dutenen, ohoiña ohoiñarekin, arnegaria arnegariarekin, kidea kidearekin konpaiñiatzea, eta iuntatzea baizen. Halatan bekhatu egitean, kulpan eta hobenean, berdin izan zirenak, penan, eta gaztiguan ere diren berdin, eta batean bezala bertzean ere, elkhar eduki dezaten.

381 Halakoez mintzo dela erraiten du Errege Davitek: *Sicut oves in inferno positi sunt, mors depascet eos* (Ps. 48). Ardi artaldeak bezala tropelaka, eta parzelaka ifernuan egonen dira, herioak bazkatukoitu, herioa izanen da heken bazka, eta bai hek ere herioaren. Kondenatuaren penatzea konparatzen da ardiaren belhar iatearekin. Hala dio San Gregoriok: *Depascere dicitur. Quia sicut ovis depascens herbam, non eam radicitus evellit, sed ita pascit, ut manente radice iterum herba crescat, ut iterum depascatur: ita mors semper depascit miseros, quia semper illis relinquitur vita ut tormenta valeant sustinere.* Nola ardiak ezpaitu behin ere belharra osoki akhabatzen, eta ez erroetarik atheratzen, baiña gaiñeko ostoa ian, eta utzten baitu bethiere barreneko erroa, eta zaiña, berriz ere ostoa eginik, berriz hartarik ian dezakeien bezala: hala herioak, penak, doloreak, minak, eta oinhazeak iaten dute kondenatuetarik, behin ere erroa athera gabe, bizia akhabatu gabe. Halatan bethi ere bizitzen direla, bethi ere penatzeko. Eta hala heken bizitzea ezta bizitze, eta ez heriotzea heriotze. Ezta bizitze, zeren ezpaitu ontasunik, eta ez konsolamendurik. Ezta heriotze, zeren ezpaitu akhabatzerik. Arrazoinekin erraiten da halakoagatik: *Bonum erat ei, si natus non fuisset homo ille* (Mt. 26). On zukeien sorthu ezpaliz, edo sorthu, eta berehala hurtu[179], hondatu, eta ezdeus bihurtu baliz. Zeren San Tomasek dioen bezala: *Melius est non esse, quam male esse* (S. Thom. 39 q. 93 ar. 3 in corpore). Hobe da ez izaitea, gaizki izaitea baiño. Hunen arauaz erraiten du Iondone Ioannes Ebanjelistak ere: *In diebus illis desiderabunt homines mori et mors fugiet ab eis* (Ap. 9). Egun hetan, orduan penetan daudenek, desiratuko dute bere egunen fina, eta akhabantza, hil nahiko dute: herioaren bilha ibiliko dira, baiña alferrik, eztute edirenen. Zeren herioak hetarik ihes eginen du, halatan bethiere bizitzen direla, bethiere penatzeko. Zeren penatzea hiltzea baita.

tropelaka

hurtu

akhabantza



§ 5

382 Es preciso decir que es grande la calamidad y desgracia que tienen los que están en el infierno, cuando la cosa que nosotros aquí ahora menos queremos —que es la muerte— es precisamente la que ellos allí más procuran y desean.

Y no es de maravillar que la deseen. Porque se encuentran en sí mismos quemados, deshechos y absolutamente privados de consuelo. Por fuera les quema el fuego y por dentro les atormenta el gusano. Y acerca de este gusano dice el profeta Isaías: "Vermis eorum non morietur" (Is. 66): El gusano de éstos no morirá. Y dicho gusano no es como estos gusanos de aquí, hecho de carne y que vive. Mas aquel consiste en la acusación, remordimiento, tormento, pellizco y reproche de la conciencia; es el sentimiento, pesar y recuerdo que tienen dentro de sí los que están en el infierno; cómo tuvieron fuerzas, posibilidad, facultad y poder para evitar todas esas penas y cómo a pesar de todo, por su falta no las evitaron, por su falta se perdieron; y el tiempo, la ocasión y el aparejo que tuvieron entre manos lo dejaron pasar y perder sin aprovecharlo.

Y así este recuerdo les acusa, les desuella, les deshace, diciéndose cada uno para sí; ¡Ah, perdído de mí!, ¡loco, falto de inteligencia! ¿En qué pensaba yo cuando vivía, cuando tenía en mis manos el destino? Muchas veces se me dijo que diera a cada uno lo suyo; que me reconciliara con el enemigo; que abandonara la costumbre de jurar, que me alejara de la mujer indebida; en fin, que como cristiano me comportara según la norma y el modelo de los Santos Mandamientos de Dios y que, si no lo hacía, me vería en el trance que ahora me veo. Pero yo, cuando se me hablaba así, me reía, no lo creía.

383 Páguelo, pues, ahora, quédeme por siempre, siglo tras siglo, en este lugar de dolor, con tantos dolores y con tantos compañeros de dolor. Porque lo tengo merecido. No sembré; no es razón que recoja. No lo gané; no es razón que lo disfrute. Y mía es la falta; ningún otro tiene parte en ella; no puedo dar a otro ninguna excusa; yo mismo me he perdido.

Estas son las razones de los que están en el infierno, estos son los discursos de dolor que tienen entre ellos. Se acuerdan de cómo por su falta se han vuelto tan miserables. Y este recuerdo les recuece en su interior, les amarga. Y este es el gu-

§ 5

ondiko

382 Erran behar da handia dela ifernuan daudenek duten miseria, eta ondikoa, orai guk hemen gutien nahi dugun gauza, zein baita heriotzea, hek han hura gehienik bilhatzen, eta desiratzen dutenean.

Eta ezta miretsteko, hek han hala desiratzea. Zeren bere baithan erreak, deseginak, eta alde guztiz deskonsolatuak baitaude. Kanpoan suak erratzeintu, eta barrenean harra alha zaie. Eta har hartzaz erraiten du Isaias Profetak: (Is. 66) *Vermis eorum non morietur.* Heken harra ezta ez hemengo har hauk bezala, haragiz egina, eta bizirik dabillana. Baiña hura da konzientziaren akhusamendua, autsikia, alhadura, ximikoa, eranzutea: eta ifernuan daudenek bere baithan duten damua, urrikia, eta orhoitzea, nola izan zuten indar, antze, ahal, esku, eta bothere, pena hetarik guztietarik eskapatzeko: eta nola guztiarekin ere, bere faltaz etziren eskapatu, bere faltaz galdu ziren: eta utzi zuten eskuen artean izan zuten denbora, okhasinoa, eta aparaillua probetxatu gabe iragaitera, eta galtzera.

autsiki alhadura

antze

probetxatu

Eta hunela orhoitze hunek akhusatzeintu, larrutzeintu, desegiteintu, erraiten duela bat bederak bere baithan: Ha ene galdua, ene zoro adimendu gabea, zertan pensatzen othe nuen nik, bizi nintzen denboran, neure burua neure eskuko nuenean? Anhitzetan erran zeitan, nori berea bihur niazola; etsaiarekin adiskide nendilla; iuramentu egiteko usantza utz nezala; behar etzen emazteari aparta nengiola; finean giristino bezala Iainkoaren manamendu sainduen arauaz, eta ereduz mantena nendilla, eta ezpere orai naizen egitekoan izanen nintzela. Baiña, nik hunela erraiten zeitanean, irri egiten nuen, eznuen sinhesten.

mantenatu

ezpere

mende


383 Bada orai paga dezadala: lekhu dolorezko hunetan, hunenbat dolorerekin, eta dolorezko lagunekin, mendez mende, sekulakotzat geldi nadilla. Zeren hala dut merezi. Eznuen erein, ezta arrazoin bil dezadan. Eznuen irabazi, ezta arrazoin goza dezadan. Eta neurk dut falta, eztu bertzek parterik: ezin demaiot bertzeri atxakiarik, neurk neure burua galdu dut.

atxakia

neurk

perpaus

Hauk dira ifernuan daudenen solhasak: hauk dira heken arteko dolorezko perpausak. Orhoitzen dira, nola bere faltaz hain on-behar errendatu diren: eta orhoitze hunek bere baithan egosteintu, malenkoniatzeintu. Eta



sano que les atormenta y les atormentará de día y de noche, sin hartarse jamás, sin dejarles en paz, o sea, un arrepentimiento inútil, un pesar tardío, lamento y llanto; el cual es una de las grandes penas que tienen los que están en el infierno.

Porque, ¿qué pena más penosa ni desgarro más desgarrador puede haber que el verse perdido por siempre jamás, sin remedio, y verse perdido por su culpa y acordarse de ello? ¡Oh, recuerdo triste, penoso y sin esperanza de salir de tales penas!

QUE LOS QUE ESTAN EN EL INFIERNO NO TIENEN ESPERANZA ALGUNA DE SALIR DE ALLI

CAPITULO LVIII

384 Grandes y espantosas son estas penas del infierno. Y todavía, si hubiera esperanza de que alguna vez aquellas penas concluirían, se mitigarían, se acortarían, o disminuirían, parece que algún consuelo existiera. Pero tantas penas, tan grandes, y sin término, y sin idea de que tengan término, esto es cosa terrible, esto es lo espantoso, lo digno de considerar atentamente y lo que hace reflexionar. Porque al que no tiene esperanza, el tormento futuro le atormenta tanto como el presente, pues lo ve y lo tiene como presente y como si estuviera sobre sí. Y es que sabe que está destinado a él y que no se acabará.

Aquí ahora, cuando estás asediado por el dolor y el sufrimiento, se encuentra algún modo de alivio y de consuelo. Cuando estás enfermo, te vienen a ver los amigos, y ellos te mitigan un poco el dolor; te viene a visitar el médico y también él te anima. Y sobre todo, vives siempre con la esperanza de que se te aliviará el mal, y esta esperanza te proporcio-

haur da gau eta egun, behin ere ase gabe, sosegatzera utzi gabe, alha zaien, eta alhako zaien harra: probetxu gabeko urrikia, denbora ioanez gerozko damua, dolua eta nigarra: Zein baita, ifernuan daudenek duten pena handietarik bat. Zeren zer ahal dateke pena penagarriagorik, eta bihotz erdiragarri erdiragarriagorik, bere buruaren sekula fingabekotzat, erremediorik gabe galdua, eta bere faltaz galdua ikhustea, eta orhoitzea baiño? Ha orhoitze tristea, penagarria, eta penatarik ilkitzeko esperantzagabea.

erdiragarri

ilki



NOLA IFERNUAN DAUDENEK EZTUTEN HANDIK ILKITZEKO ESPERANTZARIK
KAP. LVIII


384 Handiak eta izigarriak dira ifernuko pena hek. Eta baldin oraiño, pena heken nehoiz akhabatzeko, arintzeko, laburtzeko edo gutitzeko esperantzarik baliz ere: badirudi balizatekeiela zenbait konsolamendu. Baiña hanbat pena, hain handiak, eta finik ez, eta ez finik izaiteko usterik ere, haur da gauza latza, haur da aitzin gibel beha arazitzeko, eta gogoeta eragiteko, pontu izigarria. Zeren esperantzarik eztuena, presenteko penak bezala, ethorkizunekoak ere penatzen du: hura ere ikhusten du: hura ere presentean bezala, eta bere gaiñean bezala daduka. Zeren baitaki harentzat dagoela, eta eztela akhabatuko.

aitzin gibel

Orai hemen dolorez, eta oinhazez inguratua zaudenean ere, edireiten da zenbait bide hats hartzeko, eta konsolatzeko. Eri zarenean, ethortzen zaizkitzu adiskideak ikhustera, eta hek aphur bat gaitza arintzen deratzute. Midikua bisitatzera, hark ere esportzatzen zaitu. Eta guztien gaiñetik bethiere bizi zara, gaitza arinduko zaitzulako esperantzan, eta esperantza hark konsolamen-

midiku

bethiere



na gran consuelo. Pero en la enfermedad del infierno, en las penas de allí, de tal manera están las puertas de la esperanza cerradas y los puertos tomados, que los pacientes y los que allí están no ven por ningún lado ninguna luz que les inspire consuelo. "Clausa est ianua"; para los tales se ha cerrado la puerta de la misericordia, la de la piedad, la de la intercesión, la del mérito, la de la gracia; en fin, la de todos los bienes.

El *rico avariento*, desde el infierno donde estaba quemándose, comenzó a clamar y a pedir a Abraham, diciéndole: ¡Padre Abraham! Ya ves cómo me encuentro, abrasado en este fuego, acartonado y desecado. Ten, pues, misericordia de mí; y envíame a Lázaro, para que él, con la punta del dedo mojada en agua, me toque en la lengua, me refresque un poco. Esto es lo que pido; ésta es mi súplica.

¿Qué súplica más insignificante o ruego más pequeño podía hacerle? No se atrevió a pedirle le enviara una jarra de agua, o que metiera toda la mano en el agua, ni aun todo el dedo. Mas todo su deseo era que metiera la punta del dedo en agua, y que con ella tocara la lengua: que le hiciera este gusto. Cosa pequeña era, deseo bien simple. Pero por más pequeño que fuese, no lo consiguió, no se le dio ese gusto. A fin de que sepamos que una vez llegados allí se le han cerrado las puertas aun al placer más pequeño y al consuelo más insignificante.

385 El que cae en alta mar, agita las manos queriendo asirse a algo, las cierra; pero en vano. Porque no encuentra otra cosa que agua engañosa, que resbala y se le escapa. Pues esto mismo les acontece a los que caen en el infierno anchuroso y sin fondo. No hallan dónde asentar el pie; no hallan a qué asirse, no hallan un mango, un lugar para las manos, un sostén, ni un motivo de consuelo ni esperanza alguna.

Yo quisiera que prestaras atención a esta falta de consuelo, a esta carencia de fin y de esperanza de tener fin. Quisiera que miraras a esto, que consideraras esto. Y *así como cierta clase de animales* rumian por la noche, tú también rumiaras y reflexionaras sobre este punto, por lo menos algunas veces.

Y para esto considera el trabajo que sufre el enfermo en la noche larga, particularmente cuando la

du handia emaiten deratzu. Baiña ifernuko eritasunean, hango penetan, halako moldez daude esperantzaren atheak hertsiak, eta portuak hartuak, non hala dauden dolorezkoek eta han daudenek, ezpaitute nehondikan ere konsolamenduaren sartzeko argirik ikhusten. *Clausa est ianua.* Hertsi da halakoentzat miserikordiaren athea, urrikalmenduarena, garaziarena, finean ontasun guztiena.

garazia

Aberats abariziosa, ifernutik, erratzen zegoen lekhutik, hasi zeikan oihuz, eta othoitzez Abrahani, erraiten zioela: Aita Abrahan, badakusazu nola nagoen, su hunetan errea, eta idor elkhortua, euzu bada nitzaz miserikordia: eta egor iazadazu Lazaro, hark bere erhi puntaz, urean bustirik, mihian utki nazan, aphur bat heza nazan. Eske haur egiten deratzut, haur de ene othoitza.

idor

hezatu

Zer eske eskasagorik, edo othoitz ttipiagorik egin ahal ziazaion? Etzeikan ausartu othoiztera egor ziazola pitxer bat ur, edo esku guztia urean sar zezala, eta ez are, erhi guztia ere. Baiña haren desirkunde guztia zen, erhi punta urean sar zezan, eta hartzaz mihia utki ziazon, plazer hura egin ziazon. Gauza aphurra zen, desirkunde ttipia zen. Baiña hura ere, ttipiago bazen ere, etzuen erdietsi, hainbertze plazer ere etzeikan egin. Iakin dezagun ezen hartaraz gero, den plazerik ttipienari, eta konsolamendurik aphurrenari ere, atheak hertsi zaitztela.

385 Itsas zabalean erortzen denak, badarabiltza zerbaiti lothu nahiz eskuak, hersteintu: baiña alferrik. Zeren eztu linburtzen, eta itzurtzen zaikan ur enganagarririk baizen edireiten. Hala gerthatzen zaie bada, ifernu zabal, hondar gabean, erortzen direnei ere. Eztute edireiten, non oiña fintka: eztute edireiten, zeri lot: eztute edireiten girthaiñik, esku-tokirik, sostengurik, eta ez konsolatzeko biderik, eta ez esperantzarik.

itzuri

ediren


girthain

Bada konsolamendu gabeko, fin gabeko, eta fin izaiteko esperantzarik gabeko pontu hunetan, nahi nuke iben bazinitza begiak, huni beha baziniazo, haur konsidera bazeneza: eta animalia suerte batzuek, gauaz hausnaur egiten duten bezala, zuk ere gauza hunetzaz, zenbait aldiz bedere, hausnaur, eta gogoeta egin bazeneza.

animalia

Eta hunetakotzat, konsidera ezazu, eriak gau luzean iragaiten duen trabaillua, guztiz ere eritasuna zorrotza,

hunetakotzat



enfermedad es aguda y violenta; cómo se revuelve. cómo cuenta las horas; cuán largo se le hace y cómo suspira por la luz. Pues bien: si al enfermo de aquí, esta noche, que tan presto se pasa, le parece tan larga: al que está en el infierno, ¿qué le parecerá aquella noche larga, oscura, espantosa, sin aurora, sin canto de gallo, que nunca amanecerá ni tendrá fin? ¿Qué tormento, qué dolor y aflicción ha de dar el estar acostado para siempre, no como los enfermos de aquí en cama caliente y buena, sino en un horno rusiente y ardiente, sobre un combustible duro, en medio de aquella noche que no ha de tener amanecer?

Con razón pregunta el profeta Isaías: "Quis habitabit de vobis cum igne devorante? Quis habitabit de vobis cum ardoribus sempiternis?" (Is. 33): En semejante lugar, en un fuego tan cálido, en la llama eterna, ¿quién podrá estar?, ¿quién vivirá?, ¿quién podrá perseverar?, ¿quién tendrá espalda para sostenerlo, fuerza para resistirlo?, ¿y aguante y paciencia para sufrirlo? Ahora aquí el más insignificante dolor, un poco de fuego te afecta, te trastorna; ¿qué será, pues, cuando estés tomado y circundado por el fuego y las llamas tanto fuera como dentro, en el alma y en el cuerpo, incandescente y hecho de fuego como un hierro rusiente? ¿Y cuando tengas que estar así por siempre jamás? ¿Es que tenemos seso?, ¿tenemos juicio?, ¿o es que son cuentos, sueños o mentiras estas cosas, o no rezan con nosotros?, ¿se refieren a nosotros o a otro alguno? La Fe nos dice que se refieren a nosotros, que rezan con nosotros, que son nuestras y para nosotros. Y que no son cuentos, ni sueños, ni mentiras; sino verdades y que son cosas que de verdad tendremos que pasar (si no nos portamos mejor) o, hablando mejor, cosas que sin pasar nunca han de estar con nosotros perpetua y establemente.

386 Porque estos tormentos tienen aún sobre todos los otros tormentos esta agravante: que siempre se mantendrán en el mismo estado, en la misma situación, en la misma manera, siempre verdes. No se marchitan, ni disminuyen, ni mudan ni cambian. Las cosas de este mundo nunca permanecen en un punto; se elevan y caen, se hacen y deshacen, con frecuencia se cambian. El mar tiene sus alternativas, sus mareas y mudanzas. Las personas, los ganados, las casas, los bienes y aun las enfermedades jamás permanecen en el mismo ser. No hay fiebre

180 *Art-urratze.* Hala lehen edizioan. Bigarrenean *argi-urratze.*

iraulkatu

eta bortitza denean: nola irautkaïzen den: nola orenak kontatzen dituen: zein luze iduritzen zaitzan, eta nola argia desiratzen duen. Bada baldin hemengo eriari, hemengo gaua, hain fite iragaiten dena, hain luze iduritzen bazaika: Zer idurituko zaika ifernuan dagoenari, hango gau luze eterno, fin gabeko hura? Ha gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze[180] gabea, oillariterik izanen eztuena, sekulan argituko eztena, eta ez akhabatuko! Zer pena, zer dolore, eta ondiko izanen da, argituko ezten gau hartan, ez hemengo eriak bezala, ohe bero onean, baiña labe gori beroan, sugina gogorrean sekulakotzat etzatea, eta egoitea? Arrazoinekin galdegiten du Isaias Profetak: *Quis habitabit de vobis cum igne devorante? Quis habitabit de vobis cum ardoribus sempiternis?* (Is. 33). Halako lekhuan, hain su beroan, gar eternalean, nor egonen da? Nor biziko da? Nork iraunen du? Nork izanen du sorbaldarik sostengatzeko? indarrik iasaiteko? Eta pairurik, eta pazientziarik sofritzeko? Orai hemen, den penarik ttipiena, su ihar batek, kilikatzen zaitu, asaldatzen zaitu, zer izanen da bada, suz eta kharrez, kanpoan eta barrenean, ariman eta gorputzean hartua, inguratua, eta burdin goritua bezala, goritua, eta sutua zaudenean? eta sekulakotzat hala egon beharko duzunean? Othe dugu zentzurik? Othe dugu zentzurik? Othe dugu adimendurik? Ala elheak, ametsak, edo gezurrak, othe dira hauk? Edo gurekin mintzo othe dira? Guri othe dagozkigu, ala bertzeri? Fedeak erraiten deraku guri dagozkigula, gurekin mintzo direla, gureak, eta guretzat direla. Eta eztirela ez elheak, ez ametsak, eta ez gezurrak: baiña egiak, eta egiazki (baldin hobeki gobernatzen ezpagara) iragan beharko ditugunak direla. Edo hobeki minzatzera: behin ere iragan gabe, bethiere egoitzaz, gurekin egonen direnak direla.

art-urratze oillarite

ondiko

pairu


egoitza

386 Zeren oraiño, pena hek, bertze penén artean, izanen dute pena haur ere gehiago, egonen baitira bethiere estatu batetan, egoitza batetan, molde berean, bethi berde. Ezta ihartzerik, ezta ttipitzerik, ezta muthatzerik, eta ez aldatzerik. Mundu hunetako gauzak eztaude behin ere krozka batean, igaiten, eta iautsten dira: egiten, eta desegiten dira, maiz aldatzen dira. Baditu itsasoak bere gora beherak, bere mareak, eta muthantzak. Presunak, haziendak, etxeak, onak, eta eritasunak ere, eztaude behin ere batetan. Ezta sukharrik hain handi-

estatu

krozka

marea



tan grande, que después de subir a un cierto grado, no baje ni disminuya; ni dolor tan agudo y violento que una vez subido al máximo, no se mitigue y suavice. En suma, todos los trabajos y contratiempos del mundo, a una con el tiempo, se quiebran, se apagan, se reducen a la nada; mas no así el fuego y el tormento del infierno. Es el mismo tormento, y no otro distinto, que se mantiene siempre verde, siempre en su ser, que no se muda. La fiebre y el calor de allí no se apacigua nunca, ni desciende; siempre se mantiene en el máximo y en el estado anterior. ¿Qué tormento puede haber mayor y más aflictivo que el estarse penando quieto, siempre en el mismo sitio y de la misma forma, sin moverse, sin cambiarse ni mudarse, como petrificado?

Aún el manjar más estimado del mundo, cuando se come siempre de él, sin cambiar a otra cosa, es rechazado, repugna. No podía darse entre nosotros mejor alimento ni manjar más exquisito que aquel que el mismo Dios dio desde el cielo a los hijos de Israel. Mas porque comían siempre de él, sin cambiar a otra cosa, les repugnó tanto que, al comerlo, les producía ganas de devolver.

Y así, ¿qué pena no sería el estarse en una cama buena, sin jamás moverse, sin revolcarse a una parte o a otra, el estarse siempre quieto y acostado?, ¿quién lo podría sufrir? Pues si el que por largo tiempo está en el mismo lugar, por bien que esté, se adolora y se cansa, ¿qué será del que está en el tormento eterno, en el fuego que no tiene término?

§ 1

387 Si quieres saber qué es eso del fuego eterno, fuego que no se acabará: los desgraciados que lo experimentan son los que lo saben, y no otro alguno. Si preguntaran ahora a Judas: —Dime, discípulo malvado, que vendiste a tu Maestro: ¿cuánto tiempo hace que estás ahí dentro, en esas penas del infierno? Podría responder: —Hace mil y seiscientos años y más. —Y entonces, cuando por primera vez viniste a estas penas, ¿qué es lo que debías? —Pena eterna, que no se acabará. —Y de aquí a otros mil y seiscientos años, ¿qué es lo que deberás? —Lo mismo entonces también, como al principio: pena eterna, que no se acabará.


Ni avanza ni retrocede; siempre está en el mismo estado, en el mismo punto. La renta e interés de la obligación del infierno no se amortiza ni paga

beheititu rik, non pontu batetara iganez gero, ezpaita beheititzen, eta ttipitzen: eta ez oiñhazerik ere hain zorrotzik, eta bortitzik, gorenera denean, ematzen, eta eztitzen eztenik. Finean, munduko trabaillu guztiak, eta egitekoak, iraungi denborarekin batean, hautsten dira, iraungitzen dira, ezeztatzen dira: baiña ez ifernuko sua eta pena. Pena hura bera da, eta ez bertzerik bethi berde, estante batean dagoena, muthatzen eztena. Hango iabaldu sukharra, eta berotasuna, ezta behin ere iabaltzen, eta ez beheititzen, bethi dago goren pontuan, eta leheneko kontuan. Zer ahal dateke bada tormenta handiagorik, eta nekhagarriagorik, bethiere lekhu batetan, eta molde berean higitu gabe, aldatu gabe, eta muthatu gabe, harritua bezala, penatan, geldi egoitea baiño? Munduko ianharirik preziatuena ere, bethiere hartarik, bertzetara aldatu gabe, iaten denean, gaitzesten da, higuintzen da.

Ezin zatekeien gure artean ianhari hobeagorik, eta ez bianda gozoagorik, Iainkoak berak Israeleko semei zerutik eman zerauena baiño. Ordea zeren hartarik beretik, bertzetara aldatu gabe, bethiere iaten baitzuten, goragale hain higuindu zeien, non iaterakoan gora-gale bat ethortzen baitzeien. Eta hala ohe on batean ere, behin ere higitu gabe, alde batera edo bertzera itzuli gabe, bethi geldi egoitea, eta etzatea ere zer pena lizate? Nork paira lezake? Bada baldin denbora luzeaz lekhu batean dagoena, ongi badago ere, penatzen eta nekhatzen bada, zer izanen da pena eternalean, su fin gabekoan dagoenaz?

§ 1

387 Nahi baduzu iakin zer den su fingabekoa, akhabatuko ondikozko eztena, frogatzen duten ondikozkoek dakite, eta ez bertzek. Baldin galdegin baliazote orai Iudasi: Errazu, diszipulu gaixtoa, zeure nabusiaren saltzaillea, zenbat denbora du, barren horretan, ifernuko pena horietan ihardetsi zaudela? Ihardets lezake: Badu milla, eta seietan ehun urthe, eta gehiago. —Eta orduan lehenbizi pena horietara zinenean, zer zor zenduen? —Pena eternala, akhabatuko eztena. —Eta hemendik bertze milla, eta seietan ehun urtheren buruan, zer zor izanen duzu? —Orobat orduan ere, hastean bezala, pena eternala, akhabagibelatu tuko eztena. Ezta aitzinatzen, eta ez gibelatzen, bethi dago egoitza batean. Krozka batean. Ezta behin ere ifer-



jamás; siempre subsiste la deuda principal con el interés.

Y aunque los que están en el infierno padecen tantas penas, y parece que con ellas pagan o debieran pagar algo; con todo, de hecho no pagan, siempre siguen debiendo lo mismo. Porque como están obstinados, endurecidos y cegados en la mala voluntad y malicia, y aun la pena que padecen, no la padecen voluntariamente sino forzados, y el tiempo hábil para pagar y merecer ya se les pasó, Dios no les toma nada en cuenta. Perpetuamente, como si antes no hubiera transcurrido nada, está comenzando su pena. Al cabo de cientos de miles de años estarán tan lejos de pagar, como en el primer día y hora en que entraron.

Actualmente con una pequeña molestia, con un dolor de corazón, con una confesión sincera puedes remediar todos tus pecados. Porque ahora las puertas de la misericordia de Dios están abiertas, y tu voluntad actualmente es libre y libremente la puedes volver al otro lado —del mal al bien—. Pero una vez ido al infierno, la libertad ha perdido su fuerza; el entendimiento se ha cegado; la voluntad se ha endurecido; se acabaron las ferias del alma; se cerraron las puertas de la misericordia.

388 Los ángeles malos, cuando cayeron en pecado, quedaron endurecidos en la maldad y condenados para siempre sin remedio; de la misma manera los que mueren en pecado quedan después de la muerte excluidos para siempre de remedio. "Si ceciderit lignum ad Austrum aut ad Aquilonem, in quocumque loco ceciderit, ibi erit" (Eccl. 11): El árbol, según sea a dónde caiga —sea a la parte del viento solano o a la del vendaval; a la derecha o a la izquierda—, allí donde cae, allí se queda, no se mueve de allí. Tampoco el pecador que cae al infierno, se levanta más, ni le queda esperanza de levantarse.

Si un ángel dijese de parte de Dios a los que están en el infierno: —Ea, gentes adoloridas, dadme albricias, quiero daros una buena nueva. —¡Ah, señor, di cuál, porque buena falta nos hace. —Habéis de saber que cuando hayáis estado padeciendo esas penas tantos años cuanto es el número de granos de maíz que puede contener todo el mundo, comenzando desde la tierra hasta el cielo, entonces saldréis de ahí, entonces concluirán vuestros dolores... O si les dijera, igualmente de parte de Dios:

nuko obligantzaren zensua eta interesa iraungitzen, eta ez pagatzen; bethi da zor prinzipala interesarekin.

Eta nola ifernuan daudenek hanbat pena iragaiten baitute, eta pena hetzaz zerbait pagatzen dutela, edo pagatu behar luketela badirudi ere: eztute ordea pagatzen, bethiere dute orobat zor. Zeren nola borondate gaixtoan eta malizian ostinatuak, gogortuak, eta itsutuak baitaude, eta iragaiten duten pena ere, ez borondatez baiña bortxaz iragaiten baitute: eta pagatzeko, eta meritu erdiesteko denbora ere iragan baitzaie, ezteraue Iainkoak deus ere hartzen kontutan. Bethiere, lehen deus iragan ezpailliz bezala, hasten zaie bere pena. Ehun milla, milla urtheren buruan, hain urrun egonen dira pagatzetik nola lehenbiziko sarthu ziren egunean, eta orenean.

ostinatu

Orai hemen pena aphur batez, bihotzezko urrikimendu batez, egiazko konfesione batekin erremedia ditzakezu zeure bekhatu guztiak. Zeren orai Iainkoaren miserikordiaren atheak idekiak baitaude: eta zuk ere orai zeure borondatea libre baituzu, eta libreki bertze aldera, gaixtotik onera itzul baitezakezu. Baiña ifernuraz gero, galdu du libertateak bere indarra: itsutu da adimendua, gogortu da borondatea, akhabatu dira arimako feriak, hertsi dira miserikordiaren atheak.

konfesione


aingiru **388** Aingiru gaixtoak bekhatutan erori zirenean, gelditu ziren malizian gogortuak, eta erremediorik gabe sekulakotzat galduak: hala gelditzen dira bada bekhatutan hiltzen direnak ere, hil ondoan sekulakotzat erremediotik kanpoan. *Si ceciderit lignum ad Austrum, aut ad Aquilonem, in quocumque loco ciderit ibi erit* (Eccl. 11, 3). Zuhaitza norat ere erortzen baita, nahiz iguzki haizerat edo mendebalerat: eskuiñerat edo ezkerrerat, erortzen den lekhuan gelditzen da, ezta handik higitzen: ez eta, behin ifernura erortzen den bekhatorea ere, ezta gehiago iaikitzen, eta ez iaikitzeko esperantzarekin gelditzen.

mendebal

higitu

Baldin Aingiru batek erran baliaze Iainkoaren partez ifernuan daudenei: Ea, iende penatuak, indazue albiriste, berri on bat eman nahi deratzuet. Ha, iauna, errazu zer? Zeren beharrean gaude. Iakin behar duzue ezen lurretik hasi, eta zeruraiño, mundu guztiak eduki ahal dezakeien artho bihi kontu bezenbat urthez, pena horietan egon zaretenean, iltkiko zaretela hortik, orduan zuen penak akhabatuko direla. Edo erran balekie

albiriste



—Sabed que cuando una hormiga, bebiendo una sola vez al año hasta saciarse, llegue a secar, agotar y a acabar toda el agua del mar y todas las demás aguas del mundo, se acabarán también esos tormentos vuestros de ahí. Si así se les dijera, se alegraran, se animaran; de allí en adelante no tendrían ni la mitad de pena que antes. Porque con la esperanza de un futuro indeterminado podrían consolarse. Y con razón podrían consolarse. Porque durante más años estarán y tendrán que estar padeciendo esas penas que los cientos de miles de granos de maíz que la tierra puede contener. Y una hormiga, bebiendo una sola vez de mil en mil años, agotaría, secaría y acabaría todas las aguas del mundo —incluyendo el mismo mar— antes que se acaben las penas de aquellos. Porque por poco que sea, lo que siempre disminuye y jamás aumenta, alguna vez tiene que acabarse; mas no así la pena del infierno, ésta no se acabará jamás. Porque en duración y largura es sin fin e infinita.

§ 2

389 Cuando me pongo a pensar qué es lo que sucederá con la dicha pena del infierno, cuándo concluirá; y al no poder verle fin, al no poder hallarle término, al no poder tocar fondo, me suelo quedar vencido, rendido, no sabiendo dónde estoy. Porque de la misma manera que Dios no tendrá fin ni término, tampoco lo han de tener las penas del infierno. Ellas han de durar mientras dure Dios.

¡Ah, mundo loco!, ¡cristiano ciego, insensato! Tú que tanto caso haces y tanto te preocupas de un pequeño dolor de aquí, de una dolencia y aflicción de una hora; haz asimismo algún caso y repara en esa existencia sin fin; acuérdate de aquella eternidad para siempre siempre, de aquel "perpetuamente", privado de esperanza; y acordándote de ello, abandona los aplazamientos, el diferir la conversión, deja los malos propósitos y maldades.

Puede imaginarse que los que están en el infierno durante miles de años después de haber estado penando y viendo que de su padecer no sacan provecho alguno, entristecidos y mohinos hablarán a Dios y le dirán: —¿Qué es esto, gran Dios? ¡Dónde está tu misericordia, compasión y piedad? ¿Cómo es que tienes un corazón tan duro y de acero? ¿Hasta cuándo hemos de estar tan adoloridos en es-

181 *Milla urthetarik milla urthetara.* Kasu mugagabeari.

182 *Sekula sekula gabeko sekula hartzaz.* Ohar zakizkio *sekula* hitzaz egiten duen jokoari.

183 *Pietate. Axular-en Hiztegia*-n ez zen jaso hitz hau.

halaber, Iainkoaren partez: Iakizue ezen itsasoko ur guztia, eta munduko bertze ur guztiak xinhaurri batek, urthean behin, bere asea edanez. xutka, agor, hondar, eta akhaba ditzanean, akhabatuko direla zuen horko penak ere. Hunela erran balekie, alegera litezke, esportza litezke, ezlukete handik aitzina, leheneko penaren erdia. Zeren noizbaiteko esperantzarekin konsola bai litezke. Eta arrazoinekin konsola litezke. Zeren lurrak, ehun milla millaren ere, eduki ahal dezakeien artho bihi kontu baino, urthe gehiago egonen baitira, eta egon beharko baitute pena hetan. Eta xinhaurri batek ere, milla urthetarik milla urthetara[181] behin edanez, lehen agor, xuka, eta akhaba baillitzake munduko ur guztiak, itsasoa bera barrenean dela, heken penak akhabatuko diren baiño. Zeren den gutienaz ere, bethi gutitzen dena, eta ez behin ere berretzen, noizbait akhabatuko da: baiña ez ifernuko pena, ezta sekulan akhabatuko. Zeren irautez, eta iraupez baita fin gabe, eta infinitu.

xinhaurri
xutkatu
berretu
Iraupe

§ 2

389 Gogoetan iartzen naizenean, zer izanen den ifernuko pena hartzaz, noiz akhabatuko den; eta finik ezin ikhus, akhabatzerik ezin ediren, hondarrik ezin erdiets, gelditzen naiz benzutua, errendatua, non nagoen eztakidala. Zeren nola Iainkoak ezpaitu izanen finik, eta ez akhabatzerik: hala ifernuko penék eze eztute izanen finik, eta ez akhabatzerik. Zeren iraunen baitute Iainkoak dirauen bitartean.


benzutu

Ha mundu zoroa, giristino itsu, adimendu gabea: hemengo pena aphur batez, oren batetako minaz, eta oinhazeaz, hanbat kasu, eta kontu egiten duzuna, egizu halaber zerbait kontu, eta gogoeta fin gabeko mende hartzaz ere; orhoit zaitezi sekula, sekula gabeko, sekula[182] hartzaz: esperantza gabeko, bethiere hartzaz: eta orhoiturik, utzkitzu luzamenduak, gerotik gerora ibiltzeak, pensu gaixtoak, eta maliziak.

aphur (adj.)
gogoeta
pensu

Ifernuan daudenek anhitz milla urthez, pena hetan egonez gero, ikhusirik bere pena iraganez eztutela bat ere probetxurik: konsidera ahal diteke, ezen bere gogoetan tristerik, eta ilhunik, minzatuko zaitzala Iainkoari, eta erranen diotela: Zer da haur, Iainko handia, non da zure miserikordia, urrikalmendua, eta pietatea?[183] Nolatan duzu horrein bihotz gogorra eta alzairuzkoa? Noiz arteiño egonen gara hunein penatuki, lekhu penatu hu-

alzairuzko



te lugar de dolores? ¿Cuándo juzgarás que ya basta de tenernos a nosotros así? Son muchos miles de años, muchos siglos que estamos aquí. ¿Qué será, pues, de nosotros? ¿Cuándo saldremos de aquí?

Se les contestará: ¡Ah, perdidos, que no merecéis bien alguno ni lo habéis de conseguir, que estáis excluidos de todo remedio! ¿Preguntáis qué será de vosotros? ¿Cuándo saldréis de ahí? Esperad todavía un poco; pronto os habéis cansado. Debéis saber que vuestras penas y dolores comienzan todavía ahora; y que de aquí a otros tantos años, igualmente, estarán entonces comenzando. Perded, pues, perded la esperanza de salir de ahí. Porque habréis de estar ahí por una eternidad sin fin.

390 Cuando oigan esta respuesta, tan fría, tan tajante y dura, ¿quién puede pensar qué es lo que harán y dirán?, ¿qué sentimiento manifestarán? Empezarán a clamar, empezarán a gritar, a llorar y a proferir alaridos; empezarán a lamentar y a deplorar su gran infortunio; empezarán a maldecirse a sí mismos, a desollar y a arañar las caras. Y se quedarán completamente apesadumbrados, desesperanzados, desconsolados y desesperados, como queda uno que por ningún lado tiene remedio, consuelo ni esperanza.

¿Y por qué es esto así?, ¿por qué tanto mal y dolor?, ¿y dolor sin fin, sin término y sin esperanza de tener fin? ¿Por qué? Por un pecado mortal, que se realiza tan fácil, brevemente y en tan poco tiempo. En tan poco, que parece que Dios comete una injusticia con el pecador, al darle un castigo eterno por un pecado que se ejecuta en un instante. Pero no comete injusticia, como se verá en el capítulo subsiguiente.

184 *Gal ezazue gal.* Kasu esateko moldeari.

netan? Noiz asko etsiko duzu gure hunela edukitzea? Anhitz milla urthe, anhitz mende du, hemen gaudezilla. Zer izanen da bada gutzaz? Noiz iltkiko gara hemendik? Ihardetsiko zaie: Ha galdua!, ontasunik merezi eztuzuenak, eta izanen ere eztuzuenak, erremediotik kanpoan zaretenak. Galdez zaudete zer izanen den zuetzaz: noiz iltkiko zareten hortik. Igurikazue oraiño aphur bat, goiz urgoitu zarete. Iakin behar duzue ezen, zuen penak, eta doloreak, oraiño orai hasten direla: eta hemendik bertze horreinbertze urtheren buruan ere, orobat, orduan hasiko direla. Gal ezazue gal![184], hortik ilkitzeko esperantza. Zeren sekula fin gabekotzat hor egon beharko duzue.

horreinbertze


390 Errepuesta haur, hunein hotza, motza eta gogorra enzun dezatenean, nork pensatuko du, zer eginen eta erranen duten? Zer sentimendu erakutsiko duten? Hasiko dira oihuz, hasiko dira deihadarrez, nigarrez eta marraskaz: hasiko dira bere ondiko handiaren deithoratzen eta auhentzen: hasiko dira bere buruen maradikatzen, begitartén larrutzen eta atzaparkatzen. Eta geldituko dira alde guztiz dolutuak, etsituak, deskonsolatuak eta desesperatuak, nehondikan ere erremediorik, konsolamendurik eta esperantzarik eztuen bat, gelditzen den bezala.

deihadar
ondiko
auhendu
atzaparkatu

Eta zergatik haur hunela? Zergatik hunenbat gaitz eta pena? Eta zergatik fin gabe, akhabantzarik gabe, eta akhabantzaren izaiteko esperantzarik ere gabe? Zergatik? Bekhatu mortal batengatik. Zeren asko da bat. Bekhatu mortal hain erraxki, laburzki eta denbora gutitan egiten den batengatik. Hain gutitan, non baitirudi ezen bidegabe egiten dioela Iainkoak bekhatoreari, buruitzultze batez egiten den bekhatuagatik, sekulako gaztiguaren emaiteaz. Baiña eztio bidegaberik egiten, hunen hurreneko kapituluan ageriko den bezala.

buru-itzultze





A VER POR QUE SE LE DA UN CASTIGO TAN GRANDE, LARGO Y ETERNO AL PECADO QUE SE REALIZA EN UN TIEMPO TAN BREVE Y CORTO

CAPITULO LIX

391 Es verdad: parece que se hace injusticia al pecador al darle un castigo tan prolongado por un pecado que se comete en tan poco tiempo. Pero bien pensadas y consideradas todas las razones, hallaremos que en ello no se le hace injusticia alguna. Y que, al contrario, con toda justicia y derecho se le da pena perdurable y pena infinita aun al pecado mortal más pequeño.

No infinita, "intensive", en intensidad. Porque tal pena no la puede padecer la creatura. Pero sí infinita, "extensive", en el durar y en duración, es decir, que no se acabará jamás.

Da razones de ello Santo Tomás en su tercera parte. He aquí la primera. Al pecado que se comete en poco tiempo y brevemente, se le da un castigo eterno, "quia peccatum est contra Deum, summum bonum, quod est infinitum" (S. Thom. 3 p. q. 99, art. 1): porque el pecado es contra Dios, el cual es infinito. Por lo mismo se le debe dar un castigo que sea también infinito y que no se acabará.

Si el que da una bofetada a un rey de la tierra merece un castigo mayor que el que se la da o otro cualquiera; con razón merecerá un castigo grande el que se la da al mismo Dios —Rey de todo el mundo—, como lo hace —en cuanto de él depende— el pecador, cuando comete un pecado mortal.

Y en cuanto a esto también aquí —de conformidad con las leyes humanas— se suele dar muchas veces un castigo grande y largo a una falta que se comete en poco tiempo (por ejemplo al robo, homicidio u otro crimen) castigándola con el destierro, las galeras y, a veces, con una muerte dolorosa.

392 Todavía más: para evidenciar esta verdad, miremos bien al pago y a la satisfacción que se hizo por el pecado del hombre; y hallaremos que con razón se da un castigo eterno al pecado que se comete en poco tiempo. Porque para pagar el pecado en su línea y totalmente "—ad aequalitatem justitiae—", según justicia e igualdad, fue preciso que lo pagara una persona infinita, que era Dios y hom-

EA ZERGATIK HAIN DENBORA APHURREAN ETA LABURREAN EGITEN DEN BEKHATUARI, EMAITEN ZAIKAN HAIN GAZTIGU HANDIA, LUZEA ETA SEKULAKOA

KAP. LIX

391 Egia da, badirudi bidegabe egiten zaikala bekhatoreari, hain denbora gutitan egiten den bekhatuagatik hanbat denboratako gaztiguaren emaiteaz. Baiña arrazoin guztiak ongi pensaturik eta konsideraturik, edirenen dugu, eztela hartan bidegaberik egiten. Aitzitik iustuki eta zuzentki, den bekhatu mortalik ttipienari ere, emaiten zaikala sekulako pena, eta pena infinitua. Ez infinitua *intensive*, bortitztasunez. Zeren halako pena ezin iasan dezake kreaturak. Baiña infinitua *extensive*, irautez eta iraupez, zein baita sekulan akhabatuko eztena.

aitzitik

bortitztasun

Eta emaitentu arrazoiñak San Tomasek bere hirurgarren partean. Eta emaiten du lehenbizikoa.

laburzki

Denbora gutiz eta laburzki egiten den bekhatuari, emaiten zaika sekulako gaztigua. *Quia peccatum est, contra Deum summum bonum, quod est infinitum* (S. Thom. 3 part. q. 99 art. 1). Zeren bekhatua baita Iainkoaren kontra, zein baita infinitu. Beraz gaztigua ere eman behar zaika infinitua eta akhabatuko eztena.

Baldin lurreko Errege bati behar-ondoko bat emaiten dioenak gaztigu handiagoa merezi badu, edozein bertzeri emaiten dioenak baiño; zinez mereziko du gaztigu handia, Iainkoari berari, mundu guztiko Erregeari, emaiten dioenak. Nola bekhatoreak, bere aldetik denaz bezanbatean, emaiten baitio, bekhatu mortal bat egiten duenean.

bezanbatean


Eta hunetakotzat, hemen ere, munduko legén arauaz ere, emaiten ohi zaika, anhitzetan ere, denbora gutiz egiten den faltari, ohoinkeriari, heriotzeari, edo bertze gaixtakeria bati, gaztigu handia eta luzea; desterrua, galerak eta batzutan heriotze penatua ere.

ohoinkeria

desterru

